

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

Fundación BBVA

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

KAPITALISMOA,
SOZIALISMOA
ETA DEMOKRAZIA

JOSEPH A. SCHUMPETER

Kapitalismoa,
Sozialismoa eta
Demokrazia



Euskaratzailea: Xabier Mendiguren Bereziartu
Berrikuslea: Baleren Bakaikoa
Hitzaurregilea: Tom Bottomore

Lehen argitalpena: 2002ko irailean

© Itzulpenarena: Xabier Mendiguren Bereziartu
© Klasikoak, 2002
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren
pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta
trataera informatikoa bane direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren
bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia

2002-X-23

ISBN: 84-88303-20-3
Lege gordailua: BI.-2256-02

Fotokonposaketa: L&A Diseinua
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

Schumpeterren liburua, egileak berak ohartarazi zuenez, sozialismoaren gaiaz ia berrogei urtez egindako gogoeta eta ikerketaren emaitza zen. Haren mezua zen, jatorrizko hitzaurrean adierazi zenez, «gizarte-era sozialista bat sortuko da era berean saihestezina den gizarte kapitalistaren deskonposiziotik», baina «Sozialismorako mar-txa» izenburua zeukan geroko artikulua batean, Schumpeterren libu-ruaren hirugarren edizioari gehitu zitzaionean, aldatu egingo zuen zer-txobait iragarpen hain zuzeneko hori. Etorkizuna, era hain zehaztuan, iragartzeko edozein asmori uko egiten zion, eta bere azterketa «joera behagarri»en azterketa gisa definitu zuen, zeinek izan baitzitzaketen askaera desberdinak erresistentzia eta kontrajoera desberdinen inda-rraren baitan, zeinak aurreikustea zaila edo ezinezkoa gertatuko bai-tzen. «Ordena kapitalistak», ondorioztatzen du orain, «bere burua deuseztera jotzen du eta sozialismo zentralista da... segur aski haren ustezko oinordekoa».

Schumpeterrek azterketari ekin zionetik ia berrogei urte geroa-go, zer sinesgarritasun du haren «joera behagarri»en azkerketak? Lehenik, zer eratara jotzen du kapitalismoak bere burua deuseztera? Schumpeterren arabera, ez arazo ekonomiko konponezinak sortzen dituelako. 30. urteetako depresioen azken alderantz idatziz, erabat baztertu zuen kapitalismoaren porrot ekonomiko bat gertatu behar zelako ikuspuntu nagusikoia. Batez ere, indarrez argudiatzen zuen

«inbertitzeko aukera desagertzearen teoria» deitzen zuenaren aurka, zeinaren arabera bai baitago kapitalismoan epe luzerako joera bat ekonomikoki estankatzera mozkinaren tasa beheranzkoaren eta mozkindun inbertsioak egiteko eta enpresarako aukera berririk ez izatearen emaitza gisa. Kapitalismoa, Schumpeterren ikuspuntutik, haren arrakasta ekonomikoengatik hil beharrekoa zen, ez haren porrotengatik, zeren arrakastek giro sozial eta politiko desfaboragarria sortzen baitute, edo haren hitzetan, «etsaikortasun-giro ia unibertsal bat bere orde-na sozial propioarekiko».

Hiru prozesu dira garrantzitsuak ikuspuntu antikapitalista bat sortzeko orduan. Lehenik, ekonomia kapitalistaren garapenak berak azpia jaten dio betekizun enpresarial edo berritzaileari, zeina Schumpeterrek kapitalismoaren ezaugarri funtsezko jotzen baitu, zeren aurrerapen teknologikoak eta enpresa handien administrazio burokratikoak berrikuntza errutinazko auzi bihurtzera jotzen baitute eta komiteen jarduerak eta aditu-ekipoenak ekimen banakoaz ordeztetara. Bigarren, kapitalismoak higatu egiten du bere marko instituzional propioa estratu babesleak suntsituz –aristokrazia txikia, negozio-gizon txikiak, nekazariak eta abar– gizarte-era goiztiarretik biziraun zutenak, eta jabetza banakoa ahulduz jabetza mota lausoago baten mesedetan enpresa modernoan. Hirugarrenik, kapitalismoak jarrera arrazional eta kritiko batera gonbidatzen du, zeina batzuetan bere sistema sozial propioaren aurka bihurtzen baita, eta prozesu horrek bul-tzada sendoa hartzen du intelektual-sustratu zabal baten sorkuntzaren aldetik, zeinek, Schumpeterren arabera, «interes pertsonala baitute egonezin sozialean».

30. urteen amaieratik aurrera doan aldiko gertakariak sostengatu egiten dute nolabait Schumpeterren tesia. Zalantzarik gabe, gerra izan zen kapitalismoa hasi batean depresiotik oneratzen lagundu zuena, baina gerraosteko haren garapenean estankamendu edo bere-halako erortzeko zeinu gutxi izan dira. 70. urteen erdi aldeko atzeratzea bera ere aldi bateko atzeratze gisa agertzen hasi da orain, eta gerraosteko aldian, bere osotasunean hazkunde ekonomiko gisa kontsideratu dena, bereziki bizkorra izan da. Hori hain zen begi-bistakoa 50. eta 60. urteetan, «oparotasunaren gizartea»ren doktrina populartu zenean, non gizarte kapitalistaren kritika erradikala analisi ekonomi-kotik kritika kultural batera mugitzen saiatu baitzen, zeina agian dra-

matismo handiarekin Marcuseren idazkietan adierazia eta 60. urteen azken aldeko mugimendu erradikalen ideietan ageri baitzen. Une horretan lortu zuten eragin ohargarria «iraultza kulturala» eta «kontra-kultura»ren doktrinek, eta intelektualek mugimendu erradikaletan izandako eginkizun garrantzitsuak, pentsa daiteke, ongi bat egiten duela Schumpeterrek beherakada kapitalistaren prozesuko elementu garrantzitsuenetako bati buruz kontatzen duenarekin.

Baina oraindik badaude garrantzizko desberdintasun batzuk. Joan den mendeko kritika erradikalaren parte handi batek, sistema sozial kapitalistaren aurka itzultzen zen arrazionalismo burgesa baino areago, makurtuago ikusi du bere burua nagusikoitasun ideologikoari erronka egitera ikuspuntu arraazionalista batetik, pentsamendu zientifiko eta teknologikoan txertaturik, edozein gizarte industrial-era oso antolatutan, kapitalista zein sozialista dela ere. Eta mugimendu hori, kapitalismoarekiko oposizio orokor gisa hedatu orde, kritika kulturalan konprometituriko intelektual-estratu baten artean banaketa sortzen ahalegindu da, baita hazkunde ekonomikoarekin, eta horregatik ondorengo garapenarekin eta zientzia eta teknologiaren erabilpenarekin, funtsean arduraturik dauden biztanleriako sail zabal batzuen artean ere. Alderdi horretatik, beraz, argudia liteke kapitalismoarekiko etsaikortasun orokorra ez dela hazi eta hedatu, Schumpeterrek espero zuenez, baizik eta kontrolpean eduki dutela, batez ere, garapen ekonomiko bizkorrago batek, hau da, «arrakasta» ekonomiko berriek.

Guztiarekin ere, gerraosteko joerek, batez ere arestiko urteetakoek, beste zalantza batzuk iradokitzen dituzte Schumpeterren analisiari buruz. Sistema ekonomiko kapitalistaren biziratea berrikuntza eta hedapenaren baitan dago, eta argudia daiteke baliabide naturalak kontserbatzeko hazkunde-tasak murriztu behar diren baldintzetan –biztanleria-hazkundearen, energiaren erabilpenaren eta abarren gain mugaketak ezarritik – hedapen hori segur aski gero eta zailagoa bihurtuko dela. Eta kontsiderazio horiei auziak gehi lekizkieke berrikuntza teknologikoaren gertakortasunaz, iraganeko hamarkada gutxietan lortu den urratsean, eta inbertitzeko aukera berrien ahalatasunaz, zeinak gertatu baitira burdinbideen garapenak errazten zuen neurrian, eta ondoren, automobilarenak. Schumpeterrek auzi horietako batzuei heldu zien, baina orain dagoenaren testuinguru zeharo bestelako batean, eta kapitalismoaren ikuspegi ekonomikoen haren ikuspuntuak,

baita bera interesaturik agertzen zeneko berrogei bat urteko erdi-
epeko etorkizun batean bertan ere, baikorregia dela irudi lezake.

Edozein kasutan, kapitalismoaren beherakadak, nahiz eta gerta-
tu, ez dakar berekin gizarte sozialistaren sorrera, ezta Schumpeterrek
daukan sozialismoaren ikuspegia ere...» seguraski haren ustezko oinor-
deko» gisa ere. Argudio batean oinarriturik dago prozesu ekonomiko-
ak bere burua sozializatzea jotzen duelako zentzuarekin. Garapen
sozial modernoaren eskemak, zeinaren barruan gidatzen baitu bere
analisiak, hiru estadio ditu, enpresa-kapitalismo, kapitalismoalismo
antolatua edo burokratiko, eta sozialismo gisa deskriba ditzakegunak.
Estadio batetik besterako igarobidea aldaketa ekonomiko batzuen
ondorio gisa gertatzen da, zeinen artean garrantzitsuenak zientzia
modernoan eta administrazio arrazionallean oinarrituriko enpresa han-
dia sortzen dutenak baitira. Kontuan izan behar da Schumpeterrek
sozialismoa sistema ekonomiko gisa definitzen duela, «eredu institu-
zional bat, zeinean ekoizpen-bideen eta ekoizpenaren beraren kontrola
agintaritzak zentral batez horniturik baitago —edo ...zeinean, printzipioz,
gizartearen gai ekonomikoak esparru publikokoak baitira eta ez pribatu-
koak». Uko egiten dio sozialismoaren helburu kulturali buruzko
edoizien eztabaidari, era adeitsu samarrean «kulturalki sozialismoaren
izaera zehaztugabea» deitzen duena aipatuz. Ondorioz ez dago lekurik
haren analisisan sozialismoa klase-mugimendu gisa kontsideratzeko,
zeina ahalegintzen baita klase-desberdintasunak ezabatzen edo leun-
tzen, eta horrela berdintasun sozial handiago bat eta klase gobernatzaile-
leek ezarritako hertsapenetatik jende-masaren askapen bat lortzen.
Schumpeterri gizartearen berrantolaketa ekonomikoa bakarrik intere-
satzen zaio, eta sozialismoak funtziona ote dezakeen galdetzen duene-
an, esan nahi du ekonomikoki efiziente eta ekoizkorra izan ote daite-
keen.

Mugimendu sozialistaren oso ikuspegi estua da eta haren aniz-
tasun kulturala bapikatzen duena. Bada, inolako zalantzarik gabe,
sozialismo modernoan, formen barietatea gorabehera, ardura nagusi
bat berdintasun soziala eta autonomia indibiduala eta autodetermina-
zioaren arazo aipatuekiko. Bestalde, sozialista gutxik parekatu dute
sozialismoa jabetza publiko zentralizatua eta ekonomiaren plangintza-
rekin, edo auzia termino zabalagoetan jartzeko, sozialismoa ekoizpen-
modu bat bezala bakarrik kontzebitu dute. Esaldi bakar batean ezauga-

rritu beharko balitz sozialismoa egokiago izango litzateke giza askapeneko mugimendu bat bezala deskribatzea, zeinean sistema ekonomikoaren eraldakuntza elementu bat besterik ez baita, eta haren baitan aukera ematen du hautapen desberdinak egiteko sistema mota desberdin baten eraikuntzan. Schumpeterrek daukan demokrazia aztertzeko era, kapitalismoa eta sozialismoarekiko harremanean, estu samarra gertatzen da. Termino ekonomikoetan sozialismoa definitzeko hark duen moduan demokraziaren definizio ekonomiko bat eratzen du, ordenamendu instituzional gisa kontzebitua, merkatua bezala, zeinean talde eta norbanako desberdinek –enpresa eta enpresarioen pareko direnek– hautesleen, «kontsumitzaile» politikoen botoen alde lehiatzen baitira. Schumpeterrek indartsu azpimarratzen du ekonomia eta politikaren arteko analogia hori, ilustrazio-modura aipatuz horri buruz politikari batek egiten zuen oharra: «Negozio-gizonek ulertzen ez dutena da haiiek petrolioarekin tratuan aritzen diren bezalaxe, aritzen naizela ni botoekin tratuan». Demokraziaren teoria hori, gidari politikoak hautatzeko *metodo* bat den heinean, (Max Weberrek bere azken idazki politikoetan ordurako adierazitako ideia) «doktrina klasikoaren» alternatiba gisa aurkezten da, Schumpeterrek baztertzen duena, zeinaren arabera demokraziak ideal politiko espezifikoak hartzen baititu bere baitan hiritarrek bizitza politikoan esku hartzearekiko eta gidari politiko-en eta herriaren arteko harremanen izaerarekiko.

Egia da Schumpeter ez zaiola beti oso hertsiki atxikitzen bere kontzepzioari, asoziazio historikoa, eta kapitalismoaren sorrera eta demokrazia modernoaren igoeraren arteko lotura kausala aztertzean, ekintza arrazional, erantzukizun indibidual, autodiziplina, tolerantziako ideiak, eta horrela hurrenez hurren, sartzen ditu, zeinek doktrina klasikokoak areago direla baitirudite. Hala eta guztiz ere, gidaritza politikoaren aldeko lehiaketa gisa demokrazia kontzebitzea, inolako substantzia definitu gabeko forma gisa xede sozial eta politikoen biderako, zentrala gertatzen da; eta horrek aukera ematen dio Schumpeterri demokraziaren edozein kontsiderazio baztertzeko fenomeno historiko gisa, zeinean garapen eta hedapenerako, edo estankamendu eta beheakadarako joerak egon baitaitezke. Schumpeterrek «funtzionagarria» edo «ez-funtzionagarria» den heinean aipatzen du demokrazia, haren funtzionamenduan mekanismo gisa hobea edo txarragoa den heinean; haren ideia-eskemaren barruan badirudi ez dago-

ela gizarte bat gehiago edo gutxiago demokratikoa den auzia aztertzeko aukerarik.

Guztiarekin ere, gai hori da, demokraziaren hedapena, hain zuzen mugimendu sozialistaren garapen intelektual eta praktikoa oinarritzeko elementu bat izan dena joan den mendean zehar, eta adierazpide berri bat aurkitu du arestiko urteetan «demokrazia esku-hartzaile»aren ideian. Mende honetako klase eta askapen nazionalen borroka guztiek nahi izan dute, era batera edo bestera, gizarte demokratikoago bat sortu, zeinean jende-kopuru handiek, eta bereziki ordu-ra arte baztertuak zeregin zuzenago eta eraginkorrago bat izan behar baitzuten beren bizitzari zegokienez erabakiak hartzeko, bai lantokian, familian, tokiko komunitatean edo maila nazional edo nazioartekoan. Era horietan demokrazia hedatzeak dituen zailtasunak dagoeneko aski agerikoak dira, ez gutxiago gizarte sozialista horietan, zeinetan atzerapen ekonomikoa, agintaritzaren nagusikoiko tradizioak, demokraziaren era liberal goiztiarrik ez izatea eta alderdi bakar monolitiko baten nagusitasunak, denek herriaren benetako autogobernua segurtatzeko luketen instituzioak ezartzearen aurka jokatu baitute gizarte-bizitzako esparru desberdinetan.

Halaber, gerta daiteke, Schumpeterrek iradoki zuenez –eta sozialismoaren kritikari askok jarraitu diote gero argudio-lerro horretatik– plangintza ekonomikoa zentralizatua gaur egun esku hartze demokratikoaren aurkakoa delakotik eta botere-kontzentrazio oso handi bat sortzera jotzen duela gidari eta plangile politikoen eskuetan, zeinahi direlarik ere haiek hautatzeko erabilitako bitartekoak.. Baina hemen Schumpeterrek ezartzen duen merkatu-ekonomiaren eta sozialismo zentralistaren arteko kontrastea (edo arestikoagoak diren idazleen hizkeran, merkatu-ekonomiaren eta agindupeko ekonomiaren artean) indartsuegia da, eta ez du ematen alternatiba ahalgarri guztietarako aukerarik. Zertzelada zabalenetan zentralki planifikaturik dagoen ekonomia baterako oraindik egon liteke merkatu-ekonomia sozialista baten deszentralizazio-maila nabarmen bat erabakiak hartzerakoan. Deszentralizazio horren ezaugarri bat merkatu-ekonomia sozialista bat sortzea izan liteke, halako moldez, non bizitza ekonomikoko esparru askotan erabakiak jarduera-gune ugari eta desberdinetan hartuko bailirateke, goitik behera uniformeki ezarriak izan ordez. Joan den hamarkadan, eztabaida gogorra sotu zen, herrialde

sozialisten garapen horiei buruz, baita norabide horretatik segiko zuten eraberrikuntza ekonomiko batzuei buruz ere.

Deszentralizazioaren beste aspektu bat, zeina Schumpeterrek besterik gabe tratatu eta utzi egiten baitu lehen mundu gerraren ondoko Alemaniako Sozializazio Batzordeari buruzko iruzkin labur batekin, ekonomia sozialista bateko enpresa banakoetan ekoizpenaren antolakuntzari buruzkoa da. Hemen berriz ere aukera bat baino gehiago daude, goitik beherako kontrol autoritario batetik hasi eta eredu jugoslaviarraren araberrako autokudeaketako sistema bateraino doazenak. Eta sistema jugoslaviarrak aurkitu dituen arazo guztiak gorabehera, nire iritzia, jabetza publikoko enpresa baten era bideragarri eta promesgarria da, eta hogeigarren mendean gizarte-bizitzan esku hartze demokratikoaren hedapenari egindako ekarpenik adierazgarrienetako bat da. Autokudeketaren ideiak eragin hazkorra izan du azken urteetan, nola herrialde sozialistetan hala herrialde kapitalistetak langile-mugimenduetan, eta oso gertakorra dirudi sozialismoa eta demokraziari, edo demokrazia sozialistari buruzko eztabaida termino horietan formulatuko dela gero eta gehiago, eta orain eskura dagoen ekoizpen autokudeatuaren esperientzia historikoaren aipamena eginez.

Haren mugakizun guztiak kontuan izanik, ba al dago balio handiko ezer Schumpeterrek demokraziari buruz duen kontzeptioan, gidari politikoak aukeratzeko metodo gisa? Segur aski haren ezaugarri garrantzitsuenak, nahiz eta ez izan Schumpeterrek azpimarratzen duena, haren baitan txertaturiko disensua eta oposizioarena da. Gidaritza politikoarekiko lehiaketak aukera ematen die gizartean duten posizioarekin edo politika sozialaren gidaritza orokorrarekin pozik ez dauden gizarte-talde guztiei beren kritikak aidarazteko, eta eragin pixkaren bat izateko etorkizunean gidari politiko izango direnengan. Baina hori ez da oraindik gizarte bat kritikara eta aldaketara zabalik egotea, eta erabakiak ez daitezela era hautazkoan hartu edo interes partikularren zerbitzuan segurtatzeko bitarteko garrantzitsu bakarra. Erabat demokratikoa den gizarte baten funtzionamendu efektiborako gutxienez beste bi gauza funtsezkoak dira: lehena, ahalik eta hiritar gehienek esku har dezatela erabakigintzan, hau da, aukera eta esperientzia izan beharko luketela, esparru desberdinetan eta beren bizitzako parte batean, gidaritza politikoan aritzeko; eta bigarrena, elkarte erlatiboki autonomoen barietate ohargarri bat egon dadila

(jabetza publikoko negozio-enpresak barne direla), zeinetan autogobernua praktikatzeko aukera dagoen, eta zeinak oinarri bat hornitzen baitu kritika iraunkor eragozpenik gabe eta xedapen sozialen eraberri-tze baterako.

Schumpeterren liburuak lehen aldiz agertu zenean izan zuen arrakasta, eta irakurleei egindako etengabeko deia, azal daiteke, hala uste dut nik, areago oraingo aroko igarobide sozial handiaren, kapitalismotik sozialismorakoaren azterketa serio eta xehea ekin izanagatik (eta Marxen teoriaren balioespen kritiko argigarri batez ezartzen dio hitzaurrea, arreta merezi duen igarobidearen analisi sozialista bakar-tzat harturik) eraldakuntza sozialeko prozesu horren ondorioez egiten duen epaiketa motarengatik baino. Schumpeter urrun zegoen ongi eto-rrri egitetik sozialismoaren etorrerari, zeina baitirudi begietsi zuela Max Weberrek egin zuen bezalako susmo goibelez. Baina bere jarre-rak ez zion eragotzi ahal bezain arretatsu eta grinagabeki gertakor bihurtzen zuten joerak aztertzea, eta baliteke sozialismoaren forma jakin batzuek zituzten zailtasun eta arriskuek bere kontzientzia area-gotu izana, zeinak pentsalari sozialistek, hainbeste engainuren ondo-ren, orain hobeki preza baititzakete.

TOM BOTTOMORE
Brighton

Bibliografia

Schumpeterren beste lan batzuk

The Theory of Economic Development: An Inquiry into Profits, Capital, Credit, Interest, and the Business Cycle (translated by Redvers Opie, with a special preface by the author). Cambridge Mass: Harvard University Press, 1934. Second Printing 1936; Third Printing 1949. Originally published in German in 1912 as *Theorie der wirtschaftlichen Entwicklung*.

Business Cycles: A Theoretical, Historical and Statistical Analysis of the Capitalist Process. 2 vols. New York and London: McGraw-Hill Book Co., Inc., 1939. Revised edition published in 1964.

Capitalism, Socialism and Democracy. New York: Harper & Brothers, 1942. Revised 2nd Edition, 1947. Enlarged 3rd edition, 1950.

Rudimentary Mathematics for Economists and Statisticians (with W. L. Crum). New York; MacGraw Hill Book Co., Inc., 1946.

Essays of J.A. Schumpeter. Edited and introduced by. R.V. Clemence, Cambridge: Cambridge University Press, 1951.

Imperialism and Social Classes. New York, Edited and introduced by P.M. Sweezy, New York, A.M. Kelly, Oxford, Blackwell, 1951.

Ten Great Economists, from Marx to Keynes. Edited and introduced by E. Boody Schumpeter, Oxford University Press, New York, 1951 Allen and Unwin, London 1952.

Economic Doctrine and Method: An Historical Sketch. Trans by R. Aris. New York: Oxford University Press; London Allen and Unwin, 1954.

Beste zenbaitzuen liburua

HARRIS, SEYMORE EDWIN, *Schumpeter, Social Scientist*. Cambridge, 1951.

HODGESON, GEOFFREY MARTIN eta F. BIELEFELD, *Thornstein Veblen and Joseph Schumpeter on Evolutionary Economics*. 1995.

Innovation in Technology, Industries and Institutions: Studies in Schumpeterian Perspectives. University of Michigan Press. Ann Arbor 1994.

KATHURIA, SANJAY. *Market Structures and Innovation, a Survey of Empirical Studies of Schumpeterian Hypothesis*. New Delhi 1988 (1987).

- KLEINKNECHT, ALFRED. *Innovation Patterns in Crisis and Prosperity: Schumpeter's Long Cycle Reconsidered*. New York, 1987.
- Lectures on Schumpeterian Economics: Schumpeter Centenary Memorial Lectures*, Graz 1983, Ed. Christian Seidel with contributions from Karl Acham et al. New York 1984.
- LEWIS, W. ARTHUR. *The Evolution of the International Economic Order*. Princeton University Press, 1978.
- Marx, Keynes, Schumpeter. Medallin, Colorado 1983.
- Marx, Schumpeter and Keynes: A Centenary Celebration of Dissent, ed. Suzanne Helburn and David Brambell, M.E. Sharp, Armonk, N.Y. 1986.
- MARZ, EDUARD, *Joseph Schumpeter: Scholar, Teacher and Politician*. New Haven 1991.
- MACLEOD, ROY ed. *Technology and the Human Prospect: Essays in Honour of Christopher Freeman*. Wolfeboro, N.H.: F. Pinter 1986.
- MCKEE, DAVID L. *Schumpeter and the Political Economy of Change*. New York, 1991.
- New Perspectives in Monetary Macroeconomics: Explorations in the Tradition of Hyman P. Minsky*. University of Michigan Press. Ann Arbor, 1994
- OAKLEY, ALLEN. *Schumpeter's Theory of Capitalist Motion: A Critical Exposition and Reassessment*, Aldershot, Harv# 1990
- PAPAHRISTODOULOU, CHRISTOS. *Inventions, Innovations, and Economic Growth in Sweden: An Appraisal of the Schumpeterian Theory*. Uppsala, 1987.
- PERROUX, FRANCOIS. *La Pensée Économique de Joseph Schumpeter.*» (1965).
- PREUSSE, HEINZ GERT. *Technological Accumulation in Global Markets: Towards a Revival of the Schumpeter Hypothesis?* Gottingen 1993.
- ROMAN, RICARD eta MELVIN LEIMAN, *Views on Capitalism*, Beverly Hills, Glencoe Press, 1970.
- SCHERER, F. M. *Innovation and Growth: Schumpeterian Perspectives*. Cambridge, Mass 1984.
- SCHNEIDER, ERICH. *Joseph A. Schumpeter: Life and Work of a Great Social Scientist*, Lincoln 1975
- Schumpeter and the History of Ideas*, ed. Yichi Shionoya eta Mark Perlman. University of Michigan Press, Ann Arbor 1994.
- Schumpeterian Economics*. Ed. Helmut Firsch. Praeger, New York 1981.
- SHINOYA, YUICHI. *Schumpeter and the Idea of Social Science*. Cambridge: Cambridge University Press, 1997.
- STEVENSON, MICHAEL I. *Joseph Alois Schumpeter: a Bibliography, 1905-1984*. Westport Conn. 1985.
- STOPLER, WOLFGANG F., *Joseph Alois Schumpeter: The Public Life of a Private Man*. Princeton, N.J. 1994.
- SWEDBERG, RICHARD. *Schumpeter: A Biography*. Princeton, N.J. 1991.
- TALELE, CHAITRAM J., *Keynes and Schumpeter: New Perspectives*. Brookfield, Vt 1991.
- TOBIN, JAMES. *The New Economics, One Decade Older*. Princeton N.J., Princeton University Press, 1974.
- WOOD, JOHN CUNNINGHAM ed. *J.A. Schumpeter: Critical Assessments*. New York Routledge, 1991.

I ATALA

MARXEN DOKTRINA

EGILEAREN HITZAURREA

Endelguaren edo fantasiaren sorkari gehienak betiko galtzen dira bazkalondo baten eta belaunaldi baten arteko tartea duen denbora-epean. Horietako batzuek ez, ordea. Eklipseak izaten dituzte baina berriro itzultzen dira, eta ez dira kultura-herentziaren elementu berrezagutezin gisa itzultzen, baizik beren janzkera indibidualarekin eta askok ikus eta uki ditzaketen beren orbain pertsonalekin. Horiei handi izena eman dakieke –ez da definizio horren desabantaila handitasuna eta bizitasuna elkarrekin lotzea. Zentzu horretan harturik, zalantzarik gabe Marxen¹ mezuari aplikatzeko hitza da. Baina badu beste abantaila bat ere handitasuna berpizteen bidez definitzeak: horrenbestez gure maitasun edo gorrotoarekiko independente bihurtzen da. Ez daukagu sinetsi beharrik lorpen handi batek argi-iturri edo akasgabea derrigor izan behar duenik, ez oinarritzko diseinuan ez eta xehetasunetan ere. Alderantziz, ilunpeko ahalmen bat dela sinets dezakegu; funtsean oker dagoela pentsa dezakegu edo ez daukagu bat etorri beharrik harekin puntu partikular batzuen edozein kopurutan. Marxiar sistemaren kasuan, horrelako epai kontrakoak, edota ezeztapen zehatzak berak ere, hondamenezko kalterik ezin egin ahal izatean, egituraren ahalmena agerian jartzeko bakarrik balio du.

Azken hogeitau urteak marxiar berpizte guztiz interesgarri baten lekuko izan dira. Ez da harrigarria kredo sozialistaren irakasle handiak Errusia Sobietarrean merezi zuena lortu izana. Eta errealki kano-

nizatze-prozesu horren ezaugarria da Marxen mezuaren egiazko esanahiaren eta boltxebikeen praktika eta ideologiaren artean gutxienez galilear umilen eta Erdi Aroko elizako printzeen edo gerra-jaunen praktika eta ideologiaren artean zegoen bezain osin handia egotea.

Baina beste berpizte bat azaltzea zailago gertatzen da –Estatu Batuetako marxiar berpiztea. Fenomeno hori hainbat interesgarriagoa da, zeren hogeigarren urteak arte ez baita izan garrantzizko Marxiar eraginik, ez amerikar langile-mugimenduan, ez eta amerikar intelektualen pentsamenduan ere. Edozein marxismo zegoelarik ere beti azalekoa, deuseza eta mailarik gabea izan zen. Gainera, boltxebike motako berpizteak ez zuen antzeko boladarik sortu aldeztatik marxologiako joera handiena izan zuten herrialdeetan. Alemanian bereziki, zeinak herrialde guztien artean baitzeukan tradizio marxiar sendoa, sektatxo ortodoxo batek egiaz bizirik zirauen gerra-osteko leherketa sozialistan aurreko depresioan zehar bezala. Baina pentsamendu sozialistaren gidariek (ez Alderdi Sozial Demokratikoari atxikirik zeudenek bakarrik, baizik eta auzi praktikotik beren kontserbadurismo arretatsua askoz haratago joan zirenek ere bai) tesi zaharrak iraultzeko gogo gutxi erakutsi zuten eta, dibinitatea gurtzen bazuten ere, kontuz ibili ziren hura urrun edukitzen eta ekonomia-gaietan beste ekonomialariek bezalaxe arrazoitzen. Errusiaz kanpo, beraz, amerikar fenomenoak bakarrik gertatzen da. Ez zaizkigu haren kausak interesatzen. Hala ere merezi du hainbeste amerikarrek beren egin duten mezuaren inguruneak eta esanahia aztertzea.

I KAPITULUA MARX PROFETA

Ez da ustekabea gertatu erlijioaren munduko analogia bati kapitulu honen izenburuan sartzeko baimena eman izana. Analogia baino zerbait gehiago dago horretan. Zentzu garrantzitsu batean marxismoa erlijioa *da*. Sinestunari, lehenik, bizitzaren esanahia haragitzen duten azken xedeen sistema bat aurkezten dio, zeinak baitira eredu absolutuak haien arabera jazoerak eta ekintzak epaitzeko; eta, bigarren, xede horietarako gida bat, zeinak salbamen-plan bat inplikatzeko baitu eta gaizkiaren adierazpena, zeinatik Gizadia, edo Gizadiaren atal hau-

tatu bat salbatu behar baita. Oraindik gehiago zehatz dezakegu: sozialismo marxista hilobiaz honatago paradisua agintzen duten azpitalde horretakoa ere bada. Uste dut hierologo batek eginikako ezaugarri horien formulazioak sailkapen eta iruzkinerako aukera gehiago eman-go lituzkeela, marxismoaren esentzia soziologikoan sakonago seguras-ki sartzeko, ekonomialari soilak esan dezakeen edozerk baino.

Marxismoaren arrakasta azaltzeko gai izateak du horretan garrantzi gutxiena¹. Lorpen zientifiko soilak, Marxen kasuan izan dena baino askoz perfektuagoa izan balitz ere, sekula ez zukeen hilez-kortasuna lortuko berak duen zentzu historikoan. Alderdi-esloganen haren artsenalak ere ez zukeen lortuko. Haren arrakastaren parte bat, nahiz eta oso txikia izan, zinez egozkarri zaie esaldi gori, salakuntza grinatsu eta keinuketa amorrutzkoen mordoari, edozein tranpaletan erabiltzeko prest zeudenei, zeinak beretarren eskura jarri baitzituen. Gaiaren alderdi hori dela-eta esan behar den guztia da munizio horrek oso ongi balio izan duela eta oraindik ere balio duela haren helburua lortzeko, baina hori ekoizteak desabantaila izan duela: arma horiek lantzeko gizarte-eztabaidaren plazarako Marxek noizean behin behar-tu, edo saihestu egin behar izaten zituen bere sistematik logikoki jaria-tzen ziren iritziak. Hala eta guztiz ere, baldin eta Marx fraseologia-hornitzaile soil bat besterik izan ez balitz, honez gero hilda egongo zatekeen. Gizadia ez da esker oneko zerbitzu mota horrekiko eta biz-kor ahazten ditu bere opera politikoetarako libretoak idazten dituzte-nen izenak.

Baina Marx profeta izan zen, eta lorpen horren izaera ulertu ahal izateko bere garaiko agertokian irudikatu behar dugu. Burutzapen burgesaren zenita zen eta zibilizazio burgesaren nadirra, materialismo mekanizistaren garaia, ordura arte bere sabelean arte berri bat edo bizimodu berri bat zeukan inolako zantzurik erakutsi izan ez zuen eta hutsalkeria arbuigarrienean erreboltatzen zen kultu-ra- ingurumen bat. Edozein zentzu errealekiko fedea gizarteko klase guztietatik aldentzen ari zen, eta berarekin hil egin zen argi-izpi baka-rra (Rochdale jarreretatik eta aurrezki-kutxetatik eratorri ahal izan zenaz aparte) langilearen mundutik, intelektualak Millen *Logika* eta *Pobrearen Legearekin* oso asebetarik agertzen ziren bitartean.

Alabaina, milioika giza bihotzentzat lurreko paradisua-ren mar-xiar mezuak argi-izpi bat eta bizitzaren zentzu berri bat esan nahi

zuen. Nahi bada esan bedi erlijio marxista imitazio bat dela, edo federearen karikatura bat –badago hamaika esateko ikuspegi horretaz– baina ez pasatu oharkabeen edo ez uko egin lorpenaren handitasuna mires-teari. Ez dio axola milioika horien ia erdia mezua bere egiazko esanahian ulertzeko eta prezatzeke gai ez izatea. Horixe da mezu guztien patua. Garrantzia mezua bere garaiko gogamen positibistarentzat era onargarrian landu eta transmititu izateak du, zeina esentzialki burgesa baitzen zalantzarik gabe, baina ez dago inolako paradoxarik marxismoa funtsean gogamen burgesaren ekoizkina dela esatean. Hori, alde batetik, arrakastagabeko askoren jarrera auto-terapeutikoa den frustratuak eta gaizki tratatuak izatearen sentimendu hori indar gaindiezinez formulatzean lortu zen, eta, bestetik, gaitz horietatik askapen sozialista froga arrazionaletara bihur zitekeen ziurtasun bat zela aldarrikatzean.

Ohartu arte gorenak nola lortzen duen hemen lotzea jorari estrarrazionalak, zeinak atzeraka zihoan erlijioak alderrai utzi baitzuten lasterka jaberik gabeko txakurren gisara, eta garaiko joera arrazionalistak eta materialistak, saihetsezinak une hartan, zeinak ez baitzuen toleratzen konnotazio zientifikoa edo sasi-zientifikoa ez zuen kredorik. Helmuga predikatzea eraginkortasunik gabea izango zatekeen; prozesu sozial bat aztertzeak ehunka espezialista batzuentzat bakarrik izango zukeen interesa. Baina analisi-jantzitan predikatuz eta benetan sentituriko premiak kontuan harturik analizatuz, horrek konkistatu zuen leialtasun grinatsua eta horrek eman zion marxistari onespen goren hura, zeina norbera dena eta norberak defendatzen duena inoiz azpiratua izan ezin daitekeen eta azkenean garaile atera behar duen konbikzioan baitatza. Horrek, jakina, ez du lorpena agortzen. Indar pertsonalak eta profeziaren bristadak kredoaren edukiarekiko loturarik gabe funtzionatzen dute. Hura gabe ez dago bizitza berririk edo bizitzaren esanahi berria benetan agertzerik. Baina hori ez zaigu hemen interesatzen.

Zerbait esan beharko da helmuga sozialistaren ezinbestekotasuna frogatzeko Marxek egindako ahaleginaren indarrak eta zuzentasunaz. Hala eta guztiz ere, ohar bat aski da arrakasta gabeko askoren sentimenduen bere formulazioa goian deitu denaz. Jakina, hori ez zen izan sentimendu erreal, kontziente edo kontzientepekoen egiazko formulazioa. Areago deituko genuke sentimendu errealak gizarte-bilaka-

eraren logikaren agerpen egiazko edo faltsuaz ordezte-ahalegina. Hori eginez eta «klase-kontzientzia»ren bere pasahitz propioa masei –oso errealismo gutxirekin– esleituz, zalantzarik gabe faltsutu egin zuen langilearen egiazko psikologia (zeina burges txiki izateko nahian eta estatus horretara iristeko indar politikoak hari laguntzean zentratzen baita), baina haren irakaspenak efektua izan zuen heinean hedatu eta nobletu ere egin zuen hura. Ez zuen negar-malko sentimentalik isuri ideia sozialistaren edertasunaz. Horretan datza haren nagusitasunaren arrazoietakoa bat sozialista utopiko deitu zituenekin alderatuta. Ez zituen langileak eguneroko nekearen heroi gisa glorifikatu, burgesek egin ohi dutenez, beren dibidenduengatik dardarka ari direnean. Erabat askea zen langileen botak miazkatzeko edozein joerarekiko, bere aurreko jarraitzaile ahulagoengan hain nabariak ziren horiekiko. Segur aski hautemate oso argia zuen masak zer diren, eta haien buruen gainetik urrunago begiratzen zuen baterako helmuga sozialetara, haiek pentsatzen edo nahi zutena gaingituz. Gainera, ez zuen sekula idealik irakatsi berak ezarritakotzat. Banitate hori erabat arrotza zitzaien. Egiazko edozein profetak bezala bere dibinitatearen bozera-mailatzat dauka bere burua, horregatik Marxek historiaren prozesu dialektikoaren logika adieraztea beste asmorik ez zuen. Duintasuna dago horretan guztian, zeinak konpentsatzen baititu hainbeste ziztrinkeria eta arrunkeria, zeinekin haren lanean eta haren bizitzan, duintasun horrek hain elkartasun estrainioa eratu baitzuen.

Azkenik, bada aipatu gabe utzi behar ez den beste puntu bat. Marx pertsonalki zibilizatuégia zen sozialismoaren irakasle arrunt horiekin elkartzeko, zeinak ez baitira gai tenplu bat berrezagutzeko begien aurrean dutenean ere. Oso gaiturik zegoen zibilizazio bat eta haren baloreen balio «erlatiboki absolutua» ulertzeko, nahiz eta horretatik oso urrundurik sentitu. Zentzu horretan bere buru-zabaltasunaren testigantza hoberik ezin daiteke eman *Manifestu Komunista* baino, zeina baita kapitalismoaren lorpenen berri-emate batere motela ez dena²; eta nahiz eta bere gain *pro futuro* heriotza-sententzia eman, sekula ez zion uko egin bere behartasun historikoa aitortzeari. Jarrera horrek, noski, Marxek berak onartu nahiko ez zituzkeen gauza mordoa inplikatzan du. Baina zalantzarik gabe indarturik zegoen horretan, eta errazago zitzaien hartzea gauzen logika organikoaren hautemate horregatik, zeinari historiaren bere teoriak adierazpen partikular bat

ematen baitio. Gizarte-gaiak ordenan jartzen zitzaizkion, eta nahiz eta bizitzako zenbait abagunetan kafetegiko konspiratzaile bera ere izan, bere egiazko niak arbuiatu egiten zituen halako gauzak. Sozialismoa ez zen harentzat bizitzako beste kolore guztiak ezabatzen eta gainerako zibilizazioekiko gorroto osasungaitz eta tentela edo mespretxua sortzen dituen obsesioa. Eta bada, zentzu batean baino gehiagotan, justifikaziorik bere pentsamendu sozialista eta nahi-izate sozialista motarentzat erreklamatzeko zuen titulurako, zeinak batzen baitira elkarrekin oinarritzeko haren jarreraren indarrez, hau da, sozialismo zientifikoarenez.

II KAPITULUA MARX SOZIOLOGOA

Orain egin behar duguna oso gaitzesgarria da fededunarentzat. Normala denez gaizki hartzen dute haientzat egiaren iturburua bera denari analisi hotza inondik ere aplikatzea. Baina gaizkien hartzen duten gauzetako bat da Marxen obra zatitan ebakitzea eta banan-banan eztabaidatzea. Esango luke ekintza horrek berak erakusten duela burgesek duten ezgaitasuna osotasun distiratsua atzemateko, zeinaren atalek osatzen eta azaltzen baitute elkar, halako moldez, non egiazko esanahia galtzen den atal edo aspektu bat bere baitan kontsideratu bezain laster. Ez dugu hautabiderik, hala ere. Iraina egitean eta gero Marx soziologoa Marx profetaren ondoren hartzean, ez dut ikuspen sozialaren batasunaren presentzia ukatzeko asmorik, zeinak lortzen baitu batasun analitikoaren halako neurri bat marxiar obrari ematearen arrakasta, eta are gehiago batasun-itxura batena, edota haren atal bakoitzaren, nahiz eta intrintsekoki independentea izan, autoreak beste guztiekin korrelazionatu duelakoa ere. Nahikoa independentzia geratzen da guztiarekin ere erresuma zabalaren probintzia bakoitzean ikasleari ahalbidearazteko bere ahaleginen fruituak horietako batean onartzea beste batean horiek baztertzen dituen bitartean. Fedearen xarmaren parte handi bat galdu egiten da prozesuan, baina zerbait irabazi egiten da egia garrantzitsu eta estimulagarria salbatuz, zeina askoz baliotsuagoa baita naufragio esperantzagabeari loturik egongo balitz baino.

Hori lehenik eta behin Marxen filosofiari aplikatzen zaio, zeina behin betiko geure bidetik bazter baitezakegu. Hezkuntza alemaniarra eta joera espekulatiboaren jabe izaki, oinarri finkoa eta interes grinatsua zeukan filosofiarekiko. Kutsu alemaniarreko filosofia garbia zuen bere abiagune eta bere gaztaroko maitasun. Denboraldi batean bere egiazko bokazioa horixe zela pentsatu izan zuen. Neo-hegeldarra zen, eta horrek larriki esan nahi du maisuaren oinarritzko jarrerak eta metodoak ezabatu eta onartzen zituen bitartean, berak eta bere taldeak ezabatu eta ordeztu egiten zituztela gutxi-asko haien kontrakoez beste jarraitzaileetako askok Hegelen filosofiaz egindako interpretazio kontserbadoreak. Aurreko giro hori haren idazki guztietan agertzen da horretarako aukera duen bakoitzean. Ez da harritzekoa haren irakurle alemaniar eta errusiarrek, gogamen-isuriz eta hezkuntzaz antzeko prestutasuna zutenek, lehenik elementu horri heldu eta sistemaren gako bihurtzea.

Uste dut hori hutsegitea eta Marxen ahalmen zientifikoekiko bidegabea dela. Hasierako maitasun horri eutsi egin zion bere bizitza osoan. Atsegin zituen bere eta Hegelen argudioen artean aurki daitezkeen analogia formal batzuk. Gogoko zuen bere hegelianismoaren testigantza ematea eta hegeldar fraseologia erabiltzea. Baina besterik ez. Inon ez zion iruzur egin zientzia positiboari metafisikaren alde. Horixe esaten dio bere buruari *Das Kapitalen* lehen liburukiaren bigarren edizioaren hitzaurrean, eta bertan dioena egia dela eta ez bere buruari iruzur egitea haren argudioa analizatuz froga daiteke, zeina edonon gertakari sozialaren gainean euskarritzen baita, eta bere proposizioen egiazko iturburuetan, zeinetako ezein ez baitatza filosofia-
ren erresuman. Jakina, alde filosofikotik abiatzen ziren iruzkingile edo kritikari horiek berak ez ziren gai hori egiteko, zerengatik ez baitzekiten behar beste tarteko ziren gizarte-zientziez. Sistema-eraikitzaile filosofikoaren isuriak, areago, beste edozein interpretaziotatik aldentzea eragiten zien printzipio filosofikoren batetik zetorrenetik izan ezik. Beraz, filosofia ikusten zuten esperientzia ekonomikoari buruzko baieztapen arruntenetan, horrenbestez eztabaida-ildo okerrera desbideratuz, adiskideak eta etsaiak era berean errebelatuz.

Marx soziologoak bere atazan gaitasun batzuk kontzentratu zituen, zeinak baitziren lehenik gertakari historiko eta aldikideari buruzko domeinu zabala. Azkenari buruzko haren ezagutza zertxobait

zaharkiturik zegoen beti, zeren gizakirik liburuzaleena baitzen eta ondorioz, oinarrizko materialak, egunkarietako materialak ez bezala, aldi batera iristen zitzaizkion beti. Baina nekez ihes egiten zion helburu edo garrantzi orokorreko edozein obra historikok, nahiz eta hala egin bibliografia monografiko batek baino gehiagok. Alor horretan bere informazioaren osotasuna goretsi ezin dugun arren, teoria ekonomikoaren saileko bere erudizioa bezala, hala ere gai zen bere ikuspen sozialak fresko historiko handiez ilustratzeko ez ezik bai eta xehe-tasun ugariz ere, zeinetariko gehienak fidagarritasunari zegokionez areago baitzeuden haren garaiko beste soziologoek mailatik gorabehera baino. Gertakari horiek gainaldeko zorizko irregulartasunen arte-
tik gauza historikoen logika handioseraino zeharkaturiko begirada batez besarkatzen zituen. Horretan ez zegoen grina soilik. Ez zegoen bulkada analitikoa soilik. Biak zeuden. Eta logika hori, historiaren interpretazio ekonomikoa¹ deitu izan dena formulatzeko haren ahaleginaren emaitza gaur egun arte soziologiak egin duen lorpen indibidual handienetako bat da, zalantzarik gabe. Horren aurrean, lorpen hori erabat originala zen ala ez, eta haren aurreko aleman eta frantsesei parte batez kreditua noraino eman behar zaien hutsaren hurrengo auzi bihurtzen da.

Historiaren interpretazio ekonomikoak ez du esan nahi giza-kiak, kontzienteki edo inkontzienteki, erabat edo nagusiki zio ekonomikoengatik diharduenik. Alderantziz, zio ez-ekonomikoen zeregin eta mekanismoen azalpena eta erralitate soziala psike banakoetan errainutzen deneko moduaren analisis-teoriaren elementu esentziala da eta haren ekarpen esanguratsuenetako bat. Marxek ez zuen sostengatu erlijioak, metafisikak, arte-eskolak, ideia etikoak eta nahi-izate politikoak *zio* ekonomikoetara murrizgarriak zirela edo garrantzirik gabekoak. Horiek taxutzen dituzten eta horien sortze eta erortzearen berri ematen duten *baldintza* ekonomikoak agerian jartzen saiatu zen soilik. Max Weberren² gertakari eta argudio guztiak ezin hobeki ego-
kitzen zaizkio Marxen sistemari. Talde eta klase sozialek eta talde edo klase horiek beren buruari existentzia, kokagunea eta portaera azaltzen dizkieten erak ziren noski hari gehien interesatzen zitzaizkionak. Bere amorru behazuntsuenaren flaskoak isurtzen zituen historialarien gainera, zeinek hartzen baitzituzten jarrera horiek eta horien berbalizazioak (ideologiak edo, Paretok esango zukeenez, *deribazioak*) beren

balio nominalean, eta zeinak ahalegintzen baitziren errealitate soziala berorien bidez interpretatzen. Baina ideiak edo balioak gizarte-prozesuen eragile nagusiak ez baziren harentzat, ke hutsa ere ez ziren. Zilegi bazait analogiaz baliatzea, transmisio-uhalen zeregina zuten makineria sozialean. Ezin dugu aztertu printzipio horien gerra-osteko garapen guztiz interesgarria, hau da, ezagutzaren soziologia³, zeinek emango bailuke adibiderik hoberena. Baina derrigor esan beharra zegoen hori, zerengatik Marx behin eta berriz gaizki ulertua izan baita puntu horretan. Engels adiskideak ere, Marxen hilobi irekiaren aurrean, auzitango teoria hain zuzen ere, norbanakoak eta taldeak zio ekonomikoek menderatzen dituztela definitu zuen, zeina aspektu garrantzitsu batzuetan okerra eta gainerakoan errukarriro hutsala baita.

Horretan ari garenez gero, beste gaizki-ulertze baten aurka ere defenda dezakegu Marx: historiaren interpretazio *ekonomikoa* sarritan interpretazio *materialista* deitu izan da. Marxek berak deitu izan du horrela. Esaldi horrek izugarri gehitu zion popularitasuna batzuegan, eta inpopularitasuna beste batzuegan. Baina erabat zentzugabea da. Marxen filosofia ez da Hegelena baino materialistagoa, eta haren historiaren teoria ez da zientzia enpirikoa menderatzearen bidez prozesu historikoaren berri emateko beste edozein ahalegin baino materialistagoa. Garbi geratu beharko luke logikoki bateragarria dela edozein fede metafisiko edo erlijiosorekin –munduaren edozein imajina fisiko den bezalaxe. Erdi Aroko teologiak berak ematen ditu metodoak, zeinen bidez ahalgarria baita bateragarritasun hori ezartzea⁴.

Teoriak errealki dioena bi proposiziotan bil daiteke: 1) Ekoizpen-forma edo -baldintzak dira egitura sozialen oinarritzko determinatzaileak, zeinek beren aldetik jarrerak, ekintzak eta zibilizazioak elikatzen baitituzte. Marxek bere ikuspegia ilustratzeko gizarte feudalak «esku-ehundegia» eta gizarte kapitalistak «lurri-ehundegia» sortzen dituztelako baieztapen ospetsua darabil. Horrek neurri arriskutsuraino azpimarratzen du elementu teknologikoa, baina teknologia hutsa ez dela dena ulertuz onar daiteke. Pixka bat popularizatuz eta hori egitean esanahiaren parte handi bat galtzen dugula aitortuz, esan dezakegu gure eguneroko lanak eratzen duela gure gogamena, eta ekoizpen-prozesuaren barruan dugun geure kokaguneak determinatzen duela gauzei buruzko gure ikuspegia –edo ikusten ditugun gauzen aldeak– eta gutako bakoitza menderatzen duen gune sozialak. 2) Ekoizpen-for-

mek berek dute logika propioa; horrek esan nahi du beren baitako premien arabera aldatzen direla beren funtzionamendu propioz soilik ondorengo ekoizteko. Adibide marxiar beraz ilustratzeko: «esku-ehundegiak» ezaugarrituriko sistemak egoera ekonomiko eta sozial bat sortzen du, zeinean ehotzeko metodo mekanikoa hartzea norbanakoek edo taldeek aldatu ezin duten beharrian praktiko bihurtzen baita. «Lurrin-ehundegia» ugaltzeak eta horren funtzionamenduak, bestalde, funtzio eta kokagune sozial berriak, talde eta ikuspegi berriak sortzen ditu, zeinak garatzen eta elkarrengatik baitute halako eran, non beren markoa gainditzen duten. Hemen, gero, eragile bat daukagu lehenik aldaketa ekonomiko guztiaren eta, horren ondorioz, beste aldaketa sozial guztiaren erantzulea dena, eragile bat, zeinak jarduteko ez baitu bere baitatik kanpoko bultzadarik behar.

Bi proposizioek zalantzarik gabe egia-kopuru handia dute beren baitan eta, geure bideko zenbait gunetan ikusiko dugunez, lan-hipotesi estimagaitzak dira. Ohiko objektzio gehienek huts egiten dute, horiek guztiek zeinek adibidez ezeztatzeko faktore etiko eta erlijiosoen eragina seinalatzen baitute, edo jadanik Eduard Bernsteinek planteatu zuenak, zeinak sinpletasun xarmangarriz baieztatzen baitu «gizakiek buruak dauzkatela» eta horregatik hautatzen duten bezala jarduteko gai direla. Goian esan denaren ondotik, ez dago premia handirik argudio horien ahultasuna azpimarratzeko: jakina, gizakiek «hautatu» egiten dute beren ekintzen joaira, zeinak ez baitituzte bortxatzen zuzenean ingurumeneko datu objektiboek; baina jarrera, ikuspegi eta isurietatik hautatzen dute, zeinek ez baitute datu independentezko beste multzo bat eratzen, baizik eta egoera objektiboek eratzen baitituzte horiek beroriek.

Guztiarekin ere, planteatzen den arazoa da ea historiaren interpretazio ekonomikoa hurbiltze komenigarri bat baino gehiago ez ote den, zeinak kasu batzuetan egokitasun gutxiagorekin funtzionatzen duela espero izatekoa baita beste batzuetan baino. Begi-bistako murrizpena gertatzen da hasieran bertan. Egitura, tipo eta jarrera sozialak ez dira aise egiten diren txanponak. Baina eratu direlarik iraun egiten dute, agian mendeetan zehar, eta egitura eta tipo desberdinek bizirik irauteko gaitasun horren gradu desberdinak dituztenez gero, ia beti aurkitzen dugu taldea berak eta portaera nazionalak gutxi-asko aldenitu beharko lukeela ekoizpen-prozesuaren forma

nagusikoietatik inderitzen saiatuko bagina egitea espero izango genukeenetik. Nahiz eta hori ia orokorrean aplikatu, guztiz argiro ikusten da egitura oso iraunkor bat herrialde batetik beste batera bere konkrezioan transferitzen denean. Normandiar konkistak Sizilian sorturiko egoera sozialak argituko du nire esanahia. Marxek ez zituen horrelako gertakariak oharkabean pasatu baina ozta-ozta ohartu zen horien inplikazio guztiez.

Horrekin zerikusia duen kasu batek oraindik esangura mukurragoa du. Kontsidera dezagun feudal-erako lurrak akuratzeko-sistemen sorrera seigarren eta zazpigarren mendeetako frankoen erresuman. Jakina, gertakari oso garrantzitsu horrek gizartearen egitura modelatu zuen denbora luzean eta *ekoizte-baldintzak ere eragin zituen, premiak eta teknologia barne zirela*. Baina horren azalpenik sinpleena aurkitu behar da familiek eta norbanakoek aldeak aurretik izandako gidaritza militarreko funtzioan, zeinak (hala ere funtzio horri eutsiz) lurjabe feudal bihurtu baitziren lurralde berri baten behin betiko konkistaren ondoren. Hori ez zaio marxiar eskemari inondik ere ongi egokitzen eta erraz eraiki liteke bestelako norabide bat seinatzeko moduan. Izaera horretako gertakariak zalantzarik gabe onera ekar daitezke, noski, hipotesi lagungarrien bidez baina hipotesi horiek sartzeko premia teoria baten amaieraren hasiera izaten da normalean.

Beste zailtasun askori, marxiar eskemaren bidez interpretazio historikoa egiteko ahaleginean sortzen direnei, aurre egin lekieke ekoizpen-esferaren eta gizarte-bizitzako beste esfera batzuen artean neurri bateko elkarregintza onartuz⁵. Baina hura inguratzen duen oinarritzko egiaren xarma hain zuzen ere berak baieztatzen duen norabide bakarreko erlazioaren zorroztasun eta sinpletasunean datza. Hori auzitan jarritz gero, historiaren interpretazio ekonomikoak antzeko motako beste proposizioen artean –egia partzial askoren arteko bat bezala– hartu beharko du lekua, edo amore eman beharko dio egia oinarritzkoagoa aitortzen duen beste bati. Hala eta guztiz ere, ez haren maila lorpen gisa eta ez haren maneia garritasuna lan-hipotesi gisa ez dira horrenbestez kalteturik gertatu. Fededunarentzat, noski, giza historiako sekretu guztietarako gakoa besterik ez da. Eta batzuetan horren aplikazio inozo samarren aurrean irribarre egiteko gogoak sentitzen badugu ere, gogoan izan beharko genuke zer argudio mota ordeztu izan dituen. Historiaren interpretazio ekonomikoaren senide

ezindua dena, klase sozialen marxiar teoria, argi faboragarriago bate-ra higitzen da hori kontuan hartu bezain laster.

Berriz ere, lehenik eta behin kontuan hartu behar dugun ekarpen garrantzitsua da. Ekonomialariak oso motel ibili dira klase sozialen fenomenoaren berrezagutzen. Jakina, beti sailkatu izan dituzte eragi-leak, zeinen elkarjokoak sortzen baitzituen trataturiko prozesuak. Baina klase horiek ezaugarri komun bat ageri zuten norbanakoen multzoak besterik ez ziren: horrela, jende bat lurjabe edo langile gisa sailkatzen ziren lurraren jabe zirelako edo bere laneskua zerbitzuak saltzen zituztelako. Hala eta guztiz ere, klase sozialak ez dira behatzaile sailkatzailearen sorkariak baizik halako gisa existitzen diren entitate biziak. Eta haien existentziak baditu ondorioak, zeinak ez baititu kontuan hartzen norbanako edo familien multzokatze amorfoa bailitzan gizarteari begiratzen dion eskemak. Erabat bidezkoa da galdetzea zer garrantzi duen zehazki klase sozialen fenomenoak teoria ekonomiko hutsaren alorra ikertzeko. Hori oso garrantzitsua da inolako zalantzarik gabe aplikazio praktiko askotarako eta prozesu sozialaren aspektu zabalago guztietarako.

Larriki hitz eginez, esan dezakegu klase sozialek gizartearen historia klase-borroken historia delako *Manifestu Komunistako* baieztapen ospetsuan egin zutela beren sarrera. Jakina, hori uzia gorenean jartzea da. Baina jazoera historikoak klase-interes eta klase-jarrera terminotan sarritan interpreta daitezkeelako proposizioraino eraisten badugu ere eta dauden klase-egiturak beti faktore garrantzitsuak direla interpretazio historikoan, aski geratzen zaigu kontzepzio hori historiaren interpretazio ekonomikoarena bera bezain ia baliotsua dela esan dezagun.

Garbi esateko, klase-borrokaren printzipioak irekitako aurre-rapen-lerroko arrakasta geure egiten dugun klaseen teoria partikularren baliozkotasunaren baitan dago. Historiaren ikuspegia eta eredu kulturalen gure interpretazio guztiak eta aldaketa sozialaren mekanismoa desberdinak izango dira, adibidez, klaseen teoria arraziala hautatzearen eta Gobineauk bezala giza historia arraza-borrokaren historiara murriztearen baitan, edo, esaterako, klaseen lan-banaketa-ren teoria, Schmollerren edo Durkheimen gisara, eta klase-antagonismoak talde profesionalen interesen arteko antagonismoetara ebaztearen baitan. Analisisiko desberdintasun posibleen aukera ez da kla-

seen izaeraren arazora ere mugatzen. Horretaz edozein ikuspegi izan dezakegula ere, interpretazio desberdinak sortuko dira klase-interesaren⁶ definizio desberdinetatik eta klase-ekintzak bere burua agertzeko duen erari buruzko iritzi desberdinetatik. Gaia aurriritzi-mintegi bat izan da gaur arte, eta orain arte ozta-ozta iritsi da estadio zientifikora.

Aski bitxia bada ere, Marxek, dakigunez, bere pentsamendua-
ren zutabeetako bat zela dakigun hori inoiz ez zuen sistematikoki landu. Baliteke ataza beranduegi izan arte geroratu izana, hain zuzen ere haren pentsamendua klase-kontzeptutan hainbestearaino mugitzen zen, non ez zuen inondik ere horren finkatze behin betikoa egiten nekatzea beharrezko sentitu. Era berean, posible da horri buruzko zenbait puntu gogamenean artean ebatzi gabe edukitzea, eta klaseen teoria erabat garaturanzko bere bidea trabaturik izatea fenomenoaren kontzepzio ekonomiko huts eta sinpletuegi bat azpimarratzeak sortu zizkion zailtasun batzuegatik. Hark eta haren dizipuluek teoria azpigaratu horren eredu partikular batzuei egindako aplikazioak eskaini zituzten, zeinen adibide gailena bere *Frantziako Klase Borroken Historia*⁷ baita. Hortik aurrera ez da benetako aurrerapenik lortu. Engels, bere sozio nagusiaren teoria, eskulanaren banaketa-motakoa zen eta esentzialki ez-marxiarra bere inplikazioetan. Hori baztertuz gero argibideak eta *aperçu*ak bakarrik ditugu –horietako batzuk indar eta distira apartekoak–, maisuaren idazkietan zehar, *Das Kapital* eta *Manifestu Komunista* obretan bereziki barreiaturik daudenak.

Atal horiek bateratzearen ataza delikatua da eta ez da hemen egiteko modukoa. Hala ere, oinarritzko ideia aski argia da. Printzipio estratifikatzailea ekoizpen-bideen jabetzan datza, edo jabetzatik baztertzean, hala nola lantegi-eraikin, makineria, lehengai eta langilearen aurrekontuan sartzen diren kontsumo-ondasunetatik. Horrela, oinarritz, bi klase bakarrik dauzkagu eta bi bakarrik: jabeak, kapitalistak, eta ez-edukiak beren lana saltzera beharturik daudenak, klase langilea edo proletalgoa. Tarteko taldeen existentzia, baserritar edo artisauek eratuena bezalakoa, zeinek enplegatzen baitute laneskua baina eskulana ere egiten baitute, edo funtzionario eta profesioek eratuena ez da ukatzen noski; baina prozesu kapitalistetan zehar desagertzera jotzen duten anomalia gisa tratatzen dira. Oinarritzko bi klaseak, beren posizioaren logikaren indarrez eta edozein nahi-izate indibidualekiko

independenteki, esentzialki antagonikoak dira elkarrekiko. Klase bakoitzaren barruan pitzadurak eta azpitaldeen arteko talkak gertatzen dira eta historikoki garrantzi erabakigarria izan dezakete gainera. Baina azken analisian, pitzadura edo talka horiek intzidentalak dira. Intzidentala ez baizik inherentea den antagonismo bakarra gizarte kapitalistaren oinarritzko diseinuan ekoizpen-bideen gaineko kontrol pribatuan oinarritzen da: klase kapitalistaren eta proletalgoaren arteko erlazioaren izaera bera gatazka da –klase-gerra.

Berehala ikusiko dugunez, Marxek ahaleginak egingo ditu klase-gerran kapitalistek elkar nola suntsitzen duten erakusteko eta azkenean sistema kapitalista bera ere nola suntsituko duten. Halaber, kapitalaren jabetzak nola gehiago metatzera gidatzen duen erakusten ere ahalegintzen da. Baina argumentatzeko era horrek, baita zerbaiten jabetza klase sozialaren ezaugarri eratzaile egiten duen definizioak berak ere, «metatze primitibo»aren auziaren garrantzia gehitzeko bakarrik balio du, hau da, kapitalistak kapitalista izatera lehen unean nola iritsi ziren edo ondasun-gordailu hori nola lortu zuten auziarena, zeina marxiar doktrinaren arabera beharrezkoa baitzen haiek esplotazioaren hasiera ahalbidetzeko. Auzi horri buruz Marxek askoz esplizitutasun gutxiago du⁸. Mespretxuz baztertzen du jende bat beste baten aldean, eta oraindik ere egunero, adimen garaia goa eta lan egiteko eta aurrezteko energia handiagoa duelako kapitalista bihurtzen ari delako haur-ipu (Kunderfibel) burgesa. Ez zuen arrazoi faltarik, noski, mutil zintzoei buruzko istorio horretaz trufatzeko. Zeren barre-algara bat eragitea metodo ezin hobea baita egia ezeroso bat hankaz gora botatzeko, edozein politikarik bere mesederako dakienez. Gertakari historiko eta aldikideei gogamen inpartzialez begiratzen dien edozeinek derrigor ikusten du haur-ipu horrek, nahiz eta egia osoa ez esan, hala ere horren parte handi baten berri ematen duela. Adimenak eta normalaz gaineko energiak esplikatzen dute arrakasta industrial eta bereziki posizio industrialaren oinarritzapena hamar kasutatik bederatztan. Eta hain zuzen ere kapitalismoaren eta karrera industrial indibidual bakoitzaren hasierako estadioetan, aurrezteak izan da eta da elementu garrantzitsua prozesuan, nahiz eta ekonomia klasi-koan azaldu den modura ez izan erabat. Egia da normalean ez dela lortzen kapitalista (enplegatzaile industrial) estatusa soldata edo salario batetik aurreztuz horrela batutako funtsaren bitartez lantegia ekipa-

tzeko. Metatuaren multzoa mozkinetatik dator eta horregatik mozkinak auresuposatzen ditu –hori da izatez aurreztea eta metatzea bereizteko *benetako* arrazoa. Enpresa abiarazteko beharrezko bitartekoak beste jende baten aurrezkiak mailegatuz hornitzen dira tipikoki, zeinen presentzia multzotxo txikitan erraz azaltzen baita edo bankuek sortzen dituzten gordailuak balizko enpresarioarentzat. Hala eta guztiz ere, azken horrek aurreztu egiten du arau gisa: bere aurrezkiaren funtzioa da egunero lan astunaren mende jartzeko beharrianaz gainerik jasotzea bere eguneroko ogia irabazteko eta arnasa hartzeko espazio bat ematea ingurura begiratzeko, bere planak garatzeko eta lankidetza segurtatzeko. Teoria ekonomikoari zegokionez, Marxek arrazoa zuen –nahiz eta bapikatu– aurrezkiari autore klasikoek egozten zioten eginkizuna ukatzean. Bakarrik haren inferentziak ez du jarraipenik. Eta barre-algara nekez da justifikatua teoria klasikoa zuzena izan balitz izan zitekeena baino gehiago⁹.

Barre-algarak, hala ere, eragina izan zuen, eta metatze primitiboaren Marxen beste teoria alternatiboari bidea errazteko laguntza eman zuen. Baina teoria alternatibo hori ez da behar bezain zehaztua. Masen indar –lapurretazko azpiraketa espolioa errazteko eta zakuraketaren emaitzak, aldiz, azpiraketa ahalbidetzeko– hori oso ongi zegoen noski eta miresgarriki bat zetorren mota guztietako intelektualen artean komunak ziren ideiekin, gure egunotan areago Marxen eguntan baino ere. Baina bistan dago ez duela arazoa ebazten. Ez zait zilegi auzia John Reeden idazkietara bideratzea. Marxez ari gara.

Alabaina, gutxienez soluzio baten itxura ematen du Marxen teoria nagusi guztien izaera historikoak. Bere ustez, esentziala da kapitalismoaren *logikarako*, eta ez bakarrik *errealitatea*, gizartearen egoera feudal batetik sortu izana. Jakina, estratifikazio sozialaren kausa eta mekanismoari buruzko auzi bera sortzen da kasu honetan, baina Marxek funtsean onartu egiten zuen feudalismoa indarraren erresuma¹⁰ zelako ikuspegi burgesa, zeinean masen azpiraketa eta esplotazioa buruturiko gertakariak baitziren. Lehenik gizarte kapitalistaren baldintzetarako pentsaturiko klase-teoria bere aurreko feudaleria hedatu zen –baita kapitalismoaren teoria ekonomikoaren aparatu kontzeptualaren parte handi bat ere¹¹– eta arazorik konplikatuena biltegitatu ziren barrunbe feudalean egoera konpondu batean berragertzeko, datueran, eredu kapitalistaren analisisan. Esplotatzaile kapitalistak esplota-

tzaile feudala ordezte besterik ez zuen egin. Jaun feudalak errealki industrial bihurtu ziren kasuetan, horrek arazotik geratzen zitzaiguna konpontzea lortzen zuen. Froga historikoak halako sostengu bat ematen dio ikuspegi horri: jaun feudal askok, batez ere Alemanian, eraiki eta gidatu egin zituzten lantegiak, sarritan bitarteko finantzarioak beren errenta feudaletatik jarritz eta laneskua nekazaritzako biztanleriari (ez derrigor baina batzuetan beren jopuak)¹². Beste kasu guztietan zuloa betetzeko materiala askoz urriagoa da. Egoera argi eta garbi adierazteko modu bakarra da ikuspuntu marxiar batetik ez dagoela azalpen asegarririk, hau da, ez dagoela azalpenik ez-marxiar elementuetara jo gabe, zeinek iradokitzen baitituzte ondorio ez-marxiarrak¹³.

Horrek, guztiarekin ere, biziari egiten du teoria bere iturburu historikoan eta logikoan. Metaketa primitiboaren metodo gehienek geroko metaketaren berri ere ematen dutenez gero –metaketa primitiboak, nolabait esateko, jarraitu egiten du aro kapitalistan zehar– ez dago esaterik klase sozialei buruzko Marxen teoria zuzena dela urruneko iraganeko prozesuetako zailtasunetarako izan ezik. Baina agian alferrikakoa da teoria baten akatsak azpimarratzea, zeina kasurik faboragarriaren ere ez baita hurbiltzen azaldu nahi duen fenomenoaren muinera, eta zeina inoiz ez baitzen benetan hartu behar. Kasu horiek batez ere aurkitzen dira bilakaera kapitalistaren aro hartan, zeinak eratorri baitzuen bere karakterra tamaina ertaineko eta jabeak kudeaturiko enpresen nagusitasunetik. Tipo horren helmenaz haratago, klase-posizioak, nahiz eta kasurik gehienetan gutxi-asko zegozkien posizio ekonomikoetan islatuak, askoz sarriagotan kausa areago dira azken horren ondorioa baino: negozioetan arrakasta izatea bistan dago ez dela toki guztietan gailentasun sozialerako bidea eta baden tokian ekoizpen-bideen jabeak bakarrik determina dezake kausalki talde baten posizioa egitura sozialean. Orduan ere, hala eta guztiz ere, jabetza elementu definigarri egitea hain da arrazoizko nola den soldadua pistola daukan gizon bezala definitzea. Behin betiko kapitalista direla suposatzen den jendearen (haren ondorengoekin batera) eta behin betiko proletarioak direla suposatzen diren beste batzuen (haien ondorengoekin batera) arteko banaketa hertsia ez da bakarrik, sarritan seinlatu izan denez, oso errealismo gutxikoa baizik eta ez du kontuan hartzen klase sozialei buruzko puntu nagusia –familia indibidualen etengabeko igotze eta erortzea goiko estratuekiko. Aipatzen ari naizen

gertakariak denak begi-bistakoak eta eztabidaezinak dira. Marxiar koadroan ez agertzearen arrazoia dituzten inplikazio ez-marxiarretan bilatu behar da.

Ez da alferrikakoa, ordea, teoria horrek Marxen egituran duen eginkizuna kontsideratzea eta geure buruari galdetzea zer asmo analitikori –agitatzailearen ekipamendu-atal bezala bere erabilpenetik bereizi gisa– zerbitzatu nahi zion.

Alde batetik, kontuan hartu behar dugu Marxentzat klase sozialen eta Historiaren interpretazio ekonomikoaren teoria ez zirela guretzat direna, hau da, bi doktrina independente. Marxengan, lehenak bigarrena modu berezi batean inplementatzen du eta horrela murriztu egiten du –zehatzago bihurtzen du– ekoizpenaren baldintzen edo formen *modus operandi*. Horiek egitura soziala determinatzen dute eta, egitura sozialaren bitartez, zibilizazioaren agerpen guztiak eta historia kultural eta politikoaren joaira osoa. Baina egitura soziala, aro ez-sozialista guztietarako, klaseen terminotan –bi klase horienetan– definitzen da, zeinak baitira egiazko *dramatis personae* eta, aldi berean, ekoizpen-sistema kapitalistaren logikako sorkari *bitartegabe* bakar-rak, zeinak afektatzen baitu gainerako guztia horien bitartez. Horrek azaltzen du zergatik Marx aurkitu zen behartua bere klaseak fenomeno ekonomiko huts bihurtzera, eta oso zentzu hertsian ekonomikoak ziren fenomeno izatera bihurtzera: horrenbestez uko egin zion horien ikuspegi sakonagoa izateari, baina kokatu zituen eskema analitiko horren puntu zehatzean ez zeukan hori egitea beste aukerarik.

Bestalde, Marxek kapitalismoa bere klase-banaketa definitzen duen zertzelada beraz definitu nahi zuen. Hausnarketatxo bat aski du irakurleak hori egitea ez dela beharrezkoa edo naturala konbentzitzeko. Izan ere, estrategia analitikoko kolpe ausarta izan zen klase-fenomenoaren patua kapitalismoaren patuarekin uztartzen zuena, halako moldean, non sozialismoa, zeinak errealitatean ez baitu inolako zeri-kusirik klase sozialen presentzia edo absentsiarekin, definizioz bihurtu zen klasegabeko gizartearen mota posible bakarra, talde primitiboak salbu. Tautologia ingeniotsu hori ezingo zatekeen segurtatu era berean ezein klase-definizioz *eta* kapitalismoarenaz Marxek hautaturikoez landa –ekoizpen-bideen jabetza pribatuaren definizioz. Hortik bi klasek bakarrik existitu behar zuten derrigor, jabeak eta ez-jabeak, eta hortik banaketa-printzipio guztiek, askoz onargarriagoak zirenak

horien artean, zorrozki zabartuak edo baztertuak edo bestela bakar horretara murriztuak izan behar zuten.

Zentzu horretan klase kapitalistaren eta proletalgoaren arteko lerro banatzailearen zehaztasuna eta garrantzia bapikatzea, horien arteko antagonismoaren bapikatzeak bakarrik gainditu zuen. Marxiar errosarioa aletzeko azturaz deformatu gabeko edozein bururentzat begi-bistakoa izan beharko luke horien erlazioak, garai normaletan, lehenik lankidetzakoa izan behar duela eta kontrako edozein teoriak kasu patologikoetara jo behar duela egiaztapenerako. Bizitza sozialean, antagonismoa eta sinagogismoa edonon aurkitzen dira noski eta izatez bereizezinak dira kasurik arraroenetan izan ezik. Baina ia tentaturik nago esatera ikuspegi harmoniazko zaharrean erabateko zentzugabeziatik gutxiago zegoela, ezer bazegoen behintzat, –nahiz eta hura ere zentzugabeziaz beterik egon– lanabes-jabeen eta lanabes-erabiltzaileen arteko osin gaindiezinaren marxiar eraikuntzan baino. Berriz ere, hala eta guztiz ere, ez zeukan aukerarik, ez emaitza iraultzaileetara iritsi nahi zuelako –horiek dozenaka beste eskema posible-tatik ere ederki erator zitzakeen– baizik bere analisiaren eskakizunengatik. Klase-borroka *baldin* bazen historiaren gai subjektua eta egunsenti sozialista sorrarazteko bitartekoa ere, eta *baldin* bi klase horiek derrigor existitu behar bazuten, orduan haien erlazioak antagonikoa izan behar zuen printzipioz edo bestela dinamika sozialeko bere sistema-indarra galdu egingo zatekeen.

Alabaina, nahiz eta Marxek kapitalismoa soziologikoki *definitu*, hau da, ekoizpen-bitartekoen gaineko kontrol pribatuaren instituzioz, gizarte kapitalistaren *mekanika* bere teoria ekonomikoak ematen du. Teoria ekonomiko hori datza erakustean nola datu soziologikoak klase, klase-interes, klase-portaera, klaseen arteko truke kontzeptuetan txertaturik daudenek beren helburuak lortzen dituzten balio ekonomiko, irabazi, soldata, inbertsio eta abar bezalako medioan zehar, eta nola generatzen dituzten, hain zuzen, bere marko instituzional propioa errealki hautsiko dituzten prozesu ekonomikoak eta aldi berean sortzen dituzten beste mundu sozial bat azaleratzeko baldintzak. Klase sozialen teoria partikular hori lanabes analitikoa da, zeinak historiaren interpretazio ekonomikoa mozkin-ekonomiaren kontzeptuekin lotuz, ordenatu egiten baititu gertakari sozial guztiak, fenomeno guztiak fokukide egiten baititu. Beraz, horregatik ez da fenomeno

indibidualaren teoria soil bat, fenomeno hori azaldu eta besterik egin behar ez duena. Funtzio organikoa du, zeina errealki askoz garrantzitsuagoa baita marxiar sistemarentzat bere arazo bitartegabea ebazten duen arrakastaren neurria baino. Funtzio hori ikusi beharra dago ulertu nahi badugu nola Marxen ahalmeneko analista batek egonarriz eraman zituen bere akatsak.

Badira, eta beti izan dira, zenbait suhartsu klase sozialen marxiar teoria bere horretan miretsi dutenak. Baina askoz ulergarriagoak dira sintesi horrek bere osotasunean duen indarra eta handiostasuna miresten dituzten guztien sentimenduak, halako punturaino, non prest dauden ia edozein akats atal osagaietan barkatzeko. Saiatuko gara hori geure kabuz ebaluatzen (IV. Kapituluak). Baina aurrena ikusi behar dugu Marxen mekanika ekonomikoak bere burua nola libratzen duen plan orokorrak ezartzen dion atazatik.

III KAPITULUA

MARX EKONOMIALARIA

Teorialari ekonomiko gisa, Marx ezer baino lehen oso gizon ikasia zen. Bitxia gerta liteke nik beharrezko iriztea elementu horri hainbesteko garrantzia ematea genio eta profeta deitu dudana autore baten kasuan. Hala ere, garrantzitsua da hori kontuan hartzea. Genioak eta profetak eskuarki ez dira jakite profesionalean gailentzen, eta haien originaltasuna, halakorik izanez gero, sarritan zor izaten zaio jakiterik ez izateari hain zuzen ere. Baina Marxen ekonomian ezer ez dago azaltzerik erudizio edo trebaketa faltaz analisi teorikoaren teknikan. Irakurle porrokatua eta langile nekagaitza zen. Muntazko ekarpen oso gutxi ihes egin zioten oharkabea. Eta irakurritako guztia digeritzen zuen zibilizazio osoak eta mendeetako garapenak bere begiradak eskuarki besarkatzen zituen batengan oso ez-ohikoak ziren xehetasunerako grinarekin gertakari edo argudio bakoitzarekin borroka eginez. Kritikatzu eta errefusatu edo onartu eta koordinatu, gai bakoitzaren hondoraino iristen zen beti. Horren frogar nabarmena *Plusbalioaren Teoriak* haren obran dago, zeina suhar teorikoaren monumentua baita. Bere burua eskolatzeko eta menderatzeko zegoena menderatzeko ahalegin etengabe horrek nolabait aurreiritzietatik

eta helburu estrazientifikoetatik askatzera jotzen zuen, nahiz eta ikuspen zehatza egiaztatzeko zinez lan egiten bazuen ere. Haren endelgu ahaltsuarentzat, arazo batek halakoa zen heinean zeukan interesa, bere burua gorabehera; eta nahiz eta bere azken *ondorioen* zentzua asko azpimarratu, lanean ari zen bitartean bere interes nagusia zen bere garaiko zientziak sortzen zituen analisirako lanabesak zorroztea, zailtasun logikoak gainditzea eta horrela lortutako oinarrian teoria bat eraikitzea, izaeraz eta asmoz egiazki zientifikoa zena, edozein eratako akatsak izan zitzaakeelarik ere.

Erraz ikusten da zergatik adiskideek eta etsaiek gaizki ulertu zuten haren jardueraren izaera alor ekonomiko hutsean. Adiskideentzat, teorialari profesional huts bat baino askoz gehiago zen eta ia bira-
oa irudituko zitzaiekeen haren lanaren aspektu horri gehiegizko gailentasuna ematea. Etsaiek, haren jarrerak eta haren argudio teorikoaren eraikuntza gaizki hartzen zutenek, ia ezinezkotzat zeukaten onartzea haren obraren atalen batean beste esku batzuek aurkezten zutenean hain balio handia ematen zioten lan-modua egiten zuenik, hain zuzen ere. Gainera, teoria ekonomikoaren metal hotza murgildurik dago Marxen orrialdeetan esaldi lurrin-jariozko halako aberastasunean, non naturalki propioa ez duen tenperatura lortzen duen. Marx zentzu zientifikoan analistatzat hartzeko uziaren aurrean sorbaldak uzkuertzen dituenak esaldi horietan pentsatzen du noski eta ez pentsamenduan, hizkuntza grinatsuan eta «esplotazio» eta «immiserazio» akusazio gorian. (Hauxe da segur aski *Verelendung* hitza iltzultzeko erarik egokiena, zeina ez baita aleman ona ingelesezko munstroa ingeles ona ez den baino gehiago. Italicaz *immiserimento* da.) Seguru, gauza horiek guztiak eta beste hainbat, esaterako bere zirtu isekatiak edo Lady Orkneyri¹ buruzko haren iruzkin arrunta, haren ikuskizunaren atal garrantzitsuak dira, garrantzitsuak izan ziren Marxentzat berarentzat eta halaxe fededunentzat eta fedegabeentzat. Horiek azaltzen dute partez zergatik askok ekiten dioten Marxen teoremetan bere maisuaren antzeko proposizioak baino zerbait gehiago eta oinarrian haie-taz bestelakoak direnak ikusteari. Baina horiek ez dute afektatzen haren analisiaren izaera.

Marxek orduan maisu bat al zuen? Bai. Haren ekonomiaren ulerkuntza erreala, teorialari gisa, Ricardoren ikaslea zela ezagutzetik hasten da. Haren ikaslea zen ez bakarrik haren argudio propioa

Ricardoren proposizioetatik abiatzen delako zentzuan, baizik eta Ricardorengandik teorizatzearen artea ikasi zuelako zentzu askoz garratzitsusagoan ere bai. Beti Ricardoren lanabesak erabiltzen zituen, eta arazo teoriko oro Ricardoren bere azterketa sakonean agertzen zitzaizkion zailtasunetatik eta hark iradokitako ikerketetatik abiatuz planteatzen zituen. Marxek berak onartzen zuen horrelako asko, nahiz eta ez zukeen onartuko, noski, Ricardorekiko bere jarrera irakaslearengana joan, behin eta berriz esaldi hurrenez hurrenekotan biztanleriaren erredundantzia eta erredundantea den biztanleriaz eta berriz ere biztanleria erredundante egiten duen makineriaz entzun, eta gero etxera joan eta gaia lantzen saiatzen den ikasle tipiko bat zenik. Marxi buruzko kontrobertsiako bi alderdiak hori onartzeko uzkur agertu izana agian ulergarria da.

Ricardo ez da Marxen ekonomiaren gain eragina izan zuen bakarra, baina Quesnayz aparte, zeinarengandik Marxek eratorri baitzuen, oro har, prozesu ekonomikoaren oinarritzko kontzepzioa, hau bezalako zirrimarra batean ez dago besterik aipatu beharrik. 1800 eta 1840 bitartean lanaren balioaren teoria garatzen saiatu ziren idazle ingelesen taldeak iradokizun eta xehetasun ugari hornitu ahal izan zituen, baina gure helburuetarako ricardotar pentsamendu-korrontearen aipamenarekin estalirik dago. Zenbait autore, zeinetariko batzuekiko Marx zakar portatzen baitzen, haien distantziarekiko alderantzizko proportzioan eta, zeinen lana puntu askotan parez pare baitzebilen Marxenarekiko (Sismondi, Rodbertus, John Stuart Mill), zerrendatik kanpo utzi behar dira, argudio nagusikoa zuzenki ez den guztia utzi behar den bezala –horrela, esaterako, Marxek diruaren alorrean izan zuen portaera nabarmenki ahula, izan ere hor ez baitzuen Ricardoren mailara iristea lortu.

Orain Marxen argudioaren zirrimarra izugarri laburbildu bat egingo dut, parte batean bukatugabea eta beste parte batean eraso arrakastatsuak egurtua den *Das Kapital* obraren egituraren puntu askorekiko ezinbestean bidegabea. Oraindik ere hedatu egiten da gure aurrean haren horizonte ahaltsua!

1. Marx bere garai propioko eta geroagoko teoriararien bide arrunta eginez, balioaren teoria bere egitura teorikoaren giltzarri bihurtuz abiatu zen. Haren balioaren teoria Ricardorena da. Uste dut Taussig irakaslea, autoritate gailena, ez zettorrela bat horrekin eta bien

arteko desberdintasunak azpimarratzen zituela beti. Desberdintasun handia dago formulazioan, dedukzio-metodoan eta inplikazio soziologikoan, baina ez dago batere teorema soilean, gaur eguneko teorialariari interesatzen zaion bakar horretan². Ricardok eta Marxek diote merkantzia bakoitzaren balioa (oreka perfektuan eta konkurrentzia perfektuan) merkantziaren baitan dagoen lan-kantitatearekiko proportzionala dela, lan hori ekoizpenaren baitan existitzen den efizientzia-mailaren («sozialki beharrezko lan-kantitatea»ren) arabera bada. Biek neurtzen dute kantitate hori lan-ordutan eta metodo bera erabiltzen dute lanaren nolakotasun desberdinak eredu bakar batera murrizteko. Biek aurre egiten diete era berean fokapen horrekin batera doazen atalase-zailtasunei (esan nahi baita, Marxek Ricardogandik egiten ikasi zuenez aurre egiten diela). Ez daukate ezer baliozkorik esateko monopolioaz edo orain konkurrentzia inperfektua deitzen dugunaz. Biek erantzuten diete kritikariei argudio berengatik. Marxen argudioak gizalege gutxiagokoak dira soilik, korapilatsuagoak eta «filosofiko»agoak hitz horren zentzu txarrean.

Mundu guztiak badaki balioaren teoria hori ez dela asebetegarrria. Horri buruz egin izan den eztabaida eskergan, arrazoa ez dago noski dena alde bakarrean eta argudio akastun ugari erabili dituzte aurkariak. Puntu esentziala ez da ea lana den balio ekonomikoaren egiazko «iturburua» edo «kausa». Auzi hori lehen mailako interesekoa izan daiteke ekoizkinarekiko erreibindikazio etikoak deduzitu nahi dituzten filosofo sozialentzat, eta Marx bera ere ez zen axolagabea arazoaren aspektu horrekiko. Ekonomiarentzat zientzia positibogisa, hala ere, prozesu errealak deskribatu edo azaldu behar dituenarentzat, askoz garrantzitsuagoa da galdetzea lanean oinarritzen den balioaren teoriak nola funtzionatzen duen analisi-lanabes gisa, eta horren benetako arazoa da oso gaizki funtzionatzen duela.

Hasteko, ez du inola ere funtzionatzen konkurrentzia perfektuaren kasuaz kanpo. Bigarren, konkurrentzia perfektuarekin ere inoiz ez du eroso funtzionatzen, lana ekoizpenaren faktore bakarra izan ezik eta, areago, lana dena mota batekoa ez bada³. Bi baldintza horietako edozein betetzen ez bada, supostu gehigarriak sarrarazi behar dira eta laster kudeaezin bihurtzen diren tamainaraino gehitzen dira zailtasunak. Lanaren balioaren teoriaren lerroez arrazoitzea horregatik garrantzi praktikorik gabeko oso kasu berezi batez arrazoitzea da,

nahiz eta hartaz zerbait esan litekeen balio erlatiboen joera historikotarako hurbiltze zakar baten zentzuan interpretatuz gero. Hori ordeztu zuen teoriak –haren hasierako eta orain modaz kanpo geratu den eran, utilitate marjinalaren teoria gisa ezaguna denak– puntu askotan nagusitasuna errebindika dezake baina horretarako argudio erreala da askoz orokorragoa izatea eta era berdinean ongi aplikatzea, alde bate-tik, monopolio- eta konkurrentzia inperfektu-kasuei eta, bestetik, beste faktore batzuen eta mota eta nolakotasun oso desberdinetako lanaren presentziari. Gainera, teoria horretan sartzen baditugu aipaturiko supostu murriztaileak, balioaren eta aplikaturiko lanaren kantitatearen arteko proportzionalitatea darraikio horretatik⁴. Beraz, garbi geratu beharko luke ez bakarrik erabat absurdoa zela marxistentzat, hasieran egin zutenez, balioaren baliagarritasun marjinalaren balioz-kotasuna auzitan jartzea (zeina baitzen haiei aurre egiten ziena) baizik ez dela zuzena lanaren balioaren teoriari «oker» deitzea ere. Edozein kasutan hilik eta lurperaturik dago.

2. Nahiz eta dirudien ez Ricardo eta ez Marx ez ziren erabat ohartu posizioaren ahulezia guztiez, zeinean jarri baitzituzten beren buruak abiagune hori hartzean, horietako batzuk argi eta garbi hautesman zituzten. Bereiziki, biek egin zituzten ahaleginak agente naturalen zerbitzuen elementua ezabatzearen arazoa konpontzeko, zeinak noski beren leku propioaz gabetzen baititu ekoizpenaren eta banaketaren prozesuan lanaren kantitatearen gainean bakarrik oinarritzen den balioaren teoriak. Ricardoren lur-errentaren teoria ezaguna ezabatze hori egiteko ahalegin bat da esentzian eta Marxen teoria beste bat. Errentaz soldataz bezain naturalki arduratzen den aparatu analitiko baten jabe garen bezain laster zailtasun osoa desagertu egiten da. Horregatik ez dago ezer gehiago esan beharrik errenta diferentzialetik desberdinduriko errenta absolutuaren Marxen doktrinaren meritu edo demeritu intrintsekoetz, edo Rodbertusenarekin berak duen erlazioaz.

Baina horri pasatzen uzten badiogu ere, kapitalaren presentziatik sortzen den zailtasuna geratzen zaigu oraindik, beren burua ekoizten duten ekoizpen-bideen stock baten zentzuan. Ricardori oso era sinplean aurkezten zitzaion: bere *Printzipioen* lehen kapituluaren IV. atalean gertakari gisa sarrarazten eta onartzen du, auzitan jartzen ahalegindu gabe, planta, makineria eta lehengaiak bezalako kapital-ondasunak erabiltzen diren bitartean merkantzia baten ekoizpenean,

merkantzia hori prezio batean salduko dela, zeinak irabazi garbia emango baitio kapital-ondasun horien jabeari. Ohartu zen gertakari horrek baduela ikustekorik inbertsioaren eta ekoizkin salgarrien artean igarotzen den denboraldiarekin eta horrek behartu egingo dituela horien balio errealean desbiderapenak proportzionalitatekin horien «baitan dauden» gizaki-orduetara –kapital-ondasunen beraien ekoizpenean izan diren gizaki-orduak barruan sartuz– aldi horiek industria guztietan berak ez direnetan. Hori seinatzen du hemen balioari buruzko oinarritzko bere teorema desberdintasun horiek berretsiko balute bezalako axolagabetasunarekin, kontra egin beharrean, eta izaitez ez doa hori baino urrunago, zentzu horretan sortzen diren bigarren mailako arazo batzuk eztabaidatzera eztabaida mugatuz eta haren teoriak balioaren determinatzaile oinarritzkoa azaltzen duela zinez sinetsiz.

Marxek era berean sartu, onartu eta eztabaidatu zuen gertakari bera eta sekula ez zuen auzitan jarri gertakari gisa. Gainera konturatu zen itxuraz gezurtatu egiten duela lanaren balioaren teoria. Baina eza-gutu zuen Ricardok arazoaz egin zuen tratamenduaren desegokitasuna eta, nahiz eta onartu arazoa bera Ricardok aurkeztu zuen eran, seriotan hari erasotzeko prestatu zen, Ricardok eskaini zizkion esaldiak adina ehunka orrialde eskainiz.

3. Horrela egitean ez zuen erakutsi tarteko zen arazoaren hautemate askoz zorrotzagoa bakarrik, baizik eta jasotako aparatu kontzeptuala hobetu ere egin zuen. Adibidez, ordeztu egin zuen hoberako kapital finko eta zirkulatzailearen (soldatak) arteko Ricardoren bereizkuntza kapital iraunkor eta aldakorraz, eta Ricardoren ekoizpen-prozesuen iraupenari buruzko hasi-masizko nozioak askoz errigore handiagokoa den «kapitalaren egitura organikoa» kontzeptuaz, zeinak abiarazten baitu kapital iraunkor eta aldakorren arteko erlazioa. Beste ekarpen ugari ere egin zizkion kapitalaren teoriari. Hala eta guztiz ere, orain kapitalaren errendimendu garbiaren, haren esplotazioaren teoriaren azalpena mugatuko gara.

Masak ez dira beti frustratuak eta esplotatuak sentitu. Baina haien ikuspegiak beraien ordezkari formulatu zituzten intelektualek beti esan zieten hala zeudela, nahiz eta derrigor ezer zehatzik ez adierazi hori esatean. Marxek ezingo zukeen esaldia gabe pasatu horrela nahi izan balu ere. Bere meritua eta lorpena izan ziren masen gogamenaren

tutoreek bere aurretik esplotazioa nola gertatu zen erakusteko erabili zituzten argudio desberdinen ahulezia hautematea eta, zeinek gaur egun ere oraindik merkatuan dabiltzan erradikal arrunten gordailua hornitzen baitute. Negoziatzeko ahalmenari eta iruzur egiteari buruzko ohiko esloganetako batek ere ez zuen asetzen. Berak frogatu nahi zuen esplotazioa ez zela egoera indibidualetatik okasioz edo akzidentez sortzen; baizik sistema kapitalistaren logika beretik sortzen zela, saihetsezinki eta edozein asmo indibidualekiko independenteki.

Hara nola egin zuen hori. Langile baten garuna, giharrak eta nerbioak, nolabait esateko, lan potentzialeko funts edo gordailua eratzen dute (*Arbeitskraft* eskuarki lan-indar gisa itzultzen da oso egoki ez bada ere). Funts edo gordailu hori Marxek kantitate zehaztu batean existitzen den eta gizarte kapitalistan beste edozein merkantzia bezalakoa den substantzia gisa kontsideratzen du. Pentsamendu hori geure artean argitzeko esklabotzaren kasura jo dezakegu: Marxen ideia da desberdintasun esentzialik ez dagoela, nahiz eta sekundario ugari izan, soldata-kontratuaren eta esklaboa erostearen artean –lanesku «librea»ren enplegatzaileak erosten duena ez da noski, esklabotzaren kasuan bezala, langileak berak baizik beren lan potentzialaren batura osoaren kuota zehatz bat.

Alabaina lana zentzu horretan (ez lan-zerbitzua edo gizaki-ordu erreala) merkantzia denez gero balioaren legea aplikatu behar zaio. Esan nahi baita, orekan eta konkurrentzia perfektuan haren «ekoizpenean» sartu diren lan-orduen kopuruari proportzionala zaion soldata hartu behar duela. Baina zer lanesku-*orduzko* kopuru sartzen da langile baten larruaren barruan biltegiturik dagoen lanesku potentzialaren gordailuaren «ekoizpenean»? Langilea zaindu, elikatu, jantzi eta ostatatzen behar izan den eta behar den lan-*orduen* kopurua⁵. Horrek eratzen du gordailu horren balioa, eta berak horren parte bat saltzen badu –egunetan edo astetan edo urtetan adierazia– parte horien lan-balioari dagozkion soldatak hartuko ditu, esklabo-merkatarri batek esklabo bat saltzean orekatzat lan-*ordu* horien kopuru totalarekiko prezio proportzional bat hartzen zuenez. Beste behin ohartu beharko litzateke Marxek horrela oso garbi mantentzen dituela esloga herritar horiek guztiak, zeinek era batean edo bestean sostengatzen baitituzte lan-merkatu kapitalistan langileari lapurreta edo iruzurra egiten zaiola edo, haren ahulezia deitoragarrian, inposatzen zaion

edozein termino onartzera besterik gabe bultzatzen dutela. Gauza ez da hain sinplea: bere lan-potentzialaren balio osoa eskuratzen du.

Baina «kapitalistak», zerbitzu potentzialaren gordailu hori berenganatu dutenean, gordailu hori edo gordailu potentzial hori ekoizteko behar dena baino ordu gehiago lan egitera –zerbitzu erreal gehiagoragok– eragitera– langilea behartzeko eran daude. Zentzu horretan ordaindu ditzuten baino lan-ordu erreal gehiago eskura ditzakete indarrez. Sortzen diren ekoizkinak ere haien ekoizpenean sartzen diren gizakiorduekiko proportzionala den prezioan saltzen dituztenez gero, desberdintasun bat dago –zeinak ez baitira sortzen Marxen balioaren legearen *modus operandi*tik baizik– derrigor eta merkatu kapitalisten mekanismoaren indarrez kapitalistarengana doazen bi prezioen artean. Hori da Plusbalioa (*Mehrwert*)⁶. Hori bereganatzean kapitalistak «esplotatu» egiten du langilea, nahiz eta ez ordaindu langileei haien lan-potentzialaren balio osoa baino gutxiago eta kontsumatzailearengandik hark saltzen dituen ekoizkinen balio osoa baino gehiago ez hartu. Beste behin ohartu behar da ez dela prezio-ezartze desegokira jotzen, ekoizpen-murritzpenera edo ekoizkinei merkatuetan iruzur egitera. Marxek ez zeukan noski horrelako praktiken existentzia ukatzeko asmorik. Baina horiek beren egiazko ikuspegian ikusten zituen, eta, horregatik horien gainean ez zuen oinarritzko ondorioz bermatzen.

Mirets dezagun, bidenabar, horren pedagogia: «esplotazio» hitzak orain hartzen duen esanahia nahiz eta berezia eta bere ohiko zentzutik aldendua izan, nahiz eta zalantzazkoa izan lege naturaletik eta Ilustrazioaren eskolastiko eta idazleengandik eratorzen duen sostengua, argudio zientifikoaren mugen barruan sartzen da azken finean eta horrela bere borrokak egitera doan dizipulari adorea ematearen helburua betetzen du.

Argudio zientifiko horren merituei dagokienez arduraz bereizi behar ditugu horren bi aspektu, zeinetako bat behin eta berriz zabartu baitute kritikariek. Prozesu ekonomiko geldikorraren teoriaren maila arruntan erraza da erakusten Marxen beraren usteen pean plusbalioaren doktrina sostengaezina dela. Lanaren balioaren teoria, nahiz eta beste edozein merkantziatarako baliozkoa dela onartu ahal izango bagenu ere, sekula ezingo litzaioke lanaren merkantziari aplikatu, zeren horrek langileak, makinak bezala, kostu-kalkulu arrazionalen arabera ekoizten direla inplikatuko bailuke. Hori gertatzen ez denez

gero ez da bermerik laneku-indarraren balioa bere «ekoizpenean» sartzen diren gizaki-orduekiko proportzionala izango dela uste izateko. Marxek hobetu egingo zukeen logikoki bere posizioa Lassalleren soldaten burdinazko legea onartu izan balu edo, Ricardok bezala, malthusiar bideetatik argudiatu besterik egin izan balu. Baina oso zuhurki hori egiteari uko egin zionez gero esplotazioaren haren teoriak galdu egiten du bere zurkaitzik esentzialenetako bat hasieratik beretik⁷.

Gainera, erakuts daiteke konkurrentzia-oreka perfektua ezin litekeela existi kapitalista-enplegatzaile guztiek esplotazio-mozkinak egiten dituzten egoera batean. Zeren kasu horretan indibidualki ahaleginduko bailirateke ekoizpena hedatzen, eta horren masa-efektuak ezin ekidinezko eran joko bailuke soldata-tasak gehitzera eta mota horretako mozkinak zerora murriztera. Inola ere ez litzateke ahalgarri izango kasua nolabait konpontzea konkurrentzia inperfektuaren teoriara joz, konkurrentzia funtzionatzearen frikzioa eta inhibizio instituzionalak sarraraziz, diruaren eta kredituaren eta abarren esferan eragozpen-ahaltasun guztiak azpimarratuz. Kasu moderatu bat bakarrik konpondu ahal izango zatekeen horretara, baina Marxek berak bihotzez mespretxatuko zukeena.

Baina bada gaiaren beste aspektu bat. Aski dugu Marxen helburu analitikoari begiratzea hain erraz bera azpira daitekeen borroka-zelai batean borroka onartu beharrik ez zeukala konturatzeke. Baina hori oso erraza da oreka perfektuko prozesu ekonomiko geldikorreki buruzko proposizioa baizik ikusten ez badugu plusbalioaren teorian. Nola analizatzean ez zuen orekatzeko egoera bat lortu nahi, zeina beraren arabera ez baitago inoiz lortzerik gizarte kapitalistan, baizik alderantziz etengabeko aldaketatzeko prozesu bat egitura ekonomikoan, goiko lerroei buruzko kritika ez da erabat erabakigarria. Plusbalioak baliteke ezinezkoak izatea oreka perfektuan baina beti presente egon litezke zeren oreka horri ez baitzaio inoiz finkatzen uzten. Baliteke beti desagertzea *jotzea* eta, hala ere, beti hor egotea etengabe birsortzen direlako. Defentsa honek ez du erreskatatuko lanaren balioaren teoria, lana merkantziari aplikatzen zaion gisa bereziki, edo esplotazioaren argudioa bere horretan dagoenez. Baina aukera emango digu emaitzari buruzko interpretazio aldekoago bat egiteko, nahiz eta plusbalio horien teoria asebetegarriagoak marxiar konnotazio bereziaz gabetuko dituen. Aspektu hori garrantzi nabarmenekoa dela ikusten da. Argi berria egi-

ten du analisi ekonomikorako Marxen aparatua gain eta aparatu hori zergatik ez zuen askoz makurrago kalteturik utzi bere oinarrien aurka zuzenduriko kritika arrakastatsuak ia azaltzera iristen da.

4. Hala eta guztiz ere, Marxen doktrinen eztabaida eskuarki mugitzen den mailan jarraitzen badugu, zailtasunetan gero eta sakonago sartzen gara edo bestela hori gertatzen zaiela hautematen dugu fededunei maisuari bidean segitzen ahalegintzen direnean. Lehenengo eta behin, plusbalioaren doktrinak ez du errazten goian aipaturiko arazoak ebaztea, zeinak sortzen baititu lanaren balioaren teoriaren eta errealitate ekonomikoko gertakari soilen arteko desakordioak. Alderantziz, areagotu egiten ditu, zeren horren arabera, kapital iraunkorrek –hau da, soldatazkoa ez den kapitalak– ez dio transmititzen ekoizkinari bere ekoizpenean galtzen duen baino balio gehiago; soldata-kapitalak bakarrik egiten du hori eta irabazitako mozkinak ondorioz aldatu egin behar dute, enpresa batetik bestera, beren kapitalen osaera organikoaren arabera. Marxek kapitalisten arteko konkurrentziara jotzen du plusbalioaren «masa» totalaren banaketa burutzeko, halako moldez, non enpresa bakoitzak bere kapital totalarekiko proportzionalak diren mozkinak irabaz ditzan, edo mozkinen tasa singularrak berdinduak izan daitezzen. Laster ikusten dugu teoria osasungaitz bat⁸ lantzeko ahaleginetatik beti sortzen diren arazo faltsuen motakoa dela zailtasuna, eta soluzioa etsipenezko aholkuen motakoa. Marxek, hala ere, ez zuen sinesten bakarrik azken horrek aukera ematen zuela mozkinen tasa uniformeen emergentzia finkatzeko eta, hori dela-eta, merkantzien prezio erlatiboak nola desbideratuko diren haien balioetatik lanaren terminotan⁹, baizik haren teoriak beste «lege» baten azalpen bat eskaintzen zuela, doktrina klasikoan garrantzi handia zuena, hau da, mozkinaren tasak erortzeko joera inherentea daukalako baieztapena. Izan ere, hori nahiko era onargarrian dator kapital totalaren parte iraunkorraren garrantzi erlatiboa haztetik soldata-ondasunezko industrietan: baldin eta industria horietan hazten bada planta eta ekipamenduen garrantzi erlatiboa, bilakaera kapitalistaren joairan gertatzen denez, plusbalio-tasak edo esplotazio-graduak bere horretan badirau, orduan kapital totalaren irabazi-tasa oro har urritu egingo da. Argudio horrek miresmen handia sorrarazi du eta eraikuntzan bertan sartzen ez zen behaketa bat gure teoretako batek azaltzen duenean sentitu ohi dugun satisfakzio guztiarekin begiratzen

bide zion segur aski Marxek berak ere. Interesgarria litzateke haren meritu propioengatik eta hura eratortzean Marxek egin zituen akatsak kontuan izan gabe hori eztabaidatzea. Ez daukagu hori egiten aritu beharrik, zeren haren premisek aski gaitzetsia baitute. Baina proposizio ahaide baina ez identiko batek bi gauza ematen ditu, marxiar dinamikako «indar» garrantzitsuetako bat eta esplotazioaren teoriaren eta Marxen egitura analitikoko hurrengo solairuaren, eskuarki metaketa-aren teoria gisa ezagutu izan denaren arteko katemaila.

Lanesku esplotatutik erauzitako harrapakinaren parterik handiena (zenbait dizipuluren arabera, praktikoki ia dena) kapitalistek kapital bihurtzen dute –ekoizpen-tresna. Bere baitan eta Marxen fra-seologiak ezarritako konnotazioak kenduz gero, aurrezte- eta inbertitze-terminotan eskuarki deskribatzen den gertakari oso ezagun baten baieztapena besterik ez da noski. Marxentzat hala ere gertakari soil hori ez zen aski: prozesu kapitalista logika gupidagabea destolestu behar bazen, gertakari horrek logika haren parte izan behar zuen eta horrek praktikoki beharrezkoa izan behar zuela esan nahi du. Era berean ez zatekeen asebetegarria izango ere behartasun hori klase kapitalistaren psikologia sozialetik sorraraztea, adibidez, Max Weberrek jarrera puritanoak –eta norberaren mozkinaren gozamen hedonistari uko egitea bistakoa denez ongi egokitzen zaio haren ereduari– portaera kapitalistaren determinatzaile kausal egin zituen antzera. Marxek ez zuen mespretxatu bere metodotik eratortzeko gai sentitzen zen ezein laguntza¹⁰. Baina beharrezkoa zen hori baino zerbait substantzialagoa egotea horrela diseinaturiko sistema baterako, zeinak bultzatzen baititu kapitalistak metatzera horretaz sentitzen duenari jaramon egin gabe, eta, zeina aski ahaltsua baita eredu psikologiko hori bera azaltzeko. Eta zorionez badago.

Aurrezteko konpultsio horren izaera azaltzeko orduan, Marxen irakaspena onartuko dut komenientziarengatik: hau da, hark bezala suposatuko dut klase kapitalistaren aurrezteari *ipso facto* kapital erre-alaren hazkuntza dagokiola¹¹. Mugimendu hori lehenik eta behin kapital totalaren parte aldakorrean, soldata-kapitalean gertatzen da beti, nahiz eta asmoa parte iraunkorra eta bereziki Ricardok kapital finkoa deitu zuena, bereziki nagusiki makineria haztea izan.

Marxen esplotazioaren teoria aztertzean azpimarratu dut ekonomia perfektuki lehiakor batean esplotazio-irabaziek ekoizpena

hedatzera bultzatuko lituzketela kapitalistak, edo hori hedatzen aha-
legintzera, zeren horietako bakoitzaren ikuspuntutik horrek mozkin
handiagoa esan nahiko bailuke. Horrela jokatzeko metatu egin
beharko lukete. Gainera horren masa-efektuak plusbalioak murrizte-
ko joera izango luke, soldata-tasen ondoriozko hazkuntzaren bitar-
tez, ekoizkinen prezioen ondoriozko erorikoaren bitartez ere ez bal-
din bada –Marxek hain gogokoak zituen kapitalismoaren baitako
kontraesanen oso adibide bikaina. Eta joera hori bera izango litzate-
ke, kapitalista banakoarentzat ere, beste arrazoi bat gehiago metatze-
ra bultzatua sentitzeko¹², nahiz eta horrek bere aldetik azken finean
gauzak okerragotuko lituzkeen klase kapitalistarentzat bere osotasu-
nean harturik. Hortik metatzeko konpulsio gisako bat sortuko litza-
teke bestelakoan geldikorra den prozesu batean, zeina gorago aipatu
dudanez, ezingo bailitzateke oreka egonkorrera iritsi, harik eta meta-
ketak plusbalioa zerora murriztu eta horrela kapitalismoa bera sun-
tsitu duen arte¹³.

Hala ere, askoz eragin garrantzitsuagoa eta askoz drastikoagoa
du beste zerbaitek. Izatez, ekonomia kapitalista ez da eta ezin da izan
geldikorra. Era iraunkorrean hedatu ere ez da egiten. Etengabe iraul-
tzatu egiten dute *barrutik* enpresa berriek, hau da, merkantzia berriak
edo ekoizpen-metodo berriak edo aukera komertzial berriak edozein
unetan dagoen bezalako egitura industrialean sartzeak. Existitzen den
edozein egitura eta negozioak egiteko baldintza guztiak aldaketa-pro-
zesuan daude beti. Egoera oro porrokatu egiten da bere burua lantze-
ko astia izan baino lehen. Progresu ekonomikoak, gizarte kapitalistan,
porrokatzea esan nahi du. Eta hurrengo atalean ikusiko dugunez,
nahas-mahas horretan konkurrentziak zeharo bestelako era batean
funtzionatzen du prozesu geldikor, nahiz eta perfektuki lehiakor bate-
an, funtzionatuko lukeenaren aldean. Gauza berriak ekoiztuz edo
gauza zaharrak merkeago ekoiztuz irabazi-aukeren uzta jasotzeko
abaguneak etengabe mamitzen eta inbertsio berriak eskatzen aritzen
dira. Ekoizkin berri eta metodo berri horiek lehian aritzen dira ekoiz-
kin zahar eta metodo zaharrekin termino berdinetan baina abantaila
erabakigarrian, zeinek azken horien heriotza ekar baitezakete. Horrela
gertatzen da «progresua» gizarte kapitalistan. Azpisaldua izateari ihes
egiteko, enpresa *oro* azken finean behartua sentitzen da bide bera
jarraitzera, bere aldetik inbertitzera, eta horrela jokatzeko gai izateko

bere mozkinen parte bat berrinbertitzera, hau da, metatzera¹⁴. Horrela, beste guztiek ere metatu egiten dute.

Orduan Marxek aldaketa industrialeko prozesu hori askoz argiago ikusi zuen eta bere garaiko beste edozein ekonomialari baino osokiago ohartu zen horren garrantzi erabakigarriaz. Horrek ez du esan nahi zuzen ulertu zuenik haren izaera edo haren mekanismoa egoki aztertu zuenik. Harekin mekanismo hori kapital-masen mekanika soil bihurtzen da. Ez zeukan enpresaren teoria egokirik, eta enpresarioa eta kapitalista bereizteko haren porrotak, teknika teoriko akastun batekin batera, *non sequitur* kasu eta hutsegite ugari azaltzen ditu. Baina prozesuaren ikuspen soila bere baitan aski zen Marxek buruan zeuzkan asmo askotarako. *Non sequitur* kasuak utzi egiten dio objektio makur izateari, baldin eta Marxen argudioari ez darraikiona besteren batetik segiarazterik badago; eta hutsegite eta interpretazio desegoki nabarmen asko sarri askotan salbaturik geratzen dira argudioaren zirrmarra orokorraren funtsezko zuzentasunarengatik, zeinaren joairan gertatzen baitira –bereziki kaltegabeko bihur daitezke analisiaren hurrengo urratsetarako, zeinak egoera paradoxazko hori preztatzeko gai ez den kritikariari inolako helegiterik gabe gaitzetsiak iruditzen baitzaizkio.

Lehenago ere izan dugu horren adibide bat. Bere horretan harturik, Marxen plusbalioaren teoria sostengaezina da. Prozesu kapitalistak kostuaren gainetik plusbalio-irabazi tenporalezko uhin errepikariak ekoizten dituen bezala gero, zeina nahiz eta oso era ez-marxiarrean, beste teoria batzuek oso ongi azaltzen baitute, Marxen hurrengo urratsa, metaketari atxikia, ez dago bere aurreko laprastadek erabat bizia-tua. Era beretsuan, Marxek berak ez zuen asetzeko moduan ezarri metatzeko konpultsio hura, haren argudioarentzat hain esentziala dena. Baina haren azalpenaren eskasiek ez dute kalte handirik sortzen, zeren aipaturiko eran, laster eman baitezakegu guk geuk beste asegarriago bat, zeinean besteak beste mozkinen erorikoa berez kokatzen baita dagokion lekuan. Kapital industrial totalarekiko mozkin-tasa agregatuak ez dauka epe luzean erori beharrik, ez kapital iraunkorra kapital aldakorrarekiko¹⁵ erlazioan hazten delako marxiar arrazoia-rengatik edo beste edozein arrazoi-rengatik. Askari da, dagoeneko ikusi dugunez, enpresa bakoitzaren mozkinak etengabe mehatxaturik edukitzea merkantzia berrien edo ekoizpen metodo berrien konkurrentzia

erreal edo potentzialak, zeinek lehenago edo geroago galera bihurtuko baitu. Horrela lortzen dugu beharrezko indar bultzatzailea, baita kapital iraunkorrak plusbaliorik ekoizten ez duelako Marxen proposizioaren *analogon* bat ere –zeren kapital-ondasunen multzokatze bako bateg ere ez baitu irauten betiko plusbalio-iturri gisa– baliozkotasun zalantzakorrekoak diren bere argudioaren parte horietaz fidatu beharrik izan gabe.

Beste adibide bat Marxen kateko hurrengo katemailak, haren kontzentrazio-teoriak ematen digu, hau da, bai planta industrialen eta bai kontrol-unitateen tamaina hazteko prozesu kapitalistaren joeraren haren tratamenduak. Azalpenean emateko daukan guztia¹⁶, bere iruditiaz gabetu ondoren, esaldi hotz hauetara murrizturik geratzen da: «merketuz doazen merkantziek burutzen dutela konkurrentziaren bataila»¹⁷, zeina *caeteris paribus*, lanaren ekoizkortasunaren baitan baitago»; eta hori berriz ekoizpenaren eskalaren baitan dago; eta «kapital handiagoek txikiagoak menderatzen dituztela». Hori ikasliburu arruntek gaiaz diotenaren oso antzekoa da, eta ez oso sakona edo miresgarria bere horretan. Bereziki desegokia da «kapital» banakoen tamaina bakarrik azpimarratzeagatik, eta efektuen deskribapenean Marxek traba handiak aurkitzen ditu teknikaren aldetik, zeina ez baita gai ez monopolioa eta ez oligopolioa eraginkortasunez lantzeko.

Baina beren taldeaz kanpoko hainbeste ekonomialarik teoria horrekiko sentitzen duten miresmena ez da justifikaziorik gabea. Zeren, alde batetik, negozio handiaren etorrera iragartzea, Marxen garaiko baldintzak kontuan izanik, lorpena baitzen bere horretan. Baina hori baino gehiago ere egin zuen. Trebeki lotu zuen kontzentrazioa metaketa-prozesuarekin edo, areago, lehen partea bigarrenaren parte gisa kontzebitu zuen, eta ez haren eredu faktualaren parte gisa bakarrik, baita haren logikarena ere. Ondorioetako batzuk zuzen hauteman zituen –adibidez «kapital-masa banakoen kopuru hazkorra iraultza etengabe baten oinarri material bihurtzen delakoa ekoizpen-moduan bertan» –eta beste batzuk alderdi bakar edo distortsionatutik gutxienez. Fenomenoaren inguruko atmosfera elektrifikatu egin zuen klase-borroka eta politikaren dinamo guztiez –eta horiek bakarrik aski izango ziratekeen haren agerpena inplikaturiko teorema ekonomiko lehorren gainetik altzarazteko, batez ere inolako irudimen propiorik ez zuen jendearentzat. Eta, denetan garrantzitsuena, aurrera jotzeko

gai izan zen, bere koadroko trazu banakoen motibazio desegokiak edo profesionalari bere argudioan zorrotasun-gabezia gisa agertzen zaionak ia batere trabarik jarri gabe, zeren azken finean erraldoi industrialak ikuspegian baitzeuden eta horrela baitzegoen berek sortzekoa zen instituzio soziala ere.

5. Beste bi puntuk osatuko dute zirrimarra hau: *Verelendung*-aren Marxen teoriak edo, hartzera ausartu naizen ingelesezko baliokidea erabiliz, immiserazio edo errumestearenak, eta merkataritzazikloaren haren (eta Engelsen) teoriak. Lehenean, bai analisiak eta bai ikuspenak erremediorik gabe huts egiten dute; biek abantaila erakusten dute bigarrenean.

Marxek zalantzarik gabe sostengatzen zuen, bilakaera kapitalistaren joairan, masen soldata-tasa errealak eta bizi-maila erori egingo zirela, hobeki ordainduen estratuetan, eta ez zutela lortuko okerrago ordainduetakoetan hobetzea, eta hori ez zela ezein zirkunstantzia akzidentezko edo ingurumenezkoren bitartez gertatuko baizik prozesu kapitalistaren logika beraren indarrez¹⁸. Iragarpen gisa, jakina, bereziki doakabea gertatu zen hori eta mota guztietako marxistak gogor saiatu dira aurrez aurre zeukaten eta argiro kontrakoa zen frogatik ahalik eta abantailarik hoberena ateratzen. Lehenik, eta zenbait adibide bakartutan baita gure eguna arte ere, seta ohargarria erakutsi zuten soldata-estatistikek eramandako joera errealaen baieztapen gisa «legea» salbatzen ahaleginduz. Gero ahaleginak egin ziren horretan bestelako esanahi bat irakurtzeko, esan nahi baita, hori soldata errealaen tasei edo langile-klaseari dagokion kuota absolutuari ez lotzeko baizik lan-errenten kuota erlatiboari errenta nazional totalean. Nahiz eta Marxen zenbait pasartek errealki zentzu horretako interpretazioa ematen duten, horrek argi eta garbi bortxatzen du gehienek esanahia. Gainera, ezer gutxi irabaziko litzateke interpretazio hori onartuz gero, zeren Marxen ondorio nagusiek lanaren *per capita* kuota *absolutuak* erori egin behar duela edo, gutxienez, ez duela hazi behar auresuposatzen baitute: errealki kuota erlatiboaz pentsatzen ari izan bazen horrek gehitu besterik ez zituzkeen egingo marxiarren axanpak. Azkenik proposizioa bera ere gaizki egongo litzateke. Zeren soldata eta jernalen kuota erlatiboa errenta totalean aldatu egiten da baina urtetik urtera gutxi eta nabarmenki iraunkorra da denboran zehar, erortzeko joerarik ageri gabe noski.

Guztiarekin ere, badirudi badagoela beste bide bat zailtasun honetatik irteteko. Baliteke joera bat ez agertzea gure denbora-serie estatistikoetan –zeinek alderantzizkoa ere erakutsi baitezakete kasu honetan egiten dutenez– eta hala ere azterketapeko sistemari barneatxikirik egon liteke, zeren salbuespeneko baldintzek ezabatzen modukoa izan bailiteke. Hori da izan ere marxista moderno gehienek hartzen duten bidea. Salbuespeneko baldintzak hedapen kolonialean aurkitzen dira edo, orokorrago, herrialde berriak hemeretzigarren mendean irekitzean, zeina sostengatzen baita esplotazioaren biktimeneztat «menia» baten ekarle gisa¹⁹. Hurrengo atalean gai hori lantzeko aukera izango dugu. Bitartean, ohar dezagun gertakariak *prima facie* sostengua ematen diotela argudio horri, zeina eztabaida ezina baita logikan eta horrenbestez zailtasuna ebatzi egin ahal izango bailuke joera hori bestalde ongi finkaturik balego.

Baina arazo erreala da Marxen egitura teorikoa fidagarria ez beste edozer dela sektore horretan: ikuspena ez ezik, oinarri analitikoa ere oker dago. Errumeste-teoriaren oinarria «erreserba-armada industrial»ren teoria da, hau da, ekoizpen prozesuare²⁰ mekanizazioak sorturiko desenpleguarena. Eta erreserba-armadaren teoria bere aldetik makineriari buruzko Ricardoren kapituluaren aurkezturiko doktrinaren oinarriturik dago. Marxek ez du beste inon –balioaren teoria salbuesirik noski– Ricardorenarekiko hain dependentzia erabatekoan argumentatzen ezer esentzialik gehitu gabe²¹. Fenomenoaren teoria hutsaz bakarrik ari naiz noski. Marxek, beti bezala, ukitu txiki ugari gehitu zituen, adibidez, orokortze egoki bat, zeinaren bidez langile trebatuak ez-trebatuez ordeztzea enplegugabezia kontzeptuan sartzeko egiten baita; ilustrazio eta fraseologia-aherastasun mugagabea gehitu zuen; eta, beste ezer baino garrantzitsuagoa dena, bere prozesu sozialaren testuinguru zirraragarria, atzealde zabalak gehitu zituen.

Ricardo hasieran makurturik egon zen makinak ekoizpen-prozesuan sartzeko masentzat kaltegarri nekez izan zitekeelako ikuspegi hori, garai guztietan oso arrunta izan den hori partekatuz. Iritzi hori edo, bere baliozkotasun orokorra jazoera guztietan zalantzan jartzera iritsi zenean, zabalatasun karakteristikoarekin berrikusi zuen bere jarrera. Karakteristikotasun beraz saiatu zen hori egiten eta, «kasu sendoak irudikatzearen» ohiko bere metodoa baliatuz etsenplu numeriko bat sortu zuen, ekonomialari guztiek ongi ezagutzen dutena, gau-

zak beste era batean ere gerta zitezkeela erakusteko. Ez zuen ukatze-ko asmorik, bestalde, ahalbide bat entseatzen bakarrik ari zela –nahiz eta gertaezina ez izan– edo, bestalde, azken finean lanarentzako mozkin garbia mekanizazioaren bitartez sortuko zela ekoizpen totala, prezioak eta abarren gaineko bere ondorengo efektuen bitartez.

Etsenplua zuzena da puntu horretaraino²². Gaur eguneko metodo zertxobait errefinatuagoek sostengatu egiten dute haren emaitza, halako punturaino, non espero zuen ahalbidea ametitzen baitu aldearantzizkoa ere era berean finkatuz; gainditu egiten dute ondorio bat edo bestea jarraituko zaiona determinatzen duten baldintza formalak ezarriz. Hori besterik ezin dezake egin teoria huts horrek guztiak. Datu gehiago behar dira efektu erreala iragartzeko. Baina gure helburuari dagokionez, Ricardoren etsenpluak beste zertzelada interesgarri bat ere aurkezten du. Kapital-zenbateko jakin bat eta langile-kopuru jakin bat enplegatzen ari den enpresa kontsideratzen du mekanizatoranzko urrats bat egitea erabakitzen duena. Horren arabera, langile horietako talde bat makina bat eraikitze-atazara esleitzen du, zeinak instalatu ondoren aukera emango baitio enpresari talde horren parte batez gabetzeko. Mozkinak baliteke lehengoan geratzeari (irabazi temporal oro ezabatuko duten konkurrentziazko doiketak egin ondoren) baina errenta gordina suntsitu egingo da orain «libre utzi» diren langileei alde zurretik ordainduriko soldaten zenbateko zehatzeraino. (Soldata) -kapital aldakorra kapital iraunkorraz ordeztearen Marxen ideia gaia honela planteatzearen ia erreplika zehatza da. Jarraituko zaion biztanleriaren errendundantzian Ricardok egiten duen hanpadura era berean Marxek biztanleria-*soberakinean* egiten duen hanpaduraren zehazki parez parekoa da; termino hori «erreserba-armada industrial» terminoaren alternatibo gisa erabiltzen baitu. Ricardoren irakaspena amua, kordela eta berunarekin irentsi du hemen.

Ricardok begietan zeukan asmo murriztuaren barruan mugitzen garen bitartean onartzeko modukoa dena zeharo desegoki bihurtzen da –izatez beste *non sequitur* baten iturria, oraingoan azken emaitzen ikuspen zuzenak salbatzen ez duena– oinarri ahul horren gainean Marxek eraikitako gainegitura kontsideratzen dugun bezain laster. Horrelako sentimenduren batzuk berak eduki zituela ematen du. Zeren zerbait etsipenezkoa duen energia batez oratu zion bere irakaslearen emaitza kondizionalki ezkorri horren kasu sendoak baka-

rrik ahalgarri balira bezala, eta oraindik energia etsipenezkoagoz borroka egin zuen makina-aroak lanari eskain diezazkiokeen konpentsazioen Ricardoren iradokizunaren inplikazioak garatu zituzten autoreen aurka, makineria sartzearen berehalako efektuak kaltea eragindako tokian (konpentsazioaren teoria, marxista guztien aiherrigokoena).

Arrazoi guztiak zituen bide horri lotzeko. Zeren erreserba-armadaren haren teoriarentzat oinarri irmo baten premia handia baitzuen, zeinak oinarrizko garrantzia duten bi helburu zerbitzatu behar baitzituen, garrantzi txikiagoko beste batzuen ondoan. Lehenik, jadanik ikusi dugu esplotazioaren doktrina zurkaitz esentziala deitu dudana gabetu duela bere aiherraz, oso ulerkorra dena bere baitan, biztanleriaren teoria malthusiarraz baliatuz. Zurkaitz hori erreserba-armada beti birsortua delako beti presentea denaz ordeztu zen²³. Bigarren, berak hartutako mekanizazio-prozesuaren ikuspegi bereziki estua esentziala izan zen *Das Kapital*aren lehen liburukiko XXXII. kapituluko esaldi erresonantziadunak motibatuzeko, zeinak zentzu batean bukaera galdor-ezarlea baitira ez bakarrik liburukiarena baizik Marxen obra osoarena. Osoki aipatuko ditut –auzitan daukagun puntuak beharrezko duena baino osokiago– neure irakurleei Marxen ikuspegi bat emateko jarreran, zeinak modu berean ematen baitu batzuen suharraren eta besteen mespretxuaren berri. Horrela ez diren gauza batzuen osaera edo egia profetikoaren muina bera, hona hemen:

«Zentralizazio, edo kapitalista gutxi batzuek asko desjabetze horrekin eskuz esku, garatzen du... nazio guztien katigatzea mundumerkatuko sarean, eta horrekin, eraentza kapitalistaren izaera nazioartekoa. Etengabe urritzen ari den kapitalaren magnateen kopuruarekin batera, zeinak usurpatzen eta monopolizatzen baititu eraldakuntza-prozesu horren abantaila guztiak, miseria-, zapalkuntza-, esklabotza-, degradazio-, esplotazio-masa haziz doa; baina horiekin langile-klasearen errebolta ere haziz doa, zenbakitan beti hazten ari den klasea, eta ekoizpen kapitalistaren prozesuko mekanismoak berak diziplinatu, batu eta antolatua. Kapitalaren monopolioa oinbilur bihurtzen da ekoizpen-moduarekiko, zeina sortu eta loretu baita berarekin batera eta, beraren azpian. Ekoizpen-tresnen zentralizazioa eta lanaren sozializazioa azkenean puntu bateraino iristen dira, non haien estalki kapitalistarekin bateraezinak diren. Estalki horrek leher egiten du. Jabetza

pribatu kapitalistaren hil-kanpaiak jo du. Desjabetzaileak desjabeturik daude.»

6. Ziklo ekonomikoen alorrean Marxen jarduera izugarri zaila da baloratzeko. Horren atal benetan baliozkoa dozenaka ohar eta iruzkinez osaturik dago, horietako asko izaera naturalekoak dira, ia haren idazki guztietan zehar barreiaturik daudenak, haren gutun askotan ere bai. Horrelako *disjecta membrat*ik gorputz bat berreraikitzeke ahaleginak inon haragitan ageri ez denak eta agian Marxen beraren buruan ere era ernamuinezkoan izan ezik inoiz existitu ez zenak erraz eman ditzake emaitza desberdinak esku desberdinetan eta biziaturik gera daiteke Marx kreditatzeko miresleek dioten joera ulerkorrak, interpretazio egokien bidez miresleak berak praktikoki onartzen dituen gero-ko ikerketaren emaitza horiez guztiez.

Adiskide edo etsaien ohiko taldea ez da inoiz konturatu eta orain ere ez da konturatzen nolako ataza daukan aurrez aurre iruzkingileak gai horri Marxek egin dion ekarpen kaleidoskopikoaren izaerarengatik. Marxek horretaz hain sarri hitz egiten zuela eta haren oinarrizko gairako oso muntaduna zela nabarmen ikustean, suposatutzat ematen zuten Marxen zikloen teoria simple eta zehazturen batek existitu behar zuelakoa, zeinak posible izan behar baitzuen prozesu kapitalistaren bere logikaren gainerakotik sorraraztea, adibidez, esplotazioaren teoria lanaren teoriatik sortzen den bezala. Ondorioz teoria hori bilatzeari ekiten zioten, eta erraza da zer gertatu zitzaizen antz ematea.

Alde batetik, Marxek zalantzarik gabe goratu egiten du –nahiz eta ez duen erabat egoki motibatzen– kapitalismoaren ahalmen izugarria gizartearen produkzio-ahalmena garatzeko. Bestalde, etengabe hanpatzen du masen gero eta miseria handiagoa. Ez al da munduko gauzarik naturalena krisiak edo depresioak sortzen direla ondorioztatzea masa esplotatuek ekoizpenaren aparatu beti hedakorrak sortzen duena edo sortzeko prest dagoena erosi ezin dutelako, eta horregatik eta errepikatu beharrik ez dugun beste arrazoi batzuegatik mozkinen tasa porrot-mailetaraino erortzen dela? Horrela bazirudien, azpimarratzen genuen elementuaren arabera, mota arrunteneko azpi-kontsumoaren edo gaineekoizpenaren teoriaren kostaldeetan lehorreratzten ginela.

Marxen azalpena azpikontsumoan oinarrituriko krisien teoriekin sailkatu dira izatez²⁴. Bi zirkunstantzia aipa daitezke horren alde. Lehenik, plusbalioaren teorian eta baita beste gaitan Marxen irakatsiek Sismondi eta Rodbertusen teoriekin duten ahaidetasuna begi-bistakoak dira. Eta gizon horiek azpikontsumoaren ikuspegiari atxiki zitzaizkion. Ez da ez-naturala Marxek gauza bera egin zezakeela inferitzea. Bigarren, Marxen obretako pasarte batzuek batez ere *Manifestu Komunistak* zeukan krisiei buruzko berri laburrak inolako zalantzarik gabe interpretazio horretarako aukera ematen zuten, nahiz eta Engelsen enuntziatuek askoz gehiago eman²⁵. Baina hori ez zen inola ere horrela, zeren Marxek, zentzu bikaina erakutsiz, espreski zazpuztu baitzituen horiek²⁶.

Kontua da ez zeukala ziklo ekonomikoen teoria sinplerik. Eta ezer ezin da segiarazi logikoki prozesu kapitalistaren haren «lege»etatik. Nahiz eta guk onartu plusbalioaren teoriaren sorreraren haren azalpena eta ados egon ontzat emateko metaketa, mekanizazioa (kapital iraunkorraren hazkuntza erlatiboa) eta biztanleria-soberakina, azken hori gupidagabeki masa-miseria sakonduz, sistema kapitalistaren hondamendian amaitzen den katea logiko batean lotzen dela—orduan ere faktore bat gabe geratuko ginateke, zeinak prozesuaren fluktuazio ziklikoen berri derrigor emango bailuke eta prosperitate eta depresioen txandakatze *immanente* baten argibideak emango bailituzke²⁷. Ez dago zalantzarik akzidente eta intzidente ugari daudela beti gure eskura erabili ahal izateko azalpen oinarritzkoaren akatsak konpentsatzeko. Kalkulu txarrak, igurikapen hutseginak eta beste errore batzuk daude, baikortasun- eta ezkortasun-uhinak, gehiegikeria espekulatiboak eta gehiegikeria espekulatiboekiko erreakzioak, eta «kanpo-faktoreen» iturburu agortezina dago. Era berean, Marxen metaketaren prozesu mekanikoa erritmo berdinean gertatzen dena—eta ez dago ezer frogatzen duenik, printzipioz, zergatik ez lukeen hala gertatu behar—berak deskribatzen duen prozesua ere erritmo berdinean gerta liteke; bere logikari dagokionez behintzat, esentzialki prosperitate gabea eta depresio gabea da.

Jakina hori ez dela derrigor ezbehar bat. Beste teoriarari askok sostengatu dute eta sostengatzen dute behar besteko garrantzia duen zerbait gaizki doanean krisiak gertatzen direla besterik gabe. Eta ez da izan eragozpen bat ere, zeren jaregin egin baitzuen Marx, behingoz,

bere sistemaren morrontzapetik eta libre utzi gertakariei begiratzeko, horiek bortxatu beharrik gabe. Ondorioz, munta handiago edo txikiagoko bariedade zabal bat kontsideratzen du. Esaterako, aski azaletik erabiltzen du merkantzia-transakzioetako diruaren interbentzioa –eta besterik ez– gainugaritasun orokor baten ezintasunari buruzko Sayren proposizioa baliogabetzeko; edo diru-merkatu errazak garapen desproporzionatuak azaltzeko inbertsio astunek ezaugarrituriko lerroetan ondasun kapital iraunkorretan; edo estimulu bereziak merkatuak irekitzea edo premia sozial berriak sortzea bezalakoak «metaketan» bat-bateko ekinaldiak motibatzen. Ahaleginak egiten ditu, arrakasta gutxiarekin bada ere, biztanleriaren hazkuntza fluktuazioak eragiten dituen faktore bihurtzeko²⁸. Ohartarazten du, nahiz eta benetan azaltzerik ez lortu, ekoizpenaren eskala «boladaka» hedatzen dela, zeinak baitira «berdinkiro bere bat-bateko uzkuertzearen atarikoak». Egoki dio «Ekonomia Politikoaren azalekotasuna agertzen dela kredituaren hedatze eta uzkuertzeari begiratzear, zeina ziklo industrialaren aldizkako aldaketen sintoma hutsa baita, beraien kausa gisa»²⁹. Eta intzidente eta akzidenteen kapituluak kontribuzio astunaren pean ezartzen da noski.

Hori dena zentzu komun eta funtsean zuzena da. Ziklo ekonomikoaren edozein analisi seriotan beti sartu izan diren elementu guztiak aurkitzen ditugu praktikoki, eta orokorrean oso errore gutxi. Gainera, ez da ahaztu behar mugimendu ziklikoak zeudelako hautemate hutsa lorpen handia izan zela garai hartan. Haren aurretik etorritako ekonomialari batek baino gehiagok izan zuten horren susmoa. Hala ere, orokorrean, «krisi» gisa aipatu ziren depresio ikusgarrietara zuzendu zuten beren arreta. Eta krisi horiek ez zituzten egiazko argitan ikusi, esan nahi baita, prozesu ziklikoaren argitan, zeinen intzidente soilak baitira. Ezbehar bakartu gisa kontsideratu zituzten, urrunago edo sakonago begiratu gabe, zeinak kreditu-mekanismoaren errore, gehiegikeria, portaera txar edo funtzionamendu akastunaren ondorio gisa gertatzen baitira. Marx izan zen, hala uste dut, tradizio hura gaingitu zuen lehen ekonomialaria eta Clément Juglarren obra aitzinatu zuena, osagarri estatistikoa baztertuz. Nahiz eta, ikusi dugunez, ziklo ekonomikoaren azalpen egokia ez duen ematen, garbi zeukan fenomenoak bere begien aurrean eta bere mekanismoetako asko ulertu zituen. Juglarrek bezala, «fluktuazio txikiek etendako»³⁰ ziklo hamartar batez hitz egin zuen ezbairik gabe. Intrigaturik zegoen aldi horren

kausa izan zitekeen auziaz eta kotoi-industriako makineriaren bizitzarekin zerikusia zuen zerbait izan zitekeela kontsideratu zuen. Eta beste kezka-zeinu ugari daude ziklo ekonomikoaren arazoari dagokionez krisienetik bereizia den heinean. Hori aski da hari maila garaia esleitzeko zikloen ikerketa modernoaren gurasoen artean.

Beste aspektu bat ere aipatzekoa da. Kasu gehienetan Marxek krisi terminoa bere zentzu arruntean erabiltzen zuen, 1825eko krisiaz edo 1847koaz hitz eginez beste batzuen erara. Baina bestelako zentzu batean ere erabiltzen zuen. Bilakaera kapitalistak egunen batean gizarte kapitalistaren egitura instituzionala hautsiko zuela sinetsiz, pentsatu zuen depresioa errealki gertatu baino lehen, kapitalismoa gero eta frikzio handiagoarekin hasiko zela funtzionatzen eta gaixotasun hilgarriaren sintomak erakusten. Aldi horri, periodo historiko gutxi-asko luze bat bezala noski kontzebitu behar zenari, termino bera aplikatu zion. Eta krisi errepikari horiek ordena kapitalistaren krisi bakarrarekin lotzeko joera ere erakutsi zuen. Eta iradoki ere egin du lehen horiek zentzu batean azken depresioaren aurreikuspen gisa kontsidera daitezkeela. Irakurle askok horri Marxen krisien teoriarako gako baten itxura har liezaioketenez zentzu arruntean, beharrezkoa da seinalatzea Marxen arabera azken depresioaren erantzule izango diren faktoreak ezin direla krisi errepikariaren erantzule bihurtu, hipotesi gehigarritzko dosi on bat gabe³¹, eta gakoak ez gaituela eramaten «desjabetzaileen desjabetza» proposizio hutsala, depresio batean gai errazagoa izan litekeela, ugarialdi batean izan litekeena baino pentsatzetik haratago.

7. Azkenik, bilakaera kapitalistak gizarte kapitalistako instituzioei leher eragingo dien —edo denborarekin gaindituko dituzten— ideiak (*Zusammenbruchstheorie*, porrokatze saihetsezinaren teoria) ematen du *non sequitur* bat eta ikuspen sakon baten konbinazioaren azken adibidea, zeinak emaitza erreskatatzen laguntzen baitu.

Marxen «dedukzio dialektikoa» masak erreboltara akuilatuko dituen miseria eta zapalkuntzaren hazkuntzan oinarriturik dagoelarik, miseriaren hazkuntza saihetsezin hark finkatu behar zuen argudioa biziartzen duen *non sequitur*-ak baliogabetzen du. Gainera, enparaudan ortodoxoak diren marxistak aspaldi hasi ziren kontrol industriaren kontzentrazioa, «integumentu kapitalista»rekin derrigor bateraezina delako proposizioaren baliozkotasuna zalantzan jartzen.

Argudio ongi antolatu baten bidez zalantza hori adierazi zuenetako lehena Rudolf Hilferding³² izan zen, neo-marxisten talde garrantzitsu baten gidarietako bat, zeina berez alderantzizko inferentziara makurtu baitzen, hau da, kontzentrazioaren bidez kapitalismoak egonkortasuna irabaz zezakeelakora³³. Gai horri buruz esateko daukadana hurrengo atalera atzeratuz, nire ustez Hilferding urrunegi joan dela aitortuko dut, nahiz eta, ikusiko dugunez, aldi honetan Estatu Batuetan arrunta den sineste horretarako inolako oinarririk ez egon, enpresa handia «ekoizpen-moduarekiko traba bihurtzen delakorako», nahiz eta Marxen ondorioa haren premisetatik berez segitzen dena ez izan.

Guztiarekin ere, nahiz eta Marxen gertakariak eta arrazoiketa diren baino oraindik akastunagoak izango balira ere, haien emaitza, hala ere, egia izan liteke bilakaera kapitalistak gizarte kapitalistaren oinarria suntsituko duela baieztatu baizik egiten ez duen heinean. Horrela delakoan nago. Eta ez dut uste bapikatzen ari naizenik sakona deitzen badut ikuspen bat, zeinean egia hura inolako zalantzarik gabe agerian jarria baitzegoen 1847an. Orain topikoa da. Hori Gustav Schmollerrek egin zuen lehen aldiz. Bere Gorentasuna, Von Schmoller profesorea, Aholkulari Pribatu Prusiarra eta Prusiar Pairen Ganberako Kidea ez zen oso iraultzailea edo keinu agitatzaileetara oso emana. Baina hark ere lasaitasunez egia bera baieztatu zuen. Hark ere zergatik eta nola esan gabe utzi zuen.

Ez du merezi xeheki laburbiltzerik. Nahiz eta ez-perfektua, gure zirrimarra aski da finkatzeko: lehenik, inola ere analisi ekonomiko hutsak ardura ez zaizkionak ezin dezakeela arrakasta kualifikatugabeaz hitz egin; bigarren, eraikuntza ausartak inola ere ardura ez zaizkionak ezin duela porrot kualifikatugabeaz hitz egin.

Teknika teorikoan aditua den auzitegiaren epaiak Marxen kontrakoa izan behar du. Beti desegokia izan zen eta Marxen garaian bertan ere bizkor zaharkitzen ari zen aparatu analitikoarekiko itsaspena; segiarazterik ez dagoen edo erabat okerrak diren ondorioen zerrenda luzea; zuzenduz gero inferentzia esentzialak aldatzen dituzten erroreak, batzuetan kontrako bihurtzeraino –hori dena egotz lekiok arrazoiz Marx teknikari teorikoari.

Auzitegi horretan bertan, hala ere, epaia arintzea beharrezkoa izango da bi puntutan.

Lehenik, nahiz eta Marx sarritan –batzuetan etsigarriki– oker egon, haren kritikariek ez zuten beti inondik ere arrazoirik. Beraien artean ekonomialari bikainak zeudenez gero, gertakari hori bere kredituan ezarri behar da, batez ere Marx horietako gehienei aurre egiteko gai ez zelako.

Bigarren, gauza bera egin beharko litzateke arazo indibidual askori Marxek egindako ekarpen kritiko eta positiboekin. Honelako zirrimarra batean, ezinezkoa da horiek guztiak aipatzea, are gutxiago horiei justizia egitea. Baina horietako batzuei begiratu bat eman diegu ziklo ekonomikoaren bere tratamenduari egin diogun kritikan. Aipatu ere egin ditut kapital fisikoaren egituraren gure teoria hobetu dituzten batzuk. Alor horretan kontzebitu dituen eskemak, nahiz eta akatsgabeak ez izan, baliozko gertatu dira arestiko lanetan, zeinek marxistak baitrudite zenbait pasartetan.

Baina helegite-auzitegia –gai teorikoetara mugatua balego ere– epai hori ezeztatzeraz makurturik senti liteke. Zeren egiazki lorpen handi bat kontrajarri behar baitzaie Marxen ez-egiteko teorikoei. Bere analisisian akastuna edo ez-zientifikoa den guztian zehar oinarritzko ideia bat dago ez dena –teoria baten ideia, ez eredu indibidual barreiatuen edo orokorrean kantitate ekonomikoen logika baten kopuru zehaztugabe batena, baizik eredu horien sekuentzia erreala edo prozesu ekonomikoarena gertatzen denez, bere kabuz, aldi historikotan, aldiune bakoitzean hurrengoa berenez determinatuko duen egoera sortuz. Horrela, hainbeste kontzepzio faltsuren egilea lehena izan zen gaurko egunean ere etorkizuneko teoria ekonomikoa den hori kontzebitzen, zeinetarako, astiro eta nekez, harria eta morteroa, gertakari estatistikoak eta ekuazio funtzionalak metatzen ari baikara.

Eta Marx ideia hori kontzebitzen ez ezik, burutzen ere saiatu zen. Haren obra desitxuratzen duten gabezia guztiak, haren argudioak zerbitzatu nahi izan zuen asmo handiarengatik, desberdin epaitu behar dira, nahiz eta horrenbestez erabat ez salbatu beste kasu batzuetan bezala. Hala ere, bada oinarritzko garrantzia duen gauza bat ekonomia-aren metodologiarako zinez berak lortu zuena. Ekonomialariek berek egin dute lana historia ekonomikoan edo bestela beste batzuen obra historikoa erabili dute. Baina historia ekonomikoko gertakariak esparru bereizi batera esleitzen ziren. Teorian, sartzen baziren, ilustrazio-zereginean bakarrik sartzen ziren, edo emaitzen egiaztapen gisa

agian. Mekanikoki bakarrik nahasten ziren harekin. Alabaina, Marxen nahastura kimikoa da; esan nahi baita, emaitzak sortzen dituen argudioan bertan sartu zituela. Bera izan zen maila garaiko lehen ekonomialaria teoria ekonomikoa analisi historiko eta narratiba historikoa *histoire raisonnée* nola bihur daitekeen ikusi eta sistematikoki irakatsi zuena. Estatistikari buruzko antzeko arazoa ebazten ez zen saiatu. Baina zentzu batean sinpleturik dago bestean. Halaber erantzuten dio, aurreko kapituluaren bukaeran azaldutako eran, Marxen teoria ekonomikoak haren aldarnio soziologikoa zenbateraino zurkaizten asmatzen duen galderari erantzuten. Ez du asmatzen; baina huts egitean, biak ezartzen ditu, helburua eta metodoa.

IV KAPITULUA MARX IRAKASLEA

Orain aurrez aurre dauzkagu Marxen egituraren osagai nagusiak. Zer esan osotasun gisa ezartzen den sintesiaz? Galdera ez da alferra. Inoiz izan bada, kasu honetantxe da egia guztia atalen batura baino zerbait gehiago delakoa. Areago, sintesiak hainbestearaino hondatu ahal izan du garia edo baliarazi lastoa, zeinetarik biak presente baitaude ia gune bakoitzean, non guztia ataletako edozein, bere horretan harturik baino egiazkoago edo faltsuago izan bailiteke. Azkenik, guztiari bakarrik darion mezua dago. Azken horretaz ez dugu ezer gehiago esango. Gutako bakoitzak berak erabaki behar du horrek zer esan nahi duen beretzat.

Gure garaia erreboltatu egiten da espezializazioaren beharrian ezinbestekoaren aurka, eta horregatik sintesia eskatzen du oihuka, eta inon ez gizarte-zientzietan bezain ozenki, zeinetan elementu ez-profesionalak hainbeste garrantzia baitauka¹. Baina Marxen sistemak ongi ilustratzen du, nahiz eta sintesiak argi berria ekarri, traba berriak ere ekartzen dituela.

Dagoeneko ikusi dugu Marxen argudioan soziologiak eta ekonomiak elkar nola blai egiten duten. Asmoz, eta neurri bateraino praktika errealean ere bai, bat dira. Kontzepzio eta proposizio nagusi guztiak ekonomikoak eta soziologikoak dira horregatik eta esanahi bera dute bi planoetan, baldin eta gure ikuspuntutik oraindik argudioaren bi

planoz hitz egiterik badugu behintzat. Horrela, «lan» kategoria ekonomikoa eta «proletalgo» klase soziala, printzipioz behintzat kongruente egiten dira, izatez identiko. Edo ekonomisten banaketa funtzionala –esan nahi baita, moduaren azalpena, zeinean errentak zerbitzu produktiboen irabazi gisa sortzen baitira, kontuan izan gabe, zer klase sozialetakoa izan litekeen mozkin horren edozein hartzaile– sartzen da Marxen sisteman klase sozialen arteko banaketa-forman bakarrik eta horrela bestelako konnotazioa lortzen du. Edo kapitala Marxen sisteman klase kapitalista desberdin baten eskuetan dagoenean bakarrik da kapital. Ondasun berak, langileen eskuetan badaude, ez dira kapital.

Ezin liteke inolako zalantzarik izan analisiari horretatik dator- kion bizitasun-zurrustadaz. Teoria ekonomikoaren kontzeptu mamuz- koak arnasa hartzen hasten dira. Teorema odolgabea *agmen, pulverem et clamorem* izatera jaisten da; bere nolakotasun logikoa galdu gabe, jadanik ez da abstrakzio-sistema baten propietate logikoei buruzko proposizio hutsa; gizarte-bizitzaren nahas-mahas basatia pintatzen ari den pintzelkada da. Horrelako analisiak ez du ematen analisi ekono- miko guztiak deskribatzen duelako esanahi aberatsagoa bakarrik bai- zik eta askoz sail zabalagoa besarkatzen du –klase-ekintza mota guz- tiak erakartzen ditu bere koadrora, negozio-prozeduren arau arrunte- tara klase-ekintza hori egokitzen den ala ez kontuan hartu gabe. Gerrak, iraultzak, mota guztietako legeriak, gobernuen baitako alda- ketak, labur esateko, ekonomia ez-marxiarrak kanpo-eragozpen gisa besterik gabe tratatzen dituen gauza guztiek aurkitzen dituzte beren lekuak elkarren ondoan, esaterako, makinerian egindako inbertsioak edo lanekuarekiko tratuak; hori dena eskema azaltzaile bakarrak har- tzen du.

Aldi berean, prozedura horrek baditu bere gabeziak. Gisa horretako uztarri baten mendean dauden antolaketa kontzeptualek aise gal dezakete eraginkortasuna bizitasuna irabazten duten heinean. Langile/proletario bikoteak adibide adierazkor gisa balio dezake, nahiz eta arrunt samarra izan. Ekonomia ez-marxiarrean pertsonen zerbitzuekiko irabazi guztiak soldaten izaeran parte hartzen dute, ber- din delarik lehen mailako abokatua, zinemako izarra, enpresa-exeku- tiboa edo kale-garbitzailea izatea. Irabazi horiek guztiek, inplikaturi- ko fenomeno ekonomikoaren ikuspuntutik, komunean asko dutenez

gero, orokortze hori ez da hutsal edo antzua. Alderantziz, argigarria izan daiteke gauzen aspektu soziologikorako ere. Baina lana eta proletalga berdintzean ilundu egiten dugu; izatez, erabat ezabatzen dugu geure koadrotik. Era beretsuan, teorema ekonomiko baliotsu batek bere metamorfosi soziologikoaren bidez errorea har dezake bere baitan esanahi aberatsagoaren ordeztu eta alderantziz. Horrela, sintesia orokorrean eta Marxen joerako sintesia, bereziki, aise bihur daiteke ekonomia txarrago eta soziologia txarrago.

Sintesia orokorrean, hau da, metodoen koordinazioa eta aitzinatze-lerro desberdinen emaitzak, gauza zaila da eta gutxi dira hori tratatzeko gai. Ondorioz eskuarki ez da bat ere tratatzen eta banakako zuhaitzak bakarrik ikusten irakasten zaien ikasleengandik basoaren-gatik heia gora konformagaitza entzuten da. Hala ere, ez dira konturatzeko ondoeza, partez, *embarras de richesse* dela eta baso sintetikoak batzuetan kontzentrazio-esparru intelektual baten itxura izan leza-keela.

Marxen joerako sintesia, hau da, analisi ekonomiko eta soziologikoaren koordinazioa dena xede bakar batera makurrarazteko ikuspegia duena, bereziki egokia da noski itxura horren jabe izateko, eta jakina, kontzentrazio-aspektu hori begietatik galtzeko. Xedea –gizarte kapitalistaren *histoire raisonnée* hura– aski zabala da baina erai-kuntza analitikoa ez. Izatez, gertakari politikoaren eta teorema ekonomikoaren elkartze handiosa gertatzen da; baina indarrez ezkondu-rik daude eta bietako batek ere ezin du arnasa hartu. Marxistek errebin-dikatzen dute beren sistemak ekonomia ez-marxiarra aztoratzen duten arazo handi guztiak konpontzen dituela; hala egiten du baina haiek irenduz. Puntu honek lanketa apur bat eskatzen du.

Orain dela gutxi esan dut Marxen sintesiak jazoera historiko horiek guztiak –gerrak, iraultzak, legeria-aldaketak– eta instituzio sozial horiek guztiak –jabetza, kontratu-erlazioak, gobernu-erak– besarkatzen dituela, zeinak ekonomialari ez-marxiarrek faktore nahastaile gisa edo datu gisa tratatu ohi baitituzte, eta horrek esan nahi du ez dutela horiek azaltzea proposatzen baizik horien *modi operandi*-a eta ondorioak analizatzea bakarrik. Faktore edo datu horiek beharrezkoak dira noski edozein ikerketa-egitararen objektua edo irismena zedarritzeko. Horiek beti espreski ez espezifikatzea, mundu guztiak zer diren badakiela uste izaten delako besterik ez da izaten.

Marxen sistemaren ezaugarri berezia da jazoera historiko horiek eta instituzio sozialak berak analisi ekonomikoaren prozesu azaltzailearen mende jartzea edo, hizkera tekniko erabiltzeko, datu gisa ez tratatzea, aldagai gisa baizik.

Horrela gerra napoleonikoa, Krimeako gerra, gerra zibil amerikarra, 1914ko mundu gerra, frondes frantsesak, iraultza frantses handia, 1830 eta 1848ko iraultzak, librekanbio ingelesa, mugimendu sindikalista bere osoan, baita haren agerpen partikularretako edozein ere, hedapen koloniala, aldaketa instituzionalak, edozein garai eta herrialdetako nazio- eta alderdi-politika— hori dena sartzen da Marxen ekonomiaren domeinuan, zeinak sostengatzen baitu azalpen teorikoak aurkitzen dituela klase-gerragintza, esplotazioaren aurkako atentatu- eta errebolta-terminotan, kapital-egiturako metaketa eta aldaketa kualitatiboarenean, plusbalio-tasaren eta mozkin-tasaren aldaketenean. Aurrerantzean ekonomialaria ezin daiteke pozik egon auzi teknikoei erantzun teknikoak ematearekin; aitzitik, Gizadiari haren borroken esanahi ezkutua irakasten dio. Aurrerantzean «politika» ez da abstrai litekeen eta behar den faktore independente bat esentzien ikerketa batean eta tartean sartzen denean, norberaren hobespenen arabera, ingeniariak bizkarra itzuli duenean, asmo txarrez makina hondatzen duen mutiko bihurriaren zeregina izaten du, edo *deus ex machina*ren zeregina, «estatugizon» adeitasunez deituriko ugaztun espezie bada- ezpadako baten jakituria misteriotsuaren indarrez. Ez; prozesu ekonomikoaren egiturak eta egoerak determinatzen du politika bera, eta efektuen gidari bihurtzen da, teoria ekonomikoaren barruan dagoena, edozein erorsketa edo salmenta bezain osoki.

Beste behin, ez da ezer errazago ulertzen sintesi batek eragiten duen lilura baino, zeinak hain zuzen guretzat hori egiten baitu. Bereziki ulergarria da gazteengan eta gure berripaperen munduko bizilagun intelektual horiengan, zeini jainkoek gaztetasun betierekoaren oparia egin dietela baitirudi. Beren sarrerak lortzeko ezinegonez arnasestuka, zerbaitetatik mundua salbatzeko irrikitan, edo beste batzuk, gogait deskribaezinezko ikasliburuekin atsekabeturik, emozionalki eta intelektualki nahigabeturik, beren ahalegin propioz sintesia lortzeko gai ez direla, Marxengan aurkitzen dute biziki bilatzen ari diren hori. Hor dago sekretu intimo guztien gakoa, jazoera handi eta txikiak antolatzen dituen sorgin-makila. Eskema azaltzaile bat begies-

ten ari dira, aldi berean –baldin eta une batez hegelianismoan erortzea zilegi bazait– oso orokorra eta oso konkretua dena. Horretaz kanpo bizitzako afera handietan ez daukate sentitu beharrik –berehalakoan ikusten dute politika eta negozioetako marioneta ponpoxoen bitartez, zeinek inoiz ez baitute jakiten zer ari den gertatzen. Eta nork egotz diezaieke errua, eskura dauden alternatibak kontuan harturik?

Bai, jakina; baina horretaz aparte, zertarainoko balioa du Marxen sintesiaren zerbitzu horrek?, galdetzen dut. Ingalaterrak librekanbiora egindako igarobidea edo fabrika-legeria ingelesaren lorpen goiztiarrak deskribatzen dituen ekonomialari apala ez dago segur aski, eta ez zen egongo, politika horiek ekoiztu zituen ingeles ekonomiaren baldintza estrukturalak aipatu gabe uzteko. Horrela egiten ez badu teoria hutsari buruzko ikasturte edo liburu batean, analisi garbiago eta eraginkorrago batengatik bakarrik egiten du hori. Marxistak gehitu behar diona printzipioaren gaineko insistentzia da, eta teoria bereziki estu eta desitxuratua, hartaz hura inplementatzeko. Teoria honek emaitzak sortzen ditu zalantzarik gabe, eta erabiltzeko oso sinple eta definituak. Baina sistematikoki aplikatzea bakarrik falta zaigu kasu indibidualei jabeen eta ez-jabeen arteko klase-gerrari buruzko kriskitin-hots bukaezinaz erabat nekatzeko eta desegokitasunaren, edo okerrago oraindik, hutsalkeriaren zentzu mingarriaz ohartzeko; lehenaz, azpian dagoen eskemarengatik zin egiten ez badugu; hutsalkeriaz, egiten badugu.

Marxistek bilakaera kapitalistak bere baitan dituela suposatzen den joera ekonomiko eta sozialen Marxen diagnosiaren arrakasta garaikor seinalatzeko ohitura dute. Ikusi dugunez, badago justifikazio pixka bat horretarako: Marxek, bere garaiko beste edozein idazlek baino argiago, enpresa handirako joera bereizi zuen eta ez hori bakarrik, baita ondorengo egoeraren ezaugarri batzuk ere bai. Halaber, ikusi dugu kasu honetan ikuspenak laguntza eman diola analisiari azken horren gabezia batzuk erremediatu ahal izateko eta sintesiaren esangura analisiaren elementu osagarriak berak zirena baino egiazkoago bihurtzeko. Baina hori da dena. Eta lorpenaren aurka miseria hazkorren iragarpenaren porrota, ikuspen okerra eta analisi akastunaren emaitza bateratua ezarri behar da, zeinaren gainean jazoera sozialen etorkizuneko joairari buruzko Marxen espekulazio ugari oinarritu baitziren. Orokorrean harturik Marxen sintesian bere konfiantza jartzen duenak presenteko egoera eta arazoak ulertzerakoan oker handia egin

dezake². Izan ere, badirudi marxista batek baino gehiagok horixe sentitu duela gaur egun.

Batez ere ez dago arrazoirik Marxen sintesiak azken hamarkadaren esperientziaz berri emateko duen moduaz harrotzeko. Edozein depresio- edo atsekabeko berreskuratze-aldi luzatuk edozein iragarpen ezkor egiaztatuko du Marxenak bezalaxe. Kasu honetan alderantzizko inpresioa sortzen da burges desadoretuekin eta intelektual pozkariotuekin hitz eginez, zeinek naturalki marxistar kutsu bat eskuratu baitzuten beren beldur eta esperantzetatik. Baina ez dago gertakari errealik, ezein diagnosi marxista bereziki bermatzen duenik, gutxiago oraindik inferentziarik lekuko izan gaituen efektua ez dela izan depresio sinple bat, baizik aldaketa estruktural sintomak, prozesu kapitalistan, Marxek gertatuko zela espero zuenez. Zeren, hurrengo atalean erakutsiko denez, behaturiko fenomeno guztiak hala nola desenplegu supernormala, inbertsio-aukeren gabezia, moneta-balioen murrizketa, galerak eta abar, hirurogeita hamar eta lauogeiko depresio nagusikoiko aldien eredu ongi ezagutuaren barruan datoz, zeini buruz Engelsek iruzkinak egin baitzituen gaur eguneko jarraitzaile suharrei adibidez, jarri beharko litzaiekeen moderazioarekin.

Bi adibide gailenek ilustratuko dituzte Marxen sintesiaren meritua eta demerituak, arazoak konpontzeko tresna gisa kontsideraturik.

Lehenik inperialismoaren teoria marxista kontsideratuko dugu. Haren erro guztiak Marxen obra nagusian aurkitu behar dira, baina mende honetako lehen bi hamarkadetan loraturiko eskola neo-marxistak garatu zuen eta, Karl Kautsky bezalako fedearen defendatzaile zaharrekiko komunioari uko egin gabe, asko egin zuen sistema konpontzeko. Viena izan zuen bere zentro; Otto Bauer, Rudolf Hilferding, Max Adler izan zituen gidari. Inperialismoaren alorrean haien lana, hanpadura-ardatz sekundarioekin, beste askok jarraitu zuten, eta horien artean Rosa Luxemburg eta Fritz Sternberg izan ziren gailenak. Argudioa honelakoa da.

Nola, alde batetik, gizarte kapitalistak ezin duen existitu eta bere sistema ekonomikoak ezin duen mozkinik gabe funtzionatu eta nola, bestalde, mozkinak etengabe ezabatuak direnez gero sistema horren berorren funtzionamenduz, horiei bizirik eusteko etengabeko

ahalegina klase kapitalistaren helburu nagusi bihurtzen da. Metaketa, aldaketa kualitatiboa lagun duela kapitalaren osaeran, ikusia dugunez, erremedioa da, zeinak momentuz kapitalista banakoen egoera arintzen badu ere azkenerako gauzak okerragotu egiten baititu. Horrela kapitalak, beheraka doan mozkin-tasaren presioari amore emanez –beheraka doa, gogora dezagun, kapital iraunkorra hazten delako kapital aldakorrarekiko eta soldatek gora egiteko joera badute eta orduak urritzen badira, plusbalio-tasa behera doalako– irtenbideak bilatzen ditu oraindik nahierara esplota daitekeen lana dagoen herrialdeetan eta, zeinetan mekanizazio-prozesua ez baita oraindik hainbeste aurreratu. Horrela kapitala esportatzen da garatu gabeko herrialdeetara, zeina esentzialki instalazio-ondasunen edo kontsumo-ondasunen esportazioa baita lana erosteko erabili behar dena edo lana erosteko gauzak eskuratzen³. Baina era berean kapitalaren esportazioa ere bada terminoaren zentzu arruntan, zeren merkantzia esportatuak ez baititu ordainduko –berrehala ez behintzat– ondasun, zerbitzu edo diruaren bidez herrialde inportatzaileak. Eta hori kolonizazio bihurtzen da, inbertsioa zaintzeko ingurumen natiboaren erreakzio etsaikorraren kontra –edo nahiago baduzue, esplotazioarekiko beren erresistentziaren kontra– eta beste herrialde kapitalista batzuen konkurrentziaren kontra, herrialde garatugabea mendekotasun politikoaren azpian ezartzen baldin bada. Hori eskuarki kapitalista kolonizatzaileek berek hornituriko indar militarrek egiten du, edo bertako gobernuak, zeinak horrela *Manifestu Komunistan* emandako definizioa betetzen baitu: «Estatu modernoaren exekutiboa [da]... burgesia osoaren negozio komunak kudeatzeko komite bat.». Jakina, indar hori ez da helburu defentsazkoetarako soilik erabiliko. Konkista, frikzioa izango da herrialde kapitalisten artean eta suntsitze-gerra burgesia aurkarien artean.

Beste elementu batek osatzen du inperialismoaren teoria hau, orain eskuarki aurkezten denez. Hedakuntza koloniala mozkinaren tasa beheranzko batek herrialde kapitalistetan bultzatzen duen heinean, bilakaera kapitalistaren azken estadioetan gertatu beharrekoa da –marxistek izan ere estadio batez bezala hitz egiten dute inperialismoaz, hobespenez kapitalismoaren azken estadioaz. Horregatik industriarekiko kontrol kapitalistaren kontzentrazio-maila handiarekin bat egingo luke eta tamaina txiki zein ertaineko enpresen garaiekin ezau-garrituriko konkurrentzia motaren beherakadarekin. Marxek berak ere

ez zuen asko azpimarratu errendimenduaren murrizketa monopolistikorako sortzen zen joera eta beste herrialde kapitalista batzuetako isileko ehiztariak sartzearen aurka etxeko ehiza-barrutia babesteko ondoriozko joera. Agian ekonomialari gaituegia zen argudio-lerro hori urrunegi eramateko. Baina neo-marxistek gogoz atera zioten etekina. Horrela ez dugu beste estimulu bat lortzen bakarrik politika inperialistarako eta nahaste-borraste inperialisten beste iturri bat gehiago, baizik azpiekoizkin gisa, bere baitan derrigor inperialista ez den fenomeno baten, protekzionismo modernoaren teoria ere bai.

Ohar bedi eragozpen bat gehiago prozesu horretan beste zailtasun batzuk azaltzeko egitekoan marxistei asko lagunduko diena. Herrialde garatugabeak garatzean, kontsideratzen ari izan garen bezalako kapital-esportazioak behera egingo du. Hor izan liteke aldi bat herrialde amak eta koloniak, adibidez, ekoizkin manufakturatutak eta lehengaiak trukaturako dituztenekoa. Baina azkenean manufakturatzaileen esportazioek ere behera egin beharko dute konkurrentzia koloniala ama herrialdean sendotuko den bitartean. Gauzen egoera horren etorrera berandutzeko ahaleginak frikzio-iturri berriak sortuko dituzte, herrialde kapitalista zahar bakoitzaren eta haren kolonien artean oraingoan, independentzia-gerrena eta abarrena. Baina edozein kasutan ate kolonialak azken finean itxita egongo dira kapital domestikoarentzat, zeina ez baita gai izango etxean ezabatzen ari diren mozkinetatik atzerriko larre aberatsagoetara ihes egiteko. Merkatu-gabezia, gehiegizko gaitasuna, erabateko lokaguneak eta azkenean porrot nazionalen errepikatze erregularra eta beste hondamendi batzuk –agian mundu-gerrak etsipen kapitalista muturrekoarengatik sortuak– segur aski horiek guztiak aitzinatu egin daitezke. Historia horixe bezain sinplea da.

Teoria hori adibide ona da –agian hoberena– Marxen sintesiak arazoak konpontzeko eta hori eginez autoritatea bereganatzeko duen moduarena. Badirudi hori guztia ezin hobeki segitzen zaiela sistemaren oinarrian irmoki erroturik dauden bi premisa oinarritzori: klaseen teoriari eta metaketaren teoriari. Gure garaiko gertakari funtsezkoen sail bat perfektuki azaldurik dagoela dirudi. Nazioarteko politikaren mataza osoa badirudi kolpe indartsu bakar batez argiturik geratzen dela. Eta prozesuan ikusten dugu zergatik eta nola klase-ekintzak, beti intrintsekoki berdin iraunez, negozio- edo politika-ekintzaren forma

hartzen duen zirkunstantzien arabera, zeinek metodo taktikoak eta fra-seologia bakarrik determinatzen baitituzte. Baldin eta talde kapitalis-ta baten agindupeko bitartekoak eta abaguneak direnak direlarik, mai-legu bat negoziatzea onuragarriagoa bada, mailegua negoziatuko da. Baldin eta talde kapitalista baten agindupeko bitartekoak eta abagu-neak direnak direlarik, gerra egitea onuragarriagoa bada, gerra egingo da. Bigarren alternatiba horrek lehenak adina merezi du teoria ekono-mikoan sartzea. Protekzionismo soila bera ere oso egoki sortzen da bilakaera kapitalistaren logika beretik.

Gainerakoan teoria honek ezin hobeki erakusten du marxiar kontzeptu gehienekin batera daukan bertute bat eskuarki ekonomia aplikatu gisa izendatzen den alorrean. Gertakari historiko eta aldiki-deekiko duen aliantza estua da hori. Segur aski irakurle bakar batek ere ez du irakurri nire laburbilduma erraz harritu gabe argumentazio-ak egiten duen urrats bakoitzeko haren justifikaziorako aipaturiko adi-bide historikoak haren aurrez aurre metatzen direlako. Ez al zegoen jakitun europarrek langile indigena nola zapaltzen zuten munduko alderdi askotan; ez al zekien Ertamerikako eta Hego Amerikako india-rrek. espainiarren eskuetan sufritu egiten zutela, adibidez; ez al zekien esklabo-ehizaren berri, ez eta esklabo-merkataritzarena, ez coolien erreklutatzearena? Ez al da izan beti presente herrialde kapitalistetan kapitalen esportazioa? Ez al du izan laguntzaile, ia hutsik egin gabe, konkista militarra, zeinak indigenak menderatzeko eta beste potentzia europarrei gudu egiteko balio izan baitu? Ez al du izan beti koloniza-zioak aspektu argiro militar bat, merkataritza-elkarteek erabat burutua zenean bertan ere, esaterako India Orientaleko Konpainiak edo Hego Afrikako Konpainia Britainiarrak? Zer ilustrazio hoberik nahi izango zukeen Marxek berak Cecil Rhodesena eta anglo-boerren gerrarena baino? Ez al dago argiro begi-bistan anbizio kolonialak faktore garrantzitsua izan direla, gehiago ez esatearren, 1700dik aurrerako jazoera guztietan? Eta gure garaia dagokionez, nork ez du entzun, alde batetik, «lehengaien estrategia»ren berri, eta, bestetik, tropikoe-tako kapitalismo indigenaren hazkuntzak European izan dituen eragi-nen berri? Eta horrela behin eta berriz. Protekzionismoari dagokio-nez, hori beste edozein gauza izan litekeen bezain argia da.

Baina hobe dugu kontuz ibiltzea. Itxurazko egiaztapena, *prima facie* aldeko diren, xeheki aztertu gabeko kasuen bidez, engainagarria

izan daiteke. Gainera, abokatu guztiek eta politikari guztiek dakitenez, gertakari ezagunei dei bizi bat egiteak indar handia du epaimahai bati eragiteko edo parlamentu bati iradoki nahi dioten eraikuntza onarrazteko. Marxistek ezin hobeki ustiatu dute teknika hori. Kasu hone-tan bereziki arrakastatsua da, zeren auzitan ditugun gertakari-ek mundu guztiak era azalekoan ezagunak izatearen abantailak eta oso gutxi sakon ezagutuak izatea uztartzen baitituzte. Izatez, nahiz eta hemen eztabaida xehean sartzerik ez izan, aski da gogoeta bizkor bat «gauzak horrela ez diren» susmoa sorrarazteko.

Hurrengo atalean ohar banaka batzuk egingo ditugu burgesi-ak inperialismoarekin duen erlazioaz. Orain auzi bat aztertuko dugu: kapital-esportazioaren, kolonizazioaren eta protekzionismoaren inter-pretazio marxista zuzena izango balitz, inperialismo esamolde lauso eta aldrebestu hori erabiltzen dugunean pentsatzen ditugun fenomeno guztien teoria gisa ere ea izango ote litzatekeen. Jakina, ezin dugu beti inperialismoa definitu interpretazio marxistak inplikatzeko duena hain zuzen ere adierazteko eran, ezin gara beti konbentziturik egon feno-meno horiek guztiak modu marxiarrean azaldu behar direlakoaz. Baina orduan inperialismoaren arazoa –teoria bere baitan zuzena dela onartuz beti– tautologikoki bakarrik «ebatziko» litzateke⁴. Oraindik kontsideratzeke geratuko litzateke modu marxiarra edo, orokorrean, arazo horri ekiteko edozein modu ekonomiko hutsek tautologikoa ez den soluziora eramaten duen. Hala ere, orain ez daukagu horretaz arduratu beharrik, zeren lurzorua hondoratu egiten baita gure azpian horraino iritsi aurretik.

Lehen begiratuan, badirudi teoria aski ongi moldatzen dela kasu batzuetara. Adibide garrantzitsuenak tropikoetan ingeles eta holandarrek egindako konkistak ematen dizkigute. Baina beste kasu batzuetara, Ingalaterra Berriaren kolonizaziora, ez da inondik ere moldatzen. Eta lehen taldeko kasuak ere ez dira behar bezala deskri-batzen inperialismoaren teoria marxiarrekin. Bistan dago lukroaren lilurak hedapen kolonialaren motibazioan zeregina izan duela aitor-tzea ez litzatekeela aski izango⁵. Neo-marxistak ez dira saiatu simple-keria eskerga hori berresten. Horientzat, kasu horiek kontuan hartu behar badira, halaber beharrezkoa da hedapen koloniala adierazitako eran burutzea, hau da, mozkin-tasaren gaineko metaketaren presiope-an, eta ondorioz, kapitalismo dekadentearen edo, edozein kasutan,

helduaro betekoaren sintomatzat hartu behar da. Baina abentura kolonialen aro heroikoa kapitalismo goiztiar eta heldugabearen aroa izan zen, zeinean metaketa bere hasieran baitzegoen eta zentzu horretan –eta bereziki, lanesku nazionalaren esplotaziorako eragozpen oro ere bai– ez zen presiorik inondik ageri. Monopolio elemetua ez zen falta. Alderantziz, gaur egun baino askoz nabariago ageri zen. Baina horrek monopolioa eta konkista azken aroko kapitalismoaren ezaugarri berezi bihurtzen dituen eraikuntzaren absurdotasunera eramatea besterik ez du egiten.

Gainera, teoriaren beste zutabea, klase-borroka, ez dago baldintza hobetan. Begi-estalkiak erabili behar dira hedapen kolonialaren aspektu horretan kontzentratzeko, bigarren mailako zeregina besterik ez baitu izan, klase-borroka terminotan azaltzeko klase-lankidetzaren adibide harriarrietako batzuk ematen dituen fenomeno bat. Soldatak gehitzera zuzenduriko mugimendu bat izan zen mozkinak gehitzera bezalaxe, eta luzera proletalgoari mesede handiagoa egin zion (parte batez, lanesku *natiboa* ustiatzearen kariaz) interes kapitalistari baino. Baina ez dut haren *efektuak* hanpatzeko asmorik. Funtsezko puntua da bere kausek ez dutela zerikusi handirik klase-borrokarekin eta ez dutela klase-egiturarekin zerikusi gehiagorik enpresa kolonialaren zuzendaritza klase kapitalistakoa izateak edo enpresa horien bidez hartara igotzen zirenak izateak inplikatzeko duena baino gehiago. Guztiarekin ere, begi-estalkiak kentzen baditugu eta kolonizazioa eta inperialismoari klase-borrokaren intzidente huts bezala begiratzeari uzten badiogu, ezer gutxi geratzen zaio teoria horri bereziki marxista denik. Adam Smithek horretaz esateko daukanak badu horrenbesteko balioa, handiagoa oraindik.

Haren azpiekoizkina, protekzionismo modernoaren teoria neo-marxiarra oraindik hor geratzen zaigu. Literatura klasikoa «parte txarreko interesen» aurkako idazki iraingarritzat beterik dago (garai hartan, nekazaritza-interesak nagusiki, nahiz eta inoiz ez erabat), zeinek oihuka babesa eskatzean, hobea barkaezina egin baitzuten ongizate publikoaren aurka. Horrela, bada, klasikoek babesaren teoria kausal behar bezalako bat zeukaten –ez haren efektuen teoria bat bakarrik–, eta orain enpresa moderno handien interes protekzionistak gehitzen badiugu, zentzuz joan litekeen bezain urruneraino iritsi gara. Marxistei begikotasuna dieten ekonomialaria modernoek benetan hobeki jakin

beharko lukete zer dioten baieztatzeko beren kide burgesek gaur egun ez dutela erlaziorik ikusten protekzionismorako joeraren eta eskusartze-unitate handiak eratzeko joeraren artean, nahiz eta kide horiek ez duten beti beharrezko ikusten hain gertakari nabaria azpimarratzea. Kontua ez da klasikoek eta gure egunak arte izan diren haien jarraitzaileek protekzionismoari buruzkoan arrazoia izatea; gaiari buruzko haien interpretazioa Marxena bezain alderdibakarra zen, eta da, alde batera utzirik sarritan huts egiten zutela ondorioen eta jokoan zeuden interesen prezazioan. Baina berrogeita hamar urtez, gutxienez, marxistek adina jakin izan zuten protekzionismoaren osagai monopolistaz, eta hori ez zen zaila, aurkikuntza horren izaera arrunta kontuan hartzen bada.

Eta teoria marxista puntu garrantzitsu batean garaitu ere egin zuten⁶. Haien teoria ekonomikoaren balioa nolanahikoa zela ere –agian ez zen handia– ia beti berari atxikitzen zitzaizkion. Kasu honetan portaera hori abantaila izan zen. Eskubide protekzionista asko enpresa handien presioarengatik sortu direlako baieztapena, herrialdean bestela egongo liratekeenaz gainetik beren prezioei eusteko erabili nahi dituztelakoa, eta, segur aski, kanpoan merkeago saltzeko, sinpleria bat da, baina zehatza, nahiz eta ezein aduana-tarifa ez den inoiz erabat kausa berezi horretatik sortu, ez eta era nagusikoian ere. Marxen sintesiak askiez edo faltsu bihurtzen du. Gure nahia protekzionismo modernoaren kausak eta ondorioak ulertzea besterik ez bada, nola politikoak hala sozial eta ekonomikoak, orduan askieza da. Adibidez, amerikar herriak politika protekzionistari emandako laguntza ahaltsua, bere iritzia adierazteko aukera izan zuen bakoitzean, ez da azaltzen enpresa handietarako zuen joeragatik, ezta haien mendeen zegoelako ere, baizik eta mundu propio bat eraiki eta mantentzeko eta munduaren gainerako gorabehera guztietatik beren buruak libre ikusteko desira gartsuarengatik. Kasuaren osagai horiek kontuan hartzen ez dituen sintesia ez da aktibo bat, pasibo bat baizik. Baina gure nahia protekzionismo modernoaren kausa eta ondorio guztiak murriztea bada, horiek zeinahi izan daitezkeelarik ere, industria modernoaren osagai monopolistara *causa causans* bakar gisa, eta ondorioz baieztapen hori egiten badugu, orduan faltsu bihurtzen da. Negozio handia sentimendu herritarrari etekina ateratzeko gai izan da eta sustatu egin du gainera; baina absurdoa da sortu egin duela esatea. Horrelako

emaitza batera gidatzen duen sintesia –postulatzen duen esan beharko genuke, areago–, sintesirik eza baino gutxiago da.

Gauzak infinituki txartzen dira, baldin eta gertakariak kontuan hartu gabe, zentzu komun ororen aurka joanez, kapitalaren esportazioaren eta kolonizazioaren teoria hori nazioarteko politikaren azalpen oinarritzko izateraino goratzen badugu, zeina ebazten baita, beraz, alde batetik, talde kapitalista monopolisten elkarren arteko borroka batean, eta, bestetik, horietako bakoitzak bere proletalgoarekin duen borrokan. Teoria mota horrek balio lezake alderdi-literatura etekintsu baterako, baina gainerakoan erakusten du haur-ipuinak ez direla burges-ekonomiaren monopolio soilik. Izatez, negozio handiak –edo *haute finance*ek Fuggertarrengandik hasi eta Morgandarrenganaino–, oso eragin txikia izan du politika atzerritarraren gain, eta industria handia, horrelakoa den heinean, edo banku-interesak, horrelakoak diren heinean, nagusitzeko gai izan diren kasu gehienetan, haien diletantismo inozoak porrota besterik ez du ekarri. Kapitalista-taldeek beren nazioetako politikarekiko izan duten jarrera harekiko moldatze-jarrera da nagusiki kausatze-jarrera baino areago. Neurri harrigarri batean epe laburreko kontsiderazioen inguruan ardazturik ere badaude, zeinak berdinki urrundurik baitaude nola zuhurki proiektaturiko klase-interes orotatik hala klase-interes «objektibo» eta determinatu orotatik. Puntu horretan marxismoa superstizio herritarren formulazio batean endekatzen da⁷.

Marxen egituraren alde guztietan aurkitzen dira antzeko akatsen beste adibide batzuk. Horietako bat aipatzearen, gobernuaren ahalaren izaeraren definizioak, arestian aipatu denak, *Manifestu Komunistatik* hartuak badu noski bere baitan egia-elementu bat. Eta egia horrek azaltzen ditu kasu askotan klase-antagonismoen agerpen begi-bistakoenekiko gobernuen jarrerak. Baina definizio horren baitan ezarritako teoriak egiazkotik duen guztia du arruntetik ere. Horri buruz merezi duen gauza bakarra da zergatik eta nola izan den aztertzea kasurik gehienetan, zeinetan teoriak utzi egiten baitio gertakari-ekin bat etortzeari edo, horiekin bat etorri arren ere, ez baitu egoki deskribatzen «burgesiaren negozio komun en kudeaketarako komite» horien portaera efektiboa. Hemen ere teoria egiazko bihurtu daiteke era tautologikoan, ia kasu guztietan. Zeren ez baitago politikarik, burgesia suntsitzera bideratutakoa izan ezik, zeinaz ez baitago interes bur-

ges, ekonomiko edo estraekonomiko bati zerbitzatzen diola baieztatzetik, epe laburrean edo luzean, gaitz handiagoen aurka defendatzen duelako zentzuan gutxienez. Guztiarekin ere, horrek ez du teoria baliotsuago egiten. Baina gatozen berriro gure bigarren adibidera, arazoak konpontzeko bitarteko gisa Marxen sintesiak duen balioari buruzkora.

Sozialismo zientifikoaren ezaugarria, Marxen arabera, sozialismo zientifikotik bereizi behar duena, sozialismoa saihetsezina delako haren frogan datza, giza nahimenaz edo haren desiragarritasunaz aparte. Lehenago baieztatu denez, horrek esan nahi du bilakaera kapitalistak logikaren beraren indarrez gauzen ordena kapitalista suntsitzera eta ordena sozialista sortzera jotzen duela⁸. Noraino lortu du Marxek joera horien existentzia frogatzea?

Autosuntsiketaranzko joerari dagokionez, galderari dagoeneko eman zaio erantzuna⁹. Ekonomia kapitalista ezinbestez porrokatuko delako teoria Marxek ez du frogatu, Hilferdingen objektzioak agerian jartzeko aski izango liratekeenez. Alde batetik, etorkizuneko gertakarietarako haren baieztapenetako batzuk, argumentatze ortodoxoarentzat esentzialak direnak, miseriaren eta zapalkuntzaren gehitze saihetsezinaren baieztapena bereziki, sostengaezinak dira; bestalde, ordena kapitalistaren porrokatzea ez litzaieke derrigor segituko baieztapen horiei, nahiz eta denak egiazkoak izan. Baina Marxek zuzen ikusi zituen prozesu kapitalistak garatzera jotzen dituen egoerako beste faktore batzuk, azken emaitza bera –hala frogatzea espero dutzen bezalaxe. Azken horri dagokionez beharrezkoa izan liteke Marxen nexoa beste batez, «porrokatze» adierazmoldea izendapen faltsua dela gerta daiteke, batez ere ekoizpenaren ordenazio kapitalistaren porrota eragindako porrokatzearen zentzuan ulertu behar bada; baina erre-serba horiek ez dute erasaten teoriaren esentzia, nahiz eta asko erasan bere formulazioa eta bere ondorioetako batzuk.

Sozialismoranzko joerari dagokionez ohartarazi behar dugu, lehenik, bestelako arazoa dela. Ordena kapitalista edo beste edozein ordena begi-bistan dago porroka daitekeela –edo bilakaera ekonomiko eta sozialak gainditu egin dezake–, nahiz eta, guztiarekin ere, fenix hegazti sozialista ez sortu derrigor errautsetatik. Kaosa etor daiteke, eta, kapitalismoaren edozein alternatiba ez-kaotiko sozialismo gisa definitzen ez badugu behintzat, beste ahalbide batzuk daude oraindik.

Marxista ortodoxo ertainak iragartzen zuela zirudien antolamendu sozial mota berezia –edozein kasutan ere boltxebismoaren etorrera baino lehen– kasu ahalgarri askoren arteko bat baizik ez da.

Marxek berak, gizarte sozialista era xehetuan deskribatzeari oso zuhurki uko egiten zion bitartean, haren jaiotzaren baldintzak nabarmendu egiten zituen: alde batetik, esku hartze industrialeko unitate erraldoien presentzia –zeinek, jakina, nabarmenkiro erraztuko baitzuten sozializazioa–, eta, bestetik, proletalgo zapaldu, esklabotu, baina halaber oso ugari, *diziplinatu*, batu eta antolatua presentzia. Horrek asko iradokitzen du azken batailaz, bi klaseren arteko mende-etako borrokaren kinka gorena izango baita, orduan azken aldiz elkarri kontrajarriko zaizkionen artekoa. Horri jarraituko zaion zerbait ere susmarazten du; proletalgoak, horrelakoa den heinean, «gobernuaz jabetuko den» ideia iradokitzen du, eta, haren diktaduraren bitartez, «gizakiak gizakiarekiko duen esplotazioa» bukatuko duela eta klaserik gabeko gizartea abioan jarriko duela. Gure asmoa balitz marxismoa kredo milenarioren familiako kide bat dela frogatzea hau aski litzateke noski. Baina aspektu horretaz arduratzen ez garenez gero, baizik eta iragarpen zientifikoarenaz, begi-bistan dago ez dela aski. Schmollerrek askoz lurzoru irmoago zapaltzen zuen, zeren berak ere xehetasunetan sartzeari uko egin zion arren, argi eta garbi erdikusi zuen etorkizuneko bilakaera burokratizazio, nazionalizazio eta abarren pixkanakako prozesu gisa, estatuaren sozialismoan bukatzeko; guri gustatu ala ez, gutxienez zentzu doia du. Marxek ez du lortzen, bada, ahaltasun sozialista ziurtasun bihurtzea, nahiz eta oso-osorik onartu porrokatzearen teoria; baina eztabaidatzen badugu, orduan iragarpen marxistaren porrota *a fortiori* gertatzen da.

Inolako kasutan, hala ere –Marxen arrazoiketa edo beste edozein onartzen dugularik ere–, ordena sozialista ez da era automatikoa burutuko; nahiz eta bilakaera kapitalistak sozialismorako baldintza guztiak sortu kontzebi daitekeen erarik marxiarrenean, hala ere ekin-tza berezia beharko litzateke hura ezartzeko¹⁰. Hori, jakina, Marxen teoriarekin bat dator. Haren iraultza ekintza hori irudimenari janztea atsegin zitzaion arropa berezia besterik ez da. Biolentziarekiko haren hisia agian ulergarria da 1848ko kitzikadura guztiak bere prestakuntza-urteetan sentitu zituen gizon batengan, eta nahiz eta ideologia iraultzailea mespretxatzeko gai izan, guztiarekin ere, inoiz ez zen

haren oinbilurretatik bere burua jaregiteko gai izan. Gainera, haren entzuleriaren parterik handiena nekez egongo zatekeen prest mezua entzuteko klarin-hots sakratua falta bazitzaion. Azkenik, nahiz eta berak igarobide baketsu baterako ahalbideak ikusi, Ingalaterraren gutxienez, baliteke haren gertakortasuna ez ikusi izana. Haren garaian ez zen ikusten hain erraza, eta bi klaseak bataila-ordenan zeudelako haren ideia kuttunak oraindik gehiago zailtzen zion hori ikustea. Engels adiskideak taktika militarra zinez ikasteari ekin zion. Baina nahiz eta iraultza esentziala ez zenaren alorrera baztertua izan bazitekeen ere, oraindik zutik zirauen ekintza berezi baten beharrianak.

Horrek ere ebatzi egin beharko luke bere dizipuluak banatu dituen arazoa, hau da: iraultza ala bilakaera? Baldin eta nik Marxen pentsamendua atzeman badut erantzuna ematen ez da zaila. Bilakaera zen harentzat sozialismoaren gurasoa. Gertakari sozialen logikaren zentzuaz indar handiegiz blai eginik zegoen iraultzak nolabait bilakakeraren lana ordeztu dezakeela sinetsi ahal izateko. Guztiarekin ere, iraultza sartu egiten da bere sisteman. Baina ondorioa premisa-sail oso baten azpian idazteko bakarrik sartzen da. Marxen iraultza bereizi egiten da, beraz, izaeraz eta funtzioz burges erradikalen eta konspiratzaile sozialisten iraultzetatik¹¹. Egia da ondorio horrek, eta bereziki errusiar kasura aplikatzeak atsekabetzen zituen dizipuluek¹², hori kontraesaten dutela diruditen liburu sakratuetako pasarte asko seinala ditzaketela. Baina pasarte horietan Marxek berak kontraesaten du bere pentsamendurik barneko eta helduena, *Das Kapitalen* egiturari era hutsezinean dariona eta (inspiraturik, pentsamendu orok egon behar duenez, gertakarien baitako logikaren zentzuan), badaezpadako harribitxien distira liluragarriaren pean, ondorio nabarmen kontserbadore-etara gidatzen du. Eta azken finean, zergatik ez? Argudio serio bakar batek ere ezin izan du inoiz sostengatu baldintzagabeki ezein «ismo»¹³. Marx, bere esaldiez biluzturik, zentzu kontserbadorean interpretatua izan daitekeela esatea, benetan har daitekeela esatea besterik ez da.

II ATALA

BIZIRIK IRAUN AL DEZAKE KAPITALISMOAK?

ATARIKOA

Bizirik iraun al dezake kapitalismoak? Ez. Ez dut uste. Baina nire iritzi hau, auziaz bere iritzia eman duen beste edozein ekonomialarirenak bezala, berez ez du inolako interesik. Prognosi sozialeko edozein entsegutan axola diona ez da ondorio horretara gidatzen duten gertakari eta argudioak laburbiltzen dituen baietza edo ezetza baizik gertakari horiek berak. Horiek daukate beren baitan azken emaitzak zientifikoa duen guztia. Gainerako guztia ez da zientzia, profezia baizik. Analisiak, ekonomikoak edo bestelakoak, behaketa-gai izan den ereduko joerei buruzko baieztapena besterik ez du ematen. Eta horiek ez dute inoiz esaten zer *gertatuko zaion* ereduari, baizik zer *gertatuko litzatekeen* gure behaketak hartutako denbora-tartean jardun duten bezala jardungo balute soilik eta beste faktore batzuk sartuko ez balira. «Ekidinezintasunak» edo «behartasunak» inoiz ezin dute hori baino gehiago adierazi.

Ondoren datorrena erreserba horrekin irakurri behar da. Baina gure emaitzekiko eta horien konfiantzarekiko badira beste muga batzuk ere. Bizitza sozialeko prozesua funtzio bat da, hainbeste aldagarri dituen, non horietako asko ezin baitira neurketa modukoetara eramán, eta egoera jakin baten diagnosi soilak gai badaezpadako bihurtzen baita, prognosi bat egiten saiatzen garen bezain laster agertzen diren errore-iturri izugarriez landa. Hala ere, ez dira bapikatu behar zailtasun horiek. Gure koadroko zertzelada nagusiak inferentzia

batzuk argiro onartzen dituztela ikusi behar dugu, zeinahi direla ere gehitu behar dizkiegun kalifikatiboak, indartsuegiak baitira kontuan ez hartzeko Euklidesen proposizio bat froga daitekeen zentzuan frogaezinak direlakoan oinarrituz.

Oraindik beste puntu bat aipatu behar da hasi baino lehen. Oinarritzen ahalegindu behar dudan tesia da sistema kapitalistaren orainaldiko eta etorkizuneko burutzapenak halako izaerakoak direla, non porrot ekonomikoaren pisupean porrot egitearen ideia errefusatzaren duten, baina kapitalismoaren arrakastak berak azpia jaten diela babesten duten instituzio sozialei eta «saihetsezinki» sortzen dituela bizi izatea ezinezko gertatuko zaion baldintzak, eta sozialismoa bere oinordeko legítimo gisa seinalatzen dutenak. Beraz, nire azken ondorioa ez da desberdintzen, nahiz eta nire argumentazioa oso bestelakoa izan, idazle sozialista eta, bereziki, marxista guztiak gehienak iristen direnetik. Baina hori onartzeko ez dago sozialista izan beharrik. Prognosiak ez du ezer inplikatzeko iragartzen diren jazoeren joairaren desiragarritasunaz. Medikuek iragartzen badu pazienteak epe laburrean hilko dela, horrek ez du esan nahi desiratzen duenik. Gorrota daiteke sozialismoa edo, gutxienez kritika hotz batez begira dakioke, eta, hala ere, horren etorrera aurreikus daiteke. Kontserbadore askok aurreikusi dute eta oraindik ere aurreikusten dute.

Ondorio hori onartu beharrik ere ez dago nork bere burua sozialistatzat edukitzeko. Maita daiteke sozialismoa eta haren nagusitasun ekonomiko, kultural eta etikoa gartsuki sinetsi, eta, hala ere, badira gizarte kapitalistak ez duela inolako joerarik autosuntsiketarako, izatez, eta ordena kapitalista indarra berreskuratzen, eta denbora igaro ahala egonkortzen ari dela sinesten duten sozialistak, beraz, ameskeria dela porrot egingo duela espero izatea.

V KAPITULUA EKOIZPEN TOTALAREN GEHITZE TASA

Kapitalismoarekiko etsaikortasun-giroak, laster azalduko dugunak, beste kasu batean izango litzatekeena baino askoz zailago

bihurtzen du bere burutzapen ekonomiko eta kulturaleri buruzko iritzi arrazional bat eratzea. Iritzi publikoa pixkanaka berarekin hainbestearaino umoretxartzera iritsi da, non alde zuretik erabaki duen kapitalismoa eta haren obra guztiak gaitzestea, epaitzeko era hori eztabaida-etiketaren eskakizun ia bihurtu delarik. Zeinahi direlarik ere haren hobespen politikoak, idazle edo oratore oro lehenbailehen ahalgintzen da etiketa-kode horretara moldatzen eta bere jarrera kritikoa azpimarratzen, «konplazentzia» orotatik aldentzen, burutzapen kapitalisten askiek sinesten, kapitalistenganako bere higuina eta interes antikapitalistekiko bere begikotasuna nabarmentzen. Beste edozein jarrera, adostasun komunez, ez bakarrik ergeltzat, baizik antisozialtzat jotzen da eta morrontza inmoralearen zantzutzat hartzen da. Hori erabat naturala da noski. Erljio sozial berriek beti izango dute efektu hori. Alabaina, horrek ez du errazagotzen analistaren lana; K. o. 300. urtean ez zen erraza izango kristau gartsu bati antzinatoko zibilizazioaren ekarpenak aurkeztea. Alde batetik, egariak begi-bistakoenak *a limine* besterik gabe errefusatzen dira¹; bestalde, errorerik nabarietak toleratu edo txalotu egiten dira.

Burutzapen ekonomikoen lehen froga bat ekoizpen totala da, hau da, denbora-unitate batean ekoizturiko merkantzia eta zerbitzu guztien batura: urtebete, hiru hilabete edo hilabete batean. Ekonomialariek ahaleginak egiten dituzte merkantzia banakoen ekoizpenaren sail adierazgarritzako kopuru jakin batetik eratorritako tasen bidez kantitate horren aldaketak neurtzeko. Logika zorrotza maisu gogorra da eta errespetatuko balitz ez litzateke inoiz eraikiko, ez erabiliko inolako ekoizpen-indizerik², zeren oso eztabaidagarria baita ez bakarrik indize horien materiala eta teknika, baizik eta beti proportzio aldakorretan ekoizten diren merkantzia desberdinen ekoizpen total baten kontzeptua bera ere³. Hala eta guztiz ere, nik uste artifizio hori seguru samarra zaigula kapitalismoaren burutzapenen ideia orokor bat emateko.

Estatu Batuentzat sail espezifiko aski on eta ugariak daude horrelako indizea bermatzeko Sezesio gerraz geroztik. Day-Parsons indize gisa⁴ ezaguna den ekoizpen totalaren tasara jotzen badugu, 1870z geroztik 1930 arte aurkitzen dugu urteroko batez besteko hazkunde-tasa ehunetik 3,7koa izan zela, eta erosgai fabrikatuen sailean bakarrik, ehunetik 4,3koa. Azken zifrara mugatuko eta esan nahi

duena argitzen ahaleginduko gara. Horretarako, lehenik, zuzenketa bat sartu behar dugu: industriaren instalazio iraunkorra garrantzi erlatiboz beti gehituz joan denez gero, kontsumorako ekoizpen baliagarria ezin izan da ekoizpen totalaren erritmo berean gehitu. Azken horren murrizpena onartu beharra daukagu. Baina ehunetik 1,7ko murrizpena zabala dela uste dut⁵; horrela, «ekoizpen baliagarria»ren ehunetik 2ko urteko (interesa konposatuko) gehikuntza-tasa batera iristen gara.

Demagun orain makineria kapitalistak ekoizten jarraitzen duela, hazkunde-tasa horretan, beste mende-erdi batez, 1928tik hasita. Supostu horren aurka aurrerago aztertu beharreko zenbait objektzio daude; baina ez dago objektatzerik 1929tik 1939 bitarteko hamarkadan kapitalismoak ekoizpen-arau horri eusteari utzi dionik. 1929ko azken hiruhilekotik 1932ko hirugarren hiruhilekoa arte gertatzen den depresioak ez du frogatzen ekoizpen kapitalistako bultzatze-mekanismoa mendeetako hausturarik gertatu denik, zeren hori bezain gogortasun handiko depresioak behin eta berriz gertatu baitira –berrogeita hamabost urtez behin *grosso modo*– eta ehunetik 2ko urteroko batez bestekoan, horietako baten efektuak jadanik kontuan hartu izan baitira (1873tik 1877 artekoarenak). 1932rik 1935 bitarteko berreskuratzeko normalaz azpikoa, 1935etik 1937 bitarteko prosperitate normalaz azpikoa eta horren ondoren etorri zen hondoratzea aise azaltzen dira politika fiskal berri batera, lanaren legeria berri batera eta gobernuak enpresa pribatuekiko izan zuen jarrera aldaketa orokor batera moldatzeak bere baitan zituen zailtasunen bidez, hori guztia ekoizpen-aparatuen funtzionamendutik bereiz daitekeelarik aurrerago definituko den zentzu batean.

Gaizki-ulertzeak bereziki baztergarriak izango liratekeenez puntu honetan, azpimarratu nahi dut azken proposizioak, berez, ez duela inplikatzeko New Deal politikaren kontrako kritika bat, ezta mota horretako neurriak, luzera, enpresa pribatuaren sistemaren funtzionamendu efektiboarekiko bateraezinak direlako baieztapena ere –nik neuk zehaztatzen daukadana, baina nik orain behar ez dudana. Nik orain esan nahi dudana gauza bakarra da esentzia bitaleko aldaketa hain hedatu eta bizkorrak, jakina, denbora batez afektatuko litzukeela ekoizpenaren emaitzak, eta hori New Dealaren aldezele sutsuenek ere onartu behar dutela eta *badezaketela*. Neure aldetik, ez dut ikusten nola azal litekeen bestela Estatu Batuak, bizkor oneratzeko aukerarik

hoberena izan zutenak, hain zuzen ere oneratze asegaitzena izan zuten herrialdea izatea. Moduren batean antzekoa den kasu bakarrak, Frantziarenak, ondorio hori bera ateratzea onartzen du. Hortik segitzen da 1929tik 1939rako hamarkadan jazoeren joaira ez dela *per se* arrazoi baliozkoa argudio hori entzuteari uko egiteko, zeinak gainera balio baitezake, edozein kasutan, kapitalismoak iraganean buruturikorearen esanahia ilustratzeko.

Alabaina, 1928tik ekoizpen baliagarriak garatzen jarraitu bazuen aurreko baldintza beretan, hau da, urteko ehunetik 2ko batez besteko gehikuntza-erritmoan epe luzera, berrogeita hamar urte geroago, 1978an 1928ko bolumena baino 2,7 aldiz handiagoa gutxi gorabehera (6,6916) lortuko zuen. Hipotesi hori *biztanleria-buruko* batez besteko errenta errealeko terminotan emateko aurrena ohartzen dugu ekoizpen totalaren gure gehikuntza-tasa berdin daitekeela, gutxi gorabehera, kontsumorako baliagarri dauden moneta-errenta pribatuen batura totalaren gehikuntza-tasarekin, kontsumitzaileen dolarren lormenaren aldaketak kontuan hartuta zuzenduarekin⁶. Bigarren, ideia bat taxutu beharra daukagu espero izatekoa den biztanleriaren hazkuntzaz; Sloane jaunaren estimazioa hautatuko dugu, 1978rako 160 milioi ematen baititu. Buruko batez besteko errenta berrogeita hamar urte horietan gehitu egingo litzateke, beraz, 1928ko bere zifraren bi halakoa baino zertxobait gehiagora, zeina 650 dolarrekoa baitzen gutxi gorabehera, hau da, 1928ko *erosteko ahalmeneko* 1.300 dolarrekoa alde-alde⁷.

Irakurle batzuek izango dute, agian, erreserba bat formulatu beharko litzatekeen sentsazioa moneta-errenta totalaren banaketari dagokionez. Duela berrogei bat urte arte ekonomialari askok uste zuten, Marxek bezala, prozesu kapitalistak nazio-errenta totaleko partaidetza erlatiboak aldatzera jotzen zuela, eta horregatik gure batez bestekoaren ondorio begibistakoak baliogabetu egin zitezkeela, zeren aberatsak aberatsago egingo baitziren eta pobreak pobrego, erlatiboki gutxienez. Baina ez dago horrelako joerarik. Zernahi pentsatzen delarik ere asmo horrekin asmatutiko prozedura estatistikoez, honako hau oso ziurra da: errenten egitura, diru-terminotan adierazia, gure material estatistikoak hartzen duen aldian ez dela asko aldatu –Ingalaterarrentzat XIX. mende osoa hartzen du⁸–, eta alokairu eta soldatei buruzko partea ere esentzialki iraunkorra izan dela denbora

horretan. Berez funtzionatzen utziko bagenio mekanismo kapitalistak egin lezakeena eztabaidatzen dugun bitartean, ez dago arrazoirik uste izateko errentaren banaketa edo haren barreiakuntza gure batez beste-koarekiko, 1978an nabarmenki desberdinak izango lirатеkeela 1928an izan zirenaren aldean.

Gure emaitza adierazteko era bat da kapitalismoak errepikatu-ko balu iraganean burututakoa beste mende-erdi batez 1928tik hasita, gaur eguneko txantiloien arabera, pobrezia dei litekeena bukatuko lukeela esatea, baita biztanleriaren beherenetan ere, kasu patologiko-ak soilik salbuetsirik.

Hori ez da guztia. Gure indizearen alde on eta txarrak zeinahi direla ere, ez dute gehikuntza-tasa erreala bapikatzen. Ez du kontuan hartzen «borondatezko aisia» deituriko merkantzia. Merkantzia berriak ez daude errepresentaturik edo indize batek era ez-osoan erre-presentaturik daude, zeinak bermatu behar baitu, neurri handi batean, oinarritzko merkantzien eta tarteko ekoizkinen gainean. Arrazoi bera-rengatik, kalitate-hobekuntzek ia erabat uzten diote erregistratzeari, nahiz eta abar askotan lortutako progresuaren muina izan; ez dago, esaterako, 1940ko automobil baten eta 1900eko automobil beste baten arteko aldea egoki adierazteko modurik, ezta erabilgarritasun-unitate-ko automobilen prezioak zer neurritan behera egin duen ere. Ahalgarria denetik hurbilago legoke lehengai edo ekoizkin erdi-buka-tuen kantitate jakin batzuek lehen errenditzen zutena baino zenbat gehiago errendiarazten zaieneko proportzioa kalkulatzeko, zeren nahiz eta altzairuzko barra baten edo ikatz tona baten propietate fisikoek, adibidez, aldaezin iraun duten, horien etekin ekonomikoa duela hiru-rogei urte zutenaren aldean anizkoitza da. Baina ikerketa gutxi egin da bide horretatik. Ez dut susmorik ere zer gertatuko litzaiokeen gure indizeari horrelako eta antzeko faktoreen bidez zuzentzeko metodorik balego. Hala ere, egia da haren aldakuntzaren ehuneko-tasa igo egin-go litzatekeela eta hemen erreserba bat daukagula, zeinaren bidez egindako kalkulua babesteko beheranzko edozein berrikusketa imaji-nagarriren efektuetatik. Gainera, ekoizkin industrialen efizientzia tek-nikoaren bariazioak neurtzeko bitartekoak izango bagenitu ere, haren neurriak ez liguke oraindik emango ideia egokirik zer esan nahi duten hobekuntza horiek giza bizitzaren duintasun edo intentsitate edo ero-sotasunerako; hitz batean, aurreko belaunaldiko ekonomialariek

«Premiak asetzea» izenburupean laburbiltzen zuten guztirako. Eta guretzat hori da, azkenaren buruan, kontsiderazio erabakigarria, hau da, ekoizpen kapitalistaren egiazko «fruitua», zeinarengatik baikaude interesaturik bertan agertzen diren ekoizpen-indizeaz eta librez eta galoiez, zeinek, berenez, oso nekez mereziko bailukete horrelako interesik.

Baina atxiki gakizkion gure ehuneko 2ari. Bada oraindik beste puntu bat, garrantzizkoa dena zifra hura zuzen prezatzeko. Lehen esan dut, *grosso modo* hitz eginez, nazio-errentari buruzko partaidetzek esentzialki aldatu gabe iraun dutela azken ehun urteetan. Hala ere, hori egia da baina dirutan neurtzen badugu bakarrik. Termino errealetan neurtzen badugu, nabarmen aldatu dira errenta apaleneko taldeen alde. Hori da makina kapitalista beti masa-ekoizpeneko makina bat delako, eta horrek esan nahi du halaber, ezinbestean, masentzako ekoizpen-makina bat ere badela; banako-errenten eskalan gora jotzen badugu, goranzko proportzioan gastatzen dela zerbitzu pertsonaletan eta merkantzia manufakturatutan, zeinen prezioak, neurri handi batean, alokairu-tasen funtzio baitira.

Baieztapen horien egiaztapena erraza da. Badira, zalantzarik gabe, zenbait gauza langile modernoaren eskura daudenak Louis XIV.ak berak edukitzea atsegin izango zituzkeenak, adibidez, hortzagin-aparatu modernoak. Oro har, hala ere, Louis XIV.aren mailako aurrekontu batek kapitalismoaren konkistetatik benetan ezer gutxi zeukan irabazteko. Bidaietako lastertasuna bera ere garrantzi txikiko faktorea izango zatekeela suposa daiteke hain maila jasoko jaunarentzat. Argikuntza elektrikoa ez da hobekuntza hain handia erosotasunean nahikoa kandela erosteko eta haietaz arduratzen diren zerbitzariak ordaintzeko behar beste diru daukanarentzat. Ekoizpen kapitalistaren ekarpen tipikoak ehun merkea, kotoizko eta zeta artifizialezko salgai merkeak, oinetakoak, automobilak, eta abar dira; baina ez dira, eskuarki, aberatsarentzat garrantzi handia izan lezaketen hobekuntzak. Isabel Erreginak zetazko galtzerdiak zeuzkan. Ekarpen kapitalista ez dago, eskuarki, erreginentzat zetazko galtzerdi gehiago ekoiztean, baizik lantegiko neskaten eskura ezartzean etengabe beherantz doan lan-ahaleginarengatik sari gisa.

Gertakari horiek berak oraindik hobeki nabarmentzen dira, jar-duera ekonomikoa afektatzen duten iraupen luzeko uhin haiei begira-

da bat ematen badiegu, zeinen analisiak beste ezerk baino hobeki jar-
tzen baitu agerian bilakaera kapitalistaren mekanismoa. Uhin horieta-
ko bakoitza «iraultza industrial» bat eta haren efektuen asimilazio bat
da. Adibidez, estatistikoki eta historikoki beha dezakegu –fenomenoa
hain garbia da, non gure informazio urria aski den hori egiaztatzeko–
iraupen luzeko uhin horietako baten igoera 1780ko hamarkadaren
bukaeran, bere gailurra 1800 aldera, bere jaitsiera eta, gero, berresku-
ratze gisako bat 1840ko hamarkadaren hasieran bukatzeko. Hori
Iraultza Industrialia izan zen, ekonomiako eskuliburu-egileen bihotze-
rako hain kuttuna izan zena. Orpoz orpo, hala ere, beste iraultza
industrial bat etorri zen iraupen luzeko beste uhin bat sortu zuena joan
den mendeko laugarren hamarkadan igotzen hasi zena, berehalaxe jo
zuen gorena 1857 baino lehen eta beherakadan egon zen 1897 arte,
ondoren, 1911an kinka gorena harrapatu zuen uhina jarraitu zitzaion
eta orain bere ezabatze-aldian aurkitzen da⁹.

Iraultza horiek aldatu egiten dute, aldizka, industrian dagoen
egitura ekoizpen-metodo berriak sartzearen bidez, hau da: fabrika
mekanizatua, fabrika elektrifikatua, sintesi kimikoa, eta abarren bidez;
edo burdinbideak, automobilak, tresna elektrikoak merkantzia berrien
bidez; edo sozietateen fusio-mugimenduaren gisako antolakuntza-era
berriak; edo La Platako artilea, amerikar kotoia, Katangako kobrea
horniketa-iturri berrien bidez; edo saltzeko eta abarrerako merkataritza-
bide berrien edo merkatu berrien bidez. Aldaketa industrialeko
prozesu honek ekonomiari tonu orokorra ematen dion bulkada oina-
rrizkoa ematen dio; gauza hauek hasten ari diren bitartean, hedatze
bizkor bat dugu eta «prosperitate» nagusikoia –zalantzarik gabe,
goranzko joera oinarritzko horri gainjartzen zaizkion ziklo laburren
aldi negatiboek etena–; baina gauza horiek osatzen diren eta beren
emaitzak jariatzen diren aldi berean, egitura industrialeko elementu
zaharkituak nola kanporatzen diren eta «depresio» nagusikoi bat ikus-
ten dugu. Horrela prezioen, interes-tasen, enpleguaren eta abarren igo-
tze eta jaiste-aldi luze hurrenez hurrenekoak daude, zeinen fenomeno-
ak ekoizpen-aparatuaren gatzetze-prozesu errepikaria horren mekanis-
moko beste hainbeste atal baitira.

Alabaina, emaitza horiek gero eta gehiago dira kontsumo-
ondasunezko abalantza bat, zeinak sakontzen eta zabaltzen baitu,
etengabe, errenta errealeko korrontea, nahiz eta, hasiera batean,

nahasteak, galerak eta langabezia sortzen dituzten. Eta kontsumo-ondasunezko abalantxa horiek behatzen baditugu, berriro aurkitzen dugu, horietako bakoitza, masa-kontsumorako erosgaiak direla eta alokairuko dolarraren erosteko ahalmena beste edozein dolarrena baino gehiago handitzen dela, hau da, beste hitz batzuetan, prozesu kapitalistak, pixkanaka, masen bizi-maila jasotzen duela egiaztatzen dugu eta ez kasualitate hutsez, baizik bere mekanismoaren indarrez. Eta hori gertatzen da gorabehera batzuen bitartez, zeinaren errigorea bere progresuaren lastertasunarekiko proportzionala baita. Baina emaitza hori errealki lortzen da. Merkantziak masei hornitzearen arazoak arrakastarekin ebatzi dira, bata bestearen atzetik¹⁰, ekoizpen kapitalistako metodoen irismenean jarritz joan diren heinean. Oraindik ebatzeko dauden arazoetako garrantzitsuena, etxebizitzarena, soluzio-
ra hurbiltzen ari da, etxe aurrefabrikatuei esker.

Eta oraindik hori ez da dena. Ordenazio ekonomikoaren preza-
zioa osatugabea izango litzateke –eta intzidentalki ez marxista– gizar-
teko talde desberdinei helarazten zaien ekoizpenean geldituko balitz,
eta sistema honek zuzenean zerbitzatzen ez dituen xede horiek guztiak
alde batera utziko balitu, baina zeinentzat betetzeko bitartekoak hor-
nitzen baititu, horiek burutzeko, baita sortzen duen mentalitateak
ahalbidetzen dituen kultura-burutzapen guztiak ere, balioko duen
borondate politikoa prestatzean. Atzeratu egiten dugu burutzapen
horien kontsiderazioa (XI. kapitulua) eta prozesu kapitalistak eragin
duen progresu sozialeko aspektu batzuetara itzuliko gara.

Legeria sozialarengatiko borrokako teknikak eta giroak bi ger-
takari iluntzen dituzte, bestela, begi-bistakoak izango liratekeenak:
alde batetik, legeria horren parte bat aldeztu aurretiko arrakasta kapita-
lista bat auresuposatzen du (beste hitz batzuetan, aldeztu aurretiko
industria kapitalistak sortu behar izan duen aberastasun bat auresu-
posatzen du), eta, bestetik, legeria sozialak garatu eta orokorturiko
neurrien parte handi bat estratu kapitalistak beraren ekintzak hasita-
koa zen. Bi gertakari horiek, jakina, burutzapen kapitalisten guztira-
ko baturari gehitu behar zaizkio. Baldin eta orain sistemak bere bidea
jarraituko balu 1928az aurreko hirurogei urteetan bezala eta *biztanle-
ria-buruko* 1.300 dolarreko errenta errealki lortuko balu, erraz ikus-
ten da eraberritzaile sozialek aurkezturiko desira guztiak –ia salbues-
penik gabe, ilargijo gehienak ere barne direla–, edo automatikoki

beteko lirateke edo *eraentza kapitalistaren funtzionamenduan tartekatze prezagarririk gabe* bete ahal izango lirateke. Langabetuen aldeko tamaina handiko esleipenak egitea orduan, ez litzateke zama jasangarria izango, arina baizik. Langabezia sortzen eta langabetuentzako sorospenak finantzatzen erantzukizunik ezak, jakina, sor lezake, kasuren batean, arazo ebatzezinik. Baina zuhurtzia normalez administraturiko langabetuentzako sorospen-politika batekin urteko batez besteko 16 mila milioiko gastuarekin 16 milioi langabetuko batez besteko gune batentzat, haien baitako pertsonak barne direla (biztanleriaren ehuneko 10), ez luke berez larritasunik, 200 mila milioi dolarreko (1928ko erosteko ahalmena) tamainako nazio-errenta erabilgarri bat edukiz gero.

Irakurlearen arreta erakarri nahi dut zergatik langabeziak, mundu guztiaren iritziz kapitalismoari buruzko eztabaida orotan gairik garrantzitsuenetako bat izan ohi denak –kritikari batzuek kasuko elementu honetan bakarrik oinarritzen dute beren akusazioa– zeregin erlatiboki txikia duen nire argumentazioan. Nik ez dut uste langabezia bilakaera kapitalistak, berez, pobrezia bezala, ezaba dezakeen gai horietako bat denik. Era berean ez dut uste langabezia-portzentaia gehitzera jotzen duenik epe luzera. Aipatzea merezi duen serie bakarra –lehen Mundu Gerraren aurreko hirurogei bat urte alde-alde– ingeles trade-unionen kide langabetuen portzentaia ematen duena da. Serie tipikoki ziklikoa da, ez du ezein joera (*trend*) erakusten (ez horizontalik)¹¹. Hori teorikoki ulergarria denez gero –ez dago inolako arrazoi teorikorik hori zalantzan jartzeko–, bi baieztapen horiek badi-rudi frogaturik daudela gerraurreko aldirako 1913 berera arte. Gerraosteko aldian eta herrialde gehienetan langabezia maila anormalki garaian mantendu zen ia beti, 1930. urtearen beraren aurretik ere. Baina langabezia hori eta, areago, hirugarren hamarkadan gertatu zena *sistema kapitalistaren mekanismoak berak bere baitan dituen kausengatik* langabezia-portzentaia epe luzera gehitzeko joerarekin batere zerikusirik ez duten arrazoiez azal daitezke. Lehenago aipatuak ditut, prozesu kapitalistaren hain karakteristikoak diren iraultza industrial horiek. Langabezia, normalaz gainekoa, iraultza horietako bakoitzaren «prosperitate-aldi»ari darraizkion moldatze-aldien ezaugarri karakteristikoetako bat da. 1820 eta 1870 hamarkadetan gertatu zirenetan nabari dugu, eta 1920az gerokoa aldi horietako bat da, besterik

gabe. Fenomenoa, esentzialki tenporala da, horretatik etorkizunerako ezer atera ezin daitekeen zentzuan. Baina areagotzera jo duten faktore desberdin sail bat zegoen, hau da: gerraren ondorioak, kanpo-merkataritzaren deslektutzeak, alokairu-politika, estatistika-zifrak igoarazi dituzten zenbait aldaketa instituzional, Ingalaterra eta Alemaniako politika fiskala (Estatu Batuetan ere izan du garrantzia 1935etik) eta abar. Faktore horietako batzuk, zalantzarik gabe, «giro» baten zantzu dira, zeinean kapitalismoak ez baitu funtzionatuko, beheranzko efizientziarekin ez bada. Hala ere, hori geroago gure arreta erakarriko duen auzi bat da.

Iraunkorra edo tenporala izan, okerragotu edo ez, langabezia, zalantzarik gabe, ezbehar bat da eta izan da beti. Liburu honen hurrengo atalean erregistratu beharko dugu bere balizko ezabatzea ordena sozialistak bere nagusitasun-uziak oinarritzen dituen puntuen artean. Guztiarekin ere, nik sostengatzen dut benetako tragedia ez dela langabezia *per se*, baizik langabezia larritua langabetuen premiei, era egokian, lagundu ezin zaielako ondorengo garapen ekonomikoaren baldintzak okerragotu gabe; begi-bistan dago langabeziarekin lotzen ditugun sufrimendua eta degradazioa –giza baloreen suntsiera– (baina ez indar ekoizleen xahuketa) zabalkiro ezabatuak izango lirateke eta langabeziak, praktikoki, galdu egingo luke bere izuikara langabetuen bizitza pribatua ez balego beren enplegu-gabeziak seriozki erasana. Zutik dirau ez bakarrik iraganean –esan dezagun, alde-alde, XIX. mendearen bukaera arte– ordena kapitalistak langabetuei ez lagundu nahi izateak, baizik eta langabetuei kontu egiteko ahaltasunik ez ikusi izateak ere. Baina segurtasuna emateko egoeran egon ahal izango denez, iraganeko bere burutzapenak mantentzen jarraitzen badu beste mende-erdi batez, kapitalismoaren aurkako akusazio hori, izatekotan ere, haur-lanaren eta hamasei orduko lanegunaren eta gela bakarrean bizi behar zuten bost pertsonaren mamu goibelez beteriko linbora joango da, zeina hain egokia baita nabarmentzea iraganeko kapitalismoaren konkisten kostu sozialez hitz egiten dugunean, baina zeinak ez baitira derrigor muntadunak etorkizuneko alternatiba ahalgarrien haztapenerako. Gure aroa bera ere, nolabait esateko, bilakaera kapitalistaren lehen etapen gabezien eta helduaro betera iristean sistemak egin zitzakeen ahaltasunen artean kokaturik dago. Estatu Batuetan, gutxienez, lan horren parterik hoberena, orain bertan ere, sistemaren-

tzako gehiegizko zamarik gabe egin ahal izango litzateke. Gainditu beharreko zailtasunak badirudi ez daudela hainbeste koadroaren tonu ilunenak ezabatzeko behar besteko baliabideen soberakin-gabezia; alde batetik, langabeziaren kopurua hirugarren hamarkadan behar baino haratago eramandako politika antikapitalistak gehitu izanean dago, eta, bestetik, iritzi publikoak, langabetuekiko duen betebeharraren kontzientzia osoa bereganatzean, ekonomikoki irrazionalak diren laguntza finantzarioko metodoei eta laguntza hori administratzeko metodo laxo eta hondamendizkoei berehalaxe ekitean dago.

Argumentazio horrek berak balio du, neurri handi batean, etorkizuneko ahaltasunetarako –eta hedadura handi batean baita oraingo-koetarako ere–, zeinak eskaintzen baititu bilakaera kapitalistak adineko eta gaixoen babeserako, hezkuntza eta higienarako eta abarrerako. Familia-ekonomia banakoen ikuspuntutik arrazoiz espero liteke, merkantzia-kopuru gero eta handiago bat ondasun ekonomikoen kategoriatik irtetea eta horiek praktikoko asetze-punturaino eskura izatea. Hori organismo publiko batzuen eta ekoizpen-partzuergoen bitartez edo nazionalizatzearen edo udalerriratzearen bitartez lor liteke, bere pixkanakako progresua kapitalismoaren etorkizuneko bilakaeraren ezaugarri bereizgarrietako bat delarik, nahiz eta bestalde trabarik gabe geratuko litzatekeen.

VI KAPITULUA KAPITALISMO LAUDAGARRIA

Aurreko kapituluko argumentazioa badirudi ihardespen suntsigarri bezain begi-bistako baten mendean dagoela. 1928. urteaz aurreko hirurogei urteen aldian lortu zen ekoizpen eskuragarri totalaren gehikuntza-tasa batez bestekoa etorkizunera proiektatu da. Hori iraganeke garapenaren esanahia argitzeko baliabide bat bakarrik zen heinean, ez zegoen ezer prozedura horretan kontzientzia estatistikoa zauri zezakeenik. Baina nik hemen hurrengo berrogeita hamar urteek frogatzea antzeko hazkuntza-tasa batez besteko bat deduzitu dudanetik, itxuraz, krimen estatistiko bat egin dut; begi-bistakoa da noski edozein aldi jakinetan buruturiko ekoizpenaren erregistro historikoak ez duela justifikatzen, berez, ezin estrapolazio eta gutxiago

mende-erdiz hedatzen den estrapolaziorik¹. Beharrezko da, beraz, azpimarratzea, berriro, nire estrapolazioak etorkizuneko ekoizpenaren portaera erreala iragartzeko asmorik ez duela. Kapitalismoaren aurreko burutzapenaren esanahia argitzeaz aparte, makineria kapitalistak arrazoizko eran buru lezakeenaren ideia kuantitatibo bat eratzea besterik ez da egin nahi horrekin, aurreko jarduera beste mende-erdi batez errepikatuko balitz, zeina zeharo besterik baita. Kapitalismotik horrelako burutzapenik espero litekeen ala ez auziari bere estrapolazioarekiko modu erabat independentean erantzungo zaio. Xede horretarako orain ikerketa luze eta zailari ekin behar diogu.

Kapitalismoak iraganean burutua errepikatzeko dituen probabilitateak eztabaidatu ahal izan baino lehen, begi-bistan dago, saiatu beharra daukagula jakiten zer zentzutan aurreko ekoizpen-gehikuntzaren tasa behatuak errealki neurtzen duen aurreko burutzapena. Ez dago zalantzarik geure datuak atera ditugun aldia erlatiboki trabarik gabeko kapitalismoaren aldi bat zela. Baina gertakari horrek ez du errepresentatzen, berez, behar besteko lotura kausala mekanismo kapitalistaren eta burutzapen erregistratuaren artean. Kointzidentzia baino zer bait gehiago dagoela hemen onartzeko kobentzitu beharra daukagu, lehenik, erlazio logiko bat dagoelako ordena kapitalistaren eta behaturiko ekoizpenaren gehikuntza-tasaren artean; bigarren, erlazio hori emanik, gehikuntza-tasa berari zor zitzaiola, errealki eta ez bereziki aldekoak zitzaizkion baldintzei, zeinek ez baitzuten zerikusirik kapitalismoarekin.

Arazo horiek konpondu behar ditugu burutzapena errepikatzearen arazoa planteatu ere egin aurretik. Hirugarren puntua, orduan, auzi honetara murrizten da: ea dagoen ala ez arrazoirik makina kapitalistak, datozen berrogei urteetan, iraganean funtzionatu zuenez funtzionatzeari uzteko.

Hiru puntu horiez arduratuko gara, txandaka.

Gure lehen arazoa honako eran birplantea daiteke. Espiritu oso kritikoeek berek ere miretsi duten «progresu» mota baten datu estatistikotik deskribatzaileen multzo ahalgarri bat daukagu eskura. Bestalde, aldi horretan nagusi izan den sistema ekonomikoaren egiturari buruzko gertakari-multzo bat daukagu, baita haren funtzionamenduari buruzkoak ere. Gertakari horietatik destilatu du analisiak errealtate

kapitalistaren «eredu» teknikoki deitzen dena, hau da, bere zertzelada esentzialen koadro orokortu bat. Orain jakin nahi dugu ekonomia mota hori aldekoa izan zen, muntagabea ala kontrakoa, behatu dugun burutzapenerako, eta, aldekoa bada, ea arrazoiz onar daitekeen zertzelada horiek burutzapen horren azalpen egokia ematen dutela. Ahal den heinean teknizismoei uko eginez, zentzu komuneko espirituarekin ekingo diogu auziari.

1. Jaun feudalen klaseak ez bezala, burgesia komertzial eta industrialak negozioetan izandako arrakastarengatik egin zuen gora. Gizarte burgesa olde erabat ekonomikoan taxutu da: haren oinarriak, haren zutabeak eta haren fanalak gai ekonomikoz eginak daude guztiak. Eraikina bizitzaren alde ekonomikora orientaturik dago. Sariak eta zigorrak diru-terminotan neurtuak daude. Igotzeak eta jaisteak dirua egitea edo dirua galtzea esan nahi du. Hori ezin du inork ukatu, noski. Baina nik gehitu nahi dut kontzertu sozial hori bere koadro propioaren barruan bereziki eraginkorra dela, edo edozein kasutan ere izan dela. Parte batean sinpletasun eta indar gaindiezinezko zio-eskema bati dei egiten dio, eta parte batean eskema hori bera sortzen du. Iraunarazten dituen aberastasun-promesak eta destitutzio-mehatuak lastertasun gupidagabez erredimitzen ditu. Beste sistema sozial batzuen farolak iluntzeko bizimodu burgesa behar beste berresten den nonahi promesa horiek burmuin supernormalen gehiengo handia erakartzeko eta arrakasta soziala arrakasta ekonomikoarekin identifikatzeko beste indar dute. Sari horiek ez dira zoriz banatzen; hala ere, hori lortzeak zorte-dosi seduzitzaile samarra onartzen du: jokia ez da erruleta bezalakoa, pokerraren antz handiagoa du. Normalaz gaineko trebetasuna, energia eta lanerako gaitasuna eskatzen ditu; baina trebetasun hori neurtzerik balego, orokorrean, edo arrakasta partikularrean sartzen den ekarpen pertsonala, errealki ordaintzen diren sariak ez lirateke segur aski batarekiko eta bestearekiko proportzionaltzat joko. Sari ikusgarriak esleitzen dira, irabazle zortedunen gutxiengo txiki baten ahalegin partikularra erakartzeko beharrezko izango litzatekeena baino askoz handiagoak, negozio-gizonen gehiengo handiren jarduerari legokiokkeen banaketa ekitatiboago eta «justu»ago batek suposatuko lukeena askoz bulkada eraginkorragoa emanez, zeinek ordaintzat sari askoz apalagoa edo ezer ez edo ezer ez baino gutxiago hartzen baitute, eta, guztiarekin

ere, ahal duten guztia egiten dute, zeren sari handiak beren begien aurrean baitauzkate eta gainestimatu egiten baituzte horiek lortzeko aukerak. Antzeko era batean zuzentzen zaizkio mehatxuak gaitasunik ezari. Baina nahiz eta gaitasunik gabeko gizonak eta metodo zaharkituak ezabatzen diren, batzuetan oso bizkor, eta beste batzuetan atzerapenarekin, porrotak era berean egiten dio mehatxu eta harrapatu ere bai, errealki, gizon gaitu bat baino gehiago, horrela *mundu guztia* ikaratuz zigor-sistema ekitatiboago eta «justu»ago batek baino askoz eraginkortasun handiagoarekin. Azkenik, negozioetako nola arrakasta hala porrota idealki zehatzak dira. Ez bata eta ez bestea ez dago zalantzan jartzerik.

Horren aspektuetako bat bereziki hartu da kontuan, bai gero kontuan hartzeko eta bai oraingo argumentaziorako duen garrantziarengatik. Ordenazio kapitalista, enpresa pribatuaren instituzioan mamiturik dagoen bezala, lotu egiten du errealki estratu kapitalista bere atazetara, nola adierazitako eran hala aurrerago aztertuko ditugun beste era batzuetan. Baina hori baino gehiago ere egiten du. Klase burgesa garai jakin batean eratzen duten norbanakoen eta familien prestazioak baldintzatzen dituen aparatuak berak, hautatzen ditu, *ipso facto*, klase horretara igo behar duten edo hartatik baztertu behar diren norbanakoak eta familiak ere. Funtzio bultzatzailearen eta hautatzailearen konbinazio hori ez da beti gertatzen. Alderantziz, hautespen sozialeko metodo gehienek, hautespen biologikoko «metodoek» ez bezala, ez dute bermatzen norbanako hautatuen prestaziorako gaitasuna, eta horiek ezin bermatu ahal izatea da antolamendu sozialistaren arazorik larrienetako bat, zeinaren azterketa gure ikerketaren etapa aurreratuago batean egingo baita. Oraingoz soilik ohartu behar da arazo hori sistema kapitalistak zeinen ongi ebazten duen; kasurik gehienetan lehenik negozio-gizonen klasera igotzen dena eta gero haren barruan, negozio-gizon gaitu gisa ere agertzen da, eta segur aski bere gaitasuna iristen tokiraino igoko da, zeren eskema horretan posizio batera igotzea eta bertan arrakastarekin jardutea, orokorrean, gauza bera baita edo izan baita. Datu hori, izatez hain sarritan hori ukatzeko porroteginek egiten duten ahalegin autoterapeutikoak iluntzen duena, askoz garrantzitsuagoa da gizarte kapitalistaren eta bere zibilizazioaren preziaziorako ordenazio kapitalistaren teoria hutsetik bil daitezkeen guztiak baino.

2. Baina ez al daude baliogabeturik «optimoki hautaturiko talde baten prestazio maximo» baten ideia horretatik ateratzen saia gaitzekkeen ondorio guztiak prestazio hori zerbitzu sozialera engranaturik ez dagoelako gertakari gehigarriaz –kontsumorako ekoizpenera esan genezake–, baizik dirua irabaztearen xedera, zeinek irabazi maximotara jotzen baitute ongizate maximora beharrean? Estratu burgesetik kanpo hori izan da beti, noski, iritzi herritarra. Ekonomialariek borroka egin diote batzuetan, eta, beste batzuetan defendatu ere egin dute. Horrenbestez indibidualki iritsi zireneko ondorioak baino askoz balio handiagoko ekarpena egin dute eta zeinek, kasurik gehienetan, beren posizio soziala, beren interesak eta beren zaletasunak edo beren higui-nak islatzea ia besterik ez baitzuten egiten. Konkistek gehitu egin dute, pixkanaka, gertakarien gure ezagutza eta gure ahalmen analitiko-a, halako moldez, non gure egunotan auzi askori erantzun askoz zuzenagoak emateko egoeran baikaude, nahiz eta gure aurrekoenak baino sinpletasun eta absolututasun gutxiagokoak izan.

Ekonomialari klasiko deituek², atzerago ez jotzearren, denek ia gauza bera pentsatzen zuten. Haietako gehienek beren garaiko instituzio sozialen eta beren funtzionamenduaren modalitateen aspektu asko gaitzesten zituzten. Lurjabeen pribilegioak borrokatu eta erreforma sozialak onartzen zituzten –fabrika-legeria batik bat–, zeinak ez baitzeuden *laissez faire* norabidean. Baina erabat sinetsirik zeuden, kapitalismoaren marko instituzionalaren barruan, fabrikatzaileen eta merkatarien interes pertsonalek errendimendu handiena sustatzen zutela denen intereserako. Hemen aztertzen ari garen arazoari aurre egin izan baliote, ozta-ozta izango zuketena zalantzarik ekoizpen totalean behaturiko gehikuntza-tasa egozteko enpresa-espirituari, trabetatik erlatiboki aske zegoen eta lukroaren eragingarriari zenari; agian «aldeko legeria» bat aipatuko zuketena progresu-baldintzatzat, baina horrenbestez traben ezabaketa ulertarazi nahiko zuketena, batez ere aduana-eskubide protekzionisten derogazioa edo murrizpena XIX. mendean zehar.

Gaur egun izugarri zaila da kontzepzio horiei justizia egitea. Jakina, ingeles klase burgesaren kontzepzio tipikoak ziren, eta begi-estalki burgesen eragina agerikoa da autore klasikoek idatziriko ia orrialde bakoitzean. Horiek bezain begi-bistakoak dira beste gisako bateko begi-estalkiak: klasikoek egoera historiko partikular baten terminotan arrazoitzen zuten, zeina idealizatzen baitzuten, eta zeinatik

orokorkuntzak ateratzen baitituzten espiritu kritiko txikienik ere gabe. Horietako gehienek, gainera, bazirudien interes ingelesen eta beren garaiko arazoen terminotan bakarrik arrazoitu izan zutela. Arrazoi horrengatik, beste herrialde eta beste aro batzuetan, jendeak sarritan errefusatzten zituen haien teoria ekonomikoak, horiek ulertzeko ahaleginik ere egin gabe. Baina ez du ezertara gidatzen kausa horrengatik haien teoriak errefusatzekoak. Aurreiritziak dituenak, hala ere, egia esan dezake. Kasu berezietatik abiatuak garaturiko proposizioek, guztiarekin ere, izan dezakete balio orokorra. Eta klasikoen etsaiek eta ondorengoek bazituzten, eta badituzte ere, begi-estalkiak eta aurreiritziak, desberdinak soilik, baina ez urriagoak; kasu desberdinak kontsideratzen zituzten eta dituzte, baina ez berezitasun gutxiagokoak.

Analista ekonomikoaren ikuspuntutik, klasikoen meritu nagusia dago gizarte kapitalistako jarduera ekonomikoa lukroaren eragin-garriaren inguruan biraka ibiltze hutsarengatik, kontsumitzaileen interesaren aurka derrigor joan behar duelako ideia inozoa ezeztatu izatean dago, beste errore handi askorekin batera; edo, beste era batera adierazteko, dirua irabazteak aldenitu egiten duela, ezinbestean, ekoizpena bere helburu sozialetatik; edo, azkenik, mozkin pribatuek, bai berenez edo eragiten duten prozesu ekonomikoaren distortsioz, guztientzako helburu bat eratzen dutela beti, jasotzen dituzten haien-tzako izan ezik, eta sozializazioaren bitartez biltzeko irabazi garbia izango litzateke beraz. Proposizio horien eta antzeko beste batzuen logika kontsideratzen badugu, ezein ekonomialari gaituk defendatzea pentsatu ere egingo ez zukeena, klasikoen ezeztapenak arrunta irudi lezake. Baina kontziente edo inkontzienteki inplikatzten dituzten teoria eta eslogan guztiak kontsideratzean errespetu handiagoa sentituko dugu horien ekarpenarekiko. Zilegi bekigu gehitzea, aldi berean, autore klasikoei argi eta garbi hauteman zutela, nahiz eta agian bapikatu, aurrezkiaren eta metaketaren zeregina, eta aurrezkiek behatu zuten «progresu» motarekin erlazionatu zutela halako moldeaz, non gutxi gorabeherako terminotan bazen ere, funtsean zuzena zen. Guztiaren gainetik haien teorian jakinduria praktikoa bat zegoen, erantzukizun-irizpide bat etorkizuneko belaunaldien aurrean eta tonu biril bat histeria modernoarekin abantailaz kontrastatzen dutena.

Baina mozkin handienaren atzetik ibiltzearen eta prestazio handiena lortzeko ahalegina ez direla derrigor bateraezinak egiazta-

tzearen eta lehenak, derrigor –edo kasu ia guztietan–, bigarrena inplikatzen duela frogatzearen artean, klasikoek uste zutena baino askoz amildegi handiagoa dago, zeinaren gainean ez baitzuten inoiz zubirik hedatu. Haien teorien aztertzaile modernoak ez dio inoiz harritzeari uzten nola zitzaizen ahalgarri beren argudioekin pozik gelditzea edo argudio horiek frogatzat hartzea; ondorengo analisiaren argitan ikusi da beren teoria kartazko etxe bat zela, beren intuizioan egon zitekeen egiaren neurria edozein izan zitekeela ere³.

3. Analisi hori bi urratsetan egingo dugu, gure arazoa argitzen behar baino gehiago luzatu gabe. Historikoki, lehenak mende honetako aurren hamarkadara eramango gaitu; bigarrenak gerraosteko ekonomia zientifikoaren garapen batzuk hartuko ditu bere baitan. Egia esan, ez dakit zer onura izan dezakeen honek irakurle ez profesionalarentzat; gure ezagutzako beste edozein abarrek bezala, zientzia ekonomikoa, bere aparatu analitikoa hobetuz doan heinean, fatalki alden-du egiten da aldi zoriotsu hartatik, zeinean arazo, metodo eta ondorio guztiak, pertsona ikasi ororen eskura egon baitzitezkeen, trebakuntza berezi baten premiarik gabe. Nik neuk ahalegin guztiak egingo ditut.

Lehen urratsa bi izen handirekin asozia daiteke, ikasle ugari gure egunotara arte erreberentziatu dituztenekin –gutxienez gustu txarrekotzat ez dutenek zerbaite edo norbait erreberentziaztea, zeinetariko askok horrelakotzat izango baitute zalantzarik gabe–: Alfred Marshall eta Knut Wicksellekin⁴. Beren eraikuntza teorikoak baterako puntu gutxi ditu klasikoekin –nahiz eta Marshallek ahal zuen guztia egin zuen gertakari hori ezkutatzeko–, baina tesi klasikoari eusten dio, zeinaren arabera ekoizlearen mozkinarekiko interesak joera baitu, konkurrentzia perfektuko kasuan, ekoizpen handiena lortzekoa. Ia asegarria zen frogatzea bat hornitu ere egiten zuen. Soilik formulatzen eta erarik zuzenean frogatzen saiatu den prozesuan, proposizioak asko galdu du bere edukia: bizirik iraun du eragiketan, baina argaldurik irteten da, doi-doi bizirik⁵. Guztiarekin ere, frogagarria da, Marshall-Wicksellen analisisiko hipotesi orokorren barruan, ekintza indibidualez beren ekoizkinen prezioaren edo erabiltzen dituzten ekoizpen-faktoreen prezioaren baitan inolako eraginik izan ez dezaketen enpresek –halako moldez, non zentzurik ez bailuke izango malkoak isurtzeak edozein ekoizpen-gehitzek prezioak urritzera eta kostuak handitzera jotzen

duelako— hedatu egingo dute beren ekoizpena harik eta puntua iritsi arte, non beste ekoizpen-gehitze txiki (kostu marjinala) bat sortzeko onartu behar duten kostu gehigarria, gehitze horren bidez lor dezaketen prezioa bezalakoxea izango den, hau da, ahal duten guztia ekoiztuko duten galeratan sartu gabe. Eta froga daiteke ekoizpen-bolumen hori, oro har, ekoiztea «sozialki nahigarria» denaren parekoa izango dela. Hizkera teknikoagoan, kasu honetan, prezioak ez dira aldagai, enpresa banakoaren ikuspuntutik, parametro baizik, eta hori horrela den tokian oreka-egoera dago, zeinean ekoizpen orok bere puntu gorena lortzen baitu eta faktore guztiak erabat erabiliak baitaude. Kasu hori, eskuarki, «konkurrentzia perfektu» deitzen da. Enpresa guztietan ete beren kudeatzaileengan burutzen den prozesu hautatzaileaz esan dena gogoratuz, errealitatean, oso ideia baikorra egin genezake pertsona oso hautatuen talde batengandik espero izatekoak diren emaitzez, zeinak koadro honen barruan, beharturik aurkitzen baitira, lukroaren eragingarriaren indarrez, beren indar guztiak tentsioan jartzera ekoizpen handiena eta kostu txikienak lortzeko. Bereziki pentsa liteke, lehen begiratuan, eredu honetara egokituriko sistema batek xahuketa sozialeko iturburu batzuen absentsia ohargarria erakutsiko lukeela. Gogoeta apur batek agerian jarriko duenez, hau ez da, izatez, aurreko proposizioaren edukia formulatzeko beste era bat besterik.

4. Orain bigarren urratsa egin dezagun. Marshall-Wicksell analisiak ez zituen oharkabea utzi, noski, konkurrentzia perfektuko eredu horretara moldatzen ez diren kasu ugariak. Klasikoek ere ez zituzten oharkabea utzi. Haiek ere aitortu zituzten «monopolio»-kasuak, eta Adam Smithek berak xeheki behatu zuen nolako maiztasunez erabiltzen ziren konkurrentzia mugatzeko prozedurak⁶, eta hortik etortzen ziren prezioen malgutasun-desberdintasun guztiak. Baina kasu horiek salbuespen gisa kontsideratu zituzten, eta, ezaba zitezkeen eta denborarekin ezabatuko ziren salbuespen gisa, gainera. Antzeko zerbait esan daiteke Marshall ez ere. Nahiz eta Cournoten⁷ monopolioaren teoria garatu zuen eta ondorengo analisiari aurrea hartu zion enpresa gehienek merkatu berezi propioak dituztelakoaz arreta erakartzean, zeinetan beren prezioak ezartzen baitituzte, besterik gabe onartu beharrean⁸, berak ere, Wicksellek bezala bere ondorio orokorrak konkurrentzia perfektuaren txantiloira doitu ditu eta horrekin iradokitzen du, klasikoek bezala, hori dela arau nagusia. Ez

Marshalllek, ez Wicksellek, ez klasikoek, ez zuten ikusi konkurrentzia perfektua salbuespena dela eta araua izango balitz ere, pozteko askoz arrazoi gutxiago izango litzatekeela pentsa litekeena baino.

Hurbilagotik baldintzak aztertzen baditugu –denak ez esplizituki formulatuak, ez eta artean Marshalllek ez Wicksellek argi eta garbi ikusiak– konkurrentzia perfektua sortzeko bete beharrekoak, berehala egiaztatzen dugu nekazaritza-ekoizpen masiboaz aparte, ezin litezkeela haren adibide asko izan. Nekazari batek bere kotoia edo bere garia hornitzen du, efektiboki, baldintza horietan; bere ikuspuntutik kotoiaren edo gariaren prezio arruntak datuak dira, nahiz eta oso aldakorrak izan, eta bere ekintza indibidualez haietan eraginik ezin eduki ahal izatean, haietara bere ekoizpena moldatzera mugatzen da besterik gabe; nekazari guztiek gauza bera egiten dutenez gero, prezioak eta kantitateak konkurrentzia perfektuaren teoriaren eskakizunen arabera doitzen dira azkenerako. Baina hori ez da horrela gertatzen, nekazaritza-ekoizkin askorekin, adibidez, ahateekin, hestekiekin, barazkiekin eta esneki askorekin. Eta praktikoki ekoizkin bukatu guztiekiko eta industriako zerbitzuekiko eta merkataritza-erakundeakiko da edozein jaki-dendari, edozien horniketaren gune, goante- edo bizargintzarako krema- edo zerratxo-fabrikatzaile orok badu merkatu propio txiki eta prekarioa eraikitzen eta iraunarazten saiatzen dena –saiatu beharra dauka– prezioen estrategiaren, kalitatearen estrategiaren –»ekoizkinen desberdintzearen«– eta publizitatearen bidez. Horrela eredu zeharo desberdin bat lortzen dugu, zeinak ez dirudien arrazoirik dagoenik konkurrentzia perfektuaren emaitzak emateko eta, zeina askoz hobeki moldatzen baitzaio eskema monopolistari. Kasu horietan konkurrentzia monopolistaz hitz egiten dugu. Horien teoria izan da gerraosteko zientzia ekonomikoaren ekarpenik handienetakoa bat⁹.

Ekoizkin funtsean homogeneous eremu zabal bat gelditzen da –batez ere, industriarako lehengaiak eta ekoizkin industrial erdi-akabatuak, hala nola, altzairuzko barrak, zementua, kotoizko ehunak eta antzekoak–, zeinetzat ez baitirudi nagusitzen denik aldeko baldintzarik konkurrentzia monopolista sor dadin. Halaxe da. Baina, orokorrean, eremu horretan emaitza hainbat antzekoagoak gertatzen dira, zenbat eta handiagoa den enpresek neurri handian besarkaturiko horren parte, zeinek banaka edo kontzertaturik, prezioak manipula ditzake-

ten, ekoizkinak desberdindu ere gabe, hau da, oligopolio kasuetan. Hemen ere monopolio-eskema, egokiro modifikatua, badirudi askoz hobeki moldatzen zaiola portaera-mota horri konkurrentzia perfektuaren eskema baino.

Konkurrentzia monopolistaren edo oligopolioaren edo bi gauzen konbinazioaren gailentasuna aitortu den bezain laster, Marshall-Wicksellen ekonomialari-belaunaldiak segurtasun handienaz irakatsi ohi zituen proposizioetako asko aplikaezin bihurtzen dira edo frogatzen askoz zailago. Honek, lehenik, oreka oinarritzko kontzeptuaren inguruan biraka dabiltzan proposizioetarako balio du, hau da, organismo ekonomikoaren egoera jakin baterako, zeinen aldera jotzen baitu beti beste edozein egoera jakinek eta, zeinek erakusten baititu zenbait propietate sinple. Oligopolioaren kasu orokorrean ez dago, izatez, inolako oreka jakinik eta bada ahaltasuna higidura eta kontrahigidura sail amaiezin bat sortzekoa, gerra-egoera iraunkor bat konkurrentziako enpresen artean. Egia da kasu berezi asko daudela, zeinetan existitzen baita, teorikoki, oreka-egoera. Baina bigarren, kasu horietan ere, ez da soilik askoz zailago oreka lortzea konkurrentzia perfektuan baino (eta oraindik zailago eusten), baizik eta badirudi mota klasikoko konkurrentzia «ongilea» aise ordeztu behar duela «harrapaketa»ko edo «labankadazko gerra» konkurrentziak edo, besterik gabe, esparru finantzarioan nagusitasuna lortzeko borrokek. Maniobra horiek xahuketa sozialaren beste hainbeste kausa dira, zeini gehitu behar baitzaizkie beste asko, hala nola kanpaina publizitarioen kostuak, ekoizpen-metodo berriak ezabatzea (ez erabiltzeko patenteak erosiz), eta abar. Eta denetan garratzitsuena da, kontsideraturiko baldintzetan, orekak, nahiz eta metodo izugarri neketsu baten bidez lortu azkenerako, ez duela bermatzen ez enplegu totala, ez eta ekoizpen handiena ere konkurrentzia perfektuaren teoriaren zentzuan. Oreka *existi daiteke* enplegu totalik gabe; existitu *beharra* dauka, dirudienez, muga goren haren azpitiko ekoizpen-maila batean, zeren mozkinak iraunaraztera jotzen duen estrategia, konkurrentzia perfektuaren baldintzetan ezeinezkoa, orain ez da bakarrik ahalgarri bihurtzen, baizik ete berez gailentzen baita.

Alabaina, ez al du horrek berresten kaleko gizakiak pentsatzen duena (negozio-gizona ez bada behintzat) negozio-bizitzako portaeraren auziaz? Ez al du ezeztatu, erabat, teoria klasikoaren analisi moder-

noa eta ez al ditu justifikatu iritzi herritarrak? Ez al da egia, azkenaren buruan, ia ez dagoela parekotasunik mozkin bat lortzeko ekoiztearen eta kontsumitzailearentzat ekoiztearen artean, eta enpresa pribatua baliabide bat asko gehiago ez dela ekoizpena murrizteko hamarrentzat eta erreskatetzat, arrazoiz, deskribatu beharko liratekeen mozkinak erauzteko asmoarekin?

VII KAPITULUA SUNTSIDURA SORTZAILEAREN PROZESUA

Konkurrentzia monopolista eta oligopolistaren teoriak eta haien aldagai herritarrak bi eratara jar daitezke kontzepzioaren zerbitzura, zeinaren arabera errealitate kapitalista ez baita faboragarria ekoizpen-errendimendu handiena lortzeko. Sostenga daiteke beti horrela izan dela eta garai guztietan ekoizpena hedatu egin dela burgesia gidatzaileak egindako mendeetako sabotajea gorabehera. Proposizio horren aldezelek frogatzen du bat ekarri beharko lukete, alegia, behaturiko gehikuntza-tasa enpresa pribatuaren mekanismoarekiko independenteki zirkunstantzia faboragarri batzuen bidez azal daitekeela eta azken horren erresistentzia gainditzeko aski sendoak direla. Horixe da hain zuzen IX. kapituluan aztertu behar dugun auzia. Hala ere, aldagai hori defendatzen dutenak badute, gutxienez, ordena historikoko zailtasunak ekiditearen abantaila, zeinei aurre egin behar baitiete proposizio alternatiboaren aldezelek, zeinak baieztatu baitu errealitate kapitalistak beste garai batean ekoizpenaren errendimendu handiena faboratzera jo zuela edo, nolana ere, errendimendu aski ohargarria oinarritzeko elementu bat eratzekeko sistemaren prezazioa serio baterako, baina hori gorabehera, forma monopolisten geroko garapenak, konkurrentzia hiltzean, orain alderantzikatu egin du joera hori.

Lehenik, tesi honek inplikatu du konkurrentzia perfektuaren urre-aro bat sortzea, erabat irudikatua, une jakinen batean nolabait metamorfoseatu dena aro monopolistan, konkurrentzia perfektua inoiz ez dela izan gaur egun dena baino errealitate gehiago gertakari zeharo agerikoa alde batera utzirik. Bigarren, beharrezkoa da seinaltatzea ekoizpenaren gehikuntza-tasa ez dela murriztu joan den mende-

ko bederatzigarren hamarkadatik, zeinatik abiatu datatu beharko litzakeela *concern* handien nagusitasuna uste baitut, industria manu-fakturatzailean gutxienez; ez dagoela ezer ekoizpen totaleko serie ten-poralen portaeran «joera-haustura» iradokitzen duen ezer eta, denetan garrantzitsuena, masen bizitzako maila modernoa hobetu egin dela erlatiboki trabarik gabeko «enpresa handia»ren aldian. Begiratu bat ematen badiogu langile modernoaren aurrekontuan sartzen diren kon-tusailei eta beren prezioen bilakaera behatzen badugu 1899tik aurrera ez diru-terminotan, baizik erosteko beharrezko diren lanordu-termi-notan –hau da, urte bakoitzeko moneta-prezioak zati urte bakoitzeko orduko alokairu-tasak–, ezinezkoa zaigu ez harritzea aurrerapen-tasak, zeinak baitirudi, kalitateetan izan den hobekuntza ikusgarria kontuan izanik, inoiz baino bizkorragoa izan dela orain arte. Baldin eta ekonomialariok ez bagina pentsatzera hain emanak izango eta ger-takarien behaketara gehiago makurtuko bagina, berehalaxe sortuko litzaiguke zalantza teoria baten meritu errealei buruz, zeinak zeharo bestelako emaitza itxarotera eramango baikintuzkeen. Baina hori ez da dena. Xehetasunetan sartzen garenean eta artikuluetako bakoitza kontuan hartzen dugunean, zeinean progresia nabariagoa izan baita, azterna horrek ez gaitu konkurrentzia erlatiboki librean lanean ari diren enpresen ateetara gidatzen, baizik eta *concernen* handien ateeta-ra hain zuzen ere –zeinek, nekazaritza-makinismoaren kasuan bezala, konkurrentziako sektorearen progresuari ere lagundu egin baitiote– eta susmo eskerga bat nabarmentzen zaigu, hau da, enpresak bizi-maila hori sortzen areago ez ote duen lagundu uzkuratzen baino.

Aurreko kapituluaren amaieran adierazitako ondorioak, izatez, ia erabat faltsuak ziren. Hala eta guztiz ere, ia erabat egiazkoak diren behaketa eta teoremetatik ondorioztatuak dira¹. Nola ekonomialariak hala idazle herritarrak atzematea lortu zuten errealitate-zati batzuk era-bili dituzte gidaritzat. Zati horiek beroriek zuzen ikusita zeuden kasu-rik gehienetan. Haien propietate fomalak zuzen berrezagutuak zeuden ia kasu guztietan. Baina zatikako analisi horietatik ez da inolako ondo-rio baliozkorik ateratzen errealitate kapitalistaz oro har. Guztiarekin ere, ateratzen baditugu, kasualitatez bakarrik izan daitezke zehatzak. Hori da egin dena. Baina zorioneko kasualitatea ez da gertatu.

Kontuan izan beharreko puntu esentziala datza, kapitalismoa tratatzean, bilakatze-prozesu batekin topo egitean. Estrainioa irudi

lezake norbaitek hain begi-bistako gertakaria kontuan ez hartzea, eta, gainera, Karl Marxek aspaldi samar nabarmendu zuena. Hala eta guztiz ere, alde batera uzten du hisiatuki kapitalismo modernoaren funtzionamenduari buruzko gure tesi gehienak eman dizkigun zatikako analisi hark. Beraz, puntu hori berriz deskribatzea komeni da eta gure arazorako zer esanahi duen ikustea.

Kapitalismoa, izaeraz, eraldakuntza ekonomikoko era edo metodo bat da eta ez da soilik inoiz egonkorra, baizik eta ezin daiteke inoiz izan. Alabaina, prozesu kapitalistaren izaera bilakakor hori ez da soilik etengabe eraldatzen den ingurumen sozial eta natural batean gertatzeagatik bizitza ekonomikoa eta haren eraldakuntzaren kausaz, ekintza ekonomikoaren datuak aldatzen direlako; gertakari hori garrantzitsua da eta eraldakuntza horiek (gerrek, iraultzek eta abarrek) sarritan baldintzatu egiten dute aldakuntza industriala, baina ez dute haren eragingarri nagusia eratzten. Izaera bilakakor hori ez da biztanleriaren eta kapitalaren hazkuntza ia automatikoarengatik ere, ezta moneta-sistemaren nahikundeengatik ere, zeinaz guztiaz esan baitaiteke prozesu kapitalistako eraldakuntzez zehazki esan daitekeen gauza bera. Makina kapitalista mugimenduan jarri eta mantentzen duen oinarritzko bulkada enpresa kapitalistak sortzen dituen kontsumo-ondasun berrietatik dator, ekoizpen- eta garraio-metodo berrietatik, merkatu berrietatik, antolakuntza industrialeko era berrietatik.

Aurreko kapituluan ikusi dugunez, langilearen aurrekontuaren edukia, demagun 1760tik 1940 bitartean, ez zen gehitu norabide aldatugabeen bakarrik, baizik eta eraldakuntza kualitatibozko prozesu bat izan zuen. Antzeko era batean nekazaritza-esplotazio tipiko baten ekoizpen-aparatuaren historia, kultiboen errotazioaren arrazionalizazioaren hasieratik, horien metodoenetatik eta abelazkuntzarenetik gure egunotako nekazaritza mekanizatua arte –silo eta burdinbideekin batera–, iraultza-historia bat da, burdina eta altzairuaren industriaren ekoizpen-aparatuaren historia den bezalaxe, egurrikatzezko labetik hasi eta gaur egungo labe garai mota arte, eta energiaren ekoizpen-aparatuaren historia, gurpil hidraulikotik turbina arte, eta garraioaren historia, posta-zelatik hegazkina arte. Merkatu berriak irekitzea, atzerrian zein nazioan, eta ekoizpenaren antolaketaren garapena, artisautza-tailerretik eta manufakturatik *concernak* sortu arte, Estatu Batuetako altzairuarenak bezalakoak (U.S. Steel), mutazio industria-

laren prozesua bera ilustratzen dute –adierazpen biologiko hori erabiltzen uzten bazait– zeinak etengabe iraultzatzen baitu egitura ekonomikoa *barrutik*², antzinakoa taigabe suntsituz eta atergabe berria sortuz. Suntsiera sortzailezko prozesu hori da kapitalismoaren gertakari-datu esentziala. Horretan datza azken finean kapitalismoa eta enpresa kapitalista orokor horretara moldatu beharra du bizi izateko. Alabaina, gertakari horrek bitara afektatzen du gure arazoa.

Lehenik, nola prozesu batez ari garen arduratzen, zeinean elementu bakoitzak denbora ohargarria behar baitu bere egiazko zertzeladak eta bere behin betiko efektuak agertzen, ez du zentzurik prozesu horren errendimendua *ex visu*, une jakin batean, prezatzen saiatzek; haren errendimendua denboraldi handiago baten, hamarkadatan edo mendeetan garatzen den bezalakoaren bitartez preztatu behar dugu. Sistema bat –ez bakarrik ekonomikoa, baizik baita beste edozein sistema ere– zeinak une jakin bakoitzean osoki erabiltzen baititu bere ahaltsunak abantailarik handienarekin, epe luzera, hala ere, emaitza hori *ezein unetan* lortzen ez duen sistema bat baino apalagoa izan daiteke, zeren azkenaren porrota horri dagokionez baldintza izan baitaiteke epe luzeko prestazioaren maila edo abiadurarako.

Bigarren, prozesu organiko batez ari garenez gero, organismoaren elementu espezifiko baten funtzionamenduaren analisiak –adibidez, *concern* edo industria banako baten–, errealitatean, mekanismoaren xehetasunak argi ditzake, baina ezin dezake ondorio orokorrago-etara gidatu. Estrategia ekonomikoaren zati bakoitzak bere egiazko esanahia prozesu horrekin harremanetan jarritz eta berak sortutako egoeraren barruan bakarrik lortzen du. Duen zeregina suntsiera sortzailearen enbata betierekoaren barruan ikusi behar da; ez dago hartaz aparte, ez eta baretasun betiereko baten hipotesiaren oinarriaren gainean ulertzerik.

Hala eta guztiz ere, haxe da hain zuzen ere ekonomialariek hartzen duten hipotesia, zeinek une baten, *ex visu*, kontsideratzen baitute, adibidez, industria oligopolista baten portaera –enpresa handi gutxi batzuek eraturiko industria batena– eta haietan ohiko eragingarri eta kontraeragingarriak behatzen baitituzte, zeinek baitirudi prezioak igoaraztea beste asmorik ez dutela, ekoizpena murritzuz. Ekonomialari horiek aldiuneko egoera baten datuak onartzen dituzte ez iraganari eta ez etorkizunari loturik ez balego bezala eta uste dute

ulertu dutela ulertu beharko zuketena enpresa horien portaera interpretatzat datu haiei aplikaturiko lukro handienaren printzipioaren azalpenaren bitartez. Teorialarien ohiko disertazioek eta gobernu-batzordeen usariozko txostenek ia inoiz ez dute portaera hori tratatzen: alde batetik, iraganeko historiaren zati baten emaitza gisa, eta bestetik, epe laburrean aldatzera beharturik dagoen egoera batera moldatzeko ahalegin gisa, orekan bere burua mantentzeko enpresa horien ahalegin gisa, oinen azpitik ihes egiten dien lur baten gainean. Beste hitz batzuetan: ohituraz kontsiderazioan hartzen den arazoa kapitalismoak dauden egiturak nola administratzen dituen da, eta horrela arazo muntaduna da nola sortzen dituen eta nola suntsitzen dituen aurkitzea. Horren kontzientziarik ez duen bitartean ikertzaileak zentzurik ez duen lan bat egiten du. Baina hori berrezagutzen denean, praktika kapitalistaz eta bere ondorio sozialez duen ikuspegia nabarmen modifikatzen da³.

Burutik kendu behar den lehen gauza konkurrentziaren *modus operandi*aren tradiziozko kontzepzioa da. Ekonomialariak hasiak dira azkenik prezioen konkurrentzia besterik ikusten ez zuten alditik irteten. Kalitateen konkurrentzia eta saltzeko ahalegina onartuak diren bezain laster teoriaren esparru sakratuan, prezioaren aldagaia kanporatu egiten da haren posizio nagusikoietik. Hala eta guztiz ere, teorialariaren arreta ia monopolizatzen duena baldintzen molde zurrun baten barruko konkurrentzia da oraindik ere, batez ere ekoizpen-metodoen eta antolakuntza industrialeko formena, zeinek ez baitute aldakuntzarik. Baina errealtate kapitalistan (hartaz testuliburuek ematen duten irudiarekiko kontrajarririk) ez da konkurrentzia mota hori garrantzia duena, baizik salgai berrien, teknika berri baten, horniketa-iturri berrien, antolakuntza-mota berri baten (eskala handiko zuzendaritza-unitatea, adibidez) agerpena berekin daramana, hau da, kostuan edo kalitatean nagusitasun erabakigarria ematen duen konkurrentzia eta mozkin-marjinei eta dauden enpresen ekoizpenari eraso ez, baizik horien zimentarri eta horien izateari berari ere bai. Konkurrentzia mota hori prezioena baino hainbat eraginkorragoa da, bonbaketa bat ate bat bortxatzearen aldean den bezala, eta hainbat garrantzitsuagoa nola erlatiboki axoleza bihurtzen den konkurrentziak, zentzu arruntan, lastertasun handiagoz edo txikiagoz funtzionatzea; luzera ekoizpena hedatzen duen eta prezioak behera-

tzen dituen palanka ahaltsua edozein kasutan ere beste gai batez egina dago.

Esan beharrik ez dago orain buruan daukagun motako konkurrentziak ez duela aktualizatzen denean bakarrik obratzen, baita mehatxu oropresentea besterik ez denean ere, eta eraso baino lehen ere ezartzen du bere presio diziplinatzailea. Negozio-gizona konkurrentziako egoera batean kokatua sentitzen da, nahiz eta bakarrik egon sail batean edo nahiz eta bakarrik ez egon, halako posizio bat duenean, non ezein ikertzaile ofizialek ezingo baitu aurkitu konkurrentzia efektiborik bere sail bereko edo sail ahaideetako beste pertsonen artean, eta beraz, konkurrentziagatik sortu dituen kezak ameskeria hutsa direlako ondoriora iritsi beharko du. Kasu askotan, denetan ez bada ere, presio horrek konkurrentzia perfektuko sistema batek determinatuko lukeenaren oso antzeko portaera bat bortxatuko du luzera.

Teorialari askok hartzen dute aurkako ikuspuntua, zeina adibidearen bidez aurkezten baita ongien. Demagun txikizkako merkataria auzo kopuru jakin bat dagoela beren posizio erlatiboa hobetzen saiatzen direnak, ongi zerbitzatzen eta aldeko «giro» bat sortzen ahalegintzen direnak; baina ihes egiten diote prezio-konkurrentziari, metodoei dagokienez, tokiko tradizioari atxikiz, hau da, errutinazko egonkortze-koadro bati, hitz batean. Beste txikizkari batzuk bertakotu ahala suntsitu egiten da ia-oreka bat, baina beren bezeroei mesederik egiten ez dieten baldintza batzuetan. Haien dendetako bakoitzaren inguruan geratzen den espazio ekonomikoa estutzean jabeek ezin izango dute bizimodua irabazten jarraitu eta beren egoera konpotzen saiatuko dira prezioak akordio tazitu baten bidez jasoz. Horrek oraindik gehiago murriztuko ditu haien salmentak eta horrela, pixkanakako murrizte horren bidez, egoera bat sortuko dute, zeinean potentzia jakin baten gehikuntza goranzko prezioekin (beheranzkoen ordeztu) eta beheranzko salmentekin (goranzko salmenten ordeztu) batera joango baita.

Horrelako kasuak zinez gertatzen dira, eta zuzena eta baliagarria da analizatzea. Baina eskuarki aipatzen diren adibide praktikoei erakusten dutenez, muturreko kasuak dira jarduera kapitalistaren karakteristikoen den orotatik aldenduenak diren sektoreetan nagusiki bilatu behar direnak⁴. Gainera, iragankorrak dira izaeraz. Txikizkako merkataritzaren kasuan inporta den konkurrentzia ez da

tipo bereko denda gehigarrietatik, biltoki handietatik baizik, kateko merkataritzatik, postazko merkataritzatik eta supermerkatutik, zeinek lehenago edo geroago suntsitu behar baitituzte piramide horiek⁵. Alabaina, elementu esentzial hori kontuan hartzen ez duen eraikuntza batek begietatik galtzen du hartan tipikoki kapitalistena den guztia; eta zuzena izango balitz nola logikan hala errealitatean daniar printzerik gabeko *Hamlet* moduko zerbait izango litzateke.

VIII KAPITULUA PRAKTIKA MONOPOLISTAK

Orain arte esan dena, izatez, aski da irakurleak aurkituko dituen kasurik gehienak interpretatzeko baldintzatan jartzeko, segur aski, praktikan, eta lukro-ekonomiari zuzenduriko objektzio gehienak zeinen akastunak diren egiaztatzeko, zeinak zuzenean edo zeharka konkurrentzia perfektuaren gabezia oinarritzen baitira. Baina nola objektzio horietako batzuei buruzko gure argumentatzearen baliozko-tasuna lehen begi kolperako argia ez gertatzea litekeena den, merezi du zertxobait lantzea, puntu batzuk esplizituago bihurtzeko.

1. Ikusi berria dugu berrikuntzen inpaktuak –teknika berri batenak, adibidez– industria batek daukan egituraren gain, nola gertakari hala mehatxu gisa nabarmen murrizten duen epe luzerako efektua eta lortutako posizioak iraunaraztea helburutzat duten praktiken garrantzia eta haietatik datozen mozkinak ahalik eta gehien mozkinak igoaraztea ekoizpenaren murrizketaren bidez. Orain berrezagutu beharra daukagu mota honetako praktikak, eraginkorrak diren heinean, esanahi berri bat lortzen dutelako hurrengo gertakaria, suntsiera sortzailearen enbata atergabearen baitan, egoera geldikor batean edo hazkuntza geldo edo orekatuko egoera batean izango ez lukeen esanahia. Kasu batean eta bestean estrategia murriztaileak erosleen bizkar jarduten du, progresu orekatu baten kasuan, estrategia horrek erakusten duela erarik erraz eta eraginkorrena dela inbertsio gehigarrien finantzaketarako bitartekoak biltzeko. Baina suntsiera sortzailearen prozesuan praktika murriztaileek asko egin dezakete ontziaren norabideari eusteko eta aldi bateko zailtasunak gozatzeko. Hori, izatez, argudio oso ezaguna da, depresioaldietan beti

agertzen dena eta, mundu guztiak dakienez, oso popular bihurtu dena gobernuen eta aholkulari ekonomikoen artean, NRAk testigatzen duenez¹. Baina horretaz ere abusatu eta hain desegoki aplikatu denarren, non ekonomialari gehienek bihotzez mespretxatzen duten, abusu eta desegokiera horien berorien erantzule diren aditu horiek beroriek hutsik egin gabe² ez dute asmatzen beren justifikazio askoz orokorragoa ikusten.

Praktikoki, inbertsio orok bere baitan ditu, enpresarioaren jardueraren osagarri beharrezko gisa, babes-neurri jakin batzuk, aseguru edo arbitraia esaterako. Epe luzera inbertitzea, era lasterrean aldatzen diren baldintzatan (batez ere teknika berrien edo ekoizkin berrien presiopean uneoro aldatzen diren edo alda daitezkeen baldintzatan), lausoa ez ezik, higiduran dagoen eta gainera astinka higitzen den itu bati tiro egitea bezala da. Horregatik beharrezko da patenteak edo prozedurazko denboraldi bateko sekretura edo, kasu batzuetan, aldezturik segurtaturiko epe luzerako kontratuak bezalako babes-bitartekoak jotzea. Baina babes-bitarteko horiek, ekonomialari gehienek kudeaketa arrazional baten³ elementu normalizat hartzen dituztenak, kategoria zabalago bateko kasu bereziak bakarrik dira, bere baitan beste hainbeste hartzen dituenak, ekonomialari gehienek gaitzetsiak, nahiz eta funtsean ez izan oso desberdinak haiek onartzen dituztenen aldean.

Adibidez, gerra-arrisku bat aseguragarria bada, inork ez dio objektuorik jartzen enpresa batek aseguru horren kostua bere gain hartzeari haren ekoizkinen erosleengandik. Baina arrisku horrek, nahiz eta aseguratzeko bitartekorik ez egon, ez dio horregatik epe luzerako kostuen elementu bat izateari uzten, eta kasu horretan xede berera jotzen duen prezio-estrategia batek beharrezkoak ez diren murrizketak bere baitan dauzkan eta posible-soberakin bat sortzen duen inpresioa emango du. Era berean, patente bat lortzerik ez badago edo, lorturik, babes eraginkorrik emango ez balu, beste bitarteko batzuk erabili beharko dira inbertsioa babesteko, zeinen artean baitaude, hori analizatzea ahalgarri egingo duen prezio-politika, beste kasu batean arrazionala izango litzatekeena baino bizkorrago, edo inbertsio gehigarria ekoizpen-gaitasunaren soberakin bat lortzera bideratua, erasorako edo babeserako bakarrik erabiliko litzatekeena. Era berean, epe luzerako kontratuak aldezturik kontzertatzerik ez badago, enpresa

inbertitzaileak beste bitarteko batzuk asma litzake etorkizuneko bezeroak aseguratzeko.

Une jakin baten estrategia ekonomiko hori, *ex visu*, analizatzean, ikerketarako ekonomialariak edo gobernuaren komisionatuak prezio-politikako neurriak ikusten ditu abusuzkoak iruditzen zaizkionak edo ekoizpen-murrizketak ekoizteko aukera-galtzearen sinonimoak. Baina ez du ikusten, atergabeko enbata horren baldintzatan, mota horretako murrizketak intzidente soilak, sarritan saihetsezinak direnak, zeinek estimulatu areago egiten baitute balaztatu baino epe luze-rako hedapen-prozesua. Horretan ez dago automobilak balaztak izate-agatik, ez izateagatik baino bizkorrago ibiltzen direla esatean baino paradoxa handiagorik.

2. Tesi hori argitasun handiagoarekin agertzen da ekonomiako sektore batzuetan, une jakin batean, zeinek ekoizkin eta metodo berrien inpaktua hartzen baitute dagoen egitura industrialaren gainean. Estrategia industrialaren ideia bizi eta errealista bat lortzeko modurik hoberena datza, zalantzarik gabe, merkantzia edo prozedura berriak (aluminioaren industria esaterako) sarrarazten dituzten enpresa edo industrien portaera edo industria baten atal bat edo osotasuna berrantolatzen dutenena (adibidez, antzinako Standard Oil Company-rena) behatzean.

Ikusi dugunez, enpresa horiek erasokorrak dira izaeraz, eta konkurrentziaren arma egiazko eraginkortasunez maneiatzen dute. Berorien tartekatzeak kasurik arraroenetan bakarrik utz diezaioke ekoizpen totala kantitatez edo kalitatez hobetzeari, nola zuzenean metodo berriaz beraz –nahiz eta ez erabili inoiz errendimendu betean–, hala aurretik dauden enpresen gain ezartzen duen presioaz. Baina erasotzaile hauek aurkitzen dituzten baldintzak halakoak dira, non beren eraso- eta defentsa-xedeak lortzeko prezioez eta beren ekoizkinnen kalitateaz bestelako arma batzuk ere behar dituzten, zeinak ere etengabe maneiatuak izan behar baitira, halako eraz, non inpresioa emango duten beren ekoizpena murriztu eta prezioei goian eustera mugatzen direla.

Alde batetik, eskala oso handiko planak ezingo lirateke burutu kasu askotan konkurrentziak adorea galduko duela hasieratik jakingo ez balitz kapital handi baten eskakizunengatik edo esperientzia ezaga-

tik, edo badirela bitartekoak aurkariak desadoretu edo menderatzeko denbora eta espazioa irabaztearren hurrengo garapenatarako. Konkurrentziako *concernen* gaineko nagusigo finantzarioaren konkista bera ere, zeinek jarrera garaitezinak baitauzkate edozein bitarteko edo joko garbiaren sentimendu publikoaren kontra doazen pribilegioen segurtatzez –faborezko burdinbide-tarifak– bestelako argi baten azpian agertzen da haren eragina epe luzera ekoizpen totalaren gain eskusiboki kontsideratzen den heinean⁴; metodo horien aplikazioa beharrezkoa izan daiteke jabetza pribatuaren instituzioak progresuaren bidezidorrean ezartzen dituen eragozpenak gainditzeko. Gizarte sozialista batean ez lirateke gutxiago beharko denbora hori eta espazio hori, zeinak agintaritza zentralaren aginduz segurtatu beharko bailirateke.

Bestalde, enpresa bat ezinezkoa izango litzateke kasurik gehienetan hasieratik jakingo ez balu segur aski egoera bereziki faboragarriak sortuko liratekeela, zeinek prezioen, kalitatearen eta kantitatearen maneiuaren bidez ustiatzen badira nahikoa mozkin hornituko baitituzte bereziki desfaboragarriak diren egoerak gainditzeko, baldin eta horiek antzeko modu batean tratatzen badira. Berriz ere horrek estrategia bat behar du, zeina, epe laburrera kontsideraturik, sarritan murriztaile izaten baita. Estrategia horrek arrakasta duen kasurik gehienetan aski izaten da bere helburuak lortzeko. Kasu batzuetan, hala ere, hainbesteko arrakasta izaten du, non dagokion inbertsiora bultzatzeko beharrezkoak direnak baino mozkin askoz handiagoak ematen baititu. Kasu horiek izaten dira kapitala bide arakatugabeetara erakartzen duten beita. Haren existentziak azaltzen du, parte batez, zer puntutaraino den ahalgarri mundu kapitalistaren zati hain handi batek hutserako lan egitea; mende honetako bigarren hamarkadako prosperitate-aldiaren erdian Estatu Batuetako ia enpresen erdiek jadanik galerekin, mozkin nuluarekin lan egiten zuten, edo aurreikusiak izan balira inplikutzen zuten ahalegina eta gastua erakartzeko adinakoak izango ez ziratekeen mozkinekin.

Gure argumentazioa, hala ere, enpresa berriez, metodo berriez eta industria berriez haratago hedatzen da. Antzinako enpresak eta antzinatik finkaturiko industriak, zuzenean edo bestela erasotuak, atergabeko enbata baten barruan bizi dira beti. Suntsiera-prozesuan enpresa asko galtzeko egoerak sortzen dira, eta zeinak ekaitz parti-

kular bati aurre egiteko gai izango baitziren. Krisi edo depresio horiez aparte, tokiko egoerak sortzen dira, zeinetan datuen aldaketa bizkorrak, prozesu horrek ezaugarrizkoa duenak, hainbestearino desantolatzen du industria bat, non galera absurdoak eragin eta langabezia ekidingarria sorrarazten baitio. Hitz batean, ez du zentzurik zaharkiturik geratzen ari diren industriak azkengabeki iraunarazteak, noski; baina badu zentzua horien porrokatze burrunbatsua gertatzen ez uzteak, eta ihes bat, efektu depresibo metakorren biltoki izan daitekeena, aldentze ordenatu bihurtzen saiatzeak. Horrekiko komunztaduran, arinkeriak egin dituzten baina galdu ordeztu aurrera egiten jarraitzen duten enpresen kasuan, badago aurreratze ordenatuaz hitz egiteko arrazoirik⁵.

Hori guztia ez da, noski, zentzu komun arruntena besterik. Guztiarekin ere, setakeria hain tematuarekin ez zaio erreparatzen batzuetan haren egiaztatunaz zalantzak sortzen direla. Eta hortik dator, eta suntsiera sortzaileko prozesuaren barruan, errealtate guztiak, zeinen fenomenoak uzten baitituzte teorialariek ziklo ekonomiko buri buruzko liburu eta hitzaldietarako, badagoela autoantolakuntza industrialaren beste alderdi bat, teorialari horiek begiesten dutenaz landa. *Cartelenen* motako «murrizketa komertzial»ak, prezioen konkurrentziari buruzko hitzarmen tazitu besterik ez direnak, erremedio eraginkorrak izan daitezke depresio-baldintzatan. Halakoak diren bitartean, ekoizpen totalaren hedapen bat eragin dezakete iraunkorragoa ez ezik, baita hondamendiek eten ez dezaketen lasterketa hesigabe batean ari diren lehiakideek lor lezaketena baino handiagoa ere. Hondamendi horiek edozein eratarik gertatzen direla argumentatzerik ere ez dago. Badakigu zer gertatu den kasu historiko bakoitzean, baina guztiz ideia osatugabea dugu gerta zitekeenaz, prozesuaren abiadura zorabigarria kontuan izanik, euspen-larako horiek erabat falta izan balira.

Hala eta guztiz ere, garapen berri horien ondoren ere ez du besarkatzen gure argumentazioak estrategia murriztaile edo arautzailezko kasu guztiak, zeinetako askok bai baitute, zalantzarik gabe efektu kaltegarri hura ekoizpenaren epe luzerako garapenaren gain, zeina, diskriminaziorik gabe, haiei guztiei egozten baitzaie. Eta gure argudioak besarkatzen dituen kasuetan ere, efektu garbia zirkunstantzien baitan dago eta industriak kasu bakoitza arautzen duen moduan eta

graduan. Hain kontzebigarria da, noski, *cartel*-sistema oropresente batek progresu oro sabotea dezakeela nola kostu sozial eta pribatu gutxiagoekin konkurrentzia perfektuari egozten zaizkion emaitza guztiak gauza ditzakeela. Hona hemen zergatik gure argumentazioa erabil daitekeen erregulazio estatalaren aurka. Erakusten du ez dagoela inolako arrazoi orokorrik «trusten atalkatzea» zuribidetzen duenik diskriminaziorik edo murrizketa komertzialtzat kalifika daitezkeen praktika guztien jazarpenik gabe. Enpresaren mozkinen erregulazio arrazional bat erregulazio bindikatzaille bat ez bezala, agintaritzak publikoak egina, arazo oso delikatua da, zeinaren soluzioa ez baitago ezerein organismo estatali uzterik, batez ere enpresa handien kontrako heia gora bat altxatzen denean⁶. Baina gure argudioa, *teoria* nagusikoi eta hartatik ateratzen diren ondorioak ezeztatzeko ideiatua kapitalismo modernoa eta ekoizpen totalaren garapenaren artean, beste *teoria* batek bakarrik ordeztu dezake, hau da, gertakarien beste ikuspen batek eta horiek interpretatzeko beste printzipio batek. Gure xederako aski da horrekin. Gainerakoan, gertakariekin berek dute hitza.

3. Orain hitz banaka batzuk berriki hainbesteko arreta bereganatu duen prezio zurrunen gaiaz. Izatez, eztabaidatu dugun arazoaren aspektu berezi bat besterik ez da. Honela definituko dugu zurruntasuna: prezio bat zurruna da eskaintza eta eskariaren baldintzen modifikazioekiko sentikortasun gutxiagokoa bada konkurrentzia perfektua gailenduko balitz baino⁷.

Kuantitatiboki, prezioen zurruntasun-gradua, zentzu horretan, hautatuko dugun materialaren eta neurketa-metodoaren baitan dago eta auzi ekibokoa da, beraz. Baina material hori edo metodo hori zeinahi delarik, kontua da prezioak ez direla ematen duen bezain zurrunka ezta gutxiago ere. Arrazoi asko daude, zeinen bidez, izatez prezioen bariazioak baizik ez direnak, koadro estatistikoan islatu beharrik ez egoteko, edo, beste hitz batzuetan, zeinarenegatik itxurazko zurruntasun asko faltsuak baitira. Horien mota bat aipatuko dut bakarrik, gure analisiak nabarmenduriko gertakariekin estuki loturik dagoena.

Merkantzia berriak sarrarazteak prozesu kapitalistarako duen garrantzira arreta erakarri dut nik, oro har, eta haren konkurrentzia-mekanismoarako, bereziki. Alabaina, merkantzia berri batek egiazki jaitzaraz dezake dauden prezioen egitura eta beharrian jakin bat zerbitzu-unitateko askoz prezio apalagoetan ase (garraio-zerbitzua, esa-

terako), erregistraturiko prezioetako bakar bat aldatu beharrik izan gabe; malgutasuna hitzaren zentzu errealean zurruntasunari asoziatu-rik egon daiteke zentzu formal batean. Badira bese kasu batzuk, beste mota batekoak, zeinetan prezio-murrizpena baita publikoari marka berri bat aurkezteko zio bakarra, zaharra aurreko prezioaren etiketa-rekin uzten den bitartean, eta prezio-murrizketa hori ez dago estatisti-kean islatu beharrik. Gainera, kontsumo-ondasun berri gehienak –bizitza modernoko akzesorio guztiak bereziki– lehenik era experi-mental eta asegabe batean sartzen dira, zeina gabe inoiz ezingo baili-tuzkete konkistatu beren merkatu potentzialak. Ekoizkinen kalitatea-ren hobekuntza da, beraz, enpresen eta industria bakoitzaren bilakae-raren ezaugarri ia unibertsala. Hobekuntza horrek kostu gehigarriak inplikatzan dituen ala ez, hobekuntzan dagoen merkantzia baten uni-tateko prezio iraunkor bat inplikatzeari edo ez, litzaioke zurrundi deitu behar ikerketa aurrerago eraman gabe.

Jakina, nahikoa kasu daude benetako prezio-zurruntasun bate-nak, hau da: merkataritza-politikarengatik iraunkor mantentzen dire-nak edo aldatugabe aldatzea zaila gertatzen delako, adibidez, nego-ziazio neketsuen ondoren *cartel* batek finkatutako prezio bat. Gertakari horrek duen eragina prezatzeiko ekoizpenaren epe luzerako garapenean, ezer baino lehen, beharrezkoa da egiaztatzea zurruntasun hori epe laburreko fenomeno dela esentzialki. Denbora-epe batean ikertzeko hautatzen dugun garrantzia apurren bateko salgai fabrika-tuen taldea edo abar industrialak edozein delarik ere ia beti aurkitzen dugu, epe luzera, prezioek utzi egiten diotela progresu teknikora mol-datzeari –sarritan era ikusgarrian jaitsiz erreakzionatzen dute⁸–, moneta-jazoerek eta moneta-politikak moldatzea eragozten ez badie-te edo, kasu batzuetan, alokairu moten bariazio autonomoak, zeinak, jakina, zuzenketa egokien bidez kontuan izan behar baitira, ekoizki-nen kalitate-bariazioak kontuan izan behar diren bezalaxe⁹. Eta gure aurreko analisiak nahikoa den besteko eran erakusten du zergatik izan behar duen horrela bilakaera kapitalistako prozesuan.

Auzitako enpresa-estrategiak errealtatean nahi duena –eta, edozein kasutan, lor dezakeen gauza bakarra– prezioen urtesasoiko gorabehera zorizko eta ziklikoak eragozte da eta gorabehera horien azpian dauden baldintzen eraldakuntza sakonagoekiko erreakzio gisa bakarrik horiek higitzea. Nola eraldakuntza sakonagoak beranduago

agertzen diren, estrategia hori higidura geldoago batean agertzen da, urrats diskretoak eginez, prezio bat mantenduz ingurune erlatiboki iraunkorrak bistan agertu arte. Hizkera teknikoan estrategia horrek lerro hautsi funtzional batean zehar higitzeko asmoa du, zeina epe luzeko joera-lerroetara hurbiltzen baita. Eta emaitza hori lortzen da, kasurik gehienetan, benetako eta borondatezko prezio-zurruntasun baten bidez. Izatez, ekonomialari gehienek onartzen dute hori, tazituki bederen. Zeren zurruntasunari buruzko beren argudioetako batzuk fenomeno a epe luzerakoa izango balitz bakarrik izango liratekeen arren egiazkoak (adibidez, prezioen zurruntasunak kontsumitzaileak progresu teknikoaren fruiturik gabe uzten dituela baieztatzen duten argudio gehienak), praktikan zurruntasun ziklikoa neurtzen eta eztabaidatzen dute nagusiki eta prezio asko jaisten ez direlakoa bereziki edo, gutxienez, atzerapen eta depresioetan bizkor jaisten ez direlakoa. Egiazko arazoa dago, bada, determinatzean nola afekta dezakeen epe laburrerako¹⁰ zurruntasun horrek ekoizpen totalaren garapena epean zehar. Auzi horren barruan benetan garrantzizkoa den arazo bakarra haxe da: atzerapenean edo depresioan goian irauten duten prezioek eragina dute, zalantzarik gabe, zikloen aldi horien egoera ekonomikoan; eragin hori oso kaltegarria bada, hau da, malgutasun perfektu unitbertsal batek baino askoz gehiago gauzak okerragotuko balitu, zurruntasunaren ondorio hondamendizkoek ere afekta dezakete ekoizpena berreskuratze eta prosperitateko hurrengo aldietan zehar eta horrela murriz, era iraunkorrean, ekoizpen totalaren gehitze-tasa zurruntasun horien absentzian lortua zuen mailaren azpitik. Irizpide horren alde bi argudio eman izan dira.

Lehena ahalik eta gehien argitzeko demagun atzerapen batean prezioak murrizteari uko egiten duen industria batek prezioak murriztu izan balitu salduko zukeen ekoizkinaren kantitate bera saltzen jarraitzen duela berdin-berdin. Erosleek, beraz, diru gutxiago dute sakeletan industria zurruntasunaz baliatu izan den zenbatekoan. Ahal duten guztia gastatzen duten pertsonen kategoriakoak badira erosle horiek eta industriak edo haien mozkin likidua jasotzen duten haiek ez badute gastatzen lortutako diru-sarrera gehigarria, baizik eta inbertitu gabe gordetzen badute edo harekin bankuen maileguak ordaintzen badituzte, orduan gastu totala ekonomian, horretara, murriztu egin daiteke. Hori gertatzen bada, beste industria edo enpresa batzuk kal-

tetuak gerta daitezke, eta bitartean, horiek, beren aldetik, murrizketak egiten badituzte, efektu depresiboen metaketa batera irits gaitezke. Beste hitz batzuetan: zurruntasunak horrela eragina izan dezake errenta nazionalaren kantitate eta banaketan saldoak gutxituz edo saldo nagiak edo aurrezkiak gehituz, sasi-izendapen herritar hori erabili nahi badugu. Kasu hori kontzebigarria da. Baina irakurleari ez zaio zaila gertatuko konbentzitzea¹¹ horren garrantzi praktikoa, hala-korik baldin badu behintzat, oso txikia dela.

Bigarren argudioak prezioen zurruntasunak izan ditzakeen efektu perturbatzaileen aipamena egiten du, baldin eta, industria banakoko beste sektore batean, ekoizpenaren murrizketa gehiari batera gidatzen badu, hau da, depresio batean zehar edozein kasutan gertatu beharko lukeena baino murrizketa handiago batera. Efektu horiek batez ere langabeziaren gehitze intzidentalaren –enpleguaren egonezintasuna da, izatez, prezioen zurruntasunaren aurka sarrien aipatzen den akusazioa– eta ondoriozko gastu totalaren urritzearen bidez transmititzen direnez, argudio honek aurrekoaren aztarnei jarraitzen die. Bere garrantzia praktikoki nabarmen murrizten da, nahiz eta ekonomialariek alde handiak dituzten beren artean murrizketa horren hedadurari dagokionez kontuan harturik, kasurik gailenenetan, prezioen zurruntasuna hain zuzen ere eskaeraren sentiberatasun urriak eragina dela epe laburrerako prezioen bariazioekiko ahaltsunak badituen gune baten barruan. Bere etorkizunaz kezkatzen den jendea, depresioaldietan, ez da auto berri bat erostera makurturik sentitzen, nahiz eta haren prezioa ehuneko 25 murriztu, batez ere hori lortzea aise gera badaiteke eta murrizketak beste murrizketa batzuk espero izatera bultzatzen badu.

Guztiarekin ere, horrekiko inolako zerikusirik gabe, argudioa ez da erabakigarria, zeren gure suntsiera sortzaile-prozesua tratatzean onartezina den *ceteris paribus* klausula batez biziaturik baitago. Prezio malguagoak izanez gero *ceteris paribus* kantitate handiagoak sal litezkeelako gertakartik (gertakari hori existitzen den heinean), ez da segitzen efektiboki gehitu behar duenik auzitako merkantzien ekoizpenak edota ekoizpen totalak, eta, beraz, enplegua, prezioak eraisteko erresistentziak politika hori hartzen duten industrien jarrera indartzen duela suposa dezakegun heinean, nola beren errenta gehitzeko hala besterik gabe beren merkatuetan kaosa saihesteko –hau da,

politika hori erre bat baino zer bait gehiago bere aldetik izan litekeen heinean—, politika horrek erresistentzia-gune bihurtzeko bestela desleketze-gune izan zitezkeen sektoreak. Aurrerago ikusi ahal izan dugunez, ikuspegi orokorrago batetik, ekoizpen totala eta enplegu totala mantendu egin daitezke, politika horrek berekin daramatzan murrizketak gorabehera, prezioen egituran hondamendiak egiten depresioari utzi izan balitzako izango zuketena baino maila garaia batean¹². Beste hitz batzuetan: bilakaera kapitalistak sortutako baldintzetan prezioen malgutasun perfektu eta unibertsalak depresio-aldietan gehiago desegonkortu lezake sistema egonkortu ordez, zalantzarik gabe, egonkortuko litzatekeenez teoria orokorrak kontsideraturiko baldintzetan. Berritua berrezagutu egiten da arrisku hori hedadura handi batean, interes bitartegabeki afektaturikoei ekonomialariak begikotasuna dien kasu horietan, adibidez, lanekiaz eta nekazaritzaz arazoizten duenean; kasu horietan oso gogo onez onartzen du zurruntasuna dirudien hori balitekeela moldatze erregulartua besterik ez izatea.

Agian irakurlea zertxobait harri liteke ikustean zeinen gutxi geratzen den azken urteetan hainbesteko garrantzia eman zitzaion teoriarik. Prezioen zurruntasuna, batzuentzat, ordenazio kapitalistaren akats handiena izatera iritsi da eta depresioen oinarritzko ia faktore azaltzailea. Baina horretan ez dago ezer miresgaririk. Norbanakoak eta taldeak eskua ezartzen saiatzen dira aurkikuntzatzat kalifika daitekeen edozeri, baldin eta joera politiko nagusikoiei eusten laguntzen badie. Prezio-zurruntasunaren teoria, hain egia-zati txikia bere baitan duena, oso urrun dago abusu horren kasu txarrena izatetik.

4. Bada beste teoria bat eslogan batean mamitu dena, hau da, enpresa handiaren aroan dagoen inbertsioaren baloreari eustea —kapitalaren kontserbazioa— enpresarioaren jardueraren helburu nagusi bihurtzen dela eta badirudi azken puntua ezartzen diola kostuak murriztzeko hobekuntza orori. Hortik dator ordena kapitalista progresuarekin bateraezina izatea.

Progresuak, ikusi dugunez, kapitalaren baloreen suntsiera inplikatzeko merkatua berriaren edo ekoizpen-metodo berriaren konkurrentzia sartzen den estratuetan. Konkurrentzia perfektuan antzinako inbertsioek sakrifizio batera moldatu behar dute edo bertan behera utzi: baina konkurrentzia perfekturik ez dagoenean eta abar industrial oro *concern* handi batzuek menderaturik dagoenean, horiek

era batera baino gehiagotara borroka egin dezakete kapitalaren egitura mehatxatzen duen erasoaren kontra eta bere kapital-kontuetan galarak ekiditen saia daiteke, hau da, progresua bera borroka dezaketela eta nahi dutela.

Negozioen estrategia murriztaile baten aspektu berezi bat, besterik gabe, formulatzen duen heinean, teoria honek ez dauka ezer erantsi beharrik kapitulu honetan zirrimarraturiko argudioari. Nola estrategia honen mugei dagokienez, hala suntsiera sortzailearen prozesuko funtzioei dagokienez, aurrez esandakoa berriz esatea besterik ezingo genuke egin. Hori oraindik nabariagoa bihurtzen da baldin eta ohartzen badugu kapital-balioak kontserbatzea eta mozkinak kontserbatzea gauza bera dela. Teoria modernoak, izatez, «aktiboaren balio likido aktuala» (= kapital-balioak) kontzeptua erabiltzera jotzen du mozkin kontzeptuaren ordezt. Argi dago kapitalistak ez direla aktiboaren balioak eta mozkinak kontserbatzen bakarrik ahalegintzen, baizik eta horiek ahalik eta gehien gehitzen.

Baina kostuak murrizteko egin daitezkeen hobekuntzen aurkako sobotajearen puntuak iruzkina behar du bidenabar. Gogoeta txiki batek erakutsiko duenez, aski da asmakari tekniko bat –patente bat, adibidez–, eskusiban ustiatzen duen *concern* baten kasua kontsideratzea, zeinaren erabilpenak haren instalazioa eta ekipoaren ordeztzen zatiko edo erabatekoa inplikaturiko bailuke. Uko egingo al dio asmakari hori erabiltzeari, bere kapital-balioak kontserbatzearen, interes kapitalistek kateaturiko kudeaketa batek, kudeaketa sozialista batek, denen onerako erabil lezakeelarik eta erabiliko lukeelarik?

Berriz ere hemen gertakarien alorrean planteatu nahi da auzia. *Concern* moderno batek egiten duen lehen gauza da, horretarako bitartekoak dituela sentitzen duen bezain laster, ikerketa-departamentu bat ezartzea, zeinean kideetako bakoitzak bai baitaki hobekuntzak aurkitzen lortuko duen arrakastaren baitan daukala bere ogia. Agerian dago praktika horrek ez duela inolako higuinik iradokitzen progresu teknikoarekiko. Ezin ditzakegu kontrajar, ihardespen gisa, *concern* handiek lorturiko patenteak berehala erabili ez izana edo batere ez erabili izana ere. Horretarako oso arrazoi onak egon daitezke; adibidez, patentaturiko prozedura baliteke ona ez izatea edo, gutxienez, oinarri komertzial batean aplikagarria ez izatea. Alabaina, ez asma-tzaileak berak, ez ekonomialari ikertzaileak, ez gobernuko funtziona-

rioak ez dira epaile inpartzial gai honetan, eta horien irizpen eta txostenetatik erraz lor dezakegu ikuspegi aldrebestua¹³.

Baina auzi teoriko batez ari gara. Mundu guztia bat dator, nola kudeaketa pribatu batek, hala kudeaketa sozialista batek hobekuntzan sartuko dituztelakoan, baldin eta espero badute ekoizpen-metodo berriarekin ekoizkin-unitateko kostu totala ordura arte erabilitako metodoarekin baino txikiagoa izango dela. Baldintza hori betetzen ez bada, kudeaketa pribatuak ez duela hartuko kostuen metodo murriztailerik sostengatzen da, harik eta dauden instalazioa eta ekipoa erabat amortizaturik egon arte; aldiz, kudeaketa sozialista batek, gizartearen onetan, antzinako metodoa kostuen metodo murriztaile berriaz ordeztuko luke metodo hori bere eskura eduki bezain laster, hau da, kapital-balioez arduratu gabe. Hala ere, ez da horrela gertatzen¹⁴.

Kudeaketa pribatu bat, lukroaren eragingarriak bultzaturik badago, ezin liteke egon kudeaketa sozialista baino interesatuago erai-kin edo makineria jakin baten balioak mantentzean. Kudeaketa pribatu baten ahalegin guztiak aktibo totalaren balio likido aktuala ahalik eta gehien jasotzera jotzen du, zeina errendimendu likido aurreikusia-
ren balio deskontatuaren parekoa baita. Horrek esan nahi du ekoizpen-metodo berri bat hartuko duela beti, zeinak etorkizuneko errentaren korrante bat emango baitu dagokion etorkizuneko ordainketa-korronteko (biak balio aktualetan deskontaturik) unitateko, orduan erabiltzen den metodoak ematen duena baino handiagoa. Aurreko inbertsioaren balioak, amortizatua izan behar duen obligaziotan jalkitako zor bat kontrapartidatzat eduki edo ez, kudeaketa sozialista bat erabakiei oinarria ematen dien kalkuluetan sartzen den zentzuan eta neurrian izan ezik, ez du inolako zereginik. Antzinako makinak erabiltzeak etorkizuneko kostuak aurrezten dituen bitartean, metodo berriak berehala sartzearekin alderatuta, horien zerbitzu-baliotik geratzen dena, noski, elementu garrantzitsua da erabakirako, nola kudeaketa kapitalistarentzat hala kudeaketa sozialistarentzat; bestela bi kudeaketek alde batera utziko lukete iragana, eta aurreko inbertsioaren balioa kontserbatzeko edozein ahalegin gatazkan sartuko litzateke, nola lukroaren eragingarritik segitzen den arauarekin, hala kudeatzaile sozialista baten portaera moldatu behar zaizkienen arauekin.

Ez da egia, hala ere, ekipoa duten enpresa pribatuek, zeinaren balioa arriskutan baitago, beren mendean daukaten metodo berri

batengatik –ez badago ez dago arazorik ez eta zentsurarik ere– baka-
rrik hartuko dute metodo berria baldin eta unitateko kostu total txi-
kiagoa bada prozedura berria erabiliz antzinako metodoaren bidez lor-
tutako unitateko ekoizpen-kostua baino, edota antzinako inbertsioa
erabat amortizatua izan bada, *metodo berria agertu baino lehen era-
bakitako planaren arabera*. Zeren espero bada makina berriak, insta-
latu ondoren, gehiago biziko direla antzinako makinentzat lehen
aurreikusiriko aldia baino, haien balio gehigarria, data horrekiko des-
kontatua, kontuan hartu beharreko beste aktibo bat da. Halaber, ez da
egia, antzeko arrazoiengatik, kudeaketa sozialista batek, arrazionalki
portatzen bada, beti hartuko lukeela, eta berehalakoan gainera, edo-
zein metodo berri ekoizpen-unitateko kostu txikiagotan ekoiztea agin-
tzen duena edo gizarteari mesederen bat ekarriko diona.

Bada, ordea, beste elementu bat¹⁵ gai honetan portaerari sakon
eragiten diona eta ia beti kontu egin gabe uzten dena. Kapitalaren *ex
ante* kontserbazioa dei litekeena da, etorkizuneko hobekuntzaren zain.
Sarritan, kasurik gehienetan ez bada, abian dagoen *concern* batek ez
dio aurre egiten bakarrik ekoizpen-metodo jakin bat hartu ala ez
auziari, zeina hoberentzat eduki daitekeena eta era bitartegabe erabil-
garrian, espero baitaiteke nagusitasun hori kontserbatuko duela den-
bora batez. Makina mota berri bat ez da, orokorrean, hobekuntza-
kateko maila bat besterik eta bizkor zaharki daiteke. Horrelako kasu
batean ez litzateke arrazionala izango kateari jarraitzea, katemailaz
katemaila, aldioro jasan behar den kapital-galera kontuan izan gabe.
Hortik benetako auzia da enpresak zein katemailatan jokatu behar
duen jakitea. Erantzunak izan behar du konpromiso gisako bat, uste-
kizunen gainean neurri handi batean oinarritzen diren kontsiderazioen
artean. Baina, oro har, enpresak itxaron egin beharko du denbora
batez, kate hori nola portatzen den ikustearren. Eta kanpoan kokatu-
rik dagoen behatzailearentzat, portaera hori oso ongi irudi lekiok
hobekuntza itoartzeko ahalegin bat, *dauden* kapital-balioak kontser-
batzeko. Guztiarekin ere, burkiderik jasanakorrena asaldatu egingo
litzateke kudeatzaile sozialista bat teorialariaren aholkuari jarraituz,
instalazioa eta ekipoa urtero berritzeko bezain ergela izango balitz.

5. Kapitulua hau egin dudana bezala egin badut, monopolioa eta
jarduera monopolistaren ideiarekin hizkera arruntak asoziatzen dituen
gertakariak eta arazoak ia osoki tratatzen dituelako da. Orain arte ia

erabat uko egin diot esamolde horiek erabiltzeari, bereziki horiekin erlazionaturiko gai jakin batzuei buruzko iruzkin batzuk sail berezi baterako erreserbatzearren. Ez dugu esango ezer, hala ere, era batera edo bestera jadanik landu ez dugunik.

a) Esamoldetik beretik has gaitezen. Monopolistak saltzaile bakarra esan nahi du. Beraz, zentzu literalean, monopolista da aspektu guztietan (enbalaia, saltokia edo zerbitzu gehigarriak barne direla) besteei saltzen dutenaren berdin-berdina ez den zerbait saltzen duena, hori da jaki edo mertzeria-merkatari ororen kasua edota edozein kalesaltzailerena izoki-marka beraren saltzaileen ondoan lerrokatzen ez dena. Guztiarekin ere, hori ez da monopolistez hitz egitean ulertarazi nahi izaten duguna. Esamolde horretaz bakarrik izendatu nahi dugu saltzaile bakar haiek, zeinen merkatuak ez baitaude merkantzia beraren ekoizle potentzialak tartean sartzera irekita, ez eta antzeko merkantzien ekoizkin efektiboenenak ere, eta, oraindik teknikokiago hitz eginez, saltzaile bakar haiek beren ekintza propioarekiko erabat independentea den eskaera-kurben joko jakin baten presentzian kokatuak soilik, baita beren ekintzarekiko edozein erreakzioren aurrean ere gainerako enpresen aldetik. Cournot-Marshallen monopolioaren teoria tradizionala, ondorengo autoreek hain gehitua eta zuzendua, horrela definitzen badugu bakarrik mantentzen da, eta, nire iritzian, ez du inolako zentzurik monopoliotzat kalifikatzerik teoria hori aplikagarri ez zaion ezein merkatu motari.

Baina monopolioa horrela definitzen badugu orduan begi-bistako bihurtzen da epe luzearako monopolio-kasu garbiak oso bakan soilik gerta daitezkeela eta kontzeptuaren eskakizunetarako lehen hurbiltze toleragarriek oraindik bakanagoak izan behar dutelako konkurrentzia perfektuko kasuak baino ere. Eskaera-sistema jakin bat nahierara ustiatzeko ahalmenak –edo eskaera-sistema bat monopolistaren ekintzarekiko independenteki eta ekintza horrek sortzen dituen erreakzioekiko aldatzen dena– ia ezin du iraun, kapitalismo osoko baldintzatan, ekoizpen totaleko analisisian kontuan hartu behar izateko bezain aldi behar bezain luzean, ahalmen hori botere publikoak bermatuak egon ezik, adibidez, monopolio fiskalen kasuan bezala. Ez da erraza aurkitzen, ez eta imajinatzen ere, enpresa moderno handi bat *era horretara* babestua ez dagoena –alde batera utzirik aduanako zergaz edo inportazio-debekuz babesturik ote dagoen–, eta hala eta guztiz ere

botere hori baliarazten duena (tenporalki salbu). Burdinbide eta energia elektrikoaren *concernek* berek ere beren zerbitzuetarako eskaera bat sortu behar izan dute aurrena eta, sortu dutenean, konkurrentziaren aurka defendatu behar dute beren merkatua. Zerbitzu publikoen alorraz kanpo saltzaile bakarraren posizioa, oro har, konkista daiteke bakarrik –eta hamarkadatan eraduki–, monopolista bat bezala portatzen ez bada. Ondoren epe laburreko monopolioaz ere arituko gara.

Zergatik monopolioari buruzko diskisizio hori? Erantzuna ez da interesgabea eztabaida politikoaren psikologiaren aztertzailearentzat. Monopolio kontzeptua eztabaida politikoan beste edozein bezain era zehaztugabea erabiltzen da, noski. Jendeak gauza baten edo beste baten monopolioa daukan herrialde batez hitz egiten du¹⁶, nahiz eta auzitako industria konkurrentzia gogor baten mendean egon eta abar. Baina hori ez da guztia. Estatu Batuetako ekonomialariek, funtzionarioek, kazetariak eta politikariek zaletasun berezia duten hitz horrekin, izan ere esamolde iraingarri bihurtu baita, zeinak, segurtasun osoz, publikoaren etsaikortasuna eragiten baitu etiketa hori ezartzen zaion edozein interesen aurka. Mundu angloamerikarrean monopolioa beti oso gaitzetsia izan da eta esplotazio bizkarroiarekin parekatua, XVI eta XVII mendeetan, kantitate handitan monopolio-egoerak sortzea jarduera administratibo ingelesa zenetik, zeinek, alde batetik, aski ongi erantzuten baitzioten portaera monopolistako eredu teorikolari, eta, bestetik, erabat justifikatzen baitzuten Isabel handiari berari zirrara eragin zion suminaldia.

Ez dago nazio baten oroimena baino ezer eradukitzaileagorik. Gure aroak beste adibide garrantzitsuago batzuk ematen dizkigu, zenbait mende lehenago gertatuarekiko erreakzioarenak. Aipaturiko jarduerak hainbestearino sentiberatu du publiko anglosaxoia monopolioarekiko, non enpresen portaeran higuingarria zen guztia parte txarreko botere horri egozteko ohitura lortu baitu. Burges liberal tipikoarentzat, bereziki, monopolioa ia abusu guztien jatorri, izatez, mamu lehenetsi bihurtu zen. Adam Smith¹⁷, Tudor eta Stuarten ereduko monopolioetan nagusiki pentsatzen zuenak, goibel begiesten zituen suminezko duintasun batez. Sir Robert Peelek –zeinek, kontserbadore ia guztiek bezala, zenbaitetan demagogoen artsenalaz baliatzen bazekien– bere gobernu-karrerari amaiera eman zion pasarte sonatuan hitz egin zuen, eta bere gogaideei hainbesteko eskandalua sorrarazi zien

hartan, ogiaren eta gariaren monopolio batez, nahiz eta alearen ekoizpen ingelesa konkurrentzia perfektuko egoeran aurkitzen zen, aduanako babesa gorabehera¹⁸. Eta Estatu Batuetan monopolio esamoldea neurri handi batean aritzen den enpresaren ia sinonimo bihurtu da.

b) Monopolio sinple eta diskriminatzailearen teoriak irakasten du, muturreko kasuak alde batera utzita, monopolio-prezioa garaiagoa dela eta monopolio-ekoizpena murriztuagoa dela konkurrentziako prezioa eta ekoizpena baino. Hori egia da ekoizpenaren metodoa eta antolakuntza –baita gainerako baldintza guztiak ere– bi kasuetan berak badira. Errealitatean, hala ere, badaude monopolistaren eskura, lehia-kide multzo baten irismenean inondik ere ez dauden metodo garaiagoak edota monopolistarentzat bezain erraz ez daudenak; izan ere, badi-ra abantailak, zeinak ez baitira hertsiki atzemanekin egitatezko konkurrentzia mailan ari diren enpresentzat, monopolio mailan diharduten enpresentzat bakarrik baitaude aseguratua, edota, adibidez, ongien hornituriko burmuinak eraginaren esfera heda dezakeelako monopolizazioak eta okerrago hornituena murriztu¹⁹, edota monopolioak prestigio finantzario proportziogabeki handiagoa duelako. Alabaina, hori horrela den guztietan tesi hark egiazko izateari uzten dio. Beste hitz batzuetan: (konkurrentziaren aldeko argudio honek erabat huts egin dezake monopolioaren prezioak derrigor garaienak ez diren zentzuan, ez eta monopolioaren ekoizpena derrigor konkurrentzia-prezioak eta –ekoizpena baino behereagoa ekoizpen- eta antolakuntza-efizientziaren mailetan, zeinak baitaude konkurrentziaren hipotesiarekin bateragarria den enpresa-motaren irismenaren barruan).

Ezin daiteke inolako zalantza arrazoigarririk izan, gure aroko baldintzetan, nagusitasun hori dela izatez eskala handian diharduen enpresaren unitate tipikoa hobekien ezaugarritzen duen zertzelada, nahiz eta bolumen hutsa ez izan beharrezko, ez nahiko nagusitasun hori ezartzeko. Unitate horiek ez dira suntsiera sortzaileko prozesuan bakarrik sortzen eta eskema egonkorraz zeharo bestelako era batean funtzionatzen dute, baizik eta garrantzi erabakigarriko kasu askotan, ezarritako helburuak lortzeko beharrezko koadroa ematen dute. Ustiatzen duten hura bera sortzen dute neurri handi batean. Hortik dator ohiko ondorioa epe luzerako ekoizpenaren gainean duen eraginari buruz baliogabea izatea, nahiz eta unitate horiek benetako monopolioak eratu hitzaren zentzu teknikoan.

Motibazioa erabat immateriala da. Nahiz eta monopolio-prezioak ezartzeko abagunea izan helburu bakarra, metodo hobetuen prezioak, edo ekipo erraldoi batenak, oro har, monopolistaren baikortasunaren puntua desbideratzera joko luke konkurrentzia-kostuan oinarrituriko salmenta-preziorantz lehenik aurkezturiko prezioan edo bere gainetik ere bai, konkurrentzia-mekanismoaren funtzioa²⁰ –partzialki, erabat edo erabat baino gehiago– burutuz, nahiz eta murrizketak egin eta beti geratu ekoizpen-gaitasun soberakin bat. Zalantzarik gabe, ekoizpen-, antolakuntza-metodoak eta abar, ez badira hobetzen monopolizazioaz edo harekiko loturaz, ohiko *carteletan* gertatzen denez, monopolio-prezioari eta -ekoizpenari buruzko teorema klasikoa bere bide propiora itzultzen da²¹. Horixe bera gertatzen da beste ideia eza-gun batekin, hau da: monopolizazioak eragin lokarrarazlea duelakoa-rekin. Horretarako, gainera, ez da zaila adibideak aurkitzea. Baina horien gainean ez dago ezein teoria orokor eraikitzerik, zeren, fabrikazio-industrian bereziki, monopolio-posizio batek, oro har, ez baitu eratzen buruko bat haren gainean lo egiteko, izan ere lortzeko eta kontserbatzeko beharrezkoa baita zainketa eta energia garatzea. Enpresa modernoetan agertzen diren eragin lokarrarazleak geroago aipatuko diren beste kausa batzuentatik dira.

c) Epe laburrera benetako monopolio-posizioak edo monopoliotik hurbilekoak askoz sarriagoak dira. Ohioko herri bateko jaki-merkatari bat benetako monopolista izan daiteke, ordu batzuetan eta egun batzuetan ere bai, uholde batean. Edozein akaparatzaille zortedun izan daiteke une batez monopolioaren jabe. Garagardo-botilentzako paper-etiketatan espezializatutako enpresa bat aurki daiteke horrelako zirkunstantzian –baldin edozein lehiakide potentzialek ulertzen badu, alorrean sartuz gero, onak diruditen mozkinak berehalaxe ezabatuko liratekeela– non eskaera-kurbaren gune moderatu baina mugatu baten barruan nahierara higi daitekeen, gutxienez metalezko etiketak txikimila egin arte eskaera-kurba hori.

Ekoizpen-metodo berriek edo merkantzia berriek, batez ere azken horiek, ez dute ematen *per se* monopolioa, nahiz eta enpresa bakar batek erabiliak edo ekoiztuak izan. Metodo berriaren ekoizkinak konkurrentzian aritu behar du antzinako metodoen ekoizkinekin eta merkantzia berria sarrarazi egin behar da, hau da, bere eskaera-kurba ezarri egin behar da. Eskuarki, ez patenteak eta ez jarduera

monopolistak gailen daitezke horren aurka, aurkikuntza berriaren nagusitasun ikusgarritzko kasuetan salbu, batez ere akuratua izan badaiteke, oinetakoak egiteko makineria bezala, edo, merkantzia berrien kasuan, zeinentzat patentea iraungi baino lehen eskaera-kurba iraunkor bat ezarri baita.

Horrela, bada, egia da badagoela, edo egon daitekeela, benetak irabazi monopolistako elementu bat enpresa-mozkin horietan, zeinek eratzen baitituzte gizarte kapitalistak berritzaile zortedunari eskainitako sariak. Baina elementu horren garrantzi kuantitatiboak, bere izaera hegazkorrak eta sortzen den prozesuko bere funtzioak kategoria berezi batean sartzen dute. Saltzaile bakarraren egoerak *concern* batentzat duen balio nagusia, patentea edo estrategia monopolista segurtatzen diona, ez dago hainbeste tenporalki eskema monopolistaren arabera portatzeko aukeran nola epe luzerako egitarau bat burutzeko lortzen dituen merkatuaren eta gune librearen desantolakuntza tenporalaren aurka ematen dion babesean. Hemen, hala ere, argudio hau lehenago aurkezturiko analisiaren baitan jasoa geratzen da.

6. Atzera begiratzuz, kapitulu honetan kontsideraturiko gertakari eta argudio gehienek behiala konkurrentzia perfektua inguratu zuen distira lausotzera jotzen dutela egiaztatzen dugu, baita bere alternatibak ikuspegi aldekoago batean aurkeztera ere. Orain ikuspegi bikoitz horretatik gure tesia laburki formulatuko dugu berriz ere.

Teoria tradizionalak berak, ekonomia geldikorreko edo hazkuntza iraunkorreko bere esparru hobetsiaren barruan aurkitu du, Marshall eta Edgeworthen garaitik, gero eta salbuespen-kopuru handiago bat konkurrentzia perfektuari eta, intzidentalki, librekanbioari buruzko antzinako proposizioekiko, zeinek kordokatu baitute bere bertuteetan Ricardo eta Marshallen artean loratu zen belaunaldiak, edo, *grosso modo*, J.S. Millen belaunaldiak Ingalaterran eta Francesco Ferrararenak kontinentean jartzen zuen fede mugagabea. Bereziki tesi haiek, zeinen arabera konkurrentzia perfektuko sistema batek baliabide eskuragarrien aurrezkiaren ideala eratzen baitu, eta horien esleipenekoak errentaren banaketa jakin batekiko (tesi horrek tolerantzia handia dauka ekoizpenaren efizientziaren arazorako) ezin daitezke mantendu orain antzinako konfiantzarekin²².

Askoz larriagoa da obra berriagoek teoria dinamikoaren alorrean ireki duten pitzadura (Frisch, Tinbergen, Ross, Hicks eta beste batzuek). Analisi dinamikoa sekuentzia tenporalen analisisan datza. Magnitude ekonomiko jakin bat –adibidez, prezio bat– zergatik den une jakin batena aurkitzen dugun bezalakoa kontuan hartzen du beste magnitude ekonomiko batzuen aldibereko egoera, teoria estatikoak egiten duenez, baizik aurreko datetako egoera eta etorkizuneko bere balioei buruzko aurreikuspen erlatiboak. Alabaina, une desberdinetakoak diren magnitudeak elkarrekin lotuta ezartzen dituzten proposizioak lantzean aurkitzen dugun lehen gauza da²³, perturbazioen batek oreka hautsi duelarik, oreka berri bat ezartzearen ez dela hain segurua, ez eta hain bizkorra ere, ez eta konkurrentzia perfektuaren teoria zaharrak uste zuen bezain ekonomikoa ere, eta bada doiketarengatik borrorak berak, sistema oreka berrira hurbildu ordez, hartatik oraindik gehiago urruntzearen ahalatasuna. Hori gertatuko da kasurik gehienetan, perturbazioa txikia ez bada behintzat. Kasu askotan doiketan izandako atzerapen bat aski da emaitza hori eragiteko.

Adibide zaharren, sinpleen eta ezagunenaren bidez hori argitza mugatuko naiz hemen. Demagun proiektaturiko eskaera eta eskaintza orekan daudela konkurrentzia perfektuko gari-merkatu batean, baina eguraldi txarrak murriztu egiten duen uzta nekazariak eskaintzeko asmoa zuten bolumenaren azpitik dagoela. Baldin eta gariaren prezioa igotzen bada horren ondorioz eta nekazariak ekoizten badute horregatik ekoiztea sarituko lukeen gari-kantitatea, prezio berri hori oreka-prezioa izango balitz, orduan hurrengo urtean prezioen hondoratzea gertatuko litzateke gari-merkatuan. Baldin eta hori dela medio, nekazariak ekoizpena lehen urtekoa baino oraindik prezio garaiago batera murrizten badute, emaitza izan daiteke bigarren urtean obraturiko baino oraindik ekoizpenaren hedapen handiago batera bultzatzea. Eta horrela behin eta berriz modu amaigabean (prozesua logika hutsaren arabera portatzen den heinean). Irakurleak aise ulertuko du, hipotesi inplikatuak begiratu bat emate hutsaz, ez zaiola heldur handirik izan behar prezioen igoerak ekoizpenaren gehikuntzekin azken judizioa arte txandakatuz jarraitzeari. Baina fenomeno hori bere proportzio doietara murriztuz ere, aski da konkurrentzia perfektuaren mekanismoaren zenbait ahulezia begi-bistako agerian jartzeko. Ahulezia horiek hauteman bezain laster mekanismo horren inplikazio

praktikoeak sorrarazten zuten baikortasunaren parte handi bat, bolizko atetik doa.

Baina gure ikuspegitik horretatik harago joan behar dugu²⁴. Argi jartzen saiatzen bagara nola funtzionatzen duen konkurrentzia perfektuak edo nola funtzionatuko lukeen suntsiera sortzaile-prozesuaren barruan, oraindik emaitza desadoregarriagora iritsiko ginateke. Horrek ez gaitu harritu behar baldin kontsideratzen badugu egitatezko datu guztiak, prozesu horretan esentzialak direnak falta direla bizitza ekonomikoaren eskema orokorrean, zeinak sorrarazi baititu konkurrentzia perfektuari buruzko proposizio tradizionalak. Errepikatzeko arriskuarekin bada ere, berriz lotuko natzaio puntu horri.

Konkurrentzia perfektuak industria guztietarako sarbide librea inplikutzen du. Erabat egiazkoa da, teoria orokor horren koadroaren barruan, industria guztietarako sarbide librea baldintza dela ekoizpen-indarren banaketa hoberenerako eta, beraz, ekoizpen handiena lortzeko. Baldin eta gure mundu ekonomikoa balego industria finkatuen kopuru jakin batean, zeinek ohikoak ez diren merkantziak ekoiztuko bailituzkete metodo tradizionalen eta funtsean aldaezinen bidez, eta ezer gertatuko ez balitz, gizaki gehigarriak eta aurrezki gehigarriak konbinatzeaz salbu jadanik badauden motako enpresa berriak ezartze-arren, faktore horiek guztiak sartu nahi duten industriara iristeko eragozpenek galera bat izango litzateke komunitatearentzat. Baina jarduera-esfera *berri* batean sartzeko askatasun beteak erabat ezinezko bihur dezake inor bertan sartzea. Ekoizpen-metodo berriak eta merkantzia berriak sartzea nekez kontzebi daiteke hasieratik existitzen bada konkurrentzia perfektu eta perfektuki bizkorra. Eta horrek esan nahi du progresu ekonomiko deitzen dugun ia dena bateragarria dela berarekiko. Izatez konkurrentzia perfektua eseki egiten da eta eseki egin da berrikuntzaren bat sartu den bakoitzean –bai automatikoki edo xede horretarako hartutako neurrien indarrez–, nahiz eta gainerako guztian baldintzek konkurrentzia perfektukoak izaten jarraitu.

Antzeko era batean prezioen zurruntasunaren aurkako objektiboa perfektuki egokitzen da sistema tradizionalaren barruan. Zurruntasuna moldaerarekiko erresistentzia mota bat da, konkurrentzia bizkor eta perfektua baztertzen duena. Eta teoria tradizionalak kontsideratu dituen moldaeren eta baldintzen izaera den bezalakoa izanik, halaber erabat egiazkoa da erresistentzia hori galera eta ekoiz-

pen-murritzeta bihurtzen dela. Baina jadanik ikusia dugu suntsiera sortzaileko prozesuaren leherketa eta gorebeheretan alderantzizkoa egia izan litekeela: malgutasun perfektu eta aldiberekoak oinarririk gabeko hondamendiak ere sorraraz ditzake.

Hori, jakina, teoria dinamiko orokorrak ere agerian jar dezake, zeinak, lehenago aditzera eman denez, desoreka areagotzen duten moldaera-saio batzuk badaudela erakusten baitu.

Halaber arrazoia du teoria tradizionalak baieztatzean, bere hipotesi propiotik abiatuz, beharrezko zenbatekoaz gaineko mozkinek kasu banako bakoitzean, ekoizpen-bideen kantitate orekatua erakartzeko, enpresarioaren gaitasuna kontuan harturik, galera sozial likidoen adierazgarri eta kausa direla eta mozkin horiei eustea helburu duen estrategia ekonomikoak eragin desfavoragarria duela ekoizpen totalaren gehikuntzaren gain. Konkurrentzia perfektuak berehalaxe ekidin edo ezabatuko luke mozkin-gehiegi hori eta ez luke utziko estrategia hori destolestean. Baina bilakaera kapitalistaren prozesuan mozkin horiek funtzio organiko berriak burutzen dituztenez gero –ez dago errepikatu beharrik hemen zeintzuk diren–, gertakari hori ez dago konkurrentzia perfektuaren ereduaren hartzekoan baldintzagabeki kargatzen jarraitzerik, gutxienez ekoizpen totalaren gehikuntzaren mota sekularra kontuan hartzen den bitartean.

Azkenik, erakuts daiteke, errealtate kapitalistaren zertzelada karakteristikoak baztertzearen baliokide diren supostu horietatik berorietatik abiaturik, konkurrentzia perfektuko ekonomia bat immune samar dagoela zarrastelkeriaren aurka eta batez ere haren kontrapartidarekin hain erraz asoziatzen ditugun zarrastelkeria mota horien aurka. Baina horrek ez digu ezer esaten zarrastelkerien arazoak hartzen duen aspektuaz suntsiera sortzailearen prozesuak determinaturiko baldintzetan.

Alde batetik fenomeno asko, baldintza horiekin lotu gabe, zarrastelkeria soil gisa agertuko liratekeenak, ezin daitezke halakotzat kalifika beraiekin behar bezalako erlazioan jartzen diren unetik. Adibidez, gehiegizko ekoizpen-ahalmenaren existentzia, bai «eskaerari aurrea hartuz eraikitze» praktikari edo bai eskaeraren gailur ziklikoetara ahalmena moldatzeko praktikari zor diona, nabarmen murriztuko da konkurrentzia perfektuko eraentza batean. Baina faktore *guz-*

tiak kontuan hartzen direnean jadanik ez da zuzena esatea konkurrentzia perfektua garaile irteten dela koadro horretan, zeren nahiz eta *concern* batek, prezioak hartu behar izan eta haiek ezartzerik ez izan, errealitatean, indarreango prezioek estalduriko kostu marjinaletan ekoizteko bere gaitasun guztia erabiliko luke, ez da segitzen horretatik enpresa handia sortu duen gaitasun kuantitatibo eta kualitatiboa eduki beharko lukeenik eta hori sortzeko gai izan zela hain zuzen ere hura «estrategikoki» erabiltzeko egoeran zegoelako. Gisa horretako gehiegizko ekoizpen-ahalmen bat izan daiteke –izan ere, batzuetan bada eta beste batzuetan ez– ekonomia sozialista baten nagusitasun-uzia oinarritzeko arrazoiak. Baina ez dago kualifikaziorik gabe aipatzerik konkurrentzia perfektuko espeziearen ekonomia kapitalistaren nagusitasuna baieztatzeko «monopoloide» espeziekoarekin alderatuta.

Bestalde, konkurrentzia perfektuko sistemak, bilakaera kapitalistako baldintzetan funtzionatzean, akats bereziak erakusten ditu. Konkurrentzia perfektuarekin bateragarria den espezieko enpresak, kasu askotan, barne-efizientzia erdipurdikoa du, teknikaren alorrean batik bat, eta, hori horrela izanik, abagune ekonomikoak desaprobatutako ditu. Baliteke, bere ekoizpen-metodoak hobetzeko ahalegine-tan, kapitala xahutzea, egoera desfaboragarriagoan dagoelako destolesteko eta ahal-tasun berriak preziazteko. Eta, lehenago ikusi dugun- ez, konkurrentzia perfektuko egoeran dagoen industria bat askoz errazagoa da porrokatua izateko enpresa handia baino –eta depresioa- ren baziloak barreiatzeko– progresuaren edo kanpoko perturbazioen in-paktupean. Azken finean, amerikar nekazaritza, ikatz-meatze inge-lesak eta ehungintza-industria ingelesa askoz kostu handiagokoak dira kontsumitzaileentzat eta askoz era kaltegarriagoan afektatzen dute ekoizpen *totala* dozena bat burmuin argik horietako bakoitza gidatua balego baino.

Horrela, bada, ez da aski sostengatzea, konkurrentzia perfektua ezinezkoa delako baldintza industrial modernoetan –edo beti ezinez-koa izan delako–, eskala handiko enpresa edo domeinu ekonomikoko unitate handia beharrezko gaitz lege-z onartu behar dela, progresu eko-nomikotik bereizte-zintzat, zeinak jaregiten baitute sabotajetik bere ekoizpen-aparatuaren baitako indarretatik. Berrezagutu behar izan duguna da enpresa handia progresu horren motor ahaltsuena izatera iritsi dela eta batez ere ekoizpen totalaren epe luzerako hedapenarena,

eta hori ez bakarrik estrategia hori gorabehera, baizik neurri kontsideragarri batean, hain zuzen ere horren ondorio gisa, zeinak aurkezten baitu aspektu hain murriztaile bat kasu espezifiko batean eta une jakin batean behatzen denean. Horri dagokionez konkurrentzia perfektua ez da soilik ezinezkoa, behereagoa baizik, eta inolako titulurik gabea da efizientzia-eredu ideal gisa aurkeztua izateko. Beraz, hutsegitea da industriaren estatu-erregulazioaren teoria konkurrentzia perfektuko egoera batean dagokion industriak funtzionatuko lukeen bezala funtzionatzera enpresa handiak behartu beharko litiratekeen printzipioaren gainean oinarritzea. Eta sozialistek beren kritikak ekonomia sozialista baten bertuteetan oinarritu beharko lituzkete konkurrentziako ereduarenetan baino areago.

IX KAPITULUA MENIA DENBORALDIA

Irakurleak erabakiko du noraino lortu duen bere helburua aurreko analisiak. Ekonomia behaketa- eta interpretazio-zientzia besterik ez da, eta horrek esan nahi du, hemen tratatzen diren bezalako arazoetan, iritzi-desberdintasunak murriztu egin daitezkeela baina ez erabat ezabatu. Arrazoi berarengatik gure lehen arazoaren ebazpenak beste arazo baten atalasea gidatzea besterik ez du egiten, zeina inondik ere ezingo bailitzateke planteatu zientzia esperimental batean.

Lehen arazoa legoke aurkitzean badagoen ala ez «erlazio logikorik», nik deitu dudanez (72 orrialdean), kapitalismoaren zertzelada estrukturalen, «eredu» analitiko desberdinek deskribatzen dituztenez, eta errendimendu ekonomikoaren artean, ekoizpen totalaren indizeak errepresentatzen duenez kapitalismo garbiaren edo trabetatik libre samarra denaren aroan. Auzi horri emandako nire erantzun baiezkoa ekonomialari gehienek onarturiko norabidean zihoan analisi batean oinarriturik zegoen, gutxienez domeinu monopolistarantzko joera modernoa eskuarki deitzen dena eszenan sartu zen unera arte. Harrezkero, nire analisia desbideratu egiten zen kontzepzio arruntetatik ahalegina egin baitut erakusteko ia mundu guztiak kapitalismoari aitortzen dizkion konkurrentzia perfektuaren bertuteak (berdin dio

eraikuntza teorikoa izan edo errealtate historikoa aro batean edo bestean), halaber, aitortu egin behar zaizkiola, neurri handiagoan gainera, enpresa handiko kapitalismoari ere. Hala eta guztiz ere, nola ezin ditugun ezarri indar bultzatzailea eta makina saio-laborategi batean baldintza arretaz zelatatutan funtzionarazteko, ez dago probatzeko erarik, zalantzarik sortu gabe, emaitza hori hain zuzen sortzeko bere gaitasuna, hau da: ekoizpenaren garapen behatua. Esan dezakegun gauza bakarra da errendimendua zirrargarria izan dela eta ordenazio kapitalistak faboratu egin duela haren burutzapena, eta hona hemen gure ondorioan ez gelditzeko dugun arrazoia, aitzitik beste arazo bati egin behar diogu aurre.

A priori oraindik azalgarria litzateke errendimendu behatua sistema instituzional orotan agerturiko salbuespeneko zirkunstantziengatik. Ahaltasun hori aztertzeko era bakarra dago auzitako garaia historia ekonomiko eta politikoa aztertzea eta aurki ditzakegun salbuespeneko zirkunstantzia haien efektua eztabaidatzea. Aparteko zirkunstantzien papererako hautagai haiek guztiak, kapitalismoaren prozesu ekonomikoak bere baitan ez dituen eta ekonomialariek edo historialariek aldarrikatuak izan direnak kontsideratuz ekingo diogu arazoari. Horietako bost hautagai daude.

Lehena ekintza estatala da, mundu ekonomikoaz kanpoko faktoretzat kontsidera daitekeena argumentazio honen xedeetarako, nahiz eta ni erabat bat natorren Marxekin politika eta administrazioa faktore independenteak ez direlakoan, baizik analizatzen ari garen prozesuko elementuak. 1870etik 1914 arte gutxi gorabehera besarkatzen duen aldiak kasu ia ideala eskaintzen du. Oso zaila izango litzateke aurkitzea beste bat nola estimuluez hala mugez hain gabea, zeinak prozesu sozialaren sektore politikotik etor baitaitezke. Enpresarioen eta industriaren eta oro har merkataritzaren jardueraren trabak libratzea ordurako zabalkiro buruturik zegoen. Traba eta karga berri eta desberdinak ezartzen zitzaizkien –legedi soziala eta abar–, baina inork ez du baieztatuko garrantzi handiagoko faktoreak izango zirenik 1914az aurreko egoera ekonomikoan. Izan zen gerrarik, baina horietako ezein ez zen izan ekonomikoki nahiko garrantzikoa norabide batean edo bestean efektu erabakigarriak sorrarazteko. Frantses-alemaniar gerrak, alemaniar inperioa sortzera eramanez gerrate frantses-alemaniarrek zalantzak sor zitzakeen; baina jazoera ekonomikoki

muntaduna, azken finean, *Zollvereina* sortzea izan zen. Armamentu-gasturik izan zen; baina 1914an amaitzen den hamarkadaren zirkunstantzietan, dimentsio benetan garrantzitsuak lortu zituztenean, eragozpen areago izan ziren pizgarri baino.

Bigarren hautagaia urrea da. Zorte handia da 1890etik hasita piztu zen errearen bolada berriaren *modus operandi*aren inguruko arazoen sasi-artean sartu beharrik ez izatea. Baina nola, aldi horren lehen hogeitaz urteetan, urrea, izatez, urria izan zen, eta ekoizpen totalaren gehikuntza-tasa gero izan zena baino txikiagoa izan ezenez gero, errearen ekoizpena ezina gertatu da garrantzi handiagoko faktorea izatea kapitalismoaren ekoizpen-errendimenduan, zeinahi izan delarik ere prosperitateetan eta depresioetan izan duen eragina. Horixe bera esan daiteke moneta-politikaz, zeina garai hartan ez baitzen izaera erasokorrekoa izan, moldakorrekoa baizik.

Hirugarrenez, biztanleriaren gehikuntza aipatuko dugu, zeina progresu ekonomikoaren kausa izan edo ondorio izan, egoera ekonomikoaren faktore determinagarrietako bat izan baitzen. Progresu ekonomikoaren ondorio bat izan zela eskusiboki baieztatzeko prest ez bagaude behintzat, eta ekoizpenaren bariazio orok berekin izan behar duela beti bariazio korrelatibo bat biztanlerian onartzeko eta alderantzizko erlazioa onarteari uko egiten ez badiogu, zeina absurdoa baita, noski, faktore hori hautagai aukeragarri gisa katalogatu behar da. Oraingoz aski izango da ohar labur bat auzia argitzeko.

Pertsona-kopuru handiago batek, era lukratiboan erabilita, oro har, kopuru txikiago batek baino gehiago ekoiztuko du, edozein delarik ere antolakuntza soziala. Hortik, onartzerik balego –onar daitekeenez, noski–, sistema kapitalistak lorturiko emaitzekiko independenteki gertatu dela garai horretan biztanleriaren gehikuntza-tasa efektiboaren parteren bat, edozein sistemaren pean gertatuko zatekeen zentzuan, neurri horretan, kanpoko faktore gisa katalogatu behar da biztanleria. Neurri berean ekoizpen totalean behaturiko gehikuntzak ez du zuzen adierazten errendimendu kapitalista, baizik ideia bapikatu bat ematen du hartaz.

Zirkunstantzia berdinetan, hala ere, lukratiboki erabilitako pertsonen kopurua zenbat eta handiagoa izan, orokorrean, gutxiago ekoiztuko da enplegatu- edo biztanleria-buru bakoitzeko kopuru nola-

bait txikiago batek ekoiztuko lukeenaren aldean, zeinahi delarik ere antolakuntza soziala. Hori dator zenbat eta langileen kopurua handiagoa izan, langile bakoitzaren eskura ezarritako gainerako faktoreen kantitatea txikiagoa izatetik¹. Ondorioz, prestazio kapitalista neurtzeko biztanleria-buruko ekoizpena hautatzen bada, orduan behaturiko gehikuntzak prestazio efektiboaren azpibalioespenera gida dezake, zeren prestazio horren parte batek balio izan baitu *per capita* ekoizpenaren gutxitzea konpentsatzeko, zeina prestazio horren absentsian gertatuko baitzatekeen. Aurrerago arazo horren beste aspektu batzuk kontsideratuko dira.

Laugarren eta bosgarren hautagaiek aldeketasun handiagoa aurkitzen dute ekonomialarien artean, baina alde batera utz daitezke iraganeko prestazioaz ari garen bitartean. Horietako bat herrialde berriak aurkitzea da. Ekonomikoki hitz eginez, garai horretan esfera amerikar-europarrean sartu zen lur-eremu zabala; eremu horrek isurritako erosgai elikagarri eta lehengai nekazaritzako eta beste espezie batekoen masa eskerga; oinarri faboragarri bat aurkitu zuten toki guztietan eraiki ziren hiriak eta industriak, ez al zen hori guztia faktore guztiz salbuespenekoa ekoizpenaren garapenean, izatez faktore bakarra? Eta ez al zen hori aberastasunaren gehitze handi bat sortu zuen mesedea, nolanahikoa zelarik ere hori gertatzen zen sistema ekonomikoa? Bada pentsamendu sozialistako eskola bat irizpide hori hartzen duena eta horrela azaltzen duena, izan ere, zergatik utzi dioten betetzeari miseriaren gehitze jarraituari buruzko Marxen iragarpenek. Lurralde birjinen esplotazioak ahalbidetu du, haien arabera, lanaren esplotazioa areagotzen ez uztea; faktore horrengatik proletarioak aukera izan du menia-denboraldi (*closed season*) batez gozatzeko.

Herrialde berriak izateak eskaintzen zuen abaguneen garrantziari dagokionez ez dago inolako zalantzarik, eta begi-bistakoa da, gainera, errepikaezinak zirela. Baina «abagune objektiboak» –hau da, ordenazio sozial oroz independenteki existitzen diren abaguneak– progresuaren aurre-eskakizunak dira eta horietako bakoitza behin bakarrik gertatzen da Historian. Ingalaterran ikatza eta burdina izatea edo Estatu Batuetan eta beste herrialde batzuetan petrolioa ez da garrantzi gutxiagokoa. Eta eskaintzen duen abagunea ez da bakartasun gutxiagokoa. Prozesu kapitalista bere orokortasunean, beste edo-

zein prozesu ekonomiko bilakakor gisa, ez dago abagune horiek ustiatzean negozio-gizonaren ortzemugan sartzen diren heinean, eta ez du zentzurik hedapen geografikoa bakartzen saiatzeak kanpoko faktoretzat kontsideratzeko. Hainbat arrazoi gutxiago dago hori egiteko, nola herrialde berri horiek irekitzea pausoz pauso egin baitzen, merkataritza-enpresen bitartez, zeinek bitarteko guztiak ematen baitzituzten horretarako (burdinbidegintza eta energia-instalaziogintza, itsas garraioak, nekazaritza-makineria, eta abar). Horrela, bada, prozesu hori prestazio kapitalistaren parte esentziala baitzen eta gainerakoen parean baitzegoen. Horregatik haien emaitzak egoki sartzen dira gure ehuneko bian. Beste behin *Manifestu Komunista* aipa deza-kegu horren alde.

Azken hautagaia progresu teknikoa da. Behaturiko prestazioa ez al zen ekoizpen-teknika iraultzatu zuen asmakari-uholdearengatik negozio-gizonen mozkin-ehizagatik baino areago? Erantzuna ezezkoa da. Ehiztari horien jardueraren atal esentziala izan da hain zuzen ere berrikuntza tekniko haien praktikan jartzea. Eta jarduera asmatzaile bera, beste une batean astiroago azalduko dugunez, prozesu kapitalistaren funtzio bat da, zeinari egotzi behar baitzaizkio asmakariak sorrazten dituzten gogamen-azturak. Beraz, erabat faltsua da –eta erabat ez-marxiarra ere bai–, hau da, ekonomialari askok diotenez, enpresa kapitalista eta progresu teknikoa ekoizpenaren garapen behatuaren bi faktore desberdin izan direlako; esentzialki gauza bat eta bera izan dira, edo, honetara ere adieraz dezakegunez, lehena bigarrenaren indar bultzatzailea izan da.

Nola herrialde berriak hala progresu teknikoa perturbatzaile bihur daitezke haien estrapolazioa egin bezain laster. Kapitalismoaren prestazioak badira ere kontzebigarria da prestazio horiek errepikaezinak izatea. Eta orain arrazoiketa defendagarria egin badugu ere, biztanleriaren buruko ekoizpenaren portaera behatua probatzeko, kapitalismoaren helduaro betean, ez dela akzidente hutsa izan, baizik eta prestazio kapitalistaren gutxi gorabeherako neurritzat har daitekeela, oraindik beste auzi batekin kontrajarririk aurkitzen gara, hau da: auzia da zer neurritaraino den bidezkoa suposatutzat ematea makina kapitalistak funtzionatu egin behar duela –edo baimenduko balitzaio funtzionatuko lukeela– etorkizun hurbilean –adibidez, beste berrogei urtez– iraganean funtzionatu zuen arrakasta berarekin.

X KAPITULUA INBERTITZEKO AUKERA DESAGERTZEA

Arazo honen izaera argitasun osoz nabarmentzen da gaur eguneko eztabaidaren atze-oihalean. Gaur eguneko ekonomialarien belaunaldia ez da mundu-mailako eta ez ohiko gogortasun eta iraupe-neko depresio baten lekuko izan soilik, baita berreskuratze ezbaiti eta asegaitezko ondorengo aldi batena ere. Jadanik azaldu dut fenomeno horien¹ nire interpretazio propioa eta zergatik ez duten derrigor adierazten bilakaera kapitalistaren mendez mendeko joeraren haustura. Baina normala da askok, nire kide ekonomialari gehienek, bestelako iritzia izatea. Izatez, beren aurreko batzuek 1873 eta 1896 bitartean zuten inpresio berbera dute –nahiz eta orduan iritzi hori nagusiki Europara mugaturik zegoen–, prozesu kapitalista oinarritzko eraldakuntza bat jasan beharrean dagoela. Irizpide horren arabera, ez gara egon depresio bati eta berreskuratze txar bati, neurri antikapitalistek areagotu bati, begira bakarrik, baizik eta bitalitate-galtze iraunkor baten sintomei, zeinak espero izatekoa den jarraitu egingo duela, eta zeina gai nagusia baita sinfonia kapitalistan oraindik exekutatzekeo geratzen diren mugimenduetan; hortik dator makina kapitalistaren funtzionamendutik eta iraganeko haren jardueratik etorkizunerako ondorioak ezin atera ahal izatea.

Irizpide horri askok eusten diote, zeinentzat desira ez baita pentsamenduaren aita. Baina ulertu egin behar dugu zergatik sozialistak (horientzat halaxe baita) oldartu diren lastertasun bereziz espero izan gabeko fruitu horretara, horietako batzuk halako punturaino, non erabat aldatu duten sail horretara beren argumentazio antikapitalistaren oinarria. Horrela egitean tradizio marxiarreantze beste behin erretiratzeko moduan egotearen gehigarritzko abantaila lortzen zuten, zeinatik ekonomialari sozialista gaituak gero eta bultzatuagoak sentitu baitziren aldentzera, lehenago ohartarazi dudanez. Izan ere, Marxek jadanik iragarrita zeukan gauzen halako egoera bat lehen kapituluaz azaltzen zen zentzuan: haren arabera, kapitalismoa, porrokatu baino lehen, gorakada ahulez edo jazoera kasual faboragarriez denboraldi batez etendako krisi iraunkorreko etapa batean sartuko zen. Eta hori

ez da dena. Arazoa planteatzeko era bat ikuspegi marxiar batetik datza kapitalaren metaketaren eta kontzentrazioaren efektuak mozkin-tasaren gain nabarmentzean eta, mozkin-tasaren bidez, inbertsiorako aukeraren gain. Nola prozesu kapitalista inbertsio-korrante handi batek beti bultzaturik egon den, aski litzateke hura partzialki ezabatzeara prozesua amildegirantz doalako iragarpena sinesgarri bihurtzeko. Argumentazio marxiarren norabide berezi hori badirudi, zalantzarik gabe, bat datorrela ez bakarrik 1930-40 hamarkadako gertakari karakteristiko batzuekin –langabezia, erreserba-soberak, gainasedura dirumerkatuetan, mozkin-marjina askiezak, inbertsio pribatuaren geldotzea–, baizik eta egoeraren interpretazio ez-marxista batzuekin ere. Marxen eta Keynesen artean ez dago, segur aski, amildegi hain handia nola dagoen Marxen eta Marshallen eta Wicksellen artean. Bai teoria marxista eta bai haren kontrapartida ez-marxista ongi laburbildurik daude erabiliko dugun esaldi autoazalgarrian: inbertitzeko aukera desagertzearen teorian².

Kontuan hartu behar da teoria honek, izatez, hiru arazo desberdin planteatzen dituela. Lehena II. atal honen titulua burualdekotzat balio duen auzi bati loturik dago, hau da, bizirik iraun al dezake kapitalismoak? Nola mundu sozialean ez dagoen ezer *aere perennius* izan daitekeenik, eta ordena kapitalista esentzialki eraldakuntza-prozesu baten koadro ez ekonomikoa soilik, baizik eta soziala ere baden, ia ez dago lekurik irizpide-desberdintasunerako erantzunean. Bigarren auzia da inbertitzeko aukera desagertzearen teoria azaltzen duten indarrak eta mekanismoa hain zuzen ere ea azpimarratu beharrekoak diren. Hurrengo kapituluak aurkeztuko dut beste teoria bat kapitalismoa, azken finean, hilko duten kausei buruz, baina bi kontzepzio horien artean parekotasun batzuk izaten jarraituko dute. Bada, hala ere, hirugarren arazo bat. Inbertitzeko aukera desagertzearen teoriak azpimarraturiko indarrak eta mekanismoa nahiz eta aski izan berenez prozesu kapitalistaren baitan behin betiko gelditzeranzko epe luzeko joera bat dagoela frogatzeko, hortik ez da derrigorrean jarraitzen 1930-40 hamarkadako gorabeherak indar horien ondoriozkoak direnik –eta hori gehitzeak badu garrantzirik gure asmorako– eta ez dela espero izan behar ere antzeko gorabeherak iraungo dutenik hurrengo berrogei urteetan.

Oraingoz batez ere hirugarren arazoaz arduratuko gara. Baina hartaz esango dudana asko bigarrenari ere aplikagarri zaio. Etorkizun

hurbilean kapitalismoaren prestazioaz iragarpen ezkor bat justifikatzeko aipatzen diren faktoreak eta iraganeko prestazioa errepika daitkeen ideia ukatzeko, hiru taldetan sailka daiteke.

Lehenik, ingurumen-faktoreak daude. Baieztatu izan da, eta frogatu egin beharko da, prozesu kapitalistak botere politikoaren banaketa bat eta jarrera sozio-psikologiko bat eragiten duela –dagozkion neurri politikoetan adierazten dena–, zeinak etsaikorrak zaizkion eta makina kapitalistak funtzionatzea azkenik eragotziko duten arte indartzea espero izatekoa baita. Fenomeno hori alde batera uzten dut geroago kontsideratzeko, eta orain datorrena, beraz, erreserba egokiek irakurri behar da. Baina ohartarazi behar da etsaikortasun-jarrera horrek eta hartatik datozen baldintzek lukro-ekonomia burges beraren indar higiarazlea bera ere afektatzen dutela eta, ondorioz, erreserba horiek lehen begiratuan pentsa litekeenaz haratago doaz, edozein kasutan, «politika» hitzak adierazten duenaz haratago.

Bigarrenik makina kapitalista bera dago. Inbertitzeko aukera desagertzearen teoriak ez du barnehartzen, derrigor, beste teoria, zeinaren arabera enpresa handiaren kapitalismo modernoak kapitalismoaren era harri bihurtu bat errepresentatzen baitu, zeinak bere baititu, izaeraz, praktika murritztaileak, prezio-zurruntasunak, dauden kapitalbalioen kontserbazioari bakarrik adi egotea, eta abar; baina egotez hertsiki hari loturik dago. Auzi horietaz jadanik ari izan gara.

Azkenik, sistema kapitalista elikatzen duen «gaia» izenda daitkeena dago, hau da, enpresa berrientzat eta inbertsio berrientzat sortzen diren aukerak. Hemen eztabaidatzen den teoriak hainbesteko garrantzia ematen dio elementu horri, non justifikatu egiten baitu ezarri diogun etiketa. Enpresarentzat eta inbertsio pribaturako aukerak desagertzea baieztatzeke aipaturiko arrazoi nagusiak hauek dira: asedura, lurralde berriak, berrikuntza teknikoak inbertsiorako dauden aukera asko inbertsio publikoaren esferakoak inbertsio pribatukoak baino areago diren zirkunstantzia.

1. Giza beharizanen eta teknikaren egoera jakin bakoitzean (ahalgarria den hitzaren zentzurik zabalenean) bada, noski, alokairu erreal bakoitzerako, asedura-egoera bati dagokion kapital finko eta zirkulatzaile jakin batezko kantitatea. Baldin eta ekoizpen-beharriak eta -metodoak betiko izoztu izan balira 1800 beren egoeran, ase-

dura-puntu hori ordurako aspaldi samar lortua egongo zatekeen. Baina ez al dago kontzebitzerik egunen batean beharrianak ase daitezkeela hain modu erabatekoan, non aurrerantzean bilakatzerik izango ez duten? Orain hipotesi horren ondorio batzuk garatuko ditugu; baina datozen berrogei urteetan gerta daitekeenaz arduratzen garen bitartean, bistan dago, ez daukagula ahaltasun horretaz kezkatu beharrik.

Baldin eta noizbait orduan konkretatuko behar balu jaiokortasun-tasaren gutxitze komunak, eta areago oraindik biztanleriaren urritze efektiboak, inbertitzeko aukeren murrizte-faktore garrantzitsua bihurtuko litzateke, berrezarpenerako inbertsioak alde batera utzirik. Zeren bakoitzaren beharrianak aseak edo ia aseak egongo balira kasu horretan gehigarritzko eskaera baterako garrantzizko iturri bakkarra kontsumitzaile-kopurua gehitzea izango litzateke. Baina ahaltasun hori aparte utzirik, biztanleriaren hazkunde-tasaren gutxitzeak ez du jartzen arriskuan *per se* inbertsiorako aukera ez eta ekoizpen totalen buruko gehikuntza-tasa ere³. Horretaz erraz konbentzi gaitezke ohiko aurkako tesiaren laguntzarako argumentazioaren azterketa labur baten bidez.

Alde batetik, baieztatzen da biztanleria totalaren gehikuntza-tasak, *ipso facto*, ekoizpenaren hazkunde-tasaren gutxitzea eragiten duela, eta ondorioz, inbertsioarena, eskaeraren hedapena murrizten baitu. Guztiarekin ere, hortik ez da hori jarraitzen, zeren beharrianak eta eskaera efektiboa ez baitira gauza bera. Horrela balitz naziorik behartsuenak izango lirateke eskaera indartsuena destolestuko luketena. Izatez, jaiotze-tasa gutxitzearen ondorioz libre geratzen diren errenta-atalak beste kanal batzuetatik desbidera daitezke eta bereziki egokiak dira desbideratze horretarako kasu guztietan, zeinetan beharrian alternatiboak asetzeko desira baita seme-alabak ez izateko egiazko zioa. Izatez, argumentazio apal bat atera daiteke biztanleria-gehikuntza baten eskaera-kurba karakteristikoak bereziki kalkulagarriak direlako eta horrela segurtasun bereziko inbertitzeko aukerak eskaintzen dituztelako azpimarratuz. Baina inbertitzeko aukera alternatiboak sortzen dituzten desirak ez dira aurreikusgarritasun gutxiagokoak beharrianak asetzeko egoera jakin batean. Jakina, ekoizpenaren abar singular batzuei buruzko prognosia, nekazaritza bereziki, ez da, izatez, prognosi distiratsu bat. Baina hori ez da nahastu behar ekoizpen totalari buruzko prognosiarekin⁴.

Bestalde, argudia genezake biztanleriaren gehikuntza-tasa gutxitzeak ekoizpena murriztera joko duela eskaintzaren aldetik. Biztanleriaren gehikuntza lasterra zen iraganean maiz ekoizpenaren garapen behatuaren baldintzetako bat eta ondoriozta genezake, beraz, *a contrario*, lanekuaren faktorearen gero eta urritasun handiagoa izan litekeela, segur aski, faktore mugatzaile bat. Guztiarekin ere, argudio hori sarritan aipatzen den berririk ez dugu, eta hori arrazoi oso onengatik. 1940.aren hasieran, Estatu Batuetako ekoizpen industrialak 1923-1925eko batez bestekoaren ehuneko 120 errepresentatzen zuela ohartzeak lantegietako enpleguak ehuneko 100 bakarrik errepresentatzen zuen bitartean, erantzun egokia ematen du etorkizun aurreikusgarriak. Gaur eguneko langabeziaren bolumena; beheranzko jaikortasun-tasarengatik, emakumeak gero eta proportzio handiagoan lan ekoizkorretan aritzen direlako eta hilkortasun-tasa gutxitzeak bizitzako denboraldi baliagarria luzatzea esan nahi izateak; askakorien korrante agortezina lan-aurrezte bihurtzea; kalitate beheko ekoizpenaren faktore osagarriak (errendimendu beheranzkoen legearen efektibitatea parte batez eragotziz) alde batera uzteko ahalatasuna (biztanleriaren gehitze laster baten kasuan izango litzatekeena baino erlatiboki handiagoa); horrek guztiak berme zabala ematen dio lan-orduko errendimendua gehitzearen hipotesiari, zeinak, Mr. Colin Clarken arabera, hurrengo belaunaldian gertatzekoa baitzen⁵.

Lanekuaren faktorea, jakina, artifizialki urriaraz daiteke alokairu garaian eta lanegun murriztuaren eta langile-pertsonalaren diziplina erlaxa dezan interferentzia politikoaren bitartez. Estatu Batuen eta Frantziaren errendimendu ekonomikoaren konparaketa 1933tik 1940 bitartean Japonia eta Alemaniakoarekin urte beretan iradokitzen du, izatez, gisa horretako zerbait jadanik gertatua dela. Baina hori ingurumen-faktoreen taldekua da.

Nire argudiaketak laster agerian jarriko duenez, oso urrun nago eztabaidatzen den fenomeno arinki hartzetik. Jaiotze-tasa jaisteari deritzot gure aroko zertzelada adierazgarrienetako bat. Ikusiko dugu, ikuspuntu ekonomiko hutsetik ere, garrantzi apartekoa dela nola sintoma gisa hala jarduera ekonomikoaren eragingarrien eraldakuntzaren kausa gisa. Hala ere, auzi konplexuagoa da. Hemen biztanleria-gehi-kuntzaren tasaren jaitsieraren efektu mekanikoez bakarrik arduratuko gara, eta horiek ez dute balio, noski, laguntzat ezein iragarpen

ezkorrentzat ekoizpenaren buruko garapenari buruz datozen berrogei urteetan. Hori horrela izanik, arrazoi horrengatik «kolapsua» predikatzen duten ekonomialariek zoritxarrez beti egiteko prest egon direna egitea besterik ez dute egiten: behiala jendea ikaratzen zuten bezala, zeharo arrazoi desegokien bidez, elikatu beharreko aho-kopuru gehiegizkoaren arrisku ekonomikoak deskribatuz⁶, orain arrazoi hoberik erabili gabe, ekoizle edo kontsumitzaileen gabeziaren arrisku ekonomikoak azpimarratuz ikaratzen dute.

2. Hurrengo puntua, hau da, lurralde berriak aurkitzea aukera bakarra da inoiz errepikatu ahal izango ez den inbertsiorako. Nahiz eta, argudiaketa-arrazoiengatik, Gizadiaren muga geografikoa modu erabatekoan itxita dagoela onartu –horrek ez dirudi oso nabaria denik berez izan ere gaur egun basamortuak baitaude behiala lur landuak eta hiri jendetsuak zeuden tokian–, eta onartzen badugu ere, gainera, ezerk ez duela egingo ekarpen handiagorik giza ongizaterako etorkizunean lurralde berri horietatik zetozen elikagaiek eta lehengaiek egin zutena baino –eta hori argiago dago–, ez da segitzen horretatik buruko ekoizpen totalak horrengatik gutxitu edo erritmo geldoago batean gehitu behar duenik datorren mende-erdian. Hori espero izan beharko litzateke, zalantzarik gabe, XIX mendean esfera kapitalistan sartu ziren lurraldeak halako baldintzatan ustiatuak izan balira, non jadanik beheranzko errendimenduak agertu beharko luketen. Hala ere, kasua ez da hori eta, frogatu dugunez, biztanleriaren gehikuntza-tasa gutxitzea baztertu egiten du kontsiderazio praktikoen esparrutik naturak giza ahaleginari emandako erantzuna jadanik lehen baino eskuzabaltasun gutxiagokoa dela edo laster izango dela. Progresu teknikoak alderantzikatu egin du, noski, gisa horretako joera oro, eta egin daitekeen iragarpen seguruenetako bat *embarras de richesse* batean biziko garela, etorkizun kalkulagarri batean, nola erosgai elikagarrien hala lehengaien aldetik, zeinak ahalbidetuko baitu ekoizpen totala gure ahaltasunekin bateragarria den puntu goreneraino eramatea. Hori baliabide mineralei ere aplikagarria zaie.

Beste aukera bat geratzen da. Nahiz eta erosgai elikagarri eta lehengaien gaur egunean dugun ekoizpena buruko gutxituko den beldurrik ez dugun izan behar, eta gehitzea ere ahalgarri izan, inbertsiorako lurralde berriak garatzearen atazaren bitartez enpresarentzat irekitako aukera handiak, badirudi ezabatu egin direla horien burutzape-

narekin, eta era guztietako zailtasunak predikatzen dira aurrezkia ezartzeko aukerak murriztearen ondorioz sortuak. Demagun berriaz, gure argudiaketa errazteko, lurralde horiek behin betiko moduz efektiboki garaturik daudela eta aurrezkiek, ezarpen-aukeren murrizketa batera moldatzeko gai ez izatean, perturbazioak eta zarrastelkeriak eragin ditzaketela, horien ordez beste ezarpen-ahaltasun batzuk irekiko ez balira. Bi hipotesiak egiazki irrealak dira. Baina ez dauzkagu zalantzan jarri beharrik, zeren horietatik ateratzen den ondorioa, ekoizpenaren etorkizuneko garapenari dagokionez, erabat oinarrigabea den hirugarren hipotesi baten baitan baitago, hau da: beste ezarpen-ahaltasun batzuen gabeziaren baitan.

Hirugarren hipotesi hau irudimen-gabeziaren ondoriozkoa da eta sarritan interpretazio historikoa desitxuratzen duen errore baten adibidetzat balio du. Analistari zirrara eragiten dioten prozesu historiko baten zertzelada bereziek oinarrizko kausa bihurtzeko joera dute haren buruan, sailkaturik egon edo ez toki hori hartzeko. Adibidez, eskuarki kapitalismoaren jaiotza izendatzen den fenomeno bat dator, *grosso modo*, Potosiko meatzetatik zilar-jarioarekin eta egoera politiko batekin, zeinetan printzeen gastuek eskuarki gaintitu egiten baitzituzten beren errentak, halako moldez, non etengabe maileguak eskatu behar izaten zituzten. Bistan da bi gertakariak era desberdinetan agertzen direla garai haietako garapen ekonomikoetan, zeren nekazarien errebolta eta izaera erlijiosokoak ere haiekin erlazioa baitaitezke absurdoan erori gabe. Analista aise senti daiteke makurtua hemendik sistema kapitalistaren jaiotza bi fenomeno horiekin kausalki erlazionaturik dagoela ondorioztatzea, horiek gabe (eta gisa bereko beste faktore batzuk gabe) mundu feudala berez mundu kapitalista eraldatuko ez zatekeen zentzuan. Baina hori, izatez, beste proposizio bat da, zeinetarako lehen begiradan ez baitago inolako zuribidetzerik. Segurta daitekeen gauza bakarra da jazoerak efektiboki bide horretatik igaro direla. Hortik ez da eratortzen besterik ez zegoenik. Kasu horretan, esan bedi bidenabar, ez dago faktore horiek garapen kapitalista faboratu dutela inondik ere sostengatzerik, zeren, aspektu batzuetan faboratu bazuten ere, beste batzuetan, nabarmen, berandutu baitzuten.

Era berean ustiatzeko lur berriek enpresentzat eskaintzen zituzten aukerak bakarrak ziren, noski, aurreko kapituluan ikusi dugunez,

baina aukera guztiak diren zentzuan bakarrik. «Muga ixteak» hutsarte bat sortu behar duela suposatzea oinarririk gabea da, bai eta toki hutsean emango ditugun pausoak zeinahi direlarik ere, derrigor garrantzi txikiagoak izan behar dutela suposatzea ere, hitz horri emateko aukera ditzakegun zentzuetako edozeinetan. Airearen konkista oso ongi izan daiteke Indiaren konkista izan zena baino garrantzitsuagoa –ez ditugu nahastu behar muga geografikoak eta ekonomikoak.

Egia da herrialdeen edo erregioen posizio erlatiboak nabarmen alda daitezkeela inbertsiorako aukera mota bat beste batez ordeztzen denean. Zenbat eta txikiagoa izan herrialde edo erregio bat, eta, zenbat eta estukiago loturik egon haren zortea ekoizpen-prozesuko elementu berezi bati, konfiantza gutxiago sentitu behar dugu itxaroten dion etorkizunarekiko elementu hori agor dadinean. Herrialde edo erregio nekazariak galera iraunkor bat *senti dezakete* ekoizkin sintetikoan (zeta artifiziala, tinduak, kautxu sintetikoak, adibidez) konkurrentziagatik, ez dute pozbiderik izango jakitean berrikuntza horiek irabazi likido bat sorraraz dezaketela ekoizpen unibertsalean, ekoizpen-prozesua bere osotasunean hartzen bada. Halaber, egia da teknikatik eratorritako konkurrentzia horren ondorio ahalgarriak asko areago daitezkeela mundu ekonomikoa esfera nazional etsaikorretan banatzeagatik. Eta egia da, azkenik, baieztatu dezakegun gauza bakarra herrialde berrien garapenak berekin daraman inbertsiorako aukerak galtzeak –baldin eta, egiazki, galtzen badira– ez duela *derrigor* hutsarte bat sorrarazten, zeinak behartasunez afektatu beharko lukeen ekoizpen totalaren gehikuntza-tasa. Ezin dezakegu baieztatu aukera horiek beste baliokide batzuek efektiboki ordeztuak direnik gutxienez. Alabaina, seinala dezakegu herrialde berrien garapenetik era naturalean herrialde horietan berorietan edo beste batzuetan beste garapen batzuk sortzen direlako; halako konfiantza bat izan dezakegu sistema kapitalistak aukera berriak beti bilatzeko edo sortzeko duen gaitasunean, hain zuzen ere asmo horretarako antolaturik baitago, baina kontsiderazio horiek ez gaituzte eramaten gure emaitza negatibotik haratago. Eta hori erabat aski da gai horri ekitera bultzatu gaituzten arrazoiak gogoratzen baditugu.

3. Arrazoitzeko antzeko modu bat aplikatzen zaio aurrerapen teknikoan pauso handia jadanik eman izan delako eta lortzeko hobe-

kuntza txikiak bakarrik geratzen direlako ikuspegi zabalkiro onartuari. Ikuspegi horrek mundu-krisi-aroan eta horren ondorengo aldian izan diren gauzen egoerak sorturiko inpresioak soilik islatzen ez dituen heinean –zeinean agertu baitzen lehen mailako berrikuntzen itxurazko gabezia, beti gertatzen denez depresioaldian zehar–, oraindik adibide hobea da, ekonomialariak hain emanak diren interpretazio-errore harena, «Gizadiaren muga ixtea»rena baino. Energia elektriko zentralak, industria elektrikoa, nekazaritzaren eta etxearen elektrifikazioa eta automobilaren industria sortu dituen ekimen-uhinaren jaitsierako maila beherenean gaude hain zuzen ere orain. Hori guztia miresgarri aurkitzen dugu eta inguratzen gaituen guztian garrantzi parekagarritzko aukerak nondik etorri behar duten aurkitzeko ez gara gai. Izatez, hala ere, industria kimikoak eskaintzen dituen promesak bakarrik dira aurreikus zitezkeenak baino askoz handiagoak, adibidez, 1880an, ez aipatzearren elektrizitatearen aroko konkisten erabilpen soila eta masentzako etxe modernoak ekoiztea zabalkiro aski izango liratekeela orain denboraldi luze samar batean inbertsio-aukerak eskaintzeko.

Ahalgarritasun teknikoak oraindik maparatuko gabeko itsaso bat dira. Erregio geografiko bat ikuskatu eta lursail desberdinen emankortasun erlatiboa preza dezakegu, nahiz eta nekazaritza-ekoizpenaren teknika jakin bati buruz bakarrik izan. Teknika hori emanik eta etorkizuneko garapen ahalgarriak alde batera utzirik, imajina dezakegu (nahiz eta historikoki okerra izan) lehenik lursailik hoberenak lantzen direla, gero kalitate bitartegabe beheragokoak eta horrela hurrenez hurren. Prozesu horren edozein une jakinetan erlatiboki beherak diren lursailak bakarrik geratuko dira maneatu gabe. Baina ezin izango dugu arrazoitu modu horretara aurrerapen teknikoaren etorkizuneko ahalgarritasunei dagokienez. Horietako batzuk beste batzuk baino lehenago ustiatuak izan direlaketik ez dago ondorioztatzerik lehen aurkikuntzak hurrengoak baino ekoizkorragoak izan zirenik. Eta oraindik jainkoen magalean dauden ahalatasun horiek orain arte gure behaketa-eremuan sartu direnak baino ekoizkorragoak izan daitezke gehiago edo gutxiago. Hemen berriz ere emaitza negatibo soil batera iristen gara, positibo bihur ezin daitekeenera, nahiz eta «progresu» teknikoak efektiboago izatera jotzen duen eta lur irmoa-goia zapaltzera ikerkuntzaren eta kudeaketaren sistematizazioarekin

eta arrazionalizazioarekin. Baina guretzat aski da emaitza negatibo hori; ez dago arrazoirik ekoizpen-erritmoa geldoago bihurtuko denik espero izateko ahalgarritasun teknikoen agortzez.

4. Oraindik inbertitzeko aukera-desagertzearen teoriaren abar horren bi aldaera hartu behar dira kontuan. Zenbait ekonomialarik baieztatu dute herrialde bakoitzeko lan-indarrak horniturik egon behar izan duela, aro batean edo bestean, beharrezko ekipoaz. Hori, berek diotenez, XIX. mendean zehar larriki egin zen. Hori burutzen zen bitartean kapital-ondasunen eskaera berri bat sortu zen etengabe, eta aldiz, hortik aurrera, inbertsio lagungarriak alde batera utzirik berrezarpen-eskaera asetzea besterik ez zen geratuko. Horniketa kapitalistako aroa horrela *intermezzo* bakarra izango litzateke Historian, ekonomia kapitalistako energia guztien tentsio apartekoaz ezaugarritua, makina eta erreminten osagarri beharrezkoa sortzearen, eta horrela orain mantentzea ezinezkoa den erritmo bat aurrerantzean sortzeko hornitzera iristearren. Hori prozesu ekonomikoaren koadro egiazki txundigarria da. Ez al zegoen ekiporik XVIII. mendean edo gure arbasoak artean kobazuloetan bizi ziren garaietan? Eta baldin bazegoen, zergatik izan behar zuten XIX. mendean egindako gehikuntzek ordu-ra arte egindako guztiak baino asegarriagoak? Gainera, kapitalismoaren armamentuari ekarritako gehikuntzak konkurrentzian sartzen dira, oro har, alde z aurretik dauden haren piezekin, zeinen baliagarritasuna suntsitu egiten baitute. Hortik dator ekonomia ekipatzeko ataza behin betiko inoiz ezin egin ahal izatea. Kasuak, zeinetan berrezarpen-erreserbak hori egiteko egokiak baitira –normalean izango litzatekeenez aldaketa teknologikorik ezean– salbuespenak dira. Hori bereziki argia gertatzen da ekoizpen-metodo berriak edo industria berriak baitaratu diren tokian; begi-bistakoa da automobil-lantegiak burdinbideen amortizazio-fondoek finantzatu dituztela.

Irakurlea ohartuko da, zalantzarik gabe, nahiz eta argumentazio horren premisak onartu ahal izan, ez litzatekeela segituko horretatik, era beharrezkoan, ezein iragarpen ezkor ekoizpen totalaren hedapen-tasari buruz. Aitzitik, alderantzizko ondorioa atera lezakete, hau da, kapital-ondasunezko bilketa zabal baten jabe izateak, zeinak berri-tze jarraituarengatik, hilezkortasun ekonomikoa lortzen baitu, erraztea besterik ez lukeela egingo ekoizpen totalaren ondorengo gehikuntza. Kasu horretan arrazoi osoa izango luke. Aurkezturiko argudioa

espero izatekoak diren perturbazioetan datza bere osotasunean, baldin eta kapital-ondasunak ekoizten ari den ekonomia batek aurre eragin behar badio dagokion eskaeraren gehikuntza-tasaren gutxitzeari. Baina perturbazio horiek, bat-bateko eran gertatzen ez direnak, aise izan daitezke bapikatuak. Altzairuaren industriak, adibidez, ez du izan zailtasun handirik ia kapital-ondasunak bakarrik sortzen zituen industria izatetik kontsumo iraunkorreko edo ondasun horien ekoizpena-ko ekoizkin erdi-bukatuak nagusiki ekoizten dituen industria izatera eraldatzeko. Eta konpentsazio horiek ahalgarriak izango ez balira ere kapital-ondasunak sortzen dituen industria bakoitzaren barruan inplikatzen duen printzipioa bera da kasu guztietan.

Beste aldaera hau da. Jarduera ekonomikoaren leherketa handiak, organismo ekonomiko osoan barrena prosperitate-sintomak hedatu ohi zituztenak, beti egon izan dira ekoizleen gastuen hedapenei asoziatuak, noski, zeinak, beren aldetik, lantegiak eta ekipo gehigarriak eraikitzearekin asoziatuak baitzeuden. Alabaina, ekonomialari batzuek aurkitu dute, edo aurkitu dutela uste dute, gaur egun prozedura tekniko berriek kapital finko gutxiago exigitzera jotzen dutela, iraganean egozten zioten zentzuan, batez ere burdinbideak eraikitzen ziren garaian. Ateratzen duten ondorioa da kapitala eraikitzeko gastua gutxitu egingo dela horrengatik garrantzi erlatiboan. Horrek jarduera ekonomikoaren aldizkako leherketa haiek era desfaboragarrian nola afektatuko dituen, zeinek ekarpen handia egin baitiote ekoizpen totaleko gehikuntza-tasa behatuari, hortik segitzen da, gainera, tasa hori beharturik dagoela gutxitzera, aurrezkiak antzinako tasan irauten badu batik bat.

Metodo tekniko berrien gero eta aurrezki gutxiago hurrupatzeko joera hori ez da behar beste frogatu orain arte. 1929 arte jasotako material estatistikokoak –ondorengo datuak ez dira egokiak gure asmorako– alderantzizko bidea seinalatzen du. Auzitako teoriaren aldeko guztiek beren tesiaren sendotzeko eskaini duten guztia adibide bakar-tu sail bat da, zeinari beste batzuk kontrajartzea ahalgarria baita. Baina onar dezagun badela joera hori. Orduan geure aurrean arazo formal bera izango dugu, zeinak kezkatu baititu iraganeko hainbeste ekonomialari lanekuaren aurkikuntza ekonomizatzaileen kasuan. Horiek era faboragarrian edo desfaboragarrian afekta ditzakete lan-gileen interesak, baina inork ez du zalantzarik, oro har, ekoizpenaren hedapenari mesede egiten diotela. Eta aurrezte-inbertitze prozesuan

ahalgarriak diren perturbazio ahalgarriak alde batera utzirik, zeinak bapikatzeko moda baitago, hori ez da bestelakoa *azken ekoizkin-unitateko* kapital-ondasunen erabilpena ekonomizatzen duten aurkikuntzen kasuan. Izatez, egiatik asko aldendu gabe esan daiteke, ekonomiki egingarria den ia prozedura berri orok kapitala eta laneskua biak aurrezten dituela. Uste izatekoa da burdinbideek kapital-aurrezte bat ekarri dutela enplegatu beharko litzatekeenarekin alderatuta postakotxetan edo organo orain burdinbideek garraiatzen duten bidaiari-kopuru bera eta merkantzia-kopuru berak garraiatzeko. Antzeko era batean marugatzte eta zetarren bidezko zetagintzak kapital gehiago hurrupa lezake –ez dakit– zeta artifizialezko kantitate baliokidea ekoizteak baino. Hori oso tristea da enplegaturiko kapitalaren jabeentzat lehen ekoizpen-metodoan bertan, baina ez dago esaterik horrek inbertitzeko aukera gutxitzea dakarrenik, ez eta ekoizpen-hedapenaren urritze bat era beharrezkoan inplikatzan duenik ere. Kapitalismoa, garai batean lortzen zuen efektu ekoizle handiago bat kapital-unitateak lortzen duelako indarrez soilik, hondoa jotzen ikustea espero dutenek baliteke luzaroan itxaron behar izatea.

5. Azkenik, nola gai honetaz eskuarki arduratzen diren estatuko gobernuaren aldetik defizita duen gastu baten beharrianaz publikoa konbentzitzen saiatzen diren ekonomialariak, inoiz ez diote beste argudio batzuk aipatzeari uzten, esaterako: inbertsiorako geratzen diren aukerak egokiagoak direla enpresa publikoarentzat pribatuarentzat baino. Hori zehatza da baina halako puntu bateraino bakarrik. Lehenik, aberastasuna gehitzean, segur aski, garrantzi handiagoa hartzen dute gastu-mota batzuek, zeinetan ez baitago eskuarki kostuamozkinaren ezein kalkulu, hiriak edertzeraz, osasun publikora eta abarretara zuzenduriko gastuena bezalakoetan. Bigarren, kudeaketa publikoaren esferan sartzeraz jotzen du jarduera industrialeko sektore gero eta handiago batek, komunikabideek, portuek, energia-ekoizpenak, aseguruak eta abarrek, eta hori industria horiek gero eta egokiago bihurtzen direlako administrazio publikoko metodoetarako. Beraz, espero liteke nazio- eta udal-inbertsioaren hedapen bat, nola absolutua hala erlatiboa, plangintza publikoko beste era guztietan bezala, oraindik funtsean kapitalista den gizarte batean.

Baina hori da guztia. Hori berrezagutzeko ez daukagu hipotesirik egin beharrik jarduera industrialeko sektore pribatuaren bilakae-

rari buruz. Gainera, gure asmorako axolagabea da, etorkizunean, inbertsioa eta horrek berekin daraman ekoizpenaren hedapena finantzatuak eta gidatuak izateak edo ez, neurri handiagoan edo txikiagoan, organismo publikoek organismo pribatuek baino areago, aldi berean sostengatzen ez bada finantzazio publikoa berez ezarri behar dela, zeren enpresa pribatua ez bailitzateke gai izango *inbertsio orotatik* etorkizunean espero izan behar diren defizitei aurre egiteko. Baina horretaz lehenago ere ari izan gara.

XI KAPITULUA KAPITALISMOAREN ZIBILIZAZIOA

Kontsiderazio ekonomiko hutsen zirkulua utzirik, ekonomia kapitalistaren aspektu kultura-alerak joko dugu orain –haren *gainegitura* sozio-psikologikora, hizkera marxiarra erabili nahi badugu –eta gizarte kapitalistaren karakteristikoa den mentaliterara eta, bereziki, klase burgesarenera. Laburtasun etsigarrian gertakari gailenak honela aurkez daitezke.

Duela berrogeita hamar mila urte gizakiak bere ingurumeneko arrisku eta aukerei aurre egiten zien, halako moldez, non «prehistorialari», soziologo eta etnologo batzuk bat datozen gaur eguneko basatien jarreraren *grosso modo* baliokidetzat kontsideratzean¹. Guretzat bi elementu daude jarrera horretan bereziki garrantzitsuak direnak: basatiaren prozesu espiritualaren izaera «kolektibo» eta «afektiboa» eta hari partzialki gainezarritako zereginarena, zuzentasun handirik gabe, hemen magia deituko dudanarena. Lehenarekin, hau da izaera kolektibo eta afektiboarekin, talde sozial txiki edo desberdindugabeetan edo oso desberdindu gabeetan, ideia kolektiboak askoz errigore handiagoz mentalitate banakoan nagusitzen zirelako aipatzen dut talde handi eta konplexuetan baino, eta ondorioetara eta erabakietara gure ikuspuntutik irizpide negatibo batez ezaugarri daitezkeen metodoen bidez iristen dela, hau da: guk logika deitzen dugunaren eta, bereziki, kontraesana baztertzeko duen arauaren gutxiespenaz. Bigarrenarekin, hau da, magiarekin, sineste-sail baten erabilpena seinaltatzen dut, zeinak, izatez, ez baitaude erabat deslotuak esperientzietatik –magiaren ezein artifizioek ezin du iraun porrot-sail etengabe baten

ondoren—, baina fenomeno behatuen suzesioan iturri ez enpirikoetatik eratorritako entitate edo eraginak txertatzen dituztenak². Gogamen-prozesu honek neurotikoenarekin duen antza G. Dromardek (1911; haren *délire d'interprétation* esamoldea bereziki iradokiorra da) eta S. Freudek jarri dute agerian (*Totem und Tabu*, 1913). Baina horrek ez du esan nahi gure garaiko gizaki normalaren gogamenari arrotza zaionik. Aitzitik, gai politikoen edozein eztabaidak konbentzitu egin dezake irakurlea gure gogamen-prozesu propioaren parte handi bat, garrantzi handienekoa dena, ekintzaren ikuspuntutik, zehazki izaera berekoa dela.

Pentsamendua edo portaera arrazionalak eta zibilizazio arrazionalistak ez dute suposatzen, beraz, aipaturiko irizpideen absentsia, baizik hedatze geldo baina etengabea, bizitza sozialaren sektorearena, zeinaren barruan banakoek edo taldeek egoera jakin bati aurre egiten baitiote, lehenik, hartatik ahalik eta etekinik hoberena ateratzen saiatuz, bere ahalmenetan gutxi-asko —baina inoiz ez erabat— konfiatuz; bigarren, guk logika deitzen dugun koherentzia-arauen arabera jotuz, eta hirugarren bi baldintza horiek betetzen dituzten hipotesietan oinarrituz: horien kopurua minimoa izan dadila eta horietako bakoitza esperientzia potentzialeko terminotan adierazia izateko modukoa izan dadila³.

Hori guztia, noski, oso askieza da, baina nahiko da gure asmorako. Bada, hala ere, beste puntu bat zibilizazio arrazionalisten kontzeptuari buruz hemen aipatuko dudana geroago horretaz aritzeko. Bizitzako eguneroko arazoan analisi arrazionalaren eta horiei buruzko portaera arrazionalaren aztura behar beste garaturik dagoenean, ideia kolektiboen masaren gain erreakzionatzen du eta kritikapean ezartzen ditu eta, neurri batean, «arrazionalizatu» egiten ditu, erregeak eta pontifizeak edo mendekotasuna edo hamarrenak edo jabetza zergatik egon behar duten bezalako galderak eginez. Intzidentalki, garrantzitsua da behatzea, nahiz eta gutako gehienok jarrera kritiko hori garapen espiritualaren «goragoko estadio» bateko sintomatizat hartuko genukeen, balio-judizio hori ez dago derrigor eta zentzu guztietan esperientziak berretsia. Jarrera arrazionalistak informazio eta teknika hain desegokiaz joka dezake, non eragiten dituen ekintzak, batez ere praktika medikoak miresteko joera orokor bat irudi lekizkioke, geroagoko aldi bateko behatzaile bati, balio gutxiagoko, ikus-

puntu intelektual hutsetik ekintza eta joera antimedizinal jarrerrei asoziatuak baino, zeinak gaur eguneko gehienek gaindoatuei bakarrik egoztera makurturik sentitzen baitira. XVII eta XVIII. mendeetako pentsamendu politikoaren parte handi batek argitu egiten du egia beti ahaztu hori. Ez bakarrik ikuspen sozialaren sakoneran baizik eta analisi logikoarenean ere bai, nabarmen garaiagoa izan da «kontserbadore»en geroko kontrakritika, nahiz eta ilustrazioko idazleek irigarri iritziko zioten.

Alabaina, jarrera arrazionala, segur aski, beharrian ekonomikoarengatik sartzen da giza espirituan; eguneroko ataza ekonomikoari zor diogu guk, arraza gisa, geure gaitze elementala pentsamenduan eta portaera arrazionalan, eta ez dut zalantzarik logika oro erabaki ekonomikoko eredutik eratortzen dela esateko, nik gogokoa dudana esaldi bat erabiliz, eredu ekonomikoa dela logikaren matrizea esateko. Horrek txalogarria dirudi honako arrazoiarengatik. Demagun «basati» batek denetan makinarik elementalena, gorila gure lehengusuek jadanik preztatua, makila erabiltzen duela, eta makila hori hautsi egiten zaiola eskuetan. Kaltea erremediatzen saiatzen bada formula magiko bat errezitatuz (esaterako, «eskaintza eta eskaera» edo «plangintza eta zuzendaritza» murduska litzake, hori bederatzi aldiz errepikatuz gero, zatiak berriz elkartuko ziren itxaropenarekin), orduan pentsamendu pre-razionalaren barrunbearen barruan dago. Bi zatiak batzeko prozedurarik hoberena bilatzen edo beste makila bat eskuratzen ahalegintzen bada orduan arrazionalki dihardu gure zentzuan. Bi jarrerak ahalgarriak dira, noski. Baina begi-bistakoa da horretan, gainerako ia ekintza ekonomiko guztietan bezala, formula magiko baten porrot operatiboa askoz nabariagoa izango dela formula baten edozein porrot baino, zeinak gure gizona garaile bihurtu behar baitzuen guduan edo zortedun maitasunean edo barne-zimiko baten pisutik kontzientzia deskargarazi behar zion formula baten edozein porrot baino. Hori zehaztasun gupidagabearengatik da eta, kasurik gehienetan, ekonomikoa dena giza jardueraren gainerako sektoreetatik bereizten duen izaera kuantitatiboarengatik eta agian baita beharrian ekonomikoen eta haien asekontzaren errepikapen amaiezinen emozio-faltarengatik ere. Aztura finkatu ondoren, jarduerako gainerako esferetara hedatzen da, aldeko esperimentzien eragin pedagogikoaren pean, eta horietan begiak irekitzen dizkie gizakiei Egitatea den gauza mirarizko horretarako.

Prozesu hori independentea da jarduera ekonomikoaren edozein jantziduratatik eta, beraz, baita jantzidura kapitalistatik ere. Beste horrenbeste gertatzen da lukroaren eta interes pertsonalaren eragingarriekin. Gizaki prekapitalista ez da, izatez, gizaki kapitalista baino «harraparitasun» gutxiagokoa. Nekazari jopuak, esaterako, edo jaun feudalek, energia anker erabat bereziaz baieztatzen dute beren autointeres. Baina kapitalismoak portaeraren arrazionaltasuna garatzen du eta bi era elkarlotutan sorbatz berri bat gehitzen dio.

Lehenik moneta-unitatea, kapitalismoaren sorkaria ez dena goratzen du kontabilitate-unitate izateraino. Hau da, praktika kapitalistak diru-unitatea kostu-mozkinaren kalkulu arrazionaleko tresna bihurtzen du, zeinarekin eraikitzen baitu sarrera biko kontabilitatearen monumentu handiosa⁴. Auzi horretan sartu gabe ohartu behar dugu kostu-mozkin kalkuluak, jatorriz arrazionaltasun ekonomikoranzko bilakaeraren emaitza bat, erreakzionatu egiten duela, bestalde, arrazionaltasun horren gainean: era zenbakizkoan kristaldu eta definitzean, bulkada ahaltsua ematen dio enpresaren logikari. Eta horrela definitu eta kuantifikaturik sektore ekonomikoan logika mota horrek edo portaera-metodo horrek bere konkista-lasterketa hasten du orduan, azpian hartuz –arrazionalizatuz– gizakiaren erremintak eta filosofiak, haren praktika medikoak, kosmosaren haren irudia, bizitzaren haren ikuspena; eta izatez, dena, baita haren edertasun eta justizia kontzeptua eta haren anbizio espiritualak ere.

Horri dagokionez, oso adierazgarria da zientzia matematiko-esperimental modernoa garatu izana, XV, XVI eta XVII. mendeetan, eskuarki kapitalismoaren jaiotza deitzen den prozesu sozialarekiko parez pare ez ezik, baita pentsamendu eskolastikoaren gotorlekutik kanpo ere eta haren etsaikortasun destinatariari aurre eginez. XV. mendean matematika, batez ere, merkataritza-aritmetikako auziez eta arkitektura-arazoez arduratzen zen. Asmakari mekaniko utilitarioak, artisau motako gizakiek aurkituak, fisika modernoaren jatorrietan sortu ziren. Galileoren indibidualismo zakarra jaiotzen ari zen klase kapitalistaren indibidualismoa zen. Zirujaua emaginaren eta bizarginaren gainetik igotzen hasi zen. Artistak, aldi berean ingeniaria eta enpresarioa zenak –Vinci, Alberti, Cellini gizakiek hilezkorturiko tipoa; Durero bera ere gotorlekuentzat planoak egiten ari izan zen– ezerk baino hobeki argitzen du adierazi nahi dudana. Hori guztia

madarikatzean italiar unibertsitateetako irakasle eskolastikoek guk egozten diegun baino zentzu handiagoa erakusten zuten. Kezka ez zen baieztapen heterodoxo banakakoengatik. Edozein eskolastiko gaitu jo zitekeen bere testuak Korpernikoren sistemara moldatzeko eran kiribiltzeko gai. Baina irakasle haiek, oso zentzu onarekin hautematen zuten gertakari haien atzean zegoen espiritua: indibidualismo arrazionalistaren espiritua, jaiotzen ari zen kapitalismoak sortutako espiritua.

Bigarren, jaiotzen ari zen kapitalismoak ez zuen zientzia modernoaren gogamen-jarrera soilik sortu, galdera batzuk planteatzen eta era jakin batean erantzuten ahalegintzean datzan jarrera, baizik eta gizakiak eta bitartekoak ere sortu ditu. Feudalismoko giro espirituala haustean eta feudoko eta herrixkako bake intelektuala asaldatzean (nahiz eta, jakina, beti egon zertaz eztabaidatu eta haserretu asko konbentu batean), baina bereziki klase berri batentzat gune soziala sortzean, zeina alor ekonomikoko bere burutzapen indibidualetan bermatzen baitzen, kapitalismoak erakarri egin zituen, aldiz, alor hartara nahimen indartsuak eta adimen ahaltsuak. Kapitalismo-aurreko bizitza ekonomikoak ez zuen uzten lekurik klase-langak gainditzea ahalbidetzen zuten burutzapenetarako edo, beste era batean adierazteko, orduan nagusikoiak ziren klaseetako kideenekin parekagarriak ziren posizio sozialak sortzeko gai zirenak. Gorabide soziala, orokorrean, ez zen eragozten⁵. Baina jardueraren ekonomikoa, termino zabaletan hitz eginez, izaera esentzialki subalternokoa zen, korporazioen gailurrez jabetzen ziren artisauen kasuan ere, zeinen gainetik ia ezinezko baitzitzaien igotzea. Gorabide sozialerako eta irabazi handietarako bide nagusiak Elizak eratzen zituen –ia orain bezain irisgarria Erdi Aro osoan–, zeinari gehi baitiezazkiokegu lurralde-magnate handien kantzilieriak eta jaun feudalen hierarkia, XII. mende arte erabat irisgarria, gutxi gorabehera, fisikoki eta psikikoki kalifikaturiko edozein gizakirentzat eta ez erabat iritsezinezkoa gero. Enpresa kapitalistak –hasiera batean komertziala eta finantzarioa: gero, meatzaria, eta, azkenik, industrialia izan zenak– bere ahaltsunak destolestu zituenean bakkarrik hasi ziren gaitasun eta anbizio supernormala negoziokoak hirugarren bide bihurtzen. Arrakasta laster eta agerikoa izan zen, baina asko bapikatu da berekin hasieran zeukan prestigio soziala. Jacob

Fuggerren karrera aztertzen badugu, adibidez, edo Agostino Chigirena, aise egiaztatzen dugu ez zutela zerikusi handirik izan Karlos Varen edo Leon X. aitasantuaren politikaren norabidearekin eta prezio oso garaia ordaindu behar izan zutela gozatu zituzten pribilegioengatik⁶. Hala eta guztiz ere, enpresarioaren arrakasta aski liluragarria zen denentzat, gizarte feudaleko geruza garaientzat izan ezik, garun hoberenen gehiengoa herrestan eramateko eta hala arrakasta berri bat sortzeko, makina arrazionalistarentzako bulkada berri bat zena. Ildo horretatik, kapitalismoa –eta ez jarduera ekonomikoa orokorrean soilik– azken finean, giza portaeraren arrazionalizazioaren indar bultzatzailea izan da.

Eta azkenean aurrez aurre topo egiten dugu argudio konplexu, baina hala ere askiez honek gidatu behar gintuen bitartegabeko hel-mugarekin⁷. Ez bakarrik lantegi mekanizatu modernoa eta hartatik jariatzen den ekoizpen-bolumena, ez bakarrik teknika eta antolakun-tza ekonomiko modernoa, baizik zibilizazio modernoaren zertzelada eta konkista guztiak dira, zuzenean edo zeharka, prozesu kapitalista-ren ekoizkin, eta haren edozein balantzeren barruan sartu behar dira eta bere balentria edo makurkeriei buruzko edozein epaitan kontuan izan behar dira.

Hor daude zientzia arrazionalaren garapena eta haren aplikazioen zerrenda luzea. Hegazkinak, hozkailuak, telebista, eta abar; hori guztia lukro-ekonomiaren fruitu dela aitortu behar da. Baina ospitale modernoak, oro har, lukroz funtzionatzen ez badu ere, guz-tiarekin, kapitalismoaren emaitza da, ez bakarrik –berriz diot– pro-zesu kapitalistak bitarteko materialen eta nahimen sortzailearen ekarpena egiten duelako, baizik askoz era funtsezkoagoan arraziona-litate kapitalistak gogamen-azturak sortu dituelako, zeinei esker garatu baitira ospitaletan aplikaturiko metodoak. Eta garaipenak –oraindik erabat irabaziak ez direnak, baina horretara hurbiltzen ari direnak– kantzerra, sifilisa eta tuberkulosiaren gain konkista hain kapitalistak izango dira, nola izan diren automobilak edo oliobideak edo Bessmer altzairua. Medikuntzaren kasuan, metodoen atzean pro-fesio kapitalista bat dago, nola medikuntzak, neurri handi batean, espiritu merkantilarekin diharduelako, hala burgesia industrial eta komertzialaren emultsio bat delako. Baina horrela izango ez balitz ere, medikuntza eta higiene modernoa, guztiarekin ere, prozesu kapi-

talistaren azpiekoizkinak izango lirateke, hezkuntza modernoa bezalaxe.

Hor dago arte kapitalista eta bizitza kapitalistaren estiloa. Eta pinturaren adibidera mugatzen bagara, nola laburtasun-zioengatik hala alor horretan nire ezjakintasuna beste batzuetan baino zertxobait txikiagoa delako, eta baldin (oker, nire iritziz) ados jartzen bagara aro baten abiapuntutzat Giottoen freskoak hartzean eta gero Giotto-Masaccio-Vinci-Michelangelo-El Greco lerroa jarraitzen badugu (nahiz eta oso gaitzesgarriak izan argudio «lineal» guztiak), nahiz eta asko azpimarratu El Grecoren kasuan haren suhar mistikoak, ikusteko begiak dituen inork ezingo du ezabatu nire ikuspuntua. Eta hor daude Vinciren esperientziak zalantzak dituzten eta, nolabait esateko, beren erimamiez arrazionalitate kapitalista ukitu nahi dutenentzat. Ziur nago lerro horrek, luzatuko balitz, Delacroix eta Ingresen arteko kontraste-
ra eramango gintuzkeela (agian beharturik). Hortxe gaude dagoeneko: Cézanne, Van Gogh, Picasso edo Matissek egingo dute gainerakoa. Forma objektiboen likidazio espresionistak ondorio miresgarriro logikoa eskaintzen digu. Eleberri kapitalistaren historia («*Documents stylisés*» Goncourten eleberrian gailurtzen dena) oraindik adibide hobeaz litzateke. Baina hori begi-bistakoa da. Bizi-estilo kapitalistaren bilakaera aise deskriba liteke —eta agian era zehatzagoan— kale-jantzi modernoaren genesisia marrazuz.

Hor dago, azkenik, liberalismo gladstoniarraren gune sinbolikoaren inguruan taldeka daitekeen guztia. «Demokrazia indibidualista» adierazmoldea era berean egokia litzateke —hobe, izatez, zeren bere baitan sartu nahi baititugu Gladstonek onartuko ez zituzkeen elementu batzuk eta haren fedearen gotorlekuan luebakiraturik bere jarrera moral eta espiritualak gorrotatu ere egiten zituenak. Eta horrenbestez hau amaitutzat emango nuke baldin eta liturgia erradikala, neurri handi batean, gogoratuko dudanari egindako ukapen pintoreskoz osatua ez balitz. Erradikalek behin eta berriz esan dezakete masek sufrimendu jasanezinetatik salbatuak izan daitezen hegiagoraz daudela eta beren kateei kirrinka eragiten dietela etsipenaren ilunpetan; baina sekula ez da izan, noski, hainbeste askatasun pertsonal —espiritual eta gorputzezko— «denentzat»; sekula ez da izan hain aldarte onik klase nagusikoia-
ren etsai hilgarriak toleratzeko eta finantzatze-
ko ere; sekula ez da izan begikotasun hain efektiborik sufrimen-

du errealekiko eta itxuratuekiko; sekula ez prestutasun hain onik karga sozialak hartzeko gizarte kapitalista modernoan adinakorik, eta demokraziatik dagoen guztia, landa-komunitateetatik kanpo, historikoki kapitalismoaren lorratzean garatu da, nola antzinakoan hala modernoan. Berriz ere iraganeko gertakari-mordoa aipa daiteke eraginkorra izango litzatekeen kontra-argudio bat lantzeko, baina hori muntagabea da gaur eguneko baldintzei buruzko eta etorkizunerako eskaintzen diren alternatibei buruzko eztabaida batean⁸. Baina, guztiarekin ere, diskisizio historiko batean murgiltzea erabakitzen badugu, kritikari erradikalei beren tesirako faboragarrienak iruditzen zaien gertakari haietako askok sarritan izan dezakete itxura desberdin bat, esperientzia prekapitalistako dagozkien gertakarietik konparazio baten argitan ikusten badituzte. Eta ez dago «haiek beste garai batzuk» zirela ihardesterik, zeren hain zuzen ere bilakaera kapitalistak bihurtu baititu desberdin.

Bi puntu dira bereziki aipatzekoak. Lehen esana dut gizarte-legeria edo, era orokorrago batean, masen aldeko eraberritze instituzionalak, ez dela izan gizarte kapitalistari indarrez ezarritako karga soil bat, behartsuen miseria beti hazkorra arintzeko beharrian saihes-tezinez, baizik eta, masen maila igotzeaz gainera, haien efektu automatikoen indarrez, prozesu kapitalistak legeria horretarako bitarteko materialak «eta borondatea» ere hornitu dituela. Komatxo arteko hitzek arrazionalitate orokortzailearen printzipioan bilatu behar den azalpen gehigarria behar dute. Prozesu kapitalistak portaera eta ideiak arrazionalizatzen ditu, eta, horiek arrazionalizatzean, uxatu egiten ditu gure gogamenetik, sineste metafisikoekin batera, era guztietako ideia mistikoak eta erromantikoak. Horrela, bada, helburuak lortzeko metodo propioak ez ezik, azken helburu horiek berak ere birmoldatu egiten ditu. «Pentsamendu librea», monismo materialistaren zentzuan, laizismoaren eta hilobiaz honaindiko munduaren onarpen pragmatikoarenean, ez da hortik beharrian logiko batez segitzen, baizik era natural batean. Alde batetik, betebeharraren gure zentzu heredatua, haren oinarri tradizionalaz gabetua, Gizadiaren hobekuntzari buruzko ideia utilitarioen gainean kontzentratzen da, zeinek era guztiz ilogikokan, noski, kritika arrazionalistari hobeki jarkitzen zaizkiola baitirudi Jainkoaren beldurrari baino, adibidez. Bestalde, arimaren arrazionalizazioak berak kentzen die klase-eskubideei bere prestigio supraenpi-

rikoaren aureola guztia. Horiek dira faktoreak, «efikazia» eta «zerbitzua»rekiko suhar tipikoki kapitalistarekin batera (antzinako zaldunak termino horiekin asoziatuko zukeen ideien munduaz zeharo bestelako zentzu batean), elikatu egiten dute «borondate» hori burgesiaren berraren barruan. Feminismoak, esentzialki kapitalista den fenomenoak, oraindik argitasun handiagoz ilustratzen du tesi hori. Irakurlea ohartuko da joera horiek «objektiboki» ulertu behar direla eta, ondorioz, deklamazio anti-feminista edo anti-erreformistak ugariak badira ere, edota neurri bereziren bati oposizio tenporal handia egiten bazaio ere, ezingo lukete ezer frogatu analisi horren aurka. Gauza horiek borrokatu nahi diren joeren sintomak dira hain zuzen ere. Horretara itzuliko gara hurrengo kapituluetan.

Gainera, zibilizazio kapitalista arrazionalista eta «antiheroi-koa» da; bi gauza aldi berean, noski. Industriako eta merkataritzako arakastak iraumen handi samarra eskatzen du; hala eta guztiz ere, jarduera industrial eta komertziala esentzialki ez-heroi-koa da zaldungoaren zentzuan –ez dago zertan ezpatak astindurik haren inguruan, ez eta balentria fisikoak egin beharrik, ez eta zaldi armatu baten gainean trostan ibiltzeko aukerarik ere etsai, hobespenez heretiko edo jentilaren aurka–, eta gudua guduarengatik eta garaipena garaipenarengatik aintzaldutzen duen ideologia zimeldu egiten da, uler daitekeenez, bulegoetan, negozio-gizonen zifra-zutabe guztietan. Beraz, lapurrak eta zerga-biltzaileak erakartzeko modukoak diren ondasunen jabe izatean, eta haren utilitarismo «arrazionala»rekin talka egiten duen bere ideologia gerraria ez partekatzean, are gaitzestean, burgesia industrial eta komertziala oinarritzat pazifista da eta nazioarteko harremanei bizitza pribatuko agindu moralen aplikazioa azpimarratzera makurtzen da. Egia da pazifismoa eta nazioarteko moralitatea (zibilizazio kapitalistaren zertzeladu gehienekiko kontrakarrean, baina beste batzuekiko adostasunean) ingurune ez-kapitalistetan eta organismo prekapitalistek ere defendatu dituztela: Eliza Katolikoak, adibidez, Erdi Aroan. Pazifismoa eta nazioarteko moralitate modernoa, guztiarekin ere, kapitalismoaren emaitzak dira.

Teoria marxiarra –batez ere teoria neo-marxiarra eta iritzi ez-sozialistaren parte ohargarri bat– indar betean baieztapen horren kontra jartzen dela ikusirik, liburu honen lehen atalean ikusi dugunez⁹, beharrezkoa da adieraztea baieztapen horrekin ez dugula ukatu nahi

burgesia askok borroka bikaina egin dutenik beren etheen eta aberrien defentsan, ez eta komunitate batzuek, ia burges hutsak sarritan erasotzaileak izan ez direnik gerra irabazgarria gertatuko zitzaIELA uste zutenean –Atenas eta Veneziaren kasuan bezala–, ez eta ezein burgesiari atsekabezko gertatu zaizkionik noizbait gerra-harrapakinak eta konkistatik merkataritzarako eratorritako abantailak, ez eta burgesiek uko egin diotenik nazionalismo gerrariaren doktrina hartzeari maisu edo buruxkila feudalengandik edota bereziki interesaturiko talderen baten propagandatik. Nik baieztatzen dudana da, lehenik, guduzaletasun kapitalistaren adibide horiek ez direla azaldu behar, bakarrik edo nagusiki, klase-interesaren edo klase-egoraren terminotan, zeinek sistematikoki konkista-gerra kapitalistak sortzen baitituzte, marxismoak azaltzen duenez; bigarren, alde sakona dagoela bizitzako ataza normalizat hartzen dena egitearen eta, zeinerako norbera gaztarotik prestatzen baita eta helduaroan gaitzeari jarraitzen baitzaio, eta zeinarekiko erreferentziaz definitzen baitira bizitza baten arrakasta edo porrota, eta norberaz aparteko ataza bat egitearen artean, zeinerako ez baitira egokiak gertatzen jarrera normalak ez mentalitate propioak, eta zeinaren arrakastak gehitu egingo bailuke profesioetan burgestasun gutxiena duenaren prestigioa, hau da, armena, eta, hirugarren, alde horrek etengabe hitz egiten duela –nola nazioarteko auzietan hala nazionaletan– indar militarren erabilpenaz eta konponketa bakezkoen alde, nahiz eta diru-interesaren saldoa argiro gerraren alde egon, zeina ez baita oso gertakorra egungo zirkunstantzietan jazotzea. Izan ere, zenbat eta kapitalistago izan nazio baten egitura eta jarrera, hainbat pazifistagoa ikusten dugu dela eta makurtuagoa gerra-kostuak kalkulatzera. Eredut single ororen konplexutasuna kontuan harturik, tesi hori analisi historiko xehetu batez bakarrik azal daiteke erabat. Baina militartasunari (armada iraunkorrei) buruzko jarrera burgesa, gizarte burgesek gerra egiten duten espiritua eta metodoak eta ordenazio ez-burges baten mendean beren burua jartzen duten erraztasuna, gerra luzatuko edozein kasu seriotan, gertakari erabakigarriak dira beren kabuz. Teoria marxistak, zeinaren arabera inperialismoa bilakaera kapitalistaren azken estadio baita, huts egiten du objekzio ekonomiko soilak kontuan izan gabe.

Baina ez noa laburbilduma bat egitera, nigandik irakurleak, segur aski espero duenez. Hau da, ez dut gonbidatuko beste behin

ordena kapitalistaren prestazio ekonomiko zirrargarria eta oraindik zirrargarriagoa den kultura-prestazioa kontsideratzera, eta biek eskaintzen duten promes neurgabea bi aspektuen progresurako, giza-ki probatugabeek defendaturiko alternatiba entseatugabe batean bere konfiantza ezartzea erabaki baino lehen. Ez noa argumentatzera prestazio hori eta promes hori aski direla berenez tesia baten lagungarri izateko, zeinaren arabera baimendu egin beharko bailitzaioke sistema kapitalistari funtzionatzen jarraitzea, eta, aldi berean, erraz frogatu ahal izango litzatekeenez, Gizadia pobreziaren fardel astunaz arindu.

Horrek ez luke zentzurik izango. Enpresarioak makineria baten bi piezen artean hautatzeko duen adinako hautapen-askatasuna izango balu ere Gizadiak, nik argiturik utzi nahi izan ditudan gertakarien arteko gertakarietatik eta erlazioetatik ez da derrigor segitzen ezein balio-judizio jakin. Prestazio ekonomikoari dagokionez ez da segitzen gizakiak «zoriontsuago» edo «gusturago» aurkitzen direnik, gaur egungo gizarte industrialean, feudo batean edo Erdi Aroko herrixka batean aurkitzen zirenak baino. Kultura- prestazioari dagokionez, onar daiteke nik idatzi ditudan hitzetako bakoitza eta, hala eta guztiz ere, bihotz propioaren barrenetik bere utilitarismoa gorrotatu eta berekin daraman balio espiritualen erabateko suntsipena. Gainera, alternatiba sozialistaren eztabaidan berriro azpimarratu beharko dudanez, norbera gutxiago interesa daiteke sistema kapitalistak balio ekonomiko eta kultura-alak sortzeko duen efizientziaz kapitalismoak taxuturiko eta gero haien baliabideen baitan bertan behera, hau da, beren bizitzak hondatzeko askatasunean utziriko gizakien espezieaz. Bada erradikal mota bat, zeinaren zibilizazio kapitalistaren aurkako epaia ergelkerian, ezjakintasunean edo erantzukizunik ezan bakarrik oinarritzen baita, zeinak ez baititu gertakari begi-bistakoenak berrezagutu nahi eta askoz gutxiago bere geroko ondorioak. Baina plano garaia baten gainean kokatuz ere epai erabat aurkakora irits daiteke.

Hala eta guztiz ere, prestazio kapitalistari buruzko balio-judizioak faboragarriak edo desfaboragarriak direlarik ere bere interesa urria da, zeren Gizadiak ez baitu ekintza-askatasunik. Hori ez da herriaren masa ez dagoelako alternatibak era arrazionalen konparatzeko moduan eta iradokitzen zaiona beti onartzen duelako bakarrik, baizik eta arrazoi askoz sakonagoa dago horretarako. Sortzen diren fenomeno ekonomikoek bultzatu egiten dituzte norbanakoak eta tal-

deak, nahi bada eta ez bada, era jakin batzuetan portatzera, errealitatean, ez beren hautapen-askatasuna suntsituz, baizik hautapena egiten duten mentalitatean taxutuz eta aukera egiteko ahaltsunen kopurua murriztuz. Hori baldin bada marxismoaren kintesentzia, denok izan behar dugu marxista. Ondorioz, prestazio kapitalistak ez du prognosi baterako ere balio. Zibilizazio gehienak desagertu egin dira beren promesak erabat betetzeko denbora izan baino lehen. Horregatik ez dut argumentatuko, prestazio horren indarrean oinarriturik, *intermezzo* kapitalistak luzatzeko probabilitaterik duenik. Izatez, zehazki kontrajarritako ondoriora iritsiko naiz orain.

XII KAPITULUA HARRESIAK PORROKATZEN

I Enpresarioaren funtzioa zaharkitzea

Inbertsio aukerak desagertzearen teoriari buruzko gure eztabaidan erreserba bat egin zen egunen batean Gizadiaren beharrian ekonomikoak hain osoki bete zitezkeelako ahaltsunaren alde, non zio gutxi gera zitekeen ahalegin ekonomikotik haratago jarraitzeko. Asetasun-egoera hori, zalantzarik gabe, oso urrun dago gugandik, nahiz eta gaur eguneko beharrian-eskemaren barruan mantendu, eta kontuan hartzen badugu, bizi-maila gero eta garaiagoak lortzen diren heinean, beharrian horiek automatikoki dilatatzaren direla eta beharrian berriak jaiotzen edo sortzen direla¹, asetasuna helmuga iheskor bihurtzen da, batez ere aisia kontsumo-ondasunen artean sartzen badugu. Hala eta guztiz ere, begiratu bat emango diogu ahaltsun horri, oraindik era irrealagoan suposatuz ekoizpen-metodoek halako hobekuntza-egoera bat lortu dutela, non ez duten jadanik perfektzio-egoerarik onartzen.

Orduan egoera gutxi-asko geldikor bat etorriko litzateke. Kapitalismoa esentzialki prozesu bilakakor bat izaki atrofiaztera iritsiko litzateke. Enpresarioei ez litzaieke egitekorik geratuko. Bake iraunkorra perfektuki segurtatua legokeen gizarte batean jeneralak leudekeen egoera bere-berean aurkituko lirateke enpresarioak. Mozkinak, eta horiekin interes-tasa, zerorantz konbergituko lirateke.

Estratu burgeseak, mozkinetatik eta interesetik bizi direnek, desagertzera joko lukete. Industria eta merkataritza sortzea ohiko administrazioaren auzi bihurtuko litzateke eta bere pertsonalak, ezinbestean, burokrazia baten ezaugarriak bereganatuko lituzke. Ia automatikoki mota moderatuko sozialismo bat sortuko litzateke. Giza energia desbideratu egingo litzateke negozioetatik. Jarduera estraekonomikoak izango lirateke garunen erakartzaileak eta abenturarako aukera eskainiko luketenak.

Etorkizun aurreikusgarriko ikuspen horrek ez du garrantzirik. Askoz garrantzi handiagoa du gizartearen egiturako eta ekoizpenaren prozesuko antolakuntzako efektu asko, zeinak espero genitzakeen beharrianen asebetetze gutxi gorabehera osotik edota perfekzio tekniko erabatekotik, jadanik argiro ikus daitekeen bilakaera batetik ere espero izan daitezkeelakoak. Progresua bera mekaniza daiteke ekonomia geldikor baten kudeaketa bezain ongi, eta progresuaren mekanizazio horrek enpresa-sistema eta gizarte kapitalista afekta ditzake progresu ekonomikoa gelditzeak ia berak adina. Hori ikusteko aski da gogoratzeta, lehenik, funtzio horrek zer esan nahi duen gizarte burgesarako eta ordenazio kapitalistak bizirik irauteko.

Jadanik ikusia dugu enpresarioaren funtzioa ekoizpen-sistema eraberritzean edo iraultzatzean datzala, asmakari bat ustiatuz, edo, era orokorragoan, esperimentatu gabeko ahaltsun tekniko bat merkantzia berri bat ekoizteko edo antzinako merkantzia bat metodo berri batez, lehengaien horniketa-iturri bat irekitzeko edo ekoizkinentzat irteera berri bat, industria bat berrantolatzeko, eta abarrerako. Burdinbidegintzak bere lehen etapetan, energia elektrikoaren ekoizpenak Lehen Mundu Gerratearen aurretik, lurrinak eta altzairuak, automobilak, abentura kolonialak, horiek guztiek adibide ikusgarriak eskaintzen dituzte negozio-sail handi batean, zeinek beren baitan baitituzte ezin zenbatu ahala adibide apalago, eskalaren maila behearenean hesteki mota berezi bat edo hortz-eskobila bat arrakastarekin lortzea bezalako gauzetara iristeraino. Jarduera mota hori, ezer baino lehen, organismoa ekonomikoa iraultzatzen duten «prosperitate» errepikariei leku ematen diena, baita produktu edo metodo berrien eragin desorekatzaileari zor zaizkion «atzerapen» errepikariei ere. Zaila da berrikuntza horiek praktikara eramatea, eta funtzio ekonomiko berezia da; lehenik, mundu guztiak ulertzen dituen ataza errutinazkoez kanpo

daudelako, eta, bigarren, kanpo-ingurumenak horri erresistentzia er-
anitzea aurkezten diolako, zeina baitoa, baldintza sozialen arabera,
gauza berri bat finantzatu edo erosteko errefusapen soiletik ekoiztu
nahian dabilen gizakiari eraso fisiko bat egiteraino. Konfiantzaz ari-
tzeko biztanleriaren frakzio txiki batean bakarrik gertatzen diren gai-
tasunak behar dira eta enpresarioaren mota eta funtzioa ezaugarritzen
dituztenak. Funtzio hori ez dago, esentzialki, zerbait asmatzean, ez eta
enpresak ustiatzen dituen baldintzak beste era batera sortzean ere.
Burutzapenak lortzean datza.

Funtzio sozial hori jadanik garrantzia galtzen ari da eta etorki-
zunean erritmo agurotuz galtzera bideraturik dago, nahiz eta pertur-
baziorik gabe jarraitu eraentza ekonomiko berak, zeinarentzat enpre-
sa-sistema indar bultzatzaile nagusia izan baita. Izan ere, alde batetik,
askoz errazagoa baita orain, iraganean baino, errutina ezagututik
kanpo dauden egitekoak burutzea, nahiz eta berrikuntza bera errutina
bihurtzen ari den. Progresu teknikoa, gero eta neurri handiagoan,
espezialista gaituzko taldeen zeregin bihurtzen ari da, zeinek eskatu-
takoa ekoizten baitute, eta zeinen metodoek beren ikerketen emaitza
praktikoak aurreikustea ahalbidetzen baitie. Lehen aldietako merkata-
ritza-abenturaren erromantizismoa laster batean doa beheraka, zeren
orain zehaztasun osoz kalkula baitaiteke lehen intuizio genialezko
bristada batean erdi-kusi behar ziren gauza asko.

Bestalde, nortasunak eta nahimen-indarrak zerikusi txikiagoa
du aldaketa ekonomikora ohitu den kanpo-ingurune batean –zeinaren
adibide hoberena kontsumo eta ekoizpeneko salgai berrien korrante
atergabea baita–, eta zeinari erresistentziarik egin gabe, gauza arrunt
gisa onartzen baitute. Ekoizpen prozesuan buruturiko berrikuntzek
mehatxaturiko interesetatik datorren erresistentzia segur aski ez da
iraungiko ordena kapitalistak dirauen bitartean. Erresistentzia hori,
adibidez, etxebizitza merkeak sailean ekoizteko bidean tartejartzen
den traba handia, zeinak errotiko mekanizazioa suposatzen baitu eta
eraginkortasunik gabeko lan-metodo guztiak erabat ezabatzea orube
berean. Baina gainerako erresistentzia-era guztiak –batez ere kontsu-
mitzaileek eta ekoizleek ekoizkin berri bati berria delako dioten erre-
sistentzia– ia erabat desagertu dira.

Horrela, bada, progresu ekonomikoak despertsonalizatzera eta
automatizatzerara jotzen du. Bulego- eta batzorde-lanak ekintza indibi-

duala ordezteko joera du. Beste behin konparaketa militar batek lagunduko digu puntu esentzial hau zehazten.

Lehen, Napoleonen gerrak barnean hartzen zituen garaira arte gutxi gorabehera, jeneralgoak buruzagigoa esan nahi zuen, eta arrakastaz agintea zeukan eta prestigio sozial eran zegozkion «mozkinak» irabazten zituen gizonaren arrakasta pertsonala ulertzen zen. Gerraren teknika eta armaden egitura ziren bezalakoak zirelako buruzagiaren erabaki indibiduala eta aginte-dohainak –haren presentzia efektiboa zaldi ikustetsu baten gainean– elementu esentzialak ziren egoera estrategiko eta taktikoetan. Napoleonen presentzia modu efektiboan sentitzen zen eta sentitu behar zen borroka-zelaietan. Hori orain ez da horrela. Bulegoko lan arrazionalizatu eta espezializatuak azkenerako ezabatu egiten du nortasuna, emaitza kalkulagarriak ordeztzen du «ikuspena». Buruzagiak orain ez du gudura oldartzeko aukerarik. Bulegoko beste enplegatu bat gehiago, ordezteko beti zaila ez den enplegatu bat gehiago bihurtzeko zorian dago.

Beste analogia militar bat aurkez dezakegu. Erdia Aroan zuten gerra egiteko modua oso arazo pertsonala zen. Zaldunek, beren armadurez estalita, beren bizitza osoan landuriko gaitasuna eskatzen zuen artea praktikatzen zuten, eta haietako bakoitzak banaka kontatzen zuen bere trebezia pertsonala eta bere balentriengatik. Erraz ulertzen da profesio hori klase sozial baten oinarri zergatik bihurtu zen, hitzaren zentzu bete eta esanguratsuenean. Gerra ez zen arrazoi horrengatik desagertu. Gero eta mekanizatuago besterik ez zen bihurtu, halako punturaino, non orain profesio soila den horretan arrakasta handia bada ere, jadanik ez darama burutzapen indibidualaren egozpen hura, gizakia ez ezik haren taldea ere buruzagitza sozialeko posizio iraunkor batera jasoko zuena.

Horrelako prozesu sozial batek (azken analisi batean, prozesu sozial berak) azpia jaten dio orain enpresario kapitalistaren eginkizunari eta, aldi berean, posizio sozialari. Haren eginkizuna, Erdi Aroko jaunena, handiena zein txikiena baino distira gutxiagokoa bada ere, beste buruzagitza indibidual era bat da edo zen areago, arrakastarako energia pertsonalaren eta erantzukizun pertsonalaren indarrez jokatzen zuena. Haren posizioa, klase militarrena bezala, mehatxaturik aurkitzen da prozesu sozialean betetzen duen funtzioak bere garrantzia galtzen duen unetik, bai hori asetzen zituen beharrian sozialak

desagertu direlako edo bai beharrian horiek metodo inbertsonalago-
ez asebetetzen direlako.

Baina horrek estratu burges guztia afektatzen du. Nahiz eta enpresarioak ez izan derrigor, ezta tipikoki ere, estratu horretako ele-
mentuak haien karreraren hasieratik, bertan sartzen dira, hala ere,
arrakasta baldin badute. Horrela, nahiz eta enpresarioek ez eratu *per se*
klase sozial bat, klase burgesak hurrupatu egiten ditu, baita haien
famihiak eta ahaideak ere, gaztetuz eta biziberrituz horrenbestez era
iraunkorrean, baina aldi berean «negozio»ekiko beren erlazio aktibo-
tik aldentzen diren famihiak hartatik irten egiten dira belaunaldi baten
edo biren buruan. Horien artean dago industrial, merkatai, finantzari
eta bankujabe deitzen ditugunen masa, zeina tarteko etapan aurkitzen
baita enpresarioen abenturaren eta posizio heredatu baten ohiko admini-
strazio huts baten artean. Klase hori bizi deneko errendimenduak
sektore gutxi-asko aktibo horren arrakastak sorturikoak dira –zeinak
errepresenta baitezake, noski, Estatu Batuetan gertatzen denez, estra-
tu burgesaren ehuneko laurogeita hamar baino gehiago– eta klase
horretara igotzeko zorian dauden norbanakoenak; arrakasta horren
gainean ere bermatzen da klasearen posizio soziala. Beraz, burgesia
ekonomikoki eta soziologikoki, zuzenean edo zeharka, enpresarioaren
baitan dago eta, klase gisa, berarekin biziko eta hilko da, nahiz eta oro
gertakorra den iragaitza-etapa gutxi-asko luzatua izatea, zeinean bur-
gesia azken finean era berean ezgai senti baitaiteke hiltzeko eta bizi
izateko, zibilizazio feudalaren kasuan gertatu zenez.

Gure tesiaren parte hau laburbiltzeko: baldin eta bilakaera
kapitalistak –«progresuak»– izateari uzten badio edo erabat automati-
zatzen bada, burgesia industrialaren oinarri ekonomikoa azken finean
lan administratibo arruntaren truk ordaintzen direnen antzeko alokai-
ruetara murriztuko da, hondar kuasi-errenta eta irabazi monopoloi-
deak salbu, zeinak luzatuko direla espero izateko baita, nahiz eta gutxi-
tuz, denbora batean. Enpresa kapitalistak, bere prestazio propioen
indarrez, progresua automatizatzeko joera duenez, horretatik ondo-
riotzatzen dugu bere burua alferreko egiteko joera duela, bere arra-
kasta propioaren presiopean txikimila egiteko. Unitate industrial
erraldoi, perfektuki burokratizatuak ez du bakarrik deslekitzen enpre-
sa txikia eta tamaina ertainekoa eta «desjabetzen» ditu haien jabeak,
baizik eta azkenerako enpresarioa bera deslekitzen du eta burgesia

klase gisa desjabetzen du, zeinak prozesu honetan ez baitu bere errenta galtzeko arriskua bakarrik baizik eta, infinituki garrantzitsuagoa dena, bere funtzioa. Sozialismoaren egiazko bide-urratzaileak ez dira predikatu zuten intelektualak edo agitatzaileak izan, baizik eta vanderbiltarrak, carnegietarrak eta rockfellerarrak. Emaiza hau baliteke ez izatea inondik ere sozialista marxiarren gustukoa, eta oraindik gutxiago espezie herritarrago bateko (Marxek arruntago esango zukeen) sozialisten gustukoa baina, prognosiari dagokionez, ez da haienetik desberdintzen.

II Estratu babesleen suntsipena

Orain arte kontsideratu ditugu bilakaera kapitalistak dituen efektuak gizarte kapitalistako goi-estratuak sostengatzen dituzten oinarri ekonomikoen gain, baita horien posizio eta prestigio sozialaren gain ere. Baina efektu horiek hedatu egiten dira, gainera, babesten zituen koadro instituzionalera. Hori agerian jartzean esamoldea bere adierarik zabalean erabiltzen dugu, lege-instituzioei ez ezik iritzi publikoaren eta alderdi politikoen jarrerari ere aplikatuz.

1. Bilakaera kapitalista suntsitzetik hasi zen edo asko egin zuen mundu feudaleko ordenazio instituzionalak suntsitzeko: ogasun feudala, herrixka, artisauen gremioa. Prozesu horren gertakariak eta mekanismoa ezagunegiak dira berorietan geratzeko. Suntsipena hiru modutara egin zen. Artisauaren mundua, batez ere, enpresario kapitalistarengandik abiatzen zen konkurrentziaren efektu automatikoek suntsitu zuten; ekintza politikoak, antolakuntza eta ordenantza atrofiatuak ezabatzean, emaitzak berrestea besterik ez zuen egin. Jaunaren eta baserritarraren mundua, nagusiki, ekintza politikoak –zenbait kasutan iraultzailea izan zenak– suntsitu zuen, eta kapitalismoak eraldakuntza moldatzezkoak bideratzea baizik ez zuen egin, adibidez, Alemaniako nekazari-antolakuntza feudalak eskala handiko nekazaritza-ekoizpeneko unitatetan. Baina iraultza industrial eta nekazaritzako horien alboan, agintaritza legegilearen eta iritzi publikoaren jarrera orokorrean iraultzailetasun gutxiagokoa ez zen aldaketa bat obratzen ari zen. Antzinako antolakuntza ekonomikoarekin batera klase edo taldeen pribilegio ekonomiko edo politikoak ilaundu egin ziren, zeinek burutzen baitzuten hartan egiteko zuzentzailea, bereziki zergen

exentzioa eta lur-noblezia garai eta beherearen eta apezleriaren prerrogatiba politikoak.

Ekonomikoki, horrek guztiak esan nahi izan zuen beste hainbeste kate etetea eta beste hainbeste eragozpen ezeztatzea burgesia-rentzat. Politikoki, esan nahi izan zuen eraentza bat ordezte, zeinean burgesa mendeko apala baitzen, haren mentalitate arrazionalistari hobeki zegokion eta haren interes bitartegabeentzat aldekoagoa zen beste eraentza batez. Baina bilakaera horri gure egunotako ikuspegitik begiratzean, behatzaileak oso ongi galde liezaioke bere buruari azken finean erabateko emantzipazio hori mesedegarria izan den burgesarentzat eta haren munduarentzat. Zeren eten ziren katea haiek ez baitzioten trabatzat bakarrik zerbitzatzen, baita babestzat ere. Aurrerago jo baino lehen arretaz argitu eta prezatu behar dugu puntu hori.

2. Burgesia kapitalistaren sorreraren eta estatu nazionalen sorreraren prozesu korrelatiboek, XVI, XVII eta XVIII. mendeetan, anfibio iritz geniezaiokeen egitura sozial bat sortu zuten, nahiz eta beste edozein baino anfibioagoa edo iragankorragoa ez izan. Kontsidera bedi Louis XIV.aren monarkiak eskaintzen duen adibide adierazgarria. Errege-botereak menderatu egin zuen lur-aristokrazia eta aldi berean berarekin adiskidetu zen enpleguak eta pentsioak eskainiz eta klase nagusikoi edo zuzentzaile posiziorako zuen uzia baldintzapean onartuz. Errege-botere berak menderatua zuen apezzeria eta berarekin aliaturik zegoen². Azkenik, indartu egin zuen burgesia-ren, lurralde-magnateen aurkako borrokan antzinako aliatu izan zutenaren gaineko bere eragina, bere enpresa-espiritua babestuz eta estimulatuz, bere aldetik, era efektiboagoan ustiatzeko. Luginak eta proletalgo industrial txikia botere publikoak antzeko eran zuzendu, ustiatu eta babestu zuen (nahiz eta *ancien régime* frantsesaren kasuan babesa askoz ezkutukoagoa bazen ere, esaterako, Austriako Maria Teresaren edo Jose II.aren kasuan baino) eta delegatuki lurjabeek edo industrialek. Hori ez zen, besterik gabe, XIX. mendeko liberalismoak ematen zion zentzuan gobernu bat, hau da, hertsiki mugatuak diren funtzio batzuk burutzeko dagoen erakunde sozial bat, zeinak zerga gutxieneko batez finantzatu behar baitira. Printzipioz, monarkiak dena gobernatzen zuen, kontzientziatik hasi eta Lyongo lantegietako zeta-ereduetarainokoa, eta finantzarioki zerga-bilketa ahalik eta han-

diena egin nahi zuen. Nahiz eta erregea ez zen inoiz erabat absolutua izan botere publikoak dena besarkatzen zuen.

Gure helbururako garrantzirik handienekoa da sistema horren diagnosi zuzena. Erregea, gortea, armada, eliza eta burokrazia prozesu kapitalistak sortutako errentaren gainean bizi ziren gero eta gehiago, eta feudal hutsak ziren errenta-iturriak ere hanpatu egin ziren garapen kapitalista aldikidearen ondorioz. Politika nazionala eta atzerriarra eta erreforma instituzionalak gero eta gehiago taxutu ziren progresu horretara moldatzeko eta hari bultza egiteko. *Hori horrela izanik*, monarkia absolutu deituaren egituran zirauten elementu feudalek atabismo izenburupean bakarrik dute lekua, zeina, izatez, lehen begiratuan makinalki onartuko litzatekeen diagnosia baita.

Hurbilagotik begiratzuz gero, hala ere, elementu horiek atabismoak baino zerbait gehiago esan nahi dutela ikusten dugu. Egitura horren altzairuzko armazoa oraindik ere gizarte feudalaren giza materiala zen eta material horrek arau prekapitalisten arabera portatzen jarraitzen zuen. Nobleziak zeuzkan hartuak Estatuaren bulegoak, ofizialez hornitzen zituen armada, neurri politikoak asmatzen zituen; azken finean, *classe dirigente* batek bezala funtzionatzen zuen, eta, interes burgesak kontuan hartzen bazituen ere, arreta handiz urruntzen zen burgesiatik. Sistemaren giltzarria, erregea, Jainkoaren graziaz zen errege, eta bere posizioaren erroa feudala zen, ez bakarrik zentzu historikoan, baita soziologikoan ere, nahiz eta abantaila ugari lortu kapitalismoak eskaintzen zizkion ahaltsun ekonomikoetatik. Hori guztia atabismoa baino zerbait gehiago zen. Bi estratu sozialen sinbiosi aktiboa izan zen, zeinetako batek, zalantzarik gabe, bermatzen baitzuen ekonomikoki bestea, baina, aldiz, politikoki besteak sostengatzen zuen hura. Ordenazio honen arrakastez edo gabeziez zernahi pentsatzen dugularik ere, burgesiak berak ere zernahi pentsatzen zuelarik ere orduan edo gero hartaz, –baita aristokrata galduez edo nagiez–, sinbiosi hura esentziala zen gizarte harentzat.

3. Gizarte *harentzat* bakarrik? Gauzen ondorengo joairak, kasu ingelesak ezin hobeki ilustratuak, iradokitzen du erantzuna. Elementu aristokratikoa agintaritzan aritu zen *kapitalismo ukigabe eta bitalaren aldiaren amaiera arte hain zuzen*. Zalantzarik gabe, elementu horrek hurrupatu zituen –nahiz eta Ingalaterran bezain efektiboki beste inon ez egin– gainerako estratuetatik irtendako garunak eta politikara bide-

ratu zituen; interes burgesen errepresentazioa hartu zuen bere gain eta burgesiaren batailak egin zituen; azken lege-pribilegioei uko egin behar izan zien; baina mugakizun horiekin eta jadanik bere propioak ez zituen xedeetarako, makina politikoaren zuzendariak hornitzen jarraitu zuen, estatua gidatuz, gobernatuz.

Estratu burgesaren alderdi ekonomikoki aktiboak ez zion oposizio handirik jarri horri. Oro har, lanaren banaketa gisako hori komeni zitzairen eta atsegin zuten. Horren kontra jaiki ziren tokian edo gailur politikora igo ziren tokian jaiki gabe ez zuten izan aipatzea merezi duen gobernu-arakastarik eta berenez irauteko gaitasunik ere ez zuten erakutsi. Auzia planteatzen da, beraz, ea segurtasunez onar daitekeen porrot horiek burgesiak esperientzia hartzeko aukera-gabeziarengatik bakarrik diren eta, esperientziarekin, klase politikoki nagusikoi baten jarrera hartzeko.

Erantzuna ezezkoa da. Bada arrazoi oinarritzkoagoa porrot horietarako, zeinetaz eskaintzen baitituzte adibide onak esperientzia alemaniar eta frantsesak gobernu burgesen beren entseguetan, eta arrazoi hori berriz ere argitasun handienarekin ikusiko da industrialaren edo merkatariairen figura jaun ertarotarrarekin alderatuz. Azken horren «profesioa»k ez zuen miragarriki kualifikatzen bere klase-interesen defentsarako bakarrik, ez zen fisikoki haien alde borrokatzeko gai bakarrik, baizik eta aureola batez inguratzen zuen eta gizaki-menderatzaile bihurtzen zuen. Lehena garrantzitsua zen, baina areago ziren prestigio mistikoa eta jaun-jarrera, agintzeko eta obediarazteko gaitasun eta aztura hori gizarteko klase guztietan eta bizitzako instituzio guztietan begirunea eragiten dutenak. Prestigio hori hain zen handia eta jarrera menderatzaile hori hain zen eraginkorra, non nobleziaren klase-posizioak jaioarazi zuten baldintza sozial eta ekonomikoez haratago iraun baitzuen, eta baldintza sozial eta ekonomiko zeharo bestelakoetara moldatzeko gai agertu baitzen, bere klase-funtzioaren eraldakuntzaen bitartez. Jaun eta zaldunak erraztasun eta grazia handienaz itxuraldatu ziren gortesau, funtzionario administratibo, diplomatiko, politiko eta ofizial militar, halako motako, non ez baitzuten inolako zerikusirik Erdi Aroko zaldunarekin. Eta pentsatzen jartzen garenean honetan gehien harritzen gaituen fenomeno da antzinako prestigio horren hondar batek oraindik bizirik dirauela gure egunotan eta ez bakarrik jaunen artean.

Industrial eta merkatariarekin alderantzizkoa gertatu da. Segur aski, ez dago inolako distira mistikoaren aztarnarik haien inguruan, gizakiak menderatzeko hain garrantzitsua den horrenik. Burtsa Grial Santuaren oso ordezeko eskasa da. Dagoeneko ikusi dugu industrialak eta merkatariak, enpresario diren heinean, buruzagitza-funtzio bat ere betetzen zutela. Baina mota horretako buruzagitza ekonomikoak ez du gaitasun hori, Erdi Aroko jaunen buruzagitza bezala, nazioen buruzagitzara hedatzeko. Aitzitik, liburu nagusiak eta kostuen kalkuluak hurrupatu eta preso hartzen dute.

Arrazionalista eta ez-heroikotzat kalifikatu dut burgesia. Bere posizioa defendatzeko edo nazio bat bere nahimenera makurrarazteko bitarteko arrazional eta ez-heroikoak bakarrik erabil ditzake. Haren prestazio ekonomikotik jendeak espero dezakeenaren bitartez obra dezake bere eragina, bere defentsa argumenta dezake, dirua ordaintzea agin dezake edo ukatzeaz mehatxa, *condottiero* baten zerbitzuak akura ditzake edo politikariarenak edo kazetariarenak. Baina hori da dena, zeina handikiro plusbaliotua baita bere balio politikoari dago-kionez. Haren esperientziak eta bizi-azturak ere ez dira lilura pertsonala garatzeko izaera egokikoak. Negozioetarako genio izan daiteke, eta sarritan hala izaten da, erabat gaieza, bere bulegotik kanpora, antzara bat uxatzeko, nola aretoan hala tribunan. Hori badakienez, bakarrik geratu nahi du eta bakean utzi politika. Berriro salbuespenak etorriko dira irakurlearen irudimenera. Baina horiek ere ez dira garrantzi handikoak. Burgesek udal-administrazioarako duten gaitasuna eta jarduera horretan duten interesa eta arrakasta dira Europan aipa daitekeen salbuespen garrantzitsu bakarra eta horrek, ikusiko dugunez, errebertxatu egiten du gure tesia ahuldu beharrean. Metropoli modernoaren etorreraren aurretik, jadanik gauza burgesa ez dena, hirien administrazioa negozioenaren antzekoa zen. Arazoen ulerkuntza eta haren esparruetako agintaritza fabrikatzailearen gain zegoen eta industriaren eta merkataritzaren tokiko interesak ziren udal-politikaren objektu nagusia, zeina horrengatik bulego merkantil baten meto-doen eta espirituaren arabera eramateko modukoa gertatzen baitzen. Faboragarritasun apartekoa zuten baldintzetan erro horietatik kimuak ermetzen ziren, zeinek salbuespeneko garapena lortzen baitzuten, Venezia eta Genovako kasuetan bezala. Herrialde Behereen kasua kategoria beraren barruan sartzen da, baina bereziki irakasgarritasun

handikoa da merkatarien errepublika horrek behin eta berriz huts egin zuelako nazioarteko politikaten joko handian, eta, ia edozein beharri-zan-egoeratan, boterearen hedeak izaera feudaleko jaun militar baten eskuetan jarri behar izan zituen. Estatu Batuei dagokienez erraza litza-teke zirkunstantzia bereziki faboragarriak aipatzea –nahiz eta behera-kada lasterrean– negozio-gizonen hegemonia azaltzen dutenak.

4. Ondorioa begi-bistakoa da; salbuespeneko baldintza horiek alde batera utzirik, klase burgesa gaizki ekipaturik dago barneko eta nazioarteko arazoei aurre egiteko, zeinei aurre egin behar izaten baitie garrantzi pixka bat duen edozein herrialdek. Burgesak berak konturatzen dira horretaz, ustez ukatu egiten duela dirudien erretolika guztia gorabehera, eta beste hainbeste gertatzen zaie masei. Material burgesez egin gabeko marko baten barruan burgesiak arrakasta politiko-a izan dezake ez bakarrik defentsiban, baita ofentsiban ere, oposizio gisa batez ere. Halako denboraldi batean hain seguru sentitu zen, non babesten zuen koadroa bera erasotzeko luxua izan baitzuen; Alemania inperialean izan zenak oposizio burgesak ezin hobeki ilustratzen du hori. Baina burgesa ez den talderen baten babesik gabe, burgesia politikoki gerizagabeturik dago eta nazioa gidatzeko gai ez izateaz gainera, bere klase-interesak defendatzeko ere ez da gai, eta hori nagusi bat behar duela esatea da³.

Baina prozesu kapitalistak, nola bere mekanismo ekonomiko-koz hala bere efektu psikosozilogikoz, gainetik kendu du nagusi babesle hori, eta ez dio inoiz utzi, ez hari eta ez haren ordekoari, garatzeko aukerarik, Estatu Batuetan bezala. Hemendik atera daitezkeen ondorioak prozesu bereko beste konsekuentzia batez indartu egiten dira. Bilakaera kapitalistak ezabatu egiten du ez bakarrik *Dei Gratia* erregea, baizik eta erreduktu politikoak, mantentzeko gai izan balira, herrixkatik eta artisauen gremiotik eratuko zirenak. Begi-bistan dago bi antolakuntza horietako ezein ez zela defendagarria kapitalismoak aurkitu zituen era zehatzean. Baina politika kapitalistak bere suntsipena ekidinezina zena baino askoz haratago eraman du. Eraso egin zion artisauari denbora mugagabea bizirik iraun zezakeen lurralde erresebatuetan. Luginari indarrez ezarri zizkioten liberalismo primitiboaren bedeinkapen guztiak, hau da, jabetza libre eta aterpegabea eta bere burua urkatzeko behar zuen soka indibidualista guztia.

Gizartearen marko prekapitalista haustean kapitalismoak hau-tsi egin zituen, beraz, ez bakarrik bere progresua eragozten zuten hesi guztiak, baita porrokatzea eragozten zuten ostiko-arkuak ere. Suntsitze-prozesu hau, zirrargarria bere behartasun gupidagabearen-gatik, ez zegoen instituzioetatik zur hila apartatzean soilik, baizik kideak estratu kapitalistatik apartatzean, zeinarekiko sinbiosia ele-mentu esentziala baitzen sistema kapitalistan. Gertakari hori agerian jarri ondoren, hainbeste topikok ilundua, oso ongi galde egin diezaio-kegu ea erabat zuzena al den kapitalismoa forma sozial *sui generis*izat hartzea edo, izatez, ez ote den feudalismo deitzen dugunaren deskon-posaketaren azken etapa. Oro har, nire ustea da haren berezitasunak aski direla hura gizarte mota propio bat bihurtzeko eta arau gisa onar-tzeko salbuespen gisa baino areago klaseen sinbiosi hori, zeina existi-tzen baita aro eta prozesu desberdinengatik, zeren, gutxienez, arau izan baita azken sei mila urteotan, hau da, zaldizko nomadek lehen lur-lantzaileak menderatu zituztenetik. Baina, halaber, ez dut ikusten aipatu dudan irizpidearen aurka jar daitekeen objekzio handirik ere.

III Gizarte kapitalistako marko instituzionalaren suntsipena

Geure digresiotik gertakari alarmagarritzko zama batekin itzuli gara. Ia aski dira, erabat ez bada ere, gure hurrengo puntua oinarritze-ko, hau da: prozesu kapitalista, gizarte feudalaren marko instituziona-la suntsitu duen bezala, bere propioa ere suntsitzen ari dela.

Gorago adierazi dugu enpresa kapitalistaren arrakastak berak paradoxaz berari bereziki loturiko klasearen prestigioa edo pisu sozia-la narriatzeko joera duela eta enpresa erraldoiak burgesia funtziotik kentzeko joera duela, zeinari zor baitio bere garrantzi soziala. Mundu burgeseko instituzioen esanahian dagokion aldaketa eta bere jarrera tipikoan izan duena, baita aldaketa horrek berekin eraman duen bizi-tasun-galera ere, erraz deskribatzeko modukoak dira.

Alde batetik, prozesu kapitalistak ezinbestean erasotzen dio ekoizle txiki eta merkatari txikiaren oinarri ekonomikoari. Estratu prekapitalistarekin egin zuena industria kapitalistako estratu behe-rea-rekin ere egiten du, eta, izatez, konkurrentziako mekanismo beraren indarrez. Marxek hemen puntu asko irabazten ditu, noski. Egia da

kontzentrazio industrialeko fenomenoak ez datozela erabat bat horri buruz jendeari irakasten zaizkion ideiekin (ikus bedi XIX. kapitulua). Prozesua ez da hain urrunera joan eta dibulgazioko azalpen askotatik ondorioztatzen dena baino atzeratze eta joera konpentsatzaileei lotuago dago. Bereziki, eskala handiko enpresak deuseztu bakarrik ez du egiten, sortu ere egiten du, neurri batean, ekoizpen-enpresa txikiago-arentzako espazioa eta enpresa komertzial txikiarentzat bereziki. Mundu kapitalistak baserritar eta nekazarien kasuan, azkenean erakutsi ditu nahimena eta gaitasuna kontserbazio-politika garesti bat, baina oro har eraginkorra dena segitzeko. Luzera, hala ere, ia ezin liteke zalantzarik egon pixkanakako kontzentrazioaren fenomenoari ezta bere ondorioei buruz ere. Gainerakoan, nekazaritzako alorretik kanpora burgesiak arazoaren eta ordena kapitalistak bizirik irauteko bere garrantziaren ezagutza urria erakutsi du⁴. Ekoizpenaren antolakuntzaren arrazionalizazioaren bidez eta batez ere merkantziek lantegitik azken kontsumitzailearenganaino egiten duten bide malkarra merketzearen bidez lor daitezkeen mozkinak pisu handiegia dute negozio-gizonaren irudimenak erresisti diezaion ikuspegi hain erakargarriari.

Orain garrantzitsua da aurkitzea zertan dauden hain zuzen ere ondorio horiek. Jadanik aurkitu garen kritika sozialaren mota oso arrunt batek «konkurrentziaren beherakada» deitoratzen du eta kapitalismoaren beherakadarekin erkatzen du, konkurrentziari egozten dizkion bertuteengatik eta «monopolio» industrial modernoek egozten dizkien bizioengatik. Interpretazio-eskema horren arabera, monopolizazioak arterioesklerosiaren eginkizuna du, eta ordena kapitalistako ahalatasunen gain gero eta prestazio ekonomiko asegabeago baten bitartez erreakzionatzen du. Dagoeneko ikusi ditugu tesi hori errefusatzeko dauden arrazoiak. Ekonomikoki ez konkurrentziaren abantailak, ez domeinu ekonomikoaren kontzentrazioaren eragozpenak ez dira tesi horrek adierazten dituen bezain ohargarriak. Eta, ahulak edo irmoak izan, gaineratik pasatzen dute punturik gailenena. Nahiz eta *concern* erraldoiak denak zeruko aingeruen txaloak biltzeko bezainbateko perfekzioz eraenduak egon, kontzentrazioaren ondorio politikoek ez liokete diren hori izateari utziko. Nazio baten egitura politikoa sakon afektaturik geratzen da enpresa txiki eta ertain mordo bat ezabatuz gero, zeinen kudeatzaile-jabeek, beren dependente, zerbitzari eta ahai-deekin batera, pisu kuantitatiboa baitute hautes-ontzietan eta enpresa

handi bateko kudeatzaileek inoiz eduki ahal izan ez duten eragina dute koadroen klasea dei dezakegunaren gain; jabetza pribatuaren eta kontratazio-askatasunaren oinarriak berak arrakalatu egiten dira nazio batean, zeinean ezabatzen baitira herriaren ortzemuga moraletik esku-bide horien agerpen bizien, konkretuen eta esanguratsuenak.

Bestalde, prozesu kapitalistak bere armazoi instituzional propioari ere eraso egiten dio (jarrai dezagun kontsideratzen «jabetza» eta «kontratazio-askatasuna» *partes pro toto* gisa) enpresa handien esparruen barruan. Oraindik garrantzi handi samarrekoak diren kasuak salbu, zeinean sozietate bat praktikoki norbanako edo familia bakar baten jabetza baita, jabearen figura, eta berarekin jabearen interes espezifiko eta zuzena, ezabatu egin da koadrotik eta bertan organo exekutatzaille soldatapekoak eta kudeatzaile eta azpikudeatzaile soldatapekoak aurkitzen ditugu. Badira akziodun handiak, baita akziodun txikiak ere. Lehen taldeak enpleguaren jarrera hartzeko joera du eta nekez identifikatzen da, identifikatzera iristen bada, akziodunen interesarekin, ezta kasurik faboragarrienetan ere, hau da, *concernaren* interesarekin identifikatzen den kasuetan halakoa den heinean. Bigarren taldea, nahiz eta *concernarekiko* bere erlazioa iraunkortzat jotzen duen eta akziodunak teoria finantzarioaren arabera portatu beharko luketen moduan efektiboki portatzen denarren, urrundurik dago aldi berean jabe baten funtzio eta jarreratik. Hirugarren taldeari dagokionez, akziodun txikiak ia inoiz ez dira asko arduratzen haietako gehienentzat errenta-iturri txiki bat baizik ez denaz eta, arduratu ala ez, ez dute horregatik nekerik hartuko administratzaileak deserosotzeko dituzten bitartekoak, zuzenean edo tarte-jarritako pertsonen bidez, ustiatzen saiatzen diren kasuetan salbu; sarritan oso gaizki tratatuak direnez eta oraindik maiztasun handiagoz gaizki tratatuak direla uste dutenez, ia era erregularrean hartzen dute jarrera etsaikor bat «beren» sozietateekiko, enpresarekiko oro har. Eta, bereziki gauzak gaizki doazenean, ordena kapitalistarekiko bere horretan. Hiru talde horietako ezein elementu, zeinean eskematizatu baitut sozietateen egoera tipikoa hartzen du baldintzagabeki «jabetza» esamoldeaz ulertzen den hain zentzuz betea eta hain bizkor iraungi-zeko bidean dagoen fenomeno bitxi horren jarrera karakteristikoa.

Kontratazio-askatasunak gaitz bera du. Bere bizitasun beteko aroan hautapen indibidual batek erregulaturiko kontratazio indibi-

duala esan nahi zuen ahalatasunen kopuru zehaztugabe baten artean. Gaur eguneko kontratu estereotipatu, desbanakotu, despertsonalizatu eta burokratizatuak –horrek aplikazio askoz orokorragoa du, baina *a posteriori* lan-kontratuari egotz diezaiokegu–, zeinak ez baitu hautapen-askatasun mugatu baizik eskaintzen, eta ia beti *c'est à prendre ou à laisser* batera murrizten baita, ez baitu gordetzen antzinako zertzeladetakorik bat ere, zeinetariko garrantzitsuenak beste *concern* erraldoi batzuekin edo langileen edo kontsumitzaileen masa inpersonalekin tratatzen duten *concernen* existentziarekin bateraezinak baitira. Gure lege-eraikuntzen oihan tropikal batez betetzen da hutsunea, eta gogoeta apur batek erakusten du nekez izan litekeela hori beste era batera.

Horrela, bada, bilakaera kapitalistak hondoraino herrestan eramatzen ditu instituzio horiek guztiak, batez ere jabetza eta kontratazio-askatasuna, jarduera ekonomiko egiazki «pribatu» baten beharrian eta praktikei erantzungo lieketenak. Derogatzen ez dituen tokian, lan-merkatuan kontratazio-askatasuna jadanik derogatu duenez, emaitza bera lortzen du dauden forma legalen garrantzi erlatiboa desplazatuz –adibidez, sozietate anonimoak propioak dituen lege-formak partaidetzako sozietateari edo enpresa indibidualari dagozkien aurrean –edo beren edukia edo esanahia aldatuz. Bilakaera kapitalistak, lantegi bateko murruiak eta makinak aldatzean akzio-pakete soil batez, desbitalizatu egiten du jabetza ideia. Behiala hain sendoa izan zen arma-aren ahala narriatzen du, hau da, jabeak bere ondasunen gain duen ahala, lehenik berea duenarekin gogoak ematen diona egiteko ahal-atasun efektiboa ahulduz, eta gero titulu abstraktu baten edukitzaileak galdu egiten baitu ekonomikoki, fisikoki eta politikoki «bere» lantegiaren alde borrokatzeko borondatea eta haren gain zuzeneko domeinua izatekoa, haren eskailera-mailen gainean hil arte behar izanez gero. Eta jabetzaren substantzia materiala –bere errealtate ikuskor eta ukikorra– izenda dezakegunaren lurrintze horrek ez du akzioen edukitzailearen jarrera bakarrik afektatzen, baita langileen eta publiko orokorarena ere. Jabetza desmaterializatua, desfuntzionalizatua eta despertsonalizatuak ez du inprimitzen, ez du ezartzen inolako subordinazio moralik, jabetzaren forma bitalarekin gertatzen zenez. Azkenerako ez da *inor* geratuko errealki hura defendatzeaz arduratuko denik *concern* handien barrunbeen ez barruan ez kanpoan.

XIII. KAPITULUA

ETSAIKORTASUN HAZKORRA

I Kapitalismoaren giro soziala

Aurreko bi kapituluetakoa analisiaren ondoren ez du izan behar zaila ulertzea bilakaera kapitalistak nola sortu duen ia unibertsa den etsaikortasun-giro hori atal honen hasieran aipatu dudan bere ordena sozialarekiko. Fenomenoa hain da harrigarria eta beraren azalpen marxiar eta herritarra hain dira askiekak, non desiragarri jotzen dut bere teoria zertxobait garatzea.

1. Prozesu kapitalistak, dagoeneko ikusi dugunez, luzera txiki-tu egiten du klase kapitalistaren izateko arrazoiak den funtzioaren garrantzia. Halaber, ikusi dugu estratu babesleak ezabatzea jotzen duela, bere defentsa propioak porrokatzea, bere luebaketako garnizioak barreiatzea. Eta ikusi dugu, azkenik, kapitalismoak taxuera mental kritiko bat sortzen duela, zeinak instituzio ez-kapitalista ugarien autoritate morala suntsitu ondoren, azkenean bereen aurka bihurtzen dela; burgesak harriduraz aurkitzen du jarrera arrazionalista ez dela gelditzen erregeen eta aitasantuen kredentzialen aurrean, baizik eta jabetza pribatuari eta balio burgesen sistema osoari erasotzeraino iristen dela.

Gotorleku burgesa politikoki deseginik geratzen da horrela. Gotorleku babesgabeek erasorako gonbita egiten dute, batez ere beraietan harrapakin aberatsik bada. Erasotzaileek, beti gertatzen denez, etsaikortasun arrazionazatzaileko egoera batean jokatzen dute¹. Zalantzarik gabe, sobornoaren bidez litekeena da haietaz denboraldi batean libratzea. Baina azken baliabide horrek huts egiten du haiek dena har dezaketela aurkitzen duten bezain laster. Horrek azaltzen du, aldeztu, zergatik kapitalismoaren espiritua gero eta amasezinezkoago bihurtzen den. Baliozkoa den neurrian –zeren, jakina, ez baitu erabat azaltzen fenomenoak–, gure teoriako elementu hori babesgabezia burgesaren eta ordena kapitalistarekiko etsaikortasunaren artean historikoki dagoen korrelazio-maila garaiaz egiaztatzen da: posizio burgesa sendoa zen artean printzipiozko etsaikortasun gutxiago zegoen, nahiz eta orduan askoz arrazoi handiagoa egon horretarako; etsaikortasun hori *pari passu* hedatu da murru babesleen porrokatzearekin.

2. Hala ere, oso ongi galde egin liteke –eta izatez aztoramendu inozoz galdetzen dute gizarteko klase guztiekiko beren egin beharrak betetzen dituztela uste duten industrial askok–: zergatik behar du ordena kapitalistak inolako babesik indar estra-kapitalisten aldetik edo leialismo estrarrazionalik? Ez al da gai probatik bandera zabalduekin irteteko? Ez al dute erakusten gure aurreko argudioek, aski den eran, nahikoa kredentzial utilitario badituela aurkezteko? Ez al dago hartaz defentsa perfektu bat egiterik? Eta industrial horiek ez diote seinalatzeari utziko, segurtasun osoz, langile kontziente batek, altzairuaren edo automobilaren *concern* handietako batekiko haren kontratuaren aldekoak eta kontrakoak haztatzean, adibidez, oso ongi irits daiteke ondorio honetara: zirkunstantzia guztiak kontuan izanik, ez dela hain gaizki ateratzen eta haren tratua abantailak ez daudela denak alde bakar batetik. Bai, noski; bakarrik argudio guztiak erabat muntgabeak direla eskuartean dugun arazorako.

Zeren, lehenik, okerra da uste izatea eraso politikoa lehenik irain batetik sortzen dela eta justifikazio baten bidez geldiaraz daitekeela. Kritika politikoa ez dago eraginkorrik ezeztatzerik argumentazio arrazional batekin. Ordena kapitalistaren gaitzespena espirituaren jarrera batetik datorrelakotik, hau da, balio estra-arrazionaletik mendekotasuna errefusatzeko duelakotik ez da segitzen eraentzaren etsaiek ezeztapen arrazional bat onartuko dutenik. Ezeztapen horrek urratu egin dezake erasotzaileen jantxidura arrazionala; baina inoiz ezin du atzeman haren atzean ezkutatzeko den indar bultzatzaile estra-arrazionala. Arrazionaltasun kapitalista ez da gai bulkada azpi-arrazional edo gain-arrazional horiek geldiarazteko. Alderantziz, askatasunean uzten ditu tradizio sakratu edo erdi-sakratuaren balazta ezabatzean. Zibilizazio batean, zeinari falta baitaizkio bitartekoak baita bulkada horiek diziplinatu eta gidatzeko nahimena ere, erreboltatu egingo dira. Eta erreboltatu ondoren gutxi axola dio, kultura arrazionalista batean, haren agerpenak arrazionalizatzea, orokorrean, era batera edo bestera. Erregeei, jaunei eta aitasantuei justifikazio utilitariorik exigitu ez zaizkien modu berean epaile-espirituz hornituriko mendekoen, erantzun asebetegarri bat onartzeko prest daudenen aldetik, kapitalismoak bere liskarra heriotza-sententzia jadanik patrikan daukaten epaileen aurrean planteatzen du. Sententzia hori eman behar dute zeinahi delarik ere entzun dezaketen defentsa; arrakastarekin aurrera joango litza-

tekeen defentsa bakarra akusazioaren modifikazio bat izango litzateke. Arrazoiketa utilitarioa, edozein kasutan, ahula da ekintza kolektiboaren eragingarri nagusi gisa, eta ezein kasutan ezin da sartu konkurrentzian portaeraren determinatzaile estra-arrazionalekin.

Bigarrenik, akusazioko arrakasta erabat ulergarri bihurtzen da kapitalismoaren defentsa onartzeak inplikaturiko lukeenaz konturatzen garen bezain laster. Defentsa hori, errealitatean dena baino askoz indartsuagoa izango balitz ere, inoiz ezingo litzateke sinpletu. Eta hori ulertzeko publikoak orokorrean bere adimenez haratago dauden bereizmen baten eta analisi-gaitasun baten jabe izan beharko luke. Gainerakoan, ia ez dago kapitalismoari buruz esan den disparaterik ekonomialari profesionalen batengan aldezea aurkitu ez duenik. Baina hori ere alde batera utzirik, kapitalismoaren burutzapen ekonomikoen eta etorkizunerako eskaintzen dituen itxaropenen aintzatespen arrazionalak desjabetuen aldetik balentria moral ia ezinezkoa eskatuko luke. Burutzapen horiek urruneko ikuspegi batetik begiratzaren badira bakarrik egiten dira ikuskor; kapitalismoaren aldeko argudio oro epe luzerako kontsiderazioetan bermatu behar da. Epe laburrera mozkinak eta inefizientziak nagusitzen dira koadroan. Beren zoria onartzeko behialako igualitaristak eta kartistak beren birbilobentzako bizitza hobearen itxaropen batekin nahikotu beharko zuket. Sistema kapitalistarekin identifikatzeko gaur eguneko langabe-tuak bere destino propioz erabat ahaztu beharko luke, eta gaur eguneko politikariak, bere anbizio pertsonalaz. Gizartearen epe luzerako interesak sakon txertaturik daude gizarte burgesaren goi-estratuetan, zeinak herriak klase horren interes eksklusibotzat jotzea guztiz naturala baita. Masentzat epe laburrerako ikuspegiak du garrantzia. Louis XV.ak bezala *après nous le deluge* pentsatzen dute, eta utilitarismo indibidualistaren ikuspuntutik sentimendu hori, jakina, erabat arrazionala da.

Hirugarrenik, edozein sistema sozialetan mundu guztiak borrokatu behar dueneko eguneroko kezkak eta zailtasunen mehatxua daude, hau da, frikzioak eta eragozpenak, kaltetu, tratatu eta kontra egiten duten jazoera atsekabe handiagoak edo txikiagoak. Uste dut gutako bakoitza gutxi-asko ohiturik dagoela erabat egoztera beren larrumintzaz kanpo dagoen errealitatearen atal hura, eta zailtasun horien aurrean erreakzionatzen dugun bulkada etsaikorra gainditzeko

ordena sozialarekiko atxikimendu *emozionala* behar da, hau da, kapitalismoan duen egiturarekin sortu ezin duen sentimendua hain zuzen ere. Atxikimendu emozionalik ez badago, orduan bulkada hori libreki garatzen da eta gure sistema psikikoko elementu iraunkor bihurtzen da azkenerako.

Laugarrenik, okupazio beteaz gozatzen duen langileari kapitalismo modernoak ematen dion bizi-maila gero eta hobetze handiagokoa eta bereziki aisia... tira! ez daukat paragrafoa bukatu beharrik, ezta argudiorik gastatuena, korapiltasuna eta, zoritxarrez, ziurregia dena landu beharrik ere. Mendez mendeko progresua, era akutuan sentitzen den segurtasun eza indibidualari lotua, hori da, noski, agitazio soziala elikatzeke errezetarik hoberena.

II Intelektualaren soziologia

Guztiarekin ere, ez eraso-aukera eta ez irain erreal edo itxuratuak ez dira aski berenez etsaikortasun aktibo bat sortzeko ordena sozial baten aurka, nahiz eta hori asko faboratu. Horrelako giroa garatzeko beharrezkoa da taldeak izatea, erresumina estimulatzen eta antolatzen, hori elikatzen, horren interprete bihurtzen eta hori gidatzen interesaturik daudenak. IV. atalean agerian jarriko denez, herriaren masak ez du inoiz iritzi definiturik bere ekimenez garatzen. Oraindik gaitasun gutxiago du horiek artikulatzeko eta jarrera eta ekintza koherente bihurtzeko. Egin dezakeen gauza bakarra da gidatzeko bere burua eskaintzen duen talde baten buruzagitzari jarraitu edo uko egitea. Beraz, kitzikatzaille-zeregin horretarako kualifikaturik dauden talde sozialak aurkitu arte, kapitalismoarekiko etsaikortasun-giroaren gure teoria osatugabe geratuko da.

Termino orokorretan hitz eginez, sistema sozial batekiko edo hari eraso espezifikoko bat egiteko etsaikortasun orokor baterako baldintza faboragarriek, huts egin gabe, horiek ustiatzeko prest dauden taldeei bizia ematera joko dute. Baina gizarte kapitalistaren kasuan beste gertakari bat ohartu behar da, gainera: beste edozein gizarte motarekiko kontraposizioan, kapitalismoak, bere zibilizazioaren logikaren beraren indarrez, efektu saihestezintzat dauka egitazio sozialeko profesionalak sortu, eskolatu eta mantentzea². Fenomeno horren azalpena, bitxia bezain garrantzitsua dena, XI. kapituluko gure argu-

mentaziotik ondorioztatzen da, baina zehatzago egin daiteke Intelektualaren Soziologiaren domeinuan sarraldi bat egitearen bidez.

1. Tipo sozial hori ez da definitzen erraza. Zailtasun hori, izatez, espeziearen karakterearen sintometako bat da. Intelektualek ez dute klase sozial bat eratzen nekazariak edo langile industrialek eratzen duten zentzuan; mundu sozialaren zoko guztietatik datoz eta beren jardueren parte handi bat datza beren artean guduan aritzean eta berenak ez dituzten klase-interesen abangoardiak eratzean. Hala ere, talde-jarrera eta -interesak nahikoa indarrez garatzen dituzte haietako kopuru handi bat eskuarki klase sozial kontzeptuari asoziatzen zaion erara porta dadin; goi-mailako hezkuntza izan duten pertsona guztien batura totala bezala besterik gabe ere ezin dira definitu; horrek tipoa- ren zertzelada garrantzitsuenak lausotu egingo lituzke. Eta, hala ere, hezkuntza hori izan duen edozein potentzian dagoen intelektual da eta, salbuespeneko kasuetan izan ezik, ez da hori izan duen inor; gainera, haien gogamenak antzeko eran ekipaturik egoteak erraztu egiten du elkarren arteko ulerkuntza eta haien arteko lotura eratzen du. Ez luke balioko gure helbururako intelektual kontzeptua profesio liberal- etako kide-nolakotasunarekin alderatzeak ere; medikuak eta aboka- tuak, adibidez, ez dira intelektual hemen nabarmentzea axola dion zentzuan, haien gaitasun profesionalaz kanpo dauden gaiez hitz egiten edo idazten ez badute, zeina egiten baitute, sarritan, abokatuek batez ere. Guztiarekin ere, harreman estua dago intelektualen eta profesio liberalen artean. Zeren profesio horietako *batzuk* – batez ere horien artean kazetaritza sartzen badugu– izatez, ia erabat intelektualei erre- serbaturik daude; profesio horietako guztietako kideek intelektual bihurtzeko aukera dute, eta intelektual asko, bizi izateko, profesio horietako bati lotzen zaizkio. Azkenik, definizio bat, esku-lanarekiko kontrastearen bidez, zabalegia izango litzateke³. Hala ere, Welling- tongo Dukearen «zirrimarralari-taldea» esamoldeak estuegia dela dirudi⁴, *hommes de lettres* formularen zentzua ere den bezala.

Baina Burdinazko Dukea jarraitzea baino okerragorik egin genezake. Intelektualak dira, izan ere, hitz mintzatu eta idatziaren boterea erabiltzen dutenak, eta beste oratore eta idazleengandik bereizten dituen berezitasunetako bat da negozio praktikoei dagokie- nez haien zuzeneko erantzukizunik eza. Berezitasun horrek azaltzen du, oro har, beste bat, hau da: esperientziak bakarrik eman diezaieke-

en lehen eskuko ezagutza haren falta. Intelektualaren hirugarren ezaugarri bat haren jarrera kritikoa da, zeina bere behatzaile-posiziotik adina –kasurik gehienetan kanpotarrarenetik– bere burua baieztatzeko inor deserosotzeko duen haren balio efektibo edo potentzialean aukea nagusia duelakotik sortzen baita. Ez profesionalaren profesioa al da? Diletantismo profesionala al da? Denetaz hitz egiten duen jendea ezer ulertzen ez duelako? Bernard Shawren kazetaria *The Doctor's Dilemma* obran? Ez, ez. Nik ez dut esan hori ez eta ulertarazi nahi izan ere. Hori oraindik egiatik urrunago legoke irainetik baino ere. Uko egin diezaiogun hitzez definitzeari eta horren ordez «epideiktikoki» defini dezagun; museo grekoan ikus dezakegu objektu hori, etiketa polit batekin. K. a.ko V. eta VI. mendeko sofistek, filosofoek eta erretorikoek ilustratzen dute modu idealean esan nahi dudana; haiekin nahastuak izatea indar handiz baztertu izan badute ere, hala ere, genero berekoak dira. Ia denak maisu izateak ez du ilustrazioaren balio desagiten.

2. Zibilizazio kapitalistaren izaera arrazionalista analizatzen ari nintzenean (XI. kapitulu), seinlatu dut pentsamendu arrazionalaren garapenak aurrea hartu diola, noski, ordena kapitalistaren jaiotzari milaka urtetan; kapitalismoak bulkada berri bat eta inklinazio berezi bat ematea besterik ez zion egin prozesu horri. Antzeko era batean –mundu greko-erromatarra alde batera utzirik–, intelektualak aurkitzen ditugu garai erabat prekapitalistetan... adibidez, frankoen erresuman eta erresuma hori barreiatu zen herrialdeetan. Baina gutxi ziren kopuruz, elizgizonak ziren, gehienak fraideak eta haien ekarpen idatzia biztanleriaren parte infinitesimal batentzat bakarrik zen eskurgaria. Zalantzarik ez dago norbanako indartsuak izan zirela iritzi heterodoxoak, batzuetan, garatu eta herri-entzuleriei komunikatzeko ere. Hala ere, orokorrean, esan nahi zuen oso era zorrotzean antolatutako ingurune batekin kontrakarrean jartzea –zeinatik libratzea aldi berean oso zaila baitzen– eta heretikoaren zoria nozitzeko arriskua hartzea. Horrela ere, ia ezinezkoa zen halako ausardia jaun handi baten edo buruzagi militarren baten laguntza eta tartekotasunik gabe, misiolarien taktikak aski erakusten duenez. Oro har, beraz, intelektualak erraz menderatzen ziren, eta ez zen inolako txantxa haien pausoen atzetik ibiltzea, aparteko desantolakuntza eta lizentziako garaietan ere, izurrite beltzarenean (1348an eta ondoren).

Baina monasterioak sortu bazuen mundu ertarotarreko intelektualak, kapitalismoa izan zen askatasuna eman eta inprimitzeko prentsaren oparia egin ziona. Intelektual laikoaren bilakaera geldoa prozesu orokor horren aspektu bat besterik ez zen izan; humanismoa eta kapitalismoa batera sortzea oso harrigarria da. Humanistak lehenik filologoak ziren, baina laster inbaditu zituzten ohitura, politika, erlijioa eta filosofiaren eremuak, eta hori gorago adierazitako fenomeno baten adibide bikaina da. Hori ez zen obra klasikoen edukiarengatik soilik, zeinak haiek beren gramatikarekin batera interpretatzen baitzituzten, zeren testu baten kritikatik gizarte baten kritikarako bidea dirudiena baino laburragoa baita. Hala ere, intelektual tipikoari ez zitzaion atsegin sutzarraren ideia, artean heretikoari itxaroten zego-kiona. Eskuarki, askoz atsegina zituen ohoreak eta ongizatea. Eta horiek, azken finean, printze tenporal edo espiritualengandik bakarrik eskura zitzaketen, nahiz eta humanistak izan zentzu modernoan publikoa izan zuten lehen intelektualak. Jarrera kritikoa egunean-egunean indartsuago bihurtu zen. Baina kritika *soziala* –eraso jakin batzuetan Eliza Katolikoa eta bereziki bere burua inplikatzan zuenaz haratago– ez zen loratu baldintza haien azpian.

Ohoreak eta emolumentuak, hala ere, bide bakarretik baino gehiagotatik eskura daitezke. Lausengua eta morrontzakeria, sarritan, horien kontrakoak baino sarigarritasun gutxiagokoak dira. Aurkikuntza hori ez zuen Aretinok⁵ egin, baina ez da izan gizakirik hori ustiatzen gainditu duenik. Karlos V. senar maitakorra zen; baina kanpainetan, hilabete jarraitu askotan etxetik urrundurik zeukatene-tan, bere aroko eta klaseko zaldun baten bizimodua egin zuen. Alabaina, publikoa –eta Karlosi bereziki axola ziona, enperatriza– horrekiko ezjakintasunean eduki zitekeen politikaren eta moralaren kritiko handiari puntualki ematen bazitzaizkion kalitate oneko eta pisu oneko argudioak. Karlosek ordaindu egiten zituen. Baina garrantzitsua da hori ez zela txantaia soil bat, zeinak, oro har, parte bati bakarrik egiten baitio mesede eta konpentsazio gabeko galerak egiten baitizkio besteari. Karlosek bazekien zergatik ordaintzen zuen, nahiz eta, zalantzarik gabe, isiltasuna seguratzeko ahalgarria izango zatekeen metodo merkeago baina drastikoagoak erabiliz. Baina Karlosek ez zuen inolako erresuminik erakutsi. Aitzitik, bere bidetik desbideratu ere egin zen gizona ohoratzeko. Begi-bistan

zegoen isiltasuna baino zerbait gehiago nahi zuela eta, izatez, bere emarien balio guztia jaso zuen.

3. Zentzu batean, beraz, Aretinoren luma, egiazki, haren ezpata baino indartsuagoa izan zen. Baina, agian ezjakintasunez, ez dut gisa honetako adibiderik ezagutzen hurrengo ehun eta berrogeita hamar urteetan⁶, zeinean barrena intelektualek irudiz ez baitute inolako eginkizun handirik izan lanbide kontsakratuekiko, batez ere justizia eta elizarekikoez kanpoan eta independenteki. Alabaina, atzerapen hori bat dator, termino orokorretan, bilakaera kapitalistaren atzerapenarekin, zeina Europa kontinentaleko herrialde gehienetan gertatu baitzen aldi asaldatu hartan. Eta ondorengo enpresaren berreskuratzekak era berean mesede egin zien intelektualei. Libururik merkeena, kazeta edo panfleto merkea, publikoa handitzearekin batera –zeina, aldez, prezioak beheratze horren emaitza baitzen; baina, aldez, baita fenomeno independentea ere, burgesia industrialak aberastasunera eta influentziara eta iritzi publiko anonimo baten garrantzi politikoaren ondoriozko gehikuntza batena–, gertakari zorioneko horiek guztiak, baita traben gero eta askapen handiagoa ere, antolakuntza kapitalistaren azpiekoizkinak dira.

XVIII. mendearen lehen hiru laurdenetan babesle indibidualak pixkanaka hasiera batean karrera intelektualaerako eduki zuen garrantzi kapitala galduz joan zen. Baino gailur-arrakastetan, gutxienez, argiro hautematen dugu elementu berriaren garrantzi hazkorra, hau da: babesle kolektibo baten, publiko burgesaren laguntza. Horretan, gainerako aspektu guztietan bezala, Voltairek balio estimagaitzezko adibide bat eskaintzen du. Bere azalekotasunak berak, dena besarkatzea ahalbidetu zionak, erlijiotik hasi eta Newtonen optikarainokoa, bitalitate menderagaitzari, jakin-min aseegin bati, traba-gabezia erabateko bati, bere garaiko korranteetarako sen hutsegin bati baturik, zeini erabat atxikirik baitzegoen, horrek guztiak ahalbidetu zion metodo kritikorik ez zeukan kritikari eta poeta eta historialari erdipurdiko horri bere garaikideak liluratzea eta bere liburuak saltzea. Espekulatu, iruzur egin, opariak eta emolumentuak onartu ere egin zuen, baina bere arrakastaren oinarri tinkoan bermaturiko independentzia ere izan zuen publikoarekin. Eta, nahiz eta erabat bestelakoa izan, oraindik irakasgarriagoa izango litzateke Rousseuren kasua eta tipoa eztabaidatzea.

XVIII. mendeko azken hamarkadetan gertaera aparteko batek jarri zuen agerian frankotiratzaille intelektual baten ahalmenaren izaera, zeinek ez baitzeukan bere lanerako iritziz publiko deituriko mekanismo sozio-psikologikoa beste lanabesik. Hori Ingalaterran gertatu zen, bilakaera kapitalistaren bidetik gehien aurrera egin zuen herrialdean. John Wilkesek Ingalaterrako sistema politikoari egindako erasoak, izatez, inguruabar bereziki faboragarrietan egindakoak izan ziren; gainera, ez dago esaterik efektiboki porrokatu zuenik Bute kondearen gobernuaz, zeren horrek ez baitzuen inoiz izan mantentzeko aukerarik eta dozena bat arrazoi desberdinengatik erori beharra baitzuen; baina Wilkesen *North Briton* izan zen, hala ere, Lord Buteren bizkarrezur politikoa hautsi zuen azken izpia. *North Britonen* 45. alea izan zen lehen deskarga presondegi orokorren ordenak abolitzea segurtatu zuena eta prentsa eta hauteskunde-askatasunerantzko pauso handi bat eman zuena. Horrek ez du esan nahi historiaren joaira aldatu zuenik edota instituzio sozialen eraberrikuntzarako baldintzak sortu zituenik, baina bai esan nahi du erditze politiko horretan, esan dezagun, emaginaren zeregina bete zuela. Wilkesen⁷ etsaiek kontra egiteko izan zuten gaitasunik eza da horren guztiaren gertakaririk adierazgarriena. Jakina, gobernu antolatua botere guztia zeukan bere eskura. Guztiarekin ere, zerbaitek atzera eragin zien.

Frantzian Iraultzaren aurreko urteetan eta Iraultzakoetan bere-tan periodiko sentsazionalista jendaila-agitatzaileak sortu ziren (Marat, Desmoulins), zeinek, hala ere, ez baitzituzten erabat gainetik kendu, gurek bezala, estiloa eta gramatika. Baina bizkor ibili beharra daukagu. Terroreak eta, era sistematikoagoan, Lehen Inperioak bukaera eman zieten prentsa-lizentzia horiei. Gero aldi bat etorri zen, *roi bourgeois*aren gobernuak etena, errepresio gutxi-asko irmokoa harik eta 1865ean Bigarren Inperioak bere burua kontrola laxatzera beharturik ikusi zuen arte. Erdiko eta Hegoaldeko Europan ere beste hainbeste iraun zuen aldi horrek, eta Ingalaterran antzeko baldintzak gailendu ziren gerra iraultzaileen hasieratik Canning agintera igo arte.

4. Zeinen ezinezkoa den korrontearen kontra joatea gizarte kapitalistaren ubidearen barruan agerian jartzen da Europako ia gobernu guztiek aldi horretan egindako ahaleginen porrotean –horietako batzuk luzeak eta deliberatuak izan ziren– intelektualen atxikimendua segurtatzeko. Gobernu horien historia errepikapen bat bes-

terik ez da, beste hainbeste bertsio desberdinen artean ingeles gobernuarena Wilkesekin. Gizarte kapitalistan –edo garrantzi erabakigarriko elementu kapitalista bat bere baitan daukan gizarte batean–, intelektualen aurkako eraso oro ekonomia burgesen gotorleku pribatuaren aurka zuzendu behar du, eta horiek, edo horien parte batek babesa eskainiko diete jazartuei. Gainera, horrelako eraso batek prozedura legegile eta administratiboko printzipio burgesen arabera burutu beharko luke, zeina zalantzarik gabe dilatatu eta bihurritu egin baitzitekeen, baina ekidin egingo du jazarpena halako puntu batetik aurrera. Estratu burgesa onartu egin dezake, eta txalotu ere bai, legez kanpoko erabat kitzikaturik edo ikaraturik dagoenean, baina aldi batez bakarrik. Burges hutsa den eraentza batean, Louis Philipperena bezalako batean, tropek tiro egin dezakete grebalarien aurka, baina poliziak ezin ditu atxilotu intelektualak, edo berehalaxe askatu behar ditu; bestela, estratu burgesak, nahiz eta zakar gaitzetsi horien egitateetakoren bat, aldeztu egingo ditu, zeren gaitzesten duen askatasuna ezin baitaiteke suntsi onesten duen askatasuna ere suntsitu gabe.

Ohar bedi ez naizela ari burgesiari eskuzabaltasun- edo idealismo-dosi irreal bat egozten. Ez naiz ari jendeak pentsatzen duena neurriz kanpo nabarmentzen, eta sentitzen duena, eta nahi duena, zeinaren garrantziaz ia bat bainator Marxekin, erabat ez bada ere. Talde, bezala intelektualak defendatzean –ez norbanako bakoitza, noski burgesiak bere burua eta bere bizimodua defendatzen ditu. Izaera ez burgeseko eta filiazio ez burgeseko gobernu batek bakarrik –zirkunstantzia modernoetan gobernu polizialista batek edo gobernu faxista batek bakarrik– dauka intelektualak diziplinatzeko behar beste indar, eta horretarako instituzio tipikoki burgesak aldatu egin beharko litzuzke eta nazioko estratu guztietako askatasun indibiduala drastikoki murriztu. Eta horrelako gobernu bat –ezingo luke gainera– enpresa pribatuaren aurrean gelditzea ez litzateke gertakorra.

Hortik segitzen dira ordena kapitalistak era efektiboan bere sektore intelektuala menderatzeko dituen aiherra eta ezgaitasuna. Tratatzen ari garen aiherra da bilakaera kapitalistak taxuturiko mentalitatearekin bateraezinak diren metodoak era sistematikoan erabiltzeko aiherra; gaitasunik eza da bilakaera kapitalistak modelaturiko instituzioen koadroaren barruan hori egiteko gaitasunik eza da, eta

gobernu-arau ez burgesen mendean jarri gabe. Horrela, alde batetik, askatasun publikoko askatasuna, zeinak bere baitan baitauka gizarte kapitalistaren oinarriak kritikatzeko askatasuna, luzera, ekidinezina da. Bestetik, talde intelektualak ezin dio kritikatzeari utzi, kritikatik bizi baita eta bere posizio guztia bere kritika ergarriaren baitan baitago, eta pertsonen eta jazoera arrunten kritika azkenean ezinbestean egoera batean amaituko da, non ez baitago ezer santurik, klaseen eta instituzioen kritikan.

5. Pintzelkada banaka batzuek osatuko dute koadro modernoa. Hor daude baliabideen bolumen handiagoa; bizi-maila eta masen aisia gero eta handiagoak, zeinek bababesle kolektiboaren osaera modifikatu baitute eta modifikatzen jarraitzen baitute, zeinen gustuetara moldatu behar baitute intelektualek; liburua eta egunkariaren gero eta merketze handiagoa, eta kazetaritza-*concerna* neurri handian⁸, eta orain, irratia; azkenik, bazegoen, eta bada, murrizketak erabat ezabatzeko joera, irismen laburreko erresistentzia-saioak hutsik egin gabe zapalduz, zeinetan gizarte burgesa diziplinatzaile gisa hain ezgai eta zenbaitetan hain haur gisako agertzen baita.

Bada, halere, beste faktore bat. Zibilizazio kapitalistaren azken etapetako ezaugarri garrantzitsuenetako bat da aparatu hezitzailearen hedapen indartsua eta batez ere goi-hezkuntzarako erraztasunena. Garapen hori zen eta da eskala handiko unitate industrialaren garapena baino ez gutxiago ekidinezina⁹; baina azken horrekiko kontrajarri-rik iritzi publikoak eta agintari publikoek elikatu dute eta oraindik ere hala egiten dute, eta horri esker askoz gehiago progresatu du bere bulkada propioz higitu izan balitz baino. Fenomeno horretaz zernahi pentsatzen dugularik ere, beste ikuspuntu batzuetatik, eta zeinahi izan delarik ere haren kausa zehatza, badira talde intelektualaren bolumen eta jarreraren gainera erortzen diren ondorio batzuk.

Lehenik, goi-hezkuntzak profesio liberalen eta kuasi-liberalen zerbitzuen eskaintza horrela gehitzen duen heinean eta, hitz batean, «iduneko zuriko» guztietan, hezkuntzaren kostua-errendimenduko kontsiderazioek determinaturiko puntuaz haratago, sektore baten langabezia zatiko baten kasu bereziki garrantzitsua sor dezake.

Bigarrenik, intelektualen langabezia izan ala ez, horiek ugaltzeak enplegu-baldintza aseeginak sortzen ditu: kualifikazio gutxiago-

ko edo hobeki ordainduriko esku-langileenak baino soldata txikiago-ko enplegua.

Hirugarrenik, mota bereziki zentzordagarriko enplegaezintasun bat sor dezake. Institutu edo unibertsitate batetik igaro dena erraz bihurtzen da fisikoki enplegaezina izatea esku-okupazioetarako, profesio liberaletan derrigor enplegarritasun bat lortu gabe, adibidez. Zentzu horretako bere porrota gaitasun naturalaren gabeziarengatik –perfektuki bateragarria dena proba akademikoak gainditzearekin– edo irakaskuntza askiez bategatik, eta bi arrisku horiek gero eta gehiago ugalduko dira, zifra absolutu eta erlatiboetan, zenbat eta handiagoa izan goi-hezkuntzan aritzen direnen kopurua eta zenbat eta gehiago hazi eskaturiko irakaskuntzaren bolumena, naturak horri buruz hornitu dituen irakasleen eta ikasleen kopuruari kontu egin gabe. Hori kontuan ez izatearen eta eskola, institutu eta unibertsitateak diru-auzi soilak direlako teoriarik bermaturik jokatzearen emaitzak begi-bistakoegiak dira horiek azpimarratzen jarraitzeko. Enplegu baterako dozena bat eskatzaile, denak formalki kalifikatuak eta asebetean aritzeko bakar bat ere ez dagoen kasuak personal-izendapenarekin zerikusiren bat duen orok ezagutzen ditu, eta abar, hau da, gai horretan kausaren ezagutzarekin epaitzeko kalifikaturik dagoen orok.

Langabezia edo asegarria ez den era batean enplegaturik dauden, edo enplegaezinak diren graduatu guztiak zehaztasun gutxiagoko edo beste ordena bateko gaitasun eta ezagutzak behar diren lanbideetara joaten dira. Intelektualen saldoa hanpatzen dute, hitzaren zentzu hertsian, zeinen kopurua proportziogabeki gehitzen baita horrenbestez. Haren parte izatera igarotzen dira nahieza beteko egoera espiritual batean. Nahiezak erresumina sortzen du. Eta sarritan hori kritika sozial hartan arrazionalizatzen da, zeina, ikusi dugunez, edozein kasutan gizakiekiko, klaseekiko eta instituzioekiko behatzaile intelektualaren jarrera tipikoa baita, bereziki zibilizazio arrazionalista eta utilitario batean. Baina birkapitula dezagun: talde-egoera ongi definitu bat dugu kutsu proletariokoa eta interes kolektibo bat jarrera kolektibo bat taxutuz, zeinak azalduko baitu era askoz errealistago batean ordena kapitalistarekiko etsaikortasuna teoria bainogo (zeina bere baitan arrazionalizazio bat baita zentzu psikologikoan), zeinaren arabera kapitalismoaren bidegabekeriekiko intelektualaren sumin iustuak gertakari laidagarrien inferentzia logikoa besterik ez baitu errepresentatzen, eta

zeina maitaleen teoria baino hobea ez baita, zeinaren arabera haien sentimenduek ez baitute pertsona maitatuaren bertuteen inferentzia logikoa besterik errepresentatzen¹⁰. Gainerakoan, gure teoriak azaltzen du, halaber, etsaikortasuna gehitu egiten dela, gutxitu ordez, bila-kaera kapitalistaren ekarpen bakoitzarekin.

Jakina, talde intelektualaren etsaikortasuna –ordena kapitalistaren gaitzespen moraleraino iristen dena– gauza bat da eta sistema kapitalista inguratzen duen etsaikortasun-giro orokorra beste bat. Azken hori fenomeno errealki esanguratsua da, eta ez da lehenaren emaitza soil, baizik eta partez iturburu independenteei darie, zeinetariko batzuk lehen aipatu baititugu, eta, horrela den neurrian, talde intelektualari lan egiteko lehengaia hornitzen baitio. Badira bi etsaikortasunen artean emate- eta hartze-erlazioak deszifratzeko nik orain dudana baino tarte handiagoa eskatuko luketenak. Horrelako analisi baten ingurune orokorrak, hala ere, argi samarrak dira, eta uste dut aski izango dela errepikatzea talde intelektualaren eginkizuna estimulatzean dagoela nagusiki, energia eta adierazpen berbala ematean, eta atsekabetuek eraturiko material hori antolatzean eta, bigarren lekuan bakarrik, hori areagotzean. Aspektu berezi batzuek ilustratuko dute printzipioa.

6. Bilakaera kapitalistak langile-mugimendu bat sortzen du, talde intelektualaren sorkari ez dena, noski. Baina ez da harrigarria horrelako aukera batek eta demiurgo intelektualak elkarrekin topo egitea. Langileak ez du inoiz buruzagitza intelektualik eskatu, baina intelektualek inbaditu egin dute langile-politika. Bazuten egin beharreko ekarpen garrantzitsu bat: adierazpen berbala eman zioten mugimenduari, teoriak eta kontsignaz hornitu zuten –klase-gerra adibide bikaina da–, bere buruaren kontzientzia harrarazi zioten eta horrekin haren esanahia aldatu zuten. Ataza hori haien ikuspuntu propioetik askatzean intelektualek erradikalizatu egin dute noski mugimendu hori, eta azkenerako praktika sindikalei orientazio iraultzailea eman diote, eta orientazio hori gidari ez-intelektual gehienek hasiera batean oso gaizki hartzen zuten. Baina bazen beste arazorik ere horretarako. Intelektual bati entzutean langilea hutsik egin gabe harengandik bereizirik sentitzen zen amildegi gaindiezin batez, eta mesfidantza erabatekoa sumatzen du berarenganako. Atzemateko eta gidari ez-intelektualekin konkurrentzian sartzeko intelektualak, zeinak gordintasun

osoz hitz egin baitezake, ez-intelektualentzat inondik ere beharrezkoa ez den norabide baterantz higitu beharra dauka. Egiazko autoritate bat ez duenez gero eta beti arriskuan sentitzen denez gero inolako adeitasunik gabe bere auzi propioez arduratzera bidal dezaketelako, intelektualak lausengatu, promesak egin eta zirikatu egin behar du; hegal ezkertiarak eta gutxiengo erresuminduak elikatu, kasu zalantzazko edo azpimarjinalak defendatu, sezesionismoetara jo, obeditzeko prest dagoela aitortu; labur esateko: masekin haren aurrekoak lehenik beren eliz agintariekin portatu ziren modura portatu behar du, gero printze eta beste babesle indibidualen aurrean eta azkenik kutsu burgeseko nagusi kolektiboaren aurrean bezala¹¹. Horrela, bada, nahiz eta intelektualek ez sortu langile-mugimendua, halako eran taxutu dute, non funtsean haiek gabe izango litzatekeenaz bestelako zerbait bihurtu duten.

Gizarte-giroak, zeinaren teoriarako bildu baititugu harria eta morteroa, azaltzen du politika zergatik gero eta etsaikorragoa bihurtzen den interes kapitalistekiko eta azkenerako hainbestearino, non uko egingo dion, printzipioz, eraientza kapitalistaren eskakizunak kontuan hartzeari eta haren funtzionamendurako eragozpen serio bihurtzeari. Talde intelektualeko jarduerak badute, hala ere, kapitalismoaren aurkako politikarekin, haren formulazioan izan zuen parte-hartetik ateratzen dena baino erlazio bitartegabeago bat. Intelektualak nekez sartzen dira politika profesionalean eta nekezago iristen dira oraindik erantzukizun-postuetara. Baina *bureau* politikoak eratzen dituzte, panfletoak eta alderdi-hitzaldiak idazten dituzte, idazkari eta aholkulari gisa aritzen dira, politikari indibidualaren kazetaritza-sona sortzen dute, zeina dena ez bada ere, gutxik ahalbide dezakete hartaz gabetzeko luxua. Hori dena egitean, neurri batean, beren mentalitatea ezartzen dute ia neurri politiko guztietan.

Efektiboki ezarritako eragina nabarmen aldatzen da, joko politikoaren egoeraren arabera, formulazio huts batetik hasi neurri bat, politikoki, ahalgarri edo ezinezko bihurtu arte. Baina beti dago horretarako nahikoa ekintza-eremu. Politikari indibidualak eta alderdiak klase-interesen adierazgarri direla diogunean, kasurik hoberenean, egia erdi bat bakarrik azpimarratzen dugu. Beste erdia, lehena bezain garrantzitsua, gehiago ez bada, politika interes propioak gartzten dituen lanbide bat dela ohartzen garenean erakusten zaigu; inte-

res horiek berdin tupust egiten dute edo konformatu gizon batek edo alderdi batek «errepresentatzen» dituen taldeenekin¹². Politikari indibidualaren eta alderdiaren iritzia ezerekiko baino sentiberago da haien karrera edo posizioa zuzenean afektatzen duten egoera politikoaren faktoreekiko. Faktore horietako batzuk talde intelektualaren domeinupean daude, zeinak finkatu baitu, neurri batean eta aro jakin baterako, interes batzuen kausa goratzen duen eta beste batzuen ahazmenduan uzten duen kode morala.

Azkenik, giro sozial edo balio-kode horrek ez du politika –legeriaren espiritua– bakarrik afektatzen, baita praktika administratiboa ere. Baina berriro hemen erlazio zuzenago bat daukagu talde intelektualaren eta burokraziaren artean. Europako burokraziak jatorri prekapitalista eta estrakapitalistakoak dira. Baina horien osaera asko aldatu bada ere mendeetan zehar inoiz ez da erabat identifikatu burgesiarekin, haren interesekin edo haren balio-eskalarekin, eta monarkaren edo nazioaren mesedetan administratu behar zen aktibo bat baino askoz gehiago ez zaio aintzatetsi. Haren trebakuntza eta esperientzia profesionalari zor zaizkion inhibizio batzuk salbu, burokratek intelektual modernoek eragin diezaieketen konbertsiora irekita daude, zeinekin asko baitute komunean antzeko hezkuntzarengatik¹³, eta aldi berean funtzionarioen kasta-espiritua, kasu askotan haien eta intelektualen artean hesi bat eraikitzen zuena, ezabatuz joan da azken hamarkadetan. Gainera, administrazio publikoaren esferaren hedapen lasterreko aroetan beharrezko gertatu den pertsonal gehigarriaren parte handi bat talde intelektualetik zuzenean hartu behar izan da: Estatu Batuak dira horren lekuko.

XIV KAPITULUA DESKONPOSIZIOA

1. Ingurumenaren gero eta etsaikortasun handiagoaren eta etsaikortasun horretatik jaiotako praktika legegile, administratibo eta judizialari kontrajarririk, enpresarioek eta kapitalistek –izatez bizitza burgesaren era onartzen duen estratu sozial guztiak– azkeneko beren funtzioak betetzeari utziko diote. Haien xede normalak laster iritsezin eta ahaleginak alferrikako izango dira. Anbizio burgesen

ikusgarriena, dinastia industrial bat sortzea, iritsezin izatera heldu da herrialde gehienetan, eta xede apalagoak ere hain dira lortzeko zailak, non haiengatik borroka egiterik ez duela merezi kontsidera daitekeen, baldintza horiek iraun dirautela gero eta argiago, erdi-ikusten den heinean.

Motibazio burgesaren eginkizuna kontsideratzean azken biz-pahiru mendeetako ekonomiaren historiaren azalpenean, gizartearen erreakzio desfaboragarriengatik itomena edo ezerabilpenarengatik ahultzea dira, zalantzarik gabe, eraentza kapitalistaren beherakada azaltzeko aski diren faktoreak –inoiz fenomeno iraunkor gisa behatu nahi badugu– eta askoz garrantzizkoagoak direnak inbertsiorako aukera desagertzearen teoriak aurkezten dituenetako edozein baino. Horregatik interesgarria da behatzea motibazio hori ez dagoela mentalitate burgesaz kanpoko indarrek mehatxatua, baizik eta barne-kausengatik jotzen duela iraungitzera. Jakina, elkardependentzia estua dago bi indarren artean. Baina ezingo gara egiazko diagnosira iritsi aldeaz aurretik horien mataza askatzen saiatu ezik.

«Barne-kausa» horietako bat dagoeneko aurkitu dugu. Jabetza Substantziaren Lurrintzea deitu diogu. Ikusi dugu negozio-gizon modernoak, enpresarioak dela edo zuzendari kudeatzaile soila, exekutibo motakoa dela. Bere egoeraren logikaz antolakuntza burokratiko batean lan egiten duen soldatapeko enpleguaren psikologiatik zer-bait bereganatzen du. Berdin akziodun izan edo ez izan borroka egin eta mantentzeko haren nahimena ez da, ezin da izan ere, jabetza eta bere erantzukizunak ezagutzen zituen gizonak hitz horien zentzurik beteenean. Haren balio-sistemak eta haren betebeharrak kontzeptuak aldaketa sakona jasaten dute. Akziodun hutsek utzi egin diote garrantzia izateari –estatu arautzaile eta zerga-ezartzaileak haien partaide-tzari egin dion inausketarekiko erabat independenteki–. Horrela, bada, sozietate anonimo modernoak, nahiz eta prozesu kapitalistaren ekoizkin izan, sozializatu egiten du mentalitate burgesa; gupidagabeki murrizten du motibazio kapitalistaren ekintza-eremua eta ez hori bakarrik, azkenerako kapitalismoaren beraren erroak hilko ditu¹.

2. Bada, hala ere, «barne-kausa» garrantzitsuago bat, hau da: familia burgesaren desintegrazioa. Aipatuko ditudan gertakariak eza-gunegiak dira aurkezpen xehetua behar izateko. Gizarte kapitalista modernoko gizon eta emakumeentzat familia-bizitzak, gurasotasunak

lehen esan nahi zutena baino gutxiago esan nahi dute eta indar gutxiagoko portaera-moldatzaileak dira; arau «viktoriarrekiko» mespretxua adierazten duen semeak edo alaba errebeldeak, era okerrean bada ere, egia ukaezin bat adierazten du. Gertakari horien pisua ez da hondatzen estatistikoki horiek neurtzeko gai ez izateagatik. Ezkontzen portzentaiak ez du ezer probatzen, zeren «ezkontza» esamoldeak «jabetza» esamoldeak adina adiera soziologiko baititu, eta ezkontza-kontratuaren bidez eratzen zen aliantza gisakoa erabat iraungi daiteke lege-erai-kuntza edo kontratuaren maiztasuna aldatu gabe. Dibortzioen portzentaia ere ez da esanguratsuagoa. Ez dio axolarik epailearen sententziaz deusezten diren ezkontzen kopuruak ere; interesatzen dena da antzinako ereduaren eduki esentziala zenbati falta zaion. Baldin eta gure aro estatistikoan irakurleek neurri estatistiko bat azpimarratzen badute, seme-alabarik sortzen ez duten edo bakarria sortzen duten ezkontzen proportzioa, nahiz eta proportzio hori desegokia izan esan nahi dudan fenomeno kuantitatiboki adierazteko, haren garrantzi zenbakizkoa adieraztera espero litekeen adina hurbil liteke. Oraingoz fenomeno gizarte-klase guztietara hedatzen da, gutxi-asko. Baina lehenik estratu burgesean (eta intelektualean) agertu zen eta horretan datza erabat guretzat haren balio sintomatiko eta kausala. Bizitzan dena arrazionalizatzeari erabat egozkarria zaio, zeina ikusi dugunez bilakaera kapitalistaren emaitzetako bat baita. Izatez, arrazionalizazioa bizitza pribatuaren esferara hedatzearen emaitzetako bat besterik ez da. Gainerako faktore guztiak, eskuarki azalpenean aipatzen direnak, aise murriz daitezke horretara.

Gizon eta emakumeek ikaskizun utilitarioa ikasi bezain laster eta beren ingurune sozialak sortzen dizkien usadiozko konbentzioen indarra onartzeari uko egiten diotenean, aurrera-begirako edozein ekintza-bidek dituen abantaila eta desabantaila indibidualak haztatze-ko aztura hartzen duten bezain laster –edo, honela ere esan genezake, kostu-kalkuluaren sistema inartikulatu gisako bat beren bizitza pribatuan sartzen duten bezain laster–, ezin diote izateari familia-lokarriek eta bereziki gurasotasunarenak ezartzen dituzten sakrifizio pertsonal astunekiko kontzientzia izateari utzi, baita aldi berean, baserritar eta laborarien kasuak salbuetsirik, seme-alabek aktibo ekonomiko bat izateari utzi diotelakoarekikoa ere. Sakrifizio horiek ez daude dirutan neurgarriak diren diru-sailetan bakarrik, baizik eta gainera berekin

dute ardurarekiko erosotasun-, askatasun-galera neurgaitza, gero eta alternatiba erakargarriago eta bariatuagoez gozatzeko aukera –alternatiba horiek gurasotasunaren gozamenekin konparatu behar dira, zeinak gure garaikideek gero eta zorrotasun handiagoko analisi kritiko baten mendean jartzen baitituzte. Horren inplikazioa ez da ahultzen, baizik eta sendotu egiten da abantaila eta eragozpen horien balantzea, segur aski, osagabea izatearengatik, oinarritz faltsua ere bai agian. Zeren familia-aktibo horietako handiena, hau da, gurasotasunak osasun fisiko eta moralari, –»normalitateari» nolabait esateko– egindako ekarpena, bereziki emakumeen kasuan, ia hutsik egin gabe ihes egiten dio norbanako modernoaren gogoeta arrazionalaren esferari, zeinek nola bizitza pribatuan hala bizitza publikoan, arreta garrantzi utilitario berehalakoaren xehetasun egiaztagarrien gain fokatzera jotzen baitute, eta giza izaeraren edo organismo sozialaren beharizan sakonen ideiaz trufatzera. Nik esan nahi dudana uste dut argi dagoela, azalpen gehiago eman beharrik gabe. Gurasogai askoren gogamenean hain argiro planteatzen den auzian laburbil daiteke: «Zergatik inausi behar ditugu geure anbizioak eta geure bizitzak pobretu zahartzaroan, irainduak eta mespretxatuak izateko?»

Prozesu kapitalistak, sortzen duen jarrera psikologikoaren indarrez, familia-bizitzako balioak pixkanaka iluntzen eta kontzientziako eragozpenak lautzen dituen bitartean, zeinak antzinako tradizio moral batek ezarri bide zituen bidean bizimodu desberdin baterantz, gustu berriak sustatzen ditu aldi berean. Ez-ugaltzeari dagokionez asmamen kapitalistak gero eta eraginkortasun handiagoko bitartekoak ekoizten ditu, zeinek giza bulkada indartsuenari ezar ziezaiokeen erresistentzia gainditzea ahalbidetzen baitute. Bizi-estiloari dagokionez bilakaera kapitalistak gutxitu egiten du familia-etxe burgesaren desiragarritasuna eta beste ahalatasun batzuk eskaintzen ditu horren lekuan. Lehen Jabetza Industrialaren Lurrintzera erakarri dut arreta; orain Kontsumitzaileen Jabetzaren Lurrintzera erakarri behar dut.

XIX. mendeko azken hamarkadetan hiri-etxea eta landa-etxea, nonahi, ez ziren soilik bizitza pribatuko erreduktu atsegin eta erosoak, errenta-maila jasoez gozatzen zuten klaseentzat, baizik eta ezinbestekoak zitzaizkien. Ez bakarrik eskala guztietako eta estilo guztietako abegikortasuna, baita familiaren erosotasuna, duintasuna, lasaitasuna eta errefinamendua ere *foyer* egoki, propio baten jabe izatearen baitan

zeuden, zeinak behar besteko etxe-zerbitzaritzaz horniturik egon behar baitzuen. *Foyer* esamoldean laburbiltzen diren konbentzioak, beraz, gauza eztabaidea zintzat hartzen zituen zirkulu burgesetako gizon ertainak eta emakume ertainak, ezkontza eta seme-alabak, hau da, «familia bat sortzea» ere eztabaidea zintzat kontsideratzen zituen bezala.

Gaur egun, alde batetik, etxe burgesaren amenitateak ez dira haren zamak bezain nabariak. Aro kritiko bateko begi kritikoarentzat baliteke ezer baino lehen sarritan justifikatugabeak diren neke- eta gastu-iturri gisa agertzea. Hori horrela izango litzateke zerga eta soldata modernoekiko eta etxe-zerbitzu modernoaren jarrerarekiko independenteki, zeina guztia prozesu kapitalistaren emaitza tipikoak baitira eta gehitu egiten baitu, noski, bizitza-eredu batekiko higuina, zeina etorkizun hurbilean, modatik pasatutzat eta antiekonomikotzat ia unibertsalki berrezagutua izango baita. Horri dagokionez, baita beste batzuei dagokienez ere, igarobide-aldi bat bizi izaten ari gara. Kutsu burgeseko batez besteko familia etxe handi baten eta landa-etxe handi baten administrazio-zailtasunak murriztera jotzen du, etxe txiki eta mekanizatuaz ordeztuz, kanpo-zerbitzuak ahalik eta gehien erabiliz eta ahal den neurrian etxetik kanpoko bizitza eginez, abegikortasuna bereziki, gero eta neurri handiagoan, jabetzerantz edo kluberantz lekualdatuz.

Bestetik, antzinako gisako etxea jadanik ez da bizitza eroso eta errefinatuko baldintza ezinbestekoa esfera burgesean. Apartamentuak eta egoitzak etxebizitza tipo arrazionalizatua eta beste bizi-estilo bat errepresentatzen dute, zeinak erabat garaturik dagoenean, zalantzarik gabe, ebatziko baitu egoera berria eta esentziala den guztia eskainiko baitu erosotasun eta errefinamenduan. Noski ez estilo hori eta ez haren kanpo armazioa ez daude erabat garatuak inon, eta oraingoz kostuan bakarrik eskaintzen dute abantaila, baldin eta kontuan hartzen baditugu etxe baten zuzendaritzak gure egunotan berekin dituen eragozpena eta gaitzia. Baina badira jadanik eskaintzen dituzten beste abantaila batzuk, hau da: olgeta modernoan bariatatea osoki erabiltzeko erraztasuna, bidaiatzekoa, laster higitzekoa, existentziako egunero-ko huskerien zama antolakuntza nabarmen espezializatuen sorbalda ahaltsuetara lekualdatzekoa.

Eraz ikusten da etxebizitzaren bilakaera horrek nola afektatzen duen bere aldetik seme-alaben arazoa gizarte kapitalistaren goi-

estratuetan. Bada hemen berriro elkarrekiko eragin bat: etxe hedatsuaren pixkanakako desagerpena –familia ugari baten bizimodu aberatsa destolesteko moduko bakarra²– eta gero eta handiagoak diren frikzioak, zeinekin funtzionatzen baitu, beste zio bat dira gurasotasunaren kezka saihesteko, baina ugaltze-desiraren beherakadak bere aldetik desiragarritasun gutxiagoko bihurtzen du etxe hedatsua.

Jadanik esana dut bizimodu burgesaren estilo berriak ez duela eskaintzen orain arte ezein kostu-abantaila erabakigarri. Gastu orokorreari dagokienetz dagoeneko agerikoa da diru-abantaila. Eta etxe-bizitzako elementu iraunkorrenen gain gastuak egiten diren neurrian –batez ere etxearen, koadroen, altzarien gain– aurreko irabaziek nagusiki finantzatu ohi zituzten esan dezakegu «kontsumitzailearen kapitalaren»³ metaketaren premia gogor murrizten dela prozesu horretan. Horrek ez du esan nahi, jakina, «kontsumitzailearen kapitalaren» eskaera gaur egun, ezta erlatiboki ere, lehengoa baino txikiagoa denik; kontsumo iraunkorreko erosgaien gero eta esaera handiagoak, errenta txiki eta ertainetatik datorrenak efektiboki gainezka konpentsatzen du efektu hori. Baina bai esan nahi du, aberaste-sistemaren zioetan elementu hedonistak esku hartzen duen neurrian, errenten desiragarritasuna murriztu egiten dela maila halako baten gainetik. Horretaz kontsentitzeko aski du irakurleak egoera espiritu erabat praktikoz begietea: gizaki edo bikote arrakastatsuak edo «gizarte»-gizaki edo -bikoteak, zeinek ordain baitezakete ostatu ahalgarri hoberena hotelean, itsasontzian eta trenean, eta kalitate hobereneko erabilpen eta kontsumo pertsonaleko gauzakiak –zeinen kalitateak gero eta neurri handiagoan baitatoz serieko ekoizpen-uhaletik–, orokorrean, oraingo zirkunstantzietan intentsitate pixka batekin nahi duten guztia izango dute *berentzat*. Eta aise ikusten da lerro arautzaile hauen gainean landuriko aurrekontu bat «jaun»-bizitzaren estiloaren eskakizunen oso azpitik egongo dela.

3. Honek guztiak ekoizpen-sistema kapitalistaren efizientziarako esan nahi duena argitzeko aski dugu gogora ekartzea familia eta familia-etxea izan ohi zirela lukroaren zio tipikoki burgesaren eragin-garri nagusiak. Ekonomialariek ez diote beti eman behar besteko garrantzia gertakari horri. Hurbilagotik begiratzen diogunean enpresario eta kapitalisten autointeresaren nozioari derrigor aitortu beharra daukagu zio horrek ekoitzi behar omen zituen emaitzak ez zirela inon-

dik ere norbanako bakartuen edo jadanik mundua familia-etxearen leihoetatik begiesten ez zuten seme-alabarik gabeko bikoteen autointeres arrazionaletik espero zitezkeenarenak. Kontzienteki edo inkontzienteki, ekonomialari horiek aztertu egin dute gizakiaren portaera, zeinaren ikuspuntuak eta zioak halako etxe batek taxuturik baitaude, eta zeinek ezer baino lehen bere emaztea eta *seme-alabentzat* lan egitean eta aurreztean pentsatzen baitu. Zio horiek negozio-gizonaren ortzemuga moralean ezabatzen diren bezain laster geure aurrean *homo oeconomicus* desberdin bat daukagu, zeina kezka desberdinentzat mugitzen baita eta artez arau desberdinen arabera jokatzeko baitu. Harentzat, eta utilitarismo indibidualistaren ikuspuntutik, aurretik izan zuen tipoaren portaera, izatez, erabat irrealak litzateke. Kapitalismoaren zibilizazio anti-erromantiko eta ez-heroikoaren baitan oraindik geratzen den erromantze eta heroismo mota bakarra, hau da, *navigare necesse est, vivere non necesse⁴ est* heroismoak zentzu guztia galdu du harentzat eta etorkizunerako lan egitea agintzen duen etika kapitalistaren etikatik lerratu egiten da, uztia bilduko duen ala ez kontuan izan gabe.

Azken puntua era esplizituagoan adieraz daiteke. Aurreko kapituluaren ikusten zen ordena kapitalistak burgesiaren goi-estratuen esku uzten dituela gizartearen epe luzeko interesak. Izatez, estratu horietan diharduen familia-zioaren eskuetan uzten dira. Burgesiak lehenik inbertitzeko lan egiten zuen eta gutxiago egiten zuen borroka kontsumo-maila batengatik metaketa-maila batengatik baino, izan ere hori defendatu behar baitzen epe laburreko kontsiderazioetan inspiraturiko gobernuen aurrez aurre⁵. Familia-zioak ematen zuen indar bultzatzailea ahultzean negozio-gizonaren ortzemuga tenporala murriztu egiten da, haren bizi-itxaropena, *grosso modo*, mugaturik geratu arte. Eta orain lehen baino gutxiago nahi izan lezake irabazte-, aurrezte- eta inbertitze-funtzioa, nahiz eta ez ikusi arrazoirik beldur izateko ahaleginaren emaitzak bere zergen zenbatekoa gizentzea besterik ez zuela egingo. Aurreztearen aurkako jarrera espiritual batera makurtzen da, eta gero eta errazago onartzen ditu epe laburreko *filosofia* baten karakteristikak diren aurreztearen aurkako *teoriak*.

Baina antiaurrezkiaren teoriak ez dira onartzen duen guztia. Lan egiten duen *concernare*kiko jarrera desberdin batekin eta bizitza pribatuko egitarau desberdin batekin gauza kapitalisten balio eta orde-

na-pautekiko beste ikuspuntu bat lortzera jotzen du. Koadroko zertzeladarik harrigarriena burgesiak, bere etsai propioak hezteaz gainera, haiengandik berak hezkuntza hartzeko aukera ematen dueneko hedadura da. Ohiko erradikalismoaren topikoak zurruputzen ditu eta badi-rudi gogoarekin dagoela bere existentziarako etsaikorra den kredo batera konberti dezaten. Ezbaiti eta higuinarekin, parte batez, hala ere, amore ematen die kredo horren kontsekuentziei. Hori guztiz harrigarria izango litzateke, eta zinez azaltzen oso zaila, burges tipikoak bere kredo propioan gero eta lastertasun handiagoz fedea galtzen duelako izango ez balitz. Eta hori, bere aldetik, erabat ulergarri bihurtzen da kredo horri sorrera eman dioten baldintza sozialak desagertzen ari direla konturatzen garen bezain laster.

Tesi hori berretsi egiten da interes kapitalista partikularrak eta burgesia bere osoan zuzeneko eraso bati aurre egiten dioneko era hain karakteristikoan. Hitz egin eta argudiatu edo beren ordeztatu egin dezan jendea akuratzeko; konpromiso-ahaltasun orori atxikitzen zaio; beti prest daude amore emateko; ez dute inoiz borroka egiten beren ideal eta interes propioen banderapean: Estatu Batuetan, adibidez, ez da inon erresistentzia efektiborik izan zama finantzario hondagarrien aurka 1930-40ko hamarkadan edo industriaren zuzendaritza eraginkor-rarekiko bateraezina den lan-legediarekin. Alabaina, dagoeneko irakurleak badakikeenez, oso urrun nago enpresa handiaren edo, oro har, burgesiaren ahal politikoa plusbaliotzetik. Gainera, prest nago koldarkeria faktorea oso kontuan izateko. Baina burgesiari ez zaizkio falta izan oraindik erabat defentsa-bideak eta historia talde txikien arrakastaren adibidez beterik dago, zeinak beren kausan duten fede irmoarekin fusilen gainean irauteko prest baitzeuden. Nabari dugun etsipenarentzat aurkitzen dugun azalpen bakarra ordena burgesak jadanik burgesiarentzat berarentzat zentzurik ez daukalakoa da eta axolagabe zaiolakoa, eta horregatik hitz egin besterik ez du egiten bere burua defendatzeko ezer egin gabe.

Horrela, bada, burgesiaren posizioari azpia jaten dion bilakera ekonomikoak berak, enpresario eta kapitalisten funtzioen garrantzia gutxituz, bere estratuak eta instituzio babesleak kolokan jarritz, etsaikortasun-giro bat sortuz, kapitalismoaren indar higiarazleak ere barrutik suntsitzen ditu. Beste ezerk ez du hain ongi erakusten ordena kapitalista ez dela material estrakapitalistaz egindako zutabeen gaine-

an bakarrik bermatzen baizik, eta portaera-arau estrakapitalistetatik ateratzen duela bere energia, zeinak aldi berean derrigor suntsitu behar baititu.

Printzipio bat berraurkitu dugu, lehen ikuspuntu desberdinetatik eta nire iritiz oinarri askiezarekin sarritan aurkitua izan zena, hau da: bada sistema kapitalistaren baitan autosuntsiketarako joera bat, bere lehen etapetan, progresuaren atzeratze baterako joera baten era har dezakeena.

Ez naiz geldituko errepikatzen emaitza horri nola laguntzen dioten faktore objektiboek eta subjektiboek, ekonomikoek eta estrakonomikoek, zeinek egundoko kontzertu batean elkar errebertxatzen baitute. Ez naiz geldituko ere dagoeneko argi egon behar duena eta hurrengo kapituluetan oraindik argiagotuko dena erakusten, hau da: faktore horiek ez dihardutela bakarrik kapitalismoa suntsitzeko, baizik eta zibilizazio sozialista bat sorrarazteko ere bai. Horiek guztiak norabide horretan orientaturik daude. Prozesu kapitalistak ez du bere armazoi instituzionala suntsitu bakarrik egiten, baizik eta beste bilakaera baterako baldintzak sortu ere egiten du. Suntsiera ez da agian, azken finean, hitz egokia; agian eraldakuntzaz hitz egin beharko nukeen. Prozesuaren emaitza ez da hutsarte bat bakarrik, zeina aurkez daitekeen edozerezt bete baitaiteke; gauzak eta arimak halako modu batez eraldatzen dira, non gero eta era deliberatuagoan bideratzen baitira bizimodu sozialistarantz. Eraikin kapitalistaren oinarri sostengatzaileari kentzen zaion eustune bakoitzarekin plan sozialistaren «ezintasun» bat ezabatzen da. Bi zentzu horietan Marxen *ikuspegia* zuzena izan zen. Halaber bat etor gaitezke berarekin gure begien aurrean burutzen den eraldakuntza sozial berezia prozesu ekonomiko batekin asoziatzean, zeina beraren indar bultzatzaile bihurtzen baita. Gure analisiak ezeztatzen duena, zuzena bada, azken finean, bigarren mailakoa da, nahiz eta oso esentziala izan haren eginkizuna kredoz sozialistan. Azken finean, ez dago uste izan litekeen adinako alderik kapitalismoaren beherakada bere arrakastarengatik dela esatearen eta bere porrotarengatik dela esatearen artean.

Baina atal honen hasieran datorren galderari eman diogun erantzunak ebatzen dituenak baino arazo gehiago planteatzen ditu. Liburu honetan darriona kontsideratzeko irakurleak hau izan beharko luke gogoan:

Lehenik, honaino ez dugula ezer ikasi etorkizunean ustez egunsentitzen ari den sozialismoaren izaeraz. Marxentzat eta haren jarraitzaile gehienentzat –eta hori zen eta da haren teoriaren akatasik handienetako bat– sozialismoak erabat determinaturiko gauza bat esan nahi zuen. Baina zehatzapen horrek, izatez, ez garamatza industriaren nazionalizazioaren nozioak eramango gintuzkeenetik haratago, zeina bateragarria baita, ikusiko dugunez, aukera ekonomiko eta kulturalen barietate mugagabe batekin.

Bigarrenik, ez dakigula ezertxo ere, orain arte, sozialismoa etortzea espero daitekeen bide zehatzaz, ezik aukera-kopuru handia egon behar duela, pixkanakako burokratizazio batetik hasi eta iraultza ikusgarrieneraino doana. Termino hertsietan hitz eginez, jakin ez dakigu sozialismoa efektiboki nagusitzera iritsiko den ere. Zeren, errepikatzeko, joera bat hauteman eta haren helmuga erdikustea gauza bat baita, eta helmuga hori egiazki lortu egingo dela iragartzea eta sortuko diren gauzen egoera bideragarria izango dela, iraupenaz hitz egin gabe, zeharo bestelakoa. Gizadia sozialismoaren ziegan ito edo (paradisuan) gozatu baino lehen oso ongi kontsumi daiteke gerra inperialisten⁶ izulaborrien (edo loriatan).

Hirugarrenik, deskribatzen saiatu garen joeraren osagai desberdinak, nahiz eta nonahi hautemangarriak izan, ez dira orain arte erabat inon agertu. Gauzak tamaina desberdin bateraino garatu dira herrialde desberdinetan; baina ezein herrialdetan ez dira aurreratu behar beste esan ahal izan dezagun, konfiantza halako batez, noraino iritsiko den hain zuzen, ez eta baieztatzeko ere haren «azpiko joera» indartsuegi bihurtu dela atzerapen tenporalak baino zerbait larriagoaren mende egoteko. Integrazio industrial urrun dago bere bukaerara iritsi izatetik. Konkurrentzia, efektibo eta potentziala, oraindik garrantzizko faktorea da egoera ekonomiko orotan. Enpresa-espirtuak aktibo izaten jarraitzen du eta talde burgesaren buruzagitzak prozesu ekonomikoaren indar eragile nagusia izaten jarraitzen du. Klase ertainak potentzia politiko izaten jarraitzen du. Arau burgesek eta ekintza-zio burgesek, gero eta hondatze handiagoa pairatzen badute ere, oraindik bizirik diraute. Tradizioen bizirik irauteak –honelako eta bestelako sozietateen zuzendaritza seguratzten duten akzio-paketeen jabetza familiarrak– behialako kudeatzaile-jabe batek bezalaxe portarazten ditu enpresa-zuzendari asko. Familia burgesa ez da iraungi

orain arte; izan ere, hainbesteko setaz atxikitzen zaio bizitzari, non erantzukizuna duen ezein politikari ez baita ausartu ukitzera zergaezarpena ez den beste edozein metodoz. Nola praktika bitartegabearen aldetik hala epe laburreko iragarpen baten xedeetarako —eta gauza horietan mendea «epe laburra»⁷ da— azaleko fenomeno horiek guztiak garrantzizkoagoak izan daitezke sakoneran geldiro garatzen ari den beste zibilizazio bateranzko joera baino.

III ATALA

FUNTZIONA AL DEZAKE SOZIALISMOAK?

XV KAPITULUA

ALDEZ AURRETIKO ARGIBIDEAK

Funtziona al dezake sozialismoak? Bai horixe. Ez da posible inolako zalantzarik horri buruz, lehenik, garapen industrialaren beharrezko maila lortu dela onartzen badugu eta, bigarrenik, igarobide-arazoak arrakastarekin ebatz daitezkeela. Jakina, oso deseroso senti daiteke hipotesi horiek berak direla-eta edota gizartearen era sozialista izaera demokratikoa izango ote den eta gizarte horrek, demokratikoa izan ala ez, gutxi-asko ongi funtzionatzeko aukerarik duen auziak direla-eta. Hori guztia aurrerago eztabaidatuko dugu. Baina hipotesi horiek onartzen baditugu eta zalantza horiek uxatzen baditugu, zutik geratzen den galderari emandako erantzuna baiezkoa da argi eta garbi.

Hori erakusten saiatu baino lehen gure bidean dauden traba batzuk kendu nahiko nituzke. Honaino ez gara asko arduratu definizio batzuez eta orain zabarkeria hori konpondu beharra daukagu. Bi gizarte mota bakarrik kontsideratu behar ditugu eta beste batzuk intzidentalki aipatu besterik ez dugu egingo. Mota horiei «gizarte merkantila» eta «gizarte sozialista» deituko diegu.

Gizarte merkantila sistema instituzional batez definitzen da, zeinaren bi elementu bakarrik aipatu behar baititugu: ekoizpen-bideen jabetza pribatua eta domeinu pribatuak (edo kudeaketa pribatuak edo ekimen pribatuak) egiten duen ekoizpen-prozesuaren arauketa. Gizarte mota hori ez da, hala ere, burges hutsa, orokorrean. Zeren, II. atalean dagoeneko ikusi dugunez, burgesia industrial eta komertziala ezingo da

existitu, orokorrean, estratu ez-burges batekiko sinbiosian izan ezik. Gizarte merkantila ere ez dator erabat bat gizarte kapitalistarekin. Azken hori, lehenaren kasu berezia dena, kreditua sortzearen fenomeno gehigarriak definitzen du, enpresak banku-kredituen bidez finantzatzeko praktikaz –bizitza ekonomiko modernoaren zertzelada bereizgarriak sortzen dituenaz, hau da, bereziki horretarako landutako diruaren (billeteen edo gordailuen) bidez. Baina gizarte merkantila, sozialismoaren alternatiba gisa praktikan beti kapitalismoaren era partikularrean agertzen denez, alde handirik ez da sortuko irakurleak kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko usadiozko kontrasteari eutsi nahi badio.

Gizarte sozialistaz izendatuko dugu sistema instituzional bat, zeinean ekoizpen-bideen gaineko domeinua eta ekoizpenaren zuzendaritza bera erdiko agintaritza batekin inbestiturik baitago, edo bestela, beste adierazmolde bat erabiliz, sistema bat, zeinean gizartearen arazo ekonomikoak, printzipioz, esfera publikokoak baitira eta ez esfera pribatukoak. Sozialismoari Proteus intelektual deitu izan zaio. Definitzeko era asko daude –era asko onargarriak, sozialismoak denentzako ogia esan nahi duela dioen era inozoaz gainera–, eta gurea ez da derrigor hoberena. Baina horrek baditu puntu batzuk, zeinen oihartzuna egitea agian komenigarri izan baitaiteke, nahiz eta pedanteriaz salatuak izateko arriskua badugun.

Gure definizioak baztertu egiten ditu gremio-sozialismo, sindikalismoa eta beste mota batzuk. Horretarako arrazoia datza «sozialismo zentralista» izenda daitekeena, nire iritzian, besteekiko hain garaia dela, non beste erak analizatzea denbora galtzea izango litzatekeen. Baina izendapen hori erabiltzen badugu aintzat hartuko dugun sozialismo mota bakarra adierazteko kontuz ibili behar dugu gaizki-ulertze bat saihesteko. «Sozialismo zentralista» esamoldea bakarrik erabiltzen da sozialismotik zuzendaritza ekonomikoaren unitate-pluraltasuna baztertzeko, izan ere horietako bakoitzak printzipioz interes berezi propioa errepresentatuko bailuke, batez ere lurralde-sektore autonomoen pluraltasunaren existentzia, zeinek ahalbidetuko bailukete gizarte kapitalistako antagonismoak birsortzea. Erregio-interesak baztertze horrek baliteke errealitatez kanpoko zerbait iruditzea. Hala eta guztiz ere esentziala da.

Baina gure izendapenak ez du zentralizatzearen ideia iradoki nahi, ez aginte zentrala, Bulego Zentral edo Ekoizpen Ministerio dei-

tuko duguna, derrigor beharrezkoa den zentzuan, ez eta exekuzio-ekimen guztiak hartara erreserbatuak dauden zentzuan ere. Lehen puntuari dagokionez, bulegoak edo ministerioak baliteke bere plana kongresu edo parlamentu baten onarpenaren pean ezarri behar izatea. Halaber, egon liteke aginte gainbegiratzailerik edo egiaztatzaile bat, *cour des comptes* gisako bat, zeinak pentsa litekeen erabaki partikularren aurka debeku-eskubidea bera ere izan lezakeen. Bigarren puntuari dagokionez, ekintza-askatasun apurren bat gorde beharko litzateke, eta «atakan dauden gizakiei», adibidez, industria eta lantegi desberdinetako kudeatzaileei, ekintza-askatasun ia mugagabea eman lekieke. Oraingo suposizio ausartegi bat egingo dut: esperimentalki finkatua izango dela askatasun-marjina arrazionala eta kudeatzaileei egiazki eman zaiela, halako moldez, non efizientziak ez duen nozituko ez subordinatuaren anbizio neurrigabeengatik ezta txostenak eta erantzun gabeko galderak ministroaren mahaiaren gainean metatzeagatik, ez eta Mark Twainek patata-bilketari buruz emandako arauak gogoraz ditzaten azken horren aginduengatik ere.

Ez ditut kolektibismoa edo komunismo bereizian definitu. Lehen esamoldea ez dut inola ere erabiltzen eta azkena bidenabar bakarrik erabiliko dut beren buruei komunista deitzen dieten taldeak aipatzean. Baina bi esamolde horiek erabili beharko banitu sozialismoaren sinonimo bihurtuko nituzke. Erabilpen historikoa aztertuz, idazle gehienak horiei esanahi desberdinak ematen ahalegindu dira. Egia da «komunista» esamoldeak erregulartasun handi samar batez balio izan duela besteek baino ideia indartsuago edo erradikalagoak izendatzeko. Horregatik sozialismoaren dokumentu klasikoetako batek Manifestu «Komunista» dauka izentzat. Gainera, horien arteko printzipio-desberdintasunak ez dira inoiz oinarritzakoak izan, eta alor sozialistan daudenak ez dira alde txikiagokoak horren eta komunistaren artean daudenak baino. Boltxebikeek komunista deitzen diete beren buruei eta aldi berean sozialista egiazko eta bakartzat dauzkate beren buruak. Eta, egiazkoak eta bakarrak direla edo ez direla, kontua da sozialistak direla.

Saihestu egin ditut baliabide naturalen, lantegien eta ekoizpen-ekipoen «jabetze estatala» edo «jabego estatala» esamoldeak. Puntu horrek badu garrantzi pixka bat zientzia sozialen metodologiaren ikuspuntutik. Badira, zalantzarik gabe, aro partikularrarekin edo

mundu sozialarekin inolako erlazorik ez duten kontzeptuak, hala nola «beharrizana» edo «hautespena» edo «ondasun ekonomikoa». Badira beste batzuk, nahiz eta erlazio hori izan beren esanahi arruntan, analistak galtzeko zoriraino errefinatu dituenak. Prezio eta kostu kontzeptuek balio lezakete adibidetzat¹. Baina badira oraindik kontzeptu batzuk, beren izaerarengatik, lekuz aldatzekoak ez direnak koadro instituzional berezi baten kutsua galdu gabe. Izugarri arriskutsua da dagokien mundu sozial edo kultura-alaz kanpo eta, izatez, deskribapen historikoa desitxuratzera irits liteke. Alabaina, jabetze edo jabego esamoldeak –baita zergapetzea ere nire iritziz– gizarte merkantilekoak dira, zalduna eta feudoa mundu feudalekoak diren bezalaxe.

Gauza bera gertatzen da estatuarekin ere. Defini genezake, noski, soberania-irizpidetaren bidez eta estatu sozialistaz hitz egin orduan. Baina kontzeptuan mamirik izatekotan, eta ez gandu legalista edo filosofikoa bakarrik, esamolde hori ez litzateke sartu beharko gizarte feudalari edo gizarte sozialistari buruzko eztabaidetan, zeren horietako bakar batek ere ez baitu ezarri eta ezingo bailuke ezarri ere esfera publikoaren eta pribatuaren arteko bana-lerroa, kontzeptu horri bere esanahi esentziala ematen diona. Esanahi hori gordetzeko bere funtzio-, metodo-, eta jarrera-aberastasun guztia erekin, hoberena da esatea estatua, jaun feudal eta burgesiaren arteko talken eta konpromisoen emaitza dena, fenix hegazti sozialista sortuko deneko errautsaren parte izango dela. Arrazoi horrengatik ez dut erabili esamolde hori sozialismoaren nire definizioan. Begi-bistan dago sozialismoa estatu-ekintza batez ezar daitekeela. Baina nik ez dut inolako eragozpenik ikusten esatean estatua iraungi egiten dela ekintza hori burutzean, Marxek seinlatu eta Leninek errepikatu duenez.

Aspektu batean, azkenik, gure definizioa bat dator gainerako guztiekin topatu ditudan beste guztiekin, eta euskarri ekonomiko hutsean biraka ibiltzean datza hori. Sozialista orok iraultzatu egin nahi du gizartea angelu ekonomikotik eta espero dituen bdeinkapen guztiak instituzio ekonomikoen eraldakuntzatik etorriko dira. Horrek kausazio sozialaren teoria bat inplikatzeko du, noski, hau da: teoria bat, zeinaren arabera sistema ekonomikoa baita elementu errealki obra-tzailea gizarte deitzen dugun fenomeno batura orokorrean. Hemen, hala ere, bi ohar egin behar dira.

Lehenik, aurreko atalean seinalatu da, kapitalismoaren aipamena eginez, eta orain seinalatu behar da, sozialismoaren aipamena eginez, ez guretzat behatzaileontzat eta ez beren konfiantza sozialismoan ezarri behar dutenentzat, aspektu ekonomikoa ez dela kontuan izan beharreko bakarra, ezta garrantzitsuena ere. Definitu dudana bezala definitzean ez dut hori ukatzeko asmorik izan. Eta nik aurkitu ditudan edo irakurri ditudan sozialista landu guztiei justizia egiteko baieztatu behar da beraientzat ere haxe bera dela, eta, bere kredoak egozten dion eginkizun kausatzailearengatik elementu ekonomikoaren garrantzia azpimarratzen badute, ez dute iradoki nahi ez dagoela ezer borrokatzea merezi duenik txuletez eta irratiez kanpo. Badira, izan, hain zuzen ere horixe pentsatzen duten materialista jasanezinak. Eta lurra-
ren parean ez dabilen sozialista askok promesa ekonomikoa azpimarratzen dute, hala ere, berehalako haien ekarpen-indarrarengatik, botoak atzemateko kanpainan jartzen direnean. Hori egitean beren kredoak desitxuratu eta andeatu egiten dute. Guk ez dugu gauza bera egingo. Horren ordez gogoan izango dugu sozialismoak urdaila betetzea baino helburu goitarragoetara jotzen duela, kristautasunak zerua eta infernuaren balio nolabait hedonistak baino zerbait gehiago esan nahi duen bezalaxe. Sozialismoak, ezer baino lehen eta batez ere, mundu kultura berri bat esan nahi du. Horrengatik kontzebi daiteke gizaki bat sozialista gartsua izatea nahiz eta sinetsi ordena sozialista, segur aski, ekarpen ekonomikoaren ikuspuntutik kapitalista baino behereagoa dela². Hortik dator sozialismoaren aldeko edo aurkako ezein argudio huts ez izatea inoiz erabakigarria, berez oso zorionekoa izanik ere.

Baina, bigarrenik, zer mundu kultura-al? Ahalegina egin genezake galdera horri erantzuten sozialista aintzatetsien agerpen efektiboak aztertuz ea horietatik zibilizazio sozialistaren koadro bat sortzen den ikusteko. Lehen begiratuan badirudi material ugari dagoela gisa horretakoa. Sozialista batzuk beti prest daude, eskuak bildurik eta irribarre duntsua ezpainenetan, justizia, berdintasuna, oro har, askatasuna eta bereziki «gizakiak gizakiari ezartzen dion esplotazio»etiko askapenaren kantika abesteko; bakeari eta maitasunari, lokarri etenei eta deskateaturiko kultura-energiei, ortzemuga ireki berriei, duintasun aurkitu berriei. Baina hori Rousseau da Bentham pixka batez aduleratua. Beste batzuek sindikalismoaren hegal erradikalaren interes eta

gurariak aldarrikatzea besterik ez dute egiten. Beste batzuk, hala ere, uzkur agertzen dira. Zergatik? Topiko merkeak mespretxatzen dituztelako baina beste ezer imajinatzeko gai ez direlako? Edota, beste zerbait imajinatu arren, herriarentzat horrek duen erakarmenari buruz zalantzak dituztelako? Beren kamaradekin erremedio gabeko iritzi-desberdintasunean daudela badakitelako?

Bide horretatik ez dago aurrera egiterik. Horren ordez «sozialismoaren zehaztugabetasun kultura» izenda litekeenari aurre egin beharra daukagu. Izatez, gure definizioaren arabera eta gainerako definizio gehienen arabera, gizarte bat osoki eta egiazki sozialista izan daiteke eta, hala ere, gobernatzaile absolutu batek eraendua edo ahalik eta erarik demokratikoenean antolaturik egon daiteke; aristokratikoa edo proletarioa izan daiteke; teokrazia eta hierarkikoa edo atea edo erlijioarekiko axolagabea izan daiteke; armada moderno bat baino askoz diziplinatukiago antolaturik egon daiteke edo diziplinarik batere gabe; aszetikoa edo espiritu eudemonistiko, energiko edo ahula izan daiteke; etorkizunean bakarrik edo presentean bakarrik pentsa dezake; gerrazale eta nazionalista edo bakezale eta internazionalista, berdinzale edo kontrako; jaunen edo esklaboen etika izan dezake; haren artea subjektiboa edo objektiboa izan daiteke³; bere bizi-erak indibidualistak edo estandarizatuak, eta, gutako batzuentzat besterik gabe gure atxikimendua segurtatzeko edo gure mespretxua sortzeko berez aski izango litzatekeena, bere geruza hoberenak edo txarrenak berregin dezakete eta, kasuen arabera, gaingizakiak edo azpigizakiak birsortu.

Zergatik da hori horrela? Irakurleak bere aukera egin dezake. Marx oker dagoela esan dezake eta sistema ekonomikoak ez duela zibilizazio bat determinatzen, edo bestela, horren ordez, sistema ekonomikoak bere osotasunean determina lezakeela, baina sozialismoa gure zentzuan eratzen duen elementu ekonomikoak ez duela determinatzen beste datu eta auresupostu ekonomiko batzuen laguntzarik gabe. Ezer hoberik ez zitzaigukeen gertatuko kapitalismoarekin, esan dezagun bidenabar, baldin eta ahalegindu izan bagina bere mundu morala berreraikitzen hartaz eman dugun definizioaren baitako gertakarien bidez. Kasu honetan, zalantzarik gabe, zehaztutasun baten inpresioa daukagu eta uste dugu ahalgarria dela arrazoitzea zibilizazio kapitalistak bere baitan duen joeraz. Baina aukera hori zor zaio geure

aurrean errealtate historiko bat edukitzeari bakarrik, zeinak ematen baitizkigu behar ditugun datu gehigarri guztiak eta baztertu egiten baitu *via facti* beste ahaltasun batzuen kopuru mugagabea.

Hala ere, zehaztutasun hitza erabili dugu zentzu hertsia eta tekniko samarrean, eta, gainera, mundu kultura oso batekiko aipamenean. Zehaztugabetasuna, zentzu horretan, ez da eragozpen absolutu bat zertzelada edo joera batzuk aurkitzeko, zeinak ordena sozialistak, bere horretan, beste ordena batzuek baino errazago birsor baititzake, batez ere organismo kulturalaren puntu jakin batzuekiko joerak. Hipotesi gehigarri arrazoizkoak ideiatzea ere ez da ezinezkoa. Aski da, horretaz konbentzitzeko, ahaltasunen aurreko zerrendara jotzea. Baldin eta, adibidez, sozialista askok bezala sinesten badugu –oker nire iritziz–, gerrak interes kapitalisten arteko gatazka-eretako bat baizik ez direla, besterik gabe, hortik segitzen da hura bakezalea izango litzatekeela eta ez gerrazalea. Edota onartzen badugu sozialismoa arrazionalismo mota halako batekiko parez pare garatzen dela, zeinatik ezin bereizizkoa baita, ondorioztatuko dugu balitekeela ez-erlijiosoa izatea, anti-erlijiosoa ez bada. Zortea tentatuko dugu joko horretan han eta hemen, nahiz eta, azken finean, hobe izango litzatekeen alor horretan maisu handi bakarra den Platoni lekua uztea. Horrek denak ezeztatu egiten du, hala ere, sozialismoa, izatez, Proteus *kultura* bat delakoa eta haren ahaltasun kulturalak zehaztuagoak izan daitezkeelakoa genero sozialistaren barruan kasu berezietz hitz egitera mugatzen bagara bakarrik, zeinetariko bakoitza izango baita, agian, defendatzen duenarentzat egiazko sozialismo bakarra; baina horietako edozein onar dezakeguk.

XVI KAPITULUA

OINARRIZKO PLAN SOZIALISTA

Lehenik ikusi behar dugu ea dagoen ala ez ezer inkoherenterik ekonomia sozialistaren logika garbian. Zeren logika horren sendotasunaren ezein probak inoiz inor sozialismora ez du konbertitu, ez eta egitatez ahalbidetu ere sozialismoa proposamen egingarria dela segurtasunez baieztatzea, inkoherentzia logikoaren proba bat edo bere inkoherentzia logikoa probatzeko ahalegin baten porrota,

aski litzateke berez horrek esan nahi duen absurdoaz gu konbentzitzeko.

Gure galdera, era zehatzagoan, honela egin daiteke: kontsideratzen dugun gisako sistema sozialista bat emanik, ahalgarria al da haren portaera arrazionalako datuetatik eta printzipioetatik bakarrik zer ekoitzi eta nola ekoitzi auziari buruzko erabaki determinatuak ondorioztatzea?, edo ekonomialari matematikoen hitzetan hori bera adierazteko, datu eta printzipio horiek gidatzen al dute, ekonomia sozialista baten baldintzetan, independenteak, bateragarriak diren ekuazioetara –hau da, kontraesanetik libre daudenetara– eta kopuruz aski direnak problemaren ezezagunak unibokoki determinatzeko bulego zentralaren edo ekoizpen-ministerioaren aurrean?

1. Erantzuna baiezkoa da. Ez dago ezer inkoherenterik sozialismoaren logika hutsean. Eta hori hain da begi-bistakoa, non hori azpimarratzea bururatu ere ez baitzitzaidakeen egingo ukatua izan delako eta sozialista ortodoxoak baiezko erantzun bat, behar besteko exigentzia zientifikoekin, emateko gai izan ez direlako, gertakari oraindik bitxiagoarengatik ez balitz, harik eta iritzi eta begikotasun nabarmen burgeseko ekonomialariek beren egitekoa irakatsi ez dieten arte.

L. Von Mises¹ irakaslea da ezetzaren aldeko autoritate duin bakarra. Portaera ekonomiko arrazionalak kostu-kalkulu arrazionalak auresuposatzen dituelako baieztapenetik abiatutik eta, ondorioz, kostu-faktoreen prezioak eta merkatu prezio-eratzailleak, ondorioztatzen du gizarte sozialista batean, halako merkaturik izango ez litzatekeenez gero, ekoizpen arrazionalaren zuin orientatzaileak faltako litzatekeela, eta horrenbestez sistemak erabat zoriaren baitan funtzionatu beharko lukeela. Horri eta antzeko beste kritika batzuei, edo agian zalantza propio batzuei, ortodoxia sozialistaren ordezkari kreditatuek hasiera batean ez zeukaten kontra egiteko askorik, kudeaketa sozialistaren aurreko kapitalistak garaturiko balio-sistematik abia zitekeelako argudioa izan ezik, (eta hori, zalantzarik gabe, garrantzitsua da zailtasun praktikoen eztabaidarako, baina ez printzipio-azirako) edo beren paradisu loria miraritsuei laudoriozko ereserki bat abestea, zeinean erraza izango bailitzateke amarrukeria kapitalista guztiak alboan uztea, hala nola kostuaren arrazionaltasuna, eta zeinean arazo guztiak kamaradek ebatziko bailituzkete biltoki sozialistei ezinagortuki darizkien dohainez. Baina horrek Von Misesen kritika onartzea esan nahi

du, eta hori sozialista batzuek benetan onartzen dutela dirudi gaur egun ere.

Egiteko gutxi uzteko eran auzia ebatzi zuen ekonomialaria, hura landu eta bigarren mailako puntu batzuk argitzea salbu, Enrico Barone izan zen, zeinaren argudiora igortzen baititut froga zorrotza nahi duten irakurleak². Hemen aski izango da haren tesiaren zirrimarra labur bat ematea.

Ekoizpenaren ekonomialarien ikuspuntutik –garraioa eta merkantziak salmenta-baldintzetan jartzera jotzen duten eragiketa guztiak barne– baldintza teknikoek ezarritako mugen barruan dauden «fakto-re»en konbinazio arrazionala besterik ez da. Gizarte merkantil batean faktore horiek konbinatzearen atazak erostea edo akuratzzea esan nahi du eta gizarte hori ezaugarritzen duten errenta indibidualak eroste-edo akuratzeko-prozesu horretan sortzen dira hain zuzen. Hau da, ekoizkin sozialaren ekoizpena eta «banaketa» bi fenomeno horiek aldi berean afektatzen dituen prozesu beraren aspektu desberdinak baizik ez dira. Alabaina, alde logiko –edo teoriko huts– garrantzitsuena ekonomia merkantil baten eta ekonomia sozialista baten artean dago azken horretan jadanik gauzak horrela ez izatean. Nola *prima facie* ez dagoen ekoizpen-bideen merkatu-baliorik eta, oraindik garrantzitsua goa dena, nola gizarte sozialista bateko printzipioek ez duten ahalbidetuko balio horiek banaketa-irizpide bihurtzerik, nahiz eta existitu, gizarte sozialista batean gizarte merkantileko automatismo banatzaillea falta da. Hutsartea ekintza politiko baten bidez bete behar da, esan dezagun ondasun komuna eratzearen bidez. Banaketa horrela eragiketarezezi bihurtzen da, eta, logikoki gutxienez, ekoizpenetik erabat bereizian. Erabaki edo ekintza politiko horrek gizartearen izaera ekonomiko eta kultura-alaren emaitza izan beharko luke, bere portaerarena, bere xedea eta bere burutzapenena, eta, bestalde, hori guztia neurri handi batean determinatuko luke; baina, ikuspuntu ekonomikotik, izaera erabat hautazkoa izango luke. Lehenago aditzera eman denez, komunitateak arau berdinzale bat har dezake –eta hori ideal berdinzaleei egotz lekiekeen esanahi askoren arteko edozeinetan– edo desberdintasunak, onartu nahi den mailaraino. Nahi den edozein norabidetan prestazio goren bat sortzeko asmoz banaketa antolatzea bera ere onar liteke –eta hori bereziki interesgarria litzateke. Kamarada indibidualen desirak azter ditzake edo autoritate batek edo bestek

haientzat hoherentzat jotzen duena ematea erabaki; «bakoitzari bere beharrianen arabera» topikoak bi esanahi horietako bat izan dezake. Baina arauen bat ezarri beharra dago. Gure helbururako aski izango da kasu guztiz berezi bat kontsideratzea.

2. Demagun gure komunitatearen konbikzio etikoa erabat berdinzalea dela, baina aldi berean agintzen duela kamaradek askatasuna izan behar dutela nahi dutena hautatzeko ministerioak ahal eta nahi dituen ondasunen artetik, zeren komunitateak zapuztu egin baititzake, noski, merkantzia jakin batzuk, esaterako, edari alkoholduak. Demagun, gainera, hartutako ideal berdinzale berezia pertsona bakoitzari txartel emanez –haurrak eta segur aski beste norbanako batzuk pertsona-frakzio gisa konputa daitezke agintaritzak eskudunak horrela erabakita–, zeinak adierazten baitu kontsumo-ondasun batzuen kantidad halako baterako duten eskubidea eskuragarri dagoen ekoizkin soziala zati egitearen baliokidea dena jardunean dagoen konputualdian uzilarien kopuruaren artean, txartel horiek guztiak aldi horren amaieran deusezten direlarik. Txartel horiek kontsumorako ekoizti diren edo ekoizten ari diren elikagai, jantzi eta etxeko gauza, etxe, automobil, zine-emanaldi eta abar guztien x-en partearen uzitzat har daitezke (kontsumitzaileei emateko asmoarekin) kontsideratzen den aldian. Txartel horien xedea da truke-ekintzen masa konplexu eta alferrekoa ekiditea, zeina bestela kamaraden artean gertatuko bailitzateke; horregatik uziak ez ditugu ondasunetan adierazten, baizik egoki hautaturiko unitate-kantitatetan, baina xede konkreturik gabe –unitate dei ditzakegu besterik gabe, edo ilargiak, edo eguzkiak, edo dolar ere bai–, eta arautu egiten ditugu txartel-kopuru jakin bat jasotzean eman behar diren merkantzia bakoitzaren unitateak. Gure hipotesietan biltoki sozialek markaturiko «prezioak» beti bete beharko lukete horietako bakoitzak, aipatzen diren merkantzien dagoen kantidadaz biderkaturik, bestela hautazkoa litzatekeen kamaraden eskubideen totala emango lukeen baldintza. Baina ministerioak ez dauka prezio singularrak finkatu beharrik, hasierako iradokizunen bidez ez bada. Gustu eta «dolarretako errenta» berdinak emanik, kamaradek hasierako iradokizun horien aurreko beren erreakzioz agertuko dute zer preziotan prest egongo liratekeen ekoizkin sozialaren osotasuna eskuratzeko, inori interesatzen ez zaizkion erosgaiak salbu, eta ministerioak onartu egin beharko lituzke orduan prezio horiek bere biltokietako izakinak saldu

nahi izango balitu. Hori era egokian egingo da eta partaidetza berdin-en printzipioa oso zentzu txalogarrian eta argitasun osoz zehazturiko eran burutuko da.

Baina horrek auresuposatzen du, jakina, erosgai bakoitzetik kantitate jakin bat ekoitzi dela. Benetako arazoa, zeinaren ebazgarritasuna ukatu egin baita, ekoizpen aurreikusi hori arrazionalki nola egin daitekeen aurkitzean datza hain zuzen ere, hau da, kontsumitzaileen asetasun handiena emaitzatzat emango duen era batean³, eskura dauden baliabideek ezarritako mugen barruan. Baina begi-bistakoa da kamaraden gehiengo-botoz hartutako ekoizpen-planaren gaineko erabaki batek, esaterako, inondik ere utzi egingo liokeela baldintza hori betetzeari⁴, zeren, kasu horretan, pertsona batzuek, segurtasun oroz, eta segur aski kontsumitzaile guztiek ez bailukete nahi dutena eskuratuko eta oraindik ematea ahalgarri litzatekeena, beste asetasuna murriztu gabe. Hala eta guztiz ere, halaber argi dago zentzu honetan arrazionaltasun ekonomikoa beste era batera lor daitekeela. Teorialarientzat ahalatasun hori dator kontsumitzaileek, kontsumogaiak ebaluatzean (eskaera egitean), *ipso facto* ondasun horiek ekoiztean sartzen diren ekoizpen-bideak ere ebaluatzen dituzten baieztapen elementaletik. Profanoarentzat gure gizarte sozialistako ekoizpen-plan arrazional baten ahalgarritasunaren froga honetara aurkez daiteke:

3. Gauzak errazteko ekoizpen-bideak kantitate jakin batzuetan, eta oraingoz, aldaezinetan daudela suposatuko dugu. Demagun orain bulego zentrala industria partikular batentzako batzorde bihurtzen dela; hobeki oraindik, industria bakoitzarentzat ezartzen duela agintaritza bat arautzeko eta bulego zentralarekin lankidetzan aritzeko arduraduna, zeinak zuzentzen eta koordinatzen baititu industria-kudeatzaile edo kudeaketa-batzorde horiek guztiak. Bulego zentralak egin-kizun hori du, ekoizpen-indarrak –horiek guztiak haren zuzendaritzapean daude– industria-kudeaketa horiei esleituz, arau jakin batzuen arabera. Demagun bulegoak agintzen duela industria-kudeaketek eskatzea erabakitzen duten ekoizpen-ondasun eta -zerbitzu kantitate guztiak eduki ditzaketela, hiru baldintza betez gero: 1º ahalik eta ekonomikoen ekoitzi behar dute; 2º bulego zentralera transferitzea exigitzen zaie, eskaturiko ekoizpen-ondasun edo ekoizpen-zerbitzu bakoitzeko, aurreko kontsumo-ondasunen entregean bitartez lorturiko kontsumo-dolarren kopuru jakin bat, edo, hau ere esan genezake, bulego

zentrala prest agertzen da edozein industria-kudeaketari ekoizpen-ondasunen kantitate mugagabeak «saltzeko» ezarritako «prezioetan»; 3º kudeaketei exigitzen zaie erabil ditzaketen kantitateak eskatu eta erabiltzea (eta ez gutxiago) era ekonomikoenean ekoizten dituzten bitartean, beren ekoizkinen ezein parte ekoizpen-bideei dagozkien kantitateengatik bulego zentralera transferitu behar dituzten baino «dolar» gutxiagoren truke «saldu» beharrik gabe. Hizkera teknikoagoa erabiliz, baldintza horrek esan nahi du sail guztietako ekoizpenak halako bolumen bat lortu behar duela, non «prezioek» kostu marjinalen pareko gertatu behar duten (ez proportzional hutsak)⁵.

Industria-batzorde bakoitzaren ataza argi eta garbi zehazturik geratzen da horrela. Konkurrentzia perfektuko eraentzan funtzionatzen duen industria batean, enpresa bakoitzak zehazki badaki gaur egun zer eta zenbat ekoitzi behar den eta nola ekoitzi aukera teknikoak, kontsumitzaileen erreakzioak (bere gustuak eta errentak) eta ekoizpen-bideen prezioak ematen zaizkion bezain laster, era berean kudeaketa industrialek, gure erkidego sozialistan, jakingo dute zer ekoitzi behar duten, nola ekoitzi eta bulego zentralari zer ekoizpen-faktoreen kantitatea «erosi» behar dioten azken horren «prezioak» argitaratu eta kontsumitzaileek beren «eskaerak» agertu bezain laster.

Zentzu batean ekoizpen-faktoreen «prezio» horiek, kontsumo-ondasunen «prezioak» ez bezala, bulego zentralak aldebakarki finkatuko lituzke. Hala eta guztiz ere, era berean esan daiteke industria-kudeaketek ekoizpen-ondasunen eskaera argiro zehaztua destolestean dutela kontsumo-ondasunei buruz kontsumitzaileek egiten dutenaren oso antzekoa. Gure proba osatzeko aurkitzeko daukagun gauza bakkarra da arau bat bulego zentralaren prezioak finkatzeko jarduera horretarako maximoaren irizpidearekin bat etorriko dena. Baina arau hori begi-bistan dago. Batzordeak aski du prezio bakar bat espezie eta ekoizpen-ondasunen kalitate bakoitzerako ezartzearekin (batzordeak diskriminatzen badu, hau da, prezio desberdinak ezartzen baditu espezie eta kalitate bereko erosgaientzat kudeaketa desberdinei diskriminazio horrek justifikatua izan beharko luke, oro har, arrazoi ez ekonomikoengatik)⁶ eta ahalegindu beharko luke prezio horrek «merkaturak hutsik uzten», hau da, ez daitezela gera bere eskuetan ekoizpen-ondasunen kantitateak erabili gabe eta «prezio» horiekiko kantitate gehigarriak ez dadila eska. Arau hori aski izango da kostuaren kalku-

lu arrazionala segurtatzeko eta, ondorioz, ekoizpen-indarren esleipen ekonomikoki arrazional bat –zeren lehena bigarrena segurtatu eta egiaztatzeko metodoa besterik ez baita eta, ondorioz, ekoizpen-planaren arrazionaltasuna gizarte sozialistetan–. Baieztapen honen froga segitzen da hemendik: arau hori betetzen den heinean ekoizpeneko ezein elementu ezin daitekeela desbidera ekoizpeneko beste sail batera, elementu horrek bere enplegu berrian sortuko lituzkeen baino kontsumo-balioren (edo gehiagoren) deuseztapena eragin gabe (kontsumo-dolarreko terminotan adierazirik). Horrek esan nahi du ekoizpena eramaten dela, kanpo-ingurumeneko baldintza orokorrek gizarteari ahalbidetzen dioten norabide guztietan, arrazionalki eraman daitekeenaraino eta ez haratago, eta horrek osatzen du plangintza sozialistaren arrazionaltasunaren gure defentsa ere bizitza ekonomikoaren prozesu geldikor batean, zeinean dena zuzen aurreikusirik baitago, eta aldika errepikatzen baita, eta zeinean ez baita plana behera botako duen ezer gertatzen.

4. Baina zailtasun izugarriak sortzen dira prozesu geldikorraren teoriaren esparruetatik irteten bagara eta eraldakuntza industrialak berekin daramatzan fenomenoak kontuan hartzen baditugu. Logika ekonomikoa kontsiderazioan sartzen den neurrian ez dago baieztatzerik espezie kontsideratuko sozialismoa, nahiz eta teorikoki gai izan ekonomia geldikor batean errepikatzen diren administrazioaren egitekoak burutzeko, derrigor porrot egingo luke «progresuak» planteaturiko arazoak ebazteko orduan. Aurrerago ikusiko dugu, zergatik den garrantzizkoa, guztiarekin ere, gizarte sozialista baten arrakastarako, horrek bere karrera ez bakarrik ahalik eta aberaskien horniturik hastea, bere aurreko kapitalistarengandik, esperientzian eta prozedura teknikoetan, baita baliabide materialetan ere, baizik eta gizarte kapitalista bere haurtzarotik irten eta egoera geldikor batera hurbildu eta gero hastea. Baina horretarako arrazoia ez dago metodologia arrazional eta argi zehaztu bat kontzebitzeko gai ez izatean, zeinaren aplikazioak ahalbidetuko bailioke gizarte sozialistari eskainiko litzaizkiokeen bere aparatu industrialak hobetzeko aukera guztiez baliatzea.

Demagun x industriaren ekoizpen-prozesurako makina berri eta efizienteago bat aurkitu dela. Inbertsioaren finantzazioak berekin dakartzan arazoak baztertzeko –laster batean kontsideratuko ditugunak– eta fenomeno-sail argi zehaztu bat bakartzeko, suposatuko

dugu makina berri hori makina ez hain efizientea orain arte ekoitzi duten lantegi berek ekoitz dezaketela. Eta kostu berean zehazki, ekoizpen-indar terminotan adierazita x industriaren kudeaketak, instrukzioen lehen klausula betez (hau da, ahalik eta ekonomikoen ekoiztearenean), makina berria onartu eta horrela merkantzia-kantitate bera ekoitziko du ekoizpen-bideen kantitate txikiago batekin. Ondorioz, etorkizunean prest egongo da ministeriora edo bulego zentralera kontsumo-dolarren kantitate txikiago bat transferitzeko kontsumitzaileen-gandik jasotako kantitatea baino. Dei diezaigun nahi bezala aldeari, adibidez, D, edo palakada bat, edo «mozkinak». Kudeaketak, izatez, hautsi egingo luke bere instrukzioetako hirugarren klausulak ezarritako baldintza «mozkin» hori egikarituko balu, eta klausula hori bete eta berehalaxe baldintza horrek inplikatzin duen kantitate gehigarri handiagoa ekoizten badu, ez dira inoiz mozkin horiek sortuko. Baina mozkin horien existentzia potentziala, kontuan hartu beharrekoak zirenak, aski izango lirateke gure hipotesipean izango luketen funtzio bakarra betearazteko, hau da: era argiro zehaztuan, kasu horretan burutzea arrazionala izango litzatekeen ekoizpen-indarren birbanaketari eman beharreko orientazioa eta hedapena adieraztearen funtzioa.

Gizarteko ekoizpen-indar eskuragarriak erabat enplegatutik badaude kontsumo-maila jakin bati eustearen atazan hobekuntza bat iradokitzen bada –zubi berri bat edo burdinbide berri bat, esaterako– faktore gehigarrien erabilpena behar duena, edo, inbertsio gehigarri bat, horretara ere esan baitezakegu, kamaradek bietako bat egin beharko lukete: legeaz finkatu direla suposatuz dugun baino ordu gehiagoz lan egin edo beren kontsumoa murriztu edo bi gauzak aldi berean. Kasu horretan, gure hipotesiek, ahalik eta era sinpleenean oinarritzko arazoa ebazteko asmoz ideiatuek, soluzio «automatikoa» eragotzi egiten dute, hau da, bulego zentrala eta industria-kudeaketak era pasibotan gidatzen utzirik besterik gabe, adierazpen objektiboekin, hiru arauak betetzeari utzi gabe atera dezaketen erabaki bat. Baina inperfekzio hori, jakina, gure eskema bereziaren inperfekzioa da eta ez ekonomia sozialistarena. Soluzio automatiko hori lortu nahi badugu gauza bakarra egin behar dugu: espeditu ziren aldian erabili ez ziren kontsumo-erosgaien uzi guztiak baliogabetzen dituen legea deuseztu bakarrik, salmenten berdintasun absolutuaren printzipioari uko egin eta batzorde zentralari aparteko lanorduengatik sariak banatzeko ahal-

mena eman eta –nola deitu?– tira, esan dezagun aurrezkia dela-eta. Hobekuntza eta inbertsio ahalgarriak halako hedapen batean ekin daitezkeelako baldintza, non haietatik tentagarritasun gutxieneakoak ere «mozkin» bat emango duen, inbertsio marjinal hori egiteko beharrezkoak diren aparteko lanorduen edo aurrezkiaren (edo bi gauzen) kantitateak erakartzeko eman beharreko sarien parekoa denak, horrek argiro determinatzen du gure arazoak sartzen dituen aldagai berri guztiak, aparteko lanorduak eta aurrezkia, kontsiderazioan hartu beharreko tarteetan, dagozkien sarien funtzio baliobakarrekoak badira⁷. Sari horien kontrabaliotzat ematen diren «dolarrak» komenigarria da lehen jalkitako errenta-dolarrekiko gehigarri gisa. Ez dugu hemen norabide desberdinetan horrek ezarriko lituzkeen doiketetan geratu beharrik.

Baina inbertsioari buruzko argudio honek oraindik argiago uzten du gure analisiaren premietarako hobekien egokitutzat kontsideratu dugun eskema ez dela ekonomia sozialistaren oinarritzko plan ahalgarri bakarra, ez eta, derrigor, gizarte sozialista batentzat gomen-datuko litzatekeena ere. Sozialismoak ez dauka berdinzalea izan beharrik; baina ez dago espero izaterik ere gizarte sozialistak salmenten desberdintasun maila aski nabarmendu bat gizarte kapitalistak lortzen duen inbertsio mota lortzeko fase ziklikoen batez bestekoan. Desberdintasun kapitalistak berak ere ez dira aski horretarako, eta bere efektua errebertxatu egin behar du sozietate anonimoen erreserba-metaketak eta banku-kredituaren «sorrerak», nahiz eta metodo bereziki automatikoak ez izan, ez eta unibokoki determinatuak daudenak ere. Beraz, baldin eta gizarte sozialista batek inbertsio errealek mota bat lortu nahi badu antzekoa edo, baita, handiagoa ere –ez du beharrik, noski–, aurrezteaz bestelako metodoetara jo beharko du. Orduan erabat egingarria izango litzateke mozkinen metaketa bat, zeinak gauzatzen utz bailitezke egoera potentzialean soilik mantendu ordez, edo gorago iradokitzen denez, kredituaren sorreraren antzeko zerbait. Hala eta guztiz ere, askoz komenigarriagoa izango litzateke auzia bulego zentralaren edo kongresuaren edo parlamentuaren eskuetan uztea, zeinek likidatu ahal izango bailukete adostasunean aurrekontu sozialaren ataltzat; aldez gizarteko eragiketa ekonomikoen parte «automatiko»aren gain botoa izaera formal hutsekoa izango litzateke, edo, agian, gainbegirapenezkoa, inbertsio-sailen gain erortzen den botoak –gutxienez haren zenbatekoari dagokionez– erabaki efektiboa suposatuko luke eta ber-

dintasun-egoeran legoke gastu militarren gaineko botoarekin, eta abarrekin. Erabaki hori erabaki «automatiko»ekin koordinatzea kontsumo-ondasun singularren kantitate eta kalitateei buruz ez luke zailtasun gaindiezinik izango. Baina soluzio hori onartzean gure eskemako oinarrizko printzipiotik aldenduko ginатеке puntu oso garrantzitsu batean.

Oinarrizko gure planaren beste zertzelada batzuk aldatu egin daitezke, bere koadro orokoraren barruan bertan ere. Adibidez, nik ez diet utzi kamarada indibidualei noiz lan egingo duten erabakitzeo ahalmena. Aparteko lanorduei dagokienez salbuespen baldintzazko batekin, nahiz eta boto-emaile gisa eta beste gai batzuetan erabaki horren gain errenta-banaketaren eta abarren gain dutenaren pareko eragina izan. Halaber, ez diet utzi zereginerako bulego zentralak utzi ahal dien eta nahi dien baino hautapen-askatasun handiagoa, haren plan orokorreko eskakizunen barruan. Ordenazio hori bakoitzak errepresenta dezake derrigorrezko zerbitzu militarren analogia erabiliz. Plan hori nahikoa hurbiltzen da «bakoitzari haren premien arabera, bakoitzarengandik haren gaitasunaren arabera» kontsignara, edo, edozein kasutan, berorri molda lekiokе garrantzi gutxiko aldaketak eginеz. Baina, horren ordeз, kamarada indibidualei ere utz diezaiekegu egin behar duten lanaren kantitatea eta kalitatea erabakitzeo ahalmena. Lan indarren banaketa arrazionalak izan beharko luke, orduan, estimulu-sistema baten bitartez entseatua, berriro sariak eskainiz, kasu horretan, ez bakarrik aparteko orduengatik, baizik lan ororengatik inbertsio-egitarauari eta kontsumitzaileen eskaeraren egituraren egitarauari dagozkion gaitze-mota eta -maila guztien lan-»eskaintza» bat, alderdi guztietan, segurtatzearren. Sari horiek ageriko erlazioa izan beharko lukete enplegu baten erakargarritasun edo gogaikarritasunarekin eta horretan jarduteko beharrezkoa den trebeziarekin, eta, ondorioz, baita gizarte kapitalista bateko soldata-eskalarekin ere. Soldata-eskala horren eta sarien sistema sozialistaren arteko analogia urrunegi eraman behar ez bada ere, sistema horren barruan, «lan-merkatu» batez hitz egin genezake. Mekanismoko pieза hori sartzeak, jakina, nabarmen aldatuko luke gure oinarrizko plana. Baina ez luke sistema sozialistaren determinagarritasuna afektatuko. Bere arrazionaltasun formala areagotu egingo litzateke, izatez, oraindik indar handiagoz.

5. Gauza bera gertatuko litzateke ekonomia merkantilaren eta ekonomia sozialistaren arteko ahaidetasun-antzarekin ere, zeina ira-

kurleak derrigor ikusi behar izan baitu gure analisisian zehar. Antzekotasun hori, antza denez, atsegin gertatu zaienez gero ez-sozialistei eta sozialista batzuei, eta haserregarri gertatu beste sozialista batzuei, agian komenigarria izan liteke argi eta garbi ezarrita uztea zertan datzan eta zeri zor zaion. Orduan ikusiko da zeinen zio gutxi dagoen nola atseginerako hala haserretarako. Ekonomia sozialista baten eskema arrazionala eraiki nahi izatean ekonomia kapitalistaren arazo- en eta prozesuen aurkezpenek tradizioz zehazturiko kontzeptuez eta mekanismoaren erabilpenaz baliatu gara. Mekanismo bat deskribatu dugu, zeinaren eragingailuak berehala ulertzen baitira «merkatu», «salerosketa», «konkurrentzia» eta abar hitzak ahoskatzen ditugun bezain laster. Dirudienek, kutsu kapitalistako esamoldeak erabili ditu- gu, edo gutxitan saiatu gara ez erabiltzen, hala nola: «prezioak», «kos- tuak», «errentak» eta, «soldatak» ere bai, aldiz, «lurraren errentak», «interesa», «soldatak» eta beste batzuk, besteak beste «dirua», nola- bait esateko, gure bidearen bihurgune bakoitzean agertu zaizkigu.

Kontsidera dezagun sozialista gehienei, segur aski, kasurik txar- renetako bat irudituko litzaiekena: «errenta»rena zentzu ricardota- rrean, hau da, naturako indarren ekoizpen-erabileraez lortutakoaren errendimendu-zentzuan; adibidez, «lurra»renean. Gure eskemak ezin du inplikatu, begi-bistakoa denez, ezein lurjaberi «lurraren errenta» bat ordaindu behar zaionik. Zer esan nahi du orduan? Besterik gabe, etorkizun aurreikusgarriko eskakizun guztiak asetzeko behar besteko aberastasuna duen lur mota oro ekonomikoki erabili behar dela, edo arrazionalki deuseztatu, laneskua bezalaxe edo beste edozein ekoiz- pen-indar bezalaxe, eta helburu horretarako errendimendu ekonomi- koaren indize bat ezarri behar dela, zeinarekin erkatu behar baita ira- doki daitekeen lurraren erabilpen berri oro, eta zeinaren bidez sartzen baita hori kontabilitate sozialeko prozesuan. Erkaketa horiek egin ezean komunitatea irrazionalki portatuko litzateke. Baina hori egiteak ez du inplikitzen kapitalismoari inolako amore ematerik egitea ez eta kapitalismoaren espirituari ere. Lurreko errenta dagoen merkantil edo kapitalista oro, nola ikuspuntu ekonomikotik hala soziologikotik, eta jabetza pribatuaren defendatzaileei atsegin gerta lekieteen oro (erren- ta pribatua, akurak, eta abar) erabat baztertua izan da.

Hasiera batean kamaradei esleitu dizkiegun «errentak» ez dira soldatak. Analisi batean, zinez, elementu ekonomiko desberdinez

osaturik daudela, zeinetarik bakarra ezar baitaiteke konexioan lanaren produktibitate marjinalarekin. Sartu ditugun sariak aurrerago antz handiagoa dute gizarte kapitalistako soldatekin. Baina azken horien baliokiderik ez dago, izatez, bulego zentralako liburuetan izan ezik eta berriz ere erreferentzia-indize hutsa besterik ez da, asoziatua, banaketa arrazional baten helburuetarako, lan-gaitze mota eta maila bakoitzari; indize horretatik desagertu egin da mundu kapitalistakoak diren esanahi-sorta oso bat. Bidenabar beha dezakegu, zeren eta gogoan ematen digun bezala izenda baititzakegu, kontsumo-ondasunen gainekeo kamaraden uzien txartel errepresentatiboak banatzen ditugun unitateak, lanordu ere dei genitzake. Eta unitate horien kopuru totala, komenientziaren barruan ezarritako mугen barruan ez den hautazkotasun gutxiagokoa, efektiboki egindako lanorduen pareko bihur genezake, lan-gaitze mota eta mailak kalitate tipo bati berdin doituz, Ricardo eta Marxen antzera. Azkenik, gure komunitateak har dezake, beste edozeinek bezala, kamarada bakoitzak laguntzen duen lan tipoko orduekiko proportzionala izan behar duen printzipioa. Orduan txartel-lan sistema bat izango genuke. Eta horrek duen interesa da, orain kontura ez datozen zailtasun teknikoak alde batera utzita, sistema hori erabat praktikagarria litzatekeela. Baina aise ikusten da zergatik, ez eta orduan ere, «errenta» horiek «soldatak» izango liratekeen. Era berean begi-bistakoa da ordenazio horren praktikagarritasunak ez duela ezer frogatzen lanaren balioaren teoriaren alde.

Ia ez dago eragiketa bera egin beharrik ere mozkin, interes, prezio eta kostu nozioekin. Ahaidetasun-antza haren kausa orain argi-ro ikuskorra da hori egin gabe ere; gure sozialismoak ez du ezer kapitalismotik hartzen, baizik eta kapitalismoak hartzen du asko aukeraren logikatik, helmen perfektuki orokorrekotik. Portaera arrazional orok frogatu behar du, noski, halako antzekotasun formal batzuk beste edozein portaera arrazionaletik, eta horrela gertatzen da, portaera ekonomikoaren esferan, arrazionaltasun hutsaren eragin taxutzailea askoz haratago doala, teoria hutsari dagokionez behintzat. Portaera arrazionalaren sistema adierazten duten kontzeptuak, aro historiko baten ematen dizkien esanahi berezi guztiz blai eginik daude eta, profanoaren gogamenean, horrelako lortutako ñabarduei eustera jotzen dute. Fenomeno ekonomikoen gure ezaupide historikoa ingurumen sozia-

lista batean lortu izan balitz, prozesu kapitalista bat analizatzean, kontzeptu sozialistak mailegatzen ari garela irudituko litzaiguke.

Honaino ez dago ezer mentalitate kapitalistako ekonomialariak bere buruari zorionak emateko modukorik sozialismoak, azken finean, kontzeptu eta mekanismo kapitalistak bakarrik erabiliko lituzkeela aurkitu izanagatik. Sozialistentzat, halaber, oso zio gutxi egon beharko luke erreparaoak jartzeko. Zeren espiritu inozoena bakarrik senti daiteke nahigabeturik mirari sozialistak logika propio bat sortzen ez duelako, eta kredo sozialistaren aldaki zakar eta tentelenak bakarrik jar daitezke arriskuan efektu horretarako frogak batekin, hau da, bakarrik aldaki haiek, zeinen arabera prozesu kapitalista nahas-mahas ikaragarri bat besterik ez baita inolako logika eta ordenarik gabekoa. Bi konbikzioetako pertsona arrazoizkoak bat etor daitezke analogia horrekin, dagoen heinean, eta beti bezain aldendurik egon daitezke. Objektio bat, hala ere, terminologiari kontrajar lekioko: argumenta daiteke ez dela komeni esanahiz kargaturiko terminoak erabiltzea, zeinak akzidentala izateagatik ez baitio oso garrantzitsua izateari uzten, eta zeina mundu guztiak kanporatzen jakitea ez baitago espero izatearrik. Gainera, ez dugu ahaztu behar norberak onar ditzakeela ekoizpen sozialistaren eta ekoizpen merkantilaren logika ekonomikoaren berdintasun esentzialari buruz atera ditugun ondorioak, eta, hala eta guztiz ere, objektioak jarri eskema edo eredu partikularriari, zeinaren bidez iritsi baikara horietara (ikus bedi aurrerago).

Hori ez da guztia, hala ere. Ekonomialari batzuek, nola sozialistek hala ez-sozialistek, ez dute nahi izan bakarrik, baizik eta irrikatu egin dute ahaidetasun-antz bereziki indartsua berrezagutzea iragarritako ekonomia sozialista eta konkurrentzia perfektuaren motako ekonomia merkantil baten artean. Ia pentsamendu sozialistako eskola batez hitz egin genezake, zeinak konkurrentzia perfektua loriatzera jotzen baitu eta sozialismoa proposatzera mundu modernoan konkurrentzia perfektuaren emaitzak lor daitezkeeneko metodo bakarra eskaintzen duen oinarriaren gainean. Ikuspuntu horretan kokatuz lor daitezkeen abantaila taktikoak, izatez, aski begi-bistakoak dira jarrera bat azaltzeko, zeinak lehen begiratuan, espiritu-zabaltasun harrigarria inplikatzeko duela baitirudi. Sozialista gaitu batek, beste edozein ekonomialarik bezain ikusten badu argudio marxista eta herritarren ahulezia guztia onar dezake horrela onartzekoa modukoa dela uste duen

guztia, bere konbikzioak ezertan sakrifikatu gabe, zeren onartzen dena segur aski hilik eta lurperaturik dagoen etapa historiko bati buruzkoa baita (existitu dena bada ere); konkurrentzian ez dauden enpresen kasura epai gaitzeslea zentzuz mugatuz, laguntza murriztua eman diezaieke akusazio batzuei –zeinak, bestela, tentel hutsak izango bailirateke, eta burges ona zentzordatu eta nahastu egin baitezake esanez sozialismoak ez duela egingo berek errealitatean nahi izan dutena baino eta ekonomiaren ulema propioek beti irakatsi dietena. Baina ahaidetasun-antz hori azpimarratzeak dituen abantailak jadanik ez dira hain handiak analistarentzat⁸.

Dagoeneko ikusi dugunez, konkurrentzia perfektuaren kontzeptu odolgabea, teoria ekonomikoak bere helburu propioetarako taxutu duena, auzi honen inguruan biraka dabil: ea enpresa singularrek eragina izan dezaketen ala ez, beren ekintza bakartuz, beren ekoizkinen prezioen eta beren kostu-faktoreen gain. Ezin badute –hau da, enpresa bakoitza ur-tanta bat besterik ez bada ozeano batean eta, horregatik, merkatuak ezarritako prezioak onartu behar baditu–, teorialaria konkurrentzia perfektuaz mintzatzen da. Eta froga daiteke kasu horretan enpresa singular guztien erreakzio pasiboen efektu masiboak merkatu-prezioetara eta ekoizpen-bolumenetara gidatuko duela, zeinek erakutsiko baitituzte propietate formal halako batzuk esanahi ekonomikoko indizeen eta ekonomia sozialista baterako gure oinarritzko planaren ekoizpen-bolumenen antzekoak direnak. Hala eta guztiz ere, errealki interesatzen den guztian –errenten erakuntza, gidari industrien hautespena, ekimen eta erantzukizunaren banaketa, arrakasta eta porrotaren definizioa arautzen duten printzipioak–, konkurrentziako kapitalismoaren fisionomian eratzen duen guztian, oinarritzko plan sozialista konkurrentzia perfektuaren aurkakoa da, eta askoz urrunago dago hartatik enpresa handiko kapitalismoaren tipotik baino.

Beraz, nahiz eta nik ez sinetsi gure oinarritzko planari objektiorik jar dakiokenik gizarte merkantiletik hartua dagoelakoan oinarriturik edo olio santu sozialista xahutzen duelakoan sistema profano hori gantzutzen, oso bat nator, hala ere, beste kausa batzuegatik objektzioak jartzen dizkieten sozialistekin. Egia da adierazi dudala kontsumo-ondasunen «merkatu» bat eraikitzeko metodoa eta ekoizpena orientatzeko berak emandako adierazpenen arabera beste ezein baino gehiago hurbilduko dela (areago, adibidez, boto-gehiengozko

erabakitze-metodoa baino) kamarada banako bakoitzari behar duena ematera –ez dago merkatua baino instituzio demokratikoagorik–, eta, zentzu horretan, emaitzatzat «asebetetzerik handiena» emango du. Baina maximo hori, epe laburrera bakarrik da maximoa⁹ eta, gainera, kamaraden desira efektiboei buruzkoa da, unean sentitzen dituztenez. Baina txuletaaren sozialismoa bakarrik nahikotu daiteke zabal-kiro horrelako helburu batekin. Nik ezin dut gaitzesi sozialistarik hori mespretxatu eta giza buztinarentzat kultura-forma berriak amets egiten dituelako, agian baita buztin berri bat ere; sozialismoaren benetakoa promesik baldin badago, norabide horretan dago. Pentsatzeko modu hori duten sozialistek ahalbide diezaiokete oraindik beren komunitateari kamaraden gustu efektiboez gidatuak izatea aspektu hedonista bat bakarrik aurkezten duten auzietan. Baina «Gosplan» bat hartuko dute ez bakarrik beren inbertsio-politika burutzeko, guk baldintzatuki esan dugunez, baita beste aspektu batzuk aurkezten dituzten xede guztietarako ere. Era berean kamaraden eskuetan utz dezakete, gogara dutenez, ilarrak ala babarrunak hautatzea. Ezbaian ibil daitezke ere esnearen edo whiskyaren prezioari buruz eta drogei eta etxeko hobekuntzei buruz. Baina ez diete utziko kamaradei ogia oratzearen eta tenpluak eraikitzearen artean hautatzen, baldin eta alemaniarrek dotorezia gutxiarekin baina oso adierazgarri horri, «Kultura-manifestationen», hau da, kultura-aren agerpen objektiboak deitzen badiote.

6. Beharrezko da, beraz, galdetzea, gure «merkatuak» kareletik botatzen baditugu, ez ote ditugun botako kareletik arrazionaltasuna eta determinagarritasun ekonomikoa ere. Erantzuna begi-bistakoa da. Merkaturik ezean agintaritza bat beharko litzateke ebaluazioa egiteko, hau da, kontsumo-ondasun guztientzat esanahi-indizeak finkatzeko. Balio-sistema bat emanik, agintaritza horrek hori era perfektuki zehaztuan egin ahal izango luke, Robinson Crusoe batek¹⁰ egin leza-keen bezain zehazki. Eta plangintzaren prozesuaren gainerakoak bere joaira jarraitu ahal zango luke gure oinarritzko eta jatorritzko planare-naren oso antzeko baldintzatan. Txartelak, prezioak eta unitate abstraktuak balio izaten jarraituko lukete zuzendaritza eta kostu-kalku-luen helburuetarako, baina errenta baliagarrien eta *beren* unitateekin erlazioa izateari utziko liokete. Ekintza ekonomikoaren logika orokorretik eratorritako kontzeptu guztiak berriz berragertuko lirateke.

Sozialismo zentralista mota orok gaindi dezake, beraz, arrakastarekin lehen eragozpena –plangintza sozialistaren determinagarritasuna eta koherentzia logikoa– eta guk hurrengo ere gaindi dezakegu. Hori ekonomialari antisozialisten gehiengoa itxuraz orain makurturik dagoeneko «ezintasun praktikoan» datza, alor logiko hutsean porrota jasan eta gero. Baieztatzen dute gure bulego zentralak konplikazio gaindiezinezko baten egitekoari aurre egin beharko liokeela¹¹, eta horietako batzuek gehitzen dute ordena sozialistaren funtzionamendua arimen edo portaeraren –nahiago dugun erara izendaturik– erabateko eraberritzea auresuposatuko lukeela, zeinean esperientzia historikoak eta zentzu komunak pentsatu ere ez dela egin behar erakusten baitute. Azken puntua kontsideratzea atzeratuz aise konpon dezakegu lehen.

Lehenik, arazo teorikoaren gure soluzioari begiratu bat ematea aski litzateke nabarmenkiro praktikagarria dela irakurlea konbentzitzeko, hau da, aukera logiko bat ezarri ez ezik, horrela egitean pausoak erakusten dituela, zeinen bidez aukera hori praktikan burutzeko modukoa baita. Horrek badu azalpen bat, nahiz eta, arazoari egokiro aurre egiteko, ekoizpen-plana *ab ovo* landua izan dadila exigitu, hau da, aurretiazko inolako esperientziarik gabe kantitateei eta balioei buruz eta baliabideen eta prozedura tekniko baliagarrien gainbegiratzea eta kamaraden mentalitatearen ezagutza orokorra beste abiapunturik gabe. Gainera, kontuan izan behar da, baldintza modernoetan, ekonomia sozialista batek burokrazia eskerga bat izatea eskatzen duela edo, gutxienez, bere garapen eta funtzionamendurako aldeko baldintza sozialak izatea. Eskakizun hori da arrazoietakoa bat, zeinengatik sozialismoaren arazo ekonomikoak ez baitira inoiz eztabaidatu behar ingurune sozialeko egora jakinen edo egoera historikoen erreferentziarik gabe. Aparatu administratibo horrek merezi litzake edo ez gutako batzuek burokraziaz egin ohi ditugun iruzkin depredatzaile guztiak –laster iruzkinduko dugu guk geuk– baina une honetan ez zaigu interesatzen burokraziak ongi edo gaizki bere egitekoa betetzea espero izatekoa ote den auzia; axola zaigun bakarra da, existitzen bada, ez dagoela arrazoirik uste izateko bere atazaren pisupean porrokatuko denik.

Egoera normal orotan burokrazia sozialistak behar beste informazio izango luke lehen kolpean ebaluatu ahal izateko nahikoa hurbiltasunez ekoizpen-kantitate zuzenak bere baitako alor nagusietan, eta gainerakoa doiketa-arazo bat izango litzateke gutxi gorabeherako

kalkulu metodozkoen bitartez. Beraz, horri dagokionez, ez dago oinarritzko desberdintasunik¹² ekonomia sozialistaren eta merkantilaren artean, ez eta teoriariek aurkitzen duten arazoarekiko ere frogatzean sistema ekonomiko batek aurrera nola egiten duen «arrazional» edo «hoberentzat» jo daitekeen egoera baterantz, baldintza maximo halako batzuk betetzen dituen zentzuan, ez eta praktika efektiboan enpresa-zuzendariek topo egiten duten arazoekiko ere. Aldez aurretiko esperientzia bat onartzen badugu hartatik abiatzeko, sozialista gehienek onartzen dutenez, eta uneoro bereziki Karl Kautskyk onartu zuten, sozialismoaren lana izugarri sinpletzen da, noski, enpresa handiaren motako esperientzia baldin bada batik bat.

Baina, bigarren lekuan, oinarritzko gure planaren azterketa berri batetik beste zerbait gehiago eratortzen da, hau da: belaunaldi sozialistak aurre egin behar dien arazoen soluzioa ez litzateke bakarrrik kudeaketa merkantilek aurre egin behar dien arazoen soluzio praktikoa bezain ahalgarria, baizik eta oraindik errazagoa izango litzateke. Horretaz aise konbentzi gaitezke behatuz enpresa handi baten zuzendaritzaren zailtasunetako bat –zuzendari zorioneko baten energiaren parte handiena hurrupatzen duen zailtasuna– erabaki oro inguratzen duten ziurtasun-gabezietan datzala. Horien mota oso garrantzitsu bat datza, alde batetik, lehiakide efektibo eta potentzialen erreakzioari buruzko ziurtasun-gabezietan, eta bestetik, egoera ekonomiko orokorrak izango duen bilakaerari buruz. Nahiz eta komunitate sozialista batean iraungo luketen, zalantzarik gabe, beste mota batzuetako ziurtasun-gabeziek, arrazoiz, espero daiteke bi talde horiek ia erabat desagertzea. Industrien kudeaketak eta gizarte ekin-tzak zehazki jakiteko egoeran izango lirateke besteek zer egiteko asmoa duten eta ezerk ez lieke eragotziko haiekin batzea ekintza kontzertatu baterako. Bulego zentralak jardungo luke, eta neurri bateraino ezinbestez jardungo luke informazio trukerako eta erabakien koordinaziorako zentro baten gisara, gutxienez ahal guztiez hornituriko koartel orokor bateko bulegoaren neurri berean. Horrek izugarri murriztuko luke garun gidariek tailerretan egin behar duten lan-kantitatea, halako moldez, non, sistema hori gidatzeko, itsaso kapitalistaren olatu eta urautsien artetik garrantzi pixka bateko *concern* bat pilotatzeko behar dena baino askoz adimen gutxiago beharko bailitzateke. Hori aski da gure gure baieztapena berresteko.

XVII KAPITULUA

GINARRIZKO PLANEN ERKAKETA

I Atariko Oharra

Honaino jarraitu zaidan irakurleak, jakina, plan sozialistaren erkaketazko prezatze bati ekitea espero izango du nigandik. Agian egokia litzateke itxaropen hori frustratzea. Zeren erantzukizun-zentzua erabat falta ez zaion inork ezin baitu berrezagutu gabe utzi bizi izan dugun sistema baten eta irudi mentala besterik ez den baten arteko erkaketak –sozialista bakar batek ere ez luke onartuko errusiar esperientzia burutzapen betearen denik– oso arriskatu izan behar du. Baina arrisku horretan sartzen gara une bakar batez ere kontuan izateari utzi gabe zeharkatu behar dugun gertakari eta argudioen erresumaz haratago konbikzioen, hobespen pertsonalen eta ebaluazioen erresuma dagoela, zeinean sartzerik ez baitauekagu. Eta gure arrakasta-aukerak gehitu egingo ditugu hertsiki gure helburua mugatuz, eta argi eta garbi berrezagutuz geure bidean aurkituko ditugun zailtasunak eta tranpak.

Bereziki, ez ditugu erkatu behar gizarte merkantil eta sozialistako kultura-munduak. Sozialismoaren kultura-zehaztugabetasuna deitu dudana fenomenoaren berez aski da ahaletgin hori eragozteko. Baina badugu beste arazo bat ere horri uko egiteko. Nahiz eta zibilizazio sozialistak kultura-forma bakar ongi zehaztua esan nahi izan bere erkaketazko prezazioa, hala ere, ziurtasun-gabeziaren bateriko zerbait izango litzateke. Badira idealistak eta monomaniakoak erkaketa-judizio horien zailtasunak hautematen ez dituztenak eta alaikiro, erkaketa-pauta gisa zertzeladaren bat hartzen dutenak bere gainerako guztia baztertuz balioesten dutena eta beren sozialismoaren erakutsiko duela espero dutena. Baina hori baino zerbait hobea egin nahi badugu eta ikusi, gure ikusmenak atzematen duen guztirainokoa, zibilizazio baten aurpegi guztiak jaio deneko argitan, eta zeina berarekin itzali behar baita, itortu beharra daukagu, berehalaxe, zibilizazio oro mundu bat dela bere baitan eta neurgaitza beste edozein zibilizaziorikiko.

Bada puntu bat kultura-prestazio efektibo eta ahalgarriak tolelatzen dituenaren, eta, gainera, gure analisi motaren esparruaren barruan sartzen dena. Sarritan esan izan da, plangintza sozialistak, norbanako-

en sorbaldetatik ardura ekonomikoa kentzean, kultura- energia kalkulaezinak jaregingo dituela, orain eguneroko ogiarengatik borrokan galtzen direnak. Hori egia da puntu bateraino, zeren edozein gizarte «planifikatu»k lor baitezake hori, beste arrazoi eta beste aspektu batzuegatik kultura-aukera batzuk itoarazi ere egin ditzakeen bezala. Objekta daiteke herri-agintariak, ezagutzen ditugunez, talentuak aurkitu eta sustatzeko erantzukizuna bere gain hartzeko egoeran nekez daudela, Van Gogh gizarte kapitalistak prezatu zuena baino zertxobait lehenago prezzatzeko punturaino. Baina objektzio hori puntu esentzietatik desbideratu egiten da, herri-agintaritzak ez baitauka hain urrunera joan beharrik. Behar den bakarra da Van Goghek bere «errenta» mundu guztiak bezala hautematea eta gogorregi lan egitera beharturik ez aurkitzea; hori aski litzateke edozein kasu normaletan bere ahalmen sortzailea destolesteko beharrezko aukera emateko, nahiz eta, horretan pentsatzen jartzen naizenean, jadanik ez ziur egon aski izango zatekeen ala ez Van Goghen kasuan.

Baina bada pisu handiagoko beste objektzio bat. Auzi horretan, beste batzuetan bezala, sozialismoaren defendatzaileak, erraztasunez uzten du jaramonik egin gabe –batzuetan erabaki deliberatua du ez onartzeko– bere ideal jakin batzuk mundu modernoan jadanik aserik dauden maila. Kapitalismoak talentuari ematen dio, gutako gehienok uste dugun baino askoz hedadura handiagoan, igotzeko behar dituen eskailera-mailak. Bada egia-elementu bat balioko giza-ki askok amorragarri aurkitzen duten burges petoaren topiko gordinean, hau da, eskailera-maila horietan gora igotzerik ez dutenek ez dutela haietaz arduratzerik merezi. Baliteke eskailera-maila horiek nahi izango genukeen bezalako eredu erosokoak ez izatea, baina existitzen ez direnik ez dago esaterik. Kapitalismo modernoak ez ditu bakarrik sistematikoki eskaintzen ia edozein gaitasun mota babestu eta sustatzeko bitartekoak bere garapeneko lehen mailetan –hainbesteraino, non abar batzuetan zailtasuna ez dagoen bitartekoak talentuentzat aurkitzean, baizik nola aurkitu talentu dei litekeen zerbait eskainitako bitartekoak erabil ditzan–, baizik eta, haren egiturako lege beraz, norbanako gaitua igoaraztera jotzen baitu eta, askoz efektibokiago, familia gaitua. Beraz, bada, galera sozialak izan daitezkeen arren¹, batez ere genio erdi-patologikoen kategorian, segur aski ez dira oso handiak izango.

II Efizientzia Erkaketazkoaren Analisia

Iraun dezagun, hala ere, esfera ekonomikoaren barruan, nahiz eta erabat argiturik utzi dudala uste dudana bigarren mailako garrantzia baizik ez diodala ematen.

1. Gure helburuaren mugak guztiz argiak dira, eta, beraz, trabak arrisku gutxiagokoak lehen estudio honetan irauten dugun bitartean, zeinak oraindik ez baitu zerikusirik oinarritzko planekin. Igarobideko zailtasunen eztabaida berriro atzeratuz, horiek banan-banan tratatzeko, eta arrakastarekin gaindituak izan direla behin-behineko suposatuz, aski dugu begiratu bat ematea sistema sozialistaren ahalatasunaren eta praktikagaritasunaren gure probaren inplikazioei bere efizientzia ekonomikoaren nagusitasunean sinesteko kasu bortxatu bat dagoela egiaztatzeko.

Nagusitasun hori enpresa handiko kapitalismoarekiko edo «monopolista»rekiko bakarrik da beharrezko frogatzea, zeren «konkurrentzia»ko kapitalismoarekiko nagusitasuna orduan *a fortiori* deduzitzen baita, VIII. kapituluko gure analisitik begi-bistakoa gertatzen denez. Ekonomialari askok, baldintza erabat irrealetan, konkurrentziako kapitalismoaz era guztietako baieztapen lausenguzkoak egin daitezkeelakoan oinarriturik, hori goratzeko ohitura hartu dute, haren ondorengoa den kapitalismo «monopolista»ren lepotik. Errepikatu egin nahi dut, beraz, nahiz eta laudorio horiek erabat justifikaturik egongo balira ere –baina ez daude–, eta teorialarien konkurrentzia perfektua noizbait industria eta garraioaren alorrean burutua izan balitz –baina ez da inoiz izan–, eta nahiz eta, azkenean enpresa handiaren aurka jaurtiriko akusazio guztiak erabat justifikaturik egongo balira ere –baina oso urrun daude horrelako izatetik–, oraindik ere gertakari bat izango litzateke ekoizpen kapitalistako mekanismoaren efizientzia efektiboa eskala handiko unitateen aroan askoz handiagoa izan dela enpresa txiki eta ertainen aurreko aroan baino. Horretaz kontentzitzeko aski da estatistikak bildutako materialera jotzea. Baina gertakari horren azalpen teorikoa gogoratzen badugu askoz argiago geratuko da guretzat zuzendaritza ekonomikoko unitateen bolumen hazkorra, eta aldi berean garatu den estrategia ekonomiko guztia, ez zirela bakarrik bilakaera horrek bere baitan zituen intzidente saihestezinak, baizik eta, neurri ohargarri batean, estatistika horretan islaturi-

ko burutzapenerako baldintzak; beste hitz batzuetan, konkurrentzia ia perfektu batekin bateragarria den motako enpresetara irekitako ahal-tasun tekniko eta antolakuntzakoek sekula ezingo zuketela antzeko emaitzarik ekoiztiko. Beraz, kapitalismo modernoak nola funtzionatu-ko lukeen konkurrentzia perfektuko baldintzetan zentzurik gabeko galdera bat egitea da. Zeren, sozialismoak kapitalismo «monopolista» baten eta ez konkurrentziako kapitalismo baten oinordeko izan behar duelakoa alde batera erabat utzirik, ez dugu konkurrentziaren kasuaz arduratu beharrik, intzidentalki izan ezik.

Sistema baten efizientzia ekonomikoa efizientzia produktibora murriztuko dugu. Hori bera ere, ez da, inondik ere, definitzen erraza. Erkatu behar diren bi alternatibek, jakina², une berari buruzkoak izan behar dute, hau da, iraganari edo orainari edo etorkizunari buruzkoak. Baina hori ez da aski, zeren auzi muntaduna ez baita kudeaketa sozia-listak zer egin lezakeen, une jakin baten *ex visu*, une horretan dagoen aparatu kapitalistarekin –hori ez da guretzat kudeaketa sozialistak kontsumo-ondasunen hornikuntza jakin batekin egin lezakeena baino askoz interesgarriagoa–, baizik eta ekoizpen-aparatua existituko litza-tekeela edo existituko zatekeela baldin eta bere eraikuntzan kudeake-ta sozialista batek agindu izan balu kudeaketa kapitalista baten orde-z. Gure ekoizpen-indar efektibo eta potentzialei buruzko gure informa-zio-masak, azken hoguei urteotan metatu denak, oso baliotsua izan lite-keelarik ere beste xede batzuetarako, oso laguntza txikia baizik ez digu ematen zailtasun horrekiko gure borrokarako. Eta egin dezake-gun gauza bakarra da desberdintasun horiek gizarte kapitalista bateko eta gizarte merkantil bateko mekanismo ekonomikoen artean erregis-tratzea, hautematen ditugunez, eta horien garrantzia ahalik eta hobe-kien prezatzea.

Aurresuposatuko dugu kopurua, kalitatea, gustua eta biztanle-riaren adinkako banaketa, erkaketarako hautaturiko denboraldian, berak direla bi kasuetan. Orduan sistema erlatiboki efizienteago dei-tuko diogu denbora-unitate berean kontsumo-ondasunen korronte handiagoa *epe luzean* ekoiztiko lukeela uste izateko arrazoiak eskain-tzen dizkigunari³.

2. Definizio honek iruzkina eskatzen du. Ikusiko denez ez du bat egiten efizientzia ekonomikoa ongizate ekonomikoarekin edo beharrianen asetze-maila jakin batekin. Nahiz eta ekonomia sosialis-

ta *oro* segurtasunez efizientzia gutxiagokoa izango balitz ere, gure zentzuan, *edozein* ekonomia merkantil irudikagarri baino, biztanleria-
ren gehiengoa –izatez sozialista petoarentzat axola zaion guztia–
«gusturago» edo «zoriontsuago» edo «pozikago» aurkituko litzateke
eraentza sozialista batean eraentza kapitalista batean baino. Nire eran-
tzun lehen eta nagusia da efizientzia erlatiboak gorde egiten duela,
kasu horietan berorietan ere, esanahi independente bat eta kasu guz-
tietan oso kontuan hartu beharreko faktorea dela. Baina, bigarrenik,
ez dut uste asko galtzen dugunik arazoaren aspektu subjektibo horiek
kontuan hartzen ez dituen irizpide bat hartzeagatik. Hori, hala ere, oso
auzi eztabaidagarria da, zeinean komenigarria baita zertxobait espli-
zituago izatea ere.

Hasteko, sozialista konbentzituak gizarte sozialista batean bizi
izate hutsetik lortuko dute asetasuna⁴. Ogi sozialistari ogi kapitalista-
ri baino gozoago iritzi diezaiokete ogi sozialista delako besterik gabe,
eta halaxe izango litzateke bertan saguak aurkituko balituzte ere.
Gainera, baldin eta sistema sozialista berezi hartua ados badago per-
tsona batzuen printzipio moralekin, adibidez, sozialismo berdinzalea
kapitalista askoren printzipio moralekin egingo litzakeenez, gertakari
hori eta justiziaren zentzuari ondorioz emandako asetasuna, pertsona
horiek kontzibitzen dutenez, sistema haren nagusitasun-tituluen arte-
an agertuko lirateke, noski. Sistemaren funtzionamendurako ez da
inondik ere axolagabea atxikipen moral hori; haren garrantziaz, efi-
zientziarako bererako ere, guk ematen diogun zentzuan, aurrerago
aritu beharko dugu. Baina, hori alde batera utzita, hobe litzateke onar-
tuko bagenu justiziari buruzko gure erretolika, eta abar, neurri handi
batean, gizarte-era bat gustatzera edo ez gustatzera murrizten dela.

Badirudi, hala ere, badagoela argudio ekonomiko huts bat
sozialismo berdinzalearen alde edo errenta-berdintasun handiago bat
onartzen duen egitura duen edozein sozialismoren alde. Beharrianen
asebetetzea kantitate neurgarritan tratatzeagatik edota pertsona des-
berdinen asebetetzeak erkatu edo batzeagatik kontzientziako zimiko-
rik sentitzen ez duten ekonomialariek gutxienez, arrazoia dute sosten-
gatzean kontsumo-ondasunen hornikuntza batek edo korronte batek,
oro har, asebetetzerik handiena sortuko duela berdinkiro banatzen
bada. Sistema berdinzale batek, bere baliokide merkantila bezain efi-
zientea denak, beraz, ongizate-maila jasoago batera eramango du.

Sistema berdinzale neurri batean hain efizientea ez denak ere lor dezake hori. Teorialari moderno gehienek arbuiatu egingo lukete argudio hau asetahunak neurgarriak ez direlakoan, edota pertsona desberdinen ahetahunen erkaketa eta batuketa zentzugabeak direlakoan oinarriturik. Guk ez daukagu hain urrunera joan beharrik. Aski dugu adieraztearekin argudio berdinzaleak praktika monopolistaren gure analisisan sortu zen objektzioaren menpean erortzeko arrisku berezia duela, hau da: arazoa ez dago kantitate jakin bat, errenten banaketaren printzipioez kanpo, nola banatu behar den jakitean. Soldaten errentak perfektuki jasoagoak izan litezke desberdintasun mugagabeak onartzen dituen gizarte merkantil batean sozialismo berdinzale bateko errenta berak baino. Arrazoigarriki ziurra ez den bitartean ekoizpen-makina sozialista, gutxienez, makina merkantila bezain ia efizientea zen, den edo izango den eraketaren unean, banaketari buruzko argudioa ez da erabakigarria –izatez, supostutzat ematen du frogatu nahi duena–, nahiz eta onartzea erabakitzen dugun⁵. Eta efizientzia produktiboaren arazoa planteatu bezain laster banaketaren argudioa alferrekoa izango da kasurik gehienetan; ideal moralen gainean bakarrik oinarritzen ez bada, muga-kasuetan bakarrik inklinaraziko luke balantza.

3. Oraindik bada beste arrazoi bat, zeinaren bidez asozia litezkeen ekoizpen-efizientzia antzeko mailak ongizate-maila desberdinekin. Sozialista gehienek baieztatuko dute errenta nazional jakin batek gehiago emango lukeela bere baitatik gizarte sozialista batean gizarte kapitalista batean baino, zeren lehenak haren erabilpen ekonomikoa goa egingo bailuke. Aurrezki horiek gizarte-mota batzuk, bere antolakuntzaren indarrez xede jakin batzuekiko, zeinei beste tipo batzuek beren baliabideen parte ohargarriak eskaintzen baitizkiete, axolagabe edo etsaikor izan litezkeelakoaren ondorio izango lirateke. Sozialismo bakezale batek, adibidez, armamentutan aurreztuko luke; sozialismo jainkogabe batek, elizatan, eta biek izan litzakete, beraz, ospitale gehiago aipaturiko gauzen orde. Hori begi-bistakoa da, noski. Baina besterik gabe sozialismoari oro har egozterik ez dagoen preziazioak inplikutzen dituen ez gero, bai ordea sozialista indibidual askori, oraingoz ez dugu horretaz arduratu behar.

Ia gizarte sozialista orok –mota platonikokoak izan ezik– segur aski beste aurrezte motaren bat burutuko luke, hau da: klase nagia, «alfer aberatsa» ezabatzetik datorren aurrezkia. Nola ikuspuntu sozia-

listatik erabat egokia den talde horretakoak diren norbanakoen beharrianak asebetetzeari jaramonik ez egitea eta bere kultura- funtzioak zerotzat hartzea –nahiz eta sozialista kultuek beti gorde beren itxurak, gehituz: gaurko munduan– begi-bistan dago irabazi garbi bat dagoela eraentza sozialistak lortzekoa. Zer errore egingo dugu irabazi hori kontuan hartzen ez duen efizientzia-proba erabiltzen badugu?

Jakina, errentaren eta herentziaren gaineko zerga modernoak laster batean ari dira murrizten arazoa huskeria kuantitatibora, gaur eguneko gerra finantzatzeko aplikaturiko metodo fiskalak alde batera utzita ere. Baina zerga-sistema hori bera da jarrera antikapitalista baten adierazpena eta segur aski errenta-iturri tipikoki kapitalisten erabat ezabatzearen aitzindaria. Beraz, gure arazoa planteatu behar dugu haren erro ekonomikoetan oraindik erasotu gabeko gizarte kapitalista batekiko erlazioan. Estatu Batuentzat badirudi arrazoizkoa dela 1929ko data hautatzea⁶.

Defini ditzagun aberatsak 50,000 dolarretik aurrerako errenta duten pertsona gisa. 1929an horiek 13 mila milioi dolar hartzen zuten 93 mila milioi errenta nazional totaletik⁷. 13 mila milioi horietatik zergak, aurrezkiak eta emariak deduzitu behar ditugu xede publikoetarako, zeren eraentza sozialista batek ezin baitu ekonomiarik egin dirusail horiek ezabatuz; bakarrik «aurreztuko» litzateke, hitzaren zentzu egokian, aberatsek beren kontsumorako egiten duten gastua⁸. Gastua ez dago zehaztasunez estimatzerik. Lor dezakegun bakarra da ideia bat horrek adierazten duen magnitudeaz. Arrisku horretan sartu nahi izan duten ekonomialaria gehienek 13 mila milioiren heren bat baino gutxiagoan kalkulatu dutenez gero aski zuzena litzateke esatea gastu hori ez litzatekeela igoko 4,333 milioi edo ehuneko 4,6 batera errenta nazionalaren totaletik. Alabaina, ehuneko 4,6 horrek bere baitan dauzka goimailako lanbide liberaletatik eta negozio-errentetatik datozen kontsumo-ondasun guztiak; halako moldez, non aberats nagiak ezin izan baitu hurrupatu gehienez ere ehuneko 1 edo 2 baino gehiago, horien errentaz aparte. Eta familien igoera soziala ekimen eta ahalegin-ernamuin bizia izaten jarraitzen duen bitartean ezingo litzateke gastu horren osotasuna muntagabetzat jo kapitalismoaren makina ekonomikoaren errendimendurako ekarpenak egin dituzten prestazio indibidualentzat.

Irakurleren batzuek uste izango dute, 50.000 dolarreko muga jasoezia dela. Argi dago noski gehiago ekonomiza litekeela ezabatuz

edo bizirauteko maila gutxienekora aberatsen zein behartsuen, ekonomikoki hitz eginez nagiak direnen errentak murriztuz⁹. Oraindik uste izan liteke gehiago ekonomiza litekeela errenta jasoen guztien banaketa arrazionalizatuz, beren prestazioekin elkarregokitzapen estuago batean ipiniz. Baina hurrengo sailean aurkeztu behar diren argudioek iradokitzen dute kontsiderazio horretan ezarritako itxaropen handiak segur aski deslilura bat jasan beharko dutela.

Hala ere, ez nioke gehiago ekin nahiko puntu horri. Zeren irakurleak nik justifikatua dela uste dudana baino garrantzi handiagoa eman nahi badie, ekonomia horiei iritsiko garen ondorioa *a fortiori* aplikatuko du.

III Oinarrizko Plan Sozialistaren Nagusitasunaren Oinarria

Horrela, bada, gure nagusitasun- edo gutxiagotasun-irizpideak, azken finean, dirudien baino eremu zabalagoa hartzen du. Baina berrari bagagozkio, zein da lehen esan dudan plan sozialistaren nagusitasunaren alde aipa daitekeen kasu bortxatua?

VIII. kapituluaren analisia birpasatu duen irakurleak *baliteke* oso ongi horretaz harritzea. Eraentza sozialistaren alde, eta kapitalistaren kontra, eskuarki ekarritako argudio gehienek porrot egiten dute, dagoeneko ikusi dugunez, baldin eta behar bezala kontuan hartzen badira negozioetarako sortutako baldintzak progresu mota laster baten ondorioz. Argudio horietako batzuk, azterketa astitsuago batean, alde-rantzizko norabidean jartzera ere iristen dira. Patologikotzat jotzen diren fenomeno asko, izatez, fisiologikoak direla ikusten da, suntsiera sortzailearen prozesuan funtzio garrantzitsuak burutzen dituzten zentzuan. Xahuketa askok konpentsazioak dituzte kritikariek haietaz egiten dituzten inferentziak erabat baliogabetzen dituztenak eta, beste kasu batzuetan, zati batean. Ekoizpen-indarren esleipena, sozialki irrazionala, ez da inondik ere baieztatzen den bezain sarria ez garrantzitsua. Kasu batzuetan, gainera, ez da gertakortasun gutxiagokoa ekonomia sozialista batean hori jazotzea. Gaitasun-gehiagiak, ekonomia sozialista baten ere partez ezinbestekoa denak, kritika oro baztertzen duen interpretazioa toleratu egiten du. Eta hutsegite eskusaezinak berak ere ez dira, maiz, bekatu ugari aterpetzeko bezain handia den prestazio baten gorabeherak.

Gure arazoarentzako erantzuna aurreko kapituluaren azken bereizitik dator. Bere baliozkotasuna badaezpadakoa izan liteke bila-kaera kapitalista goraldi betean dagoen bitartean, baina erabakigarria izango da era *iraunkorrean* atzera egiten duenean, mekanismo ekonomikoak bere baitan dituen zioengatik edo hartaz aparteko zioengatik.

Badira kasuak, zeinetan industria kapitalistak halako zirkuntantzetan aurkitzen baitira, non haien prezioak eta haien ekoizpena teorikoki zehaztugabeak gertatzen baitira. Hori jazo daiteke, nahiz eta beti ez gertatu, oligopolioa dagoenean. Ekonomia sozialista batean fenomeno funtzional guztiak argitasunez zehazturik daude, garrantzi praktikorik gabeko muga-kasu batzuk salbuetsirik. Baina egoera teorikoki zehaztua dagoenean ere, askoz zailagoa da lortzen ekonomia kapitalistan ekonomia sozialistan izango litzatekeena baino. Lehenean beharrezkoak dira amaigabeko mugimenduak eta kontra-mugimenduak eta erabakiak ekintzaren sorbatza kamusten duen ziurtasun-gabeziako giro batean hartu behar dira, aitzitik estrategia hori eta ziurtasun-gabezia hori ez lirateke existituko azken horretan. Eragozpen horiek, bestalde, ez daude kapitalismo «monopolista»ren baitan bakarrik, baizik areago oraindik, nahiz eta beste arrazoi batzuegatik, konkurrentziako kapitalismoarenean, txerriaren zikloaren kasuak¹⁰ frogatzen duenez eta konkurrentzia gutxi-asko perfektuko industrien portaerak depresio orokorretan edo beren gorabeheretan.

Baina horrek lehen begiratuan dirudiena baino gehiago esan nahi du. Ekoizpen-arazoen soluzio zehaztu haiek arrazionalak edo hoberenak dira baldintzatzen dituzten datuen ikuspuntutik eta haietara gidatzen gaituen bidea laburtzen, lautzen edo babesten duen orok giza energia eta baliabide materialak aurreztuko ditu eta emaitza jakin bat lortzen deneko kostuak murriztuko ditu. Horrela aurrezturiko baliabideak erabat alferrik galtzen ez badira, derrigor gehitu behar da efizientzia, guk ulertzen dugun zentzuan.

Ikuspuntu horretatik sistema kapitalistaren aurka erabilitako akusazioetako batzuk, gorago aztertu direnak, nahiko justifikatutzat jo daitezke. Har dezagun, esaterako, gaitasun-gehegia. Ez da egia erabat berrurruptutako litzatekeenik sozialismoan; absurdoa litzateke bulego zentralarentzat burdinbide berri baten erabilpen osoari ekitea oraindik jendeztatu gabeko herrialdean zehar. Halaber, ez da egia gaitasun-gehegiak kasu guztietan galera bat adierazten duelakoa. Baina badira

gaitasun-gehiagi mota batzuk galerak adierazten dituztenak eta galera horiek ekidin daitezkeela administrazio sozialista baten bidez, zeinaren kasu nagusia gerra ekonomikoko xedeetarako sorturiko erreserbegaitasunarena. Kasu partikular horren garrantzia edozein delarik ere, oso ohargarria denik uste ez dudana, nik arreta erakarri dudaneko puntu bat erakusten du; badira gauza batzuk, bilakaera kapitalistaren baldintzetan, erabat arrazionalak edo beharrezkoak direnak edo izan daitezkeenak, eta, ondorioz, ordena kapitalistaren *ex visu* hutsegite derrigor izan beharrik ez duena; halaber ez du izan beharrik derrigor kapitalismoa «monopolista»ren ahuleziak konkurrentziako kapitalismoarekiko konparazioan, bigarrenaren irismentik kanpo dauden lehenaren prestazioei, baldintza gisa, loturik baldin badaude; baina hori horrela izanik ere, fenomeno horiek sistema kapitalistaren ahuleziak izan daitezke oinarritzko plan sozialistarekiko erlazioan.

Ohar hori bereziki aplikagarria da ziklo ekonomikoen mekanismoa eratzen duten fenomeno gehienei. Enpresa kapitalistari ez zaizkio arautzaileak falta, zeinetarik batzuk aurki baitaitezke ekoizpeneke ministerio sozialistaren praktikan ere. Baina progresuaren plangintza, batez ere enpresaren sorkuntzen koordinazio sistematikoa eta aldika ordenaturiko banaketa abar guztietan, paregabeki eraginkorragoa izango litzateke, aldi batzuetan bat-bateko gorakadak eta erreazio depresiboetan beste batzuetan eragozteko, interes-tasaren edo kreditu-eskaintzaren bariazio automatiko edo manipulatuak izan daitezkeenarenak baino. Izatez, ezabatu egingo luke gorakada eta beherakada ziklikoen kausa, aldiz, ordena kapitalistan horiek biguntzea besterik ezin da egin. Eta zaharkitu guztiaren ezabatze-prozesua, kapitalismoan –batez ere konkurrentziako kapitalismoan– aldi baterako paralisia eta galerak esan nahi duena, hertsiki ezinbestekoak diren eraberrikuntzetara murrizt daiteke, zeinak profanoaren gogamenerako «zaharkitua ezabatzea» esamoldeak esan nahi baitu efektiboki, eta hori plan besarkatzaile baten barruan, zeinak lantegietako elementu ez zaharkituak edo tresneria zaharkituak beste erabilpen batzuetarako zuzentzea aurreikusten baitu.

Zehazki esateko: kotoiaren industrian bere erdigunea duen krisialdi batek geldiaraz dezake, ordena kapitalistan, etxebizitzaren erakuntza; ordena sozialista batean ere gerta daiteke, jakina, kotoizko salgaien ekoizpena drastikoki murriztu behar izatea epe laburrean,

nahiz eta hori gertatzea ez izan hain erraza; baina hori etxebizitzaren eraikuntza agurtzeko arrazoia izango litzateke geldiarazteko izan beharrean.

Bere nahiak egia bihurtzeko baldintzatan dagoenak desiraturako helburu ekonomikoak zeinahi direla ere, kudeaketa sozialistak perturbazio gutxiagorekin eta galera gutxiagorekin lor litezake, instituzio kapitalisten markoaren barruan progresua planifikatzeko ahaleginek berekin izango lituzketen desabantailetan derrigor erori gabe. Desberdintasun horren aspektu bat adieraz daiteke esanez kudeaketa sozialistak ekoizpenaren epe luzerako joerari eutsi liezaiokeela, ikusi dugunez, enpresa kapitalista handiei arrotza ez zaien politika bat garatuz. Eta gure argudio guztia intxaur-oskol batean sar liteke esanez sozializazioa datzala enpresa handiaz haratago urrats bat egitean, harentzat ezarri den bidean, edo gauza bera dena, kontzebi daitekeela kudeaketa sozialista enpresa handiko kapitalismoarekiko hain nagusi agertzea, nola enpresa handiko kapitalismoa konkurrentziako kapitalismoarekiko badela erakutsi duen bezala, zeinaren prototipoa orain ehunen bat urteko industria ingelesa baitzen. Erabat litekeena da etorkizuneko belaunaldiak plan sozialistaren gutxiagotasunari buruzko gure argudioak Adam Smithen sozietate anonimoei buruzko argudioak (zeinak ez baitziren faltsuak besterik gabe) kontsideratzen ditugun bezala kontsideratzea.

Orain arte esan dudana guztia, jakina, oinarritzko planen logikari buruzkoa zen bakarrik eta, beraz, agian praktikan sozialismoa burutzeko gai ez den aukera «objektiboei» buruzkoa. Baina ikuspuntu erabat logikotik, ukaezina da oinarritzko plan sozialista arrazionaltasun-maila jasoago batera eraman dela. Uste dut hortxe dela auzia zuzen planteatzeko modua. Ez da arrazionaltasuna eta irrazionaltasuna kontrajartzearen liskarra. Baserritarrak, zeinaren erreakzioak txerriaren eta artoaren prezioen aurrean txerriaren zikloa sortzen baitu, erabat modu arrazionallean jokatzeko du ikuspuntu indibidualetik eta uneko baldintzak kontuan izanez. Gauza bera gertatzen da oligopolio-egoera batean maniobratzen duen *concern* baten kudeaketarekin ere. Arrazionaltasunaren espezieak eta helmenak eratzen du eraentza batek bestearekiko duen desberdintasuna.

Hori ez da, noski, plan sozialistaren alde esan daitekeen guztia. Baina ekonomia sozialista baten logika garbia afektatzen duten heine-

an segur aski faltsuak ez diren argudio guztiak, egotez, hemen aurkeztzen den horretan inplizitu daude.

Langabeziak garrantzi nagusiko adibide bat eskaintzen du. II. atalean ikusi dugu sozializazio arrakastatsu baterako abagunea eskaintzeko beste aukera egin duen estadio bat lortu duen gizarte kapitalista batek ez lukeela zer desiratu handirik utziko eta, segur aski, ez lukeela utziko langabetuen beraien interesei dagokienez. Baina gizarteak berak jasandako galerari dagokionez aurreko argudioak inplikutzen du, gizarte sozialista batean, langabezia txikiagoa izango dela, depresioak kentzearen ondorioz batez ere, eta gertatzen den tokian, hobekuntza teknikoen ondorioz batez ere, ekoizpen-ministerioa –zernahi egiten duela ere errealtatean– langabetuak beste enplegu batzuetara bidaltzeko egoeran egongo da, zeinak kasu bakoitzean prestaturik egongo bailirateke haientzat baldin eta plangintzak bere aukera guztiak agortzen baditu.

Garrantzi txikiagoko abantaila bat, zeina inplizitu baitoa plan sozialistaren arrazionaltasun garaia goan, gertakari honetatik dator: ordena kapitalistan, hobekuntzan, eskuarki, *concern* singularretan gertatzen dira, eta horien orokortzeak denbora behar izaten du eta erresistentziekin topo egiten du. Progresuaren erritmoa lasterra bada, sarritan, enpresa-kopuru handi batek gogor eusten die antzinako metodoei edo zeinen efizientzia beste kausa batzuegatik normalaz azpitik geratzen baita. Ordena sozialistan hobekuntza oro teorikoki dekretu-bidez heda liteke eta praktika azpinormalak iradu ezaba daitezke. Abantaila horri garrantzi txikiagoko deitzen diot, zeren kapitalismoak, oro har, efizientzia handia erakusten baitu inefikaziarekin. Jakina, besterik da abantaila partikular horren gertakortasuna, handia zein txikia dela, burokrazia batek praktikara eramatea; konfiantza izan daiteke burokrazia jator batek bere agenteei araua ezarri ahal izatean, baina horrek ez du ezer esaten arau hori bera denari buruz. Beti kontuan izan behar da nagusitasun ahalgarri haiek, praktikan, gutxiagotasun efektibo bihurtu litezkeela.

Concern txiki edo ertainen zuzendariak edo zuzendari jabeak nagusiki, oro har, edo ingeniariak edo saltzaileak edo antolatzaileak dira, eta, horrelako diren heinean onak badira ere, nekez egingo dituzte gauza guztiak ongi era berean. Sarritan ikusten dugu, negozio opa-roak ere erdizka administratzen direla aspektu batean edo bestean

–lekuko bitez zuzendaritza-efizientzian adituek egiten dituzten txostenak–, eta beren zuzendariak, beraz, zati batean, lekuz kanpo daudela. Ekonomia sozialistak erabil litzake, eskala handiko enpresa modernoak bezala, etekin handiagoarekin errealki egiten dakitena egiten bakarrik erabiliz. Baina begi-bistako kontsiderazioek, zeinetan ez baitugu gelditu beharrik, ez digute utziko aspektu horretan itxaropen handiagoak ipintzen.

Bada, hala ere, garrantzi handiko abantaila bat zirrimarratu dugun oinarritzko gure planean agertzen ez dena. Gizarte merkantilaren zertzelada gailena esfera publikoa eta esfera pribatua bereiztearena da, edo, nahiago bada, gizarte merkantilean gizarte feudalak edo gizarte sozialistak esleitzen diona baino eduki askoz handiagoko esfera pribatu bat izatea. Esfera pribatu hori bereizirik dago publikotik ez kontzeptualki bakarrik, baita gertakarien errealitatean ere. Biak daude pertsonal guztiz desberdinez hornituak –tokiko autonomiaren historiak eskaintzen du salbuespenik ohargarriena–, eta printzipio desberdinen, eta sarritan kontraesankorren arabera antolaturik eta maneiatuak daude, zeinek arau desberdinak eta sarritan bateraezinak sortzen baitituzte.

Denboraldi batez bakarrik falta daiteke frikzioa ordenamendu horretan, zeinaren izaera paradoxazkoa miresmen-iturri bat izango bailitzateke hartara ohiturik egongo ez bagina. Izatez, frikzioa bere antagonismoa garatu baino askoz lehenagotik existitzen zen, esfera publikoko gizakiek domeinu burgesaren aurka gero eta arrakasta handiagoarekin egindako konkista-gerren ondorioz. Antagonismo horrek atergabeko borroka bat sorrarazten du. Estatuko jarduera gehienak eremu ekonomikoan argi baten azpian agertzen dira, zeina ongi ezagarriturik baitago «*interferentzia* estatala» antzinako ekonomialari burgesen esaldiaz. Jarduera horiek interferitu egiten dute, izan ere, hitzaren zentzu guztietan, bereziki ekoizpen pribatuaren mekanismoa tratatzen eta geldiarazten duten zentzuan. Ez dago sostengatzerik sarritan arrakasta izaten duenik, zeren, ekoizpenaren efizientzia gehitu ere egiten baitute. Baina hori horrela den bitartean, bulego zentralaren jarduerak oraindik arrakasta-aukera handiagoa izango luke, nahiz eta bi esferen arteko borroka berekin dramatizan kostuak eta galerak gorabehera erabat ekidingo liratekeen eraientza sozialista batean. Eta galera horiek ohargarriak dira, batez ere horien artean sartzen baditugu etengabeko ikerketa eta jazarpenek eragindako atsekabe

guztiak eta, ondorioz, bizitza ekonomikoari bulkada ematen dioten energien gain efektu desadoregarriak.

Kostu horien elementu bat espezifikoki aipatu behar da. Jarduera defentsazko hutsetarako gaitasun-hurrupaketan datza. Abokatuek egindako lan guztiaren parte ohargarri bat enpresek estatuen eta bere organoen aurka egiten duten borrokan inbertitzen da. Gutxi axola dio jarduera horri guztien ongiaren butxaketa biziotsua edo butxaketa biziotsuaren aurkako guztien ongiaren defentsa deitzen zaion. Edozein kasutan gizarte sozialista batean lege-jarduera horren premiarik eta horrentzako lekurik ez legokeelakoa geratzen da. Hortik sortzen den aurrezkia ezin daiteke asegarriki neur zeregin horretan aritzen diren abokatuen ordainsarietatik, zeinen zenbatekoa prezagaitza baita. Baina prezagaitza ez dena garun hoberen askoren hain enplegu produkziogabeak sortutako galera soziala da. Kontuan harturik zeinen izugarri urri dauden garun onak, horiek beste enplegu batzuetara transferitzea garrantzi infinitesimala baino handiagokoa izan liteke.

Frikzioa, edo esfera pribatua eta esfera publikoaren arteko antagonismoa, areagotu egin zuen hasiera batetik, printzeen errenta feudalak garrantzizkoak izateari utzi ziotenetik, xede pribatutarako esfera pribatutik lortzen zituen eta botere politikoak xede horietatik desbideratu behar zituen sarrera batzuetatik estatua bizi izan delakoa¹¹. Alde batetik, ezarpena gizarte merkantilaren atributu esentziala da –edo, lehen kapituluan aipatzen zen estatuen kontzepzioa onartzen badugu, estatuen atributu esentziala–, eta, bestetik, ekoizpen-prozesuan eragindako traumatismo baten izaera du¹² ia ezinbestez. 1914 arte, gutxi gorabehera –garai modernoak bakarrik kontsideratzean bat baldin bagatoz–, traumatismo horren efektuak muga estuen barruan esparruturik zeuden. Baina harrezkero zergak gehitu egin dira pixkanaka enpresako eta familiako aurrekontuen elementu nagusi eta prestazio ekonomiko aseezina azaltzeko garrantzi handiagoko faktore bihurtu arte. Gainera, gaizki aurre-disposaturiko organismo bati kantitate gero eta handiagoak erauzteko aparatu administratibo eskerga bat sortu da, zeinak burgesiarekin borroka besterik ez baitu egiten kobratzen duen dolar bakoitzarengatik. Ihardespén gisa organismo horrek defentsa-organoak garatu ditu, zeinek autobabeste-lan kantitate handi bat egiten baitute.

Ezerk ez ditu hobeki agerian jartzen gorputz sozialeko printzipio esktrukturalen gatazkatik sortzen diren diru-xahuketak. Kapitalismo modernoak lukro-printzipioan oinarriturik dago bere eguneroko ogirako, baina ez dio nagusitzen utzi nahi. Gizarte sozialista batean ez litzateke gatazka hori existituko, eta ondorioz, ezta xahuketa horiek ere. Errenta-era guztiak menderatuko lituzkeenez gero, zergak estatuarekin batera desagertu ahal izango lirateke edo, estatuaren nire kontzepzioak onarpenik ez badu, estatu burgesarekin batera. Zeren, zentzu komunaren arabera, nabariki absurdoa izango litzateke bulego zentralak errentak aurrena ordaintzea eta, egin ondoren, hartzaileengana jotzea haien parte bat berreskuratzeko. Erradikalak ez balira burgesez iseka egitera hain emanak, non zergetan baxuegiak izatearena beste akatsik ez baitute ikusten, aspaldi onartuko zatekeen zergak ezabatzea dela plan sozialistari aitor lekiokkeen nagusitasuntitulu esanguratsuetako bat.

XVIII KAPITULUA GIZA ELEMENTUA

Ohar Bat

Oso litekeena da sozialismoaren aurkari askok ni oraintxe iritsi naizen ondorioa onartzea. Baina horien sentimenduak kasurik gehienetan honako forma hartuko du: «Oso ongi, jakina; erdi-jainkoak izango banitu makina sozialista gidatzeko eta arkanjeluak maneiatzeko, orduan hori guztia horrelakoa izan liteke. Baina txarrena da ez dituela eta, giza izaera den bezalakoa izaki, alternatiba kapitalistak, bere motibazio-sistemarekin eta erantzukizun- eta sari-banaketarekin, eskaintzen duela, azken finean, kontzebi daitekeen ordena hoberena ez bada ere, bai, gutxienez, ordena praktikagarri hoberena.»

Eta badago egia apurren bat erantzun horretan. Alde batetik, ez dugu geure burua errealitate jakin bat *ideia* batekin erkatzeko ahalagin ororen atzean ezkututzen diren arriskuetatik bakarrik gorde behar, bazik baita errealitate jakin bat *ideal* batekin¹ erkatzeak bere baitan duen errore edo estratagematik ere. Bestaldetik, nahiz eta behar bezain argi utzi dudala uste dudan gauzen izaeran ezin daite-

keela inoiz sozialismoarentzat defentsa orokorrik aurki, baizik eta baldintza sozial jakinekiko eta etapa historiko jakinekiko erreferentzia duen defentsa bakarrik, erlatibitate hori orain askoz garrantzitsuago bihurtzen da oinarrizko planen artean mugitzen ibili garenean baino.

I Argudioaren Erlatibitate Historikoa

Analogia baten bidez ilustratuko dugu argudio hau. Gizarte feudalean guk guztiok –baita jabetza pribatuaren babesle irmoenek ere– administrazio publikoaren domeinu bakarrekoak direla uste dugunak kontzertu baten bidez ematen ziren, zeinak ematen baitigu inpresioa jabe funtzio publiko haiek jabetza pribatuaren objektu eta irabazi pribatuaren iturri bihurtu izana; zaldun edo jaun feudal orok mantendu egiten zuen feudoa, basailutza-erlazioekiko hierarkia batean, lukrorako eta ez hura *administratzean* emango zituen zerbitzuen ordainketa gisa. Orain publiko deituriko funtzioak, feudoak asoziatu-rik zeramatzanak, jaun feudal garaia goren bati errendaturiko zerbitzuengatik sari besterik ez ziren. Horrek berak ere ez du erabat zuzen adierazten egoera: bere feudoaren jabe zen, zeren jaun edo zaldun izateagatik, baten jabe izateko eskubidea zuelako, egiten zuena edo egiten ez zuena alde batera utzirik. Historikoa denerako neurriaren zentzurik ez dutenek gauzen egoera hori «abusu»-multzokatze bat bezala kontsideratzeko joera dute. Baina hori absurdoa da. Bere aro propio-ko zirkunstantzietan (feudalismoak, bere koadro instituzional osoak bezala, egiazki «bere» aroa izan baino gehiago iraun du bizirik), ordenamendu hori zen praktikagarri bakarra eta bere baitan txertaturik zermanan metodo bakarra, zeinaren bidez burutu baitzitezkeen funtzio publiko horiek. Karl Marx XVI. mendean agertu izan balitz, adibidez, eta administrazio publikoko beste metodo bat proposatzeko bezain ausarta izan balitz, ihardespen bat jasotzeko arriskua izango zuen esango ziona sistema hura bitarteko miresgarria zela bera gabe inola ere egiterik izango ez zuen zerbait egiteko eta batez ere, «giza izaera den bezalakoa izanik», lukroaren zioa ezinbestekoa zela administrazio publikoaren funtzionamendurako; hura ezabatzeak, izan ere, kaosa esan nahiko zukeen eta amets eginezintzat kalifikatu ahal izango zatekeen.

Antzeko era batean, kotoi ingelesaren irundegiak ekonomia kapitalistan leku gorena hartzen zuen garaian –1850 arte, gutxi gora-behera–, sozialismoa ez zen proposamen egingarria eta ez dago zentzuzko sozialistarik orain sinesten duenik eta orduan ere ez zuen uste halakoa zenik. Nagusiaren begiak gizentzen du azienda eta hondarra urre bihurtzen du, urrezko arrautzak erruten dituen oiloa eta gisako beste esaldi arrunt batzuk pertsona sinple eta buru-kamutsentzat esandako egia ukaezin baten adierazpena baizik ez ziren orduan. Zilegi bekite eure adiskide sozialistei iradokitzea badagoela horiek gudukatzeko iseka baino bitarteko hoberik, hau da, aurkariak, berak bezain intelektual banitatetsu eta susmakorrak, erridikulua egin dezakeen sentsazioa daukan bezain laster argumentatzeari utziko dion esperantzarekin haietaz iseka egitea: hobe da sinple haien uzi justua berrezargutzea beren marko historiko propioaren barruan eta horiek ezeztatzea beste marko historiko batzuetan aurkitzen diren abaguneetara mugatzea. Orduan, gutxienez, auzi muntadunari aurre egin beharrean aurkitzen gara –hau da, haietatik zer irauten duen orain bizik determinatzearenari– eta nahiko gune libre kontserbatzen dugu oraindik geure desakordioetarako.

Begien aurrean kapitalismo-era jakin bat eduki behar dugunez errealtate kapitalista eta arrakasta sozialistaren probabilitateak erkatzeak esanahirik izatekotan, zilegi bekigu geure garaiko kapitalismoa hautatzea, hau da, enpresa handien *trabapeko* kapitalismo. Eta lehenik ohartzen gara, nahiz eta horrek aro eta sistema bat definitu, ez dela ezein aldi bereziri buruzkoa, ezta hamarkada-terminotan ere, zeren aro jakin batean trabapeko kapitalismoaren sistemak bere zertzeladak noraino garatu eta egonkortu ditueneko auziak, oraingoan, adibidez, gertakarien ikerketa bati itxaron beharko lioke oraindik; bigarrenik, gure argudioaren atal horretarako muntagabea dela traba horiek, zeinahi direla ere, prozesu kapitalistak berak sortuak izatea edo hartaz kanpoko agente batek berari ezarritakotzat kontsideratu ahal izatea; hirugarrenik, nahiz eta nolarebait praktikoagoak diren arazoak tratatu behar ditugunez gero –batez ere zer puntutaraino espero daitekeen sozialismoak bere oinarritzko planean daukan uzta biltzea–, probabilitatez bakarrik hitz egingo dugu, eta hipotesiekin aritu beharko dugu patuak erreserbatuko digun sozialismo motaz geure ezjakintasunari erremedioa egiteko.

II Erdi-jainkoez eta Arkanjeluez

Erdi-jainkoez eta arkanjeluez hitz egiten duen gure burgesa-rengana itzuliz aise utz ditzakegu lehenak alde batera; makina sozialista gidatzeko ez da erdi-jainkorik beharko, zeren, jadanik lehenago ere ikusi dugunez, ebatzi beharreko arazoa, igarobideko zailtasunak gainditu eta gero, ez baita makurragoa izango, baizik eta mundu modernoko industria-kapitainak aurrez aurre daukan egitekoa baino errazagoa. Arkanjeluak aipatzeak baieztapen ezagun hari erantzuten dio, zeinaren arabera era sozialistako existentziak gizakiak diren bezalakoak izaki lortzea espero ez daitekeen maila etikoa auresuposatzen duela,

Sozialistek beren buruari bota behar diote errua gisa horretako argudioek beren aurkariei garrantzi handiagoa emateko balio izateagatik. Zapalkuntza eta esplotazio kapitalisten izugarrikeriez hitz egin dute, zeinak ezabatzea aski baitzen giza izaera bere edertasun osoan erakusteko edo, edozein kasutan, giza arimak eraberrituko zituen eta behar besteko maila etikora gidatuko zituen hezkuntza-prozesuari hasiera emateko². Horretara maila erridikulu bateraino masak lausengatzearen akusazioaren arriskuan ez ezik, nahiko deskreditatua egon beharko lukeen rousseaunianismoa aldarrikatzearenean ere jartzen dira. Baina zeharo alferrikakoa da hori egitea, zeren horren premiarik gabe sozialismoaren defentsa ona egin baitaiteke zentzu komuna erabiliz.

Horretarako bereizkuntza bat egingo dugu, jadanik baliagarria dela frogatu duena, nahiz eta psikologoek objektzioak ezar diezazkioketen. Lehenik, sentitzeko eta jarduteko jaidura-sail jakin bat ingurumen sozialean gertaturiko aldaketez modifikatu egin daiteke, horien azpian oinarritutako dagoen sistemak («giza izaera») lehengoan dirauen bitartean. Fenomeno horri «berrezagutzazko modifikazio» deituko diogu. Bigarrenik, oinarritzko sistema horren barruan oraindik, berregokitzeak talka egin dezake sentitzeko eta jarduteko jaidurekin, zeinak modifikagarriak izan arren ingurumen-alterazioen bidez –batez ere alterazio horiek arrazionalki burutzen badira, oraindik erresistitu egiten dute denbora batean eta perturbazio bat sortzen dute erresistitzen duten bitartean. Gertakari hori «azturak» esamoldearekin asozia daiteke. Hirugarrenik, oinarritzko sistema bera modifika daiteke, bai

giza materialaren genero beraren barruan edo bai bertako elementu errefraktarioak kanporatzearen bidez; giza izaera, noski, xaflakor da halako puntu bateraino, batez ere osaera alda dakiekeen taldeetan. Xaflakortasun hori noraino iristen den ikerketa serioa eskatzen duen auzia da eta ez zalapartako ikerketa edo ukapen era berean zalapartatsua ere. Baina ez daukagu bataren edo bestearen alde egin beharrik, zeren orain ez bailitzateke beharrezko izango giza arimaren oinarritzeko eraberrikuntzarik sozialismoa abian jartzeko.

Horretaz aise konbentzi gaitezke. Lehenik, nekazaritza-sekto-rea utz dezakegu alde batera, zeinatik espero bailiteke etortzea zailtasunik larrienak eraberritzaileentzat. Gure sozialismoak ez lioke sozialismo izateari, nahiz eta kudeaketa sozialista nekazaritza-plangintza gisako batera mugatu, jadanik garatzen ari denetik praktika-mailan bakarrik bereiziko litzatekeena Ekoizpen-plan bat finkatu; kokapena arrazionalizatzea (lurraren erabilpena); nekazariak makineriaz, haziz, hazitako abereez, ongarriz eta abarrez hornitzea; emaitzen prezioak finkatu eta nekazari-erpreziorietan erostea, horixe besterik ez litzateke beharko, eta, hala ere, horrelako politikak funtsean ukigabe utziko luke nekazaritza-mundua eta horren jarrera espiritualak. Badira beste bide ahalgarri batzuk. Baina interesatzen zaiguna bakar bat izatea da oso frikzio gutxirekin jarraitzeko modukoa eta amaigabeki jarraitzeko modukoa izatea horregatik gizarteak sozialista deitua izateko titulurik galdu gabe.

Bigarrenik, langilearen eta enpleguaren mundua dago. Horiengandik ez litzateke inolako arima-eraberrikuntzarik eta inolako moldatze neketsurik eskatuko. Horien lanak berdin jarraituko luke funtsean, eta orain ikusten direnen antzeko jarrerak eta azturak sortuko lituzke, aurrerago gehituko den erreserba garrantzitsu batekin. Bere lanetik langilea edo enplegatua etxe batera eta amesmen sozialistak nahi duen bezala izenda ditzakeen zereginetara itzuliko litzateke –adibidez, futbol proletarioan joka dezake, aldiz, orain futbol burgesean jokatzen ari da–, baina lehengo etxe mota bera eta lehengo zeregin mota bera izaten jarraituko dute. Gizarte-sektore honetan ez dago zailtasun handiak sortu beharrik.

Hirugarrenik, ordenamendu sozialistaren biktima izatea ez-naturalki espero duten taldeen arazoa dago, hau da, *grosso modo* hitz eginez, goi-estratuaren edo estratu zuzendariaren arazoa. Ez dago

konpontzerik alor sozialistaz askoz haratago fedegai bihurtu den doktrina sagaratuaren arabera, hau da: estratu hori harrapari gizenduez bakarrik osatzen deneko doktrina, zeinen presentzia beren posizio ekonomiko eta sozialetan zoriak eta eskrupulu-gabeziak bakarrik azaltzen baitu, eta zeinek ez baitute masa langileak gabetzea beste «funtziorik» –edo kontsumitzaileak, kasuaren arabera– lanaren fruituez; animalia harrapari horiek, gainera, beren joko propioa hondatzea ezgaitasunez eta (zertzelada modernoago bat eransteko) depresioak sorrarazten dituzte bere harrapakinaren parterik handiena metatzeko beren azturarengatik, eta zeinez komunitate sozialistak ez baitu kezkatu beharrik izango, beren posizioetatik bizkor kanporatuak izatea lortu ondoren, sabotaje-ekintzak egitea ekiditeko izan ezik. Doktrina horren bertute politikoak zeinahi direlarik ere eta, norbanako infanormalen kasuan, beren bertute psikoterapeutikoak, ez dago sozialismo ontzat edukitzerik. Zeren sozialista zibilizatu orok, bere portaera on eta jarrerarengatik pertsona serioek seriotan hartua izan behar duenak, gertakari asko onartu behar ditu estratu burgesaren kalitateaz eta prestazioez, doktrina horrekin bateraezinak direnak, eta gainera argumentatuko du, haren goi-geruzak ez direla lepo egin behar, aitzitik, masak ekonomikoki zapaltzen dituen baino maila ez txikiagoan moralki zapaltzen duen sistemaren kateetatik horiek ere askatu egin behar direla. Ikuspuntu horretatik, Karl Marxen teoriarekin bat datorrena, ez da bide luzerik geratzen eraentza sozialistaren arrakastarako elementu burgesen lankidetzak baldintza esentziala izan litekeelako ondorioa iristeko.

Arazoa, beraz, honela planteatzen da. Hona hemen klase bat, emaitza deneko hautespen-prozesuaren indarrez, kalitate super-normaleko giza materiala daukana³ eta aktibo nazional bat eratzen duena, beraz, antolakuntza sozial orok erabiltzea arrazionala dena. Horrek bakarrik hura ezabatzetik abstenitzea baino zerbait gehiago inplikatu du. Gainera, klase horrek funtzio bitalak burutzen ditu, gizarte sozialista batean ere burutu beharko liratekeenak. Ikusi dugu asoziatu izan dela eta oraindik asoziatzen dela, halaberharrez, aro kapitalistakoa ia ekarpen kultura guztiekin eta biztanleria langilearen hazkuntzari zor ez zaizkion ekarpen guztiekin, hau da, lanaren ekoizkortasun izendatzen den etekin guztiarekin (lanorduko ekoizpena)⁴. Alabaina, ekarpen hori asoziatu izan da, bestalde, sozialismoa abolitzera beharturik

dagoen zalantzagabeko eraginkortasunezko sari- eta zigor-sistema batekin. Beraz, auzia datza, alde batetik, giza material burgesa gizarte sozialistaren zerbitzura uztartzerik dagoen ala ez determinatzean, eta, bestetik, burgesiak buruturiko funtzioen artetik, eta zeinetatik sozialismoak kanporatu egin behar baitu, beste agente batzuek bete ditzaketen ala ez, edo beste metodo burges batzuek edo biek batera.

III Kudeaketa Burokratikoaren Arazoa

Giza material burgesaren esplotazio arrazionala da, zalantzarik gabe, konpontzen arazorik zailena eraentza sozialista batentzat, eta baikortasun halako bat beharko litzateke arrakastarekin konponduko dela baieztatzeko. Hala ere, hori ez dago nagusiki bere baitan dituen zailtasunengatik, baizik eta sozialistek bere garrantzia berrezagutzeko eta prestutasun espiritual arrazoizko batekin hari aurre egiteko izango duten zailtasunarengatik. Gorago aipatu den klase kapitalistaren izaera eta funtzioei buruzko doktrina berez higuin bortitz baten zantzua da eta hori onartzeko prestakuntza psikoteknikotzat kontsidera daiteke. Hori ere ez da harritzekoa. Sozialista indibiduala, partikularra edo alderdi-exekutibo edo estatu-funtzionarioa dela ere, era inozo, baina natural batean sozialismoaren etorrera botererako *bere* etorrera pertsonal gisa kontsideratzen du. Sozializazioak esan nahi du harentzat «gu» jabetuko garela botereaz. Dauden kudeaketak ordezteak parte garrantzitsua da, agian ikuskizunaren parte garrantzitsuena. Eta aitortzen dut militante sozialistekin hitz egitean sarritan sentitu izan dudala horietakoren batzuk, edo gehienak ere bai eraentza sozialistaz interesatuko ote liratekeen, nahiz eta beste aspektu batzuetan perfektua izan, beste batzuek kudeatuko balute. Berehalaxe gaineratu behar dut beste batzuen jarrera ezin hobia zela⁵.

Berez, arazoa arrakastarekin konpontzeak eskatzen du ezer baino lehen elementu burgesi beren gaitasun eta beren tradizioz presaturik dauden lana egiten uztea eta, horrela gidaritzatzaile postuetako hautespen-sistema bat hartzea, gaitasunean oinarritua eta burges ohien aurka bereizkeriarik egingo ez duena. Horrelako metodoak kontzebigarriak dira eta horietako batzuk, era abantailatsuan erka daitezke metodo kapitalistarekin, sozietate aro handien aroan funtzionatzen duenez. Hala ere, beren lana egiten uzteak postu egokirako izendatzea

baino zerbait gehiago eskatzen du. Horretarako izendatzean beren erantzukizunaren pean jarduteko askatasuna ematea ere beharrezkoa da. Eta horrek bizitza ekonomikoaren burokratizazioa esan nahi du, hainbeste homilia anti-sozialistaren gaia dena.

Nik neuk ezin dut irudikatu, gizarte modernoaren baldintzetan, antolakuntza sozialista bat aparatu burokratiko eskerga eta dena besarkatzen duena ez bezalako moduan. Nik kontzebi dezakedan beste edozein aukerak porrota eta hondoa jotzea esan nahiko luke. Baina, seguraski, horrek ez dio ikararik sortuko bizitza ekonomikoaren –eta bizitzarena orokorrean– burokratizazioa zeinen urrunera heldu den konturatzen denari eta gaiaren inguruan hazi den esaldi-sasiartearen bidea urratzeko gai denari. Gauza bera «monopolio»aren kasuan esaldi horiek gure gogamenean duten eraginaren parte handi bat beren iturburu historikotik datoz. Kapitalismoaren jaiotze-garaian burgesiak, lehenik, bere burua baieztatzen zuen burokrazia monarkikoak, zeinaren bidez baitziharduten, errepresentaturiko lurralde-botereen aurka borroka eginez. Merkatariak edo fabrikatzaileak interferentzia amorragarri edo inozotzat jotzen zuena burokrazia edo funtzionario-gorputz horri asoziatzen zitzaion klase kapitalistaren gogamen kolektiboa. Izaera horretako asoziazio mentala zerbait oso iraunkorra da; ideia partikularrena asoziazio hori hain iraunkor gertatu zen, non sozialistek berek ere beldurra dioten eta sarritan aldentzen dira haren bidetik guri segurtatzeko ezer ez dutela beren planetatik urrunduagorik erantza burokratiko baten ideia baino⁶.

Hurrengo atalean ikusiko dugu burokrazia, demokraziarako eragozpen izan ordez, osagarri saihestezina dela horrentzat. Era bereztuan osagarri saihestezina da garapen ekonomiko modernorako eta inoiz baino esentzialagoa izango da komunitate sozialista batean. Baina burokratizazio oro-besarkatzailearen saihestezintasuna aitortzeak ez ditu konpontzen planteatzen dituen arazoak eta komenigarria da abagune honetaz baliatzea horiek zertan dautzan azaltzeko.

Mozkinak eta galerak ekintza ekonomikoaren zio gisa kentzea. sarritan modu eskusiboan azpimarratzen dena, ez da puntu esentziala. Gainera, erantzukizuna, norbere diruaz hutsegiteengatik ordaindu behar izatearen zentzuan, desagertzen ari da nolabait esateko (nahiz eta gure gogoak pentsaraz liezagukeen bezain laster), eta eskala handiko sozietate anonimoan dagoen erantzukizuna birsor liteke, zalan-

tzarik gabe, gizarte sozialista batean (ikus beherago). Funtzionario gidarien hautespen-metodoa, burokrazia edo administrazio zibil batek berezian duena, ez da derrigor sarritan esan izan ohi den bezain eraginkortasunik gabea. Administrazio zibilean izendatu eta igoarazteko arauak ez daude arrazionaltasun-neurri halako batzuez gabetuak. Gertatu ere gertatzen da batzuetan praktikan paperean ageri dena baino hobeki funtzionatzen duela; bereziki gizaki jakin bati buruzko funtzionarioen iritzi korporatiboaren elementuak, dagokion garrantzia ematen bazaio, asko laguntzen du gaitasuna –gutxienez mota jakin bateko gaitasuna– faboratzen⁷.

Askoz garrantzitsuagoa da beste puntu bat. Negozioak eramateko metodo burokratikoak eta horrek hedatzen duen giro moralak sarritan eragin deprimigarria izaten dute gogamen aktiboengan. Nagusiki, hori izaten da, makina burokratikoak ekimen indibiduala eta bere funtzionamenduaren mekanismoa adiskidetzeko duen bere baitako zailtasunarengatik. Sarritan makina horrek tarte estua uzten du ekimenerako eta zabala hura iratetzeko ahalegin makurrentzat. Hortik funtzionarioengan frustrazio- eta futilitate-sentsazioa sor daiteke, zeinak, bestalde, besteen ahaleginen kritika antzugarrian agertzen den mentalitatara eragiten baitu. Hori ez da derrigor horrela; burokrazia askok beren lanaren ezagutza hurbilekoagoa irabazten dute. Baina zaila da ekiditen, eta ez dago errezeta errazik hori egiteko.

Ez da zaila, hala ere, jatorri burgeseko giza materiala bere leku egokian burokrazia sozialistaren barruan eta bere lan-azturak birtaxutzea. Aurrerago ikusiko dugu, gutxienez bere garaia heldu eta gero buruturiko sozializazioaren kasuan, gauzen ordena sozialista moralki onartzeko eta bertara leialtasunak transferitzeko baldintzak segur aski bete daitezkeela beharrezko izan gabe komisariorik izatea, zeinari kontra eta irain egiteko. Elementu burges ohien tratamendu arrazionalak errendimendu handiena segurtatzeko ez du eskatuko orduan era berean beharrezkoa ez den ezer beste edozein jatorritako pertsonal gidariaren kasuan. Tratamendu arrazional horrek inplikitzen duen auzia dagoeneko izan du erantzuna agintari sozialista batzuen aldetik modu arrazoizkoan eta ez hain demagogikoan eta aski izango da puntu garrantzitsuei begiratu arin bat ematea.

Hasieratik aitortzea komeniko da betebeharrak altruista hutsaren sentimenduak bakarrik fidatzea horren garrantzia eta horren ahaltsun

guztiak erabat ukatzea bezain irreal dela. Betebehar-sentimenduari loturik dauden elementu guztiak kontuan hartu arren ere, hala nola, lanak eta horren gidaritzak ematen duen asetazuna, uste izatekoa da abantailatsua gertatzea sari-sistema bat, gutxienez aintzatespen sozial eta prestigio sozialaren eran. Alde batetik, esperientzia arruntak irakasten du zaila dela gizon bat edo emakume bat aurkitzea, espirituz oso jaso bada ere, zeinaren altruismoak edo betebehar-sentimenduak autointeres gisako horrekiko erabateko independentzian funtzionatze baitu, edo gutxienez, edo nahiago bada, bere banitate edo autobaiez-tapen-desirarekiko. Bestetik, argi dago desira horren azpian dagoen jarrera, sarritan patetikoki nabaria, sistema kapitalista baino askoz sakonkiago erroturik dagoela eta bizitzak edozein talde sozialen barruan duen logikari dagokio. Hortik dator ezin ezabatu ahal izatea hori kapitalismoaren izurriari buruzko esaldien bidez, zeinak arimak kutsatu eta horien jaidura «naturak» nahastu egiten baititu. Hala ere, oso erraza da egoismo indibidual mota hori tratatzea gizartearen zerbitzuan ustiatua izan dadin. Eta komunitate sozialista bat egoera bereziki faboragarrian dago hori egiteko.

Gizarte kapitalistan egindako zerbitzuen aintzatespen sozialak edo prestigio sozialak izaera ekonomiko azpimarratua du, nola diru-irabaziak arrakastaren adierazle tipikoa eratzen duelako, arau kapitalisten arabera, hala prestigio sozialeko galarik gehienak –batez ere ondasun ekonomiko guztien artean sotilena, distantzia soziala– erosi behar izaten direlako. Aberastasun pribatuaren prestigio- edo bereizkuntza-balio hori beti berrezagutu izan dute ekonomialariek. John Stuart Millek, intuizioaren eta zorroztasunaren magoa ez zenak, ikusi egin zuen. Eta argi dago, prestazio supernormalerako pizgarrien artean hori dela garrantzitsuenetako bat.

II. atalean agerian geratu da bilakaera kapitalistak aberastasun-desiraren zio hori ahultzera jotzen duela, gainera guztiena bezala. Hortik dator sozialismoak gaur egun estratu gorena eratzen duten bizi-balioen birbaliozkerik ez behar izatea, duela ehun urte beharko zukeena bezain handirik ez behintzat. Gainera, prestigioaren zioa, beste ezein baino gehiago, aintzatespen sinple batez modela daiteke; kontzebi daiteke zorioneko ekarpenak egin dituzten gizakiak –ekonomia zuhur batekin ematen bada– fraketan penike bateko seilua itsasteko pribilegioa haiei baimentzearekin hain aserik sentitzea,

nola urtean milioi bat dolar hartzearekin egongo liratekeen. Hori ere ez litzateke irrazionala. Zeren, suposatuz penike bateko seiluak nahikoa zirrara eragingo liokeela ingurumenari eramailearekiko beste era batera portatzera eragiteko, gaur egun milioi bat dolar prezarazten duteneko abantaila asko emango lizkioke horri. Argudio horrek ez du galtzen ezer horrelako praktika batek iraganean emaitza bikainekin zabalki erabilia izan den baliabide bat berpiztuko besterik ez egi-teagatik. Zergatik ez? Trotskik berak onartu zuen Bandera Gorriaren Ordena.

Hobespeneko tratamenduari dagokionez errenta errealeko terminotan ezer baino lehen ohartu behar da neurri bateraino baliabide sozialen existitzen den hornikuntzarekiko portaera arrazionalako auzi bat dela, estimuluaren aspektuarekiko erabat independenteki. Arrazako zaldiak eta zezen sarituak arreten hartzaile eskertuak diren bezalaxe, zeinak zaldi guztiei eta zezen guztiei ematea ez arrazional eta ez ahalgarri izango ez bailitzateke izango, horrela bada prestazio supernormal bat ematen duen gizakiari hobespeneko tratua eman behar zaio arrazionaltasun ekonomikoko arauak nagusitu behar badute. Argi dago ez daukatela nagusitu beharrik. Komunitateak erabaki dezake hobespen horiek baztertzen dituzten idealak burutzea eta makinei eskaintzen dizkien arretak gizakiei ematea. Eta horri buruz ekonomialari batek eskubidez esan dezakeen gauza bakarra da komunitateak ez lukeela jokatu beharko ideal horiek zerbait kostatzen direla jakin gabe. Puntu hori garrantzi ohargarrikoa da. Iruzkina desfaboragarriak sorrarazteko bezain aski altuak diren errentek bizi-tzeko eta lan egiteko baldintzak besterik ez dizkiete lorrarazten horien hartzaileei –distantziak eta ardura txikiagoetarako askatasuna barne direla–, hain zuzen ere aski direnak fleitean egoteko egiten duten lan-motarako.

Puntu hori kontuan edukitzen den bitartean aldi berean, parte batez gutxienez, pizgarri ekonomiko hutsak hornitzearen arazoa konponduko da. Baina uste dut komunitate sozialista, berriz ere arrazionaltasunaren ikuspuntuan kokatzen naizelarik nabarmen irabazi behar duela arrazako zaldiaren edo makinaren analogiek ezarritako mugez haratago joanez. Beste behin horren arrazoia, alde batetik, giza portaeraren behaketari dario, eta, bestetik, ekonomiaren eta kapitalismoaren zibilizazioaren analisiari, zeinak ez baitu sostenga-

tzen hobespeneko tratuaeren bitartez gizarteak ustia dezakeen pizgarria baldintza kapitalisten ekoizkina delako ikuspuntua. Pizgarri hori ahalegin sozialki baliotsuaren bultzatzaile bat da. Pizgarri horri aseptasun-aukera oro ukatzen bazaio, emaitzak izan zitezkeenak baino zerbait txikiagoak izango dira, nahiz eta ezinezkoa izan zenbatean esatea eta elementu horren garrantzia txikiagoa izango den, zenbat eta prozesu ekonomikoa geldikorra goa izan sozialismoa ezartzen den unean.

Horrek ez du esan nahi, gisa horretako pizgarriaren ahaltsune i justizia egiteko, errenta nominalek gaur dutenaren pareko altuera batera iritsi beharko luketenik. Gaur egun zergak, aurrezkiak eta abar hartzen dute beren baitan. Diru-sail horiek ezabatzea aski izango litzateke bere horretan zifrak drastikoki murrizteko, zeinak hain iraingarriak baitira gure garaiko mentalitate burges-txikiarentzat. Gainera, lehenago ikusi dugunez, errenta-kategoria gorenetan daudenak pixkaka ohitu egiten dira ideia apalagoetara, eta, izatez, galtzen ari dira jaun-maila batean gastua ahalbidetzen zuten errenta-maila haiek desiratzeko zio gehienak, prestigiozkoez bestelakoak; horien ideiak oraindik apalagoak izango dira sozialismoa bere arrakasta lortzeko aukerak izateko unera iristean.

Jakina, fariseu ekonomikoek eskuak altxatuko dituzte izuikara santua erakutsiz. Horien onerako zilegi bekit adieraztea dagoneko eskura daudela horien eskrupuluak baretzeko bitartekoak. Bitarteko horiek mundu kapitalistan sortu dira, baina nabarmen gartu dira Errusian. Funtsean da jenerozko ordainketa eta betebehar jakin batzuen burutzeak berekin dituen gastuak estaltzeko teorikoki zuzenduriko diruaren zuzkidura liberal bat uztartzea. Herrialde gehienetan burokraziako kategoria gorenak oso era apalean ordaindurik daude, zalantzarik gabe, sarritan irrazionalki ordainduak, eta kargu politiko handiek dirutan jasotzen dituzten soldatak dekoroski txikiak dira. Baina, gutxienez, kasu askotan hori konpentsatu egiten da parte batean, eta batzuetan zabaltasun handiarekin, ez bakarrik ohoreekin, baizik eta herri-ogasunaren kontura mantenduriko egoitza ofizialekin, abegikortasun «ofizial»erako esleipenekin, almirantegoko yateak eta beste batzuk erabiltzearekin, nazioarteko batzordeetan edo armada baten koartel orokorretan eta abarretan zerbitzatzeko esleipen bereziekin.

IV Aurrezkia eta Diziplina

Azkenik, zer esan daiteke burgesiak gaur egun burutzen dituen funtzioez, eta zeinetatik eraentza sozialistak kendu egin behar baitu? Burualde horren azpian aurrezkia eta diziplina aztertuko ditugu.

Lehen funtzioari (ia burgesiak bakarrik burutzen du eta goren kategoriek bereziki) dagokionez ez dut argudiatuko aurreztea alferri-kakoa edo antisoziala denik. Ez diot eskatuko irakurleari kamarada banakoen aurrezkirako jaiduraz fidatzerik ere. Horien ekarpena ez da ahaztu behar, baina aski izango litzateke ekonomia sozialista zerbait geldikorra gisa imajinatzen ez bada behintzat. Agintaritzza zentrala, ikusi dugunez, orain aurrezki pribatuaren bidez egiten diren inbertsio guztiak askoz eraginkorkiago burutu ditzake, baliabide nazionalen parte bat fabrika eta ekipo berriak eraikitza zuzenean esleitzuz. Errusiar esperientzia baliteke erabakigarria ez izatea puntu askotan, baina bada horretan. Errusian gabeziak eta «abstinentzia» ezein gizarte kapitalistak inoiz ezarri ahal izango ez zituen mailan ezarri dira. Garapen ekonomikoaren estadio aurreratuago batean ez litzateke beharrezkoa izango hainbeste pribilegio ezartzea erritmo kapitalistari aurrerabidea segurtatzeko. Aurreko kapitalistak estadio ia-geldikorra lortu duenean, aski izan liteke borondatezko aurrezkia inbertsiorako. Arazo horrek, nahiz eta ebazgarria izan, beste behin erakusten du egoera desberdinak sozialismo desberdina eskatzen duela eta mota idilikoak aurrerabide ekonomikoa kontuan hartzen ez badu bakarrik izan dezakeela arrakasta; kasu horretan irizpide ekonomikoak muntaduna izateari utzi egiten dio, edo baldin eta, iraganeko aurrerabide ekonomikoa prezatuta ere, onartzen bada nahiko urrun iritsia dela etorkizunean kontuan hartu beharrik ez izateko.

Diziplinari dagokionez, begi-bistako erlazioa dago sistema ekonomikoaren efizientziaren eta gizarte merkantilak ugazaba burgesari jabetza pribatuaren eta kontratazio «aske»aren bidez enplegatuekiko ematen dion autoritatearen artean. Hori ez da jabetzadunei emandako pribilegio hutsa jabetzagabeen esplotazioa ahalbidetzeko. Modu bitartegabekoz afektaturiko interes pribatuaren atzean ekoizpen-aparatuaren trabarik gabeko funtzionamenduarekiko interes soziala dago. Iritzi desberdin samarrak egon daitezke puntuari buruz, zeinean, egoera jakin batean, interes patronalak efektiboki zerbitzatzen baitu interes

soziala eta graduari buruz, zeinean metodoa baitatza ugazaben autointeresean oinarritzean interes soziala sustatzeko, haien agintepean zeudenei alferrikako gabeziak ezartzeko. Baina historikoki ezin liteke inolako iritzi-desberdintasunik izan interes sozial horren existentziaz, ez eta metodo horren eraginkortasun orokorraz ere, zeina, gainera, kapitalismo ukigabearen aroan, ahalgarri bakarra baitzen. Hortik dator bi galderari erantzun behar izatea. Iraungo al du interes sozialak ingurumen sozialistan? Horrela, bada, eman al dezake plan sozialistak behar besteko autoritate-zenbatekoa, zeinahi izan daitekeela ere?

Komenigarria izango da autoritate esamoldea zehatzagoa den «diziplina autoritario»z ordezte, zeina erabiltzen baita aztura izendatzeko, agente desberdinek diziplinapeko norbanakoei ezarria, obedi dezaten eta gainbegiratzea eta kritika onar ditzaten. Hortik abiatuta bereizten ditugu autodiziplina (ohartzen garelarik, partez gutxienez, langilea lehen, baita herentziaz ere, autoritatearen eragin diziplina-tzailearen mendean egon izanagatik dela hori) eta talde-diziplina, zeina baita talde-iritziaren presioaren emaitza bertako kide bakoitzaren eta zeina partez, antzeko eran, iraganean lorturiko mendekotasun-azturei zor baitzaie.

Alabaina, bi gertakari daude autodiziplinari eta talde-diziplina zorrotzago bati ustez lagun diezaioketenak. Kontzepzio hori, beste hainbeste bezala, idealizazio ergelek bakarrik desitxuratu dute, batez ere eztabaida inteligentearen bidez (olgetako jokoetatik atsedena hartzen duten bitartean) gero lehia pozkariotsuan praktikara eramaten dituzten erabakietara ustez heltzen diren langileen koadro absurdoak. Baina gauza horiek ez gaituzte itsutu behar izaera arrazoizkoago bateko igurikapen faboragarriei sostengua ematen dieten gertakarietatiko gertakarien eta inferentzien aurrean.

Lehenik, uste izatekoa da ordena sozialistak kapitalismoari gero eta gehiago ukatzen zaion leialtasun moral hura lortuko duela. Ia ez dago azpimarratu beharrik horrek jarrera osasungarriagoa iradoki-ko diola langileari bere betebeharreko, gaitzestera iritsi den sistema batean eduki lezakeenaren aldean. Gainera, bere gaitzespena mendean daukate eraginen emaitza da neurri handi batean. Hala egiteko eskatzen zaiolako gaitzesten du langileak kapitalismoa. Bere leialtasuna eta prestazio onarengatik bere harrotasuna sistematikoki alde batera uzteko eskatzen zaio. Bizitzaren bere kontzepzio osoa klase-

borrokaren konplexuak desitxuraturik dauka. Baina aurreko abagune batean ondoez sozialaren interes profesionala deitu dudana desagertu egingo da neurri handi batean —edo desagerrarazi egingo da, laster ikusiko dugunez— gainerako interes profesional guztiekin batera. Baina horri kontrajarri behar zaio, jakina, eraentza kapitalistan nor bere destino ekonomikoaren jabe izateak sortzen duen eragin diziplinatzailea ezabatzea.

Bigarrenik, ordena sozialistaren meritu nagusietako bat da fenomeno ekonomikoen izaera argitasun konfundiezinaz agerian jaretzea, aldiz, ordena kapitalistan lukroaren interesaren maskaraz aurpegia estalita dauka. Nahi duguna pentsa dezakegu maskara horren atzean egiten omen direla sozialistek sostengatzen duten krimenez eta ergelkeriez, baina ezin dezakegu maskararen beraren garrantzia uka. Adibidez, gizarte sozialista batean inork ezingo luke une bakar batez ere zalantzarik izan nazio batek nazioarteko merkataritzatik lortzen duen abantaila inportazioek eratzen dutela eta esportazioek errepresentatzen dutela inportazioak eskuratzeko egin behar den sakrifizioa; aldiz, gizarte merkantilean zentzu komuneko irizpide hori kaleko gizakiari erabat ezkutatzen zaion arau bat da, zeinak pozkarioz jasaten baititu bere kalterakoak diren neurri protekzionistak. Edo, kudeaketa sozialista baten aldrebeskeriak ugariak direla ere, zalantzarik ez dago ez diola inori saririk ordainduko *ez* ekoiztera bultzatzeko helburu agerikoarekin. Ez, inork ezingo ditu zigorgabe absurdoak enuntziatu aurrezkiaren arriskuei buruz. Politika ekonomikoa askoz ikuspuntu orokorrago batetik arrazionalizatuko da eta xahuketa-iturburu txarretako batzuk ekidingo dira begi-bistakoa gertatuko zaiolako besterik gabe kamarada bakoitzari praktikan jarritako neurri eta prozeduren esanahi ekonomikoa. Besteak beste, kamarada bakoitzak egiaztatuko du lanean diziplina-ezak eta bereziki grebek duten egiazko esanahia. Ez dio axola apurrenik ere hori dela-eta *ex post facto* kapitalista aldiro grebak gaitzestea, baldin eta grebak «orain» nazioaren ongizatearen aurkako eraso antisozialak baizik izango ez liratekeen ondoriora iristen bada. Baina, guztiarekin ere, greba egingo balu kontzientzia txarrarekin egingo luke eta gaitzespen publikoa bereganatuko luke. Jadantik ez legoke, zentzu oneko burgesik, sexu bateko zein bestekorik, grebalariei eta greba-sustatzaileei txalo jotzea oso zirrargarri dela uste izango lukeenik.

V Diziplina Autoritarioa Sozialismoan; Errusiako Irakaspena

Bi gertakari horiek pentsarazten digute, gertatzen diren neurrian, gizarte sozialista batean autodiziplina eta talde-diziplina gehiago egon litekeela, eta, ondorioz, trabapeko kapitalismo-gizartean baino diziplina autoritarioaren premia gutxiago. Halaber iradokitzen dute diziplinaren hertsapena ere errazagoa izango dela agintarientzat, ezarri behar den bakoitzean⁸. Baieztapen hori egiteko ditudan arrazoiak eman baino lehen, gizarte sozialistak ezingo duela diziplina autoritarioa baztertu pentsaraztera, nire ustez, bultzatzen dutenak eman behar ditut.

Lehenik, autodiziplina eta talde-diziplina, hedadura ohargarri batean gutxienez, aurreko trebakuntza, segur aski arbasoengandiko baten emaitza diren heinean, iraungitzera iritsiko dira baldin eta trebakuntza hori denbora-epe behar bezain luze batez eteten bada, erabat alde batera utzirik ordena sozialistak eskaintzen duen ala ez arrazoi gehigarririk behar den portaera mota iraunarazteko, kontsiderazio arrazionalei edo norbanakoen edo taldeen atxikimendu moralari dei eginez. Arrazoi horiek eta berorien onarpena faktore garrantzitsuak dira hezkuntza horri eta santzio-sistema bati men egitera jendea bultzatzeko ezaugarri propioak destolesteko haiek gaitzera bainoago. Aspektu honek garrantzi handiagoa hartzen du baldin eta kontsideratzen badugu diziplina eguneroko bizitzako errutinan, suhertasunak aureolatu gabea, xehetasun batzuetan, denetan ez bada ere, higuin-garria den horretan aztertzen ari garela, eta ordena sozialistak zer-bait, dena ez esatearren, kenduko duela bizirik irautearen zioaren presioa, zeinak motibatzen baitu autodiziplina neurri handian gizarte kapitalistan.

Bigarrenik, etengabe langile normala gaitzeko premiarekin estuki erlazonaturik, prestazio infranormala burutzen duen langilearen gaitasuna estimulatzearen premia dago. Esamolde hori ez da kasu patologiko bakartuei buruzkoa, baizik marjina zabal bati, agian biztanleriaren ehuneko 25i buruzkoa. Prestazio azpinormaleko gaitasuna akats moral edo nahimenezkoen ondoriozkoa den heinean erabat irreala da gaitz sozial hori kapitalismoarekin desagertzea. Gizadiaren arazo handia eta etsai handia den gizaki azpinormalak existitzen iraungo du gure artean orain existitzen den bezala. Nekez konpon daiteke talde-diziplinaren bidez *beste laguntzarik gabe*, nahiz eta, natu-

rala denez, diziplina autoritarioaren mekanismoa eraiki daitekeen funtzionatzeko eran, parte batean behintzat, azpinormala osagai duen taldearen bitartez.

Hirugarrenik, nahiz eta espero izatekoa den parte batean desagertzea ondoez sozialaren interes profesionala, ez dago arrazoirik erabat desagertuko dela sinesteko. Ondoezari eragiteak eta makineriaren gupil artean zotzak sartzeak oraindik ere karrera bat izango da edota karrera baterako bidezidorra; orain bezala gero ere idealisten eta egoista atsekabetuen erreakzio naturala izango dira beren posizioaren edo gauzen egoera orokorraren aurrean. Gainera, gizarte sozialista batean gauza ugariengatik borrokatu beharko da. Hitz batean, kontrobertsiarako iturburu handi guztien artetik bakarra baizik ez da kenduko. Tokian tokiko interesen —geografiko eta industrialen— bizi-rik iraute zatikoaren egiantz begi-bistakoa alde batera utzirik, iritzi-talkak gerta daitezke, adibidez, etorkizuneko belaunaldien ongizatearen aurrean berehalako gozatzeari eman behar zaion garrantzi erlatiboaz, eta azkenekoaren kausa defendatzen duen kudeaketa bat oso litekeena da ez-ulertzezko jarrera baten aurrean aurkitzea, zeina ez bailitzateke erabat desberdina izango langileek eta publikoak orokorrean gaur egun enpresa handiaren eta horren metaketa-politikarekiko duten jarrerarekin erkatuta. Azkenik baina ez garrantzi gutxiago duelako, sozialismoaren zehaztugabetasun kulturari buruz esan dena gogora ekarriz, konturatu behar dugu bizitza nazionaleko arazo nagusietako asko soluziorik gabe geratuko direla beti bezala eta arrazoi gutxi dagoela gizakiak haiengatik borrokatzeari utziko diola espero izateko.

Alabaina, kudeaketa sozialistaren gaitasuna preatzeko, hiru aspektu horietan sor daitezkeen zailtasunekin guduan aritzeko, kontuan izan behar dugu konparaketa gaur eguneko kapitalismoarekin egin behar dela edo desintegrazio-estadio aurreratuago batean funtzionatzea espero daitekeen kapitalismoarekin. Enpresa banakoaren baitan mendekotasun eztabaidagabearen garrantzia, Jeremy Benthamen garaietatik ekonomialari askok batere kontuan hartu gabe eduki dutena eztabaidatzen ari ginela⁹, bilakaera kapitalistak bere oinarri sozio-psikologikoei azpia jatera jotzen duela ikusi genuen. Ordenak obeditzeko langilearen prestutasuna ez da inoiz izan gizarte kapitalistaren bertutez arrazionalki konbentziturik zegoelako, ez eta

jarrera horrek pertsonalki ematen dizkion abantailak arrazionalki hautematen dituelako ere. Nagusi burgesaren aurreko feudalak ezarritako diziplinarengatik zen. Proletalgoak nagusi horri transferitu zion errespetuaren parte bat –inola ere ez osoa–, zeina arbasoek erakusten baitzieten kasu normal guztietan beren jaun feudalei, zeinen ondorengoei ere nahiko erraztu baitzuten burgesiaren zeregina agintaritza politikoan irautean historia kapitalistako parterik handienera.

Estratu babeslea borrokatzean, esfera politikoan berdintasuna onartzean, langileei beste edozeinek adinako balioko hiritarrak zirela irakastea, burgesiak sakrifikatu egin du eraentza feudaletik hereditario abantaila hura. Denbora batez nahiko autoritatek iraun zuen lantegiko diziplina deuseztuko zuen aldaketa mailakatu baina etengabea mozorrotzeko. Orain desagertu egin da ia dena. Desagertu egin dira diziplinari eusteko bitarteko gehienak eta, areago oraindik, horiek erabiltzeko aukera. Desagertu egin da diziplinarekiko arau-hausketak erreprimitzen zituen ugazabari komunitateak eman ohi zion laguntza morala. Azkenik, desagertu egin da gobernuak erakundeen antzinako jarrera, parte handi batean laguntza hori desagertzearen ondorioz; urratsez urrats aztarna dezakegu ugazaba gerizatzen zen garaietatik bere neutraltasun-jarrerarainoko bidea, eta neutraltasun-*nuances* desberdinetatik igaro ondoren, langilea gainerako parteekin berdinez berdineko bat bezala kontsideratu izatearen haren eskubidea defendatzeraino, eta, hortik, sindikatua gerizatzeraino nola ugazaben aurrean hala langile banakoen aurrean¹⁰. Koadroa osatzen du soldatapeko goienplegatuen jarrerak, zeinak, interes publikoaren alde borrokan ari direla esango balute, ez luketela suminik eragingo, baizik barre eragingo luketela jakinik, ondorio batera iristen baitira: atseginagoa dela progresibitatearengatik zorionak jasotzea –edo oporrak hartzea– gaizki-esaka aritzea edo inork betebehartzat onartzen ez dion zerbait egitearen arriskuan erortzea baino.

Gauzen egoera hau kontsideratuz ez daukagu horren baitan dauden joerak etorkizun oso urrunera proiektatu beharrik egoera batzuk irudikatzeke, zeinetan *diziplina soziala berrezartzeko bitarteko bakarra sozialismoa izango bailitzateke*. Baina begi-bistakoa da, edozein kasutan, kudeaketa sozialistak zentzu horretan ekarriko lituzkeen abantailak nahiko ohargarriak direla ekoizpen-errendimentuen balantzan pisu astuna izateko.

Lehenik, kudeaketa sozialistak diziiplina autoritarioko askoz tresna gehiago edukiko ditu bere eskuetan kudeaketa kapitalistak inoiz eduki ahal izan dituenak baino. Kargugabetze-mehatxua da praktikoki geratzen zaion diziiplina-tresna bakarra –berdin sozialek ituntzen eta arrazionalki deusezten duten kontratuaz Benthamek zuen ideiaren arabera–, eta tresna horren kirtena bera halako eraz taxuturik dago, non erabiltzen saiatzen denaren eskua ebakitzen baitu. Baina kudeaketa sozialistaren kargugabetze-mehatxua langile setatiari sostengua kentzearen mehatxua adieraz dezake, beste ezein enpleguz segurtatzerik ez duelarik. Gainera, gaur eguneko gizarte kapitalistan, oro har, kargugabetzearen edo ezerezearen artean tarteko terminorik ez dagoelarik –zeren iritzi publikoak printzipioz gaitzesten baitu kontratu baten parte batek beste partea diziiplina dezakeen ideia bera– kudeaketa sozialistak aplikatu egin dezake mehatxu hori arrazionala deritzon edozein gradutan, baita beste zigor batzuk aplikatu ere. Hain drastikoak ez diren horietako batzuen artean kudeaketa kapitalistak bere autoritate moralaren gabeziak erabili ezin dituen batzuk daude. Baina giro sozial berri batean, admonizio hutsak orain, noski, ezingo lukeen eraginkortasuna izan dezake.

Bigarrenik, kudeaketa sozialistari askoz errazago gertatuko zaio bere eskura dituen diziiplina autoritariozko edozein tresna. Ez du izango tartean jarriko zaion gobernurik. Intelektualak talde gisa jadanik ez dira etsaikorrak izango, eta haietako halakoren edo bestelakoren etsaikortasuna, indibidualki, bere arau propioetan berriro sinetsiko duen gizarte batek galgatu egingo du. Horrelako gizartea bereziki irmo agertuko da gazteria gidatzen. Eta, berriz esateko, iritzi publikoak ez ditu gehiago berak erdi-kriminaltzat dauzkan jarduerak jasango. Greba mutina izango litzateke.

Hirugarrenik, talde gidariak amaigabeki askoz arrazoi gehiago izango ditu enpresako kudeatzaileak bermatzeko demokrazia kapitalista batean gobernua baino. Gaur egun gobernuek enpresekiko duten jarrera bizitza politikoan oposizioarekin asoziatzen dugun jarreraren antzekoa da: kritikoa, paralizatzailea eta funtsean erantzukizunik gabea da. Hori ezinezkoa litzateke sozialismoan horrela izatea. Ekoizpen-ministerioa izango da sistemaren funtzionamenduaren arduraduna. Ardura hori, jakina, politikoa bakarrik izango litzateke eta oratoria on batek bekatu asko estali ahal izango litzuke segur aski.

Hala ere, gobernu batek enpresen aurkako jarrera hartzeko izan dezakeen interesa derrigor ezabatu beharko da, eta bere arrakasta lortzera jotzeko zio ahaltsu batek ordeztu beharko du. Beharrian ekonomikoak ez lirateke barre egiteko gaiak izango. Lana geldiarazi eta jendea bere lanaren kontra jartzea gobernuari erasotzea adinaxe izango litzaiteke. Eta arrazoiz espero daiteke berak horren aurka erreakzionatzea.

Baina hemen, aurrezkiaren kasuan bezala, errusiar esperientzia orokortzearen aurka zuzen daitezkeen objekzio desberdinek ezin diote kalte egin bere irakatsien balioari gai batean, zeinean gizarte sozialista helduago batek edo normalera hurbilduago batek ez bailituzke aurkeztuko zailtasun gehiago, gutxiago baizik. Aitzitik, nekez espero dezakegu aurreko argudioaren puntu nagusien ilustrazio hoberik.

1917ko Iraultza boltxebikeak Errusiako proletalgo industrial oso kontzentratu baina urriaren desantolakuntza osatu zuen. Masek erabat galdu zuten kontrola eta gauzen ordena berriaz zuten kontzepzioa ekintzaratu zuten greba ugariren bitartez, jaialdiak egingo baliutze bezala, eta lantegiez jabetuz¹¹. Langile-kontseiluen edo sindikatuen bidezko lantegien gidaritza arrunt bihurtu zen, eta gidari askok eztabaida ezinezko zerbait bezala hartu zuten. Zaila izan zen ingeniariari eta Kontseilu Gorenari 1918aren hasieran lortu zen konpromiso baten bidez gutxienezko eragina segurtatzea, zeinaren funtzionamendu erabat atsekabezkoa izan baitzen 1921ean Politika Ekonomiko Berria (P.E.B.) ezartzeko zio nagusietako bat. Sindikatuak orduan berriro erori ziren denboraldi batean traba handien peko kapitalismoan nolabait ageri direnen antzeko funtzio eta jarreretan. Baina lehen Bosturteko Planak (1928) aldatu egin zuen hori guztia; 1932an proletalgo industrialak ordurako azken tsarren azpian baino diziplinatuago zegoen. Nahiz eta boltxebikeek porrot ugari izan bazituzten ere beste gauza batzuetan, horri dagokionez harrezkero arrakasta bortitza izan zuten zalantzarik gabe. Emaita horretara iristeko erabili zuten prozedura oso irakasgarria da.

Ez zuten sindikaturik ezabatu. Aitzitik, gobernuak faboratu egin zituen; kideen kopurua jauzika ugaltu zen, eta 1932 ia 17 milioi zeuden. Baina talde-interesaren eta diziiplina eta errendimendurako eragozpenaren adierazgarri izatetik interes sozialen adierazgarri eta diziiplina eta errendimendurako tresna bihurtu ziren, sindikatuak herrialde kapitalistetan errepresentatzen duten jarreraz hain bestela-

koa lortuz, non Mendebaleko langile-ordezkaritza batzuek uko egin baitzioten sindikatu propioki deitutzat inondik ere haiek berrezagutzeari. Industrializazio-erritmo agurotuak berekin dituen gabeziei ez zaizkie jadanik kontrajartzen. Gogo onez onartu zuten laneguna saritze gehigarririk gabe luzatzea. Soldata-berdintasunaren printzipioari uko egin eta sari-sistema bat eta ahaleginarengatik pizgarrien beste bat aldarrikatu zuten: stakhanovismoa eta antzeko beste sistema batzuk. Aitortu egin zuten lantegiko zuzendariak zuen eskubidea nahierara langileak kanporatzeko edo hartara etsitu ziren, «bileramania demokratikoa» frustratu zuten, hau da, hartutako ordenak eztabaizatzeko langileek zuten praktikak eta onartu arte ez egikaritzea, eta, «kamaraden auzitegi» eta «depurazio-batzorde»ekiko lankidetzan, neurri aski zorrotzak hartu zituzten nagien eta azpinormalen aurka. Sekula gehiago ez zen greba-eskubidearen aipamenik entzun ezta ekoizpena esku hartzearenik ere.

Alabaina, ideologikoki ez zegoen horretarako inolako zailtasunik. Barre eragiten digu terminologia bitxi hark, zeinak Marxen teoriaren kontrakotzat eta kontrairaultzailetzat etiketatzen baitzuen erabat bat ez zetorrena gobernuaren interesarekin lanekuaren erabilpen betean. Baina, izatez, ez dago ezer antisozialistarik jarrera horretan; erabat logikotzat baizik ezin daiteke kontsidera, klase-borroka desagertzearekin batera, butxatze-praktikak ere desagertzea eta hitzarmen kolektiboen izaera aldatzea. Huts egiten dute kritikariek sistemak garatu ahal izan zuen autodiziplinaren eta talde-diziplinaren kantitateari jaramonik ez egitean, eta zeinak berresten baitu osoki auzi horri buruz geure baitan eratu ditugun itxaropenak. Aldi berean akats txikiagoa da diziplina mota autoritarioak gaur egungo prestazioan izan duen zeregina kontuan ez hartzea, zeinak laguntza ahaltsutzat eta ez osagarri ahal gutxiakotzat balio baitie beste diziplina motei.

Sindikatu singularrak, baita haien organo zentrala, Kontseilu Nagusia, gobernuaren eta alderdi komunistaren interbentziopean jarri izan dira. Azken horretan langile-oposizio izendatu ohi zena ezabatua izan da, eta langileen interes berezien existentzia berrezagutzen irauten zuten gidari langileak beren postuetatik bereiziak izan dira. Horrela, 1921eko gobernuaren berrantolakuntzatik, eta segurtasun handiagoarekin 1929tik aurrera, sindikatuak ia ez dira egon talde gobernatzailearen nahien aurka joan zitekeen ezer esan edo egiteko

egoeran. Diziiplina autoritarioaren organo bihurtu dira –eta gertakari horrek ongi argitzen du lehenago aurkezturiko argudio bat.

Langile modernoaren bere lanarekiko jarrera osasungaitza mendeen daukaten eraginengatikoa den neurrian, esentziala da berriz ere behatzea zeinen alde eskerga dagoen betebeharraren eta harrotasunaren sentimenduaz etengabe hura pertsuaditzen egon behar izatearen bere prestazioarengatik, etengabe hartaz disuaditzen egon behar izan ordez. Errusiar estatua, estatu kapitalista ez bezala, irakaskuntza eta gazteriarren gidaritza bere helburu eta ideia estrukturaletara moldatzea exigitzeko egoeran egoteak neurgabeki gehitzen du lantegiko diziplinaren aldeko giro bat sortzeko bere gaitasuna. Intelektualak ez daude, bistakoa denez, horretan tartekatzeko askatasunean. Eta ez dago iritzi barkaberarik arau horien hausketentzat.

Azkenik, gabezia esan nahi duen kargugabetzea; deportazioaren sinonimo diren lekualdaketak; talkako brigaden «bisitak» eta zenbaitetan Armada Gorriko kamaradenak, zeinahi delarik ere horien eraikuntza legala, ia bitarteko independenteak dira gobernuaren eskuetan bere jarduera babesteko. Izan da ziorik horiek erabiltzeko, eta mundu guztiak onartzen duenez, malgutasunik gabe erabili dira. Inolako enplegatzaile kapitalistak ezartzea pentsatu ere egingo ez lituzkeen zigorrak, nahiz eta horretarako ahala izan, mehatxuka ari dira goibelki neurri psikotekniko bigunenen atzetik.

Hala ere, politika diziplinarioaren aspektu ilun horiek ez dira esentzialak gure argudiorako. Ez dago ezer ilunik nik argitu nahi dudana horretan. Norbanakoen eta talde osoen aurkako krudelkeriak neurri handia batean egoeraren heldugabetasunari, herrialdearen inguruabarrei eta haren pertsonal agintariaren izaerari egotz lekizkieke. Beste inguruabar batzuetan, beste garapen-estadio batzuetan eta beste pertsonal agintari batekin ez lirateke beharrezko izango. Inolako zigorrak ezarri beharrik ez balego, gauzak askoz hobeki joango lirateke. Puntu esentziala da, gutxienez, eraentza sozialista efektiboki bultzatu ahala izan duela talde-diziiplina eta diziiplina autoritarioa ezarri. Printzipioak axola du, eta ez praktikara eramateko erabili diren era partikularrek.

Horrela, bada, oinarritzko planen meritu edo desmerituak alde batera utzirik ere, trabapeko kapitalismoarekiko erkaketa ez da desfa-

boragarri gertatzen alternatiba sozialistarentzat. Berriro nabarmendu behar da ahalasunez bakarrik hitz egin dugula, nahiz eta oinarritzko planaren gure eztabaidarako muntaduna zenaz bestelako zentzu batean. Ziurtasun edota gertakortasun praktikoa bihurtzeko hipotesi asko beharko lirateke, eta, zalantzarik gabe, era berean legitimoa litzateke emaitza desberdinak sortuko lituzketen beste hipotesi batzuk hartzea. Izatez, aski dugu suposatzea sozialismo idiliko izendatu dudana eratzten duten ideiak direla nagusi haren erabateko porrotaz, baita erridikuluaz ere konbentzitzeko. Hori ere ez litzateke izango emaitza ahalgarri makurrena. Erridikulua izateko bezain porrot agerikoak erremedioa izan lezake. Baina askoz makurragoa izango litzateke, baita egiantzekoagoa ere porrot ez hain erabatekoa, zeina sinetsaraziko bailitzaioke jendeari, psikoteknia politikoa erabiliz, arrakasta izan dela. Gainera, sistemaren oinarritzko planarekiko eta sistema informatzen duten printzipioekiko desbideratzeak ez dira, noski, gizarte merkantil batean baino gertakortasun gutxiagokoak, eta larriagoak gerta daitezke eta autozuzenketarako zailagoak. Baina irakurleak begiratu bat ematen badie beste behin gure argumentazioaren urratsei uste dut konbentzitu ahal izango dela kontsiderazio mota horietan bere erroak dituzten objekzioek ez diotela kalte egiten gure tesiari, edo, zehatzago esateko, ez direla *per se* sozialismoarentzako objekzioak, gure asmorako deskribatu dugunez, baizik eta sozialismo mota desberdinek aurkez ditzaketen ezaugarri karakteristikoentzat. Bakarrik ondorioztatzen da sozialismoaren alde borroka egiteak ez duela ezer zehazturik adierazten, ezik borroka horrek funtzionatzeko gai den sozialismo mota baten errepresentazioa parez pare ez badarama. Beste auzi bat da sozialismo hori eskuarki demokraziaz ulertzen dugunarekin bateragarria den ala ez.

XIX KAPITULUA

IGAROBIDEA

I Bi Arazo Desberdinen Bereizketa

Nire iritzian, mundu guztiak aitorturik dauka, eta batez ere sozialista ortodoxo guztiek, ordena kapitalistatik ordena sozialistara-

ko igarobideak *sui generis* arazoak sortuko dituela beti, nolanahikoak direla ere hori gertatuko den baldintzak. Baina espero izatekoak diren zailtasunen izaera eta larritasuna hain desberdinak dira, igarobidea egingo den bilakaera kapitalistako estadioaren arabera eta talde sozializatzailerak erabili ahal eta nahi izango dituen metodoen arabera, non komenigarria izango den bi eredu desberdin eraikitzea bi inguruabar multzo desberdin tipifikatzeko. Dispositibo hori hainbat errazagoa da aplikatzen, zeren begi-bistako lotura baitago noizkoa eta nolakoaren artean. Hala ere, bi kasuak kapitalismo erabat garatu eta «burdinezta-tu»arekiko erreferentzian tratatuko dira. Ez dut lekurik alferrik galdu nahi aurreko estadioek aurkeztzen dituzten ahaltsun edo ezintasunak kontsideratzen. Hori kontuan izanik sozializazio heldu eta sozializazio heldugabeko kasuak izendatuko ditugu.

II. ataleko argudio gehienak prozesu ekonomikoa bere burua sozializatzeko eta halaber giza arima sozializatzeko joera duelako Marxen tesian laburbil daitezke. Horrekin aditzera eman nahi dugu sozialismoaren antolakuntza merkantil, administratibo eta soziologikoen aurretiazko baldintzek gero eta neurri handiagoa betetzeko joera dutela. Irudika dezagun berriro etorkizunean susmatzen den gauzen egoera horren baitara aipaturiko joera proiektatzen bada. Bizitza ekonomikoa, nekazaritza-sektorea salbuetsirik, sozietate anonimo burokratizatuen kopuru txiki batek menderatzen du. Progresua baretu egin da, eta mekanizatu eta planifikatu bihurtu da. Interes-tasa zerorantz konbergitzen ari da ez denboraldi batez bakarrik, gobernuaren politikaren presiopean, baizik era iraunkorrean, inbertsiorako aukeren agortzez. Industrien jabetza eta zuzendaritza despertsionalizatu egin dira, hau da, jabetza akzio eta obligazioen jabetzan andeatu da, industria-zuzendariak funtzionario zibilenen antzeko aztura mentalak lortu dituzte. Zio eta arau kapitalistak ia erabat zimeldu dira. Horren ondorioa, hainbeste denboran zehar egindako eraentza sozialistarako igarobideari dagokionez, begi-bistakoa da. Baina badira aipatzea merezi duten bi puntu.

Lehenik, gizaki desberdinak –sozialista desberdinak ere bai– ez dira elkarrekin bat etorriko nola sozialismorako urratsa era asegarrian egiteko ustez lortu behar den bilakaera-mailaren prezazioan hala gizarteak, edozein garai jakinetan, bilakaera-estadio horrekiko efektiboki lortu duen hurbiltze-mailaren diagnosian. Iritzi-desberdintasun

horiek oso naturalak dira, zeren sozialismoranzko progresua, kapitalismoak bere baitakoa duena astiroa baitoa eta ez da pasatuko inoiz guztiz berrezagugarria den ezein trafiko-seinaletan gelditu gabe eta inolako zalantzarik gabe eta zehaztasunez noiz dagoen bidea zabalik erakutsi gabe. Iritzi-desberdintasun jatorrentzako tartea nabarmen zabaldu da arrakastarako beharrezkoak diren baldintzak guztiak derri-*gor pari passu* garatzen ez direlako gertakari gehigarriaz. Adibidez, argudio txalogarria izan liteke 1913an Estatu Batuetako egitura industrial, bere baitan kontsideratua, Alemaniako baino hurbilago zegoela «heldutasun»etik. Hala ere, inork gutxik jarriko du zalantzan, baldin eta bi herrialdeetan egin izan balitz esperimendua, arrakasta-aukerak amaigabeki handiagoak izango zirela alemaniarrentzat, estatuak zuku-*turik* eta munduak inoiz ikusi duen burokrazia hoberenak zuzendurik eta haien sindikatu bikainek diziplinaturik. Baina iritzi-desberdintasun zinezkoak alde batera utzirik –adiurre-desberdintasunez azalgarriak direnak haien baitan sartuta, zeinak baitira mediku era berean gaitu eta jatorren artean daudenak ebakuntza baten aholkagarritasunari buruz–, beti izango da susmo bat, sarritan ongiegi oinarritua, ezta baidako alde batek ez duela nahi eta ez inoiz onartuko ere egoeraren heldutasuna, zeren, izatez, ez baitu nahi sozialismoa, eta beste aldeak, oinarri idealistetatik etor daitezkeen arrazoiengatik edo ez, heldutasuna inguruabar guztietan suposatzen du, zeinahi direlarik ere horiek.

Bigarrenik, nahiz eta heldutasun zalantzagabeko egoera bat lortu dela suposatuz ere, igarobideak ekintza berezi bat eskatuko du oraindik eta arazo sail bat planteatuko du.

Prozesu kapitalistak sozialismorako taxutzen ditu gauzak eta arimak. Muturreko kasuan taxuera hori halako betetasunera eraman liteke, non azken pausoa formalitate bat besterik ez bailitzateke izango. Baina orduan ere ordena kapitalista ez litzateke berez ordena sozialista bihurtuko; azken pauso hori, hau da, komunitatearen bizi-lege gisa sozialismoa ofizialki hartzeak, adibidez, eraberrikuntza konstituzional baten erara gertatu beharko luke. Praktikan, hala ere, jendea ez da muturreko kasuaren zain egongo hura ezartzeko. Jendearentzat ez litzateke arrazionala ere izango horren zain egotea, zeren heldutasuna xede guztietarako eta efektu guztietarako aro batean, zeinean interes eta jarrera kapitalistak erabat ez baitira artean eza-batu egitura sozialaren bazter guztietatik eta zirrikitu guztietatik. Eta,

baldintza horietan, eraberrikuntza konstituzionalaren onarpena formalitate hutsa baino zerbait gehiago izango litzateke. Erresistentzia batzuk eta zailtasun batzuk gainditu beharko lirateke. Horiek kontsideratu aurretik sar dezagun beste bereizketa bat.

Oinarrian, gauzak eta arimak berez taxutzen dira automatikoki sozialismorako, hau da, inoren nahimenarekiko eta horretarako hartutako edozein neurrirekiko independenteki. Baina, beste gauza batzuen artean, prozesu horrek nahimen horiek ere sortzen ditu eta, ondorioz, neurri horiek: legeak, ekintza administratiboak eta abar. Neurri horien multzoak sozializazio-politikaren atal bat eratzen du, zeinak, beraz, pentsatu behar baita oraindik denboraldi luzea egin beharko duela, hamarkada asko edozein kasutan. Baina horren historia naturalki bi sailetan banatzen da, zeinak hartzearen eraentza sozialista ezartzeak eta antolatzeak bereizten baititu. Lege hori promulgatu baino lehen sozializazio-politika, –berdin dio nahita edo nahigabe den–, prestatzailea da; promulgazioaren ondoren, eratzailea. Lehen saila labur eztabaidatuko dugu kapitulu honen amaieran. Orain bigarrenean kontzentratuko gara.

II Heldutasun Egoerako Sozializazioa

Heldutasuneko sozializazioaren kasuan, «sozialismoaren promulgazioaren ondoko sozializazioak» bere lehen egiteko gisa aurre egin beharko dien zailtasunak ez dira gaindiezinak ez eta oso larriak ere. Heldutasunak inplikatzeko du erresistentzia ahula izango dela eta klase *guztien* parterik handienen lankidetzak lortuko dela, zeinaren sintoma izango baita hain zuzen ere eraberrikuntza konstituzionalaren bidez ezarpena burutu ahal izatearen ahalasuna, hau da, bitarteko baketsu baten bidez, lege-jarraipena eten gabe. *Ex hypothesi*, jendeak ulertu egingo du pauso horren izaera, eta atsegin ez duten gehienek ere *tolerari posse* bat emango diote. Inor ez da aztoratuko eta ez du sentituko inguruan mundua porrokatzen denik ere.

Horrela izanik ere, ez dago erabat bazterturik, jakina, iraultza bat gerta daitekeelakoa. Baina ez dago hori lehertuko den arrisku handirik. Erresistentzia antolatuaren erabateko edo ia erabatekoak ez du bakarrik, alde batetik, joera iraultzailerako, eta bestetik, kitzikadura bortxazkorako aukera murriztuko, baizik eta gizaki-talde eskarmentu-

dun eta arduratsu bat ere izango da, lema eskuetan hartzeko prest, diziplinari eutsi nahi eta ahal diotenak eta talka ahalik eta gehien biguntzeko metodo arrazionalak erabiliko dituztenak. Burokrazia publiko eta pribatu ongi gaituek, eta legezko autoritatea, zeinahi delarik ere, horren aginduei men egitera ohituek eta interes kapitalisten alde oso partzial ez direnek lagunduko diete.

Hasteko, sinpletu egingo ditugu ministerio edo bulego zentral berriak izango dituen igarobideko arazoak, horren arazo iraunkorrak sinpletu ditugun bezala, hau da, funtsean bakean utziko dituztela baserritarrak. Horrek ez luke fatala izan litekeen arrisku bat kenduko bakarrik, zeren inorengan ez baitago hain bizirik jabetzarekiko interesa nekazari edo baserritarren artean adina (nekazaritza-mundua ez dago toki guztietan nekazari *errusiarrez* eratua), baizik eta horrela autoritateak baldintzagabe bermatzea lortzen da, zeren inork ez baitie eskala handiko industriari eta interes bereziki kapitalistei nekazariak adinako gorrotorik. Halaber, espero daiteke bulegoak beste mota batzuetako gizaki txikiak ere adiskidetzeari; industria sozializatuen inguruan artisauek txikiari, denbora batez gutxienez, bere ofizioan lukroz lan egitea baimen lekiok, baita merkataritza txikizkari independenteari, gaur egun estanku-jabeak saltzen duen bezala saltzea, estatuko tabakoa eta horren produktuak monopolizaturik dauzkan herrialdeetan bezala. Eskalaren beste muturrean aintzakotzat hartu ahal izango lirateke gizakiaren interes pertsonalak, zeinaren lanak indibidualki balio baitu –esplotazio-buruarena, adibidez– aurrez adierazita ko norabidean mekanismo ekonomikoaren funtzionamenduan behar-topo larriak ekiditzeko. Ideal berdinzaleak drastikoki egikaritzeak, jakina, dena honda lezake.

Zer esan liteke interes kapitalistez? Garaien betetasunean, gorago esan denez, akzio eta obligazioen edukitzaileen interesekin erka ditzakegu *grosso modo*, azken horien artean sartuz hipoteka eta aseguru-polizen edukitzaileak. Eskritura Santua besterik ez dakien eta talde hori amaigabeki aberatsak diren alferren kopuru txikiaz osaturik dagoela uste duen sozialistarentzat harrigarria gerta liteke, heldutasunean, talde horrek hautesleriaren gehiengoa bere baitan hartzea, zeinek oso aldeotasun gutxirekin begiratuko bailieke bere tituluen konfiskazio-proposamenei, nahiz eta indibidualki oso txikiak izan. Baina ez dio axola eraentza sozialistak kalteordainarekin edo gabe desjabe-

tu ahal izateak edo behar izateak. Interesatzen zaigun bakarra da ez litzatekeela ekonomikoki beharrezkoa izango eta, konfiskazioa erabakitzen bazen, neurri hori komunitatearen erabaki libre bat izango litzatekeela, adibidez, hartuko lituzkeen printzipio etikokiko obediencia eta ez beste biderik ez dagoelako. Zeren obligazio eta hipotekengatik interesa ordaintzea, norbanakoaren jabetza diren heinean, gehi aseguruaren sarien ordainketa, gehi interesen ordainketa dibidendu ordez, antzinako akziodunei kalteordaina emateko bulego zentralak jaulkitako obligazioengatik –halako molde, non akziodun horiek beren boto-eskubidea galduko balute ere, oraindik errenta bat kontserbatuko luketen iraganeko dibidendu batez besteko arretaz zehaztuekiko gutxi gorabehera berdina–, ez litzateke karga jasanezina izango, dagozkien estatistikei begiratu bat emateak frogatuko duenez. Komunitate sozialistak aurrezki pribatuak erabiltzen jarraitzen duen neurrian politika ona izan liteke karga hori jasatea. Denboran mugatzea lor liteke, ordainketa horiek guztiak urteroko amortizagarri bihurtuz edo bestela errenta eta herentziaren gaineko zergen erabilpen egoikiaren bidez, zeinek horrela beren azken zerbitzua eman bailezakete betiko desagertu baino lehen.

Horrek uste dut nahiko ezaugarritzen duela «sozialismoa promulgatu eta ondoko sozializazioa»ren metodo egingarri bat, zeina, kontsideraturiko inguruabarretan, espero bailiteke igarobideko egitekoa era irmo, seguru eta lasaian burutzea, energia-galera eta balio kultura eta ekonomikoen kalte gutxienerako batekin. Eskala handiko *concernen* kudeaketak horretarako arrazoi espezifikoak leudekeen kasuan bakarrik izango lirateke ordeztuak. Baldin eta igarobide-unean artean sozializatu beharreko enpresen artean aurkituko balitz, mota pertsonaleko enpresak aurrena konpainia anonimo izatera eraldatuko lirateke eta gero besteak bezalaxe sozializatuko lirateke. Enpresa berriak sortzea debekaturik egongo litzateke, noski. Konpainiarteko harremanen egitura –*holdingena* bereziki– arrazionalizaturik legoke, hau da, eraginkortasun administratiboa faboratzen duten harremanetara murrizturik.

Banku guztiak banku zentralaren bulego sukurtsal bihurtuko lirateke, eta horrela ez lituzkete bakarrik kontserbatuko beren funtzio mekanikoetako batzuk –ia ezinbestez kontabilitate sozialaren parte bat, gutxienez, gomendatuko litzaieke–, baizik eta segur aski indus-

triaren kudeaketei buruzko aginpideen bat ere bai, zeina izan litekeen «kredituak» eman eta ukatzeko ahalmena; horrela izanez gero, banku zentralak independente iraun ahal izango luke ekoizpen-ministerioa-
rekiko berarekiko, eta ikuskaritza orokor gisako zerbait bihurtuko litzateke.

Horrela, bada, hasiera batean bulego zentrala astiro joanez eta gidaritza pixkanaka eta astinaldirik gabe hartuz, sistema ekonomiko-
ak errotzeko eta bere orientazioa aurkitzeko, eta, bitartean, igarobi-
deak berekin dituen arazo txikiagoak banan-banan konponduz joate-
ko astia izango luke. Hasieran ekoizpenaren doiketa gutxi beharko
lirateke, gehienera ere ekoizpen osoaren ehuneko 5 inguru. Zeren
ideia berdinzaleak nik suposatu dudana baino askoz indar handiagoz
baieztatzen ez badira, eskaeraren egitura ez litzateke esentzialki afek-
taturik geratuko. Gizakiak beste enplegu batera aldatzeak, adibidez,
abokatuak, begi-bistakoa denez, nolabait eskala handiagoa gertatuko
litzateke, zeren industria kapitalistan bai baitaude egiteko ekonomia
sozialistan beharrezko ez diren funtzioak. Baina horrek ere ez luke
zailtasun larriarik sortuko. Prestazio azpinormaleko ekoizpen-unitate-
ak kentzeak, ondoren ekoizpen-aukera hoberenetan kontzentratzeak,
lekutzearen arrazionalizazioak, baita berekin daraman biztanleriaren
birbanaketa intzidentalak, kontsumo- eta ekoizpen-erosgaiak mota
bakarrera murrizteak, eta abarrek sortzen dituzten arazorik larrienak
ez lirateke agertuko, eta edozein kasutan, ez lukete agertu beharrik,
harik eta sistemak bere aldaketa organikoaren digestioa egin eta poli-
ki-poliki antzinako bidetik aurrera joan arte. Gisa horretako sosialis-
motik espero liteke, absurdoan erori gabe, bere garaian burutuko
dituela bere oinarri-planaren baitan dauden prestazio garaiagoko
aukera guztiak.

III Heldugabetasun Egoerako Sozializazioa

1. Mota horretako prognosirik ez da posible bigarren kasuan,
hau da, sozialismoaren printzipioa heldugabetasunean hartzea. Kasu
hori ordena kapitalistatik ordena sozialistarako igarobide gisa defini
daiteke estatu kapitalistaren organo zentratez aginpidea eskuratzea
sozialistentzat ahalgarri egin den arao batean, nahiz eta gauzak eta
arimak, hala ere, oraindik prestatu gabe egon ordena sozialistarako.

Ez ditugu eztabaidatuko, berriz diot, egoera hain gutxi helduak, non arrakasta-itxaropena kimerikoa izango bailitzateke edozein pertsona zentzudunentzat eta zeinean boterea konkistatzeko ahalegina *putsch* erridikulua baizik ez bailitzateke izango. Horregatik ez dut argumentatuko heldugabetasuneko sozializazioak derrigor bukatu behar duenik erabateko ausiabantzan edo hortik sorturiko ordenak porrokatzera zuzendurik dagoenik. Gure egunotako trabapeko kapitalismoa kontsideratzen ari naiz oraindik, zeinarekiko erreferentzian, gutxiezez, arrazoiz planteatzea baitaiteke arazoa. Inguruabar horietan litekeena da beranduago edo goizago planteatu ere egitea. Epe luzeko egoera gero eta faboragarriagoa gertatzen da gurari sozialistentzat. Oraindik garrantzitsuagoa da epe laburrera egoerak gertatzea, -1918ko eta 1919ko egoera alemaniarra adibide ona da; batzuek 1932ko amerikar egoera seinalatuko lukete-, zeinetan estratu kapitalisten eta haien organoen paralisi tenporalak abagune tentagarriak eskainiko bailituzke.

2. Irakurlea aise ohar daiteke gauzen eta arimen prestakuntzagabezia edo heldugabetasun horrek esan nahi duenaz, orrialde bat lehenago zirrimarratu den egoera helduaren koadrora begirada itzuliz. Hala ere, ukitu banaka batzuk gehitu nahi dizkiot 1932an Estatu Batuek izan zuten kasu partikularrari.

Jarduera industrialeko aldi indartsu bat -nahiz eta ez izan anormala progresio-erritmoaren arabera- gertatu zen depresioaren aurretik, zeinaren bortxak berak testigatzen baitzuen «progresua»ren ondorioek beharrezko egin zituzten moldaeren zabalera. Progresu hori ez zen osatu, begi-bistan dagoenez, haren abar gidarietan; horretaz kontzientziaz aski da landako eta etxeko elektrifikazioaren abarrak, kimikaren berrikuntza guztiena eta eraikuntza-industriari zabaldutako aukera guztiak adieraztea.

Hortik iragarri ahal izango zen, inolako zalantzarik gabe, sozializazio burokratizatzaileak enpresa-energia, ekoizpen-efizientzia eta masen etorkizuneko ongizatearen galera ohargarria ekarriko zuela. Dibertigarria da egiaztatzea joera sozialistetako intelektualak publikoari, depresioaren historian, ezartzeko gai izan ziren iritzi orokorra, hain zuzen ere alderantzizkoa izan zela. Hori, hala ere, depresioak garaturiko psikologia sozialaren diagnosiaren alorrekoa areago da horren interpretazio ekonomikokoa baino.

Heldugabetasuna antolakuntza industrial eta merkantilean ere agertu zen. Artean ez zen bakarrik oso ohargarria enpresa txiki eta ertainen kopurua eta oso urrun zegoen perfektua izatetik elkarte sindikaletako haien elkarlana, eta abar, baizik eta enpresa handia bera, nahiz eta miresmen eta etsaikortasun handiaren objektu izan, izaera kritikoaz gabetua, ez zen behar adina aurreratu gure sozializazio-metodoa ezarpen erraz eta segurukoa gerta zedin. Eskala handiko enpresaren muga ezartzen badugu 50 milioi dolarreko aktiboa duten enpresetan, orduan negozio nazionalen guztizkoaren ehuneko 53,3 bakarrik zen konpainia anonimo handien jabetza, ehuneko 36,2 bakarrik baldin eta negozio finantzarioak eta elkarrekiko sorospentak baztertzen baditugu eta ehuneko 46,3 bakarrik lantegien abarrean¹. Baina sozietate anonimo txikiagoak ez ziren erraz jartzen, oro har, sozializazio-bidean, eta ez dago espero izaterik funtzionatzen jarraituko dutela gaur egun duten formapean. Hala ere, 10 milioi dolarreko mugaraino jaisten bagara, ehuneko 67,5, 52,7 eta 64,5 besterik ez dugu aurkituko oraindik hurrenez hurren. Hori bezala egituratutako erakunde batez «kargu egitea»ren ataza sinplea beldurgarria izango zatekeen. Hori funtzionarazi eta hobearaztearen ataza, oraindik beldurgarriagoa, burokrazia eskarmentatu gabearekin egin beharko zen eta laneku hain ez-perfektuki antolatuarekin eta, aldez, hain era badaezpadakoan zuzenduarekin, non segur aski eskuetatik ihes egingo zion.

Arimak gauzak baino oraindik gutxiago prestaturik zeuden. Depresioak eragindako barne-astinaldia gorabehera ez negozio-gizakiek bakarrik, baizik eta langile eta nekazarien parte oso handi batek pentsatzen eta sentitzen zuen ordena burgesaren terminoetan, eta zeukan errealki ezein alternatibaren kontzepzio argirik. Horientzat sozializazioaren kontzepzioa, baita askoz apalagoak ziren eraberrikuntzena ere oraindik «estra-amerikarra» zen. Ez zegoen alderdi sozialista efizienterik eta ez zitzaion ematen laguntza kuantitatiboki garrantzitsurik talde sozialista ofizialetako ezeini, konbikzio stalinistako komunisteri izan ezik. Nekazariei gaitzi zitzaien sozialismoa enpresa handia baino apur bat bakarrik gutxiago, oro har, eta burdinbideak, bereziki, nahiz eta nahiko lan egiten zen haiek konbentzitzeko. Sozializazioari emandako laguntza ahula izan balitz, eta, kasurik gehienetan zaratsuki interesatua, edo, aitzitik, epela, erresistentzia bortitza izango zatekeen. Berek egiten zutena inork ezin zuela berek bezain ongi egin

oneski sentitzen zutenen erresistentzia izango zatekeen, eta are gutxiago estatuak, eta sozializazioari erresistitzean, ez zirela ari beren interesen alde borrokan bakarrik, baita ongi komunaren alde ere, hau da, argi erabatekoaren alde eta iluntasun erabatekoaren aurka. Amerikar burgesia bere bizitasuna galtzen ari zen, baina ez zeukan erabat galdua. Kontzientzia argi batekin erresistituko zukeen eta bai asentimendua eta bai lankidetzaren errefusatzeko egoeran egongo zatekeen. Egoeraren sintometako bat izango zatekeen indarra erabiltzearen beharrez, ez norbanako bakartuen aurka, baizik talde eta klaseen aurka; bestea, printzipio sozialistaren onarpena eraberrikuntza konstituzional baten bidez, hau da, lege-jarraipena eten gabe: ordena berria iraultzaren bidez, odoltsua izatea ez izatea baino segur aski errazagoa izango zatekeen. Egoera heldugabe baten adibide partikular horrek kasu absurdoki etsipenduen kategorian sartzen delako objektuaren arriskupean dago. Hala ere, gure koadroak sozializazio heldugabe orok aurkezten dituen zertzelada nagusiak uztartu eta ilustratzen ditu eta balioko du, beraz, kasu orokorraren eztabaidaren xedeetarako.

Kasu hori da, jakina, sozialista ortodoxoek kontuan hartzen dutena, zeinetariko gehienak ez bailirateke gai izango Jurgi Santu proletarioak herensuge kapitalistari heriotza ikusgarria emateak duen liluragarritasuna baino ezer gutxiagorekin konformatzeko. Hala ere, ez diegu lehen ideologia burgesaren bizirik iraute dohakabe horregatik azterraldi bat emango abagune politikoa eta prestakuntza-gabezia ekonomikoa konbinatzetik datozen ondorioei, baizik eta gaur ulertzen den moduko sozializazio-ekintzaren arazo karakteristikoengatik, kasu horretan bakarrik sortzen baitira.

3. Demagun Populu Iraultzaileak –Iraultza Boltxebikean izendapen hori titulu ofizial gisako zerbait bihurtu zen Errege Txit Kristauarenaren antzera– gobernuaren bulego zentralak, alderdi ez-sozialistak, prentsa ez-sozialista, etab. konkistatu dituela eta bere giza-kiak ezarri dituela haietan. Bulego horietako pertsonalak, baita *concern* industrial eta komertzialetako pertsonalak ere, neurri batean gogoz kontrako lankidetzara herrestan eramana sentitzen da –*ex hypothesi*–, eta partez gidari langileek eta kafetegitik bulego horietara zalapartaka aldatu diren intelektualek ordeztuak ikusten dituzte beren buruak. Bulego zentral berriari bi gauza eman beharko dizkiogu: erresistentzia irekia iratetzeko eta gehiegikeriak erreprimitzeko bezain armada gorri

indartsua –sozializatu inprobisatuak bereziki², ezker-eskuin erasotuz bereizketarik gabe, eta behar beste zentzu nekazariak eta baserritarrak bakean uzteko lehenago esan dugunaren arabera. Ez dugu inolako hipotesirik egiten estratu gobernatzailea izan deneko kideei erreserbaturiko tratuan izango den arrazionaltasun- edo gizatasun-mailaz. Izatez, zail da kontzebitzen nola izan litekeen ahalgarri halako inguruabarretan krudelena ez litzatekeen tratua. Beren ekintza aurkariak eraso makur gisa bakarrik kontsideratuko dutela dakitenek eta Karl Liebknecht eta Rosa Luxemburgek izan zuten zoria jarraitzeko arriskuan daudela, laster joko dute bortxaren bideetatik, jatorrizko asmo ororen gainetik. Nekez izango dira beren aurkarien aurrean uzutasun kriminalarekin portatzeari uzteko gai, zeinak kriminal uzutzat joko baititu, oraindik antzinako ordena defendatzen dutenak direla edo alderdi ezkertiar berria osatzen dutenak direla, zeinak derrigor sortu behar baitu. Baina ez bortxak eta ez sadismoak ez ditu konponduko arazoak, hala ere. Zer egin behar du bulego zentralak, sabotajeaz keizteaz eta konspiratzaileak eta zakuratzaileak bukatzeko ahalmen gehigarriak eskatzeaz landa?

Lehenik egin behar dena inflazioa eragitea da. Bankuak konfiskatu eta konbinatu edo koordinatu egin behar dira altxortegiarekin, eta bulego zentralak edo ministerioak gordailuak eta banku-bileteak sortu behar ditu ahal den neurrian usadiozko metodoak erabiliz. Inflazioa saihestezina dela uste dut, zeren oraindik ez baitut aurkitu sozialistarik, eztabaidatzen ari garen kasuan, iraultza sozialistak prozesu ekonomikoa geldiarazi egingo lukeela ukatzen duenik, gutxienez denbora baterako, eta horren ondorioz altxortegia eta zentro finantzarioak, une batez, bitarteko likidotan urri ibiliko liratekeenik. «Errenta-unitate»en kontabilitateko eta kalkuluko sistema sozialista oraindik funtzionatzeko egoeran ez izatean, gobernuaren irtenbide bakarra izango litzateke Alemaniak Mundu Gerran eta ondoren edo Frantziak 1879ko iraultzakoan eta ondoren jarraitu zuen politikaren antzekoa egitea, nahiz eta kasu horietan jabetza pribatuaren metodoak eta gizarte merkantilaren metodoak ez hautsi nahi izateak ezarri inflazioa denboraldi ohargarri batean; hala ere, «iraultza sozialistaren biharamun»erako, artean ezer taxaturik egongo ez denerako, desberdintasun horrek garrantzirik ez duen.

Gehitu beharra dago, hala ere, beharrianaz gainera, gobernuak beste zio bat izango lukeela bide horretatik abiatzeko. Inflazioa

berez bitarteko bikaina da igarobideko zailtasun batzuk biguntzeko eta zatiko desjabetzea burutzeko. Lehenari dagokionez, begi-bistakoa da, adibidez, alokairuaren moneta-tasen igotze drastikoak balio-ko duela denboraldi batean suminaldi-leherketarik izan ez dadin ezinbestekoa izango litzatekeen alokairu errearen tasak jaisteagatik, denboraldi baterako gutxienez. Bigarrenari dagokionez, dirutan kredituak dituen titularrari inflazioak era zoragarriro sinplean kentzen dio jabetza. Bulego zentralak auzia erraztu ere egin dezake bere kabuz kapital errearen –lantegien, eta abarren– jabeei edozein kalteordain-zenbateko ordainduz, baldin eta horiek berandu baino lehen desbalioturik gelditzea erabakitzen badu aldi berean. Azkenik, ez da ahaztu behar inflazioak zartako gogorak emango lizkiekeela aldi batean zutik geratuko liratekeen bloke ekonomiko pribatuei. Izan ere, Leninek aditzera eman duenez, ezerk ez baitu inflazioak adina desantolatzen: «Gizarte burgesa deusezteko horren dirua galbideratu behar duzue».

4. Bigarrenik egin behar dena, jakina, sozializatzea da. Igarobideko arazoan eztabaida sozialistek beren artean izandako antzinako kontrobertsiatik abiatzen da –zehatzago esateko, sozialisten eta propioki gidari langile deitzen direnen artean– sozializazio erabatekoaz edo zatiko edo pixkanakako sozializazioaren aurreko kolpeaz. Sozialista askok pentsatzen dute, dirudienez, fedearen garbitasuna eta grazia sozialistaren eraginkortasunarekiko egiazko sinestea errespetarazteko, erabateko sozializazioa defendatu behar dutela inguruabar guztietan eta langilezale ahulak mespretxatu, zeinek puntu horretan beste askotan bezala, erantzukizunaren zentzuaren aztarna desagokietan trabaturik aurkitzen baitira. Baina nik egiazko fededunen aldeko botoa emango dut³. Ez dugu eztabaidatuko orain sistema kapitalista bateko igarobide-politika; hori beste arazo bat da, eta horretaz laster hitz egingo dugu kapitalismoaren markoaren barruko pixkanakako sozializazioa ez dela bakarrik ahalgarri, baita denik eta egingarriena ere. Hemen eztabaidatzen dugu zeharo bestelako igarobide-politika, zeinean jarraitu behar baita iraultza politikoaren bidez eraentza sozialista ezarri *eta gero*.

Kasu horretan, nahiz eta ezinbesteko gehiegikeria-minimoa besterik ez egon eta esku indartsu batek jarduera ordenatu samarra ezarri, zaila da irudikatzen etapa bat, zeinean sozializaturik egongo

diren industria handietako batzuk eta espero den aldi berean gainera-koek funtzionatzen jarraituko dutela, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Gobernu iraultzaile baten azpian, zeinak bizi beharko bailuke erantzukizun-gabeziako egunetan hedaturiko ideia batzuen arabera, gutxienez, primeran gerta liteke industria pribatu guztiek funtzionatzeari uztea. Ez dut pentsatzen enpresarioengandik eta interes kapitalistetatik espero litekeen butxatzean nagusiki. Horien boterea orain bapikaturik dago eta utzi egingo lioke existitzeari neurri handi batean komisarioaren begipean. Eta burgesiak ez du betebeharrak arruntak betetzeari uko egiteko ohiturarik; horiei atxikitzea da burgesiaren ohitura. Izango litzateke erresistentzia, baina esfera politikoko erresistentzia izango litzateke, eta lantegitik kanpoan haren barruko erresistentzia baino areago. Industria ez-sozializatuek utzi egingo liokete funtzionatzeari besterik gabe, zeren beren modu berezian funtzionatzea eragoztziko bailiekete –hori da industria kapitalistak funtzionatzeko duen modu bakarra– komisario gainbegiratzailleek, baita haien langileen eta publikoaren aldarteak ere.

Baina argudio horrek eskala handiko industriari eta eskala handiko enpresa-unitateetan erraz urtu daitezkeen sektoreetan bakarrik erabil daiteke. Ez da erabat aplikagarria sozializaziotik baztertu dugun nekazaritza-esferaren eta eskala handiko industrien artean dagoen eremu osoari. Kasu horretan, batez ere enpresa txiki eta ertainez osatua delarik, bulego zentralak segur aski bere komenientzien arabera maniobra lezake eta inguruabarren bilakaeraren arabera aurrera edo atzera egin. Hori oraindik sozializazio betea izango litzateke, guk esamoldeari ematen diogun zentzuan.

Oraindik puntu bat geratzen da gehitzeko. Garbi geratu beharko luke hain heldutasun gutxiko baldintzetan egindako sozializazioak, zeinak iraultza beharko bailuke ez bakarrik lege-jarraipena haustearen zentzuan, baizik eta izuikararen ondorengo agintaldiaren zentzuan ere bai, ezingo lioke inori mesede egin, ez epe laburrean eta ez epe luzean, gidatzen dutenei izan ezik. Iraultzaren alde suharrak sortu eta dena harengatik arriskuan jartzeko kemena gorestea agitatzaile profesionalaren betebeharrak gogorrenetako bat izan daiteke. Baina intelektual akademikoari dagokionez, haren baitan kreditatzeko moduko kemena kritikatzeko, zelatan jartzeko eta galgatze-ko kemena da.

IV Politika Sozialista Sozialismoa Aldarrikatu aurretik.

Adibide Ingelesa

Baina benetan ondorioztatu behar al dugu orain eta beste berrogeita hamar urtez sozialista serioek predikatu eta itxaron baizik ezin dutela egin? Tira, bere kideak eta iturburu gizatiarregi horri darizkion bere argudio guztiak –eta iseka guztiak– gorde nahi dituen alderdi batengandik espero litekeena baino gehiago gertakari hori izateak ezin du ezabatu ondorio horretarako argudio garrantzitsu bat dagoelako beste gertakaria. Are argudia liteke era guztiz logikoan sozialistek interesa dutela haientzat lan egiten duen garapena sustatzeko eta, ondorioz, kapitalismoa trabetatik askatzeko beste berri batzuk sortzeko baino areago.

Ez dut uste, hala ere, sozialistek zer eginik ez daukatenik, gutxienez gure garaiko baldintzetan. Nahiz eta orain sozialismoa nazio handi gehienetan eta txikietako askotan ezartzeko ahaleginek zalantzarik gabe emaitzatzat porrota izango luketen –behar bada ez sozialismoaren porrot bat bere horretan, baizik eta abenturaren arduradun liratekeen talde sozialisten porrota, aldi berean ohiko zentzuan derrigor sozialista ez den talde bat erraz jabetu ahal izango bailitzateke saio sozialistak porrot eginaz– eta nahiz eta, ondorioz, sozialismoa aldarrikatu eta gero sozializazio-politika bat, segur aski, auzi oso badaezpadakoa izan, aldarrikatu baino lehenagoko politikak arrakastarako aukera askoz hobeak eskaintzen ditu. Beste alderdiek bezala, baina helmugaren hautemate argiagoarekin, sozialistek esku har dezakete bertan azken arrakasta arriskuan jarri gabe. Auzi horri buruz nik esan beharreko guztia hobeki nabarmenduko da adibide berezi batez jantziz gero.

Gure adibideak erakustea nahi izan genitzakeen zertzelada guztiak Ingalaterra modernoak aurkezten ditu. Alde batetik, horren egitura industrial eta komertziala bistakoa denez ez dago helduta kolpe bakarreko sozializazio zorioneko baterako, batez ere enpresen gaineko domeinuaren kontzentrazioa ez baita behar bezain urrunera heldu. Ondorioz, ez kudeaketak, ez kapitalistak, ez langileak ez daude hori onartzeko prest; oraindik «indibidualismo» bizi, nahiko indartsu asko dago, edozein kasutan, erresistentzia eskaini eta lankidetzat ukatzeko. Bestetik, mendearen hasieratik, gutxi gorabehera, enpresaren

jardueraren ahultze nabaria gertatu da, zeinak, besteak beste, eman baitu emaitzatzat zuzendaritza estatala eta esku-sartze estatala, adibidez, energia elektrikoa ekoiztekoa bezalako abarretan, alderdi *guzziek* onartu ez ezik eskatu ere egin baitituzte. Baiezta daiteke, beste edozein kasutan baino arrazoi gehiagorekin, kapitalismo ingelesak askoz burutu duela bere egitekoaren parterik handiena. Gainera, populu ingelesa bere osotasunean estatismora oldartu da. Langile ingelesak ongi antolaturik daude eta, oro har, era arduratsuan gidaturik. Tatxarik gabeko maila kultura-al eta morala duen burokraziari fida lekiokie Estatuaren ekintza-esfera hedatzeko beharrezko diren elementu berriak asimilatzearen egitekoa. Politikari ingelesaren jatortasun paregabeak eta gaitasunean eta zibismoan bakarra den klase gidari bat izateak beste edozein tokitan gaindiezinak liratekeen zailtasunak lautu egingo lituzkete. Bereziki, talde nagusikoi horrek batu egiten ditu proportziorik harmoniatsuenetan, tradizio formalekiko errespetua eta printzipio, egoera eta pertsona berrienganako moldakortasun muturrekoa. Talde horrek gobernatu egin nahi du, baina erabat prestaturik dago interes aldakorren izenean gobernatzeko. Ingalaterra industrial Ingalaterra nekazaritzakoa bezalaxe gidatzen du; Ingalaterra protektionista Ingalaterra librekanbista bezalaxe. Eta talentu paregabea du ez bakarrik oposizioen programez jabetzeko, baita garunez ere. Disraeli asimilatu zuen, beste edozein tokitan Lassalle bat bihurtuko zatekeena. Beharrezkoa izan balitz, Trotski bera ere asimilatuko zukeen, edo areago, Prinkipo K.G. konde bihurtu.

Baldintza horietan kontzebigarria da sozializazio-politika bat, zeinak nazionalizazio-programa zabal bat burutzean, alde batetik, urrats handi bat egin bailezake sozialismorantz eta, bestetik, ahalgarri egingo bailuke ukitugabe eta perturbaziorik gabe uztea, denboraldi zehaztugabe batez, programa horretan sartu gabeko interes eta jarduerak guztiak. Horiek, izatez, orain eragozten dituzten traba eta karga, fiskal eta beste izaera batekoez aske egon litezke.

Jarduera ekonomikoaren ondorengo departamentuak sozializatuak izan daitezke eraginkortasun-galera seriorik gabe eta eragin larriarik gabe kudeaketa pribatuko eraentzan iraun behar duten departamentuetan. Kalteordainen auzia sozializazio helduaren gure eztabaidan iradokitako lerroen gainean ebatz liteke; errentaren eta herentziaren gaineko zerga-mota modernoekin hori ez litzateke arazo zaila.

Lehenik, Ingalaterrako banku-aparatua erabat heldurik dago, zalantzarik gabe, sozializazioarako. Ingalaterrako Bankua Altxortegiaren departamentu bat besterik ez da, eta horren independentzia, izatez, askoz txikiagoa da komunitate sozialista batek bere organo finantzarioako nahi izan lezakeenaren aldean. Banku merkantilean kontzentrazioak eta burokratizazioak badirudi erabat burutu dutela beren egitekoa. Kreditu-*concern* handiek oraindik badiraute banku independente guztiak hurruparaz litzakete eta gero horiek Ingalaterrako Bankuarekin bat egin Banku Administrazio Nazional batean, zeinak aurrezki-kutxak, eraikuntzarako kreditu-sozietateak eta abar, ere hurrupatu ahal izango bailituzke, bezero batek ere aldaketa hauteman gabe, bere egunkarian irakurri duelako izan ezik. Banku-zerbitzuen koordinazio arrazionalizatzaileak ekarritako onura funtsezkoa izan liteke. Ikuspuntu sozialistatik irabazia legoke Estatuak eragina gehitzean sektore ez-sozializatuaren gain, kredituaren interbentzioaren bitartez.

Bigarrenik, aseguru-negozioa aspaldidanik nazionalizazioarako hautagai da, eta hedadura handi batean jadanik mekanizaturik dago. Egingarria gerta daiteke aseguru sozialeko abarretakoren batekin, gutxienez, integratzea; polizen salmenta-kostuak nabarmen murriz litezke, eta, kasu horretan, sozialistek berriro zorionak eman beharko lizkiokete beren buruari aseguru-konpainien funtsekiko domeinuak estatuari ekarriko liokeen botere-gehitzearengatik.

Hirugarrenik, jende gutxi legoke prest zailtasun handiak jartzeko burdinbideen nazionalizazioari edo, are, garraio osoarenari. Izatez, barne-garraioa da alorrik egokiena zuzendaritza estatal arrakastatsurako.

Laugarrenik, meatzeen nazionalizazioak, batez ere ikatz-meatzetak eta ikatz-ekoizkinenak, alkitranetik hasi eta benzoleraino, baita ikatzaren eta bere azpiekoizkinen merkataritzak ere, eman lezakete emaitzatzat berehalako irabazia ere efizientzian eta arrakasta handiko gertatuko litzateke, langileen arazoak era asegarrian tratatzeko modurik izanez gero. Ikuspuntu tekniko eta komertzialetik kasuak argia dirudi. Baina era berean argia dirudi, enpresa pribatuak aktibo izaten jarraitzean industria kimikoan, ez legokeela konfiantza berarekin espero izaterik adierazitako mugaz haratago joateko saioak arrakasta bera izatea.

Bosgarrenik, argindarraren ekoizpena, transmisioa eta banaketaren nazionalizazioa funtsean osaturik egonik, epigrafe honen azpian

esateko geratzen dena industria elektroteknikoa adibide tipiko bat dela enpresa pribatutik oraindik espero litekeenarena, eta horrek erakusten du, ekonomikoki hitz eginez, zeinen zentzu urria duen sozializazio orokor bat aldarrikatzeak edo errefusatzeak. Baina energiaren ekoizpenaren kasuak industria sozialista bat mozkinarekin funtzionaraztearen zailtasuna ere erakusten du, zeina izango bailitzateke, hala ere, arrakasta-baldintza funtsezkoa baldin eta estatuak hurrupatu behar badu nazioaren bizitza ekonomikoaren atal hain handia eta estatu modernoaren zeregin guztiak betetzen jarraitu.

Seigarrenik, burdina eta altzairuaren industriaren sozializazioa proposamen askoz polemikoago gisa sentituko da orain arte egin diren guztien aldean. Baina industria hori dagoeneko iritsi da helduarora eta hemendik aurrera «administratua» izan daiteke, bere barnean hartuz, noski, administrazio horrek zabalki zuzkituriko ikerketa-zerbitzu bat. Abantailaren batzuk lor daitezke koordinaziotik, eta enpresarioen bulkaden fruituak sakrifikatzearen arriskua ez litzateke handiegia izango.

Zazpigarrenik, gaian arkitektoen partaidetzaren salbueste ahalgarriarekin, eraikuntza era eraikuntza-materialen industriak, nire irriziz, arrakastarekin ustia litzake erakunde publiko egoki batek. Hainbeste dago industria horietan arautua, subentzionatua eta era batera edo bestera esku hartua, non efizientzia irabazia ere egon daitekeen, agian behar dena baino handiagoa ireki litzakeen galera-iturriak konpentsatzeko.

Hori ez da derrigor guztia. Baina nazionalizazio-programa horretaz haratago emandako pauso oro arrazoi bereziez, gehienbat ekonomikoez justifikatu beharko litzateke, adibide ahalgarriak izaki: armamentu-industriak edo industria gakoak, zinematografoa, ontzigintza, jakien merkataritza. Edozein kasutan, zazpi talde horiek behar beste digerituak izan baino lehen, denbora luze samarra igaroko da, eta zama astun hori azken onera eramateaz arduraturiko sozialista orok, hainbeste egiten badu, bedeinkatu egin beharko luke bere obra, eta onartu arrazoiz egin beharko liratekeen kontzesioak aldi berean sektore ez-nazionalizatuan. Lurra ere nazionalizatzeari ekingo balio –nekazariaren egoera dagoen bezala utziz, uste dut–, hau da, lur-errenta eta royaltietatik oraindik dirauena estatuari transferitzeari, ekonomialari gisa ez daukat objekziorik egin beharrik⁴.

Egungo gerrak aldatu egingo ditu, jakina, gure arazoaren datu sozial, politiko eta ekonomikoak. Ahalgarri bihurtuko dira gauza asko eta ezinezko lehen ez ziren beste asko. Liburu honen bukaeran auziaren aspektu horretaz arituko dira zenbait orrialde. Baina funtsezkoa deritzot, pentsamendu politikoaren argitasuna dela-eta, arazoa gerraren efektuekiko independente kontsideratzea. Bestela ezin da nabarmendu bere izaera behar bezala. Beraz, kapitulu hau, nola eran hala edukian, 1938ko udan idatzi nuen bezalaxe uzten dut.

IV ATALA

SOZIALISMOA

ETA DEMOKRAZIA

XX KAPITULUA

ARAZOAREN PLANTEAMENDUA

I Proletalgoaren Diktadura

Ezer ez dago begi-bistako dena bezain engainagarriagorik. Azken hogeï edo hogeïta bost urteotako jazoerek atal honen izenburuaren atzean ezkutaturik dagoen arazoa ikusten irakatsi digute. 1916 arte, gutxi gorabehera, sozialismoaren eta demokraziaren arteko erlazioak erabat begi-bistakoa irudituko zitzaion jende gehienari, eta, inori baino gehiago, ortodoxia sozialistaren adierazle kreditatuei. Nekez otuko zitzaion inori klub demokratikoko kide gisara agertzeko sozialistek zuten uzia eztabaidatzea. Sozialistek berek, jakina –talde sindikalista banaka batzuk salbu–, egiazko demokrata bakarrak zirelakoan zeuden, benetako merkantziaren saltzaile bakarrak, faltsutze burgesarekin inoiz nahastu behar ez zena.

Ez zen bakarrik haiengan naturala beren sozialismoaren balioak demokraziaren balioen bidez azpimarratzea, baizik eta teoria bat ere bazuten eskaintzeko, zeinak frogatzen baitzuen haien pozerako bi gauzak ezin eztabaidatuzko eran loturik zeudela. Teoria horren arabera, ekoizpen-bideen domeinu pribatua da oinarria, bai klase kapitalistak langilea esplotatzeko duen gaitasunarena eta bai komunitatearen negozio politikoen zuzendaritzan bere klase-interesen diktatuak ezartzeko gaitasunarena; horrela klase kapitalistaren botere politikoa bere botere ekonomikoaren aspektu partikular gisa agertzen da besterik gabe. Ondorioak dira, alde batetik, botere ekonomiko hori dagoen bitartean ezin litekeela demokraziarik egon –hau da, demokrazia poli-

tiko hutsa, behartasunez, fikzioa dela–, eta, bestetik, botere hori ezabatzeak, aldi berean «gizakiak gizakia esplotatzearen» amaiera, eta «herriaren gobernuaren» hasiera markatuko dituela.

Argudio hori, jakina, esentzialki marxista da. Logikoki –izatez, tautologikoki– Marxen eskemako terminoen definizioetatik ondorioztatzen delako hain zuzen ere, azken horren zoria elkarbanatu beharko du eta, bereziki, «gizakiak gizakia esplotatzen» duelako teoriarena¹. Ondoren analisi bat eskaintzen da, nire iritziz errealistagoa, talde sozialisten eta kredo demokratikoaren arteko erlazioari buruz. Baina, halaber, beharrezko dugu sozialismoa eta demokraziaren beraien artean dagoen erlazioaren teoria errealistago bat, hau da, definitu dugun ordena sozialistaren eta gobernu demokratikoaren *modus operandi*-aren artean, kontsigna eta desirekiko independenteki, izan litekeen erlazioarena. Arazo hori konpontzeko, lehenik, demokraziaren esentzia ikertu behar dugu. Bada beste puntu bat, hala ere, berehalako argibidea behar duena.

Sozialismoa ezarriz gero demokraziaren egiazko ideala izan liteke. Baina sozialistak ez dira oso eskrupulutsuak hori ezartzeko moduari dagokionez. Iraultza eta Diktadura hitzak begien aurrez aurre dauzkagu testu sakratuetan, eta sozialista moderno askok esplizitukiago testigatu dute bortxa eta izuikararen bidez, zeinek eman behar baitiote laguntza konbertsio-bide demokratikoagoei, paradisu sozialistaren ateak behartzearen prozeduraren aurka ez dutela ezer objektatzekorik. Marxen beraren posizioa gai horri buruz zalantzarik gabe gai da interpretazio bat hartzeko, zeinak garbituko baitu demokraten begietarako. I. atalean agerian jarri zen nola adiskide daitezkeen iraultari eta bilakaerari buruzko haren iritziak. Iraultzak ez du esan nahi derrigor populu uzkur bati bere nahia ezartzeko gutxiengo baten saioa; esan nahi dezake, besterik gabe, eragozpenak ezabatzea, zeinak kontrajartzen baitizkiote populuaren nahiari instituzio gastatuek, horiek kontserbatzean interesaturiko taldeek dominatzen dituztenek. Proletalgoaren diktadurak antzeko interpretazio bat ahalbidetzen du. Tesi horren alde berriro seinala dezaket *Manifestu Komunistari* dagozkion pasarteen testua, zeinean Marxek hitz egiten baitu burgesiari gauzak «mailaka» erauzteaz eta klase-bereizkuntzak «bilakaeraren joairan» desagertzeaz; esaldi horiek, «bortxa»ren gain egiten duten hanpadura gorabehera, badirudi eskuarki ulertzen denez demo-

kraziaren esanahiaren barruan sar litekeen prozedura bat seinalatzen dutela².

Baina interpretazio horretarako prozedura, zeinak iraultza sozial sonatua eta sona gutxiagokoa ez den diktadura agitazio-apainkeriatara ia murrizten baitute entzuleriaren irudimena sutzeko asmoz, ez dira erabat erabakigarriak. Marxen dizipulu izan ziren sozialista asko eta halakotzat beren burua aitortzen zuten beste batzuk beste iritzi batekoak ziren. Egiako eskriba eta fariseuen autoritateari men eginenez, zeinek nik baino hobeki ezagutu behar baitute Legea, eta, *Neue Zeit* obraren liburukien irakurketan oinarrituriko inpresio bati jarraituta, Marxek, hautatu behar izan balu, prozedura demokratiko bat bete-tearen gainetik sozialismoa jarriko zukeela onartu beharra daukat.

Kasu horretan Marxek aitortuko zukeen, zalantzarik gabe, haren ondoren aitortu dutenez, ez zela desbideratzen, izatez, egiazko bidezidor demokratikotik, zeren egiazko demokraziari bizia emateko, beharrezkoa baita itoarazten duten kapitalismoaren lurrin pozoituak kentzea. Alabaina, demokraziaren sinestedunarentzat prozedura demokratikoa betetzearen garrantzia gehitu egiten da, bistakoa denez, eztabaidatzen den arazoaren garrantziaren arabera. Hortik hori betetzea inoiz ez da ardura gehiagoz zaindu behar, ez eta arreta gehiagoz gorde ere eskura dauden berme guztiez, gizartearen oinarritzko berreraikuntzaren kasuan baino. Eskakizun horiek erlaxatzeko prest dagoenak eta prozedura ez-demokratiko bat ageriki onartzeko, edo bestela erabaki formalki demokratikoak lortzeko metodo bat bitarteko ez-demokratikoez, horrekin erakusten du, modu erabakigarrian, beste gauza batzuei demokraziari baino balio handiagoa ematen diela. Demokrata integralak horrela burututiko berreraikuntza oro bere erroretan biziatutzat kontsideratuko du, nahiz eta asko onartu beste alor batzuetan. On eta distiratsutzat jotzen den, baina populuak nahi ez duen zerbait onartzera populua behartzen saiatzea –nahiz eta espero daitekeen atsegin izango duela emaitzak esperimentatzean–, fede anti-demokratikoaren zantzu zalantzagabea da. Kasuistari dagokio erabakitzea salbuespenik egin daitekeen ekintza ez-demokratikoekin, zeinak egiten baitira egiazko demokrazia burutzeko asmo *bakarrarekin*, baldin eta hori lortzeko bide bakarra baldin bada. Bada, salbuespen hori onartuta ere, ez da sozialismoaren kasuan aplikagarria, zeina, ikusi dugunez, egingarria izan bailiteke bide demokratikoz, hain

zuzen ere esperientziak arrakasta izango duela espero daitekeen une beretik.

Hala ere, begi-bistakoa da, edozein kasutan, igarobide garaian demokrazia kentzearen aldeko argudio orok aitzakia bikaina eskuratzeko duela horrekiko erantzukizun orori ihes egiteko. Behin-behineko antolakuntza horiek oso ongi iraun dezakete mende bat edo gehiago, eta iraultza garaile baten bidez boterean instalaturiko talde gobernatzaileak baditu bitartekoak edukiz hustutako demokraziaren formak amaigabeki luzarazteko edo hartzeko.

II Alderdi Sozialisten Esperientzia

Alderdi sozialisten esperientziak behatu bezain laster, zalan-tzak sortzen dira ezinbestez hutsik egin gabe kredo demokratikoa aldeztu izan dutelako horien uziaren baliozkotasunaz.

Lehenik, bada komunitate sozialista handi bat gutxiengoan dagoen eta beste batentzat inolako aukerarik eskaintzen ez duen alderdi batek gobernatua. Eta alderdi horren ordezkariak, beren hamazortzigarren batzarrean bildurik, txostenak entzun eta eztabaida dei genezakeen zerbaiten antzeko ezer gabe aho batez ebazpenak onartu zituzten. Azkenean ebazpen bat bozkatu zuten, ofizialki baieztatzen denez, «populu errusiarrak (?) Lenin-Stalinen alderdiarekiko eta haren gidariarekiko eraspen baldintzagabearekin, gure garaiko dokumenturik sublimeenean, Stalin kamaradaren txostenean proiektaturiko obra handien programa onartzen duela, ezbairik gabe horiek burutzeko», eta «gure Alderdi Boltxebikeak, Stalin handiaren genioaren zuzendaritzapean, garapen-fase berri batean sartzen dela»³. Horrek, eta hautagaitza bakarreko hauteskundeen saio erakusle eta GPUren metodoez osatuek litekeena da, zalantzarik gabe, «munduko demokraziarik perfektuena» eratzea, esamolde horri zentzu egokia esleitzen bazaio; baina ez da amerikar gehienek horrekin zehazki ulertuko luketena.

Guztiarekin ere, komunitate hori komunitate sozialista da, bere esentzian eta bere printzipioetan gutxienez, eta gauza bera izan ziren Bavarian, eta batez ere Hungarian, gertatu ziren gisa horretako sorkari iraitzekoak ere. Alabaina, ez dago zalantzarik badirela talde sozialistak gaur arte kontsekuente dirautenak Estatu Batuetan ideal demo-

kratiko ulertzen direnekiko; horien artean daude, adibidez, sozialista ingeles gehienak, Belgika, Holanda eta herrialde eskandinaviarretako alderdi sozialistak, Mr. Norman Thomasek gidaturiko alderdi amerikarra eta erbesteko talde alemaniarak. Horien ikuspuntutik, baita behatzailearen ikuspuntutik ere, tentagarria da ukatzea sistema errusiarrak «egiazko» sozialismo bat eratzen duela eta ikuspuntu demokratikotik, gutxienez, aberrazioa dela sostengatzea. Baina zer esan nahi du «egiazko» sozialismoak, nahiago dugun «sozialismoa» izan ezik? Zer esan nahi dute, beraz, baieztapen horiek, sozialista guztien atxikipena ez duten sozialismo-erak badaudelakoa aitortzeaz aparte, zeinen artean sartu behar baitira era ez-demokratikoak? Dagoeneko ikusi dugunez, izatez, ukaezina da eraentza sozialista bat ez-demokratikoa izan daitekeela sozialismoaren ezaugarri definitzaileak prozedura politikoaz ezer inplikatzin ez duelako arrazoi logiko hutsarengatik. Hori horrela izaki, auzi bakarra da sozialismoa izan *daitekeen* ala ez demokratikoa eta zer zentzutan.

Bigarrenik, fede demokratikoa irmoki defendatu duten talde sozialistek ez dute inoiz izan ez aukerarik ez ziorik beste bat profesatzeko. Bi izan diren ingurumenetan sumina eragingo zuketan diskurtso eta praktika ez-demokratikoez, eta, egitatez, beti sindikalisten aurka bihurtu izan dira. Kasu batzuetan arrazoi guztia zuten berak eta beren jarduera babesten zituzten printzipio demokratikoak defendatzean. Beste kasu batzuetan sozialista gehienak pozik gelditzen ziren emaitza politiko edo bestelakoekin, norabide demokratikoan aurrera egiteak ekoitziko zituela agintzen baitzuen. Erraz imajinatzen da zer gertatuko zitzaizen Ingalaterra edo Suediako alderdi sozialistei, adibidez, baldin eta joera antidemokratikoko sintoma larriak erakutsi izan balituzte. Aldi berean sentitzen zuten beren boterea etengabe hazten ari zela eta ardura-postuak poliki-poliki berenez lortzen ari zirela. Hori gertatzen zen bakoitzean pozez onartzen zuten. Horrela, demokraziarekiko atxikimendua profesatzean, nagusitzen zen portaerallerroari jarraitzea besterik ez zuten egiten. Haien politika Leninen gustukoa ez izateak ez du frogatzen hura bestela portatuko zatekeenik egoera berean egon izan balitz. Alemanian, alderdia oraindik hobeki garatzen zen, baina 1918 arte arduretarako irispidea itxuraz, itxita zegoen tokian, sozialistak estatu indartsu eta etsaikor bati aurre egitean eta beren babeserako begikotasun burgesekin eta sindikatuen bote-

rearekin kontatu behar izatean, zeinak, kasurik hoberenean, erdi-sozialistak baitziren, oraindik askatasun gutxiago zuten kredo demokratikotik desbideratzeko, zeren horrela jokatzeari beren etsaiei jokoa egitea besterik ez baitzuten egingo⁴. Beren buruari sozialdemokrata deitzea zuhurtzia elementaleko neurri bat zen haientzat.

Baina, hirugarrenik, konbikzio demokratiko hori proban jarri den kasuak aldeko emaitzarekin gutxi dira eta ez oso konbentzigarriak⁵. Zentzu batean egia da 1918an Alemaniako Alderdi Sozialdemokratak aukera bat izan zuela eta demokraziaren alde jokatu zuela eta (hori fede demokratikoaren proba bat baldin bada) energia gupidagabez erreprimitu zituen komunistak. Baina alderdia erdibitu egin zen errepresio hori zela-eta. Bere ezker hegalararen parte handia galdu zuen, eta bereizi ziren disidenteek sozialista-titulurako eskubide gehiago zuten geratu zirenek baino. Gainera, azken horietako askok, alderdiaren diziplinari men egin arren, gaitzetsi egiten zuten. Eta onesten zuten askok hori egiten bazuten, 1919ko udatik aurrera, jadanik orientazio erradikalago bat (hau da, kasu horretan, antidemokrati-koa) etortzeko abaguneak kontuan hartzerik ez zegoelako gutxienez bakarrik egiten zuten hori, eta, bereziki, Berlinen politika ezkertiar bat izateak, nahiz eta berehala ez jasan porrot erabatekoa, sesesio-arrisku larria esan nahiko baitzuen Renanian eta Mainen hegoaldeko herrialdeetan. Azkenik, sozialista gehienei, edo, edozein kasutan, haien elementu sindikalistei, benetan nahi zituzten asetasun guztiak ematen zizkien, kargu publikoak barne. Ez zuten ezbairik izan zentroko alderdiarekin (katolikoarekin) harrapakina elkarbanatzeko. Baina tratua bientzat asegarria izan zen. Sozialistak laster bihurtu ziren errealki demokrata oihukari. Hala ere, lanbide horiek bat etorri ziren oposizio baten progresuekin haien kontra zuzendurik zihoan kredo antidemokratiko batekin asoziaturik.

Ez noa sozialdemokrata alemaniarrek kondenatzera erakutsi zuten erantzukizun-zentzuarengatik, ez eta ministro-silloi erosoetan eseri ziren atseginarengatik ere. Bigarren hori giza ahulezia orokorra da eta haien erantzukizun-zentzua erabat kreditu dute, liburu honen azken atalean erakusten saiatuko naizenez. Baina baikortasun halako bat behar da sozialisten prozedura demokratikoarekiko atxikimendu fidelaren lekuko gisa haiek ekartzeko. Alabaina, ni ez naiz gai proba hobearen beste kasurik aurkitzeko, ezik bat etortzen ez garen errusiar

eta hungariar kasuak onartzen, zeinak biak konbinazio erabakigarri batek ezaugarritzen baitzituen: boterea konkistatzeko ahaltasunaren eta bitarteko demokratikoz hori egiteko ezintasunarenak. Gure zailtasuna ongi ilustraturik dauka austriar kasuak, zeinaren garrantziak gainpasatu egiten baitu, askoz, herrialdearen garrantzia talde gidariaren (neo-marxistaren) kalitate apartekoarengatik. Sozialista austriarrak 1918an eta 1919an atxiki zitzaizkion demokraziari, artean haien-tzat autodefentsa-auzi bat ez zenean, baina laster gertatuko zen hori. Baina boterearen monopolizazioa beren eskumenean zeukatela iruditu zitzaien hilabete gutxi batzuetan haietako askoren posizioa ez zen zalantzagabea izan. Garai hartan Fritz Adlerrek «aritmetikako zorien» (*Zufall der Arithmetik*) fetitxismotzat kalifikatzen zuen gehiengoaren printzipioa, eta haren adiskideetako askok sorbaldak uzkuratzen zituzten prozedura demokratikoko arauen aurrean. Hala eta guztiz ere, gizaki horiek alderdiko kide erregular ziren eta ez komunistak. Hungarian boltxebismoa ezarri zenean hautatu beharreko norabidearen auzia gori-gori jarri zen. Inork ezin izan du garai horretako eztabaida jarraitu ahal izan konturatu gabe alderdiaren sentimendua ez zegoela gaizki adierazia honako formulaz: «Ez zaigu bereziki atsegin ezker aldera joan beharraren (metodo sobietarrak hartzea) ikuspegia. Baina joan behar badugu, guztiok joango gara»⁶. Herrialdearen egoera orokorraren eta alderdiaren arriskuaren prezazio hori guztiz arrazoizkoa zen. Eta ondorioa ere halakoa izan zen. Horietako ezeinetan ez zen nabaria printzipio demokratikoekiko leialtasun gartsua. Jakina, konbertsioa denborarekin iritsi zitzaien. Baina ez zitzaien damuz iritsi baizik eta kontrairaultza hungariarraren ondorioz.

Arren eskatzen dizuet ez uste izateko sozialistak egiatitasun faltaz salatzen ari naizenik edota demokrata txarrak edo printzipiorik gabeko intrigatzaileak edo oportunistak direlako mespretxua horien aurka mespretxua sorrarazi nahi dudalako. Nik bete-bete sinesten dut, horien profetetako batzuk murgiltzen direneko haur-makiavelismoa gorabehera, beren bihotzen barrenean horietako gehienak beste edozein gizaki bezain egiatia izan direla beren fedea betetzen. Gainera, ez dut sinesten egiatitasun-falta borroka sozialean, zeren gizakiek beti sinesten baitute azkenerako sinetsi nahi dutena eta etengabe betetzen dutena. Demokraziari dagokionez, alderdi sozialistak ez dira ustez beste edozein baino oportunistagoak; demokrazia aldarrika-

tzen dute beren ideal eta interesei zerbitzatzen badie bakarrik eta horiei zerbitzatzen dien neurrian, baina ez beste kasu batean. Irakurleak ikara ez daitezen eta politikari profesional zailduenek bakarrik iritzi hain immoralak bere bihur dezaketela uste ez dezaten, ondoren esperimendu mental bat egingo dugu, aldi berean demokraziaren izaerari buruzko gure ikerketaren abiapuntu gisa balioko diguna.

III Esperimendu Mental Bat

Demagun komunitate batek, irakurlearen demokrazia-irizpidea asetzen duen era batez antolatu batek disidente erlijiosoak jazartzea erabakitzen duela. Adibidea ez da ameskeriazkoa. Gutako gehienok demokraziazat berrezagutuko genituzkeen komunitateek heretikoak erre dituzte habean –Genevako Errepublikak Kalvinoren garaian egin zuen hori– edo gure txantiloiei moralei higuinagari zaien eran jazartu ditu –Massachusetts kolonialak balio dezake adibidetzat–. Mota horretako kasuek ez diote muntadunak izateari uzten estatu demokratikoetan gertatzen badira. Zeren inozoa izango litzateke sinestea prozesu demokratikoak funtzionatzeari erabat uzten diola autokrazia batean edo autokrata batek inoiz ez duela nahi izaten herriaren nahia- ren arabera jokatu edo haren aurrean amore eman. Hori gertatzen den bakoitzean ondoriozta dezakegu horrelako ekintza bat burutu dela, nahiz eta forma politikoa demokratikoa izan. Adibidez, kristauen lehen jazarpenak, gutxienez, iritzi erromatarrek onetsiak ziren, noski, eta suposatzekoa da ez zirela zorroztasun gutxiagokoak izango Erroma demokrazia hutsa izan balitz⁷.

Sorginen jazarpenak eskaintzen digu beste adibide bat. Masen arimatik beretik abiatzen zen, eta edozer gauza zen apaiz eta printze- en asmakari deabruzkoa izan ezik, zeinek, aitzitik, ezabatu egiten baitzuten hartarako gai sentitzen ziren bezain laster. Eliza Katolikoak zigortu egiten zuen, zinez, sorgingoa. Baina sorginen aurka hartzen zituen neurri efektiboak erkatzen baditugu heretikoen aurka hartzen zituenekin, zeinetan Erroma ekonomikoki interesaturik baitzegoen, berehalaxe ateratzen dugu, sorgingoaren auzian, Aulki Santuak iritzi publikoaren aurrean amore eman zuela zirikatu baino gehiago. Jesuitek sorgingoaren jazarpena gudukatu egin zuten, hasieran arrakastarik gabe. XVII. mendearen azkenetan eta XVIII. mendean –hau

da, Kontinentean erabat ezarrita zegoenean absolutismo monarkiko-, nagusitu ziren, azkenik, gobernu-debekuak. Hala ere, Maria Theresa enperatriza bezain agintari bortitz batek praktika debekatzeko erabili zuen zentzutasun bitxia argi eta garbi erakusten du bazekiela bere herriaren nahiaren aurka ari zela borrokan.

Azkenik, proiektzio modernoekin erlazioren bat duen adibide bat hautatzeko, antisemitismoa izan da jarrera herritar sakonkien erro-turikoetako bat nazio gehienetan, zeinetan baitzegoen judu-kopuru ohargarri bat bere biztanleria osoarekiko erlazioan. Garai modernoetan jarrera horrek atzera egin du, partez, bilakaera kapitalistaren eragin arrazionalizatzailearen pean, baina nahiko geratu da hari dei eginez gero edozein politikariri arrakasta herritarra segurtatzeko. Gure garaiko mugimendu antikapitalista gehienek, sozialismoa propioki deituaz landaikai dute, izan ere, lezioa. Erdi Aroan, hala ere, ez da gehiegi esatea juduek Elizaren eta printzeen babesarengatik iraun zutela bizirik, zeinek gerizatu batzituzten herri-oposizioaren aurka eta azkenerako emantzipatu egin zituzten⁸.

Goazen orain gure esperimentura. Alda gaitezen lekuz krista-
tauen jazarpena, sorginen erreketeta eta juduen hilketa era demokrati-
koan praktikatzen dituen balizko herrialde batera. Guk ez genituzke
onartuko, noski, praktika horiek prozedura demokratikoko arauen ara-
bera erabakiak zian direlako. Baina auzi erabakigarria hau da: onartu-
ko al genuke emaitza horiek eragin zituen konstituzio demokratikoa
bera lehentasuna emanez horiek ekidingo lituzkeen konstituzio ez-
demokratiko baten aldean? Ez badugu onartzen, sozialista gartsuak
bezalaxe portatzen gara, zeinentzat kapitalismoa sorginak erretzea
baino txarragoa baita, eta zeinak prest baitaude, beraz, metodo ez-
demokratikoak onartzeko hura ezabatzeko. Hori horrela den bitartean
haiek eta gu bandera beraren pean gaude. Badira ideal eta interes
gorenak, demokrata gartsuenak demokraziaren gainetik jarriko ditue-
nak, eta, eraientza horrekiko atxikimendu baldintzagabea aldarrikatzen
badu, horrekin esan nahi duen gauza bakarra da konbentziturik senti-
tzen dela demokraziak bermatuko dituela ideal eta interes horiek: kon-
tzientzia eta pentsamenduaren adierazpen-askatasuna, justizia, gober-
nu gisakoa, eta abar.

Hori horrela izatearen arrazoiak ez da oso urrun bilatu behar.
Demokrazia *metodo* politiko bat da, hau da, erabaki politikoetara

–legegileetara, administratiboetara– iristeko kontzertu instituzional mota halako bat, eta horregatik ezin daiteke xede izan bere baitan, baldintza historiko jakinetan sortzen dituen erabakiekiko independenteki. Eta horrek izan behar du abiagunea hori definitzeko ahalegin ororentzat.

Zeinahi delarik ere metodo demokratikoaren ezaugarri bereizgarria, aztertu berri ditugun adibide historikoek irakatsi halako batzuk ematen dizkigute hari buruz, zeinek behar besteko garrantzia baitute birkapitulazio esplizituago bat justifikatzeko.

Lehenik, adibide horiek aski dira porrot eragiteko formulatu berria dugun baieztapenari kontrajartzeko ahalegin orori, hau da: demokrazia metodo politiko bat izaki, ezin daiteke xede izan bere baitan, beste edozein metodo baino ez gehiago eta ez gutxiago. Objekta liteke, ikuspuntu logikotik, metodo bat bere horretan ideal absolutu edo balio goren gisa kontsidera daitekeela. Izan liteke. Kontzebigarria da, zalantzarik gabe, sostenga daitekeela, nahiz eta sistema historiko jakin batean prozedura demokratikoa burutzen ahalegintzen dena kriminala eta ergela izan, herriaren nahiak gailendu behar duela edo, edozein kasutan, horren aurka ez dela joan behar, printzipio demokratikoek santzionaturiko moduan izan ezik. Baina kasu horietan naturalago dirudi jendailaz hitz egitea herriaz egin ordez eta horren kriminakeria eta ergelkeria eskura dauden bitarteko guztiez gudukatzea.

Bigarrenik, bat baldin gatoz demokraziarekiko atxikimendu baldintzagabea interes edo ideal halako batzuekiko atxikimendu baldintzagabeagatik izan daitekeela, zeintzuei demokraziak zerbitzatu behar diela espero baita, gure adibideek baztertu egiten dute, nahiz eta demokrazia ez izan ideal absolutu bat eskubide propioz, hala ere, horren ordezko bat delako objektzioa, aldi eta alde oro, interes edo ideal halako batzuei derrigor zerbitzatuko dielako indarrez, zeinen alde borroka egin eta hiltzeko baldintzagabeki prest baikaude. Begibistan dago hori ezin daitekeela egia izan⁹. Demokraziak, beste edozein metodo politikotan bezala, ez gehiago eta ez gutxiago, ez ditu beti emaitza berak sortzen ez eta interes edo ideal berak sustatzen. Horrekiko atxikimendu arrazionalak horrela auresuposatzen du ez balio hiperrarazionalen eskema bat bakarrik, baizik eta gizartearen egoera halako batzuk, zeinetan espero baitaiteke demokrazia atsegin izango ditugun xedeetara orientatuko dela. Demokraziaren funtziona-

menduari buruzko baieztapenak zentzu gabeak dira denbora, toki eta egoera jakin batzuekiko¹⁰ erreferentziarik gabe, eta berdin dira, noski, argudio antidemokratikoak ere.

Hori begi-bistakoa da azken finean. Horrek ez luke inor harritu behar, eta gutxiago txunditu. Zeren ez baitu zerikusirik konbikzio demokratikoaren suharra edo duintasunarekin edozein egoera jakinetan. Konbikzio propioen baliozkotasun erlatiboaz konturatzea eta, hala ere, deliberatuki horiek defendatzeak, horrek bereizten ditu gizaki zibilizatua eta barbaroa.

IV Definizioaren Bila

Abiagune bat dugu bertatik ikerketan aritzeko. Baina oraindik ez dugu definiziorik begien aurrean demokraziaren eta sozialismoaren arteko erlazioak aztertzeko gure ahaleaginean lagun diezagukeenik. Eta atariko zailtasun batzuek eragotzi egiten digute oraindik ikuspegia.

Ez liguke asko lagunduko Aristotelesengan bila ibiltzeak, zeinek erabiltzen baitzuen esamolde hori komunitate ongi ordenatu bat bere idealetik desbideratzea izendatzeko. Baina argiren bat egin dezake gure zailtasunen gain, «metodo politiko» esamoldeari egotzi diogun esanahia gogoratz. Metodo politikoa da nazio batek erabiltzen duen metodoa erabakietara iristeko. Metodo hori ezaugarri ahal izan beharko genuke, nork eta nola hartzen diren erabaki horiek adieraziz. «Erabakiak hartzea» «gobernatzea»rekin parekatzen badugu orduan demokrazia «populuaren gobernu» gisa defini dezakegu. Zergatik ez da hori behar bezain zehatza?

Ez baldin bada, «populu» (*demos*, *populus* erromatarra) kontzeptuaren definizio ahalgarri guztien artean eta «gobernatu» (*kratein*) kontzeptuaren definizio ahalgarri guztien artean dauden konbinazio adina esanahi besarkatzen dituelako da, eta definizio horiek demokraziaren gure teoriarekiko independenteak ez direlako. Lehen kontzeptuari dagokionez, *populusak*, zentzu konstituzionalean, erabat bazter ditzake esklaboak eta zati batean beste biztanle batzuk; legeak «estatus»-kopuru mugagabea berrezagut ditzake esklabotasun eta hiritartasun betearen edo are pribilegiatuaren artean. Eta legezko diskriminazioarekiko independenteki «populu»tzat aro desberdinetan talde desberdinak kontsideratu izan dira¹¹.

Jakina, esan dezakegu gizarte demokratikoa horrelako bereizpenik egiten ez duen gizartea dela, negozio publikoei buruzko auzietan gutxienez, adibidez, boto-eskubideari dagokionarenean. Baina, lehenik, gisa horretako diskriminazioak egin dituzten nazioak izan dira eta, hala ere, eskuarki demokraziari esleitzen zaizkion ezaugarri gehienak erakusten zituzten. Bigarrenik, ezin da inoiz erabat falta izan diskriminazioa. Adibidez, inongo herrialdetan, denik eta demokrati-koena dela ere, ez zaie boto-eskubidea hedatzen adin jakin batera iritsi ez diren norbanakoei. Hala ere, murrizte horren arrazoa bilatzen badugu, adinaren muga gainditua duten biztanleen kopuru mugagabe bati ere aplikatzen zaiola aurkitzen dugu. Ez bazaie botoa ematea baimentzen adin-mugaz azpitik dauden pertsonaei ezin dezakegu ez-demokratiko deitu, arrazoi berengatik edo antzekoengatik, beste pertsona batzuk bazterten dituen herrialdea. Ohar gaitezen ez dela muntaduna guk, behatzaileok, arrazoi edo arau praktiko horien baliozko-tasuna onartzea edo ez, zeinen arabera bazterten baitira bototik biztaleriaren parte batzuk. Halaber, ez da objektatu behar diskriminazio hori legitimoa delarik baztertze horiek ez-gaitasun pertsonalean oinarriturik daudenean (adibidez, «ezaguera-adin»era heldu gabe egotean), hautazkoa gertatzen da taldeak blokean baztertzeari dagokionean boto-eskubidearen erabilpen inteligentea egiteko gaitasunarekin inolako zerikusirik ez duten zioetan oinarriturik. Zeren gaitasuna iritzi-eta gradu-auzia baita. Horren existentzia arau-sistemaren batez ezarri behar da. Sostenga daiteke, absurdorik edo egiazaletasun-gabeziarik gabe, sufragioaren ariketarako gaitasuna nork bere beharritzanein erantzuteko gaitasun propioaz neur daitekeela. Konbikzio erlijioso indartsuko komunitate batean edo komunitate antifeminista batean sostenga daiteke –hor ere absurdorik eta egiazaletasun-gabeziarik gabe– disidentziak edo sexuak deskalkifikatu egiten dutela sufragioaren ariketarako. Konbikzio arrazistak dituen nazioak kontsiderazio arrazialekin asozia dezake hautespen-gaitasuna¹². Eta horrela behin eta berriz. Puntu erabakigarria, berriz diogu, ez da *guk* zer pentsatzen dugun ezgaitasun ahalgarri horietako bati edo batzuei buruz. Puntu erabakigarria datza, auzi horiei eta antzeko beste batzuei buruz iritzi egoki batzuk emanik, egoera ekonomikoan, erlijioan eta sexuan oinarrituriko deskalkifikazioak guk guztiok demokraziarekin bateraezintzat jotzen ditugun deskalkifikazioen kategoria beraren barruan sartzen direlakoan. Gaitzets ditzakegu, noski. Baina gaitzesten baditugu, logi-

ka onean, jabetza, erlijioa, sexua, arraza eta abarren garantziari buruzko teoriak ere gaitzetsi egin behar ditugu, gizarte horiei ez-demokratiko deitu ordez. Suhar erlijiosoa, esate baterako, demokraziarekin bateragarria da, noski, azken hori definitu dugunez. Alabaina, bada jarera erlijioso mota bat, zeinarentzat heretikoa eroa baino txarragoa baita. Hortik ez da segitzen heretikoa baztertu behar denik erabaki politikoetan esku hartzetik ilargi-joa ere bezala¹³. Ez ote diogu *populus* bakoitzari utzi behar bere burua definitzearen ardura?

Ondorio saihestezin horri eskuarki eskintxo egiten zaio prozesu demokratikoaren teoriaran supostu gehigarriak sartuz, zeinetariko batzuk hurrengo bi kapituluetan eztabaidatuko baititugu. Bitartean, ohartaziko dugu bakarrik behe-laino asko kentzen duela bidetik. Besteak beste, demokrazia eta askatasunaren arteko erlazioak uste izaten duguna baino nabarmen askoz konplexuagoa izan behar duela-koa agertzen du.

Oraindik zailtasun larriagoak sortzen dira demokrazia kontzeptuan sartzen den bigarren elementuari, *kratein* horri buruz. «Gobernu» ororen izaera eta *modus operandi*a beti zail dira azaltzen. Lege-bote-reek ez dute inoiz horien ariketaren ahalatasuna bermatzen, baina horergatik ez dira bermagune txikiagoak, baita traba garrantzitsuak ere; prestigio tradizionalak beti balio du zerbaiterako, baina inoiz ez denetarako; arrakasta pertsonala eta garrantzi pertsonala, partez arrakastarekiko independentea denak sistema instituzionaleko elementu nola legezkoen hala tradizionalen akzioak eta erreazioak eragiten dituzte. Ez dago monarka edo diktadorerik ez oligarka-talderik inoiz absolutua denik. Ez dute bakarrik egoera nazionalaren datuei atxikirik gobernatzen, baizik eta pertsona batzuen esku hartzearekin jarduteko, beste batzuekin harreman onetan egotekoari, beste batzuk neutralizatzeakoari ere bai eta gainerakoak menderatzeko beharrianari atxikirik ere bai. Eta hori era-barietate ia amaigabea egin daiteke, zeinetariko bakoitzak determinatuko baitu errealki zer esan nahi duen ordenazio formal jakin batek, bai gertatzen den nazioarentzat, bai behatzaile zientifikoarentzat; monarkiaz zerbait definitua balitz bezala hitz egitea diletantismoa da. Baina populua bada *kratein* hori burutu behar duena, zernahi delarik ere bere buruaz ematen duen definizioa, beste arazo bat sortzen da oraindik. Nola da ahalgarri «populua»rentzat teknikoki gobernatzea?

Bada kasu-kategoria bat arazo hori sortzen ez duena; gutxienez ez da era akutuan sortzen. Egitura sozial sinplea duten komunitate txiki eta primitiboetan¹⁴, zeinetan gutxi baitago desadostasunean egoteko, kontzebigarria da herria eratzen duten norbanako guztiak, konstituzioak definitzen duenez, efektiboki esku hartzea legegintzako eta administrazioko betebeharretan. Kasu horietan berorietan ere izan litezke oraindik zailtasun halako batzuk, eta portaera kolektiboaren psikologoak izango luke esateko zerbait buruzagitzaz, propagandaz eta demokrazia bateko ideal herritarraren beste desbideratze-iturriez. Hala ere, zentzu nabaria izango luke borondateaz edo komunitatearen ekintzaz edo herriaz bere horretan hitz egiteaz –herriaren gobernuaz–, batez ere herria erabaki politikoetara hiritar guztien presentzia fisikoarekin buruturiko eztabaiden bidez iritsi bada, adibidez, *polis* grekoan edo Ingalaterra Berriko udal-kontzejuan egiten zenez. Kasu horrek, batzuetan «zuzeneko demokrazia» izendatzen denak, izatez, abiagunetzat balio izan du politikaren teoriarari askorentzat.

Gainerako kasu guztietan sortzen da gure arazoa, baina erraztasun handi samarrez manea dezakegu herriaren gobernuari uko egiteko prest bagaude eta horren ordeztu herriaren onarpena duen gobernu jartzeko. Asko esan liteke hori egitearen alde. Demokraziaz eskuarki egin ohi ditugun baieztapen asko egiazko gertatuko dira bere herriaren gehiengo handiaren edo, hobeki oraindik bere herriaren klase bakoitzeko gehiengo handiaren atxikimendu orokorra duten gobernu guztientzat. Hori bereziki aplikagarria zaie eskuarki metodo demokratikoari aitortzen zaizkion bertuteei: giza duintasunari, izan behar duteneko ideia propioei, neurri handi batean, auzi politikoak moldatzen zaizkien sentimendutik datorren asetasunari, politika eta iritzi politikoa koordinatzeari, hiritarrek gobernuarekiko duten konfiantza-jarrerari eta berarekiko lankidetzari, gobernuak kaleko giza-kiaren errespetu eta laguntzari dion konfiantzari; hori guztia eta askoz gehiago, gutako askori demokraziaren esentzia bera irudituko zaiguna, asegarriki besarkatzen du herriaren onarpenarekiko gobernuaren ideiak. Eta begi-bistakoa denez, «zuzeneko demokrazia»ren kasua salbuetsirik, herriak halako den heinean ezin duela inoiz gobernatu edo errealki eraendu, definizio horren defentsak osoa dirudi.

Hala eta guztiz ere, ezin dugu onartu. Autokrazien adibideak ugari dira –baliteke kasu historikoen gehienak izatea–, nola *dei gratia*

hala diktatorialak, mota ez autokratikoko monarkia desberdinenak, oligarkia aristokratiko eta plutokratikoenak, zeinek eskuarki atxikimendu baldintzagabea izaten baitute, sarritan gartsua, bere herriko klase guztien gehiengo abailgarri baten aldetik, eta zeinek, beren ingurumen-baldintzak kontsideratuz, ezin hobeki iritsi baitira metodo demokratikoak segurtatu behar dituela gutako gehienok uste ditugun emaitzak burutzera. Garrantzitsua da hori eta kasu horietan sartzen den demokraziako elementu handia –zentzu horretan– berrezagutzea. Forma hutsen kultuarentzat, erretolika hutsentzat ere bai, kontrapozioia oso desiragarria izango litzateke, beraz. Baina horrek ez du ezertan aldatzen, demokraziaren soluzio horiek onartzean identifikatu nahi dugun fenomeno bera galduko genukeelakoa; demokraziak ordenazio politikoaren kategoria askoz zabalago batean besarkaturik leudeke, zeinek izaera argiro ez-demokratikoko erakundeak izango bailituzkete beren baitan.

Gure porrotak, hala ere, gauza bat irakasten digu. «Zuzeneko» demokraziaz haratago era ahalgarrien aberastasun amaigabea dago, zeinetan «herriak» esku har baitezake gobernuaren negozioetan edo efektiboki gobernatzen dutenak eragin edo interbenitu. Forma horietako batek ere ez du, praktikagarriak diren batek ere ez bereziki, titulu nabari edo eskusiborik «herriaren gobernu» izendatua izateko, hitz horiek zentzu naturalean hartu nahi badira. Horietakoren batek izendapen hori merezi behar badu «gobernatu» esamoldeari egotzi nahi zaion zentzua determinatzeko hitzarmen hautazko baten indarrez bakarrik izango da. Hitzarmen hori beti da ahalgarria, jakina; herriak ez du inoiz gobernatzen egitatez, baina definizioz gobernatzen duela hitzar daiteke.

XVII. eta XVIII. mendeetan garatu ziren demokraziaren «teoria» juridikoek gobernu-era efektibo edo ideal halako batzuk eta «herriaren gobernu»ren ideologia elkarrekiko loturan jarriko zituzten definizioak eskaintzea zuten helburu, hain zuzen ere. Ez da zaila ulertzen zergatik nagusitu zen ideologia hori garai horretan, gutxienez Europaren mendebaleko nazioetan, Jainkoarengandiko autoritatearen mantua laster batean erortzen ari zen erregetzaren sorbaldeetatik¹⁵ –prozesua askoz lehenago hasi zen, noski–, eta printzipio gisa, nola etiko hala azalpenezko, «herriaren nahia» edo «herriaren botere subiranoa» eskaini zen ordezkoko onargarrientzat mentalitate batentzat,

zeina autoritate gorenaren *charisma* horri uko egiteko prestatuturik zegoen arren, ez baitzegoen prest batere gabe geratzeko.

Arazoa horrela planetaturik, mentalitate juridikoak bere akzesorioen ganbara arakatu du tresna bila, zeinen bidez adiskidetu behar baita postulatu goren hori dauden forma politikoeekin. Ganbarak eskuratutakoa, esentzialki, printze batekiko mendekotasun-kontratu fiktizioak izan ziren¹⁶, zeinen indarrez suposatzen baitzen herri subiranokak bere askatasuna edo bere boterea negoziatu baitzizkion, edo fikzio gutxiagokoak ez ziren kontratuak, zeinen bidez delegatu baitzien botere hori edo horren parte bat hautaturiko ordezkariari. Nahiz eta eraikuntza asko zerbitzatu izan xede praktikoa batzuetarako, guretzat batere baliorik gabeak dira. Ez dira defendagarriak ikuspuntu juridiko batetik ere.

Zeren, delegazio eta ordezkaritza esamoldeek zentzu betea izan dezaten, beharrezko baita erreferitza ez hiritar banakoei –hori Erdi Aroko infeudazioaren teoriaren baliokidea litzateke–, herriari osotasunean harturik baizik. Herriak, bere hartan, bere boterea parlamentu bati, adibidez, ordezkatu behar zuenari delegatzen ziola kontzebitu behar zen orduan. Baina pertsona bat bakarrik (fisikoa edo morala) delega dezake juridikoki edo izan daiteke ordezkaturik. Horrela, kontinenteko kongresuetara, 1774tik aurrera Philadelphian bildu zirenetara – «kongresu iraultzaile» deituetara– ordezkaritzak bidali zituzten Kolonia edo Estatu Amerikarrak, izatez, ordezkari haiek ordezkaturik zeuden.

Baina herriak bere horretan ez du nortasun juridikorik; bere parlamentuari botereak delegatzen dizkiola eta hark ordezkaturik dagoela esatea esanahi juridikoz erabat hutsik dagoen zerbait esatea da¹⁷. Zer da orduan parlamentua? Erantzuna ez da oso urrun bilatu behar: estatuaren organo bat da, gobernu edo justizia-auzitegi bat bezalaxe. Parlamentu batek mailaren batean herria ordezkatzeko badu oraindik aurkitzeko aukeragun beste zentzuren batean izan behar du.

Hala ere, herriaren soberaniari eta delegazioari eta ordezkaritza buruzko «teoria» horiek postulatu ideologikoa eta teknika juridikoko atal banaka batzuk baino zerbait gehiago islatzen dute. Organismo politikoaren soziologia edo filosofia sozial bat betetzen dute, zeinak, partez, auzi horri buruzko espekulazio grekoak sortzea-

ren eraginpean¹⁸, eta, partez, garai hartako jazoeren eraginpean, forma hartu eta kinka gorena harrapatu baitzuen XVIII. mendearen amaiera aldera eta arazoari, zinez, konponbidea ematen saiatu baitzen. Nahiz eta esamolde orokor horiek inoiz ez izan egokiak eta zuzenak zentzu hertsian, filosofia hori –ohiko erara– oinarritzat arrazionalista, hedonista eta indibidualistatzat kalifikatzera arriskatuko nintzateke; nola xede horrena hala bitarteko egokiak hautemate argi batez hornituriko edota hautemate argia emango dien hezkuntza hartzeko gai diren norbanakoen zoriona –termino hedonikotan definitua–, bizitzaren zentzua eta ekintzaren printzipio handi gisa kontzebitzen zen, bai esfera pribatuan eta bai esfera politikoan. Oso ongi izenda dezakegu soziologia edo filosofia sozial hori, kapitalismo goiztiarraren emaitza, John Stuart Millek sarrarazitako esamoldearen bidez, hau da, utilitarismo gisa. Horren arabera printzipio horretara egokitzen zen portaera ez zen arrazional eta jufifikagarri bakarra, baizik eta, *ipso facto*, portaera «natural» bakarra ere bai. Baieztapen hori da Bentham eta Rousseauen *kontratu sozialaren* teorien, beste aspektu batzuetan hain desberdinak direnen arteko zubia; izen horiek farotzat balio diezagukete hemen gainerakoan ilunpetan utzi beharra daukagun honetan.

Labur behar etsipenezko horrek ez badie irakurleei nire argumentazioa jarraitzea eragozten, argi geratu beharko litzaieke filosofia horren helmena demokraziaren gaiari dagokionez. Bistan dago, besteak beste, estatuaren izaeraz eta estatua existitzen deneko xedeez teoria bat hornitu duela. Gainera, norbanako arrazional eta hedonistari eta horren autonomia etikoari ematen dion hanpadurarengatik, badi-rudi estatu horren zuzendaritzarako eta xede horiek lortzeko, hau da, –zorionik handiena kopururik handienarentzat eta antzeko beste gauza batzuk– egokiak diren metodo politiko bakarrak irakasteko egoeran dagoela. Azkenik, «herriaren nahia»rekiko (*volonté générale*) eta «erradikal filosofiko» gisa¹⁹ ezaguna izatera iritsi den idazle-taldearentzat demokraziak esan nahi duen guztia laburbiltzen duen «hezi herria eta libreki bozkatzen utzi» maximarekiko fedearentzat oinarri arrazionala zirudiena hornitu du.

Ia berehalaxe sortu zitzaion erakuntza horri kontrako kritika bat. Iraultzako eta Napoleonen gerren ondoren gertatu zen XVIII. mendeko arrazionalismoaren aurkako erreakzio orokoraren parte gisa. Eskuarki erromatizismo deitzen den mugimenduaren merituez

edo desmerituz zernahi pentsatzen delarik ere, gizarte aurrekapitalistaren eta, oro har, bilakaera historikoaren ezagutza sakonagoa izaten lagundu du, noski, eta horrela utilitarismoaren eta utilitarismoan bere oinarrian izan duen teoria politikoaren oinarrizko akatsetako batzuk agertu ditu horrela. geroago analisi historikoa, soziologikoa, biologikoa, psikologikoa eta ekonomikoa birrintzailea gertatu da bientzat, eta gaur egun zail da aurkitzen prozesu sozialen aditu bakar bat batarentzat eta bestearentzat hitz on bat duenik. Baina estrainioa badirudi ere, teoria hori txikimila egiten ari zen denbora guztian, ekintza politikoa hartan inspiratu zen. Zenbat eta gehiago frogatu sostengaezina zela hainbat osokiago nagusitzen ziren fraseologia ofiziala eta politikarien erretorika. Hara zergatik itzuli behar dugun, hurrengo kapituluan, «demokraziaren teoria klasikoa» izenda daitekeenaren eztabaidara.

Baina ez dago instituziorik, ez praktkarik, ez sinesterik une jakin batean bermagunetzat zerbitzatzen dion teoriarekin zutitzen edo erortzen denik. Demokrazia ez da salbuespen. Izatez, ahalgarria da prozesu demokratikoaren teoria bat eraikitzea, jardute kolektiboaren eta mentalitate publikoaren errealitate guztiak kontuan izango dituen. Teoria hori XXII. kapituluan aurkeztuko da, eta orduan esan ahal izango dugu zer zori auresan dakioken demokraziari gauzen ordena sozialista batean.

XXI KAPITULUA

DEMOKRAZIAREN TEORIA KLASIKOA

I Guztien Ongia eta Herriaren Nahia

XVIII. mendeko demokraziaren filosofia honako definizioan laburbil daiteke: metodo demokratikoa da guztien ongia burutzen duen erabaki politikoak sorrarazten dituen sistema instituzionala, herriari berez erabakitzen utziz auzitan dauden gaiak bere nahia egikaritzeko bilduko diren norbanakoak hautatzearen bidez. Horrek zer esan nahi duen garatuko dugu.

Badela, bada, guztien ongi bat sostengatzen da, politikaren faro orientatzailea, beti definitzen erraza dena eta edozein pertsona normal argumentazio arrazionalaren bidez hautemanaraz dakiokena. Ez

dago, beraz, hori ez ikusteko aitzakiarik ez eta, izatez, hori ikusten ez duen jendearen existentziarako inolako azalpenik, ezjakintasunez, –zeina ezaba baitaiteke–, ergelkeriaz edo interes antisozialez ez bada. Gainera, guztien ongi horrek auzi guztientzako erantzun zehatzak inplikatzeko dituen, halako moldez, non gertakari sozial oro eta edozein neurri hartu edo hartzeko hutsegiterik gabe «on» edo «txar» kalifika baitaiteke. Mundu guztiak, beraz, ados egon behar duenez gero, printzipioz behintzat, bada herriaren guztien nahi bat (ezaguerara iritsi diren norbanako guztien nahia) zehazki bat datorrena guztien ongia- rekin edo guztien interesarekin edo guztien ongizatearekin. Desakordioa sorraraz, ergelkeriaz eta parte txarreko interesez aparte, eta oposizio baten existentzia horrela azalaraz dezakeen gauza bakarra iritzi-desberdintasun bat da helmugara iristeko behar den lastertasunaz, zeina ia denentzat komuna baita. Horrela, komunitateko kide bakoitzak, helmuga horretaz jabeturik, zer nahi duen jakinaren gaine- an eta ona dena eta txarra dena bereiziz, aktiboki eta arduratsu esku hartzen du ongia sustatzen eta gaizkia borrokatzen, eta kide guztiek batera fiskalizatzen dituzte negozio publikoak.

Egia da negozio horietako batzuen zuzendaritzak gaitasun eta teknika bereziak eskatzen dituela eta, horregatik, horien jabe diren espezialisten esku utzi behar direla. Hala ere, horrek ez du printzipioa afektatzen, zeren espezialista horiek herriaren nahia betetzeko baka- rrik baitihardute, medikuak pazientearen nahia betetzeko diharduen bezalaxe, zeina sendatzea baita. Halaber, egia da edozein tamainatako komunitate bat, batez ere lan-banaketaren fenomenoak ageri badu, guz- tiz desagokia izango litzatekeela hiritar banako ororentzat gainerako hiritar guztiekin harremanetan jarri behar izatea esekita dagoen auzi bakoitzeko, bere partearekin aginteari edo gobernuari laguntzeko. Egokiagoa izango da erabaki garrantzitsuenak bakarrik erreserbatzea hiritar banakoak haiei buruz iritzia eman dezaten –erreferendumaren bidez, esate baterako– eta gainerakoak berek hautaturiko batzorde baten esku uztea, hau da, asanblada edo parlamentu bati, eta zeinen kideak herri-sufragioz hautatuko bailirateke. Delegatuen batzorde edo gorputz horrek ez du ordezkatzeko, dagoeneko ikusi dugunez, herria zentzu juridiko batean, baizik eta hain teknikoak ez den zentzu batean ordezkatzeko du: hautesleriaren nahia interpretatu, islatu edo ordezka- tuko du. Batzorde hori ugaria izanik atalkatu egin daiteke, komenien-

tziatzko arrazoiengatik ere bai, batzorde txikiagotan, negozio publiko-
en sail desberdinetarako. Azkenik, batzorde txikiago horien artean bat
arazo orokorretarako izango da, batez ere administrazioako arazo
arruntak tratatzeko, kabinete edo gobernu deitua eta segur aski idaz-
kari nagusi edo turkoburu batek, hau da, lehen ministro batek zuzen-
dua, horrela deitzen zaionez¹.

Teoria politiko honek formulaturiko hipotesi guztiak –edo ber-
tan inplizitu daudenak– onartzen ditugun bezain laster, demokraziak,
izatez, esanahi zalantzagabea hartzen du eta ez du arazorik planteat-
zen, hori ezartzeko arazoa salbu. Gainera, zenbait eskrupulu logikori
aurre egin beharra daukagu, kasu horretan, gehitu ahal izateko, siste-
ma demokratikoa ez litzatekeela bakarrik kontzebituriko guztien arte-
an hoberena izango, baizik eta jende gutxi arduratuko litzatekeela
beste bat aintzakotzat hartzeaz. Ez da egia txikiagoa, hala ere, horie-
tako bakoitza frogatu egin beharko litzatekeela, ondorio horretara iri-
tsi behar badugu. Eta askoz errazagoa da horiek ezeztatzea.

Lehenik, ez dago horrelako guztien ongirik, unibokoki deter-
minaturik, zeinean mundu guztia ados egon daitekeen edo ados ego-
naraz daitekeen argudiatze arrazional baten bidez. Hori ez da nagusi-
ki zenbaitek guztien ongiaz aparteko beste gauza batzuk nahi izan
ditzaketelako, baizik askoz oinarritzkoagoa den beste gauza batenga-
tik, norbanako eta talde desberdinentzat, guztien ongiak gauza des-
berdinak derrigor adierazi behar dituelako. Gertakari hori, utilitaris-
tentzat ezkutuan dagoena, giza balioespenen munduaren ikuspen
estua dutelako, arrakalak sartuko ditu printzipiozko auzietan, zeinak
ezingo baitira adiskidetu argudiatze arrazional baten bidez, zeren
azken balioak –bizitza eta gizarteak izan beharko lukeenari buruzko
gure kontzepzioak– logika hutsaren kategoriez haratago daude. Kasu
batzuetan zubia ezar daiteke horien gainetik, baina beste batzuetan ez.
«Gure herrialdea armaz jos dadin nahi dugu mundu osoan bidezkotzat
daukagunaren alde borroka egiteko» dioten amerikarrak eta «gure
herrialdeak bere arazoak konpon ditzan nahi dugu, hori baita
Gizadiari zerbitzatzeko modu bakarra» dioten amerikarrak elkarren
aurrez aurre daude konpromiso batek inausi eta endekatu bakarrik
egingo lituzkeen azken balioen desberdintasun murriztezinez.

Bigarrenik, nahiz eta guztientzat onargarria gertatu guztien
ongi aski definitua –esate baterako, utilitaristen asetasun ekonomiko-

aren gehiena²—, horrek ez lituzke erantzun berdinkiro definituak arazo singularrentzat. Arazo horiei buruzko iritziak xede berei buruz «oinarrizko» desadostasunaren efekturik gehienak sortzeko adinako garrantzizko hedadura bateraino desberdin litezke. Orainaldiko beharrianen asetsunaren ebaluazioari buruz planteatzen diren arazoak etorkizunekoan aurrean, baita kapitalismoaren aurrean sozialismoa hautatzearen kasuan ere, konpondu gabe geratuko lirateke hiritar, hiritar banakoa, adibidez, utilitarismora konbertitu eta gero ere. «Osasuna» denek desira dezakete eta, hala ere, jendeak iritzi desberdinak izan ditzake txertaketaz eta basektomiaz. Eta horrela behin eta berriz.

Teoria demokratikoaren guraso utilitaristek ez zuten horren garrantzi osoa ikusi horietako inork ez baitzuen serioski kontsideratu koadro ekonomikoaren ez eta gizarte burgesaren azturen funtsezko aldaketarik. Hauek XVIII. mendeko burdinarotz baten munduaz haratago ozta-ozta ikusten zuten.

Hirugarrenik, hala ere, aurreko bi proposizioen ondorioz, herriaren nahiaren, edo *volonté générale* kontzeptu partikularra, utilitaristek hartua, airean ilauntzen da. Zeren kontzeptu horrek denek guztien ongi baten existentzia auresuposatzen baitu, argiro determinatua eta denentzat bereizgarria. Erromantikoek ez bezala, utilitaristek ez zeukaten nahi propioaz, hau da, jurisprudentziako eskola historikoak hainbeste prezatzen zuen «herriaren espiritu» horretaz hornituriko entitate erdi-mistiko horren noziorik. Beren herriaren nahia norbanakoen nahietatik eratortzen zuten inozoki. Eta zentro bat ez badago, guztien ongia, zeinetara grabitatzten baitute nahi banako guztiek, epe luzera gutxienez, ez dugu *volonté générale* «natural»aren mota berezi hori lortuko. Grabitate-gune utilitaristak batu egiten ditu, alde batetik, nahi banakoak, horiek urtzera jotzen du, eztabaida arrazionalaren bidez, herriaren nahian, eta, bestetik, kredo demokratiko klasikoak nahi duen duintasun etiko eskusiboa ematen dio azkenari. *Kredo hori ez datza soilik herriaren nahiariekiko kultu batean bere horretan*, baizik eta nahi horren objektu «naturala»ri buruzko supositu batzuen gainean bermatzen da; objektu hori arrazoi utilitarioak santzionatzen du. *Volonté générale* gisako horren nola existentzia hala duintasuna desagertu egiten dira guztien ongiaren ideia falta den bezain laster. Eta teoria klasikoaren bi zutarrak hauts eginik porrokatzen dira ezinbestez.

II Herriaren Nahia eta Norbanakoaren Nahi Izatea.

Oso erabakigarriak izanik ere aurreko argudioak herriaren nahiaren kontzepzio partikular horren aurka ez digute eragotzi behar beste kontzepzio errealistago bat eraikitzen saiatzea. Ez da nire asmoa auzitan jartzea nazio baten nahiaz hitz egiten dugunean pentsatzen ditugun gertakari sozio-psikologikoen ez errealitatea eta ez garrantzia ere. Horien analisisa da, noski, demokraziaren arazoak aztertze bidea urratzeko alde aurretiko eskakizuna. Nahigarriagoa izango litzateke, hala ere, esamolde hori ez kontserbatzea, zeren herriaren nahia haren konnotazio utilitaristatik berezi dugun bezain laster entitate horren berorren teoria desberdin soil bat ez baizik eta zeharo bestelako zerbaiten teoria bat eraikitzen dugulakoa iluntzera jotzen baitu. Arrazoi guztia dugu demokraziaren defendatzaile horien bidezidorrean ezkutatzen diren arriskuen aurka zelatan egoteko, zeinak, prozesu demokratikoko gertakariak gero eta gehiago berrezagutzen dituzten aldi berean, metatuz doazen frogen presiopean, prozesu horrek ematen dituen emaitzak XVIII. mendeko tinetatik ateratako olio gantzuzten saiatzen baitira.

Baina «prozesu demokratiko»an sartzen diren egoera, nahi izate, eragin, ekintza eta erreakzio banako eta taldekoen mataza amai gabeki konplexutik nahi komun edo iritzi publiko gisako bat sortzen dela oraindik esan badaiteke ere, emaitzak ez luke batasun arrazionalaren falta bakarrik izango, baita santzio arrazionalarena ere. Batasun arrazionalaren faltak esan nahi du, nahiz eta analisiaren ikuspuntutik prozesu demokratikoa ez izan kaotiko hutsa –analistarentzat ez da kaotikoa printzipio azaltzaileen helmenaren barruan ekar daitekeen ezer–, hala ere, era zorizkoan ez bada, emaitzek ez lukete izango zentzurik berenez, adibidez, edozein xede edo ideal burutzeak izango lukeen moduan. Santzio arrazionalaren faltak esan nahi du, nahi *hori* ezein «ongi»ri moldatzen ez zaionez, orain beharrezko izango dela, emaitzarako duintasun etiko bat erreklamatzeko, gobernu-era demokratikoetan konfiantza mugagabea biltzea, printzipioz emaitzen desiragarritasunarekiko independentea izan beharko lukeen konfiantza batean. Dagoeneko ikusi dugunez, ez da erraza ikuspuntu horretan kokatzea. Baina nahiz eta horretan kokatu geure burua guztien ongi utilitarista abandonatzeak zailtasun-kopuru handia uzten digu esku artean.

Bereziki, *norbanakoaren* nahiari erabat irrealak diren independentzia eta kalitate arrazionala egoztearen beharrian praktikoaren azpian gaude oraindik. Sostengatu nahi badugu hiritarren nahia *per se* faktore politiko bat dela, errespetatzera beharturik gaudena, lehenik nahi hori existitzea beharrezkoa da. Hau da, topiko jakin batzuen eta inpresio okerre inguruan higitzen diren bulkada lausoen sorta zehaztugabea baino zerbait gehiago izan behar du. Mundu guztiak jakin beharko luke era zehatzean zer defendatu nahi duen. Nahi izateen zehaztasun horrek gertakariak zuzen behatu eta interpretatzeko gaitasunean oinarriturik egon beharko luke, zeinak zuzenean atzigarri baitzaizkio bakoitzari halakoak ez diren gertakariei buruzko informazioa kritikaren galbahetik pasarazteko. Azkenik, nahi zehaztu horietatik eta ziurtaturiko gertakari horietatik ondorio argi eta *bizkor* bat atera beharko litzateke arazo bereziei buruz, dedukzio logikozko arauen arabera, eta hori efizientzia orokorreko hain maila garaiarekin, non sostengatu ahal izango litzatekeen absurdo nabarmenik gabe hiritar baten iritzia gutxi gorabehera beste edozeinena bezain ona izango litzatekeela³. Eta hori guztia hiritar ertainak egin beharko luke berez eta taldeen eta propagandaren presioarekiko independenteki⁴, zeren hautesleriari ezartzen zaizkion nahi-izateak ez baitago prozesu demokratikoaren azken datutzat edukitzerik. Baldintza horiek betetzen diren ala ez demokraziari funtzionarazteko beharrezkoa den neurrian ez da erantzun behar baieztapen presazko batez ez eta era berean presazkoa den ukapen batez. Proba kontraesanezkoen labirinto oso baten prezatze neketsuaren bitartez bakarrik erantzun daiteke.

Hala ere, horretan sartu aurretik segurtatu egin nahi dut irakurleak jadanik aditzera eman dudan beste puntu bat erabat prezatzen duela. Beraz, errepikatuko dut, nahiz eta hiritar banakoen iritzia eta desirak perfektuki zehaztuak eta independenteak izan prozesu demokratikoak landu beharrekoak, eta nahiz eta mundu guztiak haiekiko arrazionaltasun eta bizkortasun idealez jokatu, ez litzateke hortik derrigor segituko prozesu horrek sortutako erabaki politikoek, nahi izate banako horien lehen gaitik abiatuz, herriaren nahia izenda litekeen zerbait ordezkatzeko luketenik, zentzu konbentzigarrian. Beraz, ez da konbentzigarria bakarrik, baizik oso gertakorra prozesu horren bidez iritsiko diren erabaki politikoak ez bat etortzea «herriak benetan nahi duenarekin», batez ere nahiak oso banaturik daudenean. Halaber,

ez dago ukatzerik lortuko denik, herriak nahi duena zehazki ez bada ere, bai, gutxienez, «konpromiso jator» bat. Hori horrela izan daiteke. Hori horrela izan dadin gertakortasunak askoz handiagoak dira planteaturiko arazoak izaera kuantitatibokoak direnean edo gradazio bat ahalbidetzen dutenean, langabetuei laguntzen zenbat gastatu behar deneko auzia planteatzen denean bezala, izan ere mundu guztia agertzen baita xede horrekin gasturen bat egitearen alde. Baina planteatzen diren arazoak kualitatiboak direnean, heretikoak jazartu behar diren ala ez edo gerra batean sartu ala ez, emaitzak era berean atsekabe dezake herri osoa –arrazoi desberdinengatik bada ere–, aldiz, erakunde ez-demokratiko batek ezarritako erabakia askoz onargarriagoa gerta liteke harentzat.

Hori adibide baten bidez argituko da. Nik onartzen dut Napoleonen gobernu, lehen kontsula zenekoa, diktadura militarrean sailka daitekeela. Une hartan gehien presionatzen zuen beharrian politikoetako bat kontzertu erlijioso bat zen, iraultzak eta direktorioak utzitako kaosa argituko zuena eta milioika bihotzetara bakea eramango zuena. Hori Napoleonek maisu-kolpe batzuen bitartez lortu zuen, zeinak gailurtu baitziren aitasantuen konkordatoan (1801) eta «Artikulu organiko»etan (1802), zeinek adiskidetu ezinezkoa adiskidetu, hain zuzen ere, kultu erlijiosoari behar adinako askatasuna eman baitzioten, aldi berean estatuaren autoritatea indarrez mantenduz. Halaber, Eliza Katoliko frantsesa berrantolatu eta birfinantzatu ere egin zuen, klero «konstituzional»aren auzi delikatua ebatzi zuen eta ordenazio berria era faboragarrienean abiarazi zuen ahalik eta frikzio gutxienezekin. Herri baten nahi espezifikoari eragingorki erantzuten dion neurri politikorik inoiz izan bada, ordenazio horrek historia-ko adibiderik hoberenetako bat ematen du. Horrek nabaria izan behar du garai hartako Frantziaren egitura klasista begisten duen ororentzat, eta erabat berretsiko da eraentza kontsularrak ia unibertsalki izan zuen sona izaten eliz politika horrek nabarmen lagundu izateak, baina zaila da ikusten emaitza hori nola lor zitekeen era demokratikoan. Elizaren aurkako sentimendua ez zegoen hilik eta ez zegoen inondik ere jakobino menderatuengana mugaturik. Konbikzio horretako pertsonak, edo horien gidariek, ezin zuten hedadura horretako konpromiso bat inola ere kontzertatu⁵. Eskalaren beste muturrean sentimendu katoliko amorratuzko olatu indartsu bat ari zen hedatzen laster batean.

Sentimendu hori partekatzen zutenak, edo beren borondate onaren baitan zeuden gidariak, ezingo ziren gelditu Napoleonen mugan; batez ere, ezingo zuten hain irmoki Aulki Santuarekin tratatu, zeinarentzat ez baitzen, gainera, inolako arrazoirik izango gauzak hartzen ari ziren jitearen aurrean amore emateko. Eta nekazarien nahia, zeinek ezer baino lehen beren apaizak, elizak eta prozesioak nahi baitzituzten, inhibititu egingo zen lurraren arazoaren soluzio iraultzailea arriskuan jar zitekeelako beldur oso naturalarengatik, apaizeria –apezpi-kuak bereziki– berriro aulkian egon bezain laster. Auzia demokrati-koki konpontzeko edozein ahaleginen emaitza gertakorrena estaka-mendu edo borroka amaigabeko egoera izango zatekeen, gero eta haserre handiagoa sorraraziko zuena. Baina Napoleonek arrazoibidez ebatzi ahal izan zuen, hain zuzen ere talde horiek guztiek, akordio propioz beren ikuspuntuak abandonatzeko gai ez zirenek, ordenazioa onartzeko gaia eta nahia bazituztelako, baldin eta ordenazio hori ezar-tzen bazitzaien.

Hori ez da, noski, adibide bakartu bat⁶. Epe luzera herriaren-tzat asegarriak agertzen diren emaitzak, oro har, *herriarentzako* gobernuaren proba bat eratzen badute, *herriak egindako* gobernuak, demokraziaren teoria klasikoak kontzebitzen zuenez, sarritan hura asetzeari utzi egingo lioke.

III Giza Izaera Politikan

Oraindik erantzuteko daukagu boto-emaileen nahi-izateen ziurtasuna eta independentziari, gertakariak behatu eta interpretatze-ko duten ahalmenari eta bien ondorio arrazionalak era argi eta bizko-rrean deduzitzeko duten gaitasunari buruzko auzia. Gai hori «Giza izaera politikan» izenburutzat leukakeen psikologia sozialeko kapitu-lu bati dagokio⁷.

Joan mendearen bigarren erdian unitate homogeen giza giza nortasunaren ideia eta nahi zehaztuaren ekintzaren lehen higiarazle gisa, gero eta gehiago ilaunduz joan da, Théodule Ribot eta Sigmund Freuden garaiak baino ere lehenago. Bereizki, ideia horiek baztertuz joan dira zientzia sozialen alorrean, zeinean gure portaerako arrazoiaz kanpoko elementuek edo irrazionalek gero eta arreta handiagoa har-tzen baitute, Paretoren *Traité de Sociologie* testigatzen duenez.

Arrazionaltasunaren aurka metatu diren froga askoren artetik bi baka-
rrik aipatuko ditut.

Bata –nahiz eta gero askoz lan arretatsuagoa bat egin den–
Gustave Le Bon, jendetzen psikologiaren (*Psychologie des foules*)
lehen sortzailea edo gutxienez aurkezle efektiboa izan zenaren izena-
rekin asoziatzen jarrai daiteke⁸. Mordotzearen eraginpean giza porta-
eraren errealitateak agerian jartzean, nahiz eta bapikatuz –batez ere,
kitzikapen-egoera batean balazta moralak eta pentsatu eta sentitzeko
modu zibilizatuak supituki desagertzea; bulkada primitiboen infanti-
lismoen eta joera kriminalen supituko erupzioa–, mundu guztiak eza-
gutzen zituen baina inork ikusi nahi ez zituen parte txarreko gertaka-
rien aurrez aurre jarri gintuen, eta horrekin kolpe latza eman zion giza
izaeraren kontzepzioari, zeinean oinarritzen baitzen demokraziaren
teoria klasikoa eta iraultzei buruzko sineste herritar demokratikoa.
Zalantzarik gabe zer asko ugari dago Le Bonen ondorioen oinarri fak-
tikoaren estutasunaz, zeina, adibidez, ez baita batere ongi moldatzen
jendetza ingeles edo angloamerikarraren portaera normalera.
Kritikariek, psikologia sozialaren abar hori begiko ez zutenek batik
bat, ez zioten horren puntu ahulei etekina ateratzeari utzi. Baina, bes-
tetik, ez da ahaztu behar jendetzen psikologiako fenomenoak ez dau-
dela inondik ere hiri latindar bateko kale meharretan pil-pilean dauden
jendailetara mugaturik. Parlamentu orok, batzorde orok, hirurogeitaka
urte dituzten dozena bat jeneralez osaturiko gerra-kontseilu orok jen-
dailaren kasuan hain argi eta garbi agertzen diren ezaugarrietakoren
bat erakusten du, nahiz eta era bigunduan izan hori, batez ere eran-
tzukizun-zentzu murriztu bat, energia intelektualeko maila behereago
bat eta eragin estra-logikoetarako sentsibilitate handiago bat. Gainera,
fenomeno horiek ez dira jendetza batera mugaturik geratzen, jende
askoren metatze fisikoaren zentzuan. Egunkari-irakurleek, irati-
entzuleek, alderdi bateko kideek egundoko erraztasuna dute jendetza
psikologiko bihurtzeko eta frenesi-egoera horretara iristeko, zeinean
argumentatze arrazional-ahaleginak animalia espirituak biziaraztea
besterik ez baitu egiten.

Aipatzera noan froga desliluratzaillearen beste iturria askoz
apalagoa da: horri ez dario odolik; zentzugabekeria bakarrik dario.
Ekonomialariak, gertakariak era zehatzagoan behatzen ikastea, aur-
kitzen hasi dira kontsumitzaileak, eguneroko bizitzaren ekintzarik

arruntenetan ere ez direla erabateko adostasunean bizi izaten ekonomiako testuliburuek haietaz izan ohi zuten ideiarekiko. Alde batetik, horien beharrianak doi-doi daude definituak eta beharrian horieki-ko haien ekintzak doi-doi dira arrazionalak eta bizkorrak. Bestalde, hain dira sentikorrak propagandaren eraginarekiko eta beste pertsuasio-metodo batzuekiko, non sarritan ekoizleek diktatzen dietela beren nahia baitirudi horiek haiei aginduak eman beharrean. Arrakasta-propagandaren teknika bereziki irakasgarria da. Egia da ia beti dagoela arrazoiari egindako deia. Baina baieztapen soil, sarritan errepikatu batek argudio arrazionalak baino pisu handiagoa du, eta gauza bera gertatzen da subkontzienteari egindako eraso zuzenarekin ere, zeinak sarritan hartzen baitu asoziazio atseginak oroitarazte- eta kristalizatze-ahaleginen era, izaera guztiz estra-arrazionala duena eta, sarri askotan, sexuala.

Ondorioa, nahiz eta begi-bistakoa, kontuz deduzitu behar da. Sarritan errepikatzen diren erabakien joaira arruntean norbanakoa esperimentu faboragarri eta desfaboragarrien eragin osasungarri eta arrazionalizatzailearen mendean dago. Zio eta interes sinple eta bate-re arazotsuak ez direnen eraginpean ere badago, zeinek noizean behin bakarrik kitzikapenengatiko perturbazioak jasaten baitituzte. Historikoki kontsumitzaileek oinetakoarekiko zuten desira baliteke, partez behintzat, zapata erakargarriak eskaintzen zizkien eta haien propaganda egiten zuen ekoizle baten ekintzak taxutua izatea; hala ere, edozein unetan benetako beharrian bat da, zeinaren beharra «oro harreko zapatez» haratago hedatzen baita, eta zeinaren esperimentazio luzatuak jatorriz inguratu bide dituzten irrazionalkeria asko kendu baitizkio⁹. Gainera, zio sinple horien pizgarritz, kontsumitzaileek ikasi egiten dute gauza batzuetan (etxeetan, automobiletan) aditu inpartzialen aholkuaren arabera jokatzeko, eta berak bihurtzen dira aditu beste batzuetan. Ez da egia, besterik gabe, etxekoandreei ziria erraz sartzen zaienik jaki-auzietan, etxeko erosgai *ezagunetan* eta jantzietan. Eta saltzaile orok eskarmentu propioz dakienenez, horietako gehienek behin eta berriz nahi duten erosgaia eskatzen dute, beren ideiatik aldendu gabe.

Hori oraindik modu nabariagoan ageri da ekoizleen aldetik behatzen bada. Zalantzarik ez dago fabrikatzaile bat nagia izan daitekeela, aukera komertzialen epaile txarra edo ezgaia beste kausaren

batengatik.; baina bada mekanismo eraginkor bat eraberriarazi edo ezabatuko duena. Taylorismoa, izatez, gizakiak esku-eragiketak milaka urteetan burutu ditzakeelakoan datza eta, guztiarekin ere, eragin-kortasunik gabeko modu batean egiten jarrai dezakeelakoan. Baina ez ahalik eta arrazionalkien jarduteko asmoa ez eta arrazionaltasun handiagoranzko presio iraunkorra jar daitezke zalantzan, zeinahi delarik ere begietsiko dugun jarduera industrial edo merkantileko maila¹⁰.

Eta horrela gertatzen da bere errealitatearen zentzu bete batekin hiritar banakoaren gogamenak besarkatzen duen alor txikiaren barruan sartzen diren eguneroko bizitzako erabaki gehienekin. *Grosso modo*, berarekin, familiarekin, negozioekin, zaletasunekin, adiskide eta etsaiekin, udal edo auzategiarekin, klasearekin, elizarekin, kide duen sindikatua beste edozein talde sozialekin zuzenean zerikusia duten gauzak besarkatzen ditu, hau da, bere behaketa pertsonalaren pean dauzkan gauzeekin, ezagunak zaizkion gauzeekin bere egunkariak esaten dionaz aparte, berak zuzeneko eragina edo kudeaketa duen gauzeekin, eta zeinentzat garatzen baitu erantzukizun gisako bat, zeina sortzen baitu jarraitutako portaera-lerroaren eta horren efektu faboragarri edo desfaboragarrien arteko erlazio zuzen osoak.

Beste behin errepikatzen dugu: pentsamenduko eta ekintzako zehaztasuna eta arrazionaltasuna¹¹ ez ditu gizakiekiko eta gauzekiko familiartasun horrek, ez eta errealitatearen zentzu eta erantzukizun horrek ere. Horretarako sarritan betetzen ez diren beste baldintza batzuk izango lirateke beharrezko. Adibidez, belaunaldiz belaunaldi jasan daiteke higiene-gaietan portaera irrazional batengatik eta, hala ere, norbere sufrimenduak aztura kaltegarriekin harremanetan jartzea ez lortu. Harreman hori ezartzen ez den bitartean, ondorio objektiboek, oro erregularrak izanik ere, ez dute sortuko, noski, esperientzia subjektibo bat. Horrela izugarri zaila gertatu izan da Gizadiarentzat kutsaketaren eta epidemien artean dagoen erlazioaren ezagutzara iristea: guri ukaezina iruditzen zaigun argitasunez seinalatzen zuten gertakariak; hala ere, XVIII. mendearen bukaeran medikuek ez zuten ia ezer egiten gaixotasun kutsakorrek, hala nola elgorriak edo baztangak jotako pertsonak besteekin ukipenean egotea eragozteko. Eta suposatu behar da gauzek oraindik okerragoak izan behar dutela gaitasunik eza bakarrik ez dagoenean, baizik erlazio kausalak berrezagutzeko higuina ere bai, edota horiek berrezagutzearen aurka borroka egiten duten interesak.

Guztiarekin ere, ezartzen diren mugakizunak gorabehera, denentzat dago, ikusmuga zabalago baten barruan, alor mugatuago bat –zeina nabarmen desberdintzen baita hedaduraz, talde eta norbako desberdinen arabera, eta gune zabal batek areago mugaturik dago lerro fin batek baino–, zeina bere errealitatearen zentzuz edo familiartasunez edo erantzukizunez bereizten baita. Eta alor horrek nahi-izate banako zehaztu samartuak hartzen ditu. Horiek batzuetan ez-inteligenteak, meharrrak eta egoistak irudi dakizkiguke, eta gerta liteke garbi ez egotea denontzat zergatik, erabaki politikoetara iritsi behar denean, horren aldareei kultua eman behar zaienean, eta oraindik gutxiago zergatik sentitu behar dugun behartuak unitate bat bezala horietako bakoitza zenbatzea eta inor ez unitate bat baino gehiago. Hala ere, herriaren nahiari kultua ematea erabakitzen badugu, gutxie-nez, ez dugu aldarea hutsik aurkituko¹².

Alabaina, nahi-izateen zehaztasun konparatibo hori eta portae-raren arrazionaltasun hori ez dira bat-batean desagertzen, etxean eta negozioetan, hezten eta diziplinatzen gaituzten eguneroko bizitzako kezketatik aldentzean. Negozio publikoen erresuman sektore batzuk irisgarriago gertatzen diren hiritarraren gogamenarentzat beste batzuk baino. Hori, lehenik, tokiko arazoei zaie aplikagarri. Baina hor bertan ere gaitasun mugatua aurkitzen dugu gertakariak bereizteko, horien arabera jokatzeko prestutasun mugatua, erantzukizunaren zentzu mugatua. Guk guztiok ezagutzen dugu gizakia –sarritan oso eredu ona– tokiko administrazioa ez dela bere gauza dioena eta sorbaldak uzkuratzen dituen bere bulegoan jasan baino lehen hil nahiago lukeen praktiken aurrean. Hautesleen edo zergadun banakoen erantzukizuna predikatzen duten espiritu jaso eta aldarte gomendatzaileko hiritarrek hutsik egin gabe aurkitzen dute hautesle edo zergadun hori ez dela erantzule sentitzen tokiko politikariek egiten dutenaren aurrean. Guztiarekin ere, tokiko abertzaletasuna oso faktore garrantzitsua izan daiteke «demokraziaren funtzionamendu»rako, batez ere kontaktu pertsona eragozteko bezain handiak ez diren komunitateetan. Aspektu askotan hiri baten arazoei *concern* industrial batenekin ahaidetasuna dute. Azken horiek ulertzen dituen gizakiak lehenak ere ulertzen ditu gradu bateraino.

Fabrikatzaileak, dendariak edo langileak ez dute beren mundu-tik irten beharrik arrazionalki iritzi defendagarria (zuzena edo okerra

izan daiteke noski) izateko kaleen garbiketari edo merkatuen kokaguneari buruz.

Bigarrenik, kontrobertsia nazional ugari dago, norbanako eta taldeekin zerikusi hain zuzen eta ukazina duena, non horiengan nahi izate perfektuki benetako eta zehaztuak sorraraz ditzaketen. Adibide garrantzitsuena berekin abantaila diruzko eta pertsonala daramaten neurriak dira hautesle banakoentzat eta hautesle-taldeentzat, hala nola ordainketa zuzenak, muga-zerga babesleak, zilarren babes-politika, eta abar. Antzinakoa den esperientzia batek erakusten du hautesleek ia beti era zurrun eta arrazionalen erreakzionatzen dutela gisa horretako aukeraren aurrean. Hautesleek horiekin erakusten dute epaile txarrak direla eta ustelak ere bai horrelako auzietan¹³ eta sarritan erakusten dute epaile txarrak direla epe luzeko beren interes propioetan, zeren epe laburreko promesa bakarrik hartzen baitute aintzakotzat politikoki eta epe laburreko arrazionaltasuna baita benetan gailentzen dena.

Hala ere, familia eta bulegoko ardueratatik urrundu eta nazio-eta nazioarte-mailako negozioetan, ardura pribatu haiekin lotura zuzen eta ukazina ez dutenetan barrentzen garenean, nahi izate bana-koek, gertakarien ezagutzak eta inferentzia-metodoek laster uzten diote teoria klasikoak egozten dien zeregina izateari. Horretan guztian gehien harritzen nauena, eta arazo guztien muintzat dela uste dudana errealitatearen zentzua hain erabat galdu izana da¹⁴. Eskuarki, auzi politiko handiek partekatu egiten dute beren lekua, hiritar petoaren ekonomia espiritualean, zaletasun-mailaraino iristen ez diren aisi-orduetako intereseekin eta arduragabeko berriketagaiekin. Gauza horiek badirudi hemen lekuz kanpo daudela; ez dira negozio-proposamen baten antzeko ezer; baliteke arriskuak inondik ere ez mamitzea eta, mamitzen badira, ez lirateke larriegiak izango; hiritar, barrenean, badu fikziozko mundu batean mugitzearen inpresioa.

Errealitatearen zentzu mugatu horrek ez du erantzukizunaren zentzu mugatua bakarrik azaltzen, baita nahi-izate efektiboen falta ere. Bakoitzak ditu, noski, bere esaldi propioak eta desirak eta ametsak eta kexa propioak; batez ere bere hobespen eta higuinak ditu. Baina eskuarki hori ez da nahi bat deitzen duguna, hau da, ekintza arduratsu eta bere helburuaz kontzientearen kontrapartida psikikoa. Izan ere, gai nazionalen hausnarketan ari den hiritar partikularrentzat ez dago nahiarentzat lekurik ez eta egin dezakeen edozein ataza-

rentzat ere. Funtzionatzeko gai ez den batzorde bateko kide da, nazio osoak eraturiko batzordearena, eta horregatik ahalegin diziplinatu gutxiago inbertitzen du arazo politiko bat menderatzen bridge-partida batean baino¹⁵.

Erantzukizun-zentzua ahultzeak eta nahi izate efektiboen faltak azaltzen dute, bestalde, hiritar arruntaren ezjakintasun hori eta politika nazional eta atzerriarreko arazoetan zentzu-falta hori, zeinak harrigarriagoak baitira, hori harritzeko modukoa bada, pertsona ikasien eta politikaz aparteko bizitzako egoeretan arrakastarekin jokatzten duten pertsonen kasuan pertsona gutxi ikasien eta jatorri apaleko pertsonen kasuan baino. Pribilegiatu horiek informazio ugari eta errazki eskuragarriaren jabe dira. Baina abantaila horrek badirudi ez diela ezertarako balio, eta ez dugu horregatik harritu ere egin behar. Aski dugu abokatu batek bere txostenean duen jarrera eta abokatu horrek berak bere egunkariak aurkezten duen egoera politikoaren aurkezpenen aurrean duen jarrera erkatzea nola moldatzen den ikusteko. Lehen kasuan, abokatua gaiturik dago gertakarien munta juridikoa prezatze-ko bere helburuaz kontziente interesaren pizgarri zehaztuaren pean bere konpetentzia profesionalean egindako urteei esker; eta indar gutxiago ez duen pizgarri baten pean kontzentratzen ditu bere ezagutzak, bere endelgua eta bere nahia txostenaren edukian. Bigarren kasuan, ez du hartu bere burua gaitzeko nekerik; ez da informazioa digeritzeaz ez eta hain ongi maneiatzen dakien kritikaren kanonak ezartzeaz arduratzen, eta egonarrria galtzen du argumentazio luze edo konplikatuaren aurrean. Horrek guztiak agerian jartzen du, erantzukizun zuzenak garatzen duen ekimenik gabe, iraun egingo duela ezjakintasun politikoak, nahiz eta publikoa informazio ugari eta osoagoaren jabe izan. Iraun egiten du, hitzaldien, eskolen eta eztabaida-taldeen aurkezpenaz haratago joateko egiten diren ahalegin meritudunak gorabehera. Emaitzak ez dira hutsak, baina urriak dira. Ez dago jendea eskaileran gora eramaterik.

Horrela, bada, hiritar normala jaitsi egiten da prestazio mentaleko maila beheerago batera politikaren alorrean sartu orduko. Berak ere, bere interes efektiboen esferaren barruan baleuka, haur batena dela esango lukeen eran argudiatzen eta analizatzen du. Berriro primitibo bihurtzen da¹⁶. Bere pentsamendua asoziatibo eta efektibo bihurtzen da. Eta horrek berekin beste bi ondoren deitoragarri dakartza.

Lehenik, hiritar arruntarengan eragiten ahaleginduko liratekeen talde politikorik ez balego ere, horrek, auzi politikoa, aurreiritzi eta bulkada estrarrazional edo irrazionalen mende bere buruan jartzera joko luke. Berak politikari aplikatzen dion prozesu arrazionalaren ahultasuna eta iristen den emaitzen domeinu logiko efektiboaren gabezia aski lirateke berez hori azaltzeko. Gainera, «horretan ez da inor» kontsiderazio soilarengatik erlaxatu egingo ditu ohiko bere eskakizun moralak eta bizitza pribatuko baldintzek erreprimitzen lagunduko dioten bulkada ilunen aurrean amore emango du. Baina bere inferentzia eta ondorioen irizpide on edo arrazionaltasunari dagokienez hori sumin bihotz-zabalezko eztanda baten mende erortzea bezain txarra izan daiteke. Horrek oraindik zailago jarriko lioke gauzak beren proportzio egokietan ikustea eta aldi berean gauza baten aspektu bat baino gehiago are ikustea. Hortik dator, bere ohiko lausotasunetik irteten bada eta demokraziaren teoria klasikoak postulatzen duen nahi zehaztua erakusten badu, oso gertakorra izatea ohikoa den baino ez-inteligente eta arduragabeagoa izatea. Abagune batzuetan fatala gerta dakioke haren herrialdeari¹⁷.

Bigarrenik, hala ere, zenbat eta ahulagoa izan elementu logikoa iritzi publikoaren erakuntzan, eta zenbat eta osoagoa kritika arrazionalaren absentsia eta esperientzia pertsonalaren eta erantzukizunaren eragin arrazionalizatzailearena, hainbat handiagoak dira xede interesatuak jazartzen dituzten taldeentzako abaguneak. Talde horiek politikari profesionalez eratuak egon daitezke, edo interes ekonomiko baten defendatzailez, edo gisa bateko edo besteko idealistaz, edo eszenan jarri eta antzezpen politikoak gidatzeaz besterik gabe interesturiko pertsonaz. Talde horien soziologia muntagabea da oraingo argudio honetarako. Hemen interesatzen den puntu bakarra da, den bezalakoa izaki giza izaera politikan, herriaren nahia taxutu eta muga oso zabal batzuen barruan sortzeko ere gai direla. Prozesu politikoak aztertzean behatzen dugun nahia ez da hurrik eman ere benetako nahia, nahi fabrikatua baizik. Eta sarritan artefaktu hori teoria klasikoko *volonté générale*ari dagokion bakarra da. Hori horrela den heinean herriaren nahia produktua da eta ez prozesu politikoaren indar bultzatzailea.

Arazoak eta herri-nahia edozein arazori buruz manufakturatzeke erabiltzen diren moduak merkataritza-publizitatean erabiltzen

diren moduen oso antzekoak dira. Horietan azpikontzientearekin kontaktuan jartzeko ahalegin berak aurkitzen ditugu. Elkarre faboragarri eta desfaboragarriak sortzeko teknika bera aurkitzen dugu, zeinak eraginkorragoak baitira zenbat eta arrazionaltasun gutxiagoak izan. Ihesbide eta erretizentzia berak aurkitzen ditugu eta trikimailu bera konbentzimendu bat sortzeko baieztapen errepikatuen indarrez, zeinek hain zuzen ere arrakasta izaten baitute argumentazio arrazionala ekiditen duten heinean, herriaren ahalmen kritikoak iratzartzeko mehatxua egingo bailukete. Eta horrela behin eta berriz. Bakarrik traba horiek guztiek amaigabeki helmen handiago dute negozio publikoen esferan bizitza pribatu eta profesionalean baino. Inoiz izan den neskabila ederrenaren erretratua inoiz ez da eraginkortasunik gabea gertatuko luzera zigarro txar baten salmentei eusteko. Erabaki politikoen kasuan ez dago salbagoardia hain eraginkorrik. Garrantzi makurreko erabaki asko halako jitekoak dira, non ezinezko egiten baitio publikoari haiekin esperimenduak egitea bere aisialdian eta kostu txiki samar batekin. Nahiz eta hori ahalgarri izan ez da erraza, hala ere, oro har judizio batera iristea, zigarroaren kasuan bezala, efektuak zailtasun gutxiagokoak baitira interpretatzen.

Baina artifizio horiek biziatu egiten dituzte arrazoiraz zuzentzen direla aldarrikatzen duten propaganda politikoen forma haiek, merkataritza-propagandaren alorrean erabat ezezaguna den hedadura batean. Behatzailearentzat, dei anti-arrazionala, edozein kasutan, estra-arrazionala, eta biktimak horrekiko duen babesgabezia argitasun handiagoz nabarmentzen da dei hori gertakarien eta argudioen atzean estalirik dagoenean. Ikusi dugu gorago zergatik den hain zaila informazio inpartzial bat publikoaren artean barreiatzea arazo politikoei buruz eta haren inferentzia logikoki zuzenak eta zergatik arazo politikoei buruzko informazio eta argudio horiek hiritarraren ideia aurrekontzebituekin bat datozenean bakarrik «aintzakotzat hartzen diren». Oro har, hala ere, ideia horiek ez dira behar bezain zehaztuak ondorio bereziak determinatzeko. Horiek beroriek fabrikatuak izan daitezkeen gero, argumentazio politiko eraginkorrak ia ezinbestez inplikatzeko du dauden nahi izatezko premisak moldeatzeko ahalegina era berezi batean eta ez horiek osatzeko edo hiritarrari bere iritzia eratzeko laguntzeko ahalegina bakarrik.

Horrela, bada, gertakorrena da froga ezeztazentzat aurkezten diren informazioa eta argudioak asmo politiko baten zerbitzuan egoitea. Gizakiak bere idealarengatik edo bere interesarengatik egiten duen lehena gezurra esatea denez gero, espero izatekoa da, eta izatez hala aurkitzen dugu, gai politikoan informazio eraginkorra ia beti adulteraturik edo hautetsirik dagoela¹⁸, eta arrazoiketa eraginkorra baieztapen halako batzuk axioma-duintasunera goratzen eta zerrendatik beste batzuk ezabatzen saiatzean datzala nagusiki, eta hori horrela gorago aipatutako psikotekniara murrizten da. Arrazoigabe ezkorra naizela uste duen irakurleak bere buruari galdetu besterik ez du ea entzun duen ala ez noiz edo noiz –edo berak esan duen– hone-lako edo halako gertakari trabagarri ez dela esan behar jendaurrean edo arrazoiketa-lerro halako bat, nahiz eta baliozkoa, ez dela nahigarria. Baldin eta gizakiek, erabat ohoragarriak eta espirituko jasoak direnak horren inplikazioekin bat egiten badute, ez al dute horrekin erakusten zer pentsatzen duten merituez edo herri-nahiaren existentziaz beraz ere?

Jakina, badira mugak horrentzat guztiarentzat¹⁹. Eta badu egearik Jeffersonek esandako hark azken finean herria inteligenteagoa dela norbanakoa izan daitekeena baino, edo Lincolnek esandakoan «herri oso bat beti engainaturik edukitzearen» ezintasunaz. Baina bi esanek arazoaren epe luzeko aspektua azpimarratzen dute era adierazgarrian. Ez dago zalantzarik argudia daitekeela, *psyche* kolektiboari denbora emanaz, bere izaera guztiz arrazoigarriarengatik eta bere zuhurtziarengatik ere harrituko gaituzten iritziak garatuko dituela. Hala ere, historia jazoeren joaira betiko alda dezaketen epe laburreko egoeren suzesioa da. Baldin eta epe laburrean mundua guztia «engaina» eta errealki nahi ez duen zerbaitera pixkanaka gida badaiteke, eta hori ez bada jaramonik egin gabe pasa dezakegun salbuespeneko kasu bat, orduan atzera-begirako zentzu komunezko ezein kantitatek ez du aldatuko, izatez, herriak kontrobertsiak planteatu eta erabakitzen ez dituelakoa, baizik eta auzi horiek, horren destinoa determinatzen dutenak, herriarentzat planteatzen eta determinatzen direla eskuarki. Demokraziaren maitaleak, inork baino gehiago, arrazoi osoa du gertakari hori onartzean eta horrela bere kredoa engainu baten gainean oinarriturik dagoelako zipriztinetatik garbitzean.

IV Teoria Klasikoaren Iraupenaren Arrazoiak

Baina nola liteke gertakariekiko hain ageriki kontrakoa den teoriak gure egunotara arte bizirik irautea eta bere lekua izaten jarraitzea herriaren bihotzean eta gobernuen hizkuntza ofizialean? Kontra egiten dioten gertakariak denok ezagutzen ditugu; mundu guztiak eza-gutzen ditu argi eta garbi eta era zinikoan sarritan. Horren oinarri teorikoa, arrazionalismo utilitarista, hilik dago; inork ez du onartzen gorputz politikoaren teoria zuzentzat. Hala ere, galdera hori ez da erantzuten zaila.

Lehenik, ekintza kolektiboaren teoria klasikoa analisi enpirikoaren emaitzez bermatzerik ez badago ere, jadanik ohartarazi dudan fede erlijiosoarekiko asoziazio hark bortizki zurkaizten du. Hori baliteke begi-bistakoa ez izatea lehen begiratuan. Utilitarismoaren maisuak edozer ziren, erlijiosoak izan ezik, esamoldearen ohiko zentzuan. Izan ere, anti-erlijiosotzat zeuzkaten beren buruak, eta horrela kontsideratzen zituzten ia unibertsalki. Harro zeuden beren jarreraz, hain zuzen ere ez-metafisikoa zela uste baitzuten, eta ez zieten inolako begikotasunik beren garaiko instituzio erlijiosoei eta mugimendu erlijiosoei. Baina aski dugu beste begirada bat ematea prozesu sozialaz egin zuten koadroari kristautasun protestantearen fedearen ezaugarri esentzialak zituela aurkitzeko, eta, izatez, haien doktrina fede horretatik zetorrela. Erlijioa alde batera utzia zuten intelektualei kredo utilitaristak haren ordezkioa ematen zien. Beren fede erlijiosoa gorde zuten askorentzat teoria klasikoa haren osagarri bihurtu zen²⁰.

Erlijioaren kategorietan zeharraldaturik, teoria horrek –eta, ondorioz, hartan oinarritzen den konbikzio demokratiko gisako horrek– izaera bera aldatzen du. Dagoeneko ez dago gelditu beharrik «guztien ongia»ri eta «azken balio»ei buruzko eskrupulu logikoen aurrean. Hori guztiak Kreatzailearen planak ematen digu, zeinaren asmoa definitzen eta santzionatzen baitu. Lehen zehaztugabea eta zio-gabea zirudien guztia bat-batean perfektuki zehaztu eta konbentzigarria da. Herriaren ahotsa, adibidez, orain Jainkoaren ahotsa da. Edo har dezagun berdintasuna. Horren esanahi zehatza zalantzakor geratzen da eta ia ez dago justifikazio arrazionalik postulatu gisa goratzeko analisi enpirikoaren esferan mugitzen garen heinean. Baina Kristandadeak elementu berdinzale bortitza du bere baitan. Salbatzaileaa denen alde

hil zen; Hark ez zuen bereizkeriarik egin estatus sozial desberdineko norbanakoen artean. Horrela jokatzeari arima banakoak bere baitan duen balioa, gradaziorik onartzen ez duen balioa testigatu zuen. Eta hori ez al da –eta nire iritziz, santzio ahalgarri bakarra²¹– «bakoitzak baten balioa du: inork ez du bakarraren balioa baino gehiago» formularen santzioa, beste bat aurkitzea erraza ez zaieneztat kreda demokratikoaren artikuluetan esanahi lurraz gaindikoa isurtzen duen santzioa? Interpretazio horrek ez du hartzen, jakina, eremu osoa. Hala ere, iristen den tokiraino badirudi gauza asko azaltzen dituela bestela azaldu gabe geratuko lirakeenak eta, izatez, zentzurik gabe. Bereiziki, sinestunak kritikaren aurrean duen jarrera azaltzen du; berriro, sozialismoaren kasuan bezala, oinarritzko disidentzia ez da soilik errore huts gisa kontsideratzen, bekatu gisa baizik; kontra-argudio logiko baten kausa hutsa ez ezik, sumin moralarena ere bai.

Beste era batera planteatu dezakegu geure arazoa, eta esan demokrazia, horrela bultzaturik dagoenean, metodo soila, lurrin-makina bat edo desinfektakari bat bezala arrazionalki eztabaida daitekeena izateari uzten diola. Izatez, beste ikuspuntu batetik bihurtzea ezinezko zitzaien zerbait bihurtu dela baieztatu dut, hau da: ideal bat eta areago gauzen ordena ideal baten atala. Hitz bera bihur daiteke bandera, gizakiarentzat maiteena den guztiaren sinbolo, bere nazio maite duen guztiarena, bi gauzen artean lotura arrazional bat egon ala ez. Alde batetik, politikako gertakariak zer puntutaraino kreda demokratikoan dauden proposamen desberdinekin bat datozen, hain muntagabe bihurtzen da demokratearentzat nola den sinestun katolikoarentzat Alexandro VI.aren portaera aitasantugoa inguratzen duen naturaz gaindiko aureolarekin zer eratara adiskidetzen den. Bestetik, gisa horretako demokratek nahiz eta berdintasuna eta senidetasunaz inplikazio garrantzitsuak beren baitan dituzten postulatuak onartu, bere portaera propioak edo bere posizio propioak sor ditzakeen aipaturiko proposizioen desbideratze ia guztiak egiaztatzen osoz onartzeko egokian ere egongo da. Hori ere ez da logikoa. Errealitateetik bereizten dituen distantzia soila ez da inolako argudioa agindu etiko baten edo itxaropen mistiko baten aurka.

Bigarrenik, kontuan izan behar da demokrazia klasikoaren erak eta esaldiak nazio askorentzat beren historiako jazoera eta bilakaerei asoziatuak daudela, zeinak gehiengo handiek suharrez onar-

tzen baitituzte. Ezarritako eraientza batekiko oposizioak baliteke era eta esaldi horiek erabiltzea, zeinahi direlarik ere horien esanahia eta horien sustrai sozialak²². Oposizio hori garaile gertatzen bada eta horren ondorengo garapenak asegarri, era horiek ideologia nazionalen errotuko dira.

Estatu Batuak dira ideia-asoziazio horren adibiderik ohargarriena. Estatu soberano gisa bere izatea bera Ingalaterra monarkiko eta aristokratikoaren aurkako borroka bati asoziatu dago. Errealisten gutxiengoa salbuetsirik, Grenvilleren administrazioaren garaian, amerikarrek, segur aski, ordurako utzita zeukaten monarka ingelesa *beren* Erregetzat kontsideratzea eta aristokrazia ingelesa *beren* aristokraziatzat. Independentziako Gerran monarka atzerritar eta aristokrazia atzerritar egitez eta *beren* sentimenduen arabera bihurtu zenaren aurka borrokatu ziren, zeinek haien politikan eta haien interes ekonomikoetan eskua sartzen baitzuten. Turbulentzien aurreko estadio batetik hasita aurkeztu zuten *beren* gudua, errealki nazionala zena, «menderatzaile»-en aurkako «herri»-aren gudu bat bezala Gizakiaren Eskubide Besterenezinen gainean oinarrituz eta demokrazia klasikoaren printzipio orokorren argitan. Independentziaren eta Aldarrikapenaren eta Konstituzioaren testuak printzipio horiek onartu zituzten. Garapen mirarizko bat etorri zen horren ondoren herriaren gahiengoa hurrupatu eta ase zuena, zeinak horrekin nazioaren dokumentu sakratuetan baltsamoturiko teoriaren oinarri ona egiaztatu ahal izan baitzuen.

Oposizioek nekez lortzen dute garaipena talde menderatzaileak *beren* botere eta *beren* arrakastaren gailurrean daudenean. XIX. mendearen lehen erdian demokraziaren kredo klasikoa profesatzen zuten oposizioak jaiki ziren eta azkenerako gobernuen aurka gailendu ziren, zeinetariko batzuk –Italian bereziki– nabarmen baitzeuden beherakada-egoeran eta jendearen ahotan baitzebiltzan haien ezgaitasun, ankerkeria eta ustelkeria erranairuzkoarengatik. Horrek, jakina, mende egin zion, nahiz eta ez logikoki erabat, kredo demokratikoari, zeina gainera nagusi agertzen baitzen gobernu haiek bultzaturiko superstitzio ilunkeriazkoekin erkatuz gero. Inguruabar horietan iraultza demokratikoak askatasunaren eta gisatasunaren etorrera esan nahi zuen eta kredo demokratikoak arrazoa eta progresuaren ebanjelioa. Jakina,

abantaila hori galtzera beharturik zegoen eta demokraziaren teoria eta praktikaren arteko amildegia aurkitzera. Baina egunsentiaren xarmak luze jo zuen ilauntzen.

Hirugarrenik, ez da ahaztu behar badi-rela sintoma sozialak, zeinetan teria klasikoa efektiboki moldatzen baitzaie gertakariei behar besteko hurbiltze-gradu batekin. Dagoeneko seinlatu dudanez, hori da gizarte txiki eta primitibo askoren kasua, zeinek izatez teoria horren autoreentzat prototipo izan baitzira. Izan liteke primitiboak ez diren gizarteen kasua ere, desberdinduegi ez badaude eta arazo larri-rik beren baitan ez badaukate. Suitza da adibiderik hoberena. Hain gutxi dago eztabaidatzeko nekazari-mundu batean zeinak, hotelak eta bankuak salbuetsirik, ez baitauka bere baitan batere industria kapitalista handirik, eta zeinaren arazo politikoak tan sinpleak eta egonkor-rrak baitira, non espero izatekoa den horiek ulertzea eta horiei buruz ados egotea gehiengo abailgarri batean. Baina ondoriozta badezakegu kasu horietan teoria klasikoa errealitatera hurbiltzen dela, berehalaxe gehitu behar dugu hori horrela bada ez dela erabaki politikoki mekanismo eraginkor bat deskribatzen duelako, baizik eta hartu beharreko erabaki handirik ez dagoelako. Azkenik, Estatu Batuen kasua aipa daiteke berriz ere teoria klasikoa batzuetan gertakariekin bat etortzen dela erakusteko, baita gizarte hain handi eta nabarmen desberdinduan ere, eta zeinean arazo handiak baitaude ebazteko, inguruabar faboragarriek arazo horien pozoia neutralizatzen badute behintzat. Herrialde hori Lehen Mundu Gerran sartu arte iritzi publikoa bere ingurumen propioko ahaltsun ekonomikoen esplotazio-negozioez arduratzen zen nagusiki. Negozio horiek politikak serioski interferitzen ez zituen bitartean hartatik ezer ez zitzaion hiritar ertainari axola, zeinek mespretxu onberaz begiesten baitzituen politikarien zilipurdiak. Sektore batzuk sumin zitezkeen muga-zergengatik, zilarren politikarengatik, tokiko gobernu txarrarengatik edota Ingalaterrarekiko noizbehinkako eztabaidaren batengatik. Herriaren gehiengo handia ez zen politikaz interesatzen, hondamendi nazional larri bateko desakordio-kasu larri bat salbu: Sezesio Gerra salbu.

Eta laugarrenik, jakina, politikariek prezatzen dute masak lausengatzea ahalbidetzen duen eta beren eratzukizunari ihes egiteko ez ezik, herriaren izenean aurkariak nahasteko aukera bikaina eskaintzen dien fraseologia.

XXII KAPITULUA DEMOKRAZIAREN BESTE TEORIA BAT

I Buruzagitza Politikoarengatiko Lehiaketa

Nik uste dut politikaren aztertzaile gehienak dagoeneko deliberratu direla aurreko kapituluaren demokraziaren teoria klasikoari egiten zaion kritika onartzera. Halaber, uste dut horietako ia denak bat datozela, edo laster etorriko direla bat, errealitatetik askoz hurbilago dagoen eta, aldi berean, metodo demokratikoaren defendatzileek esamolde horretaz errealki ulertzen dutenaren naufragiotik asko salbatzen duen beste bat onartzean. Teoria klasikoa bezalaxe, laburki defini daiteke.

Gogoan izango da teoria klasikoari buruzko gure zailtasun nagusiak «herriak» auzi banako bakoitzari buruz iritzi zehaztu eta arrazionala duela eta iritzi hori –demokrazia batean– «ordezkariak» hautatuz, zeinek iritzi hori praktikan jartzeaz arduratu baitira, burutzen duelako baieztapenean zentratzen ziren. Horrela, bada, ordezkarien hautapena, sistema demokratikoaren helburu primarioari, zeina kontrobertsia politikoak erabakitzeko ahalmenaz hautesleria inbestitzea baita, menderatzen zaion sekundarioa da. Demagun bi elementu horien ordena alderantzikatzen dugula eta bigarren lekuan jarzten dugula hautesleriak kontrobertsiak erabakitzea, eta, lehen lekuan, erabakia burutu behar duten gizakiak hautatzea. Hori beste era batean adierazteko orain herriaren zeregina gobernu bat edo tarteko beste erakunderen bat sortzea delako irizpidea hartzen dugu, zeinak, bestalde, exekutibo nazional bat edo gobernua sortuko bailuke¹. Orduan honela definituko dugu: metodo demokratikoa da erabaki politikoetara iristeko sistema instituzionala, zeinean norbanakoek herriaren botoa eskuratzeko borroka lehiakorren bidez erabakitzeko ahalmena lortzen baitute.

Idea horren defentsa eta azalpenak berehala erakutsiko digu progresu handi bat dela prozesu demokratikoaren teoriarekiko, nola bere supostuen egiantzekotasunean hala bere proposizioen sendotasunean.

Lehenik, kontzepzio horrek irizpide arrazionalki eraginkor bat eskuratzen digu, zeinaren bidez bereizi ahal baitira besteak eta gobernu demokratikoak. Dagoeneko ikusita daukagu teoria klasikoak zailtasunak dituela esfera horretan, zeren nola herriaren nahia eta hala haren ongia zerbitza baitaitezke eta adibide historiko askotan hain ongi edo hobeki egin baitute demokratikotzat kalifikaezin daitezkeen gobernuak, termino horretan onaturiko edozein erabilpenen arabera. Orain moduren batean posizio hobean gaude, zeren ukitarri gisa *modus procedendi* bat jaurtitzea erabaki baitugu, zeinaren existentzia edo absentsia egiaztatzen erraza baita kasurik gehienetan².

Adibidez, monarkia parlamentario ingelesak sistema demokratikoaren eskakizunak betetzen ditu, zeren monarka praktikoki beharturik baitago Kabineterako parlamentuak hautatuko zituzkeen pertsona berak hautatzera. Monarkia «konstituzional»a ez dago kalifikaturik bere buruari demokratiko deitzeko hautesleek eta parlamentarioek, nahiz eta parlamentuek eta hautesleriek dituzten gainerako eskubide guztien jabe izan monarkia parlamentarioetan, batzorde gobernatzailearen osarari buruz beren nahiak ezartzeko ahalmenik ez dutelako; kabineteke ministroak kasu horretan monarkaren zerbitzariak dira, nola esentzian hala izenean, eta printzipioz berak kargugabe eta izenda ditzake. Sistema hori asegarria izan daiteke herriarentzat. Hautesleriak berretsi egin dezake gertakari hori aldaketa-proposamen ororen aurka bozkatzuz. Monarka aski herritar izan daiteke magistratura gorenerako lehiakide ororen porrota eragiteko bezainbateko gaitasunarekin. Baina lehiakidetza hori efektibo bihurtzeko mekanismorik ez dagoenez gero, monarkia konstituzionalaren kasua ez da eraentza demokratikoaren gure definizioan sartzen.

Bigarrenik, definizio horren baitako teoria nahi besteko lekua uzten du buruzagitzaren gertakari bitalaren aintzatespen egokirako. Teoria klasikoak ez zuen hori egiten, baizik eta, dagoeneko ikusi dugunez, hautesleriari ekimen-maila erabat irrealak egotzen zion, buruzagitza praktikoki kontuan ez hartzera eramaten zuena. Baina kolektibitateek buruzagitza onartzearen bidez ia eskusiboki jokutzen dute; hori da ekintza kolektibo ororen mekanismo esentziala, zeina erreflexu soila baino zerbait gehiago baita. Metodo demokratikoaren funtzionamenduari eta emaitzei buruzko proposizioak, zeinek kontuan hartzen baitute faktore hori, behartasunez dira amaigabeki errealista-

goak kontuan hartzen ez dutenak baino. Ez dira *volonté générale* baten egikaritzera mugatuko, baizik eta nolabait saituko da erakusten nola eratzen den edo nola ordeztzen den edo nola adulteratzen den hori. Nahi manufakturatua deitu dugun hori jadanik ez da teoria honetatik kanpo geratzen, izan ere jaieraz otoitz egin baikenuen aberrazio hori ezaba zedin; nahi hori, dagokionez, gure erakuntzaren lehen solairu berean sartzen da.

Hirugarrenik, hala ere, benetako talde-nahi izateak dauden bitartean –adibidez, langabeziarengatik laguntza bat hartzeko langabetuek nahia edo beste taldeek adierazitako horiek sorosteko nahia– gure teoriak ez ditu jaramonik egin gabe uzten. Aitzitik, orain zehazki txerta ditzakegu errealitatean betetzen duten eginbeharrean. Nahi-izate horiek ez dira zuzenean baieztatzen, oro har. Nahiz eta sendo eta zehaztuak izan, ezkutatuturik egoten dira, sarritan hamarkadatan, gidari politikoren batek bizitzara dei egiten dien arte, orduan faktore politiko bihurtuz. Hori nahi-izate horiek antolatuz, pizgarrituz, eta, azkenik, horien puntu egokiak hautes-lehiakidetzarako bere egitarauan sartuz egiten du (edo haren agenteek egiten dute beraren ordeztu). Interes partzialen eta iritzi publikoaren arteko elkarrekintza eta horiek egoera politiko deitzen dugun pautaz sortzeko duten modua ikuspuntu horretatik askoz argi berri eta klaruago baten azpian agertzen da.

Laugarrenik, gure teoria ez da, jakina buruzagitzarengatik lehiakidetzaz kontzeptua baino zehatzagoa. Kontzeptu horrek aurkeztu dituen zailtasunak eta esfera ekonomikoko lehiakidetzak dituenak antzekoak dira, zeinarekin modu etekintsuan erka baitaiteke. Bizitza ekonomikoan lehiakidetzaz ez da inoiz erabat falta izaten, baina nekez izaten da perfektua inoiz³. Era antzekoan bizitza politikoan beti dago lehiakidetzaz pixkaren bat, nahiz eta agian potentziala izan, herriaren atxikimenduarengatik. Auzia sinpletzeko, demokrazia definitzeko balio duen lehiakidetzaz-mota, boto askearengatik lehiakidetzaz askearen kasura bakarrik murriztu dugu. Horren justifikazioa da demokraziak badirudiela lehiakidetzaren borrokaren portaerari metodo berrezagutu bat aplikatzea inplikatzeko duela eta hautes-metodoa dela praktikoki ia duten bakarra helburu horretarako edozein tamainatako komunitateek. Baina nahiz eta murrizpen horrek prozedura asko baztertzen dituen buruzagitza lortzeko baztertu beharrekoak⁴, hala nola: errebolta militarren bidezko lehiakidetzaz, ez ditu baztertzen kasu

batzuk harrigarriro antzekoak direnak lehiakidetza «desleiala» edo «iruzurrezkoa» edo lehiakidetza-murritzpen etiketa ezartzen diegun fenomeno ekonomikoekiko. Eta ezin ditugu baztertu, zeren, hori egingo bagenu, demokrazia ideal batera errealitatetik erabat kanpo dagoen batera murritzurik geratuko baikinake⁵. Existitzen ez den kasu ideal horren eta aginpidean ezarritako gidariarekiko lehiakidetza oro indarrez eragotzia den kasuen artean, bariazio-sail jarraitu bat dago, zeinaren barruan gobernu demokratikoaren metodotik autokratikoraino pauso hautemanezinen bidez igarotzen baita. Baina guk nahi duguna filosofatzea ez bada, ulertzea baizik, aitortu beharra daukagu demokraziak izan behar duten bezalakoak direla. Gure irizpidearen balioak ez du kalte larririk hartzen demokrazia-moten desberdintasunarengatik.

Bosgarrenik, gure teoriak badirudi argitu egiten duela demokraziaren eta askatasun indibidualaren artean dagoen erlazioa. Azken horrekin ulertzen badugu autonomia indibidualerako esfera baten existentzia, zeinaren mugak historikoki aldakorrak baitira, *–ezein* gizartek ez du toleratzen askatasun absolutua, ezta kontzientziakoa ez eta pentsamendu-adierazpenekoa ere, *ezein* gizartek ez du murritzten zerora esfera hori–, auzia nabarmen gradu-auzi bihurtzen da. Dagoeneko ikusi dugu metodo demokratikoak ez duela bermatzen derrigor beste metodo politiko batek antzeko inguruabarretan ahalbidetuko lukeena baino askatasun indibidualaren kantitate handiago bat. Baliteke zeharo alderantzizkoa gertatzea. Baina hala ere erlazioa dago bien artean. Baldin eta, printzipioz gutxienez, mundu guztia aske bada buruzagitza politikoarengatik lehiakidetzan sartzeko⁶, hautesleriarengana aurkeztuz, ahalmen hori kasurik gehienetan, nahiz eta ez guztietan, *denentzat* eztabaidatzeko askatasun-kantitate ohargarri bihurtuko da, eta bereziki, kasu normaletan, prentsaren askatasun-kantitate ohargarri. Demokraziaren eta askatasunaren arteko erlazio hori ez da erabat zurruna eta aldatu egin daiteke. Baina, intelektualaren ikuspuntutik, oso garrantzitsua da. Aldi berean hori da erlazio horri buruz esan behar den guztia.

Seigarrenik, ohartu behar da, gobernu baten funtzioa (zuzenean edo tarteko erakunderen baten bidez) hautesleriaren funtzio primario egitean, esaldi horretan sartzeko asmoa nuen hura disolbatzeko funtzioa ere. Batak gidari bat edo gidari-talde bat onartzea bakarrik

esan nahi du; besteak onarpen hori errefusatzeari besterik ez du esan nahi. Horrekin kontuan hartzen da irakurleak agian miran izan duen elementu bat. Agian uste izan du hautesleriak ez duela gobernuaren agintean jarri bakarrik egiten, baizik fiskalizatu ere egiten duela. Baina hautesleek beren gidari politikoak eskuarki inola ere fiskalizatzen ez dituztenez gero, berriz hautatzeari uko eginez edo horiei laguntzen dieten gehiengo parlamentarioak hautatzeari uko eginez, komenigarria da fiskalizazioari buruzko gure ideiak gure definizioan adierazita bitartekoetara murriztea. Batzuetan berezko erreboltak gertatzen dira zuzenean gobernuak edo ministro jakin bat porrokatzen dituztenak edota portaera-lerro jakin bat jarraitzea behartzen dute. Baina kasu horiek ez dira soilik salbuespenekoak, baizik eta, ikusiko dugunez, metodo demokratikoaren espirituaren aurkakoak dira.

Zazpigarrenik, gure teoriak argi oso beharrezkoa egiten dio antzinako kontrobertsia bati; demokraziaren teoria klasikoa onartzen duenak eta, ondorioz, uste badu metodo demokratikoak bermatu egin behar duela herriaren nahiaren arabera auziak erabaki eta politika taxutu behar dela, nahiz eta nahia ukaezinko erreala eta zehaztua izango balitz ere, gehiengo sinplezko erabakiak kasu askotan desitxuratu egingo lukeelakoarekin topo egingo du, eraginkortasuna eman beharrean. Begi-bistan dago gehiengoaren nahia gehiengoaren nahia dela eta ez «herria»ren nahia. Bigarrenak lehenak inola ere «ordezkatzeko» ez duen mosaiko bat eratzen du. Biak definizioz parean jartzea ez da arazoa konpontzea. Hala ere, autoreen aldetik egiazko soluzioetarako ahaleginak egin dira plan desberdinenak «errepresentazio proportzional»erako.

Plan horiek kontrako kritika izan dute arrazoi praktikoetan oinarriturik. Begi-bistakoa da, izan ere, ez bakarrik ordezkariak proportzionalak bere burua baieztatzei aukerak eskainiko dizkiela idiosinkrasia mota guztiei, baizik eta demokraziari gobernu efizienteak sortzea eragotz diezaiokeela eta horrela arrisku bihurtzeko tentsio-garaitan⁷. Baina demokrazia bere printzipioa era kontsekuentean praktikara eramaten badu funtzionatzeko gaiez bihurtzen delako ondorioa iritsi aurretik, bidezkoa da galdetzea ea printzipio horrek errealki ordezkariak proportzionala inplikatzeko duen. Izatez, ez du inplikatzeko. Baldin eta buruzagitzaren onarpena hautesleriaren botoaren egiazko funtzioa, ordezkariak proportzionalaren defentsa behera

erortzen da, zeren horren premisak ez baitira jadanik baliozko. Demokraziaren printzipioak orduan gobernuaren gida-hedeak lehiakidetzan sartzen diren besteek baino hautes-laguntza ahaltsuena duten norbanakoei edo taldeei eman behar zaiela besterik ez du esan nahi. Eta horrek, bestalde, badirudi metodo demokratikoaren logikaren barruan gehiengo-sistemaren iraupena segurtatzen duela, nahiz eta gaitzes genezakeen logika horretaz kanpoko arrazoietan oinarrituz.

II Printzipioaren Aplikazioa

Aurreko silean gure teoria zirrimarratu ondoren, orain herrialde demokratikoetako mekanismo politikoaren egitura eta funtzionamenduaren ezaugarri garrantzitsuenetako batzuekin kontrastatuko dugu.

1. Demokrazia batean, dagoeneko esan dudanez, hautesleriaren botoaren funtzio primarioa gobernua sortzea da. Funtzio hori kargu guztietarako funtzionario-ekipo oso bat hautatzearen bidez bete daiteke. Hala ere, praktika horrek funtsean tokiko gobernua eratzea ezagarritzen du, eta, horregatik, alde batera utziko dugu⁸. Gobernu nazionala bakarrik kontsideratuz esan dezakegu gobernua eratzeak praktikoki esan nahi duela buruzagitza emango dion gizakia zein izango den erabakitzea⁹. Lehen bezala «Lehen Ministro» dei dezakegu.

Demokrazia bakarra dago hautesleriaren botoak hori zuzenean egiten duena, hau da: Estatu Batuak¹⁰. Gainerako kasu guztietan hautesleriaren sufragioak ez du zuzenean gobernua sortzen, tarteko organo bat baizik, aurrerantzean parlamentu deituko duguna¹¹, zeinari transmititzen baitio gobernua eratzearen funtzioa. Itxuraz erraza izan beharko luke sistema hori hartzea edo areago sistema horren bilakae-ra azaltzea, nola arrazoi historikoengatik, hala komenientzia-koengatik, eta era berean sistema sozial desberdinetan hartu dituen era desberdinak ere. Baina delegazio parlamentarioa ez da eraikuntza logikoa; emaitza naturala da, zeinaren ñabardura eta emaitza sotilak erabat itzurtzen baitzaizkie teoria ofizialei eta askoz gehiago legezkoei.

Nola sortzen du gobernuak parlamentua? Metodori errazena hautatzea da edo, era errealistago batez, lehen ministroa hautatzea eta gero presente dagoen ministro-zerrenda bozkatzea. Metodo hori oso

bakanetan erabiltzen da¹². Baina prozeduraren izaera gainerako guztiek baino hobeki jartzen du agerian. Gainera, beste metodoak denak berera murriz daitezke, zeren lehen ministro izatera iristen den giza-
kia, kasu normal guztietan, parlamentuak hautatuko lukeen bakarra da. Kargurako efektiboki izendatzen duten modua –monarka batek, Ingalaterran bezala; Presidente batek, Frantzia bezala, edo organismo edo batzorde berezi batek, Prusiako Estatu Askean Weimarko al-
dian– forma-auzi bat besterik ez da.

Hori da praktika ingeles klasikoa: hauteskunde orokor batzuen ondoren alderdi garaileak eskuarki eserleku-gehiengo bat izaten du parlamentuan eta horretara mesfidantza-boto bat denen aurka jaurtitzeko egoeran dago, horren gidariaren aurka izan ezik, zeina era nega-
tibo horretan izendatzen baitu «Parlamentuak» buruzagitza nazionala egikaritzeko. Bere komisioa monarkarengandik jasotzen du →«esku-
mun» batean– eta bere ministro-zerrenda aurkezten dio berari, zeina-
ren parte eratzen baitu kabineteke ministroen zerrendak. Horretan sar-
tzen ditu, lehenik, alderdiko beterano batzuk, ohorezko kargu dei dai-
tekeen zerbait hartzen dutenak; bigarrenik, bigarren lerroko gidariak,
parlamentuan ohiko polemikarako baliatzen dituen gizakiak, eta zei-
nek beren gorabidea, partez, erakutsi duten balio politiko positiboari
zor baitiote eta, partez, perturbazio potentzialeko elementu gisa duten
baliatori; hirugarrenik, gora doazen gizakiak, zeinak gonbidatzen bai-
titu karguaren zirkulu magikora «zierrautsetik garunak ateratzeko»
eta, batzuetan, laugarrenik, gizaki banaka batzuk zeinak bereziki kali-
fikatutzat jotzen baititu postu jakin batzuetan aritzeko¹³. Baina, berriz
diot, kasu normal guztietan praktika horrek Lehen Ministroa parla-
mentuan hautatzeak emango lukeen emaitza bera sortzera jotzen du.
Irakurleak ikusiko du, halaber, Ingalaterran bezala, Lehen Ministroak
parlamentua deusezteko («herrialdeari zuzentzeko») ahalmena duen
tokian, emaitza neurri batean hautesleriak, honek laguntza ematen
dion heinean, egindako kabinetearen hautapen zuzeneko batetik espe-
ro beharko litzatekeenera hurbilduko litzateke¹⁴. Hori adibide sonatu
batez ilustratu daiteke.

2. 1879an, Beaconsfielden (Disraeli) gobernuak, Berlingo
Kongresuaren¹⁵ arrakasta ikusgarriarekin ia sei urteko agintaldi opa-
roaren ondoren gailurra jo zuenak, ohiko aurrekari guztien arabera,
hauteskundeetan arrakasta izatera bere burua destinaturik uste zuene-

an, Gladstonek supituki hunkitu egin zuen herrialdea kemen gaindiezinezko harenga-sail baten bidez (Midlothian kanpaina), zeinetan larkeria turkiarrak halako arrakastarekin maneiatu baitzituen, non bera pertsonalki herri-suhartasunezko olatu baten gailurrean kokatu baitzuten. Gladstoneren alderdi ofizialak ez zuen inolako zerikusirik izan horretan. Haren gidarietako batzuek gaitzetsi ere egin zuten. Gladstonek utzia zeukan zenbait urte lehenago alderdiaren buruzagitza eta orain inolako laguntzarik gabe konkistatu zuen herrialdea. Baina alderdi liberalak oldar horren azpian garaipen zanpagarri bat irabazi zuenean begi bistakoa gertatu zen mundu guztiarentzat Gladstone berriro onartu beharra zegoela alderdiaren gidari gisa, eta ez hori bakarrik, baizik eta alderdiaren gidari izatera iritsi behar zuela bere buruzagitza nazionalaren indarrez eta ez zegoela lekurik inondik ere beste batentzat. Aintzazko aureola batekin iritsi zen agintera.

Alabaina, adibide horrek asko irakasten digu metodo demokratikoaren funtzionamenduaz. Ezer baino lehen, kontuan hartu beharra dago bakarra dela bere nolakotasun dramatikoan, baina aspektu horretan bakarrik. Espezie normal bateko ale aparta da. Bi Pitten, Peelen, Palmerstonen, Disraeliren, Campbell Bannermannen kasuak eta beste batzuenak graduz bakarrik desberdintzen dira.

Lehenik, Lehen Ministroaren buruzagitza politikoari dagokionez¹⁶, gure adibideak erakusten du nahastu behar ez diren hiru elementuz osaturik dagoela, eta kasu bakoitzean proportzio desberdinetan nahasten direla, zeinaren dosifikazioak determinatzen baitu Lehen Ministro banako bakoitzaren gobernuaren izaera. Adibide horren araberak, Lehen Ministroa kargura bere alderdiaren *parlamentuko* buruzagitza gisa iristen da. Hala ere, agintean instalatzen den bezain laster, zentzu batean, *parlamentuko* gidari bihurtzen da, zuzenean kide duen Ganberakoa eta zeharka baita bestekoa ere. Hori eufemismo ofizial bat baino zerbait gehiago da, baita Lehen Ministroaren karguak bere alderdiaren gain berekin duen ahalmen parlamentarioaren aintzatespena baino ere. Era berean, gainerako alderdien gain eragina lortzen du, baita horien kide banakoen gain ere, edo horien begikotasuna eragiten du, eta ekintza eta kontraekintza horiek haren arrakasta-aukerak nabarmen modifikatzeko gai dira. Muturreko kasuan, zeinaren adibiderik hoberena Sir Robert Peelena baita, hertsapena izan dezake bere alderdi propioaren gain beste baten gainean bermatuz. Azkenik, nahiz

eta kasu normal guztietan bere alderdiko buruzagia ere izango den *herrialdean*, Lehen Ministro espeziearen ale ongi garatuak alderdiaren antolakuntzaren buruzagitzarengatik automatikoki lortzen duenaz bestelako egoera bat izango du herrialdean. Alderdiaren iritzia era sortzailean gidatuko du –forma emanez– eta azkenean iritzi publikoaren eratzaila den buruzagitza baterantz igoko da, alderdiaren mugez haratago, buruzagitza nazionalerantz, zeina independentea izatera irits baitaiteke alderdiaren iritzi hutsarekiko. Ez dago esan beharrik zeinen pertsonala den horrelako burutzapen bat, eta zeinen garrantzi handia duen alderdiaz eta parlamentuaz kanpoko horrelako laguntzak. Zartailu bat ezartzen du gidariaren eskuetan, zeinaren zartada-hotsak obediencia ekar baititzaiteke alderdi uzkurak eta konspiratzaileak, nahiz eta horren uhalak gogor zaurituko duen arrakastarik gabe erabiltzen duenaren eskua.

Horrek mugakizun garrantzitsua iradokitzen du, sistema parlamentarioan, gobernua sortzearen funtzioa parlamentuari dagokiolako gure baieztapenarentzat. Parlamentuak erabakitzen du eskuarki nor izango den Lehen Ministro, baina hori egitean ez da erabat aske. Onarpenez areago erabakitzen du ekimenez baino. Kasu patologikoak salbuetsirik, *chambre* frantsesarena kasurako, diputatuen desirak ez dira, oro har, gobernua irteten den prozesuko azken datuak. Diputatuak ez daude alderdiarekiko betebeharez bakarrik eskuloturik. Berek «hautatzen» duten gizakiak ere maneiatzen ditu, hautapen-ekintzan bertan ere maneiatzen ditu, «hautatu» eta gero maneiatzen dituen era berebean. Zaldi oro aske da, jakina, gida-uhalei ostiko egiteko, eta ez dio beti galgari obeditzen. Baina gidariaren zuzendaritaren aurkako erreboltak edo erresistentzia pasiboak erlazio normala agerian jartzea besterik ez du egiten. Eta erlazio normal hori metodo demokratikoaren esentziakoa da. Gladstoneren garaipen pertsonala 1880an ihardespen bat da parlamentuak gobernua sortu eta kentzen duelako teoria ofizialarentzat¹⁷.

3. Kontsidera dezagun orain kabinetearen izaera eta eginkizunari buruzkoa¹⁸ bitxiki frontebikoa da Parlamentua eta Lehen Ministroaren baterako emaitza. Azken horrek hautatzen ditu bere kideak izendapenaren bidez, dagoeneko ikusi dugunez, eta lehenak onartu egiten du bigarrenaren hautapena, baina badu hartan eragina ere. Alderdiaren ikuspuntutik kontsideraturik, gutxi-asko bere egitura isla-

tzen duen azpigidarien batzar bat da. Lehen Ministroaren ikuspuntutik ez da arma-kamaraden batzar bakarrik, beren interes eta ikuspegi propioak kontuan izan behar dituzten alderdi-gizakiena, miniaturako parlamentu bat. Konbinazioa burutzeko eta funtziona dezan beharrezko da etorkizuneko kabineteke ministroak prest egotea –ez derrigor maitasun suharrez– X Jaunaren azpian zerbitzatzaera eta X Jaunak bere programa finka dezala kabineteke bere kolegek ez daitezen sarriegi tentaturik senti «beren posizioa birkontsideratzera», fraseologia ofizialak dioenez, edo bertaratze-greba bat egitera. Horrela, bada, kabineteak –eta gauza bera aplika dakioke ministerio orori, zeinak Ingalaterran kabinetearen atal ez diren funtzionari politikoak ere besarkatzen baititu– Lehen Ministroarena, alderdiarena, parlamentuarena eta hautesleriarena ez bezalako funtzio bat du prozesu demokratikoan. Funtzio edo buruzagitza hori negozio arruntei asoziatuak doa (inola ere ez haiekin mendekoturik), zeinak despatxatzen baitituzte kabineteke kide bana-koek departamentu desberdinetan, zeinetarako izendatzen baitituzte, makina burokratikoaren agingailuak maneiatzeko. Eta batez ere urruneko erlazioa du, halakorik baldin badu behintzat, «departamentu horietako bakoitzean herriaren nahia bete dadin zaintzea»rekin. Hain zuzen ere adibiderik hoberenetan aurkitzen da herria inoiz pentsatu gabeko eta alde zurretik onartuko ez zituzkeen emaitzekin.

4. Itzul gaitezen parlamentuaren auzira. Dagoeneko definitu dut bere funtzio primarioa irizten diodana, eta kualifikatu dut definitzio hori. Baina objekta daiteke nire definizioak ez dituela kontuan hartzen bere funtzioen gainerakoak. Parlamentuak, nabaria denez, beste gauza asko samar egiten ditu, gobernuak ezarri eta eraistez gainera. Legeak egin eta administratu ere egiten ditu. Baina parlamentuaren ekintza oro, ebazpenak eta deklarazio politikoak salbu, «lege» den zentzu formalean, lege asko daude neurri administratibotzat hartu beharrekoak. Aurrekontua da adibide garrantzitsuena. Hori lantzea funtzio administratiboa da. Hala ere, Estatu Batuetan Kongresuak lantzen du. Baina nahiz eta Ogasun-ministroak landua izan kabinetearen onarpenarekin, Ingalaterran bezala, parlamentuak bozkatu egin behar du eta boto horren indarrez lege bihurtzen da. Ez al du ezeztatzen horrek gure teoria?

Bi armada bata bestearen kontra ari direnean, bakoitzaren mugimenduak horien egoera estrategiko edo taktikoek determinaturi-

ko helburu partikularretan zentratzen dira. Lur-hedadura partikular batengatik edo muino partikular batengatik egin dezakete borroka. Baina lur-hedadura hura edo muino hura konkistatzeak duen interesa etsaia menderatzea datzan xede estrategiko edo taktikotik eratorri behar da. Antzeko era batean alderdi politiko bakoitzaren lehen helburu nagusia beste guztien gainetik gailentzea da boterea lortzeko edo hartan irauteko. Lur-zatiaren edo muinoaren konkista kontrobertsia politikoen erabakia, ikuspuntu politikotik, ez da xedea, baizik eta jarduera parlamentarioko lehen gaia. Politikariek balen ordez hitzak disparatzen dituztenez gero eta hitz horiek ezinbestean eztabaidan jarritako arazoetara zuzentzen direnez gero, jarduera parlamentarioaren helburu erreala baliteke beti jarduera militarra bezain garbia ez izatea. Baina bi jokoen esentziala aurkariaren gaineko garaipena da¹⁹.

Funtsean, bada, auzi nazionalen gaineko erabaki parlamentarioen ekoizpen arrunta da, hain zuzen ere, parlamentuak gobernu agintean mantentzen duen edo mantentzeari uko egiten dion metodoa edo parlamentuak Lehen Ministroaren buruzagitza²⁰ onartzen edo errefusatzan duenekoa. Laster aipatuko diren salbuespenekin boto *bakoitza* konfiantza- edo mesfidantza-boto bat da, eta teknikoki horrela deitzen diren botoek agerian *in abstracto* jartzea besterik ez dute egiten guztiek batera duten elementu esentziala. Horretaz konbentzi gaitezke behatuz auziak erabaki parlamentarioa ekartzeko ekimena, oro har, gobernuarena dela, edo, alderantziz, oposizioaren ustezko kabinetearena, baina ez Parlamentuko kide partikularrena.

Lehen Ministroak hautatzen ditu, arazo arrunten erreka atergabetik, arazo parlamentario bihurtuko dituenak, hau da, haren gobernuak legegaiak aurkeztea proposatzen dituenak, edo, alor horretan ez bada seguru sentitzen, ebazpen-proiektuak gutxienez. Jakina, gobernu orok hartzen ditu bere aurrekoarengandik zintzilik dauden auzi-ondare bat beharbada eskintxo egiterik ez duena; beste auzi batzuk errutina politikozko auzi gisa hartzen dira; arrakasta bereziki distiratsu baten kasuan bakarrik dago Lehen Ministroa berak erabat sorturiko auzi politiko baten gainean neurriak ezartzeko egoeran. Edozein kasutan, hala ere, gobernuaren hautapena edo zuzendaritza, askea izan ala ez, jarduera parlamentarioa menderatzen duen faktorea da. Oposizioak legegai bat aurkezten badu horrek esan nahi du bataila eskaintzen duela; jokaera hori eraso bat da auzi eztabaidatua berega-

natuz edo proposizioa errefusaraziz gobernuak desartikulu behar duena. Gobernu-alderdiko talde batek gobernuaren zerrendan ageri ez den lege-proposizio garrantzitsu bat aurkeztzen badu horrek errebolta esan nahi du, eta ikuspuntu horretatik eta ez kasuaren meritu estratatikoetatik kontsideratuko dute ministroek. Hori debate baten planteamenduari ere aplikatu dakioke. Gobernuak iradokia edo santzionatua ez bada, gobernuari boterea eskuetatik ihes egiten ari zaion seinalea da. Azkenik, alderdien arteko hitzarmen baten bidez neurri bat hartzeak erabaki gabeko bataila esan nahi du edo arrazoi estrategikoengatik saihesturiko bataila²¹.

5. Gobernuaren batzar «errepresentatibo»etako buruzagitzaren printzipio horrekiko salbuespenek haren izaera errealista agerian jartzeko bakarrik balio dute. Salbuespen horiek bi motatakoak dira.

Lehenik, ez dago absolutua den buruzagitarik. Metodo demokratikoaren arabera egikaritutako buruzagitza politikoa besteak baino absolututasun gutxiagokoa da demokraziak esentziala duen lehiakidetza-elementu horrengatik. Teorikoki proselito orok bere gidaria desplazatzeko eskubidea duenez gero, eta ia beti batzuek hori egiteko aukera erreala dutenez gero, alderdiko kide partikularrak eta ministroak –balidin eta sentitzen badu postu garaiago bat lor lezakeela sentitzen badu–, zirkulu sorginduaren barruan edo kanpoan kokaturik, tarteko portaera-lerro bat hartzen dute gidariaren pautarekiko atxikimendu baldintzagabearen eta pauta propioaren ezarpen baldintzagabearen artean, batzuetan miresgarria gertatzen den aukerak eta arriskuak haztatzeko xehetasunarekin²². Gidariak, bestalde, tarteko portaera-lerro bat hartuz erantzuten du diziplinaren mantenimendua azpimarratzearen eta oposizioa baimentzearen artean. Bigundu egiten du presioa amore emate gutxi-asko zentzuzkoekin, haserreak betetzeekin, zigorrak sariekin. Joko horren emaitza izaten da, norbanakoen indar erlatiboaren arabera eta horien posizioen arabera, askatasunkantitate oso aldakorra, baina kasurik gehienetan ohargarria. Batez ere beren ondoeza sentiarazteko bezain indartsuak diren taldeek, baina beren pertsonaiak eta beren egitarauak gobernuaren kontzertuan sarraraziz onura izateko bezain indartsuak ez direnek, horiek nahi dutena lor dezakete garrantzi txikiko gaietan, edo, edozein kasutan, Lehen Ministroa garrantzi txikikotzat edo garrantzi partzialekotzat kontsideratzera bultzaturik sentitzen den auzietan. Horretara, proseli-

to-taldeak edo kide banakoak ere bai batzuetan aukera izan dezakete legeasmo propioaren onarpena lortzeko, eta tolerantzia oraindik handiagoa emango zaio, noski, kritika hutsari edo gobernuaren proposamen bakoitzeko mekanikoki botoa ematea uzteari. Baina amore emate horiek espiritu praktikoz bakarrik kontsideratu behar ditugu, askatasunaren erabilpenari ezarritako mugengatik, ez dela parlamentu baten funtzionamenduaren printzipioa, baizik eta horren desbideratze bat dela hautemateko.

Bigarrenik, badira kasuan erakunde politikoak arazo batzuez arduratzeari uko egiten diona., bai gobernuko eta oposizioko indarren agintari garaiek ez dutelako preztatzen horien balio politikoa edo aipaturiko balio hori, izatez, badaezpadakoa delako²³. Arazo horiek orduan dagoeneko dauden alderdietakoren batean zerbitzatu beharrean independente gisa boterera iritsi nahiago duten sezesionistek har ditzakete. Hori, jakina, politika erabat normala da. Baina bada beste aukera bat. Gizaki batek hainbesteko erabakimenez har dezake auzi partikular bat, non jokaleku politikoan karrera politiko normal bat egiten hasteko inolako gogorik gabe eta bere erara ebazteko besterik gabe sar daitekeen. Hala ere, hori hain da ezohikoa, non zaila baita lehen mailako garrantzia duten portaera horren adibideak aurkitzea. Horietako bat agian Richard Cobdenena izan zen. Egia da bigarren mailako garrantzia duten adibideak sarriagoak direla, gurutzatuen motako adibideak batik bat. Baina inork ez du sostengatuko praktika normalarekiko desbideratzeak baizik ez direnik.

Honela laburbil dezakegu. Giza sozietateak behatzean, oro har, ez du zail aurkitzen espezifikatzea, zentzu komun hutsaren era zaka-rean gutxienez, hemen aztertzen ditugun sozietateek borroka egiteko dituzten helburu desberdinak. Esan daiteke helburu horiek dagozkien jarduera banakoen esanahia edo izateko arrazoia ematen dutela. Baina hortik ez da segitzen jarduera-mota baten balio soziala jarduera horren zio-indarra derrigor emango duenik eta, hortik azkenaren azalpena. Horrelakoa ez bada zerbitzatu beharreko xede edo beharrian sozialaren analisiarekin aski duen teoria bat ezin daiteke har zerbitzatzen dien jardueren azalpen egokitzat. Adibidez, jarduera ekonomikoa bezalako fenomeno batek existitzeko duen arrazoia, jakina, gizakiok jan, jantzi eta abar egin behar izatea da. Beharrian horiek asetzeko bitartekoak hornitzea da ekoizpenaren xede edo zentzu soziala. Hala

ere, denok ados gaude tesi hori abiapunturik irrealena izango litzatekeela jarduera ekonomikoaren teoria baterako gizarte merkantil batean, eta zeinetan askoz azertu handiagoarekin jokatuko baikenuke lukroari buruzko tesietatik abiatuko bagina. Antzeko era batean jarduera parlamentarioaren zentzua edo funtzio soziala, zalantzarik gabe, legeak egitea da eta, partez, neurri administratiboak hartzea. Baina xede sozial horri politika demokratikoak nola zerbitzatzen dion ulertzeko agintea eta magistraturengatiko lehiakidetzaborrokatik abiatu behar dugu eta konturatu behar dugu funtzio soziala, nolabait esateko, subsidiarioki betetzen dela ekoizpena lukroa lortzearekiko subsidia-
rioa den zentzu berean.

6. Azkenik, hautesleriaren eginkizunari dagokionez, puntu gehigarri bakar bat aipatu behar da. Dagoeneko ikusi dugu parlamentu bateko kideen desirak ez direla gobernuaren prozesu sortzailearen azken datuak. Hautesleriari dagokionez antzeko baieztapena egin daiteke. Horren erabakia —»herriaren deia» esamoldean ideologikoki loriatua— ez dario bere ekimenari, baizik eta taxutua da, eta horren taxuera prozesu demokratikoaren parte esentziala da. Hautesleek ez dituzte konpondu gabe dauden arazoak erabakitzen. Baina parlamentuko kideak ere ez dituzte hautatzen, askatasun osoz, biztanleria hautagarriaren artetik. Kasu normal guztietan ekimena hautagaiarengan datza, zeinak egiten baitu eskaintza parlamentukide izateko kargua eta horrek berekin eraman dezakeen tokiko buruzagitza lortzeko. Hautesleak horren eskaintza besteeikiko hobespenez onartzera edo errefusatzera mugatzen dira. Salbuespeneko kasu gehienetan ere, zeinetan hautesleek *benetan* hautatzen baitute gizaki bat kategoria berean sarzten dira bi arrazoi hauetako batengatik: naturala da gizaki batek inolako eskaintzarik ez egin behar izatea buruzagitza lortzeko ordurako lortua badu edo bestela gerta daiteke tokiko gidari batek, dominatu edo botoan eragina izan dezakeenak baina berez hautapenean lehia-tu ezin duenak edo nahi ez duenak, beste bat izendatzea, eta horrek orduan hautesleak beren ekimen propioz jardunez aurkitua izanaren itxura izan dezake.

Baina zernahi izan daitekeelarik ere eman daitekeen interpreta-zioa, nola hautesleriaren ekimenari hala lehiako hautagaietako baten onarpenari, horren helmena, bestalde, oso murritzurik dago alderdiak izategatik. Alderdia ez da, teoria klasikoak (edo Edmund Burkek)

sinetsaraziko ligukeenez, ongizate publikoa «ados jarri diren printzipio baten gainean» sustatzen ahalegintzen den giza talde bat. Arrazionalizazio hori arriskutsua da seduzitzailea delako. Zeren alderdi guztiak hornitzen baitira, jakina, garai jakin batean, printzipio-edo puntu programatiko-sorta batez, zeinak hartzen dituen alderdiaren hain karakteristikoak eta arrakastarako hain garrantzitsuak izan baitaitezke, non biltoki handi batentzat saltzen dituen merkantzien markak izan daitezkeen. Baina ez biltoki bat defini daiteke bere markez ez eta alderdi bat defini daiteke bere printzipioz. Alderdi bat talde bat da, zeinaren kideak ados jartzen baitira elkarrekin batera jardutera aginpide politikoarengatiko lehiakidetza-borrokan. Hori horrela izango ez balitz ezinezkoa litzaieke alderdi desberdinei programa bera zehazki edo ia zehazki hartzea. Hala ere, hori gertatu egiten da, mundu guztiak dakienez. Alderdiak eta alderdiko hautes-eragileak hautesle-masa estanpidarako izan ezik beste edozein ekintzatarako gaieza delakoaren erantzuna besterik ez da, eta merkatarien elkarreak dagozkion praktikak arautzeko duen oso antzeko eran lehiakidetza politikoa arautzeko ahalegin bat adierazten dute. Alderdi baten gidaritzaren psikoteknia eta alderdi-propaganda, kontsignak eta musika-martxak ez dira akzesorio hutsak. Politikaren esentziakoak dira. Halaxe da buruzagi (*boss*) politikoa ere.

XXIII KAPITULUA

INFERENTZIA

I Aurreko analisiaren inplikazio batzuk

Buruzagitza lehiakorren teoriak prozesu demokratikoan zehar jazoten diren gertakarien interpretazio asegarria eman digu. Jakina, erabili egingo dugu demokraziaren eta gauzen ordena sozialista baten arteko erlazioa argitzeko orduan. Lehenago adierazi denez, sozialistek ez dute bateragarritasuna defendatu bakarrik egiten; demokraziak sozialismoa inplikatzan duela defendatzen dute era berean, eta ezin litekeela egon benetako demokraziarik sozialismoan izan ezik. Bestalde, irakurleak derrigor izan behar du panfleto batzuen ezaupidea, gutxienez, azken urteetan Estatu Batuetan argitaratu diren asko-

ren arteko batzuen, zeinek erakusten baitute ekonomia planifikatuak, sozialismo erabat garatuaz ez hitz egitearren, erabat bateraezina dela demokraziarekin. Bi ikuspuntuak, jakina, erraz ulertzekoak dira, baldin eta kontuan hartzen bada kontrobertsia horren oinarri psikologikoa, eta bi aldeek herriaren laguntza segurtatzeko duten desira naturala, zeinaren gehiengo handiak gartsuki sinesten baitu demokrazian. Baina demagun hau galdetzen dugula: non dago egia?

Gure analisiak, honetan eta liburu honetako aurreko ataletan, aise ematen digu erantzuna. Sozialismoaren, definitu dugunez, eta demokraziaren artean, definitu dugunez, ez dago derrigorrezko erlaziorik: bata existi daiteke bestea gabe. Aldi berean bateraezintasunik ere ez dago: ingurumen sozialeko inguruabar egokietan sistema sozialistak funtziona dezake printzipio demokratikoen arabera.

Baina ohar bedi enuntziatu sinple horiek sozialismoaz eta demokraziaz izan dezakegun ikuspegiaren baitan daudela. Beraz, ez dute bakarrik guduaren alde bata eta besteak irudimenean dutena baino helmen txikiagoa, baita zentzu zerbait desberdina ere. Arrazoi horrengatik, eta bateragarritasun hutsaren auziaren atzetik ezinbestean beste auzi bat ere sortzen da, hau da, ea metodo demokratikoak era gutxi-asko eraginkorren funtzionatuko duen eraentza sozialista batean eraentza kapitalista batekin erkatuta, eta horri buruz oraindik asko daukagu azaltzeko. Bereziki, baldintzak formulatzen saiatu behar dugu, zeinen azpian espero baitaiteke metodo demokratikoa asegarria gertatzea. Hori kapitulu horren bigarren sailean egingo da. Orain prozesu demokratikoaren gure analisiaren inplikazio batzuk kontsideratu behar ditugu.

Ezer baino lehen, hartu dugun ikuspuntuaren arabera, demokraziak ez du esan nahi eta ezin dezake esan herriak zinez gobernatzen duenik, «herria» eta «gobernatu» esamoldeen zentzu nabarietako ezeinetan. Demokraziak esan nahi du gobernatuko duten gizakiak onartzeko edo errefusatzeko aukera bakarrik duela herriak. Baina herriak hori era guztiz ez-demokratikoan ere erabaki dezakeenez, estutu egin behar izan dugu gure definizioa metodo demokratikoaren beste irizpide identifikatzaile bat gehituz, hau da, hautesleriaren botoarengatik buruzagitza eskuratu nahi dutenen arteko lehiakidetzak askea. Orain irizpide horren aspektu bat adieraz daiteke esanez demokrazia politikariaren gobernua dela. Garrantzi handienekoa da argi eta garbi ulertzea horrek zer inplikatzeko duen.

Teoria demokratikoaren agertzaile askok ahaleginak egin dituzte jarduera politikoari konnotazio profesional oro kentzeko. Indarrez sostengatu dute, batzuetan grinaz, politikak ez lukeela lanbide izan behar eta demokrazia andeatu egiten dela politika lanbide bihurtzen denean. Baina hori ideologia hutsa da. Egia da parlamentuan zerbitzatzeko hautatuak izan daitezkeela, adibidez, negozio-gizonak edo abokatuak, eta agintea ere onar dezakete inoiz eta negoziogizon eta abokatu izaten jarraitu ezer baino lehen. Halaber, egia da nagusiki politikari bihurtzen diren askok beren bizibiderako beste jarduera batzuetan oinarritzen direla¹. Baina, eskuarki, politikan arrakasta pertsonala izateak, bereziki ministro-kargurako noizean behin igotzeko bidea baino gehiago, izaera profesionaleko kontzentrazio bat inplikatzan du eta gizakiaren gainerako jarduerak zeregin akzesorio edo beharrezko okupazio pribatuen mailara pasarazten ditu. Gertakariei aurrez aurre begiratu, nahi badiegu aitortu beharra daukagu, suitzarraz bestelako demokrazietan, politika karrera bihurtzen dela ezinbestez. Horrek esan nahi du, bestalde, politikari banakoan interes profesional argiro determinatua eta profesio politikoak horrelakoa denez propioa duen talde-interes argiro determinatuaren aintzatespena. Funtsezkoa da faktore hori gure teorian txertatzea. Hori kontuan izan bezain laster enigma asko konpontzen dira². Besteak beste, berehalaxe uzten diogu harritzeari politikariek pertsonalki loturik dauden klase- eta talde-interesei hain sarri zerbitzatzen ez diotelako. Politikoki hitz eginez, gizakia oraindik haurtzaindegian dago ez badu digeritu, inoiz ez ahazteko moduan, izan diren politikari arrakastatsuenetako batek esandako hura: «Negozio-gizonek ulertzen ez dute-na da ni botoekin tratuan aritzen naizela haiek olioarekin aritzen diren bezalaxe»³.

Ohar dezagun ez dagoela arrazoirik sinesteko politikarien portaerak hobe edo txarragoa izan behar duenik gizartearen antolakuntza sozialista batean. Mediku edo ingeniari gisa arrakastaren anbizioen edalontzia bete nahi duen medikuak edo ingeniariak gizaki mota berezia izaten jarraituko du, eta horien interesek eredu desberdin batzuk; bere herrialdeko instituzioak funtzionarazi edo eraberritu nahi dituen medikuak edo ingeniariak beste mota bateko gizakiak izaten jarraituko dute, eta horien interesek beste interes-eredu batzuk izaten jarraituko dute.

Bigarrenik, antolakuntza politikoaren aztertzaileek beti zalantzak izan dituzte gizarte handi eta konplexuetako demokraziaren efizientzia administratiboaz. Bereziki adierazi izan da, beste sistema batzuekin erkatuta, gobernu demokratikoaren efizientzia atzera gelditzen dela ezinbestez parlamentuan eta parlamentuaz kanpo egin behar izaten duten atergabeko borrokak gidariei ezartzen dien energia-galera ikaragarria dela eta. Arrazoi berarengatik oraindik atzerago gertatzen da gerra politikoaren martxaren eskakizunetara politika egokitu beharra dela eta. Proposizio horietako ez bata eta ez bestea ez dago zalantzan jartzerik. Biak gure aurreko enuntziatuaren korolararioak besterik ez dira, zeinaren arabera metodo demokratikoak legeria eta administrazioa lantzen baititu lanbide politikoarengatik borrokaren azpiekoizkin gisa.

Irudika dezagun, adibidez, lehen ministro baten egoera. Gobernuak Frantzia 1871tik 1940an porrokatu arte bezain ezezagorak izan direnean, horren arreta behar izan du bilareko bolaz piramide bat eraikitzen saiatzearen antzeko ataza batek ia monopolizaturik eduki behar izan du. Kemen erabat aparteko gizakiek bakarrik eduki ahal izan dute baldintza horietan energiaren bat zeregin administratibo arrunterako, legegaietarako eta abarrerako erreserbatzeko, eta gizaki apart horiek bakarrik lortu ahal izan dute aginpideren bat funtzionario subordinatuen gain, zeinek, gainerako guztiek bezala, bai baitzekiten beren buruzagia handik gutxira errelebatua izango zela. Hori ez da, noski, hain txarra kasu ingelesean. Gobernu-konbinazio ezegonkorak salbuespenak dira eta eskuarki gobernu batek bospasei urteko bizitza izan dezake, gutxi gorabehera. Ministroak iraunkortu egin daitezke beren karguetan, eta, parlamentuan, ez da hain erraza horiek aulkitik eraitea. Baina horrek ez du esan nahi borroka egitearen premiatik aske daudenik. Gudu-korrontea dago beti, eta, gobernuak ez badaude etengabe prest beren biziaren alde borrokatzera, arriskutsu bihurtu baino lehen eraso-korronteak iratetzeko gaitasuna dutelako bakarrik izaten da, eskuarki. Lehen ministroak bere aurkariak etengabe zelatatu, bere taldea atergabe gidatu behar du, edozein unetan ireki daitezkeen arrakaletara joateko prest egon behar du, ezta baidatzen diren neurrien jakinaren gainean egon, kabineteak fiskalizatu behar ditu; eta hori dena laburbiltzen da esanez, parlamentua sesioan dagonean, zorte handia duela ordu pare bat libre geratzen

bazaizkio goizean gauzei buruz gogoeta egin eta benetan lan egiteko. Ez da arraroa porrot banakoak eta gobernu baten porrotan orokorrean buruzagiaren edo buruzagien unatze fisikoarengatik gertatu izana⁴.

Nola ekin liezaioke lehen ministroak, galde egin liteke, bizitza ekonomikoko arazo guztiak besarkatzen dituen erakunde administrazio bat gidatu eta gainbegiratzeari?

Baina gobernuaren energia-xahutze hori ez da dena. Boterea lortzeko edo hartan irauteko atergabeko borroka lehiakorrak «botoekin tratuan ari izan» esaldian miresgarriki adierazitako joera ematen dio neurri politiko eta administratiboen kontsiderazio orori. Kontua da, demokrazia batean, gobernuak programa baten edo legegai baten edo administrazio-dekretu baten balio politikoei jaramon egin behar diola nagusiki –hau da, gobernu parlamentuaren eta hautesleriaren botoen mende jartzen duen printzipio demokratikoa ezartzen duen gertakariari berari– eta horrek segur aski desitxuratu egingo dituela aldekoak eta kontrakoak. Batez ere, inguruabar horrek leman dauden edo hartatik hurbil dauden gizakiei helmen laburreko ikuspena ezartzen die eta oso zail jartzen die nazioaren epe luzeko interesei zerbitzatzea, zeinek lan jarraitua eska baitezakete xede urrunekoetarako; kanpo-politikak, adibidez, barne-politika bihurtzeko arriskua du. Eta horrek zailtasun bertsuko bihurtzen du neurriak arrazionalki dosifikatzea. Aukera politikoetan begia jarria duela gobernu batek egiten duen dosifikazioa da derrigor nazioari emaitzarik asegarrienak sortuko dizkion dosifikazioa.

Horrela, bada, demokrazia bateko lehen ministroa konpara daiteke zelan bere buruari eusten erabat oso kontzentraturik dagoen zaldun batekin, non ezin duen inolako planik egin bere ibilaldirako, edo jeneral batekin hain erabat okupatuarekin armadak bere aginduak bete behar dituelakoarekin, non estrategia bere baitan abandonaturik utzi behar duen. Eta horrek egia izaten jarraitzen du (eta Frantzia eta Italia bezalako herrialde batzuetan, ageriki aitortu behar da sentimendu antidemokratikoa jariatzen duen iturburuetako bat dela), aringarri gisa aipa daitezkeen gertakariak gorabehera.

Lehenik, adibide horiek jasanezina kontsidera daitezkeen gradu-raino ondorio horiek instituzio demokratikoen funtzionamendurako sistema soziala egokia ez izatearen arrazoiak sarritan azal daitezkeela-

koa dago. Frantzia eta Italiaren adibideek agerian jartzen dutenez hori gerta daiteke lan horretan arrakasta duten baino herrialde askoz zibilizatuagoetan. Hala ere, kritikaren pisua murriztu egiten da horregatik metodo demokratikoaren funtzionamendu asegarria baldintza batzuk betetzearen baitan dagoelako baieztapenera; berehalaxe ekingo diogu auzi horri.

Gero alternatibaren auzia dago. Aipaturiko ahulezia horiek era nabarian daude sistema ez-demokratikoetan ere. Posizio gidari bateraino bidea urratzeak, adibidez, gorte batean, hainbesteko energia hurrupa dezake eta hainbeste iritzi propio nahasmahastu egungotasunezko auziez, non borroka demokratikoan, nahiz eta xahutze eta nahas-mahaste horiek hain ageriki ez agertu.

Gainera, zuetako batzuek erantzungo diezue kritikariei hain zuzen nahi duguna efizientzia-maila beheragoa gobernuan. Ez dugu izan nahi, noski, efizientzia diktatorialaren gai, joko handi bateko peoi huts. Gosplana bezalako gauza bat orain ezinezkoa izan daiteke Estatu Batuetan. Baina ez al du frogatzen horrek hain zuzen Estatu Batuetako bere balizko *analogonak* bortxatu egingo lukeela, errusiar Gosplanak bezala, federakuntza amerikarraren nola espiritua hala egitura organikoa?

Azkenik, zerbait egin daiteke buruzagitza egikaritzen duten gizakien gaineko presioa murrizteko formula instituzional egokien bidez. Sistema amerikarra, adibidez, abantailatsua da puntu horretan. «Lehen Ministro»ak, zalantzarik gabe begiak finkaturik eduki behar ditu xake-taulan. Baina ez dauka erantzule sentitu beharrik neurri banako bakoitzarekiko. Eta, Kongresuan eserlekurik ez izatean, aske dago, horrek ekarriko liokeen neke fisikoaz, gutxienez. Bere indarra zaintzeko behar dituen abagune guztiak ditu.

Hirugarrenik, aurreko kapituluko gure analisia agerian jartzen du metodo demokratikoak buruzagitza-postuetarako hautatzen dituen gizakien kalitatearen arazoa. Ia ez dago gogoratu beharrik demokraziaren aurka ideien ordena horretan aipatzen den argudioa, hau da: metodo demokratikoak politikari profesionalak sortzen ditu, zeinak gero administratzaile eta «estatu-gizaki» zale bihurtzen baititu. Aurrez aurre dituzten arazoen soluziorako beharrezko ezagutza guztiak falta zaizkienez gero, «zuzenbidea jakin gabe epaile eta frantse-

sik gabeko diplomatiko» deitzen dituzte, Lord Macaulayren esaldia erabiltzeko, zeinek burokrazia hondatu eta beren elementu hoberenak desadoretzen baitituzte. Bada beste puntu bat, okerragoa oraindik, gaitasun- eta esperientzia-auziez kanpo espezialitatean: hautagai on bat egiten duten adimen- eta izaera-nolakotasunak ez dira derrigor administratzaile ona egiten dutenak, eta hautes-ontzietako arrakastaren bidez antolaturiko hautespenak herrialdeko negozioen zuzendari-tzan arrakasta izango luketen gizakiak ezaba ditzake. Eta nahiz eta hautespen horren emaitzak arrakasta izan, agintean arrakasta pertso-nal horiek oso ongi izan litezke porrotak nazioarentzat. Taktikari ona den politikaria arrakastarekin iraun dezake bizirik zenbanahi porrot administratiboren ondoren.

Kritika horiek beren baitan dituzten egia-elementuen aintza-tespena bigundu egin behar da berriro inguruabar aringarrien aintza-tespenaz. Bereziki demokraziaren kausak irabazi besterik ezin du egin alternatiben kontsiderazio batean; nolanahikoa dela ere giro soziala ez dago hautespen-sistematik –konkurrentziako kapitalismo-aren salbuespen ahalgarriarekin– zeina prestazio-gaitasunean baka-rrik oinarritzen baita, eta zeinak hautatzen baitu norbait zaldiaren tre-batzaileak *Derby cracken* lasterka egin behar duen zaldia hautatzen duenez. Nahiz eta gradu desberdinetan, sistema guztiek saritzen dituzte beste nolakotasun batzuk ere, sarritan prestazioarekiko etsai-korrek diren nolakotasunak. Baina agian honetaz haratago joan gai-tezke. Ez da erabat egia, kasu ertainean, arrakasta politikoak ez duela ezer esan nahi gizaki batentzat, beraz politikaria zale bat baino ezer gehiago ez izatea. Bada profesionalki ezagutzen duen gauza oso garrantzitsu bat, hau da: gizakiak tratatzea. Eta, oro har, gutxienez, buruzagitza politikoko posizioa irabazteko gaitasuna energia pertso-nalaren gradu halako bati asoziatu-rik dago, eta baita lehen ministro baten tailerrean zerbitzu onak eman ditzaketen beste nolakotasun batzuei ere. Azken finean, harkaitz ugari daude politikariak magis-tratura nazionalera eramaten dituen korrontean, zeinak ez baitira era-bat eraginkortasunik gabeak «hantuste»ari edo «berritsu»ari aginte-rako irispidea eragozteko.

Baldintza horietan ezin dezakegu espero izan argumentazio orokor batek, norabide batean edo bestean, ondorio zehatz batera gidatzerik. Askoz bitxiago eta esanguratsuagoa da egiaztatzea proba

esperimentalak ez direla inola ere erabakigarriak, lehen begiratuan behintzat. Ez dago ezer errazagorik metodo demokratikoaren porroten zerrenda zirrargarri bat prestatzea baino, batez ere porrokatze efektiboa edo anabasa nazional izan zeneko kasuak bakarrik ez ezik nazioak bizitza osasungarri edo oparoa eraman zuenekoak ere barruan sartzen baditugu, sektore politikoan buruturiko prestazioa askoz behereagoa izan da normalaren aldean gainerako sektoreetakoarekin erkatuta. Baina hori bezain erraza da politikariaren alde hori agian zirrara gutxiago eragiten ez duen beste froga bat aurkeztea. Adibide gailen bat aipatzeko: egia da antzinatean gerrak ez zirela gerora bihurtu diren bezain teknikoak. Hala ere, pentsa liteke gerran arrakasta bat lortzeko gaitasunak orduan ere zerikusi txikia zuela kargu politiko baterako hautapena lortzeko gaitasunarekin. Aro errepublikarreko erromatar jeneral guztiak, hala ere, politikariak izan ziren, eta haiek guztiek aginte militarra zeukaten edo lehenago edukitako hautes-karguetatik zuzenean eskuratu zituzten. Hondamendirik makurrenetako batzuk horregatik izan ziren. Baina, oro har, soldadu politikari horiek nabarmenki ongi portatu ziren.

Zergatik da hori horrela? Erantzun bakarra egon liteke galdera horrentzat.

II Metodo Demokratikoaren Arrakastarako Baldintzak

Fisikaria ohartzen bada mekanismo berak modu desberdinez funtzionatzen duela garai desberdinetan eta toki desberdinetan, horren funtzionamendua berorrekiko baldintza estrainioen baitan dagoela ondorioztatzen du. Guk ere ezinbestean ondorio berera heldu behar dugu sistema demokratikoari dagokionez, eta baldintza horiek zein ziren ikustea hain erraza zen, non zen ikustea zein ziren baldintzak, zeinen azpian demokraziaren teoria klasikoa gradu onargarrian errealtatera moldatuko zela espero izatekoa baitzen.

Ondorio horrek denbora guztian adierazi den irizpide hertsiki erlatibistara eramaten gaitu argi eta garbi. Sozialismoaren alde edo kontra baliozko kasurik ez dagoen bezala garai guztietarako eta toki guztietarako, halaber ez dago kasu erabat orokorrik metodo demokratikoaren alde edo kontra. Eta sozialismoaren kasuan bezala, ingurua-

bar horrek zail egiten du argumentatzea *ceteris paribus* klausula baten bidez, zeren «beste gauzak» ezin baitaiteke berdina izan aldi berean demokrazia funtzionatzeko gai den ordenazio bat den egoeretan, edo funtzionatzeko gai den bakarra, horretarako gai ez den egoeretan bezala. Demokrazia loratu egiten da halako ezaugarri batzuk erakusten dituzten sistema sozialetan, eta oso ongi jar daiteke zalantzan zentzurik duen ala ez ezaugarri horiek ez dituzten beste sistema batzuetan nola joango ote litzaiokeen galdetzeak edo nola joango ote litzaiokeen jendeari beste sistema horietan. Metodo demokratikoak arrakastarekin funtziona dezan⁵, nire iritziz, bete beharreko baldintzak –funtzionatzea posible duen gizarteetan– lau taldetan sailkatuko ditut; bestalde, mota modernoko industria handia duten herrialdeetara mugatuko naiz.

Lehen baldintza datza politikako giza materialak –alderdiaren organismoak osatzen dituzten gizakiek, parlamentuan zerbitzatzeko hautatuek direnak, kabineteke karguetara igotzen direnek– kalitate jaso samarrekoa izatean. Horrek esan nahi du trebetasun egokiko eta izaera moraleko norbanakoek kopuru nahikoan existitu behar dutela. Lehenago seinalatu denez, metodo demokratikoak ez ditu politikariak biztanleriaren artean hautesten, baizik eta bokazio politikoa duten biztanleriako elementuen artean bakarrik. Horiek guztiek lor dezakete, beraz, batezbesteko maila nazionala baino prestazio-maila gutxi-asko jasoagoa, bokazio jakin batek talentua eta karakterra erakartzen dituen graduaren arabera. Baina, alde batetik, ardurako postuengatik lehiakidetza-borrokak pertsonala eta energia xahutzen ditu. Bestetik, prozesu demokratikoak aise sor ditzake baldintzak sektore politikoa, zeinek, finkatu eta gero, beste lanbide batean arrakasta lor dezaketen gizakien gehiengoa errefusatuko baitute. Bi arrazoi horiengatik giza materialaren egokitasuna bereziki garrantzitsua da gobernu demokratikoaren arrakastarako. Ez da egia demokrazia batean nahi dituzten edo merezi dituzten gobernu-mota eta -kalitateko gizakiak beti dituztela.

Modu asko egon daitezke kalitate aski oneko politikariak segurtatzeko. Orain arte, hala ere, badirudi esperientziak iradokitzen duela berme efektibo bakarra, horri dagokionez, gizarte-estratu baten existentzian dagoela, zeina izango baita bera politikaren emaitza gauza natural gisa. Horrelako sustratua ez bada aski atzigarria kanpo-koentzat, eta aski indartsua bada eskuarki hurrupatzen dituen elemen-

tuen gehiengoa asimilatzeke, orduan karrera politikoak ez ditu beste alor batzuetan arrakastarekin proba asko jasan dituzten produktuak oparotasunez ekarriko bakarrik –nolabait esateko, negozio pribatuetan aprendizaiak bat jasan dutenak–, baizik eta gehitu egingo du horien identitatea tradizioz hornituz, zeinek beren baitan esperientzia, kode profesionala eta iritzi komunezko funts bat izango baitute.

Ez da kointzidentzia hutsa Ingalaterra, gure baldintza erabat betetzen duen herrialde bakarra, zentzu horretan gizarte politiko bat duen herrialde bakarra ere izatea. Oraindik irakasgarriagoa da Weimarko Errepublikaren (1918-1933) garaiko Alemaniaren kasua. V. atalean frogatzea espero dudanez, garai horretako politikari alemaniarren akats itsugarritzat eskuarki kontsideratzen zen ezer ezin zitekeen aurki. Parlamentuko batezbesteko kidea eta lehen ministroa eta kabinete-ministroa zintzo, zentzuzko eta kontzienteak ziren. Hori alderdi guztiei aplikatzen zaie. Hala ere, gehitu beharra dago, noiz-behinka agertu ziren talentu-leinuruekiko behar besteko errespetuarekin, nahiz eta oso bakanetan goi-aginteko edo hartatik hurbileko posizioan, politikari horietako gehienak batezbesteko mailaren azpitik zeudela, kasu batzuetan tamalgarriki azpitik. Nabaria da hori ezin zitekeela izan nazioaren oroharreko gaitasun- eta energia-gabeziarengatik. Baina balioa eta nortasuna zuten gizakiek destaina egiten zioten karrera politikoari. Eta ez zegoen ez klaserik ez talderik, zeinetako kideek kontsideratzen baitzuten politika beren bokazio aurredestinatutzat. Sistema politiko hari huts egin zion tiroak arrazoi askorengatik. Baina azkenean gidari antidemokrata baten eskuetan porrot zapaltzaile bat jasan izana, hala ere, demokrata inspiratuen talde gidari baten gabeziaren zantzua da.

Demokraziaren arrakastarako bigarren baldintza erabaki politikoaren domeinu efektiboa dilatatuegia ez izatean datza. Noraino dilata daitekeen aurreko sailean aurkezturiko analisitik deduzitzen diren metodo demokratikoaren mugakizun orokorren baitan ez ezik, kasu banako bakoitzaren inguruabar partikularren baitan ere badago. Era zehatzagoan adierazteko: jarduera politikoaren helmen arrazoizkoa ez dago, adibidez, bere bizitza politikoarengatik atergabeko borrokaren tentsiopeko gobernu batek arrakastarekin aurre egin diezaiekeen auzien izaera eta ugaritasunaren baitan bakarrik; halaber, denbora eta toki jakin orotan, gobernuak eratzen duten gizakien kalitatearen eta

makina politikoaren motaren eta jardun behar dueneko iritzi publiko-aren txantiloia baita ere badago. Demokraziaren gure teoriaren ikuspegitik ez da beharrezko eskatzea, teoria klasikoarenetik izango litzatekeenez, aparatu politikoak auzi haiek bakarrik tratatzea, zeinak herriaren gehiengoak ulertzen baititu eta zeinez iritzi serio bat baitu. Baina izaera bereko eskakizun ez hain zorrotz bat nagusitzen da. Horrek iruzkin gehigarria behar du.

Jakina, ezin liteke muga legezkorik egon, lehen ministroak gidaturiko parlamentu bati, edozein auzi erabakia izateko planteatzea eragotziko dionik, behar izanez gero eraberrikuntza konstituzional baten bidez. Baina parlamentu ahalguztidun horrek era egokian funtziona dezan mugak ezarri behar dizkio bere buruari, Edmund Burkek argudiatzen zuenez amerikar koloniekiko gobernu eta parlamentu ingelesaren portaera eztabaidatzean. Antzeko era batean argudia dezakegu guk, parlamentuaren botopean ezarri behar diren auzien kategoriaren beraren barruan ere, gobernu eta parlamentua sarritan beharturik aurkitzen direla neurriak hartzea, zeinen gainean haien erabaki formal hutsa baita, edo, gehienera, gainbegiratze-helburuei bakarrik erantzuten dietenak. Bestela, metodo demokratikoak legegintza-munstroak sor litza-ke. Har dezagun, adibidez, zigor-kodea bezain testu mardul eta tekniko bat. Metodo demokratikoa ezarriko zaio herrialde batek kodetze hori egiteari ekin behar dion ala ez auziari aplikatuko zaio. Era berean, funtsezko erabaki politiko baten gai bihurtzeko gobernuak hautatuko dituen «auzi» batzuei ere aplikatuko zaie, adibidez, langile- eta ugazaba-elkarteen praktika halako batzuk delituzkotzat jo behar diren ala ez. Baina, gainerakoan, gobernuak eta parlamentuak espezialisten irizpena onartu beharko dute, zeinahi delarik ere beren sentimendu propioa. Zeren krimena fenomeno konplexua baita. Esamoldeak, izan ere, komunean ezer gutxi duten fenomeno asko besarkatzen baititu. Horri buruzko topiko herritarrek ia beti aurreiritzi okerrak adierazten ditu. Eta krimenaren tratamendu arrazionalak behar du gai horri buruzko legeria babesturik egotea nola sumin bindikatzailazko purrustadetatik hala sentimentalkeriaren purrustadetatik, izan ere purrustada horietara txandaka jotzeko joera baitute gaian adituak ez diren paralamentarioek eta ministroek. Hara zer adierazi nahi nuen nik erabaki politikoen domeinu, esferaren *efektibo*aren mugakizunak azpimarratzean, zeinaren barruan politikariek nola funtsaz hala formaz erabakiak hartzen baitituzte.

Berriro auzitako baldintza bete daiteke, estatuaren jardueri dagokien mugatzeari esker. Baina oker larria izango litzateke irakurleak pentsatzea mugakizun hori derrigor ezartzen dela. Demokraziak ez du eskatzen estatuaren funtzio guztiak horren metodo politikoaren mendea egotea. Adibidez, herrialde demokratiko gehienetan epailei independentzia-maila handia ematen zaie erakunde politikoekiko. Beste adibide bat da Ingalaterrako Bankuak 1914 arte izandako posizioa. Horren funtzioetako batzuk, izan ere, izaera publikoak ziren. Hala ere, funtzio horiek legez sozietate merkatil baten, sektore politikoarekiko politika propioa izateko aski independentea zen baten eskuetan zeuden. Estatu Batuetako erakunde federal batzuk beste kasu batzuk dira puntu honetan. Interstate Commerce Comission delakoak aginte publikoaren esfera hedatzeko ahalegin bat da erabaki politikoaren esfera hedatu gabe. Edo, beste adibide bat gehiago aurkeztarren, amerikar Federakuntzako zenbait estatuk estatu-unibertsitateak finantzatzen dituzte «lokarri gabe», hau da, horien autonomian, kasu batzuetan ia erabatekoa den horretan, tartekatuta gabe.

Horrela, bada, kontzebigarria da estatuaren esferan sarrarazteko modukoak izatea giza jardueraren ia mota guztiak buruzagitzat politikoarengatik lehiakidetzat borrokan sartzen den materialaren parte bihurtu gabe, agintea ematen duen neurria egokitzen inplikaturik dagoenaz haratago eta hori eskuratzeko erakundea antolatzen duenaz eta gobernuak duen gainbegiratzailerengandik inplikaturik dagoenaz haratago. Egia da, noski, gainbegiratze hori eragin kaltegarria izatera irits daitekeela. Erakunde publiko ez politikoetako pertsonala izendatzeko politikariaren agintea, barne-zimikorik gabe erabiltzen bada, sarritan aski izango da haiek usteltzeko. Baina horrek ez du afektatzen auzitan dagoen printzipioa.

Hirugarren baldintza gisa, gobernu demokratikoak gizarte industrial modernoan, jarduera publikoko esferan sartutako helburu guztietarako eduki ahal izan behar ditu –garrantzitsuak ala xeheak diren begiratu gabe– ongi gaituriko burokrazia baten zerbitzuak, izen ona izango duena eta tradizio sendo batean bermatzen dena, betebeharraren zentzu indartsu batez eta ahulagoa ez den *esprit de corps* batez hornitua. Burokrazia hori izatea da zaleek egikarituriko egintzaren objektioari eman dakiokeen erantzunik hoberena. Potentzialki baliozko erantzun bakarra da Estatu Batuetan hain sarri

entzuten den galderari, hau da, baldin eta politika demokratikoa ez bada izan gai udal-gobernu gisakoak sortzeko, nola espero dezakegu ongi joatea nazioari baldin eta horren jarduera guztiek, ekoizpen-prozesuko guztiek horien baitan sartzen direlarik, politika horren baitan geratu behar badute? Azkenik, eskusartze publikoko domeinua oso zabala denean estatuaren atribuzio-esferaren hedadurari buruzko gure bigarren baldintza bete ote daitekeen galderaren erantzun nagusia ere bada⁶.

Ez da aski burokrazia efizientea izatea administrazio korrontean eta irizpenak emateko gaitua izatea. Gidatzeko bezain indartsua ere izan behar du, eta, behar izanez gero, ministerioen buru jarriko diren politikariak eskolatzeko ere. Hori egin ahal izateko bere printzipio propioak garatzeko egoeran egon behar du eta horiei eusteko bezain independentea izan. Botere bat eratu behar du eskubide propioz. Horrek esan nahi du, egitez formalki ez bada ere, izendapenak, iraupenak eta igoyerak neurri handi batean –politikariak bortxatzeko ezbaiak izaten dituzten burokraziaren erregelamenduen barruan– bere kontzepzio korporatiboen baitan egon behar dutela, segurtasunez sortuko den heia gora guztia gorabehera, politikariak edo publikoa kontzepzio horiek trabaturik aurkituko diren guztietan, sarritan beraz.

Berriro, pertsonal politikoaren kasuan bezala, giza material eskuragarriaren auzia garrantzi erabakigarrikoa da. Gaitzea, nahiz eta esentziala izan, horretarako erabat bigarren mailakoa da. Eta berriro, nola beharrezko giza materiala hala gisa horretako klase ofizial baten funtzionamendurako beharrezko tradizioen kodea segurtatzea errazagoa denean, orduan dago kalitate egokiko estratu sozial bat eta dago kion prestigioa izango duena, zeinaren barruan estatuak bere agenteak errekluta baititzake, hau da, aberatsegia, pobreegia, eskusiboegia, atzigarriegia ez den klase baten barruan. Europako burokraziek, nahiz eta bere izen ona orbantzeko kritika aski etsaikorra sorrarazi badute ere, oso ongi eskaintzen dute nik adierazi nahi dudanaren adibidea. Demokrazia horiek bilakaera luze baten ekoizkinak dira, zeina hasi baitzen Erdi Aroko magnateen *ministerialek*in (jatorriz, funtzio administratibo eta militarrek betetzeko serbu hautatuak, zeinek horrela behe-nobleziaren estatusa lortu baitzuten), eta zeinek mendeetan barrena jarraitu baitzuen gaur egun begisten dugun makina ahaltsua

agertu arte. Ezin daiteke diruz «aloka». Baina nonahi garatzen da, zeinahi delarik ere nazio batek hartzen duen metodo politikoa. Horren hedapena da gure etorkizunean ziur dagoen gauza bakarra.

Baldintzen laugarren taldea «autodiziplina demokratiko» esaldian laburbil daiteke. Mundu guztia ados egongo da, noski, metodo demokratikoak frikziorik gabe funtzionatu ezin duelakoan, nazio batean zeresana duten talde guztiek neurri legegile guztiak indarrean dau-den denbora guztian eta legez eskudunak diren agintari guztiek agin-duriko neurri exekutibo guztiak onartu nahi ez badituzte behintzat. Baina autodiziplina demokratikoak hori baino askoz gehiago inplika-tzen du.

Hautesleria eta parlamentu guztien gainetik maila intelektual eta moral aski jasoa izan behar dute amarruzale eta fartsanteen eskain-tzen aurka ziur egoteko, edo ez bata edo ez bestea izan gabe bi horiek bezala portatuko diren beste gizaki batzuenen aurka. Gainera, demo-krazia deskreditatzen duten eta horrekiko atxikimenduari azpia jaten dioten porrotak gerta daitezke hiritarren kategoria jakin batzuen esku-bideak edo egoera nazionala kontuan ez daukaten neurriak onartzen direnean ere. Eraberritze legegileen edo neurri administratibo espezi-fikoen proposatzaileek nahikotu beharra dute, nolabait esateko, txan-da ordenatu baten zain egotearekin, denda oldarrez hartu gabe. Metodo demokratikoaren *modus operandi*az aurreko kapituluan esan izan dena gogoratzuz, irakurleak ulertuko du horrek nahiko mendeko-tasun borondatezko inplikatzeko duela.

Batez ere politikariek paralamentuan aukera duten bakoitzean gobernuia eraisteko edo estuasunean jartzeko tentaldiari aurre egin behar diote. Ezinezkoa da politika eraginkorra izatea horrela jokatzeko badute. Horrek esan nahi du gobernuia sostengatzen dutenek haren buruzagitza onartu behar dutela eta programa bat egiten utzi eta horren arabera jokatu eta oposizioak buruan dagoen «kabinete poten-tziala»aren buruzagitza onartu eta borroka politikoa arau batzuen ara-bera gidatzeko aukera eman. Eskakizun horiek betetzea, zeinen bor-txaketa ohikoak demokrazia baten amaieraren hasiera adierazten baitu, eskatzen du, ikusiko denez, tradizionalismo-dosi zehatza, ez handiegia eta ez txikiegia. Tradizionalismo hori babestea da, izan ere, prozedura eta etiketa parlamentarioko arauen existentziaren arrazoie-tako bat.

Parlamentuz kanpo kokaturiko hautesleek beren eta hautatzen dituzten politikarien arteko lanaren banaketa errespetatu beharra daukate. Ez dute beren konfiantza erraztasun handiegiz hauteskundeen arteko tartean eta ulertu behar dute, norbanako bat hautatu dutelarik, berari dagokiola ekintza publikoa eta ez hautesleei. Horrek esan nahi du uko egin behar diotela berari instrukzioak emateari egin behar duenaz, izan ere, printzipio hori konstituzioek eta teoria politikoak unibertsalki berrezagutu baitute Edmund Burkeren garaietatik. Baina horren ondorioak eskuarki gaizki ulertzen dira. Alde batetik, pertsona gutxi ohartzen dira printzipio horrek talka egiten duela demokraziaren teoria klasikoarekin eta, izatez, bera bertan behera uztea esan nahi du. Zeren, herriak gobernatu behar badu kontrobertsia espezifikoak erabakitzearen zentzuan, zer izan liteke naturalago harentzat bere ordezkariari instrukzioak ematea baino, frantes Estatu Orokorretako hautesleek egiten zuten 1789an eta data horren aurretik? Bestaldetik, oraindik gutxiago berrezagutzen da, hautesleak beren ordezkarien jardueran ez tartekatzearen printzipioa onartzen bada, nola instrukzio formal guztiak, *cahiers* frantsesetakoak bezalakoak, hala hain formalak ez diren parlamentuko kideen ekintza-askatasuna murrizteko ahalginak era berean proskribatu beharko liratekeela, zeinaren adibide bat baita gutun eta telegramaz haiek bonbardatzearen praktika.

Ezin gaitezke sar horrek planteatzen dituen arazo delikatu desberdinetan demokraziaren egiazko izaerarekiko, dagoeneko definitu dugunez. Hemen interesatzen zaigun gauza bakarra da gizarte handi eta konplikatuetakoa praktika demokratikoaren arrakasta huts egin gabe bateraezina izan dela hesi politikotik gobernatzeko praktikarekin —diplomazia sekretura eta asmoen eta konpromisoen disimulura jotzeko punturaino—, eta horri uko egiteko hiritarrak autodiziplina-dosi on bat behar duela.

Azkenik, buruzagitzarekiko lehiakidetzak efektiboak tolerantzia-maila handia eskatzen du iritzi-desberdintasunekiko. Lehenago ere seinالاتu izan da tolerantzia hori ez dela eta ezin dela inoiz erabatekoa izan. Baina legez bazterturik ez dagoen buruzagitzarako hautagai orok ahalgarri izan behar du bere kausa desordena sortu gabe defendatzea. Eta horrek inplika dezake edo jendeak egonarriz entzun behar duela horren interes bitalenei erasotzen ari den bitartean, edo horren ideal kuttunenak erasotzen ari den bitartean, edo bestela, alter-

natiba gisa. Horrelako iritziak sostengatzen dituen buruzagitzarako hautagaiak bere burua erreprimitu egin behar duela bere iritziak sostengatzean. Halaber ezinezkoa da norbere iritziak subordinatzea, borondate onez, hiritarkideen iritziarekiko errespeturik gabe.

Sistema orok jasan dezake halako puntu bateraino praktika desbideratzailea. Baina, ezinbesteko gutxienezkoa murrizturik ere, autodiziplina demokratikoak izaera nazionala eskatzen du, bistakoa denez, eta aztura nazional batzuk, halako mota batekoak, non ez den toki guztietan haiek garatzeko aukerarik izan, metodo demokratikoa berak sortuko duen konfiantzarik izan ez daitekeelarik. Eta autodiziplina horrek inon ez ditu jasango errigore-maila aldakor bat gaindituko duten probak. Irakurleak, izan ere, gure baldintzak berraztertzea bakarrik behar du gobernu demokratikoak abantaila konbentzitzeko garrantziko interes guztiak ia aho batezkoak badira bakarrik funtzionatuko duela abantaila osoz ez herrialdearekiko bere fideltasunean bakarrik, baizik eta dagoen gizartearen egitura-printzipioekiko bere fideltasunean ere bai. Printzipio horiek auzitan jartzen direnean eta nazioa bi eremu etsaikorretan banatuko duten arazoak sortzean demokraziak desabantailarekin funtzionatuko du. Eta funtzionatzeari erabat utz diezaioke interesak jokoan sartzen direnean, zeinekiko gizakiek uko egiten baitiote konpromiso batera heltzeari.

Hori orokor daiteke esanez metodo demokratikoa desabantailan egongo dela perturbazio-garaian. Izan ere, mota guztietako demokraziek ia aho batez berrezagutzen dute badirela egoerak, zeinetan arrazoizkoa baita lehiakidetzako buruzagitzari uko egin eta buruzagitzaren monopolista hartzea. Antzinako Erroman konstituzioak hautespenekoa ez zen kargu bat ezartzen zuen monopolio-buruzagitzaren ematen zuena premiazko kasuetan. Kargu horren titularrari *magister populi* edo *dictator* deitzen zitzaion. Antzeko klausulak ia konstituzio guztietan ezagutzen dira, Estatu Batuetakoa barne; Estatu Batuetako Presidenteak baldintza batzuetan efektu guztietarako erromatar zentzuan diktadore bihurtzen duen ahalmen bat hartzen du, nahiz eta alde handiak egon, nola eraikuntza juridikoan hala xehetasun praktikoetan. Monopolioa egiazki denboraldi jakin batera mugatzen bada ere (jatorriz Erroman gertatzen zenez) edo argi determinaturiko denboraldi bateko premia-kasu baten iraupenera, lehiakidetzako buruzagitzaren printzipio demokratikoaren aplikazioa besterik gabe esekita geratzen

da. Monopolioa ez bada tenporalki ez juridikoki ez egitez mugatzen –eta denboran mugatzen ez bada, jakina, gainerako guztian mugagabea izatera joko du–, printzipio demokratikoa derogaturik geratzen da, eta diktaduraren kasua daukagu gure egunotan ulertzen den zentzuan⁷.

III Demokrazia Ordena Sozialistan

1. Gure ondorioak aurkeztean hobe da demokraziaren eta ordena kapitalistaren artean dagoen erlazioarekin hastea.

Demokraziaren ideologia, teoria klasikoan islatzen denez, giza ekintzaren eta bizitzako balioen kontzepzio arrazionalista batean oinarritzen da. Aurreko argudio baten indarrez (XI. kapitulua), gertakari hori berez aski litzateke ideologia hori jatorriko burgesekoa dela iradokitzeke. Historiak argi eta garbi berresten du iradokizun hori: historikoki, demokrazia modernoa kapitalismoarekin batera jaio zen eta horrekiko lotura kausalean. Baina gauza bera aplikatu dakioke praktika demokratikoari demokrazia buruzagitza lehiakorren gure teoriaren zentzuan eraldakuntza politiko eta instituzionaleko prozesuaren hasieratik egon da, zeinaren bidez burgesiak bera igo baino lehen egondako egitura sozial eta politikoa birtaxutu egin baitzuen eta arrazionalizatu egin zuen bere ikuspuntutik, metodoa demokratikoa izaki berreraikuntza horretarako erabilitako tresna politikoa. Dagoeneko ikusi dugu metodo demokratikoak era berean (eta bereziki ongi) funtzionatzen duela gizarte estrakapitalista eta aurrekapitalista batzuetan. Baina demokrazia modernoa prozesu kapitalistaren ekoizkina da.

Demokrazia kapitalismoaren ekoizkin horietako bat den ala ez, zeinak berarekin galtzera deituak baitaude, jakina, beste auzi bat da. Eta oraindik beste auzi bat da gizarte kapitalista ongi ala gaizki horniturik dagoen berak garaturiko metodo demokratikoaren arabera funtzionatzeko atazarako.

Azken auziari dagokionez, argi dago gizarte kapitalista ongi horniturik dagoela alde horretatik. Burgesiak badu soluzio bat berezia arazo honentzat: erabaki politikoaren esfera nola murriztu daitekeen buruzagitza lehiakorren metodoaren bitartez manaiagarriak diren proportzioetara. Gauzen eskema burgesak mugatu egiten du politikaren esfera autoritate publikoaren esfera mugatuz; horren ideala estatu gartxua da, burges-legalitatea bermatzeko eta eremu guztietan

marko irmo bat emateko ahalegin banako autonomoarentzat nagusiki dagoena. Gainera, kontuan hartzen badira gizarte burgesak bere baitan dituen joera bakezaleak –edozein kasutan antimilitaristak– eta librekanbistak, estatu burgesean erabaki politikoak duen zereginaren garrantzia txikitu egin daitekeela ikusiko da –gutxienez, printzipioz– sektore publikoko akatsek eska dezaketen ia edozein gradutaraino.

Alabaina, estatu-mota horrek utzi egin dio gu erakartzeari. Demokrazia burgesa, noski, oso kasu historiko berezia da eta horren alde egin daitezkeen uziek jadanik gureak ez diren arauak onartzea eskatzen dute. Baina absurdoa da ukatzea atsegin ez zaigun soluzio hori soluzioa dela eta demokrazia burgesa demokrazia dela. Aitzitik, horren kolorean ezabatuz doazen heinean garrantzitsuagoa da aitortzea bere bizitasunean zeukan kolore aberatsa, familiei (norbanakoei ez bazen ere) eskaintzen zizkien aukera hain zabal eta *berdinak*, bere probetatik garaile irteten zirenei (edo horien seme-alabei) ematen zien askatasun pertsonal hain handia. Halaber, garrantzitsua da aitortzea zeinen ongi erresistitu zuen, zenbait hamarkadatan behintzat, baldintza desfaboragarrien presioa, eta zeinen ongi funtzionatu zuen interes burgesekiko arrotz eta etsaikorrak ziren erreibindikazioei aurre egin zienean.

Halaber, beste aspektu batean, gizarte kapitalista, bere heldutasun-egoeran, ongi kalifikaturik dago demokrazia arrakasta bihurtzearen atazarako. Errazagoa da klase batek automugaketa demokratikoa egikaritzea, zeinaren interesak hobeki zerbitzatuak geratzen baitira ez esku sartzezko politika baten bidez beren izaeraz estatutik bizitzera jotzen duten klaseen bidez baino. Burgesak, bere arazo pribatuek nagusiki hurrupaturik daukatenak, oro har askoz gertakorragoa da diferentzia politikoekiko tolerantzia eta partekatzen ez dituen iritziekiko errespetua erakustea –bere arazoak larriki mehatxaturik ikusten ez dituen bitartean– beste edozein giza motak baino neurri handiagoan. Gainera, gizarte batean arau burgesak nagusi diren bitartean, jarra horrek gainerako klaseetara hedatzera joko du. Interes latifundista ingelesek onartu egin zuten 1845eko porrota adostasun handi samarrarekin; langile ingelesak borroka egin zuen ezgaitasunak ezabatze baina oraingo mendearen hasiera arte geldo ibili zen pribilegioak eskatzen. Egia da beste herrialde batzuetan automugaketa hori ez zela hain nabaria. Tolerantzia printzipioaren desbideratze horiek ez ziren

beti larriak izan eta interes kapitalistei bakarrik asoziaturik ere ez ziren egon. Baina kasu batzuetan bizitza politikoa ia erabat murriztu zen presio-taldeen arteko borrokara eta kasu askotan nahiko garrantzi hartzera iritsi dira metodo demokratikoaren *modus operandi*a desitxuratzeko horren espirituekin bateraezinak diren praktika halako batzuk. Hala ere, bapikatze nabaria izango litzateke ordena kapitalistan «ezin daitekeela» egiazko demokraziarik izan baieztatzea⁸.

Bi aspektuetan, hala ere, kapitalismoa laster batean behiala izandako abantailak galtzen ari da. Demokrazia burgesa, estatuaren ideal horri loturik dagoena, denboraldi batean gero eta frikzio handiagoarekin ari izan da funtzionatzen. Partez, hori gertatzearen arrazoiak zen, lehenago ikusi dugunez, metodo demokratikoak modurik faboragarrienean inoiz ez funtzionatzea nazioak oso banaturik daudenean egitura sozialeko oinarritzko arazoengatik. Eta zailtasun hori agertzen da, bestalde, bereziki larri gizarte burgesak metodo demokratikoaren funtzionamendu zuzena ahalbidetzeko beste baldintza bat betetzeari nabarmenki utzi diolako. Burgesiak buruzagitza politikoa arrakasta lortu duten norbanakoak sortu ditu, jatorri ez burgeseko politikari-klase batean sarraraziz; baina ez du estratu politiko propio efizienterik sortu, nahiz eta pentsatu beharra dagoen familia industrialen hiru-garren belaunaldiak aukera guztiak izan zituztela horrelako estratu bat sortzeko. II. atalean xeheki azaldu da zergatik izan zen hori horrela. Gertakari horiek guztiak, batera harturik, badirudi prognosi ezkorra iradokitzen dutela demokrazia-mota horrentzat. Halaber, demokrazia burgesak diktaduraren aurrean kapitulatzeko itxuraz izan duen erraztasunaren azalpen bat ere iradokitzen dute.

2. Sozialismo klasikoaren ideologia ideologia burgesaren ondorengoa da. Batez ere, bete-betean partekatzen du azken horren fase arrazionalista eta utilitariora eta demokraziaren teoria klasikoaren ideia eta idealetako asko. Ideia-ordena horretan sozialistek ez dute izan, izatez, inolako zailtasunik herentzia burgesaren parte horretaz jabetzeko ez eta sozialismoa hurrupatzeko gai ez den –jabetza pribatuaren babes azpimarratua, adibidez– teoria klasikoaren elementuen tesirako oinarri bat sortzeko ere, eta zeinak kontraesanean baitaude demokraziaren oinarritzko printzipioekin. Gisa horretako sinesteek bizirik iraun lezakete zeharo antidemokratikoak diren sozialismo-eretan beraietan ere eta konfiantza izan dezakegu eskribau eta fariseuek

formula egokizko zubi bat ezar dezaketela teoria eta praktikaren artean ireki daitekeen edozein amildegiren gainean. Baina guri axola zai-guna praktika da, praktika demokratikoaren destinoa, buruzagitza lehiakorren teoriak interpretatu duenez. Eta dagoeneko ikusia dugu-nez erabat ahalgarria dela sozialismo ez-demokratiko bat, auzi erre-a la berriz ere jakitea da zer neurritaraino dagoen sozialismoa ongi edo gaizki kualifikatua metodo demokratikoari funtzionarazteko zeregine-rako, funtzionarazteko asmoa duela suposatuz.

Ulertu beharreko puntu esentziala hau da. Ez dago pertsona arduratsurik metodo demokratikoa, hau da, «politika»ren esfera, auzi ekonomiko guztietara hedatzearen ondorioak baretasunez begiets ditzakeenik. Uste badu sozialismo demokratikoak hedatze hori esan nahi duela, hain zuzen ere, pertsona horrek ondorioztatuko du, jakina, sozialismo demokratikoak porrot egin behar duela. Lehenago seinala-tu denez kudeaketa publikoaren domeinuaren hedatzeak ez du impli-katzen kudeaketa politikoaren domeinuaren hedatze korrelatiborik. Kontzebigarria da lehena hedatu ahal izatea nazio baten auzi ekono-miko guztiak hurrupatu arte, nahiz eta bigarrenak metodo demokrati-koaren mugakizunek zedarrituriko mugen barruan iraun oraindik.

Hala ere, horri segitzen zaio gizarte sozialista batean, mugaki-zun horiek arazo askoz larriago bat planteatuko dutela. Zeren gizarte sozialistak ez baitu murritzpen automatikorik, sistema burgesak esfera politikoari ezarritakorik. Gainera, gizarte sozialista batean ezinezkoa izango litzateke pozbiderik aurkitzea prozedura politikoaren efizien-tzia-ezak, azkenaren buruan, askatasunerako berme bat direla pentsa-tuz. Kudeaketa efizientearen falta ogi falta bihurtuko da. Hala ere, makina ekonomikoa maneiatu behar duten erakundeek –III. atalean aurkitzen dugun Bulego Zentrala, baita industrien edo *concern* singu-larren zuzendaritza ematen zaien erakunde mendeakotuak ere– antola-turik eta pertsonalez halako moldez horniturik egon daitezke, non beren betebeharrak aruntak burutzean aski libre egon baitaitezke politi-karien interferentziatik, edo, gauza bera dena, hiritar sarkinen edo horien langileen batzordeetatik. Hau da, nahiko aldendurik egon dai-tezke borroka politikotik, «burokrazia» esamoldeari asoziatutik doa-zen efizientzia-ezen kausa gehiagoren arriskupean ez egoteko. Eta horiek ere asko murrizt *daitezke* norbanakoengan erantzukizunaren kontzentrazio egoki baten bidez eta ongi hautaturiko pizgarri eta san-

tzioen sistema baten bidez, zeinaren atal garrantzitsuena izendapen-eta igoarazte-metodoek eratuko bailukete.

Sozialista serioak, hauteskunde-harenga batean ez daudenean eta beren erantzukizunaren kontzientziaren aldarrian aurkitzen direnean, beti egon dira arazo horretaz jabeturik, eta ulertu dute «demokrazia» ez dela horrentzako erantzuna. Horren adibide interesgarri bat Sozializaziorako Batzorde Alemaniarraren (*Sozialisierungs-Kommission*) deliberazioak dira. 1919an, Alderdi Sozialdemokrata alemaniarrak deliberatuki aurre egin zionean boltxebismoari, horren kideetako erradikalenek uste zuten artean etortzeko zorian zegoela sozializazio-neurriren bat beharrian praktikoko auzi gisa, eta, ondorioz, batzorde bat izendatu zen xedeak definitu eta metodoak gomendatzeko. Batzorde hori ez zegoen sozialistez bakarrik eratua, baina eragin sozialista nagusia zuen. Karl Kautsky izan zuen buru. Ikatzari buruzko gomendio definituak bakarrik egin ziren, eta horiek ere, oposizio antisozialista baten hodei mehatxuzkoen pean eginak, ez dira oso interesgarriak. Askoz interesgarriagoak dira eztabaidan erabili ziren iritziak oraindik itxaropen askonahiagoak nagusi zirenean. Lantegietako kudeatzaileak lantegi beretako langileek hautatuak izatearen ideia era zabal eta aho batezkoan gaitzetsia izan zen. Porrokatze unibertsaleko hilabeteetan eratu ziren langile-kontseiluak atsekabezko eta susmagarri bihurtu ziren. Batzordeak, «demokrazia industrial»ari buruzko ideia herritarretatik ahalik eta gehien aldentzen saiatzean⁹, ahal zuen guztia egin zuen batzorde horiek kaltegabe bihurtzeko eta autoritatea errebotxatzeaz eta pertsonal zuzendariaren independentzia seguratzeko arduratu zen. Ahalegin intelektual ugari erabili zen industrietako kudeatzaileek beren bizi-indar kapitalista galtzea eta horiek karril burokratikoetan barrera lerratzea ekiditeko bitartekoak aurkitzearen auzian. Izan ere –hitx egiterik baldin badago beren garrantzi praktikoa laster galdu zuten eztabaiden emaitzez–, kudeatzaile sozialista horiek ez ziratekeen asko deberdinduko beren aurreko kapitalistengandik, eta, kasu askotan, berriz ere norbanako berak izandatuko zituzten. Horretara, beste bide batetik, III. atalean iritsi ginen ondorio berera iristen gara.

Baina orain ondorio hori sozialismoan demokraziaren arazoari emandako erantzunarekin loturan jartzeko egoeran gaude. Jakina, prozedura demokratikoko oraingo forma eta organoak, zentzu batean,

mundu burgesaren egituraren eta arazoaren hain emaitza dira nola demokraziaren beraren oinarritzko printzipioa. Baina hori ez da arrazoa kapitalismoarekin desagertu beharra izateko. Hauteskunde orokorrekin, alderdiekin, parlamentuekin, kabineteekin eta lehen ministroekin oraindik frogatzen dezakete tresnarik komenigarrienak direla erabaki politikorako ordena sozialistak erreserba ditzakeen auziak tratatzeko. Auzi horien zerrendatik kendu egingo dira interes pribatuaren gatazka eta horien arautzeko premiatik sortzen diren sail horien guztiak. Horien ordean beste berri batzuk izango dira. Auzi batzuk erabaki beharko dira, hala nola nolakoa izango den inbertsio-bolumena edota produktu sozialaren banaketarako dauden arauak nola eraberritu behar diren, eta abar. Efizientziari eta Errege Batzorde Ingelesen (*English Royal Commissions*) motako ikerketa-batzordeei buruzko eztabaida orokorrekin oraingo funtzioak betetzen jarraituko lukete.

Horrela, bada, kabineteen politikariek eta, bereziki, Ekoizpen Ministerioaren buruzagitzan ezarritako politikariek baieztatu egingo lukete, zalantzarik gabe, elementu politikoaren eragina, nola makina ekonomikoaren funtzionamenduko printzipio orokorrekin buruzko horren neurri legegileekin hala izendapenak egiteko horren ahalmenarekin, zeinak ezingo bailuke inola ere huts egin ez eta erabat formal izan ere. Baina ez dute eskua sartu beharrik efizientziarekin bateraezina den neurri batean. Eta Ekoizpen Ministroak ez dauka industria singularren barne-funtzionamenduan tartekatuta beharrik Osasuneko edo Gerrako ministro ingelesek bakoitzak bere departamentuko barne-funtzionamenduan tartekatzen den baino gehiago.

3. Esan beharrik ez dago demokrazia sozialista bat funtzionamenduan jartzea ataza perfektuki etsipenezkoa izango litzatekeela, III. atalean apaituriko «heldutasun»-eskakizun guztiak betetzen dituen gizarte baten kasuan izan ezik, bereziki bere baitan sartuz ordena sozialista era demokratikoan ezartzeko gaitasuna eta prestigioa eta esperientzia egokiko burokrazia baten existentzia. Baina eskakizun horien beteko lituzkeen gizarte batek —ez naiz ari beste ezeinez— garrantzi segur aski erabakigarriko abantaila bat izango luke ezer baino lehen.

Azpinarratu dut ez dagoela espero izaterik demokraziak era asegarrian funtzionatzerik, klase guztietako biztanleriaren gehiengoa joko demokratikoko arauari atxikitzen prest egon ezean, eta horrek,

bestalde, inplikatzan duela hiritar horiek funtsean ados egotea beren egitura instituzionalaren oinarriez. Gaur egun ez da azken baldintza hori betetzen. Hainbeste dira gizarte kapitalistaren arauak atxikitzeari uko egin diotenak, eta beste hainbeste baino gehiago horri uko egingo diotenak, non arrazoi horrengatik bakarrik demokrazia gero eta frikzio handiagoarekin funtzionatzera beharturik baitago. Hala ere, begietsitako aldian sozialismoak estal dezake pitzadura. Harmonia berreskura dezake eraikin sozialaren printzipio arkitektonikoei dagokienez. Berrezartzen badu, orduan geratzen diren antagonismoak metodo demokratikoak perfektuki ebatz ditzakeen motakoak izango dira zehatz-mehatz.

III. atalean seinalatu da, halaber, gainerako antagonismo horiek kopuruz eta garrantziz urrituz joango direla interes kapitalista antagoniko horiek ezabatzean. Nekazaritza eta industriaren arteko, enpresa txikia eta handiaren arteko, enpresa altzairu-ekoizle eta enpresa altzairu-konsumitzaileen arteko, industria babestu eta esportazioekoen arteko erlazioek auzi politiko izateari utziko diote (edo utz diezaiokete), zeinak talde presioegileen garrantzi erlatiboarengatik ebatzi behar baitira, eta zeinak arazo tekniko bihurtuko baitira, teknikariek erantzun grinagabe eta zalantzagabeak eman ahal ditzaketenak. Nahiz eta utopikoa izan daitekeen ez egotea interes ekonomiko desberdinak ez eta horien arteko gatazkarik, eta oraindik utopikoago desakordioan egoteko kontrobertsia estra-ekonomikorik ez dela egongo espero izatea, primeran sostenga daiteke kontrobertsiako auzien batura guztizkoa urritu egingo litzatekeela, kapitalismo ukigabearen garaietan zegoenarekin erkatuta ere. Ez legoke, adibidez, zilar-gizakirik (zilarrezko txanponaren aldezerik). Bizitza politikoa araztu egingo litzateke.

Lehen begiratuan, sozialismoak ez du emateko soluzio nabaririk, beste gizarte-forma batzuetan ebatzirik arazoarentzat tradizio egonkorrez elikaturiko klase politiko baten existentziarengatik. Lehenago ere esan dut sozialismoan politikari profesionalik izango dela. Kasta politiko bat gara daiteke, zeinaren kalitateaz espekulatzea alferrik izango bailitzateke. Honaino garaiagoa da sozialismoa. Argudia liteke horren aldeko elementu horiek erraz kontrakar daitezkeela desbideratze ahalgarrien garrantzia eta gertakortasunaz. Neurri bateraino aurrea hartu diogu horri heldugabetasun ekonomikoaren

faktorea azpimarratuz, zeinak inplikatzen baitu, besteak beste, belau-
naldi baten sakrifizio handirik ez dela behar beste hurrengo belaunal-
di bati mesede egiteko. Baina nahiz eta premiarik egongo ez balitz ere
Gosplan baten bidez herria unatzeko, orientazio demokratikoari eus-
tearen ataza, esperientzian, izugarri nekeza gerta daiteke. Inguru-
barrak, zeinetan lema maneiatzen duten norbanakoek eskuarki arra-
kasta izango bailukete hori ebazten, agian ez dira errazagoak imajina-
tzen beste inguruabar batzuk baino, zeinetan sektore politikotik nazio-
ko ekonomia osora hedatzen ari den paralisiaren ikuskizunaren aurrez
aurre ekintza-norabide bat har bailezakete, zeinak beti izan behar
baitu tentazioren bat antolakuntza sozialistak bere baitan duen herria-
ren gaineko botere izugarriaz kontziente diren gizakientzat. Azkenaren
buruan, ekonomia sozialistaren kudeaketa efektiboak dik-
tadura esan nahi du lantegian, ez proletalgoarena, baizik proletalgoa-
ren *gainekoa*. Han hain hertsiki diziplinaturik dirauten, egiaz, sobera-
noak izango lirateke hauteskunde batzuetan. Baina horiek subiranota-
sun hori erabil dezaketen bezala lantegiko diziiplina erlaxatzeko,
gobernuak ere –hain zuzen ere nazioaren etorkizuna bihotzean duten
gobernuek– diziiplina horretaz balia daitezke subiranotasun hori
murrizteko. Beharrian praktikoko arrazoiengatik demokrazia sozia-
lista, hitz batean, orain arte demokrazia kapitalista izan dena baino
iruzur handiagoa gerta daiteke.

Edozein kasutan demokrazia horrek ez du esan nahiko askata-
sun pertsonalaren maila garaiagoa. Eta, beste behin esaten dut, teoria
klasikoak bere baitan dituen idealetara gehiago hurbiltzen denik ez du
esan nahiko.

V ATALA

ALDERDI SOZIALISTEN

ZIRRIMARRA HISTORIKOA

HITZAURREA

Ez dagokit niri alderdi sozialisten historia bat idaztea. Egoera historikoak, zeinetan sortu eta hondoratu baitziren eta beren arazoeekin borroka egin zuten moduek nireak baino oihal handiagoa eta pintzel indartsuagoa eskatzen dituzte. Horretan ahalegintzeko garaia ere ez da oraindik heldu; nahiz eta azken hogeitaz urteok monografia baliotsu ugari ekoitzi badituzte ere, zeinek behar adina argiten baitute egoera edo fase partikularrei buruz, oraindik ikerketa-kantitate eskerga dago egiteko sozialismo modernoaren historia bat, eskakizun zientifikoak aseko dituen idatzi baino lehen. Baina beharrezkoa da zenbait gertakari deskribatzea liburu honen aurreko ataletan esan denetik asko osatzeko edo ikuspegi egokian ezartzeko. Beste puntu batzuk aurkeztu ere egin nahi ditut, zeinek bultzatu bainaute bai azterketara eta bai behaketa pertsonalera¹, eta berenez interesgarriak direla baitirudite. Asmo bikoitz horrekin bildu ditut ondoren doazen zatiak, nahiz eta zatiak izan multzoaren inguruneak adieraziko dituztelakoan.

Ez du irakurle orok –ez eta irakurle sozialista orok ere– zati honek Marx eta marxismoa kokatzen dituen posizio zentrala onartuko. Prest nago gai horretan hobespen pertsonal bat berrezagutzeko. Niretzat politika sozialistaren liluramena –atentzioa deitzea eta duintasun propioa ematea egiten diona, nola intelektuala hala moralaoinarri doktrinazko batekin duen erlazio argi eta estua da. Printzipioz, bederen, teoria da, hautemate egiazko edo faltsuaren inguruko egitea-

ren edo ez-egitearen bidez osatua, beharrian historiko batena. (Ikusi I. atala). Komenientzia eta taktika hutsezko kontsiderazioek berek ere *character indelebilis* hori daramate eta printzipio horren argitan eztabaidatu dira beti. Baina hori guztia egia da baina lerro marxistari dagokionez bakarrik; ez, noski, multzokatze burgesaren barruan, Benthamita erradikalei –era esanguratsuan erradikal «filosofiko» deitzen zitzaienei dagokienez baino egiago. Talde sozialista ez-marxista guztiak, gutxi gorabehera, gainerako talde eta alderdiak bezalakoak dira; konbikzio hutseko marxistak bakarrik ibili izan dira irmoki teoria baten argitan, zeinak haientzat galdera guztientzako erantzun guztiak baitzeuzkan bere baitan. Ikusiko dugunez, nik ez dut miresten jarrera hori era baldintzagabea. Estua eta inozoa ere dei daiteke oso ongi. Baina mota guztietako doktrinarioek, zeinahi direla ere horien ezgaitasun praktikoak, badituzte nolakotasun estetiko halako batzuk politikako profesionalen maila arruntaren gainetik jasotzen dituztenak. Halaber, profesional hutsek inoiz ulertu ahal izango ez dituzten energia-iturriak ere badituzte.

XXIV KAPITULUA ADIN-TXIKITASUNA

Doktrina sozialistak, horien erroetako batzuetan, segur aski pentsamendu artikulatua bezain antzinakoak amets eder edo higuin-garriak izan dira –erralitate sozialarekiko ukipenik gabeko joran indargabeak–, prozesu sozialak sozialismoa egikaritzeko lan egiten zuela norbait konbentzitzeko bitartekorik izan ez duen bitartean. Ahalegin sozialista basamortuan egindako predikuaeren pareko izan zen botere sozialeko iturri, existente edo potentzial batekiko ukipena ezarri ez zuen arte, era platonikoko prediku baten pareko, zeinari buruz ezein politikariz ez baitu arduratu beharrik eta zeina prozesu sozialen ezein behatzailek ez baitauka faktore obratzaileen artean katalogatu beharrik.

Horixe da Marxen kritika aurreko sozialista gehienei edo garaia hartan beren irakatsiak harenekiko lehian eskaintzen zituztenei eta berak haiei utopiko deitzearen arrazoia. Garrantzitsua ez zen hainbeste haien sistemetako asko nabarmenki xelebrekeriak izatea edo

beste zioen batengatik normalaz azpiko maila intelektuala izatea, baizik eta sistema horiek ez zeukatela esentzialki praktikara eramateko bitartekorik eta ezinezkoa zela horiez hornitzea. Adibide banaka batzuek ilustratuko dute hori eta literatura gorputz handi bati emandako begiraldi baten eginkizuna izango dute. Halaber Marxen irizpidea noraino zen erratua erakusteko ere aski izango dira.

Tomas Moro-ren (1478-1535) *Utopia* XIX. mendean irakurriak, miretsiak eta fidelki kopiatuak ere bai –Cabet eta Bellamyren arrakastak dira horren lekuko–, gizarte gartxu, moral eta berdinzale baten koadroa aurkezten du, Mororen garaiko gizarte ingelesari zehazki kontrajarria zena. Ideal hori baliteke kritika sozial baten forma literarioa baizik ez izatea. Agian ez dugu hori onartu beharrik Mororen iritzia aurkezteko plangintza sozial praktikoa xedeei buruz. Hala ere, azken zentzu horretan ulertu behar bazen –eta halaxe izan zen–, aurkezten duen zailtasuna ez datza horren praktika ezintasunean. Aspektu batzuetan sozialismo idilikoaren era batzuk baino praktika ezintasun gutxiagokoa da. Adibidez, autoritatearen auziari aurre egin eta zabalki onartzen du bizimodu apal baten –zalanztarik gabe, bertutearen mailara jasoaren– ikuspegia. Benetako desegokiera datza gizarteak estatu ideal horretaraino nola bilakatu behar duen (segur aski, konbertsioz izan ezik) eta hori ezartzeko zer faktore errealek jardun lezaketen erakusten ez ahalegintzean. Ideala atsegina edo desatsegina gerta dakiguke. Baina ezin dezakegu asko egin horren alde. Ia gauza guztiak beren lekuetan ezartzeko ez dago ezer hartan alderdi bat sortzeko ezta programa bat ezartzeko ere.

Beste mota baten adibidea Robert Owenen (1771-1858) sozialismoa izan daiteke. Fabrikatzailea eta eraberritzaile praktikoa ez zuen aski komunitate txiki autarkikoen ideia kontzebitzearekin –edo adop-tatzearekin–, zeinek ekoiztu eta kontsumituko baitzituzten bizirauteko gaiak printzipio komunisten arabera, hitzaren adierarik ausartenean. Bera, zinez, burutzen ahalegindu zen. Lehenik, gobernuaren ekintzan jartzen zuen konfiantza, eta gero, etsenplu bat ematearen efektua entseatu zuen. Hala irudi zezakeen plana Mororena baino praktikagarriagoa zela; ez zen ideal soila, baita hartara gidatzen zuen zubi bat ere. Izatez, hala ere, zubi gisako horrek utopismoaren izaeraren modu zehatzago bat ilustratzeko bakarrik balio du. Zeren nola gobernuaren ekintza hala ahalegin banakoak xede horretara bideratuak *dei ex*

machina gisa sarrarazten baitira, zeren faktore horien sarrarazpena agenteren batek hori egitea merezi zuela pentsatzeagatik egina izan beharko baitzukeen. Ez zen adierazten, eta ez zegoen adierazterik ere, helmugarantz joango zen ezein indar sozial. Ez zen ematen inolako lurrik arrosoak landatzeko; ez zitzaien uzten edertasunez bakarrik elikatzen¹.

Gauza bera esan daiteke Proudhonen (1809-1865) anarkismoaz, soilik, haren kasuan errore argi ekonomikoa askoz agerikoagoa gertatzen da anarkismoaren klasiko gehienengan baino, zeinek mespretxu egiten baitzioten argudiaketa ekonomikoari eta, norbanakoen lankidetzat aske eta aestatalaren ideala azpimarratzen bazuten edota bidea urratzeko egin behar zitzaion suntsitze-lana, arrazoiketa-erroreak ekiditen baitzituzten arrazoitzea ekiditearen bitartez, nagusiki. «Poeta ilargijo eta irudimenaren maitale gisa, dena batera» ez ziren gai, beren erakuntza propioz ezer egiteko, plan sozialistak porrokatu eta kitzikapen iraultzaileko egoeretan nahasmendua sarraraztea izan ezik. Ez da zaila begiko izatea Marxek M. Bakuninen portaeraren aurrean zeukan aiherrarekin, batzuetan etsipenik gabea ez zenarekin.

Baina anarkismoa mendekudun utopismo bat zen. Espezie patologiko hori aipatu izan da bakarrik argi eta garbi uzteko XIV. mendeko mentalitate horren birsorteak ez direla nahastu behar benetakako markako sozialismo utopikoarekin, St. Simonen (1760-1825) idazkiek ongien erakusten dutenarekin. Horietan zentzua eta erantzukizuna aurkitzen ditugu analisi-ahalmen ohargarri batekin uztarturik. Bere aurrean daukan helmuga ez da absurdoa ez bisionarioa. Falta zaiona bidea da; hor ere iradokitako metodo bakarra gobernuaren ekintza da, garai horretan esentzialki burgesak ziren gobernuak burutu beharreko ekintza.

Irizpide hori onartzen bada, sozialismoaren adin-txikitasunari bukaera ezarri zion haustura handia, izan ere, Karl Marxen izena eta obrarekin asoziatu behar da. Beraz, data ezar diezaiokegu, horrelako auzietan egitea ahalgarri deneraino, *Alderdi Komunistaren Manifestuarena* (1848) edo Lehen Internazionalaren (1864) sortzearena; aldi horretan bildu ziren seriotasuneko irizpide doktrinal eta politikoak. Baina, alde batetik, burutzapen horrek adin-txikitasuneko mendeen garapenak bakarrik laburbiltzen ditu, eta, bestetik, era partikular batean formulatzen zituen, zeina agian ahalgarri bakarra baitzen

praktikoki, nahiz eta logikoki ez izan noski. Beraz, sozialismo ortodoxoak adin-txikitasuneko gizakiei buruz emandako epaia neurri batean berrikusi beharra dago.

Lehenik, nahiz eta mende horietako sistema sozialistak ametsak izan, horietako gehienak amets arrazionalizatuak ziren. Eta pentsatzaile banakoek era gutxi-asko perfektuan arrazionalizatzea lortu zutena ez ziren beren amets banakoak izan, baizik eta klase ez-gidarien ametsak. Horrela, bada, pentsatzaile haiek ez ziren erabat hodeietan bizi; gainaldera ekartzen lagundu zuten haren azpian lokarturik zegoena, baina itzartzeko prest zegoena. Zentzu horretan, anarkistek berek ere, haien Erdi Aroko aurrekoetararaino joanez, zeinak konbentut batean baino gehiagotan loratu baitziren eta areago oraindik Ordena Frantziskotarraren talde hirugarrendarretan, marxistek eskuarki ematen ez dieten garrantzia hartzen dute. Nahiz eta mespretxugarriak irudititu haien sinesteak sozialista ortodoxoei, sozialismoaren indar bultzatzailetik asko, gure egunotan ere, haiek aldarrikatzen zuten *arima* (ez sabelaren) joran irrazional haietatik dator².

Bigarrenik, adin-txikitasuneko pentsatzaile sozialistek gero baliagarritasun handikoak izan ziren adreilu asko eta lanabes asko eman zituzten. Azken finean gizarte sozialista baten ideia bera haiek sortua zen eta haien ahaleginei zor zitzaien Marxek eta haren aldiki-deek eztabaidatu ahal izatea mundu guztiarentzako gauza ezaguna gisa. Baina utopistetakoa asko hori baino askoz haratago joan ziren. Plan sozialistako detalreak edo horren aldagaietako batzuk landu zituzten, horrela arazoak formulatuz –nahiz eta era desegokian– eta sail handia garbituz. Analisi ekonomiko hutsari egindako ekarpena ere ez dago ahazterik. Oso legami beharrezkoa eman zuen bestela nekarriki trinkoa gertatuko zen pudding baterako. Gainerakoan, utopismoaren parte handi bat zegoen teoria hobetu zuen lan profesionala besterik ez zen eta, besteak beste, Marxi asko zerbitzatu ziona. Sozialista eta kuasi-sozialista ingelesek, lanaren balioaren teoria landu zutenek –esaterako William Thompsonen–, ematen dute horren adibide hoberena.

Hirugarrenik, marxistek utopisten artean sartu zituzten guztiak ez ziren izan masen mugimenduekiko kontaktugabeak. Izan zuten kontaktu halako bat intelektualen lumak mugimenduan jarritako baldintza sozial eta ekonomikoen gertakariaren ondorio gisa herriko

talde edo klaseren bat ere mugimenduan jarri zuten: nekazariak, edo artisauak, edo landako langileak, edo alderraiak eta jendaila besterik gabe. Baina utopistetako askok askoz kontaktu intimoagoa ezarri zuten. Nekazarien eskariak XVI. mendeko iraultzetan jadanik intelektualek formulatu zituzten, eta koordinazio eta lankidetza hori gero eta estuagoa egin zen mendeak pasatuz joan ziren heinean. «Gracchus» Babeuf Iraultza frantsesaren barruko mugimendu sozialista hutsa bakarraren espiritu gidaria, nahikoa garrantzizkotzat jo zuen gobernuak 1797an exekuzioa betetzea barkatzeko. Berriz ere Ingalaterra da garapen hori hobekien ilustratzen duen herrialdea. Aski dugu erkatzea, ikuspuntu horretatik, Levelleren mugimenduaren historia, XVII. mendean, XIX. mendeko mugimendu kartistarekin. Lehen kasuan Winstanley mugimenduari batu zitzaion eta zeregin gidaria izan zuen bertan indibidualki; bigarren kasuan, intelektual-taldeek erreakzionatu zuten blokean, eta, nahiz eta haien lankidetza sozialismo kristau izatera iritsi zen, ez zen izan ikasleen auzi soila, masa-mugimendu aldikidetik erabat etena. Frantzian, adibiderik hoberena Louis Blanc-en jarduerak eskaintzen dute 1848an. Beraz, horretan eta beste aspektu batzuetan sozialismo utopikoa eta sozialismo «zientifikoa» desberdinak ziren graduan kalitatean bainoago; adin-txikitasun garaiko sozialisten erlazioa klase-mugimenduekiko noiz behinkakoa zen eta, oro har, ez zen oinarritzko printzipio-auzia, aldiz, Marxekin eta sozialismo post-marxistarekin oinarritzko printzipio-auzi bihurtu zen eta gobernu batek bere armada iraunkorrarekin duen erlazioaren antzeko.

Oraindik seinalatzeke dago puntu oso garrantzitsu bat behaztoparri ez gertatzea espero dudana. Dagoeneko esan dut sozialismo-ranzko joera baten eta botere sozial iturri efektibo edo potentzial batekiko kontaktu iraunkorraren existentzia predikatzen duen teoria³ –biak sozialismoaren eskakizunak dira faktore politiko serio gisa– XIX. mendearen erdi aldera finkatu ziren behin betiko era logiko, nahiz eta ez bakar ahalgarrian. Marxek eta haren aldikide gehienek orientazio berezia eman zioten beren teoriari sostengatzean langile klasea zela bakarra aktiboki asoziatu zegoena sozialismo-ranzko joera horrekin eta, horregatik, sozialistek bideratu behar zuten botere-iturri bakarra zela. Haientzat sozialismoak laneskua esplotaziotik askatzea esan nahi zuen nagusiki eta sostengatzen zuten «langileen emantzipazioak langile klase beraren obra izan behar duela».

Orain erraza da ulertzen langilearen interesa konkistatzeak, proposizio praktiko gisa, zergatik erakarri behar zuen Marxen arreta beste edozein ekintza-noranzkok baino eta zergatik haren doktrina horrekiko konkordantzia taxutua izan zen. Baina ideia hain irmoki errotu zen, gogamen sozialista batzuetan beraietan ere, azaltzea merezi duten gertakari batzuk irudimenetik ezabatzeke, hau da: langile-mugimendua, nahiz eta sarritan sozialismoaren aliatua, hartaz bestelako iraun duela gure egunotara arte, eta ez zitzaie inondik ere erraza gertatu sozialista estatalei langileen munduan eragin-esferak ezartzea, zeinetan haien kredoa gauza naturaltzat onartuko baitzen. Nolanahi interpretatzen ditugula gertakari horiek argi eta garbi geratu behar du langile-mugimendua ez dela esentzialki sozialista, sozialismoa derrigor laborista edo proletalga ez den era berean. Hori ere ez da harritzekoa. Zeren dagoeneko ikusi baitugu II. atalean prozesu kapitalista astiro sozializatzen ari dela bizitza ekonomikoa eta askoz gehiago, sozializazio horrek organismo sozialaren *osotasuna* eraldatzea esan nahi du, zeinaren atal guztiak ere berean afektatuak gertatzen baitira. Errenta erreala eta langile-klasearen garrantzi soziala gehitu egiten dira prozesu horretan eta gizarte kapitalista gero eta gaiezago bihurtzen da langile-gatazkei aurre egiteko. Baina hori Marxen lanaren koadroaren ordezkoko pobrea da, zeina iraultza handira sufrimendu gero eta jasanezinagoak bultzatu baitzuen. Koadro hori baztertu eta sistema kapitalistan langilearen zori-egoera efektiboki gehitzen dela egiaztatzen badugu ezinbestean gutxiago pentsatuko dugu langile-klaseari bilakaeraren logikak zuzenduriko dei partikularrean. Oraindik konbentzimendu gutxiagokoa da marxismoak proletalgaori izendatzen dion zeregina drama sozialaren hondamendian. Eraldakuntza mailakatua bada protelagoak zeregin txikia du. Eta iraultza handi bat balego proletalgaori hitz egin eta amore eman arte ikaratua izango litzateke. Lantza-punta jendaila erdi-kriminalak lagunduriko intelektualez eratua legoke. Eta gaiaren inguruko Marxen ideiak ez dira «ideologia» baizik, utopisten sinesteak bezain utopikoak hain zuzen ere.

Horrela, bada, funtsean egia izaten jarraitzen duen bitartean, aurreko gehienak ez bezala, Marxek ahaleginak egin zituela aurretik zegoen mugimendu bat eta ez amets bat arrazionalizatzen, halaber berak eta bere ondorengoek mugimendu horren gainera zuzendaritza-

ahalmen zatiko bat berenganatu zutela, aldea marxistek sinetsarazi nahiko liguketena baino txikiagoa da. Dagoeneko ikusi dugunez, erre-
alismo gehiago zegoen utopisten pentsamenduan eta amets irreal
gehiago Marxen pentsamenduan berak onartzen duena baino.

Gertakari horren argitan, hobeki pentsatuko dugu adin-txikita-
sun garaiko sozialistez, zeren haiek ez baitute era eskusiboan aspek-
tu proletarioa azpimarratzen. Bereziki, gobernuei edo proletalgoaz
bestelako klaseei egiten dieten deia ez zaigu hain bisionarioa irudit-
ko eta Marxi iruditzen zitzaiona baino errealistagoa. Zeren estatua,
haren burokrazia eta organismo politikoa maneiatzen duten taldeak
oso ikuspegi promesgileak eratzen dituzte bere botere sozialaren itu-
rria bilatzen duen sozialistarentzat. Eta orain agerikoa gertatu behar
duenez litekeena da nahi den norabiderantz mugitzea masena baino
«dialektikotasun» gutxiagokoa ez den beharrian batekin. Eta estratu
burgesen eskreztentzia hori Sozialismo Fabiano⁴ deituko duguna (*a
potiori*), hori ere iradokiorra da. Indar sozial bultzatzailearen Marxen
aukerak kasu berezi bat sortu zuen horrela, zeina praktikoki garran-
tzi suena bada ere, hala ere, logikoki, ortodoxoentzat fraude eta here-
sia diren beste batzuen parean baitaude.

XXV KAPITULUA

MARXEK AURRE EGIN ZION EGOERA

1. Engelsen arabera, Marxek 1847an «komunista» esamoldea hartu zuen «sozialista» esamoldearekiko hobespenez, zeren ordurako sozialismoak errespetagarritasun burges-kutsua hartua baitzuen. Nahiz eta hori gerta zitekeen eta nahiz eta guk hautatu gertakari hori azaltzea gertakari izan bazen –behin baino gehiagotan ikusi izan dugu arrazoi onik sozialismoa mentalitate burgesaren ekoizkin gisa inter-
pretatzeko– ezin liteke inolako zalantzarik izan Marx eta Engels bera ere intelektual burges petoak zirela. Burges jatorri eta tradizioko erbesterratuak izaki –formula horrek gauza asko argitzen du bai Marxen pentsamenduan eta bai berak gomendaturiko politikan eta taktika politikoetan. Txunditzekoa da zer neurritaraino ideia horiek gailendu ziren.

Lehenik, intelektual deserrotua, bere arima osoan 1848ko esperimentzia formatzaile betirako inprimaturik zuela, baztertu egin zuen bere klasea eta klase horrek ere baztertu egin zuen bera. Era beretsuan intelektual deserrotuek eta, neurri batean, masa proletarioak izango ziren aurrerrantzean gauza atzigarri bakarrak harentzat eta konfiantza ezartzeko zeukan gauza bakarra. Horrek azaltzen du, aurreko kapitulu-
luan ikusi dugunez, azalpena behar duen teoria, hau da, langileek «beren burua emantzipatu» behar dutelakoa.

Bigarrenik, intelektual deserrotu bera naturalki internazionalista bihurtzen da sentimenduz. Horrek edozein herrialde partikularretako –are proletalgo nazional banakoetako– arazoek eta gorabeherek ez zutela nagusiki afektatzen baino zerbait gehiago esan nahi zuen, eta beti haren interesen periferian geratzen zirela. Esan nahi zuen horrela askoz errazago gertatzen zitzaiola erlijio sozialista hipernazional eta proletalgo internazional bat kontzebitzea, zeinaren atal osagaiak, printzipioz bederen, bata bestearekin askoz hertsikiago loturik baitzeuden horietako bakoitza klase desberdineko bere naziokide propioekin baino. Logika hotzaren eremuan edonork taxu zezakeen kontzepzio ageriki irrealista hori eta kontzepzio horrek iragandako historiaren eta kanpo-politikari buruzko alderdi marxisten irizpideen interpretaziorako inplikatzten duen guztia. Baina orduan borrokatu egin beharko zukeen ingurumen nazionalek egikaritutako eragin efektibo guztiekin, eta horregatik kontzepzio internazionalista sekula ezingo zukeen grinaz besarkatu herrialde bati lokarri ugariz loturiko gizakiak. Marxentzat ez zegoen horrelako lokarririk. Berak herrialderik ez izatean, laster konbentzitu zuen bere burua proletalgoak ere ez zeukalakoaz.

Laster ikusiko dugu zergatik –eta noraino– irakaspen horrek bizirik iraun zuen eta inguruabar aldakorretan zer esanarazi zitzaion. Marxek berak zalantzarik gabe onartu zituen bere inplikazio ez-interbentzionistak eta pazifistak. Ez zuen pentsatzen «gerra kapitalistek» proletalgoari ez zitzaizkiola axola bakarrik, baizik eta oraindik askoz osokiago hura menderatzeko bitartekoak zirela. Agian egingo zukeen kontzesioa, hau da, eraso baten aurka norbere herrialdearen defentsan esku-hartzea ez dela bateraezina fededunaren betebeharrekin, bista-
koa denez baliabide taktiko oso beharrezkoa besterik ez zen.

Hirugarrenik, zeinahi izan zitekeelarik ere haren teoria¹, burges deserrotuak odolean zeraman demokrazia. Horrek esan nahi du

demokrazian zentratzen den balioen eskema burgesaren parte harekiko fedea ez zela harentzat bere garaiko edo beste edozein arotako sistema sozialaren baldintza berezien hautemate arrazionalako auzi soziala bakarrik. Taktika-auzi soilak ere ez zen. Egia da jarduera sozialistak (eta haren obra pertsonala) ezingo zirela garatu, erosotasun pixka batekin, edozein kasutan, demokrazia bestelako printzipioak profesatzen zituen edozein girotan, orduan ulertzen zenez. Oso kasu salbuespenekotan izan ezik oposizio guztiek aldarrikatu behar dute askatasuna –haientzat demokrazia esan nahi zuena– eta «herria»ren errukiaren baitara jaurti beren burua. Jakin-mina, elementu hori oso garrantzitsua zen, eta herrialde batzuetan gaur egun ere halaxe da. Horra hor, hain zuzen ere, dagoeneko, seinatu dudanez, zergatik alderdi sozialisten aitortpen demokratikoez ez duten asko esan nahi harik eta haien botere politikoa bahiko handi bihurtzen den arte alternatiba baten aukera emateko, eta zergatik ez zien bereziki mesederik egiten oinarritzko erlaziorik ezartzeak sozialismoaren logikaren eta demokraziaren logikaren artean. Hala ere, segurtasunez esan daiteke Marxentzat demokrazia eztabaida ororen gainetik zegoela eta gainerako sistema politiko guztiak haren azpitik zeudela. Hori berrezagutu beharra dago 1848 motako iraultzaileari². Jakina, berak ez zuen planteatu hori bezain garrantzitsua den fede burgeseko artikulua bat onartzearen arazoa. Horrek agerian utziko zukeen lur-sail komunaren hedadura handiegi bat. Baina aurreko atalean ikusia dugu berak bazekiela nola eskintxo egin zailtasun horri, ausarki erreibindikatu demokrazia sozialista bakarrik zela egiazko demokrazia eta demokrazia burgesa ez zela inondik ere demokrazia.

2. Horrelakoa zen Marxen *a priori* politikoa³. Ez da beharrezkoa azpimarratzea zeharo bestelakoa zela, ez bakarrik haren garaiko, baizik garai guztietako sozialismo ingelesaren *a priori*ekiko, zeinak hain desberdinak baitziren, non ia ezinezkoa zen elkarrekiko begikotasuna baita erabateko elkar aditzea ere, hegelianismoa eta gainerako hesi doktrinazko guztiak erabat alde batera utzirik. Desberdintasun hori bera oraindik hobeki nabarmenduko da Marx oso antzeko prestakuntza zuen beste intelektual aleman batekin erkatzen badugu, Ferdinand Lassallerekin (1825-1864). Arraza bereko kimua, estratu beraren emaitza, oso antzeko kultura-tradizioak taxutua, 1848ko esperimentuak eta demokrazia burgesaren ideologiak antzeko era batean

baldintzatua, Lassalle desberdina da, hala ere, Marxekiko, erkaketa pertsonalak erabat azal ez dezakeen era batean. Hori baino askoz bita-lagoa da Marx erbesteratua eta Lassalle ez izatearen gertakaria. Lassallek ez zituen inoiz bere herrialdearekiko lokarriak eten, ez eta proletalgoaz bestelako klaseekikoak ere. Ez zen inoiz internazionalis-ta izan, Marx bezala. Proletalgoaz batez ere proletalgo alemaniarra ulertzen zuen. Ez zion objektiorik jartzen zegoen estatuarekin lanki-detzan aritzeari. Ez zion objektiorik jartzen Bismarckekiko ez eta Bavariako erregearekiko kontaktu pertsonalari. Gauza horiek garran-tzitsuak dira, doktrinazko desberdintasun sakonak baino askoz garran-tzitsuagoak agian; nahiko garrantzi zuten sozialismo-mota desberdi-nak eta antagonismo adiskideezinak sortzeko.

Har dezagun orain geure posizioa Marxen *a priori*arekiko eta begiratu bat eman diezaiegun aurre egin zien datu politikoei.

Lehenik, masa industrial eskergak, zeinez Marxek idatzen bai-tzuen, eta zeinak Ingalaterran bakarrik zeudela pentsatzen baitzuen. Han bertan ere, berak harremanak ezarri zituen garaian, mugimendu kartista ezabatu zenez gero, langile klasea gero eta errealista eta kon-tserbadoreago bihurtzen ari zen. Aurreko jarduera erradikalen porro-tak desliluraturik, gizakiak aldendu egiten ziren egitarau itsugarrieta-tik eta ekoizkin osoarekiko haien eskubideari buruzko kantuetatik. Ekoizkinean esku-hartzea gehitzeko ahalegin bati ekin zioten zuhurki. Gidariak sindikatuen estatus legezkoa eta botere ekonomikoa ezarri, finkatu eta gehitzen saiatzen ziren zuhurki gizarte burgesaren marko politikoaren barruan. Printzipioz, baita kontsiderazio taktiko naba-riengatik ere, langileen lan serioarekiko trabatzat eta sabotai-a ergel eta hutsaltzat begiratu behar zieten ideia eta jarduera iraultzaileei. Langile klasearen goi-estratuaz ere interesaturik zeuden; behekoari zegokio-nez, mespretxuaren antzekoak ziren sentimenduak zituzten.

Edozein kasutan, hala ere, Marx eta Engels aurkitzen ziren inguruabarretan eta zirenak zirela, sekula ezingo zuten pentsatu hara-tago joateaz proletalgo industrial-a edo haren talde partikularren bat antolatzeko, beren ideien arabera. Espero zezaketen gauza bakarra zen gidariekin eta burokrazia sindikalar-ekin kontaktuan jartzea. Alde batetik, langile «errespetagarria»ren jarrera begiestean, eta, bestetik, hiri handietako jendaila (orduan) antolaezinaren jarrera, zeinarekin ia ez baitzuten jardun nahi⁴, dilema desatsegin bati aurre egin beharra

zeukaten. Derrigor onartu beharra zeukaten mugimendu trade-unio-
nistaren garrantzia, zeina pixkanaka klase artikulatu baten antzeko
zerbaitetan masak antolatzearen ataza eskerga burutzen ari baitziren,
hau da, berek denetan garrantzitsuentzat zeukaten arazoa ebazten.
Baina hartatik erabat aldendurik zeudelako eta klase hark oinarri bur-
gesa eta jarrera burgesa har zezakeen arriskuaz konturatzean, higuin-
garri gertatu behar zitzaiezkien «trade-union»ak eta haitez mesfidatu
egin behar zuten, «trade-union»ei haiek higuingarri zitzaizkien adina
eta haietaz mesfidatzen zuten adina, haien existentziaren berri zuten
heinean. Horrela bazterturik geratu ziren sozialismo klasikoaren ezau-
garri izatera iritsi den posizioa, eta zeinak, nahiz eta oso murrizturik
garrantzian, intelektual sozialisten eta langileen arteko oinarritzko
antagonismoa adierazten baitu gaur arte (zeina garrantzizko kasuetan
alderdi sozialistaren eta sindikatuen artean dagoen antagonismoarekin
pareka baitaiteke *grosso modo*). Intelektualentzat mugimendu trade-
unionista klaseen gerraren doktrina bihurtu beharreko zerbitu zen;
konbertsio horretarako bitarteko gisa egokia gertatzen zen sinestedu-
narentzat mugimendu horrekin noizbehinkako lankidetzat, langile-
kezkek erradikalizatu egiten baitzituzten masak eta nahiko arduratu
edo kitzikatzen baitzituzten «trade-union»etako funtzionarioak eban-
jelioa entzutera bultzatzeko.

Baina konbertsioa osoa ez zen bitartean, eta batez ere «trade-
union»en iritziak printzipioz ekintza iraultzailearekiko aurkako edo
besterik gabe politiko zirauen bitartean, mugimendua ez zegoen gra-
ziazko egoeran, baizik, aitzitik, errorezko egoeran, bere xede egiazko-
en kontzeptu faltsuarekin eta alferrikakoak baino makurragoak ziren
hutsalkerien engainupean; hortik zetorren, barrutik perturbatzeko
xederako izan ezik, sinestedunak aldendurik iraun behar zuen.

Egoera hori Marxen bizialdian bertan aldatu zen eta areago
oraindik Engelsenean. Proletalgo industrialaren hazkundeak,
Kontinentean ere hura potentzia bihurtzera iritsi zenak, eta garai har-
tako depresioek beren baitan zuten langabeziak gidari langileekiko
haien eragina gehitzea eragin zuten, nahiz eta inoiz ez lortu masekiko
eragin zuzenik. Azkenean, hala ere, intelektualak ziren lan-gaia eska-
tzen zietenak. Baina nahiz eta alor horretan izan zuten arrakasta ohar-
garria izan, intelektualek axolagabetasunak (batzuetan etsaikortasune-
ra iristen zenak) baino perturbazio gehiago eragiten zizkieten. Bazen

intelektual sozialista-sail bat eragozpenik ez zuena bai «trade-union»ekin identifikatzeko, ez mota burges erradikaleko eraberrikuntza sozialarekin edo, ez eta ere kontserbadorearekin eragozpenik ez zuena. Eta horiek, jakina, sozialismo oso bestelakoa hedatzen zuten, zeina, berehalako mozkin baten promesa ekaintzean, lehiakide arriskutsua baitzen. Baziren, gainera, intelektualak, zeinen artean lehen lekuan baitzegoen Lassalle, masen artean posizioak konkistatuak zituztenak, zeinak lehiakide oraindik zuzenakoak baitziren. Eta, azkenik, baziren intelektualak sugar iraultzaileari zegokionez urrun samarrera heltzen zirenak, baina Marx eta Engelsek, arrazoi osoz, sozialismo serioaren etsairik makurrentzat hartzen zituztenak; horiek Blanqui bezalako «putschistak» ziren, ameslariak, anarkistak eta abar. Kontsiderazio doktrinazko eta taktikoek Ezetz zurrun batez talde horiek guztiak borrokatzea ezartzen zuten.

3. Oinarri doktrinazko horrek eta egoera taktiko horrek guztiz zail bihurtu zuten Marxentzat bi auzi bitalentzat erantzuna aurkitzea, jarraitzaile edo balizko jarraitzaile orok segurtasun osoz planteatuko baitzuen: alderdi burgesen neurri politikoeikiko jarreraren auzia eta berehalako programaren auzia.

Aurrenekoari dagokionez, ez zegoen alderdi sozialistei aholkatzerik neurri politiko burgesak isilean zelatzeko. Haien egiteko nabaria gizarte kapitalista kritikatzeko, klase-interes maskarada agerian jartzea, paradisu sozialistan dena zenbat hobea izango zen seinaltatzea eta erreklutamendurako danborra jotzea, hau da, kritikatu eta antolatzea. Hala ere, jarrera guztiz negatiboa, nahiz eta oso asegarria izan hasieran, ezinezkoa gertatuko zitzaiokeen eustea eragin politiko halako bat zuen alderdi orori. Langile antolatuen benetako desiren gehiengoarekin ezinbestean talka egingo zukeen, eta denbora batean irauten bazuen, jarraitzaileak aszeta politikoen taldetxo bat izateraino murriztuko zitukeen. Marxen doktrinek 1914 urte bereraino alderdi alemaniar handiaren eta talde txiki askoren gain izan zuten eragina kontsideraturik, interesgarria da ikustea nola egin aurre zailtasun horri.

Egitea ahalgarri uste izan zueneraino logikoki errefusaezina zen posizio bakarra hartu zuen. Sozialistek uko egin behar diote burgesiari protetalgoa engainatzen saiatzen zen fikziozko hobekuntzetan esku-hartzeari. Esku-hartze horrek –gerora Erreformismo izena hartu zuena– fede-hutsegite bat esan nahi zuen, egiazko xedeei traizio egi-

tea, suntsitua izan behar duena zurkaizteko atentatu maltzur bat. Bebelen dizipuluak, kriptaraino erromesbidea egiten zutenak horrela egiazko bide-zidorretik desbideratu ondoren, zinez prezatuak ziren. Egia da Marx eta Engels berek hausnartua zutela talde burgesen ezker hegalarrekiko lankidetza 1847ko beren alderdi komunistaren garaian. *Manifestu Komunistak* ere aitortzen du noiz behinkako konpromiso eta aliantzen premia, aldi berean onartzen zuelarik taktikek desberdinak izan behar zutela, denbora- eta toki-inguruabarren arabera. Hori guztia inplikaturik zegoen herrialde bakoitzaren barruan talde burgesen artean antagonismo guztiak erabiltzeko sinestedunari agindutako maximan, izan ere hori nekez egin baitaiteke horietakoren batzuekin lankidetza-neurri bat gabe. Baina hori guztia printzipio bat mugatzea zen era efektiboagoan mantentzeko. Kasu bakoitzean salbuespena zorrotz arakatu behar zen, haren kontra beti presuntzio bat egonik. Gainera, kontsideratzen zen lankidetza emergentzia jakin batzuetako lankidetza zen, iraultzetan hobespenez, bizitza politikoaren joaira arruntan elkar-ulertzeak inplikaturik lituzkeen aliantza iraunkorragoa baino areago, zeinak arriskuan jar bailezake kredoaren garbitasuna.

Marxistek nola portatu behar zuten etsai burgesaren politika partikular bati aurre egitean, zeinak argiro mesede egingo baitzion proletalgoari, maisuak berak kasu oso garrantzitsu batean ezarritako adibidetik atera dezakegu. Librekanbioa zen liberalismo ingelesaren programako puntu nagusietako bat; Marx ekonomialari onegia zen, garai hartako inguruabarretan, langile-klaseari ematen zion onura ez ikusteko. Ken zekiokkeen garrantzia onurari, gaitzets zitezkeen librekanbista burgesen zioak. Baina horrek ez zuen arazoa konponduko, zeren sozialistek segur aski librekanbioa lagundu beharko baitzuten, jakiena bereziki. Beraz, hala egingo zuten, baina ez emaritzat hartzen zutelako ogi merkeagoa –hori ez!– baizik eta librekanbioak bilakaera sozialaren erritmoa agurotuko zuelako, eta, ondorioz, iraultza soziala. Amarru taktikoa miresgarria da. Argudio, gainera, erabat egiazkoa da eta kasu askori aplikatzeko aukera ematen du. Orakuluak ez du esaten, hala ere, zer egin behar duten sozialistek neurri politikoekin, zeinek, nahiz eta proletalgoari mesede egin, ez baitute bilakaera kapitalista sustatzen –hobekuntza sozial, aseguru sozial eta antzeko neurri gehienekin gertatzen denez– edo, bilakaera kapitalista sustatzen badute ere, ez baitiote zuzenean proletalgoari mesede egiten. Baina sail burgesak

auzi horiengatik banatu behar bazuen bilakaeraren bidea garbitu egiten zen disensio kapitalistak erabiltzearen aginduaren indarrez. Marxek tratatuko zituzkeen, ikuspuntu horretatik, burgesiarekiko oposizioan, aristokrazia lurjabeak eta *gentry*ak bezalako elementu estraburgesek babesturiko erreformak, nahiz eta haren eskeman ez egon leku erreserbaturik fenomeno horrentzat.

Bigarren auzia ez zen zailtasun gutxiagokoa. Ezein alderdi ezin daiteke bizi berehalako onuren promesa mantenduko duen programa bat gabe. Baina, logika hertsian, marxismoak ez zeukan horrelako programarik eskaintzeko. Kapitalismoaren egurats biziatuan egindako edo egiteko burutzapen positibo oro kutsatu egiten zen *ipso facto*. Marx eta Engels benetan kezkatuak zeuden horrekin eta beti desadoretu egiten zituzten ordena kapitalistaren barruan politika eraikitzaile bat beren baitan zeramatatzaten eta erradikalismo burges-kutsua zuten programak. Hala ere, berek 1847an arazoari aurre egin behar izan ziotenean korapilo gordiarra ebakitzea erabaki zuten. *Manifestu Komunistak*, era guztiz ilogikoan, politika sozialistaren berehalako helburu batzuk jasotzen ditu, gabarra sozialista bapore liberalaren saihetsean besterik gabe utziz.

Hezkuntza libre, sufragio unibertsala, haurren lana ezabatzea, errentaren gaineko zerga mailakatua, lurraren, bankuaren eta garraioaren nazionalizazioa, estatu-enpresaren hedapena, lur-sail eremuen lantzea, *zerbitzu industrial derrigorrezkoa guztientzat*, herrialde osoan barrena industriguneak barreiatzea; haiek bultzaturiko neurri horiek guztiek argi eta garbi erakusten dute Marxek eta Engelsek zer neurritaraino baimentzen zioten beren buruari (garai hartan) oportunitista izatea, nahiz eta beste sozialistei pribilegioa ukatzera makurtzen ziren. Baina programa horrek duen harrigarriena da puntu bakar bat ere ez izatea tipikoki edo eskusiboki sozialistatzat aitortu beharko litzatekeena; beste giro batean bageunde puntu horietako bakoitza programa ez-sozialista batean ager liteke –lurraren nazionalizazioa bera, oinarri berezien gainean, gainerakoan burgesak diren idazleek ere defendatu izan dute–, eta horietako gehienak funts erradikaletatik hartuak dira. Hori zen, jakina, gauza zentzuzko bakarra. Baina baliabide soilak ere bazen. Agerikoa denez, ahulezia praktikoko perturbatzailea bat ezkutatzea beste asmorik gabe entseatua. Marxi puntu haiek berenez interesatu izan balitzaizkio, liberalismo burgesaren hegala

erradikalari batzea beste alternatibarik ez zukeen izango. Kontua da gutxi axola zitzaizkiola eta ez zela sentitzen behartua haien kausaren-gatik sakrifizioz egitera; baldin eta burges erradikalek guztiak mantendu izan balituzte hori, segur aski, ustekabeko desatsegina izango zatekeen Marxentzat.

4. Printzipio berek, taktika berek eta antzeko datu politikoez sortu zuten 1864an Langileen Elkarte Nazioartekoari («Lehen Internazionale»ri) egindako Inaugurazioko Alokuzioa. Azken hori sortzea, izatez, urrats handi bat izan zen 1847ko *Arbeiterbildungsverein*-ez edo urte bereko nazioarteko taldetxoaz haratago. Ez zen, noski, alderdi sozialisten antolaketa bat –nahiz eta, adibidez, bi alderdi alemaniarrek elkartu eta Lassalleren *Allgemeiner Deutscher Arbeiterverein*-ek berehalaxe amore eman–, eta oraindik gutxiago proletalgoaren nazioarteko antolaketa bat. Baina herrialde askotako eta mota askotako langile-taldeak zeuden ordezkatuak, eta «trade-unions» ingelesez berek ere nahiko interes erakusten zuten denbora batean batera eramateko neurri batean bateraezina zen aliantza bat, erreserbaz beteriko gogoarekin areago eta berehalako abantaila lortzeko asmoarekin. George Odger zegoen horien sortzaileen artean⁵. Elkarteak eta haren historialarietakoren batzuek erakutsitako uzi handiak, une iraultzaileetan zuten egitekoari buruz, eta garaiko langile-errebolta handiak desestimatu egin behar dira. Baina gutxi egin bazuen eta inoiz gidatu eta menderatu ez bazuen ere gutxienez fraseologia bateratzaile bat eskaintzen zuen. Eta azkenean jaso zezaketen kontaktuak ezarri zituen, bere etsai burgesen laguntza atseginarekin, zeinak aski leloak baitziren egiazko garrantziko posizio bati propaganda egiteko. Hasieran dena nahiko ongi joan zen eta lehen lau «batzarrek» arrakasta agerikoa izan zuten, kide ortodoxoek jaramonik egin gabe, kontu handiarekin, halako gorabehera ez-sozialista batzuei, herentziaren printzipioaren aldeko botoa, esaterako. Bakuninen (1869) inbasioa eta hura kanporatzea (1872), hala ere, halako zartakoa eman zioten, non ez baitzen gai izan hartatik suspertzeko, nahiz eta 1874 arte arrastaka iraun bazuen ere.

Marxek, hasieratik, izan zuen badaezpadako posiziozko intelektual ez-sozialista batzuei, herentziaren printzipioaren aldeko botoa, esaterako. Bakuninen (1869) inbasioa eta hura kanporatzea (1872), hala ere, halako zartakoa eman zioten, non ez baitzen gai izan hartatik suspertzeko, nahiz eta 1874 arte arrastaka iraun bazuen ere.

ketari baturik eustea zen; bigarrena, jite marxista ezartzea, eta biak gertakarien aurrean ebatzi behar ziren, zeinen aurrean jarraitzaile pertsonalak beti gutxiengoan baitzeuden eta beste kideen gain zuten eragian askoz txikiagoa baitzen gehiengoak izendatuak –edo areago kontsentituak– izanaren inguruabarretik atera zitekeena baino aldarri programatikoa idazteko. Ondorioz, aldarri horrek bazituen bere baitan amore emateak iritzi ez-marxistei Alderdi Sozialdemokrata alemaniarren (1875) Gothako Programan aurkitzeagatik Marx bera izulaborritu zutenen antzekoak. Antzeko era batean egin ziren gero maniobra agerikoak eta konpromiso zuhurrak, eta horrek behin Marxi esanarazi zion etsipen erdi-umorezkoz *«je ne suis pas marxiste»*. Baina konpromisioaren esanahia egiten duenaren gizakiaren eta egiten duen espirituaren baitan dago. Joeraz bakarrik arduratzen denak desbideratze asko tolera ditzake. Bistan dago: Marxek bere joera era iraunkorrean mantentzeko asmoa zuen eta desbideratze bakoitzaren ondoren hartara itzultzeko bidea aurkitzekoa. Baina ulertu behar dugu erreze-loak sentitzea beste batzuk joko bera egiten ikusi zituenean. Horrela egoismo hutsa baino zerbait gehiago zegoen, nola bere itzurpide taktikoetan hala beste batzuen itzurbideen salakuntza pozoitsuetan.

Jakina, sozialismo ortodoxoaren politika klasikoa ordura arte izan zenaren nola taktika hala printzipioa, biak dira kritikagai. Marxek jarritako adibide taktikoa baimena ematen die haren jarraitzaileei maisuak bultzatu edo diktatutako egite- edo ez-egite-norabide oro praktikoki justifikatzeko. Printzipioa denuntziatua izan da inora gidatzen ez zuelako. Garrantzitsuena da haren arrazionaltasuna ulertzea. Marxek sinesten zuen iraultza proletarioan. Era berean sinesten zuen –nahiz eta bere doktrina propioak horretaz zalantzak sortu beharko zizkiokeen arren– harentzako une egokia ez zegoela hain urrun, lehen kristau gehienek ere judizio-eguna hurbil zegoela sinesten zuten modu berean. Beraz, haren metodo politikoa, izatez, diagnosi-hutsegite batean oinarritzen zen. Zorroztasun politikoa goستن zioten intelektual haiek⁶ haren judizio praktikoan sartzen zen pentsamendu joranezkoaren kantitatea ikusteari erabat uko egin zioten. Baina haren ortzemu-garen barruan gertakariak burututzat emanik eta haietatik ateratako inferentziak onartutzat, metodo horrek, baita auzi horri buruzko haren iritziak ere, berehalako emaitzen laguntza dute eta burges eraberri-tzaileekiko lotura estuan daude. Alderdi homogeen bat sortzea,

herrialde guztietako proletalgo antolatuan oinarritua, bere helmugara fede iraultzailea galdu gabe eta bere polbora busti gabe bidean, garrantzi goreneko ataza zen, izatez, ikuspuntu horretatik, eta horrekin erkatuta gainerako guztia huskeria zen.

XXVI KAPITULUA 1875TIK 1914RA

1 Bilakaera Ingelesa eta Fabianismoaren Espiritua

Bada halako esanahi sinboliko bat bi data horien artean. 1875ean jaio zen lehen alderdi guztiz sozialista politikan faktore gisa izateko adinako indarrarekin. Jazoera garrantzitsu horren ondoren bi talde alemaniarren –Lassalleren taldearen eta Bebel eta Liebknecht-ek 1869an sortutako beste baten arteko– fusioa Alderdi Sozialdemokrata eratuz, zeinak orduan (Gothako programa) amore emate handiak egin baitzizkion Lassalleren kredoari¹, azkenean marxismoa onartu (Erfurteko programa, 1891) eta irmoki borroka egin zuen haren kausaren alde 1914an izan zuen ilaraintasun-jarrera arte, alderdi sozialista guztiak bezala, destinoak izendatu zion kinka gorenera iritsi zen arte². Alderdi marxista bat sortu zuen garapen harrigarria iruzkindu baino lehen printzipiozko sakrifiziorik inplikatzan zuen konpromisorik gabe eta buruzagitza parlamentariotik irten gabe, beste herrialde batzuetan jazoerak nola gertatu ziren begiratuko dugu eta, lehenik, garai horretako sozialismo ingelesari, zeinek itxuraz kontraste harri-garri eta irakasgarria eskaintzen baitu harekiko.

Gainaldearen azpitik badira, noski, prozesu sozial funtsean antzeko batzuk, eta, horien atal gisa, era berean antzekoak diren langile-mugimendu batzuk. Kasu ingelesa eta alemaniarren arteko aldeak ñabardura, ideologia eta taktikari dagokienez aise azaltzen dira. 1834an *Owenite Grand National Consolidated Trade Union* porrokatu zenetik, edo kartismoa makaldu zenetik, langile-mugimendu ingelesak utzi egin zion etsaikortasun jakin bat sorrarazteari. Haren gurari ekonomiko batzuk alderdi liberalak definitu zituen eta beste batzuk konterbadoreak³. 1871, 1875 eta 1876ko «trade-union» legeak, adibidez, haien alde borroka egitera akuila zitzakeen ezer gabe onartuak izan

ziren. Gainera, emantzipazioaren aldeko bataila talde ez-sozialistak ari ziren egiten, masek poztu eta haiek txalotzea beste zereginik ez zutela. Horretan guztian ongi nabarmentzen da langile-masa ingelesaren kalitate nagusia bai eta gizarte politiko ingelesaren kalitate nagusia ere; Frantses Iraultzaren *analogon* bat ekiditeko eta bere sostengu garestia mehatxatzen zuten arriskuak ezabatzeko bere gaitasuna erakutsi ondoren, gero eta zailtasun handiagoko egoera sozialetan moldatzen eta grazia pixka batekin amore ematen jakiten jarraitu zuen; horren proba da 1906ko Trades Disputes Act⁴. Ondorioz, proletalgo ingelesak denbora gehiago behar izan zuen «klase-kontzientzia» lortzen edo Keir Hardie-k Alderdi Laborista Independentea (1893) antolatu ahal izan zuen eta-para iristen. Baina New Unionism⁵ sortzeak gauzen egoera baten amaiera iragarri zuen, zeina esamoldearen forma alde batera utzirik, esentzialki ez baitzen Alemaniakoaz bestelakoa.

Desberdintasun horren izaera eta hedadura argitasun handiagoz nabarmenduko da une batez taldea begiesten badugu, zeinaren guriak eta metodoak ezin hobeki adierazten baititu Sozietate Fabianoak. Marxistek mespretxuz irribarre egingo dute inoiz intelektual talde bat besterik izan nahi ez zuen taldetxo baten garrantziaren bapikatze handi bat iruditu bide zitzaienaren aurrean. Izatez, Ingalaterrako fabianoak, edo hartzen zituzten jarrerak, Alemaniako marxistak bezain garrantzitsuak ziren.

Fabianoak 1883an sortu ziren, eta denboraldi horretan guztian intelektual burges-taldetxo bat izaten jarraitu zuten⁶. Bentham eta Millen alorretik zetozen, eta eutsi egiten zioten beren tradizioari. Gizadiarentzat haien aurretik erradikal filosofikoek izandako itxaropen eskuzabal berak zeuzkaten. Berreraikuntza arrazionala eta hobekuntzarako aurrerakortasun taktikozko espiritu berarekin jarraitu zuten lanean.

Beren gertakariekiko zelatiak ziren, zeinak ikerketa sakonen bidez eta argudio eta neurriei zegokienez eskrupulutsuak zirenen bidez haiek biltzeko neurrigabeko nekeak hartu baitzituzten haietari-ko batzuek. Baina ez ziren inondik ere nola kulturazko hala ekonomiazko beren gurarien oinarriekiko. Horiek onartutzat ematen zituzten, zeina ez baita esateko beste modu bat, ingeles on gisara, beren buruak onartutzat ematen zituztela. Ez ziren gai erbarrenaren eta Lorden Ganberaren artean zegoen aldea ikusteko. Ez al da zentzu

komunekoa bata eta bestea nabarmenki «gauza txarrak» zirela? Eta nork jar zezakeen zalantzan berdintasun ekonomiko handiagoa edo Indiaren autonomia edo sindikatuak edo librekanbioa hain nabarmenki «gauzak onak» zirela? Gauza bakarra pentsatu behar zen: gauza txarrak nola araztu eta gauza onak nola segurtatu; gainerako guztia huskeria amorragarrikoa zen. Horretan guztian agerikoa gertatzen zen zerbitzu publikora bakarrik orientaturiko zaletasun bat, bai eta beste irizpide batzuen intolerantzia balio banako eta nazionaleri buruz –haien erara marxistena bezain hanpatua– eta erresumindura burges txikiko elementu bat aristokratikoa zen guztiarekiko, edertasuna barne.

Hasieran ez zegoen ezer fabianoen atzean. Entzun nahi zituztenak pertsuaditzeko lanari ekin zioten. Hitzaldiak ematen zizkieten langileriari eta jendetza burgesei. Panfletoak zabaltzen zituzten era trebe eta oparoan. Neurri politikoak, planak eta legegai partikularrak gomendatzen edo gudukatzen zituzten. Hala ere, eragina izateko haien bitarteko guztien artetik garrantzitsuena «gizaki gako» banakakoekin beren kontaktua zen, edo, areago, gidari politiko, industrial edo langileen segizioko norbanakoekin. Haien herrialdeak eta herrialdean berek zuten posizio sozial edo politikoak aukera bakarra esakintzen zuen kontaktu horiek ezarri eta ustiatzeko.

Gizarte politiko ingelesak ez du onartzen beti bertakoak ez diren aholkua, baina beste edozein baino prestuago dago entzutera. Eta fabianoetako batzuk ez ziren besterik gabe arrotzak. Haietako batzuek erabil zitzaizkion ikasle-elkarteetan eta Oxford edo Cambridgeko gela komunetan ezarritako erlazioak. Ez ziren bizi, moralki hitz eginez, beste planeta batean. Haietako gehienak ez ziren ezarritako ordenaren zuzeneko etsaiak. Haiek guztiak borondate onez makurtzen ziren lankidetzara etsaikortasunera baino areago. Ez zuten alderdi bat sortzeko asmorik eta oso higuin garri zitzairen klase-gerra eta iraultzaren fraseologia. Ahal zen guztian nahiago zuten baliagarri bihurtzea traba izatea baino. Eta bazuten zerbait eskaintzeko parlamentarioari edo administratzaileari, zeinek sarritan onartzen baitzituzten iradokizunak egin behar zenari eta hura egiteko moduari buruz.

Kabinete modernoko ministro batek, eskuarki, bere ministerio-ko horma artean aurki dezake behar dituen informazio eta iradokizun ia gehienak. Bereziki ezin dezake inoiz izan estatistika-gabeziarik.

Hori ez zen horrela joan den mendeko zortzigarren eta bederatzigarren hamarkadetan. Salbuespen bakanekin, kategoria guztietako funtzionarioek ezer gutxi zekiten, beren errutinaz landa. Ezarritako neurri politikoez landa, jarduneko parlamentarioek, eta are gehiago jardunik gabeko parlamentarioek, sarritan ez zituzten gertakariak eta ideiak ezagutzen, arazo sozial «berri»en alorrean batik bat. Horiek ugari zeuzkan eta txukun kontzertaturik eta altxortegiaren edo beste edozein departamenturen baliarazpenerako beti erabiltzeko prest zegoen talde bat, ziur zegoen *entr  e* izango zuela, atzeko atetik batez ere. Administrazio zibilak onartu egiten zuen hori. Eta ez hori bakarrik: fabianoen berehalako gururiekiko maila ohargarri bateraino begikotasuna zutelarik, haiengandik hezkuntza hartzea baimentzen zuten. Fabianoek ere, bestalde, onartu egiten zuten funtzionario publiko ez-ofizialen zeregin hori. Izatez, zeregin hori ezin hobeki egokitzen zitzairen. Pertsonalki ez ziren askonahiak. Agertokiaren atzean zerbitzatzea zuten atsegin. Burokraziaren bitartezko ekintza, zeinaren kopuruz eta boterez handitzea aurreikusten eta onartzen baitzuten, oso ongi moldatzen zitzaion haien estatu demokratikoko sozialismoaren eskema orokorrari.

Baina nola –galdetuko zukeen Marxek, eta galdetu zuen, egiazki, marxista ingelesen taldetxoak (Hyndmanen Federazio Demokratikoak, 1881ean sortuak)– irits zitekeen bidutzi gisako hori zerbaitetara, baldin eta, izatez, interes burgesen adierazle politikoekiko konspiraziora iritsi ez bazen? Nola dei zitekeen sozialista, eta, deituta ere, ez al zen hori sozialismo utopikoaren beste edizio bat (lehenago definituriko zentzu marxistan)? Aise susmatzekoa da zeinen kirastun aurkitu bide zuten elkar fabianoek eta marxistek eta zenbat mespretxatu bide zituen bakoitzak bestearen ilusioak, nahiz eta fabianoen praktika izan printzipio onarritakoak eta taktikak eztabaidatzeari, marxistek hain gogoko zutenari ihes egitea, eta haiekin zabarkeriazko begikotasun babesleko jarrera bat hartzea. Guztiarekin ere, behatzaile urrunduentzat ez dago zailtasunik galdera horiei erantzuten.

Mota fabianoko ahalegin sozialistak ez zukeen ezer esan nahi-ko beste edozien garaitan. Baina asko esan nahi izan zuen 1914az aurreko hiru hamarkadetan, zeren gauzak eta arimak prestatuak baitzeuden mezu mota horretarako eta ez erradikaltasun gehiagoko edo gutxiagoko mezu baterako. Zegoen iritziaren formulazioa eta antola-

kuntza zen beharreko gauza bakarra ahalasunak politika artikulatu bihurtzeko eta fabianoek hornitu zuten «formulazio antolatzaile» hori erarik akabatuenean. Eraberritzaileak ziren, eta garaiko espirituak sozialista bihurtu zituen. Benetako sozialista izan ziren, zeren gizartearen oinarritzko berreraikuntza bati laguntzeko asmoa baitzuten, zeina, hitz batean, kudeaketa ekonomikoa arazo publiko bihurtzean baitzetzan. Borondatezko sozialista izan ziren, eta, ondorioz, aurreko edozein etapatan utopisten kontzeptu marxistaren barruan sartuko ziratekeen. Baina ziren bezala, bazituzten beren laguntzak, zeinek espero baitzuten haiengandik ez zekizkiela izan aplikagarri kontzeptu haren inplikazioak. Haien ikuspuntutik, egiazko erokeria bat izango zatekeen ingurune burgesetan arriskuaren kontzientzia iratzartzea iraultzez eta klase-borrokez hitz eginez. Klase-kontzientzia iratzartzea zen, hain zuzen ere ekidin nahi zutena, hasieran bederen, izan ere ezinezko bihurtuko baitzukeen haien printzipioen hedatze bakezkoa, baina efektiboa gizarte burgeseko organo politiko eta administratiboen bitartez. Gauzak behar adina heldu zirenean, ezbairik gabe lagundu zuten Alderdi Laborista Independentea sorrarazten, 1900ko *Labour Representation Committee* - Lanaren Ordezkaritzako Komitearekin (eta bertan) lankidetzan, «trade-unions» haien karrera politikoan abiarazten, Alderdi Progresistaren orientazioa taxutzen Londresko Konterriko Kontseiluan, lehenik udal-sozialismoa predikatzen, eta gero sozialismoa oro har, eta, azkenik, sistema sobietarraren bertuteak.

Zalantzarik gabe, bada horretan guztian kontrako iruzkin baterako gai erraz izan litekeen aspektu bat. Baina, azkenaren buruan, gerra-aldarrikapen ozen bat inoiz jaurti ez bazuten *more Marxiano* eta zer egin behar zuten zehazki burgesiari inoiz esan ez bazioten, haren defentsan ere ez ziren irten. Fabianoei zuzen lekiekeen beste kritika bat, alderantzizko ikuspuntutik, hau da: hauen *modus operandi*ak sistema kapitalistaren kanpo-defentsetan tupust egiteko arriskua zuela eta aurrez aurrezko bataila handira ezingo zuela gidatu, ez dauka kontuan bere izaera berezia. Haren izenean erantzun daiteke, baldin eta *par l'impossible*, arrakasta izango balu sistema kapitalistaren aurkako bere erasoak behar beste eraberrituz hil gabe, hori zorionak emateko zioa izango litzateke, noski. Eta aurrez aurreko batailari dagokionez aldeztu aurretik erantzun zieten, beren kritikari iraultzaileei, Hannibal Italiatik botatzeko, bere zirkunspetzio guztiarekin, aurreko suharreta-

ko edozeinek baino gehiago egin zuen jeneral erromatarren izena azertu apartez hartuz.

Horrela, bada, nahiz eta egiaz esan litekeen, bai klase-gerraren auzian hala gainerakoetan, fabianismoa marxismoaren alderantzizkoa dela, halaber, sostenga daiteke fabianoak izan zirela, zentzu batean, Marx bera baino ere marxistagoak. Politika praktikoaren esfera barruan dauden arazoetan zentratzea, auzi sozialen bilakaeraren errit-mora ibiltzea eta azken helmuga bere buruaren zainketapean uztea, errealki adosago dago Marxen oinarritzko teoriarekin berak txertatu zuen ideologia iraultzailea baino. Kapitalismoaren berehalako ausia-bartzaz ilusiorik ez egiteak, sozializazioa prozesu geldoa dela, gizar-teko klase *guztien* jarrera eraldatzera jotzen duena hautemateak oina-rrizko teoriarekiko nagusitasuna ere adierazten du.

II Suedia alde batetik eta Errusia bestetik

Herrialde bakoitzak bere sozialismo partikularra dauka. Baina gauzak ez dira nabarmen desberdintzen paradigma ingelesetik herrialde kontinentaletan, zeinen Gizadiaren kultura-balioen fondoari egin-dako ekarpenak hain dira harrigarriro proportziogabeak haien tamai-narekiko, batez ere Herbeheretan eta herrialde eskandinaviarretan. Har dezagun Suedia, adibidez. Haren arteak, zientziak, politikak, ins-titutuzio sozialek, eta, areago, haren sozialismoak eta sozialistek bezala berezitasuna ez diote zor printzipio edo asmozko ezaugarri bereziei, baizik suediar nazioa egina dagoen gaiari eta haren egitura sozial sal-buespeneko eran ongi orekatuari. Horra zergatik den hain absurdoa gainerako nazioek eredu suediarrek kopiatzen saiatzea; hori egiteko modu efektibo bakarra suediarrek inportatu eta egiteko hori haien esku uztea izango litzateke.

Suediarrek diren horiek izaki, eta haien egitura soziala den bezalakoa izaki, haien sozialismoaren bi ezaugarri nagusiak ulertze-ko ez dugu zailtasunik izango. Alderdi sozialista, ia beti era trebe eta kontzientean gidatua, astiro hazi zen prozesu sozial oso normal bati erantzunez, inolako saiorki gabe garapen normalari aurea hartzera bultzatzeko, ez eta polemizatzerara ere polemizatze hutsarengatik. Hortik aginte politika igotzeak konbultsiorik ez sortzea. Ardura-kar-gua era naturalean iritsi zitzaizen haren gidariei, zeinek berdintasun-

terminotan eta lasaitasunez aurre egin baitziezaieketen gainerako alderdietako gidariei eremu komun batean; gaur eguna arte, nahiz eta talde komunista bat garatu den arren, noski, politika arrunteko desberdintasunak izaten dira soilik koroa milioi banaka batzuk gehiago edo gutxiago gastatu behar diren denek onarturiko asmo sozialen batean. Eta, alderdiaren barruan, intelektualen eta langileen arteko antagonismoak mikroskopioz soilik dira haitemangarriak, hain zuzen ere, batzuen eta besten mailarengatik, haien artean kultura-amildegi larririk ez dagoelako, eta organismo sozial suediarrek langabezia jasateko gai diren intelektualen eskaintza erlatiboko txikiagoa sortzean beste organismo sozialek baino, intelektual mingostu eta suminduak ez dira beste tokietan bezain ugariak. Hori batzuetan sindikatuek mugimendu sozialistaren gain, oro har, eta alderdi sozialistaren gain bereziki eragindako «kontrol indargabetzaile» gisa deskribatzen da. Erradikalismo arruntaren fraseologiaz blai egindako behatzaileentzat, horrek itxura hori izan dezake. Baina diagnosi horrek ez dio inondik ere justizia egiten langileak ez ezik, intelektualak ere sortu dituen ingurune sozial eta arrazialari, eta zeinak eragozten baitie biei sozialismoa erlijio izateraino goratzea. Nahiz eta Marxen teorian tarterik aurki zitekeen horrelako txantilioietarako, ez dago itxaroterik, noski, batezbesteko marxistak atoskor begiratzea suediar motako alderdi sozialistari, ez eta ahalegin sozialistaren benetako kasu bat haragitzen duenik onartzea bera ere. Suediar sozialistak, bestalde, oso arinki tindaturik zeuden marxismoz, nahiz eta sarri erabiltzen bazuten ere orduan etiketa sozialistatzat jotzen zenera egokitzen zen hizkuntza bat, batez ere beste talde sozialistekiko nazioarteko harremanetan.

Eskalaren beste muturrean, hau da, Errusian, sozialismo ia marxista hutsa eta horregatik fabore hartaz gozatzen zuena aurkitzen dugu; baina hura ulertzeko ere ez dago zailtasun gehiagorik haren ingurunea dela-eta. Errusia tsarista nekazari-herrialdea zen, neurri handi batean izaera aurrekapitalistakoa. Proletalgo industrialak, sozialista profesionalarentzat atzigarria zeneraino, 150 milioi inguruko biztanleria orokorraren parte txiki bat bakarrik eratzen zuen⁷. Burgesia komertzial eta industrial, kopuruz korrelatiboki ahula, ez zen beste edozein baino efizienteagoa, nahiz eta bilakaera kapitalista, gobernuak bultzatua, bizkor haziz joan. Egitura horretan txertaturik intelli-

gentsia bat zegoen, zeinaren ideiak hain arrotzak baitzitzaizkion lurra-
ri, errusiar gizarteko emakumeen Parisko jantziak zien adina.

Intelektual askorentzat orduan nagusi zen gobernakera
–monarka absolutu (autokrata) bat lurraren aristokrazia eta Elizaren
aliatua zen burokrazia eskerga baten buru zena– nardagarrikeria bat
zen, noski. Eta mundu guztiko iritzi publikoak onartu du haren histo-
riaren interpretazioa. Tsarren ondotik etorri zen erregimenarekiko
idazle etsaikorrenek ere hutsik egin gabe segurtatzen diete beren ira-
kurleei justuki ikaraturik daudela tsarismoaren munstrokeriarengatik.
Horretara egia sinplea erabat galdu da hipokresiazko esaldien labirin-
to batean. Izatez, gobernakera hura ez zen sortu zuen sistema soziale-
rako egokitasun gutxiagokoa Ingalaterrako monarkia parlamentarioa
eta Estatu Batuetako errepublika demokratikoa baino. Burokraziaren
prestazioa, lan egin behar zuen baldintzak kontsideraturik, munduari
sinetsarazi zaionaren gainetik zegoen; haren erreforma sozial, agrario
eta beste izaera batekoak, eta konstituzionalismo mota diluitu bate-
rantzko haren pauso deskonpasatuak, inguruabar haietan espero zite-
keen gauza bakarra zen. Nazioaren espirituarekin tupust egin zuena
erradikalismo inportatua izan zen eta intelektualen talde-interesa,
baina ez monarkia tsarista, zeinak, aitzitik, laguntza bortitza baitzuen
klase guztien gehiengo handi batean.

Hortik bi ondorio segitzen dira, lehen begiratuak paradoxazko-
ak diruditenak, nahiz eta historiaren ezein aztertzaile seriok ez dituen
horrelakotzat hartuko. Alde batetik, ezinezkoa zen edozein mugimen-
du handi eta supituko. Kadet alderdia eratzen zuten (demokrata kons-
tituzionalen alderdia) abokatu, mediku, irakasle edo funtzionario libe-
ral haiek nahi zuten norabidean, ez hainbeste haien programa onarte-
zina zelako monarkiarentzat baizik eta ahulegiak zirelako. Agintean
onartzeak esan nahiko zukeen laguntza gehiago ez zuen elementu bat
onartzea, baizik laguntza gutxiago zeukana masen artean, eta begiko-
tasun gehiago ez zeukana, baizik eta tsarismoa gidatzen zuten taldeek
baino begikotasun gutxiago zeukana masen sentimendu eta interese-
tan. Ez zegoen lekuri erregimen burgesarentzat eta askoz gutxiago
erregimen sozialistarentzat. Halaber, ez zegoen inolako analogiarik
1789an Frantzian zegoen egoeraren eta 1905ean Errusian zegoen ego-
eraren artean. 1789an Frantzian porrokatu zen egitura soziala zahar-
kiturik zegoen, nazioan bizitasun apurren bat zeukan ia guztiari bidea

ixten zion eta ez zen gai une hartako arazo fiskal, ekonomiko eta sozialei aurre egiteko. Hori ez zen horrela 1905eko Errusian. Prestigio-galera bat gertatu zen Japonen eskuetan izandako porrota-rengatik eta, ondorioz, ondoeza eta desordena zegoen. Baina estatuak bere egitekoa burutzeko gai zela erakutsi zuen ez desordena ezabatzen bakarrik, bai eta haren atzean zeuden arazoei ekiten ere. Frantzian, Robespierre izan zen emaitza; Errusian, Stolypin. Hori ezinezkoa izango zatekeen tsarismoaren bizia iraungi izan balitz *ancien régime* frantsesean iraungi zen bezala. Ez dago arrazoirik uste izateko, Mundu Gerrak egitura sozialari ezarri zion presioarengatik izan ez balitz, monarkia errusiarrek bakean eta arrakastarekin eraldatzeari utziko ziola herrialdearen garapen ekonomikoaren eraginpean eta harekiko konkordantzian⁸.

Bestalde, hain zuzen ere egitura sozialaren oinarritzko egonkortasunarengatik ezin zuten intelektualek itxaron metodo normalen antzeko ezeren bidez nagusitzea eta horregatik jotzen zuten erradikalismo etsipenezkora eta bortxa kriminalezko bideetara. Haien erradikalismoa espezie batekoa zen, zeinaren intentsitatea alderantzizko proportzioan baitago haien ahaltsun praktikoeikiko, hau da, ezintasunaren erradikalismoa zen. Asasinatzeak alferrikakoak izan zitezkeen, eta errepresioa beste emaitzarik ez sortarazi, baina ez zegoen asko gehiago egiterik. Errepresio-metodoen ankerkeriak, bestalde, errepre-saliak sortzen zituen, eta hala, ankerkeria eta krimenezko tragedia hura garatzea, batuk bestea atergabe gehituz, eta hori zen munduak ikusten eta sentitzen zuen bakarra eta espero izatekoa zenez diagnos-tikatzen zuena.

Alabaina, Marx ez zen putschista bat izan. Antzinako iraultzaile errusiarretako batzuentzat, Bakuninen motakoentzat bereziki, mes-pretxuarekin bateragarria den adinako gorrotoa zeukan bere baitan. Gainera, ikusi beharko zukeen –agian ikusi ere egin zuen– Errusiako egitura sozial eta ekonomikoak ez zituela betetzen, bere doktrina pro-pioaren arabera, bere sozialismo motaren arrakastarako ez eta sortze-ko ere esentzialak diren baldintzetako bakoitza. Baina arrazoi logiko-engatik, horrek eragotzi behar izan balie errusiar intelektualei haren doktrina onartzea, aise ulertuko dugu zergatik lortu zuen, aitzitik, egundoko arrakasta haien artean. Haiek iraultzaileak ziren –gutxi-asko seriotan– eta ez zeuden antolaturik. Bazegoen indar gaindiezi-

nezko ebanjelio iraultzaile bat. Marxen esaldi gartsuak eta profezia milenarioa ziren hain zuzen nihilismoaren basamortu goibeletik irte- teko behar zutena. Gainera, teoria ekonomiko, filosofia eta historiaz- ko nahas-mahas hori ezin hobeki moldatzen zen errusiar gustura. Axolagabea zen ebanjelioa erabat aplikaezina izatea haien kasura, eta haientzat inolako promesarik ez eskaintzea. Sinestedunak entzun nahi duena entzuten du beti, profetak benetan esaten duenaz axolatu gabe. Zenbat eta urunduago egon egoera erreala Marxek irudikatzen zuen heldutasun-egoeratik, hainbat prestuago zeuden intelektual errusia- rrak –ez intelektual sozialista aitortuak bakarrik– harengan beren itxa- ropenak ezartzera arazoen soluziorako.

Horretara jadanik 1883an talde marxista bat sortu zen 1898an Alderdi Sozialdemokrata izatera iritsi zena. Gidariak, eta hasiera bate- an, kideak, intelektualak ziren nagusiki, noski, nahiz eta «masen» arteko jarduera antolatzaile lurpekoarekin behar besteko arrakasta izan zen behatzaile zaleei buruzagitza marxistaren pean langile-talde- en fusioaz hitz egitea posible egiteko. Horrek argitzen du beste talde marxista batzuek langile-elkarte indartsuan zituzten beste herrialde batzuetan aurkitutako zailtasunik ez izatea. Edozein kasutan, hasieran, antolakuntzan sartzen ziren langileek otzantasun handienaz oinartzen zuten intelektualen buruzagitza eta ia ez zuten ezer erabaki nahi iza- ten beren kabuz. Ondorioz teoria eta ekintzaren bilakaera lerro herts- iki marxiarrean gertatu zen eta maila jaso batean. Jakina, horrek fede- aren defendatzaile alemaniarren onespénak erakarri zituen, zeinek bertute bakeatzaile hori begiestean, agerikoa zenez sentitzen baitzuten tesi marxiarrekiko salbuespenen batzuk izan behar zutela, zeinaren arabera sozialismo serioa heldutasun betean dagoen kapitalismotik bakarrik sor baitaiteke. Hala ere, Plekhanov, 1883ko taldearen sor- tzaileak eta lehen bi hamarkadetako figura gidariak, zeinaren teoria marxistari egindako ekarpen aditu eta jakintsuek errespetu orokorra sorrarazten baitzuten, onartu egiten zituen tesi horiek eta, horregatik, ezin zezakeen sozialismoaren burutze goiztiarraren itxaropenik izan. Nahiz eta kementsuki gidatzen zuen erreformismoaren eta fedearen garbitasuna mehatxupean jartzen zuten gainerako heresia aldikidearen aurkako borroka ona, nahiz eta helmugarekiko eta metodo iraultzaile- arekiko fedeari eusten zion, egiazko marxista horrek laster sentitu bide zituen errezelok alderdiaren barruan bertan berehalako etorki-

zunean ekintzarako deliberatua zirudien talde bat sortzean, nahiz eta berarekiko eta beronen buruzagitzarekiko Leninek begikotasuna izan.

Alderdia boltxebike eta mentxebiketan (1903) erdibitu zuen ezinbesteko gatazka taktikari buruzko desakordio hutsa baino zerbait gehiago izan zen, bi taldeen izenek adierazten dutenez. Une hartan ez zegoen behatzailerik, oso trebea izanik ere, erdibitzearen izaeraz erabat jabe zitekeenik. Orain diagnosiak agerikoa izan behar du. Bi taldeek iraunarazten zuten fraseologia marxistak ilundu egiten zuen haietako bat erremediogabeki marxismo klasikotik bereizi zelakoa.

Leninek, begi-bistakoa zenez, ez zeukan ilusiorik errusiar egoerari zegokionez. Konbentziturik zegoen eraentza tsarista porrot militar batek denbora baztez ahultzean bakarrik eraso zitekeela arrakastarekin eta, ondorengo desantolakuntzan, talde deliberatu eta ongi antolatuk porroka zezakeela, izulaborri gupidagabe baten bidez, hura ordeztzen saiatuko zen beste edozein erregimen. Baina kontingentzia hori, zeinaren gertakortasunaz gainerakoak baino argitasun handiagoz jabetu zela baitzirudien, tresna egokia prestatzea erabaki zuen. Leninek alde batera utzi zuen nekazarien ideologia erdi-burgesa –zeinak baitziren, noski, Errusian, arazo sozial muntaduna–, eta neurri handiagoan oraindik iraultza handia egiteko ekimen propioz langileak jaiki arte itxarotearen premiari buruzko teoriak. Berak behar zuena janisario iraultzaileen goardia-gorputz ongi gaitu bat zen, berak emandakoa ez zen argudio ororekiko gorra, eskrupulu orotatik librea, arrazoiaren edo gizatasunaren ahotsekiko iragazgaitza. Baldintza eta nolakotasun horiekin tropa hori estratu intelektualean bakarrik errekluta zitekeen eta material eskuragarri hoberena alderdiaren barruan aurkitu behar zen. Azken horren gaineko domeinua irabazteko haren ahaleginak esan nahi zuen, beraz, haren arima bera deusezateko ahalegin bat. Gehiengoak eta L.Martov haren gidariak hauteman bide zuten. Martovek ez zuen Marx kritikatu eta ez zuen desbideratze berririk proposatu ere egin. Lenini kontra egin zion Marxen izenean eta masa proletarioaren alderdi baten teoria marxista sostengatu zuen. Leninek eman zuen berritasun-nota.

Aspaldiko garaietatik heretikoek hutsik egin gabe adierazi izan dute ez zutela deuseztu nahi berek jabetzan zeukaten ezein ebanjelio, baizik, aitzitik, haren jatorrizko garbitasuna berreskuratu nahi zutela. Leninek, denborarekin goratua gertatu den praktika hartzean, Marx

bera goratu eta ultramarxistatu egin zuen harekiko atxikimenduari uko egin ordez. Gehienera ere, «inperialismo garaiko marxismoa», Trotski eta Stalinekin hain ezagun bihurtu zen esaldiaren barruan inplizitu doan pauta hori markatzera mugatu zen. Eta irakurleak errazki ikusiko du, halako lerro kruzial bateraino, ez zela zaila Leninentzat marxismo adulteratugabearen nola forma hala mamia hartzea. Baina ez da batere zaila ikustea gotorleku horretatik esentzialki ez-marxista den posizio bat hartuko zuela. Ez zen bakarrik ez-marxista *pronunciamento* baten bitartezko sozializazioaren ideia heldugabeko egoera historiko batean; oraindik areago zen «emantzipazioak», dogma marxistarenak bezala, proletalgoaren beraren obra izan behar ez zuelakoa, baizik eta jendaila gidatzen zuen intelektual-banda batena⁹. Horrek irizpide desberdina baino zerbait gehiago esan nahi zuen agitazioari eta konpromisoei buruz, teoria marxistaren bigarren mailako puntuei buruzko desakordio bat baino zerbait gehiago. Haren esanahi barnekoenarekiko dibortzioa esan nahi zuen¹⁰.

III Estatu Batuetako Talde Sozialistak

Estatu Batuetan sistema sozial erabat desberdin bat Errusiakoa bezain desafaboragarria gertatu zen benetako masa-mugimendu sozialista baten garapenerako. Horretara bi kasuek desberdintasunak bezain interesgarriak diren antzak ageri dituzte. Baldin eta Errusiako nekazari-mundua, nahiz eta herrixka errusiarrek bere baitan komunismo-osagai bat izan, ia erabat iragazkaitza bazen sozialismo modernoaren eraginarekiko, Estatu Batuetako nekazari-munduak indar antisozialista hornitzen zuen hark oharturiko bezain garrantzitsuak ziren orientazio marxistako zeinahi jardueraren obra desegiteko gai zena. Errusiako sektore industrialak masa-alderdi sozialista garrantzitsurik sortzea lortu ez bazuen, bilakaera kapitalista berantegia zelako, Estatu Batuetako sektore industrialak ez zuen sortu halakorik bilakaera kapitalista urrats presazkoegian oldartu zelako¹¹.

Alderik garrantzitsuena bakoitzeko intelektual-taldearen artean zegoena zen; Errusian ez bezala, Estatu Batuek ez zuten XIX. mendearen azkenera arte intelektual azpi-erabili eta porroteginean aldrarik sortu. Herrialdearen ahaltsun ekonomikoak garatzearen zeregin nazionaletik sortu zen balio-eskemak garun ia gehienak negozioetara

erakarri zituen eta negozio-gizakiaren jarrera ezarri zion nazioaren arimari. New Yorkeze kanpo intelektualak, gure zentzuan, ez ziren eragina izateko bezain ugariak. Haietako gehienek, gainera, onartu egiten zuten balio-eskema hura. Onartzen ez bazuten, Main Streetek uko egiten zion entzuteari eta instintuz begiratzen zien higuinarekin, eta hori askoz eraginkorragoa zen haiek diziplinatzeako polizia politiko errusiarraren metodoak baino. Energia «iraultzaile»tik zegoen ia dena hurrupatu egiten zuen klase ertainak burdinbidea, aurrerapenak eta oro har enpresa handiekiko zeukan etsaikortasunak.

Langile ertain gaitu eta errespetagarria negozio-gizon bat zen eta halako sentitzen zen. Arrakastarekin aritzen zen bere abagune banako propioak ustiatzen, progresatzen, edo, edozein kasutan, bere lana ahalik eta era abantailatsuenean saltzen. Ulertu eta neurri handi batean partekatu egiten zuen bere ugazabaren pentsatzeko era. Enpresa beraren barruan bere lagunekin aliatzea baliagarri aurkitzen zuenean espiritu berarekin egiten zuen hori. Gutxi gorabehera, XIX. mendearen erditik praktika hori enplegatu-komiteen era etengabe hartuz joan zen, gerraosteko enpresa-baturen aitzindariena, zeinek beren esanahi ekonomiko eta kultura betea enpresa-hiritan (*company towns*) hartu baitzuten¹².

Horrezaz haratago sarritan negozio ona zen langilearentzat eskala nazional batean bere lanbideko gainerako kideekin konbinatzea, bere kontratazio-posizioa hobetzeko, gainera, bai zuzenean ugazaben aurrean eta bai zeharka gainerako lanbideen aurrean. Interes horrek, sindikatu amerikar peto asko taxutu zituenak azaltzen du, neurri handi batean, lanbide-printzipio hartzea, beste edozein printzipio baino askoz eraginkorragoa dena afiliatu berri posibleak urrundurik edukitzeko, eta izatez, langile-*cartelak* sortzen zituen. Normala denez, *cartel* horiek erradikalismo falta erakusten zuten, antzeko sinesteak zituzten nolako herrialdeko hala atzerriko sozialista eta lagunak bokantzez deitoratzen zuten eta dutena. Haiei ez zitzaien ezer axola, soldata-motak eta lanegunak izan ezik, eta prest zeuden publikoaren nahiak aztertzeako edo, are, ugazabenak gainerako guztian, fra-seologian batez ere. Hori ezin hobeki ilustratzen du gidarien mota portaerak, nola sindikatu singularrekoenak nola Lanaren Federazio Amerikarrekoenak, zeinak haragitzen baitzuen espiritu hori, bai eta sindikatuen burokraziaren ahaleginek ere sindikatuen funtsekin enpre-

sa industrial eta finantzarioaren esferan sartzeko, zeinarekiko begikotasun guztia baitzeukan¹³.

Jakina, kredoa eta topikoak –ideologiak– hain iraultzailetasun gutxikoak izateak eta klase-borrokaren hain kontrakoak izateak garrantzi mugatua du berez. Sindikalista amerikarrak ez ziren teorizatza oso emanak. Hala izan balira, beren praktikari interpretazio marxista eman ahal izango zioten. Hala ere, egia izaten jarraitzen du, kontratazioko indarketaz landa, ez ziren luebakiz bestaldeko kontsideratzen gauza guztietan eta ugazabekiko lankidetzari hori –atsegin ez dugunok kolusio deituko duguna– ados zegoen ez haien printzipioekin bakarrik, baizik haien egoeraren logikarekin ere. Auzi-kategoria estu baten haratago ekintza politikoa beharrezkoa ez izateaz gainera, zentzurik gabea ere bazen haientzat. Eta izan zezakeen eraginerako, intelektual erradikalak berdin egin zezakeen ahalegina Pennsylvaniako burdinbide-batzordea konbertitzeko ere.

Baina bada beste mundu bat langile-mundu amerikarraren barruan. Normalaz gaineko kalitateko elementuen ondoan immigrazioak hasieratik bere baitan sartu zituen standarrak azpiko elementu batzuk, gerra zibilaren ondoren nola zifra erlatiboetan hala absolutuetan gehitu zirenak. Zifra horiek norbanakoek loditu zituzten, zeinak gaitasun fisiko edo adimenez edo energiaz infranormalak ez baziren ere, guztiarekin ere talde horretan grabitatzen zuten iraganeko ezbeharrengatik edo sortu ziren ingurune desfaboragarriaren eraginaren iraupenarengatik, edo, besterik gabe, sosegurik eza, adiurre moldagaitza edo jaidura kriminalengatik. Tipo horiek guztiak harrapakin errazak ziren esplotaziorako, zeina erosotu egiten baitzuen lokarri moralik ez izateak, eta haietako batzuek gorrotoitsu eta oldarkor batez erreakzionatzen zuten, krimenean aise kristaltzen zenaz. Komunitate industrial berri eta laster batean hazten ari ziren askotan, zeinetan biltzen baitziren jatorri eta jaidura desberdinenetako jendeak eta zuzenbidea eta ordena mantendu egin behar baitziren, hala baziren behintzat, legeaz kanpo zegoen ekintza baten bidez, jende zakarra oraindik zakarrago bihurtu zen hartzen zuen tratuaengatik; aurre egiten zien ugazabei eta ugazaben agenteei, zeinek artean ez baitzuten garatua erantzukizun-zentzua, eta sarritan bide ankerretara eramana izaten ziren, ez beren jabetzaren beldurraengatik bakarrik, baizik eta bizia-renaengatik ere bai.

Klase-gerra zegoen –behatzaile sozialista hori esatera makurtzen da zentzurik literalenean, zeren, kontzeptu marxista ilustratzeko, egiazko pistolak disparatzen baitziren. Izatez, ez zegoen horrelako ezer. Nekez imajina daiteke laborismo politikoa edo sozialismo serioaren garapenerako desfavoragarriagoa zen baldintza-multzorik, eta, baldintza haiek iraun zuten bitartean, oso gutxi agertu zen batetik eta bestetik.

Lanaren Zaldunen (*Knights of Labor*) historiak, antolakuntza errealki garrantzitsu bakar eta zabalera nazionalekoarenak, soldatapeko langile guztiena zenarenak, haien trebetasuna edo haien lanbidea kontuan hartu gabe –eta, egitatez, asoziatzeaz arduratzen ziren guztienarenak–, garrantzizko aginte- eta jarduera-hamarkada bat besarkatzen du alde-alde. 1886an Ordena Noblearen afiliatu-kopurua ia 700.000koa zen. Langile industrialak ziren horien partea –ia denak kualifikatu gabeak– kementsu esku hartzen zuten greba edo boikotetan, garai hartako depresioaren lagun zirenetan eta hasiarazi ere egiten zituzten. Programa eta pronuntziamenduen arakaketa batek ideia sozialista, kooperatibista eta, tarteka, anarkisten nahaste-borraste bat jartzen du agerian, zeinaren jatorria aurki baitezakegu, nahi badugu, iturri-barietate batean, zeinen artean Owen seinala baitezakegu, nekazari-sozialista ingelesak, Marx eta fabianoak. Ikuspuntu politikoa oso nabaria zen, bai eta plangintza orokorraren eta berreraikuntza sozialaren ideia ere. Baina aurki dezakegun helburuen zehaztutasun hori, izatez, geure garai propiotik atzera begira interpretatzen ditugulako da. Izatez, ez zegoen helburu zehazturik, eta hainbeste jende erakartzen zuena, nekazariak eta profesionalak ere bai, bizimodu onaren eta Amerikar Konstituzioaren ideologiaren izaera besarkatzailea zen (Uriah S. Stephens, sortzailea, ministeriorako trebatua izan zen). Ordena horrela eraberritzaile-mota guztien planen truke gisako bat zen. Zentzu horretan funtzio bat bete zuen errealki, zeina presente baitzeukaten haren gidariek beren jardueren aspektu hezitzailea azpimarratzen zutenean. Baina buztin hain desberdinez eraturiko antolakuntza bat, konstituzionalki ez zen gai ekintzarako. Aldarrikapen zehazki sozialista bati ekitean, hautsi egin zen. Antzeko beste mugimendu batzuetan (Henry Georgeren Populistek eta beste batzuek) gauza bera gertatu zen.

Inferentzia agerikoa garai hartako amerikar ingurumenean ez zegoela eta ezin zitekeela egon beharrezko materiala edo beharrezko

indar bultzatzailea masa-mugimendu sozialista baterako. Hori egiazta daiteke Zaldunengandik Munduko Langile Industrialenganaino gidatzen duen haria jarraituz. Hari hori Daniel de Leon, intelektual marxistaren karreran haragiturik dago, eta, horregatik, sinestunarentzat pisu espezifiko ohargarria izan behar du¹⁴. Haren agindupean 1893an jaiki ziren sozialistak, Zaldunen Ordenaren barruan, Powderly lehen-go gidariaren aurka, horrenbestez herio-kolpea antolakuntzari emanenez. Ideia zen ekintza politikorako tresna bat sortzea, lerro marxiarrean gutxi-asko. Alderdi proletario batek klase-gerra, iraultza, estatu kapitalistaren suntsipena eta gainerako guztia aldarrikatu behar zituen. Baina ez Langile Alderdi Sozialistak (*Socialist Labor Party*) (1890) ez eta De Leonen (1895) Aliantza Merkantil eta Langile Sozialistak (*Socialist Trade and Labor Alliance*) ez zuten izan inolako bizitzarik. Jarraitzen zituen langile-masa urria izateaz gainera –hori berez bakarrik ez zatekeen erabakigarria izango– errusiarraren gisako arrakastarik ere ez zen lortu, hau da, intelektualen gune nagusikoi baten konkista. Langile Alderdi Sozialista lehenik erdibitu egin zen, eta gero geratzen zitzaion eremu ia guztia galdu zuen, Alderdi Sozialista berriaren mesedetan.

Azken hori ez zen egon edozein talderen garaipen ortodoxoa eratzetik Estatu Batuetako herrialde horretan. Hasteko, haren jatorria ortodoxoa izan zen. 1892-1894 bitarteko langile borroketatik sortu zen, indarra erabiliz grebak hausten ziren garaietakoetatik, gobernu federalak eta judikaturak laguntza deliberatua ematen baitzieten ugazabei¹⁵. Aldez aurretik «kontserbadore» izandako gizaki asko unionista bihurtu zituen horrek lanbidearen gainean. Edozein kasutan Eugene V. Debs aurrena sindikalismo industrialera bihurtu zuen, eta gero ekintza politikoaren printzipiora. Bigarrenik, Alderdi Sozialistak hartutako jarrera ortodoxoa zen. Sindikatuekin lan egiten saiatu zen eta «haien barrutik gaitzi» izaten. Antolakuntza politiko erregularra eman zion bere buruari. Printzipioz iraultzailea zen Europako alderdi sozialista handiak ziren zentzu berean. Hala ere, doktrina ez zen erabat ortodoxoa. Izan ere, ez zituen azpimarratzen aspektu doktrinazkoak inolako hedadura handitan –ez Debsen azpian ez eta gero ere–, eta zabalera ohargarria ahalbidetu zien jarduera doktrinazkoei bere lerroen artean. Baina nahiz eta inoiz ez lortu herrialdean barrena etengabe agertzen ziren tokiko langile-alderditxoak hurrupatzea, aski ongi mol-

datu zen gerraostera arte, zeinean berretsi baitzen lehiakidetza komunista. Sozialista gehienak, hala uste dut, bat etorriko ziratekeen Estatu Batuetako benetako alderdi sozialista bakar hari deitzeko. Haren sufragio-indarra, nahiz eta alderdi sozialista gehienena bezala zale ez-sozialistek indartzen bazuten ere, pautatzat balio du ahalegin sozialista serio baterako zegoen alorra neurtzeko.

Hala ere, De Leonek beste aukera bat izan zuen. Mendebaleko Meatzarien Federaziotik zetorren (*Western Federation of Miners*) –harekin galdu zen–, zeinaren erradikalismoa, oinarri doktrinazko ororekiko erabat independentea, ingurumen zakar batean erreakzionatzen zuen jende zakarraren emaitza besterik ez baitzen. Sindikatu horrek hornitu zuen I.W.W.ren (1905) eraikinaren giltzarria. De Leon eta haren asoziatuek haren naufragioaren eta beste antolakuntza zorigabekoen hondarrak jaso baitzituzten, baita ezpalak ere, handik eta hemendik gehienetan badaezpadako izaera intelektualekoak edo proletariokoak, edo bietakoak. Baina buruzagitza –eta, ondorioz, fraseologia– indartsua zen. De Leonez gainera, Haywood, Trautmann, Foster eta beste batzuk zeuden.

Kolpearen taktika, inhibiziorik ezagutzen ez zuena, eta konpromisorik gabeko gerraren espirituak arrakasta bakartu batzuen berri ematen dute, eta esaldiak eta kolpe-taktikak ez ziren guztiaren absentziak azken porrotaren berri, zeina komunistekiko liskarrek eta haienganako defekzioek agurotu baitzuten, bai eta etengabeko barne-sesioek ere. Baina ez daukat berriz kontatu beharrik hainbestetan ikuspuntu kontzebigarri guztietatik kontatu den historia bat. Axola zaiguna hau da. Antolakuntzari sindikalista deitu zitzaion –anarkista ere bai– eta aurrerantzean sindikalismoaren aurkako zigor-legeak ezarri zitzaizkion zenbait estatutan. Ekintza «zuzen» berehalakoaren eta Mendebaleko Meatzarien Federazioari kontzesio doktrinazkoa egitea, zeinak esleitzen baitzien batasun industrialei oinarritzko zeregina gizarte sozialistaren eraikuntzan –De Leonek marxismo klasikoari egindako ekarpena edo hartatiko desbideratzea–, zer zen iradokitzen dute zalantzarik gabe. Baina badirudi zuzenagoa dela funtsean zenaren eta izaten jarraitzen zuen zurtoin marxiarraren kimuan elementu sindikalistak sartzeaz hitz egitea erabat elementu horietan diagnosis oinarritzea baino.

Horrela, bada, kaleko gizakia den soziologo handi horrek arrazoia izan du beste behin. Sozialismoa eta sozialistak estra-amerika-

rrak zirela zioen. Horren esanahia atzeman badut horrek esan nahi du askoz laburtasun gutxiagoko era batean ni adierazten saiatu naizena. Garapen amerikarrak ia jaramonik egin gabe utzi du marxismo hutsa eta Bigarren Internazionalaren karreraren lekuko izan den sozialismoaren aldia. Haren arazo esentzialak doi-doi ulertu ziren. Haiekiko jarrerara egokiak noizbehinkako inportazio gisa bakarrik existitzen ziren. Arazo eta jarrera amerikarrek mailegatu egiten zituzten noizean behin erosgai inportatu horiek. Baina hori zen guztia. Eta hurrengo aldiko jazoerek errebote egin zuten intelektual batzuegan eta eskola marxistara joan gabeko proletalgoan.

IV Kasu Frantsesa. Sindikalismoaren Analisia

Sindikalismoa zer den hobeki ikusiko dugu koadro frantsesean¹⁶. Hori ikusi aurretik gauza banaka batzuk laburki ohartaziko ditugu frantses sozialismoaz oro har.

Lehenik, haren historia ideologikoa askoz atzeragotik dator, eta agian beste edozeinena baino nabarmenagoa da. Baina haren ezein barietate singular ez da inoiz mamitu modu hain erabatekoan, eta mota fabianoako sozialismoak bezain mendekotasun zabala ezarri du, adibidez, alde batetik, eta mota marxistakoak bezalakoa, bestetik. Sozialismo fabianoak gizarte politiko ingelesaren beharra zeukan eta Frantzian ez da antzeko ezer garatu, iraultza handiak eta elementu aristokratiko eta burgesekin bat egiteko ondorengo porrotak eragotzi baitzuten. Sozialismo marxistak langile-mugimendu hedatu eta kualifikatua behar du, edo, intelektualentzako kredo biziarazle den heinean, *limpidité* frantsesarekin erabat bateraezinak diren kultura-tradizioak behar ditu. Baina honaino sortu diren gainerako kredo sozialista guztiek mentalitate eta egoera sozial partikularrak bakarrik erakartzen dituzte eta izaeraz dira sektarioak.

Bigarrenik, Frantzia baserritarren, artisauaren, enpleguaren eta *rentier* txikiaren herrialde petoa zen. Bilakaera kapitalista urrats neurtutan gertatu zen eta eskala handiko industria gunea banaka batzuetan bakarrik esparrutu zen. Klase horiek banatzen zituzten eztabaidak, zeinahi izan zitezkeelarik ere, hasieran ekonomikoki kontserbadoreak ziren –beste inon ez zen bermatu kontserbadurismoa oinarri hain zabalean–, eta gero eta laguntza handiagoa eman zieten klase ertainaren era-

berrikuntza aldarrikatzen zuten taldeei, besteak beste, *radicaux-socialistes* deituei ez erradikala eta ez sozialista ez zela esanez ongien defini daitekeen alderdiari. Langile asko mota ideologiko berekoak eta mentalitate berekoak ziren. Profesional eta intelektual asko moldatzen ziren hartara, eta horrek azaltzen du intelektualen gainekoizpenak eta azpi-enpleguak, nahiz eta existitu, ez zuela bere burua baieztatzen beste kasu batean espero zitekeenez. Egonezina zegoen. Baina deskontentuen artean, katolikoak, Hirugarren Errepublikako ingurabar desberdinek sorrarazi zituzten joera antiklerikalak gaitzesten zituztenak, garrantzitsuagoak ziren gauzen orden kapitalistarekin desgogara zeudenak baino. Lehenengoengandik sortu zen eta ez bigarrenengandik errepublika burgesarentzat arrisku erreala *affaire Dreyfusen* garaian.

Hirugarrenenik, segitzen da, berriz ere arrazoi desberdinengatik, Frantzian ez zegoela askoz leku gehiago sozialismo serio baterako Errusian edo Estatu Batuetan zegoena baino. Hortik serioak ez ziren sozialismo- eta kuasi-sozialismo-barietate bat izatea. Alderdi blanguista, zeinaren itxaropena «gizaki deliberatu banaka batzuen» ekin tzak eratzen baitzuen, adibidetzat balio dezake: intelektual-bandatxo bat, konspiraziorako jaidurarekin, eta iraultzaile profesionalak, Parisko eta bizpahiru hiri handitako jendailarekin, hori zen hura bezalako taldeen ortzemugaren barruan sartu zen guztia. Azkenean, hala ere, Guesdek eta Lafarguek *parti ouvrier* marxista bat sortu zuten, klase-borrokakako programa batekin (1883) Marx beraren santzioa hartu zuena. Lerro ortodoxo bat garatu zuen, Hervéren putschismoa eta anarkismoa borrokatuz, fronte batean, eta Jaurèsen erreformismoa, bestean, haren kontrapartida alemaniarrek ezin zuen bezalaxe. Baina ez zuen inoiz lortu antzeko garrantzirik, eta ez zuen inoiz hainbeste esan nahi izan ez masentzat eta ez intelektualentzat, *chambrean* talde sozialistak bat egin arren, zeina 1893an gertatu baitzen (48 eserleku errepublikar gubernamentalek okupaturiko 300en aldean) eta azkenean Alderdi Sozialista Batua (1905) sortzera gidatu zuena.

Laugarrenenik, gertakaria jasotzea besterik ez dut egingo, hartaz aurrerago barrentzen saiatu gabe, aurre begietsiriko sistema sozialak ekinen egin zuela ingeles motako alderdi handi eta diziplinatuak sortzea. Horren ordeztu, mundu guztiak dakienetz, politika parlamentarioa talde txiki eta ezegonkorren *cotillon* bihurtu zen, zeinak konbinatzen eta disolbatzen baitziren aldian aldiko egoerei erantzunez eta banako-

en interes eta intrigei, kabinetak ezarriz eta porrokatuz hitz-joko baten printzipioen arabera lehen aditzera eman dudanez. Horren ondorioetako bat gobernuaren eraginkortasunik eza zen. Beste bat zen kabine-
tearen kargua talde sozialisten eta kuasi-sozialisten ikus-helmenaren barruan geratu zela askoz alderdi ahaltsuagoak zituzten herrialdeetan baino lehenago, baina zeinen politika gertatzen baitzen neurri batean metodo arrazionalago batzuen arabera. 1914ko emergentzia nazionalera arte, Guesde eta haren taldea barneraezin gertatu ziren tentazioa-
rekiko, eta irmoki baztertu zuten alderdi burgesekiko lankidetzaren esti-
lo ortodoxo hoberenean. Baina talde erreformistak, erradikalismo
burgesera ongi moldatzen zena, eta zeinen printzipioek –erreforma
gabeko iraultza– ez baitzuten gaitzesten lankidetzaren hori, ez zeukan
errealitatean inolako arrazoirik beste hainbeste egiteko. Jaurèsek,
beraz, ez zuen barne-zimikorik sentitu Dreyfusen (1898) krisialdian
Errepublikan babesteko gobernu burges bati laguntza ematean. Hala,
printzipio eta taktika sozialistako arazo zahar bat, inola ere arazo ez
zena Ingalaterran edo Suedian, baina bai oinarritzko arazoa beste edo-
zein alderditan, bat-batean agertu zen mundu sozialistan era praktiko-
ago batean. Bere pizgarri partikularra inguruabar gehigarritzko batez
eskuratu zuen: gobernu burges bati laguntzea gauza bat zen, nahiz eta
txar samarra izan ortodoxia zurrun baten ikuspuntutik; baina haren
erantzukizunak partekatzea, bertan efektiboki sartuz, zeharo besterik
zen. M. Millerandek hori egin zuen hain zuzen ere. 1899an Waldeck-
Rousseau kabinetearen sartu zen, M. de Galliffetekin batera, 1871n
Parisko Komuneko errepresioan kementsu esku hartu zuelako jen-
deak gehiago ezagutzen zuen jeneral kontserbadore batekin.

Bi abertzale beren irizpide pertsonalak sakrifikatuz, premia
nazionalerako kasu larri batean indarrak biltzeko; –zer pentsa horretaz?
Horrek, uste dut, nire irakurle gehienek erreakzioa adieraziko duela.
Ia ez daukat segurtatu beharrik, nik neuk, ez dudala inolako gogorik
sostengatzeko bi zaldunak desohoratu egin zirela. Gainera, oso ongi
galde daiteke ea orduan ere M. Millerandi inondik ere sozialista deitu
behar zitzaionik¹⁷. Azkenik, langile-klase frantsesak arrazoi guztia du
esker onez gogoratzean beraren alde, legegile eta administratzaile
gisa, egin zuena kabinetearen egon zen bitartean.

Aldi berean ahaleginak egin behar ditugu ulertzeko nola
«millerandismoa» guesdistekin talka egitera beharturik zegoen

Frantzian eta Europa osoko sozialista ortodoxoekin. Haientzat erorketa eta bekaturia esan nahi zuen, helmugarekiko iruzurra, fedea usteltzea. Hori oso naturala zen, eta hala izan zen haren gainera Amsterdameko nazioarteko batzarrak (1904) jaurtiriko anatema ere. Baina haratago eta anatema doktrinazkoaren atzean zentzu komun sinplezko zati bat zegoen. Baldin eta proletalgoak ez bazien bere bizkarra utzi behar politikari goranahiei agintera igotzeko erabil zezaten, onarturiko praktikatik desbideratze oro errezelarik handienaz zelatu behar zen. Emergentzia nazionalaz hitz egitearen trikimailua karreara politikoa egiten dutenei aginteaz jabetzeko komeni zaien guztietan –azken finean, izan al da inoiz egoerarik, politikariak emergentziatzat izan ez dutenik?– ezagunegia zen, eta deskreditatuegi zegoen inori zirrara eragiteko, proletalgo frantsesari bereziki, zeinak ikasia baitzuen esaldi politikoak egiazko balioan balioesten. Bazegoen arriskua masak sozialismo politikotik mespretxuz aldendu ahal izatekoa¹⁸.

Izatez, arrisku hutsa baino zerbait gehiago zegoen. Hartatik efektiboki desbideratzen ari ziren. Nazio osoak begiesteran, begiesteran zuenek, eraginkortasunik ezaren, gaiezatasunaren eta arinkeriaaren ikusizun tristea, zeinak baitziren gorago akatsekin zirrimarraturiko sistema soziologikoaren emaitza, ez zuen inolako konfiantzarik jartzen estatuan, ez mundu politikoan, ez eskribauengan, eta ez zuen sentitzen errespeturik haietako inorekiko, izatez, ez ezerekiko ez inorekiko, iraganeko nortasun handi batzuen oroitzapenarekiko izan ezik. Proletalgo industrialaren parte batek gorde egin zuen bere fede katolikoa. Gainerakoa axolagabea zen. Eta beren jaidura burgesak gaindituak zituztenentzat, sindikalismoa askoz erakargarriagoa zen bere eskura zeuzkan sozialismo zuzenaren espeziatiko edozein baino, zeinen defendatzaileek agintzen baitzuten birsortzea, eskala txikiagoan, alderdi burgesen jokoa. Mota frantseseko tradizio iraultzaileak, zeinaren oinordeko nagusia sindikalismoa izan baitzen, laguntza handia ematen zuen.

Baina sindikalismoa ez da trade-unionismo iraultzaile bat soilik. Horrek gauza asko adieraz ditzake harekin ikusteko gutxi dituztenak. Sindikalismoa apolitikoa eta antipolitikoa da politika tradizionalen organoen bidez, oro har, eta parlamentuen bidez bereziki ekintza mespretxatzen duen zentzuan. Anti-intelektuala da, nola teorietan bermatzen diren programa eraikitzaileak mespretxatzen dituen zentzuan

hala intelektualaren buruzagitza mespretxatzen duen zentzuan. Langilearen instintuei dei egiten die errealki –eta ez, marxismoak bezala, langilearen instintuak izan beharko luketen intelektualaren ideiari–, hark uler dezakeena aginduz, hau da: lanean ari den tailerarraren konkista, bortxa fisikozko konkista, azken finean, greba orokorraren bidez.

Alabaina, marxismoa edo fabianismoa ez bezala, inor ezin da sindikalismoarekin ezkondu trebaketa ekonomiko edo soziologikoaren aztarnaren bat izan gabe. Ez dago inolako arrazoizkotasunik horretarako. Dena arrazionalizazioaren mendean jarri behar delako hipotesiaz baliatuz, harentzat teoria bat eraikitzen ahalegintzen diren idazleek irendu egiten dute ezinbestean. Batzuek anarkismoarekin lotu dute, zeina, filosofia soziala den heinean, erabat arrotza baita harekiko erro, gurari eta ideologian, nahiz eta oso antzekoa iruditu Bakuninen (1872-1876) proselittoa den langile-klasearen portaera. Beste batzuk marxismoan subsumitzen ahalegindu dira, orientazio taktiko berezi batek ezaugarrituriko gauza berezi bat bezala, eta horrek inplikatzeko duen biantan esentzialenetik dagoen guztia baztertzea. Beste batzuek, oraindik, espezie sozialista berri bat eraiki dute haren ideia platonikoaren arabera funtzionatu beharko lukeena –sozialismo guildista–; baina, hori egitean, azken balioen eskema zehatz bati gomendatu behar zioten mugimendua, zeinaren absentsia baita sindikalismoaren zertzelada nabarmenetako bat. *Confédération Générale du Travail* antolatu eta gidatu zuten gizakiek haren etapa sindikalistan (1895-1914) gehienak benetako proletarioak ziren, edo sindikatu-funtzionarioak, edo bi gauzak. Aseta zeuden erresuminez eta borrokarako gogoz. Ez zituen kezkatzen naufragioaren hondarrekin egin beharko zutenak, arrakasta izanez gero. Ez al da hori aski? Zergatik egin behar diogu uko bizitzak egunero irakasten digun egia berrezagutzeari, hau da, borrokamena abstraktuan badagoelakoari inolako argudiorik behar ez duen eta hari jaramonik egiten ez dionari eta garaipenaz bakarrik arduratzen denari?

Baina edozein intelektualek bete dezake bere gustura moldatzen den forma baten bortxa anker horren atzean dagoen hutsartea. Bortxa bera, anti-intelektualismoa eta jaidura anti-demokratikoarekin, konnotazio esanguratsua hartzen du zibilizazio desintegratzaile baten koadroan begiesten bada, zeina hainbeste jendeak gorrotatzen baitu era guztietako arrazoiengatik. Sentimendu horiek dituztenak,

baina gizarte kapitalistaren sistema ekonomikoa hainbeste gorrotatzen ez zutenak nola haren arrazionalismoa demokratikoa, ez zeuden libre oraindik arrazionalismo gehiago agintzen duen sozialismo ortodoxo batean berrerortzetik. Ukabilaren anti-intelektualismo sindikalista oso ongi dei egin ziezaiokeen bere anti-intelektualismo intelektualari –nietzschearra edo bergsondarra denari– oso ongi jo ahal izan du ukabilaren anti-intelektualismo sindikalistara bere kredo propioaren inplementu gisa –masen munduan. Era horretara oso aliantza estrainoa finkatzea lortu zen eta sindikalismoak, azkenean, bere filosofoa aurkitu zuen Georges Sorelengan.

Jakina, edozein denboratan bizikide diren mugimendu eta ideologia guztiek beti dute baterako asko. Prozesu sozial beraren emaitzak dira eta aspektu askotan antzeko eratan erreakzionatu behar dute antzeko premien aurrean. Halaber, ezin diote ihes egin bata besteengandik zerbait hartzeari eta beren eztabaidetan beren kolorez elkar zipriztintzeari. Azkenik, nola norbanakoek hala taldeek ez dakite, sarritan, nongoak diren, nonbaitekoak badira behintzat, eta batzuetan ezjakintasunez eta beste batzuetan abantaila baten hautemate zuzen batengatik printzipio kontraesankorrak nahasten dituzte berenaz nahasturiko kredotan. Horrek guztiak nahastu egiten ditu behatzaileak eta eskuarki gertatzen diren interpretazioen barietate zabala azaltzen dute. Bereziki nahasia da sindikalismoaren kasua, denboraldi labur batean bakarrik loretu zena, eta zeinatik laster desertatu baitzuten haren agertzaile intelektualek. Guztiarekin ere, nahiz eta ongi prezatu sindikalismoak Sorelentzat esan nahi zuena eta Sorelek sindikalismoarentzat esan nahi zuena, haren *Réflexions sur la Violence* eta haren *Illusions du Progrès*ek lagundu egiten digute diagnosi honetan. Haren teoria ekonomia eta haren soziologia erabat desberdinak izateak Marxenen aldean baliteke asko ez esan nahi izatea berez bakarrik. Baina, erreka anti-intelektualistaren erdian planteatzean egiten duenez argi-zurrustada bat isurtzen du indar sozial baten lehen agerpen praktikoarean gainera, zeina iraultzailea baitzen eta baita Marx ez zen zentzu batean.

V Alderdia eta Errebisionismo Alemaniarra. Sozialista Austriarrak

Zergatik ez ziren gailendu Alemanian taktika eta metodo ingelesak? Zergatik arrakasta marxista hura antagonismoak areagotu eta

nazioa bi eremu etsaikorretan banatu zituen? Hori ulertzen erraza izango litzateke berreraikuntza sozialerako lan egiten duten talde estrasozialistarik egon izan ez balitz edo estratu nagusikoiak haien proposamenei entzungor egin izan balie. Hori enigma bihurtzen da agintaritza publiko alemaniarra gizarte politiko ingelesa baino garai-ko eskakizun sozialetara irekiagoa zela egiaztatzen dugun bezain laster, eta fabianoen obra bera burutzen zuela, Ingalaterran baino era eraginkorragoan, ingelesaren oso antzeko talde batek.

Alemania ez zegoen atzeraturik «politika sozialeko» gaitan, baizik eta, segurtasun ingeleseko legeria Lloyd Georgeren izenarekin batez ere asoziatua onartu arte, buru izan zela politika horretan. Eta hobetze-neurri haiek legeria positibora eramán zituenak gobernuaren ekimena izan zen eta ez beheko presioa, borroka latzen bidez baieztatzen zena. Bismarckek aseguru sozialen legeriari ekin zion. Horiek garatu eta hobekuntza sozialeko beste partida batzuk gehitu zizkietenak funtzionario kontserbadoreak izan ziren (Von Berlepsch, Posadowsky kondea), Wilhelm II.aren aginduak betez. Sortutako instituzioak egiazki burutzapen miresgarriak izan ziren, eta hala kontsideratu zituzten mundu guztian. Aldi berean, jarduera trade-unionista bat abiarazi zen, eta aldaketa esanguratsua gertatu zen agintaritza publikoak grebekiko izan zuen jarrerán.

Hori dena agertzen zeneko jantziteria monarkikoa desberdintasun bat da prozedura ingelesarekiko, zalantzarik gabe. Monarkia, denbora batean liberalismo ekonomikoan ari izan ondoren («machesterismoan», kritikariek deitzen zutenez), antzinako tradizióra itzuli zen besterik gabe *–mutatis mutandis–* langileen alde eginez lehenago nekazarien alde egindakoa. Administrazio zibilak, Ingalaterrakoa baino askoz garatuagoa eta askoz ahaltsuagoa zenak, makineria administratibo bikaina hornitu zuen, bai eta legegintzarako ideiak eta trebezia delineatzaile ere. Eta administrazio zibil hori zen, gutxienez, ingelesa bezain irekia erreforma sozialeko proposamenei. Parte handi batean, ondasunik gabeko junkerrez –horietako askok soldata egiazki espartarrak beste bizibiderik ez zuten–, erabat beren betebeharrétara emanez, ongi hezitako eta informatuez, burgesia kapitalistarekiko nabarmen kritikoa zenez osatuak uretan murgiltzen den arrainak bezala ekin zion egiteko horri.

Ideiak eta proposamenak unibertsitateetako irakasleengandik zetozkion eskuarki burokraziari, hau da, «katedrako sozialistengan-

dik». *Verein für Sozialpolitiken*¹⁹ antolatu ziren irakasleen burutzapen zientifikoez zernahi pentsatzen dugularik ere, eta zeinen lanak askotan ez baitzuen errefinamendu zientifikorik, erreforma sozialarekiko gar batek suturik zeuden eta arrakasta erabatekoa izan zuten horren hedapenean. Deliberatuki aurre egin zioten ondoeza burgesari, ez bakarrik erreforma praktikoko meurri singularrak ideiatzean, baita erreformaren espiritua aldarrikatzean ere. Fabianoak bezala, esku artean zeukaten lanaz zeuden interesaturik batik bat, eta mespretxua zieten klase-gerrari eta iraultzari. Baina fabianoek nora zihoazen bazekitenez, haiek ere bazekiten eta ez zuten uste bidearen bukaeran sozialismoa agertuko zenik. Jakina, haiek kontsideratzen zuten estatusozialismoa nazionala eta kontserbadorea zen. Baina ez zen amarrua ez utopia.

Munduak, oro har, inoiz ez du ulertu sistema sozial hori eta sortu zuen monarkia konstituzionalaren izaera. Edozein kasutan ahaztu egin du beste garai batean jakingo zukeena. Baina egia susmatzen dugunean oraindik zailago gertatzen zaigu ulertzea ingurumen ez plutokratiko hartan alderdi sozialistarik handiena garatzea nola izan zen posible programa marxista huts batekin eta erasokortasun gainditugabeko fraseologia marxista batekin, zeinak esplotazio ankerra gudukatu nahi baitzuen, bai eta esklaboen gidarien esklabo zen estatu bat. Segurtasun guztiarekin hori ez dago azaltzerik «egoera sozial objektiboaren logikaz».

Alabaina, uste dut berrezagutu beharra daukagula beste behin epe laburrera –eta berrogei urte epe laburra da horrelako auzietan– metodoek eta hutsegiteek, *manque de savoir faire* banakoak eta taldekoak, logika horrek baino askoz gehiago azal dezaketela. Seinala nezakeen gainerako guztia nabarmenki askieza da. Bazegoen, noski, estatu singularren legerietan eskubide politikoak hedatzeko borroka. Baina masa industrialei gehien axola zitzaienaren parte handi bat parlamentu inperialaren (*Reichstag*) eskuduntzaren barruan zegoen eta harentzat sartua zuen Bismarckek hasieratik gizonezkoen sufragio unibertsala. Garrantzitsuagoa zen nekazaritzarentzako –eguneroko ogiarentzako babesa. Zalantzarik gabe horrek giroa pozoitzen lagundu zuen, batez ere horren onuradun nagusiak Ekialde Prusiako lurjabe handi eta ertainak eta ez nekazariak. Hala ere, sortu zuen presio efektiboari dagokionez, 1900 inguruan emigrazioa ia erabat etetearen

gertakari erabakigarria dago. Ez; azalpena ezin daiteke bide horretatik etor.

Baina zein *manque de savoir faire* hain alemaniarra! Gehiago argi ditzakegu gauzak Alemaniak nazioarteko harremanen gaian izandako portaerarekiko analogikoa agerikoaren bitartez. 1914 baino lehen anbizio kolonialak eta Alemaniaren beste kanpo-anbizio batzuk nabarmenki apalak ziren (denbora-tarte honetara bidezkoa dirudi hori esatea), batez ere Ingalaterrak eta Frantziak beren inperioak garai hartan gehitzeko izan zituzten zio argi eta efektiboekin erkatzen baditugu. Alemaniak efektiboki egin zezakeen ezer edo egiteko asmoa zuela adierazten zuenak erka daiteke Tel-El-Kebirreko gerrarekin edo Boer gerrarekin, edo Tunisiaren konkistarekin edo Indotxina frantsesarenarekin, adibidez. Baina denetan apaltasunik gutxienekoa eta erasokorrena, hala ere, alemaniarrek zuten hitz egitea eta ezin jasanezko eran iraingarria uzirik arrazoizkoenak aurkezteko zuten harropuzkeria ziren. Okerrago oraindik, ez zen ezarri inoiz portaera-lerrorik; aurrezko oldar zalapartatsuak, norabide beti aldakorretan, atzeratze hantusteen txandakatzen ziren, duintasunik gabeko propiziazioak merezi gabeko errefusaketekin, mundu-iritzia eratzen duten faktore guztiak higuindurik eta artegaturik egon ziren arte²⁰. Gauza ez ziren beste era batera barneko negoziotan.

Hutsegite larria Bismarckena izan zen errealki. Jarduera sozialistak hertsaketaren bidez ezabatzeko ahalegina (arazoaren izaeraz kontzeptu erabat erratua zeukalako hipotesiaren gainean bakarrik azalgarria) izan zen, zeina 1878an burutu zuen lege berezi bat onartzean (*Sozialistengesetz*) gailurra harrapatu baitzuen eta 1890 arte (Wilhelm II.k derogatzeari ekin zion arte) indarrean iraun baitzuen, hau da, alderdia hezitzeko eta gerraurreko aldiaren gainerakoan presondegia eta erbestea ezagutu eta presoaren eta erbesteratuaren mentalitatea neurri handi batean eskuratua zuten gizakien buruzagitzapean ezartzeko adina denbora. Baina inguruabarren konbinazio zorigaitzeko baten bidez, gertatu zen horrek hurrengo jazoeren joaira guztia biziitzea. Zeren erbesteratu-mentalitatea zuten gizaki haiek toleratu ezin zuten gauza bakarra militarismoa baitzen eta aintza militarren ideologia. Monarkiak toleratu ezin zuen gauza bakarra –bestalde sozialista arrazoizkoek gurari praktiko berehalakotzat kontsideratzen zituztenen parte handi batekiko begikotasunekin– armadari eta

1870ko aintzei egindako isekak ziren. Beste ezerk baino gehiago horrek definitzen zuen etsaia aurrezko hutsetik bestelako gisa. Gehi bekio fraseologia marxista –nahiz eta oso akademikoa izan– alderdiaren konbentzioei, alde batetik, eta lehen aipaturiko hantustea, bestetik, eta hor izango da koadroa. Nahiz eta ugaria eta emankorra izan legeria soziala, eta nahiz eta toleratzailea izan portaera, horretako ezerk ez zuen balio izan *non possumus* elkarrekikoen aurrean, kartoizko hesi horren aurrean, zeinaren zehar bi gerrari-taldeek elkarri irain egiten baitzioten, aurpegiak beldurgarrienak jartzen batzituazten, elkar irens-ten baitzuten printzipioz; hori guztia, izatez, inolako arrisku larri-rik adierazi gabe.

Gauzen egoera horretatik sortu zen egoera bat, bere arriskuak zituena, zalantzarik gabe –botere handi bat erantzukizunik gabe beti da arrikutsua–, baina ez zen irudi zezakeen bezain perturbatzailea. Gobernu federalak eta estatuenak –edo ministro-maila igoarazitako antzinako funtzionarioak, gobernu haiek eratzen zituztenak– adminis-trazio efiziente eta zintzoaz arduratzen ziren batez ere, legeriaz eta armadaren eta marinaren aurrekontuez. Gai horietako bat ere ez zen larriki konprometituri- geratzen sozialisten boto aurkakoez, eta, bere- ziki, armadaren eta marinaren aurrekontuen onarpena ia beti segurta- turik zegoen biztanleria zibilaren gehiengo handi baten laguntzarekin. Alderdi sozialdemokrata, bestalde, ongi antolatua eta August Bebelek distiratsuki gidatua, bere botoaren sendotze eta hedatzean murgildurik zegoen, zeina izan ere jauzika eta iutika gehitzen ari baitzen. Lan hori ez zuten serioki interferitzen gobernu-ek, burokraziak eskrupulutsuki betetzen baitzuen legearen letra, zeinak errealki beharrezkoa zen ekin- tza-askatasun guztia ematen baitzuen jarduera partidistarako²¹. Eta nola burokraziaren zuzendaritzak nola alderdiarenak arrazoa zuten elkarrekiko esker onez egotean, batez ere Bülowek agintea izan zuen bitartean, oratoria-gaitasunaren soberakinari irteerak emateagatik, zeinen premiak baitzitu- zten bai bata- k eta bai besteak.

Hala, alderdia ez zen asegarriki garatu bakarrik egin, egonkor- tu ere egin zen. Alderdi-burokrazia bat garatu zen, alderdi-prentsa bat, estatista eskarmentudunen estatu nagusi bat, egokiro finantzatua dena, oro har, segurua bere posizioetan eta, orokorrean, guztiz errespetaga- rria hitzaren zentzu guztietan, baita zentzu burgesean ere. Langile-kla- seko kideen gune bat eratu zen, zeinentzat alderdikoa izatea ez baitzen

jadanik aukera-auzi bat, derrigorrezko gauza baizik. Gero eta handiagoa zen buruzagitzaren eta katiximaren onarpen eztabaidaezinean hezitakoen kopurua, zeinak esan nahi baitzuen, ondorioz, haietako batzuentzat gaur eguneko batez besteko gizonarentzat edo emakumearentzat katixima erlijiosoak adina edo gehiago. Dena handiki erraztua zegoen alderdi ez-sozialistek gaitasunik ez zutelako langile botoarengatik efektiboki lehian aritzeko. Bazegoen, hala ere, salbuespen bat arau horrekiko. Alderdi zentrista (katolikoak), alde batetik, beharrezko talentu guztiaren jabe zen, zeren kalitate bereziki jasoko kleroaren laguntza baitzuen, eta bestetik, langileen botoarengatik borroka egiteko prestaturik zegoen, erreforma sozialaren norabidean iristeko gai sentitzen zeneraino iristeko bere eskuin-hegala probokatu gabe eta *Immortale Dei* (1885) eta *Rerum Novarum* (1891)²² enzikliken doktrinetan oinarrituz. Baina gainerako alderdi guztiak, nahiz eta arrazoi eta diferente eta maila desberdinengatik, mesfidantza-egoera batean zeuden, etsaikortasunezkoan ez bazen, proletalgo industrialarekiko, eta inoiz ez zuten lortu, saiatu ziren aldi guztietan, langile-botoen kopuru garrantzitsu bat berenganatzea. Horiek, katoliko aktiboak ez baziren behintzat, doi-doi zuten, beraz, itzultzeko beste alderdirik, alderdi sozialdemokrata izan ezik. Sinesgaitza badirudi ere gaieztasun horrek esperientzia ingelesa eta amerikarraren argitan, hala ere, gertakari bat da armada sozialistari baimena eman zitzaiola, hartatik mehatxatzen zuten arrisku ikaragarriari buruzko heia gora guztiaren erdian, politikoki babestu gabeko lurraldean sartzeko.

Orain ulertzeko egoeran gaude hain ulergaitza dirudiena, hau da, sozialista alemaniarrek zergatik atxiki zitzaizkion hain setati kredoa marxistari. Zeren kredoa bereizgarri bat izateko gai zen alderdi ahaltsu bat, nahiz eta erabat bazterturik egon, ez bakarrik erantzukizun politikotik, baizik eta haren berehalako ikuspegi orotatik, naturala zen fede marxistaren garbitasunari eustea behin hura besarkatu eta gero. Erreforma ez-sozialistarekiko eta estatu burgesaren egintza guztieki-ko jarrera guztiz negatibo hori –gorago ikusi dugunez, Marxek kasu guztietarako gomendatzen zuen printzipio taktikoa baitzen, salbuespenekoetarako izan ezik– errealki ezarria zitzaion. Haren gidariak ez ziren arduragabeak, ez etsipenduak. Baina konturatzen ziren egoera jakin hartan ez zegoea asko egiterik alderdiaren alde, kritika eta beren bandera destolesturik edukitzeaz aparte. Printzipio iraultzailearen

edozein sakrifizio erabat doakoa izango zatekeen. Bere proselitoak desantolatzea besterik ez zukeen egingo, edozein erataria lortzen zuena baino askoz gehiago proletalgoari eman gabe, ez beste alderdien ekimenez, burokrazia monarkikoaren ekimenez baizik. Lor zitezkeen arrakastatxo gehigarriek ozta-ozta estaltzen zuten alderdi-arriskua. Horrela, gizaki serioek, abertzale eta lege-betetzailleek, iraultza eta traizioaren kontsigna arduragabeak errepikatzen jarraitzen zuten –zeinen ondorio odolzaleek hain estrainioki bat egiten baitzuten haiek jaurtitzen zituztenen itxura baketsuarekin–, doatsuki kontziente baitziren haien arabera jokatu behar izateko oso gertakortasun gutxi izan-go zutela.

Berandu baino lehen, hala ere, haietako batzuegan egun batean edo bestean berriketa iraultzaileak kontrobertsia politikoko arma hilgarrienarekin, hau da, irribarrearekin topo egin zezakeen susmo ernetzen hasi zen haietako banaka batzuegan. Agian gisa horretako aprentsio bat izan zen edo fraseologia marxistaren eta garai haietako errealitate sozialaren arteko desadostasun ia irigarria hautematea besterik gabe, Engels zaharraren tamainako pertsonaia bat *ex cathedra* esatera behartu zuena –hau da, Marxen *Klase Borroka Frantzian* obraren argitalpen berriari idatzi zion hitzaurre batean²³– kaleetako borrokak, azkenaren buruan, bazituela eragozpen batzuk, eta sinestunak ez zeukala hartara bere burua behartua sentitu beharrik ezinbestean (1895).

Konponketa goiztiar eta apal horrek erabateko suharren gutxiengo txiki baten sumina piztu zuen, batez ere Rosa Luxemburgek gainditu zuen bere burua zaharren aurkako eraso amorratuetan. Baina alderdia baretu egin zuen –segur aski lasaitasunezko hasperen batekin–, eta aurrerantzean agian eman zitezkeen zuhurki pauso arretatsuak norabide berean. Hala ere, Eduard Bernsteinek alderdiaren kredoaren egitura osoa hoztasunez «errebisatzerari» ekin zionean, zarramaltza handiagoa sortu zen. Egoerari buruz esan dudanaren ondoren horrek ez gutizke harritu beharko.

Alderdirik mundutarrenak ere badu bere oinarri garrantzitsuenetakoren bat aldatzeak dituen arriskuaren kontzientzia. Alderdi baten kasuan, zeinaren programa, eta zeinaren existentzia kredo batean oinarritzen baitziren, zeinean xehetasun bakoitza suhar teologikoz landua izan baitzen, erroetako eta abarretako erreforma bat ikaraga-

rrizko talka sortzera bideraturik zegoen. Kredo hori erreberentzia ia erlijiosoaren gai zen. Haren banderapean alderdiak arrakastarako bidea egina zuen. Alderdiak erakutsi behar zuen gauza bakarra zen. Eta orain iraultza maitatua –Jaunaren Bigarren Etorrera lehen kris-tauntzat zena bera zen haientzat– alde batera uzten zen inolako zere-moniarik gabe. Ez dago klase-gerrarik aurrerantzean. Ez dago gerra-oihu hunkigarririk. Horren ordeztalderdi burgesekiko lankidetzat. Hori guztia goardia zaharreko kide batengandik, erbesteratu zahar baten-gandik eta, gertatzen zenez, alderdiko kide maitagarrienetako baten-gandik!

Baina Bernstein²⁴ oraindik aurrerago joan zen. Bere esku sakrilegoak doktrinaren oinarri sakratuei ezarri zizkien. Haren jatorri hegeldarrari eraso zion. Lanaren balioaren teoria eta esplotazioaren teoria kritikapean ezarri ziren. Zalantzak zituen sozialismoaren ekidinenezintasunaz eta «desiragarritasun» otzan batera murrizten zuen. Destainaz begiratzen zion historiaren interpretazio ekonomikoari. Krisiek ez zuten kapitalismoaren herensugea hilk; aitzitik, denborarekin kapitalismoak egonkortasuna irabaziko zuen. Miseriaren gehitza absurdoa zen, noski. Liberalismo burgesak iraunaraztea merezi zuten balio iraunkorrak sortu zituen. Proletalgoa ez zela dena esan ere egin zuen. Kontuak atera!

Hori, jakina, alderdia jasan zezakeena baino gehiago zen. Eramanezina izango zatekeen nahiz eta Bernsteinek arrazoia izan balu ere puntu bakoitzean, zeren antolakuntza batean txertaturiko kredoak ez baitago holokaustoen bidez eraberritzerik. Eta berak ez zeukan. Gizon bikaina zen, baina ez zegoen Marxen maila intelektualean. I. atalean ikusita daukagu urrunegi joan zela historiaren interpretazio ekonomikoaren gaian, zeina ez baitzezakeen erabat ulertu. Halaber, urrunegi joan zen landa-sektore garapeneko Marxen domeinu ekonomikoko kontzentrazioaren teoria ezeztatzen dutelako bere baieztape-nean. Eta baziren beste puntu batzuk ihardespen efektibo batera gonbidatzen zutenak, horregatik, ortodoxiaren aldezeleak, Karl Kautsky²⁵ ez zuen zaila izan bere alorrari edo haren parte bati eustea. Halaber, ez dago hain garbi alderdiarentzat abantaila izango zenik ere Bernsteinen gomendio taktikoak nagusitu izana. Segurtasun osoz hegaltal bat bereizi egingo zatekeen. Alderdiaren prestigioak nabarmen sufrituko zukeen. Eta, lehenago esan denez, ez zatekeen berehalako

onurarik lortuko. Beraz, asko zegoen esateko ikuspegi «kontserbado-reaz».

Inguruabar horietan Bebelek hartu zuen bidea ez zen hain nabarmenki ergela, ez eta hain nabarmenki tiranikoa garai hartan burkide batzuek eta beste kritikari batzuek ulertu zutenez. Kemenez salatu zuen errebisionismoa, ezkertiarren gain bere nagusitasunari eusteko adinako kemenez Hannover (1899) eta Dresdeneko (1903) batzarretan anatematizatu zuen. Baina konbentziturik zegoen klase-borroka eta fedeko beste sinesgai batzuk berresten zituzten ebazpenak hala-ko moldez kontzebiturik zeudela, non ahalgarri zitzaiera «errebisionistei» beren adostasuna ematea. Hala egin zuten, eta harrezkero ez zen haien aurkako neurririk hartu, nahiz eta, nire iritziz, zartailuhotsen bat entzun zen. Bernsteini berari baimena eman zitzaion Reichstagen sartzeko alderdiaren laguntzarekin. Von Vollmar artaldean geratu zen.

Gidari sindikalek sorbaldak uzkuritu eta marmar egin zuten hausnarketa doktrinazko horretaz. Une oro errebisionistak izanak ziren. Baina alderdia haien interes bitartegabeetan tartekatu ez zen arte, eta higuigarria zitzairen zerbait egitera behartu ez zituen bitartean, ez ziren asko arduratu. Babesa eman zien errebisionista batzuei bai eta horien literatur organo batzuei ere. Argi eta garbi utzi zuten, zeinahi zelarik ere alderdiaren filosofia, negozioa negozio zela. Baina hori izan zen guztia.

Errebisionista intelektualek, zeinentzat doktrina ez baitzen gauza axolagabea, eta sinpatizatzaile ez-sozialistek, zeinetariko batzuek atsegin izango batzuketan klase-borroka eta iraultza azpimarratzen ez zituen alderdi sozialista bati elkartzea, bestelako era batean pentsatzen zuten, noski. Haiek ziren alderdiaren krisiaz hitz egiten zutenak eta alderdiaren etorkizunari zegokionez buruari eragiten ziotenak. Arrazoi guztia zuten hori egiteko. Izan ere, haien etorkizuna alderdian eta alderdiaren inguruan, egiazki, mehatxaturik baitzegoen. Izatez, Bebelek, intelektuala ez zenak ezta hizkuntza-apaindurien zalea ere, ez zuen denborarik galdu premisei buruz ahakar egiten. Alderdiko masa, hala ere, oso kezkatutik zegoen horregatik guztiarengatik. Gidariei jarraitu eta haien kontsignak errepikatzen zituen, harik eta, Marxek edo Bebelek horretaz esan ahal izan zutenaz inolako hertsape-nik gabe, beren herrialdea babesteko armetara oldartu ziren arte.

Gainbegiratu dugun garapenaz argi interesgarririk eman du Austrian izandako garapen paralelo, baina desberdinak²⁶. Espero iza-tekoa zenez haren bilakaera kapitalistan erritmo askoz geldoagokoa izaki, hogeit urte behar izan zituen garrantzizko faktore politiko bihurtzen. Astiro sortuz jatorri xehe eta ez oso prezagarri batzuetatik 1888an Viktor Adelerren azpian finkatu zen azkenerako (Hainfeldeko Batzarrean), zeina garaile atera baitzen herrialde hartan zeuden eta hogeita hamar urtez aparteko trebetasunez gidatuko zituen nazionalitate guztietako sozialistak batzearen egiteko ia lan etsigarrian

Alabaina, alderdi hori ere ofizialki marxista zen. Haren gune intelektuala eratzen zuten judu distiratsuen zirkulu mugatuak²⁷, hau da, neo-maxisten zirkuluak funtsezko ekarpena egin zuen doktrina marxistaren garapenerako, I. atalean ikusi dugunez, lerro ortodoxoari jarraituz, aletartuz, zalantzarik gabe, prozesuan baina era tematu eta trebean gudukatuz hura aldatzen saiatzen zena eta ideologia iraultzaileari beti erarik zurrunenean eutsiz. Alderdi alemaniarrekiko harremanak estuak eta beroak ziren. Aldi berean, mundu guztiak baze-kien Adlerrek ez zukeela inolako aldrebeskeriarik defendatuko. Arrazoi kultura eta arrazialengatik Bebelek bereengan baino askoz autoritate gehiago izaki bere intelektual muturrekoengan, nahiz zuten marxismo guztia baimen ziezaiekeen haien kafetegietan eta beharrez-ko jotzen zuen guztietan erabil zitzakeen errealki interesatzen zitzaio-nean tartekatzen utzi gabe: alderdiaren antolakuntza eta prentsa, sufra-gio unibertsala, legegintza progresiboa eta estatuaren funtzionamendu egokia ere bai. Doktrina marxista eta praktika erreformistaren konbi-nazio horrek miresgarriro erantzun zuen. Austriar gobernuak laster aurkitu zuten bazegoela faktore bat, Eliza edo armada baino garrantzi txikiagokoa ez zena, zeina bere interes propioz beharturik zegoena erdiko aginteari laguntzera oposizio nazionalista butxatzaileen, berezi-ki alemaniarren eta txekiarraren aurkako borroka betikoan. Gobernu horiek –gehienetan funtzionario zibilen kabineteak, Alemanian beza-la, nahiz eta koroak etengabe ahaleginak egiten zituen politikariak sarrarazteko, gutxienez kartera gabeko ministro gisa–, ondorioz, alderdiari mesedeak egiteari ekin zioten eta hark bete-betean erantzun-ten zien²⁸. Eta gobernu batek (Gautsch baroia buru zuen funtzionario zibilen kabinete batek) bere egin zuenean sufragio unibertsalaren kausa, Adelerrek, bere jarraitzaileen artean inolako kontrakarrik aur-

kitu gabe, publikoko aitortu ahal zian zuen, une hartan, sozialistak «gobernu-alderdi» bat zirela (*Regierungspartei*), nahiz eta ministro-kargurik ez zitzaien eskaini eta haiek ere onartuko ez zuketena²⁹.

VI Bigarren Internazionale

Alderdi marxisten programaren printzipio internazionalistak nazioarteko antolakuntza bat eskatzen zuen iraungitako Lehen Internazionalearen modukoa. Gainerako talde sozialista eta laboristak ez ziren internazionalistak kredo marxistaren zentzuan. Baina, erradikalismo burgesaren herentziaz eta bakoitzaren nazioetako klase nagusikoiairen gobernuenganako aiherez, haiek guztiek lortuak zituzten, maila desberdinetan, iritzi eta begikotasun nazioarteko eta bakezaleak, eta horrela nazioarteko lankidetzak ongi prestatuak aurkitu zituen. Bigarren Internazionale sortzeak (1889) konpromiso bat haragitu zuen horrela, izatez, adiskideezina adiskidetzen saiatzen zena, baina 1914 arte funtzionatu zuen. Aski izango dira horri buruzko ohar batzuk.

Bazegoen nazioarteko bureau bat. Eta kongresuak zeuden behar bezalako eztabaidekin taktika eta printzipioei buruzko auziekin. Haren burutzapen ukigarriez neurturik, Bigarren Internazionalearen garrantzia hutsaren hurrengoa zen. Eta hutsean balioetsi dute, izatez, nola aktibista iraultzaileek hala laboristek. Egitez, hala ere, ez zen nahi inolako ekintza berehalakorik; ekintza, bai iraultzailea, bai erreformista, nazionala bakarrik izan zitekeen orduan. Kontaktuak antolatu behar ziren alderdien eta talde afiliatuen artean, irizpideak bateratu, aurreratze-lerroak koordinatu, arduragabeari eutsi eta nagia bul-tza egin, ahal zen neurriraino, nazioarteko iritzi sozialista bat sortu. Hori guztia, ikuspuntu sozialistatik, guztiz desiragarria eta garrantzitsua zen, nahiz eta gauzen izaerarengatik, emaitza positiboek hamar-kada asko beharko zituzten heltzeko.

Ondorioz, bureauaren burua eta kideak nazioarteko sozialismoaren batzorde zuzendaria besterik ez zen. Ez zegoen inolako politikarik hartara moldatzeko ez eta ezarri beharreko programarik, Lehen Internazionalearen kasua izan zenez. Alderdi nazionalak eta talde laboristak erabat autonomo eta askatasunean geratu ziren haien nahi partikularretara molda zitezkeen nazioarteko beste antolakuntza batzuekin

elkartzeko. Trade-unionak –bai eta kooperatibak eta hezkuntza-erakundeak ere– ongi hartuak izan ziren eta abegia egin ere egin zitzaizen, baina ez zuten izan inolako zuzendaritza-zereginik. Alderdi nazionalak, hala ere, sail komun zabal samar batean zirauten bertan Stauning eta Branting mugitzeko, alde batetik, eta Lenin eta Guesde, bestetik. Nazioarteko erakunde horretako kideetako batzuek iseka egiten zioten, zalantzarik gabe, besteen kautela koldarrari, eta azken horiek objektzioak jartzen zizkioten aurrenekoen erradikalismo suharrari. Eta batzuetan gauzak arriskutsuki haustura bortxazko bateraino iristen ziren. Oro har, hala ere, haiek denek ikasi zituzten elkarrengandik diplomazia sozialistako irakaspenak. *Modus vivendi* hori –desadostasunerako askatasun osoarekin– ahalgarri bakarra zenez gero, burutzapen handi bat zen bere horretan.

Bitxia badirudi, ere alemaniarrek izan ziren horren arduradun nagusiak, errusiarren eta guesdisten laguntzarekin. Alemaniarrek eratzten zuten alderdi marxista handi bakarra eta sail komuna marxistageruza batez hornitu zuten. Baina argi eta garbi hautematen zuten Alemaniatic kanpoko indar sozialista ordezkatzten zituzten gizaki gehienak ez zirela marxistak. Gizaki horietan gehienentzat hogeita hemeretzi artikulua sinatzea zen auzia, aldi berean interpretaziorako askatasun mugagabea erreserbatuz. Oso naturala denez, sinestun sutsuenak harritu egiten ziren horretaz eta fedea batere mamirik gabeko auzi-forma bateraino andeatzen ari zela. Alemaniar gidariek, hala ere, etsipenez onartzen zuten hori. Beren herrialdean amorruez erasoko zioten heresia zuzena bera ere toleratu zuten. Bebelek bazekien noraino joan zitekeen eta bere tolerantziak, tolerantzia ingelesarekin aurkitzen zeneko batasun hain estuan, azkenean saria emango zukeela, segur aski, gerra izan ez balitz gertatuko zatekeenez. Hala, berak maniobratu egiten zuen fronte proletarioa aglutinatzeko denborarekin birbizitzeko asmoz eta, hori egitean, gaitasun bat erakusten zuen, Alemaniako diplomaziak eduki izan balu, Lehen Mundu Gerra ekidin ahal izango zuena.

Emaizta batzuk zoritu egin ziren. Eztabaidak, nolabait zehaztugabeak ziren lehen hamarkadakoak, atzerri-politikara bideratuak zeuden azken finean, eta irizpide komun gisako bat hasi zen sortzen azkenean. Denboraren aurkako lasterketa bat zen. Lasterketa hori galdu egin zen. Orain garai haren aipamena egiten duten kazetari guztiak

Internazionala gaitzesteko eskubidearekin sentitzen dira, gerraren leherketaren aurrean nazioarteko sozialismoaren porrotatzat kalifikatzen dutenarengatik. Baina hori da har daitekeen ikuspuntu azalekoe-na. Basileako batzar berezia (1912), eta bakearen alde ahalegin zitezen nazio guztietako langileei egindako deia, segur aski inguruabar haietan egin zitekeen gauza bakarra zen. Greba orokorrerako deia, intelektual banaka batzuen irudimenean beste inon existitzen ez den nazioarteko proletalgoari zuzendua, ez zatekeen eraginkorragoa izan-go, oraindik eraginkortasun gutxiagokoa baizik. Ahalgarria dena burutzea ez da porrot egitea, baizik arrakasta lortzea, nahiz eta arra-kasta hori hitz batean oso desegokia gertatu. Porrotik izan bazen, alderdi nazional banakoen barne-fronteetan gertatu zen hori.

XXVII KAPITULUA LEHEN MUNDU GERRATIK BIGARRENERA

I «Gran Rifiuto»a

Nazioarteko antolakuntzako kide gisa alderdi sozialistek ahal zuten guztia egin zuten gerra ekiditeko. Baina, hala eta guztiz ere, lehertu zenean, beren kausa nazionalei erraztasun errealki harrigarritz atxiki zitzaizkien. Marxista alemaniarrek oraindik laborista ingelesek baino ezbai gutxiago izan zuten¹. Jakina, kontuan izan behar da nazio gerragile bakoitza erabat konbentziturik zegoela gerra defentsazko hutsa egiten ari zela (izatez, gerra oro defentsazkoa da, edo gutxienez «aurre-zainketazkoa», egiten duten nazioen begietarako)². Alabaina, kontuan hartzen badugu alderdi sozialistek zalantzari gabeko eskubi-de konstituzional bat zeukatela gerrako aurrekontuen aurka botoa emateko eta demokrazia burgesaren eskema moral orokorraren barruan ez dagoela politika nazionalarekin identifikatu beharrik –antimilitarismo sozialistatik oso urrunduriko gizakiek gaitzetsi zuten, izan ere, gerra herrialde gerragile guztietan–, badirudi Marxi buruzko badaezpadako erreferentzien edo herrialdea eraso izango balitz beren herrialdea defendatuko zuketzen Bebel eta Von Vollmarren aurreko aitorpenen aipamenarekin konpontzerik ez dagoen arazo

baten aurrean gaudela. Ez zukeen inolako arazorik izan beharko gaia-ri buruzko Marxen egiazko doktrina gogoratzeko. Gainera, nork bere herrialdea defendatzeak bakarrik esan nahi du armadarekiko betebeh-ar bat burutzea; ez du inplikatzeko gobernuarekin botoa ematea ez eta *unions sacrées*etan sartzea³. Guesde eta Sembat-ek, Frantzian, eta Vandervelde-k, Belgikan, gerra-kabineteetan karguak hartu zituzte-nek, eta sozialista alemaniarrek, gerra-aurrekontuen alde botoa eman zutenek, horrela beren nazioekiko leialtasunak eskatzen zuen baino zerbait gehiago egin zuten, orduan eskuarki ulertzen zenez⁴.

Soluzio bakarra dago enigmarentzat. Politikari sozialisten gehiengoa internazionalismo marxista sinetsi ala ez sinetsi –agian sineste horrek partekatu egingo zukeen orduan sineste ahaidearen zoria iraultza ikusgarri batean–, konturatzen zen, noski, ebanjelioaren gainean hartutako edozein posizio atxikimendua kostako zitzaizela. Masek goitik behera begiratu zuten eta gero uko egingo zioten obe-dientziari, horrenbestez *via facti* proletalgoak aberririk ez daukalako eta klase-gerra dagokion bakarra delako doktrina marxista errefusa-tuz. Zentzu horretan, eta marko burgesaren barruan bilakaera-gradu aurreratuago batekin topo egin izan balu gerrak gauzak beste era bate-ra izan zitezkeelako salbuespenarekin, 1914ko abuztuan egitura mar-xiarreko zutarri bital bat hautsi zen⁵.

Hori, izan ere, zabalkiro sentitu zen. Alor kontserbadorean sen-titu zen: kontserbadore alemaniarrek supituki ekin zioten alderdi sozia-listaz kortesia-eredu bat zen hizkuntzaz hitz egiten. Artean sugar zaha-rrari eusten zion alor sozialistaren parte hartan sentitu zen. Ingalaterran bertan ere MacDonaldek alderdi sozialistaren buruzagitza galdu zuen eta, azkenik, bere eserlekua gerra-koalizioarekin batu baino lehen. Kautsky eta Haase gehiengotik bereizi egin ziren (1916ko martxoa) eta 1917an Alderdi Sozialdemokrata Independentea antolatu zuten, nahiz eta haren kide gehienak artaldera itzuli 1919an⁶. Leninek aldarrikatu zuen Bigarren Internazionala hilik zegoela eta sozialismoaren kausari iruzur egin zitzaizela.

Bazegoen horretan egia-elementu bat. Alderdi marxisten gehiengoei dagokienez, sozialismoak ez zuen jasan, izan ere, proba bidegurutzetean. Ez zuten bide marxista hautatu. Kredoak, kontsig-nak, azken helmugak, antolakuntzak, burokraziak, gidariak ez ziren aldatu. *Gran rifiuto*aren biharamunean bezperan izandako bera izaten

jarraitu zuten. Esan nahi zutena eta ordezkatzeko zutena bakarrik aldatu zen. *Experimentum crucis* haren ondoren ez sozialistek ez antisozialistek kontsidera zitzaizkieten alderdi haiek lehengo argi beran. Alderdi haiek ere ezin zezaketen jarraitu antzinako bihurrikeria berekin. Onerako eta txarrerako irtenak ziren beren bolizko dorretik. Frogatua zuten beren herrialdeen destinoak helmuga sozialistak baino berentzat gehiago esan nahi zuen gertakaria.

Kasua bestelakoa zen, hala ere, bolizko dorrean inoiz egon gabe zeuden herrialde eskandinaviarretako alderdi sozialdemokratak bezalakoentzat. Eta besteekiko erlazioan, kasuari bestelako *iritziko diote* bihurrikeria iraultzaile haiek sekula seriotan hartu ez zituzten behatzaileek. Alemaniako alderdiari dagokionez, bereziki, egiazatik hurbilago egon daiteke esatea «sozialtraidoreek» –hala deitzen zitzaizkien– hodeia irrealetatik jaistea besterik ez zutela egin eta emergentzia nazionalak irakatsi ziela beraien oinen gainean egoten buruen gainean egon ordez, eta horrek –gehituko dugu gutako batzuek– haien fabore guztia zeukan eta ez zegoen horretan inolako *rifiutorik*. Baina zeinahi irizpide hartzen dugularik ere, ezin liteke inolako zalantzarik egon erantzukizuneko jarrera berriak 1914az aurretik alderdi bakoitzaizkoen eta haien helmugaren, kargu-politikoaren, artean itxuraz zegoen distantzia handia laburtzen zuela. Errealki urrun nago sozialdemokrata alemaniarrei gisa horretako zeinahi kalkulua egoztetik edo gizarte burgesean karguak ez hartzeko haien erabakiaren egiazkotasuna zalantzan jartzetik. Baina nabaria da, gerraren hasieran hartu zuten posizioaren emaitza gisa, haren muturrean –esatea zilegi bazait– «polito eserita» zeudela. Beste gainerako alderdiak ez bezala, ez ziren konprometitu bide osoa txalo oso batean korrituz. Baina beren naziotik desertatu ere ez zuten egin arrisku-orduan.

II Lehen Mundu Gerraren Ondorioak Europako Alderdi Sozialisten Aukeretan

1. Garrantzizko gerra orok, porrotean amaitzen denak, kordokatu egingo du eraikin soziala eta talde nagusikoiaren posizioa mehatxatuko du; porrot militarretik sortzen den prestigio-galera eraientza batek bizirik irauteko aurre egin behar dien gauza zailenetako bat da. Ez dut ezagutzen arau horrekiko salbuespenik. Baina alderantzizko

baieztapena ez da hain egiazkoa. Arrakasta lasterra ez bada edo, edozein kasutan, harrigarria eta estratu nagusikoiaren prestazioari argiro asoziatua –Alemaniaren 1870ko arrakasta, adibidez, izan zen bezalako–, agortze ekonomiko, fisiko eta psikologikoak oso ongi ekoitz dezake, klase, talde eta alderdien posizio erlatiboaren gaineko garai-pen batean kasuan bertan ere, porrotarenetik esentzialki desberdintzen ez diren efektuak.

Lehen Mundu Gerrak hori ilustratzen du. Estatu Batuetan ahalgina ez zen behar bezain luzatua ez unagarria izan hori erakusteko. Han ere gerra bere esku izan zuen administrazioak porrot biribila izan zuen hautes-ontzietan. Baina herrialde garaile guztietan estratu nagusikoiaren prestigioa eta herrian zeukan laguntza, gehitu ordez, hondatu egin zen eta ez handitu. Alderdi sozialista alemaniar eta ingelesez zorionerako horrek agintera igotzea ekarri zuen edo, edozein kasutan, kargu politikoetara. Alemanian alderdiari gizarteko organo zentralen gaineko domeinua ezarri zitzaion; nahiz eta, itxura doktrinazkoa salbatzearen, haietako batzuek oraindik ekin zioten, bai eta antisozialista batzuek ere, iraultzaz hitz egiteari, hartarako eskaturik joan zirela gobernura eta eskari umil batekin gainera. Ingalaterran boto laborista, milioi erdi baino zertxobait gehiagokoa izan zena 1910eko urtarrilean eta bi milioi eta laurdenera iritsi ez zena 1918an⁷, 1922an 4,236,733ra iritsi zen eta, 1924an, 5,487,620ra (1929an, 8,362,594ra). MacDonaldek buruzagitza birkonkistatu zuen, eta 1924an alderdiak kargu politikoak lortu zituen, agintea lortu ez bazuen ere. Frantzia mundu politikoaren egiturak halako arrakalatze bat ekidin zuen; baina ingurune orokorrak berak ziren: birjaiotze sindikalista bat gertatu zen gerra amaitu eta berehala; baina Confédération Générale du Travail sortu berria zen Confédération Générale du Travail Unitaire komunistatik aldentzean, elementu moldaezinak hurrupatzeko, desadoretu egin zituen orientazio iraultzaileak eta pixkanaka zeregin politiko nagusikoierako prestatu zen.

Gainera, orduan gainera erori zitzairen erantzukizuna beren gain hartu zuten alderdi sozialistek edo kuasi-sozialistek baliteke sentitu izana beren abenturan garaile izateko beharrezkoak ziren nolakotasunetako askoren ia monopolio bat zeukatela. Beste edozein talde baino gaiago ziren ondoezak asaldaturik zeuden masak maneiatzeko. Adibide alemaniarrek agerian jartzen duenez, orduko inor baino ere

posizio hobean zeuden nahasmendu iraultzaileak irmotasunez tratatzeko, indarrez ere bai hala behar izanez gero. Edozein kasutan herria bera ziren erreforma sozialaren behar besteko dosia administratzeko, hori burutzeko, alde batetik, eta masei onarrarazteko, bestetik. Horren gauzarik garrantzitsuena da, haien ikuspuntutik, erabat justifikaturik zeudela «gerra inperialistak» egindako zauriak sendatzeko, nazioarteko erlazioak ezartzeko eta deskontzertua argitzeko ere herria ere bazi-rela, zeina, haien inolako errurik gabe, bihurtu baitzuten bakea gobernu burges hutsek. Horretan haien lehiakide ziren burgesen akats bera egin zuten, nahiz eta ikuspuntu desberdin batetik, zeinek sinesten baitzuten segurtasun kolektiboan, Nazioen Ligan, urre txantiloak berre-raikitzean eta merkataritza-hesiak ezabatzean. Baina premisa akastuna onartuz gero, sozialistek arrazoa zutela garaipena espero izatean ere onartu beharra daukagu, batez ere atzerri-politikan.

2. MacDonald bi gobernuen burutzapenetan –MacDonalden eta Hendersonen Foreign Officeko lana– aski dira hori ilustratzeko. Baina kasu alemaniarra oraindik adierazgarriagoa da. Lehenik, sozialdemokratak bakarrik zeuden bake-ituna onartu eta estipulazioak betetzera jo zezan politika bat mantentzeko. Deitoratzen zuten hondamendi nazionala, noski, eta berekin ekarri zituen zamak. Baina, aintza militarari buruz zituen sentimenduak kontuan hartuz, ez porrota bera eta ez bakea ez ziren umiliazio jasanezina haientzat. Batzuek ia sinatu egiten zuten gerraren teoria anglofrantsesa. Gehienak gutxi arduratzen ziren berrarmatzeaz. Gainerako alemaniarrek atsegabe goibelean murgiltzen ziren bitartean, sozialdemokratek menderatuekiko elkarrulertze baketsuaren alde lan egiten zuten, erresuminetik erabat aske ez bazegoen ere, gutxienez, gorroto grinatsutik aske zegoen espiritu batekin. Besteentzat demokrazia ezarria zenari zegokionez, haiek Mendebaleko nazioen begi berez ikusi ere egiten zuten: 1918-1919ko errebolta komunistak bukatu eta konpromiso zuhur baten bidez, barne-politikan zeregin nagusikoi bat eskuratu ondoren prestutasun demokratikoenean zeuden.

Bigarrenik, masen baitan zeukaten laguntza aski indartsua zen jarrera hori politikoki eraginkor bihurtzeko. Mementoz, biztanleriaren parte handi batek argi beretan ikusten zituen gauzak. Egoerari buruzko haien ikuspuntuak eta hari tenporalki aurre egiteko bide zuzena irizpide ofizial bihurtu ziren, agintean zegoen gobernuaren politika zeinahi zelarik ere. Dawes plana eta Locarnoko hitzarmena negoziatu

zituzten koalizioei laguntza politikoa ematen zien, eta zeinak ez baitziratekeen inoiz eratuko, edo eratzekotan, ez baitzuketen inoiz hartuko norabide hura haiek gabe. Stresamann ez zen sozialista. Hala ere, haren izenarekin asoziatzen den politika alderdi sozialdemokratikoa-ren politika zen, zeinaren bidez hamarkada batean kreditu guztia eta beste batean penitentzia guztia lortuko baitzuten.

Hirugarrenik, abantaila bat zuten kanpoko iritzi politikoarekin. Munduak gutxi zekien Alemaniaz. Baina bi gauza ulertzen zituen: alde batetik, ohartzen zen alderdi bat zegoela gerraosteko kontzertuen kopuru handi bat onartzeko prest zegoena eta izatez erabat onesten zituen haietako batzuk, Frantziak eta Ingalaterrak etsaia zela beren buruari sinetsarazi ziotenaren etsaia zen alderdi bat; bestalde, ohartzen zen sozialdemokrazia alemaniarri ez zitzaiola beldurrik izan behar beste zio batzuegatik: nahiz eta gobernua oso kontserbadorea izan, ez zeukan sozialismo alemaniarri objektiorik jarri beharrik errusiarrari jartzen zitzaizkion bezala. Luzera, hori ahulezia bat zen. Zerikusi handia zuen laido alemaniarrei ezarri zitzaien tratamendu berandutzaileari, zeren Ingalaterra eta Frantziako Atzerri Arazoetako ministerioei sinetsarazi baitziren Alemania amaigabeki izango zela eskaeragile otzana, zeina zoriontsu egin baitzitekeen egunen batean nazio nagusiekiko berdintasun-posizio batera jasoa izan zitekeelako segurtasunekin. Laburrera, hala ere, eta batez ere Ruhrren inbasioaren egun ilunetan, abantaila bat izan zen: alderdiak –edo areago alderdiaren laguntzaren baitan zeudela bazekiten gobernuek– gainerakoei ukatuko zitzaien *entrée* bat izan zuten.

Laugarrenik, alderdi sozialdemokratak Bigarren Internazionalitikoak ziren gainerako herrialdeetan zegozkien alderdiekin antzinako kontaktuak zituen. Kontaktu horiek gerrak ez zituen erabat eten. Azken finean Bigarren Internazionala ez zuten inoiz ofizialki disolbatu, eta haren baitako norbanako eta talde askok –bereziki, baina inola ere ez eskusiboki, herrialde neutraletakoek– ukigabe eutsi zieten beren sines-te internazionalistei. Idazkariak (C. Huysmans) jardunean jarraitu zuen, eta 1917an, eskandinaviar sozialisten iradokizunez, batzar baterako deia egitearen ahalegina ere burutu zuen, zeinak porrot egin baitzuen potentzia aliatuek, beren aurkaria zanpatzeko orduan prest zeudenek, pasaporteak emateari uko egin ziotelako soilik⁸. Naturala zen, bada, sozialista askok hura berpiztea gauza normala zela pentsatu izana.

3. Bigarren Internazionala berpiztu egin zen, baina ez zailtasunik gabe. Hori zela-eta 1919an eta 1920an egin ziren lehen konferentziek arrakasta moderatua baizik ez zuten izan. Internazional Komunistak (Hirugarren Internazionalak), bitartean sortu zena (ikus beherago) munduko alderdi sozialista eta laboristen arteko batasunerako oztopo larria zen erakarmena zuen. Eta beren zoria komunistekin partekatzerak makurtzen ez ziren zenbait talde garrantzitsuk Bigarren Internazionala baino zerbait eguneratuagoa behar zuten. Egoera hori baliabide taktiko inteligente baten bidez konpondu zen zorionez. Sozialista austriarren ekimenez, zeinekin batu baitziren Independente alemaniarrek eta Alderdi Laborista Independente ingelesa, antolakuntza berri bat eratu zen, Alderdi Sozialisten Langile Batasun Nazioartekoa (Vienako Internazionala deitua), Bigarren Internazional berpiztuan taldeak erradikalizatzeko, komunismora gehiegi makurtzen ziren taldeak murrizteko eta batzuei eta besteei xede formazio zentzuzkoen bidez portaera-lerro bat finkatzeko asmoz⁹.

Operazioaren esanahia zehazki azaltzen du harentzat komunistek berehalaxe aurkitu zuten ezizenak: «Bi eta erdi zenbakidun Internazionala». Eta horra zergatik izan zen gai garaiko premiei zerbitzatzeko. Hamburgetako Batzarrean (1923) Bigarren Internazionala eta Vienako Internazionala batu egin ziren Internazional Laborista eta Sozialista eratzeke, bakea «inperialista»tzat estigmatizatzeke eta nazioarteko erreakzioaren aurka fronte bakarra –eta horrek, edozein kasutan, ongi ematen zuen belarrira–, zortzi orduko laneguna eta legeria sozial nazioartekoa eskatzeko. Alemaniaren kalteordainak zifra zehatz eta arrazoizko batera murriztea, aliatuen arteko zorak aboltzea eta lurralde alemaniarra ebakutzeko urtebete lehenago beharrezkotzat jo ziren (Frankfurteko Ebazpenak, 1922). Ondorengo jazoeren argitan derrigor ohartu behar dugu zeinen ekarpen –eta zerbitzu– handia izan zen hura.

III Komunismoa eta Elementu Errusiarra

1. Bitartean, alderdi komunistak laster ari ziren garatzen. Berez horixe zen espero genezakeen gauza bakarra. Ez zen arriskutsua ere. Erantzukizunaren eragin moderatzailea sentitzen duen edozein alderdik ezkerrean (edo eskuinean) talde gehiago gara daitezen lekua utzi

beharko du, eta espazio horrek segur aski ez du luzaroan okupatu gabe iraungo. Defekzioari muga batzuen barruan eutsi nahi izanez gero, horrek ez dauka molestia bat baino gehiago izan beharrik, eta elementu gobernaezinak artaldearen barruan edukitzea nahigarri ere izan daiteke. Alderdi sozialistek perturbazioa jasan zuten beti hegal hipe-rradikalekin¹⁰. Talde «ezkertiar» horiek aurrera egitea gerra osteko egun nahasietan eta alderdi desberdin estatusa lortzeko aukeraz baliatzea ez da ohitura klasikoa jarraitzea eta «komunista» deitzea edo garaiko alderdi ofizialek baino joera internazionalista askoz indartsuagoa erakustea baino harrigarriagoa.

Gogoan izan bedi hori guztia erabat independentea dela kasuaren aspektu errusiarrarekiko. Alderdi komunistak eta Internazional Komunista bat ere izango lirateke, Errusian oraindik tsarrek aginduko balute. Baina elementu errusiarra garrantzi erabakigarritzko faktore bihurtu zenez gero nola sozialismoaren hala komunismoaren zorien taxueran mundu guztian –izatez, gure garaiko historia sozial eta politikoaren taxueran–, esentziala da berrestea nola garatu zen eta haren izaera eta garrantzia prezatzea. Helburu horrekin sailkatu dugu haren garapena hiru alditan.

2. Hasieran –hau da, 1917an boltxebikeak aginteaz jabetu ziren arte–, ez zegoen ezer bereziki errusiar talde komunisten garapenean, gizonik indartsuena errusiarra izatea eta haren pentsamendu-eskemak despotismo mongoliar-zerrenda bat edukitzea izan ezik. Bigarren Internazionala *via facti* bertan behera geratu zenean gerra piztean eta Leninek hilik zegoela aldarrikatu zuenean eta metodo eraginkorrago-etarako orduak jo zuela esan zuenean, naturala zen hark bezala sentitzen zutenak elkartzea. Suitzan, Zimmerwalden (1915) eta Kienthalen (1916) izan ziren batzarretan sortu zen horretarako aukera. Beren nazioen kausak defendatu zituzten ia guztiak bertan ez zeudenez gero, bertaratutako militanteek ez zuten zailtasun handirik aurkitu gerra inperialista nazioarteko iraultza bihurtzearen Leninen programari –gutxi-asko– atxikitzeko. Horretan jatorrizko marxismoa eta promes mesianikoarekiko fede-aitorpen hutsa baino zerbait gehiago zegoen. Haietako batzuegan egiaren hautemate argia ere bazegoen, zeinarekiko herrialde guztietako burgesak hainitsu baitzeuden, hots, gizarte burgesaren eraikina desegokia dela gerra «total» luzatu baten tirandurak eta bortxakeriak jasateko eta porrokatzeak gertatuko zirela,

gutxienez, herrialde batzuetan. Horrezaz haratago, hala ere, Leninen buruzagitza ez zen onartu. Bertan zeuden gehienek existitzen ziren alderdi sozialistak konbentzitu, ikaratu eta erabiltzean areago pentsatzen zuten haiek suntsitzean baino. Gainera –eta horretan ados zegoen Lenin–, nazioarteko iraultza proletalgo nazionalen ekintza banakoen bidez burutu behar zen eta herrialde «aurreratu»etan lehenik.

Bigarren aldia 1917tik 1927ra datatzen dut, hau da, boltxebikean Errusian agintera igo zirenetik Trotski alderdi boltxebikearen Komite Zentraletik kanporatu zuten arte (1927ko urria). Hamarkada horretan alderdi komunistak eta Internazional Komunista («Hirugarrena») sortu ziren. Alderdi sozialista eta laboristekiko haustura (ordukoz) behin betikoa ere gertatu zen, Alemaniaren kasuan, sozialdemokratek hartutako neurri zorrotzek erremedio gabe mingostu zutena, orduan agintean baitzeuden, 1918tik 1919rako neguan. Eta azkenik katea errusiarraren lanketa ere gertatu zen.

Baina hamarkada horretan guztian kateak ez zuen marruskadurarik ez kontortsiorik sortu. Gogoratu behar da agintearen konkista boltxebikea, nazio handi guztien artean atzeratuena zenaren baitan, halabehar hutsa besterik ez zela izan¹¹. Neurri bateraino Leninek berak ere aitortzen zuen hori. Hark behin eta berriz esaten zuen azken garaipena herrialde aurreratuenetako indar iraultzaileen ekintzaren bitartez bakarrik irabaziko zela eta ekintza horrek zeukala egiazko garrantzia. Jakina, Leninek komunisten gaineko bere aginpidea lehenago bezala ezarri zuen eta Internazional Komunistaren antolakuntza hertsiki zentralista behar zela zioen –zeinaren bureauak hartu baitzuen bere gain alderdi banakoen mugimenduetako bakoitza agintzeko ahalmena–, baina buruzagi komunistaren errolean egin zuen hori eta ez despota errusiarraren errolean. Hortxe zetzan alde osoa. Internazionalaren koartel nagusiak Moskun zeuden, buruzagi efektiboa errusiarra zen, baina politika espiritu guztiz internazionalistaz gidatzen zen, interes nazional errusiarren inolako erreferentzia partikularrik gabe eta herrialde guztietako komunistak funtsean ados zeuden printzipioetan oinarriturik. Potentzia sobietarraren Internazionalaren Bureauaren eta Bureau Politikoaren arteko harremana¹² orduan askoz estuagoa izan zen aurrerago izango zena baino, bi erakundeak, hala ere, erabat desberdinak ziren arren. Hala, bada, Internazionala bera eta alderdi banakoak ez ziren portatzen Errusiarekiko lokarrik ezean portatuko ziratekeenaz bestera.

Hamarkada hartan, beraz, errusiar konexioaren garrantzia, nahiz eta handia izan, ez zen iritsi baino gehiago izatera. Lehenik, hor zegoen gertakari garrantzitsu bat, zeinaren arabera talde komunista bateko kideen kopurua kantitatez eta kalitatez hutsaren hurrengo izanik ere eta seriotan hartua izateko oso uzi gutxi izan, inperio bat konkistatua zuen beste talde hark islaturiko aintza har zezakeen zeharbiz, eta horretatik pizgarria bat lor zezakeen. Bigarrenik, errealtate boltxebikea gorabehera –terrorea, miseria, Politika Ekonomiko Berria ezartzean inplikaturiko porrotaren aitorpena Kronstadteko errebolta-
ren ondoren–, aurrerantzean posible izan zen «funtzionatzen» zuen sistema sozialista bat seinalatzea. Boltxebikeak maisu agertu ziren Ingalaterra eta Estatu Batuetako iritzi publikoak itsu-itsuan edozer sinesten zuelako gertakaria ustiatzearen artean, baldin eta topiko eza-
gunen jantzitan bildurik zerbitzatzen bazitzaion. Hori, jakina, mesedegarri gertatu zitzairen gainerako alderdi komunistei ere. Hirugarrenik, herrialde guztietako komunistek (Lenin bera barne) mundu-iraultza hurbil zegoela sinesten zuten bitartean, errusiar armadak haientzat Nikolas I.aren armadak talde atzerakoientzat XIX. mendearen bigarren laurdenean esan nahi izan zuen beste esan nahi zuen¹³. 1919an itxaropen haiek ez ziren hain irrazionalak eta jendea orain sinesteko prest dagoena baino betetzetik askoz hurbilago zeuden. Egia da Bavarian eta Hungarian bakarrik finkatu zirela errepublika komunistak¹⁴. Baina Alemanian, Austrian eta Italian egitura sozialista arriskutsuki hurbil zegoen porrokatzetik, eta ez dago esan beharrik zer gertatuko zatekeen herrialde horietan, eta agian Ekialderago, Trotskiren gerra-makina garai horretan ekiteko eran egon izan balitz eta ez gerra zibilean eta Poloniakoan murgildurik¹⁵. Ez da ahaztu behar Internazional Komunista mehatxuzko eta herio-borrokazko giro hartan sortu zela. Gerora bestelako esanahia hartu zuten gauza askok –zuzendaritza erdiratuarekin gertatzen denez, zeinak ahalmen mugagabea baitu alderdi banakoen gain, eta zeinak ekintza-askatasun oroz gabetzen batitu– orduan arrazoizko-itxura izan zezaketen aspektu horretatik.

Hirugarren aldia Trotskiren kanporatzetik (1927) datatu dut, zeren hori zedarri egokia baita Stalin aginte absolutura igotzean. Ordutik hasita, erabaki efektibo oro auzi politikoetan badirudi harena izan zela, nahiz eta oraindik kontrakarren bat aurkitu Bureau

Politikoan eta beste gune batzuetan Kamenev eta Zinovieven (1936) «epaiketa»ra arte edo Yezhoven (1937) terrore-agintaldira berera arte. Gure helbururako horrek esan nahi du ordutik aurrera erabaki bakoi-tza errusiar estatuko gizaki baten erabakia izan zela, zeinak baitzihar-duen interes nazional errusiarren izenean eta despotismo eradukiezin baten ikuspuntutik ikusten zituenez. Eta horrek, bestalde, zehatza bada, «Comintern»aren (Internazional Komunistaren) eta atzerriko alderdi komunisten aurrean haren jarrerak izan beharko zukeena defi-nitzen du. Horiek politika errusiarraren tresna bihurtu ziren, tresna horien arsenal eskergan toki bat hartuz eta modu errealistan balioe-tsiak izanik gainerakoekiko, zirkunstantzien arabera. Gaur eguneko gerra arte, zeina berbizi egin baitezake, mundu-iraultza kontu izoztu bat izan zen. Beterano bizirauleak, bai eta komunismo internazona-listaren neofitoak ere, baliteke mespretxugarriak izatea. Baina artean bazuten baliaagarritasunik. Eraentza errusiarraren aintzak predika zitzaketen. Gobernu etsaikorrak ziztatzeko orratzetarako balio zeza-keten. Errusiaren negoziaketa-ahaleman gehitzen zuten. Beraz, mere-zi zuen nekeren bat hartzea eta gasturen bat egitea haiek mendeen edukitzeko, Polizia sekretuaren agenteek zelatzeko eta Cominternaren bureaua eta beldurrez eta dardaraz obedituko zuten morroi erabat zuriketariz hornitzeko.

3. Horretan guztian (eta horretan bermatzean) Stalinek denbo-ran zehar ezarritako praktika jarraitu zuen. Gobernu nazional gehie-nek hark bezala jokatu dute, eta azaluskeria hutsa da haren kasuan sumin berezia aldarrikatzea. Adibiderik nabarienak kredo erlijiosoa berri batera pasatzen ziren gobernuen praktikak ematen ditu. Kredoek ekintza bultzatzeko adina bizitasun izan zuten bitartean, gobernu horiek sarritan kredo bereko talde atzerritarrek erabili izan zituzten beren helburuetarako. Baina, 1793tik 1815 arteko historia frogatzeko aski denez, praktika adibide horiek iradokitzen dutena baino askoz orokorragoa da. Hori bezain tipikoa da –fraseologiko eta beste izaera batekoa– horrek afektaturiko gobernuena: mota eta klase guztietako politikariak zoriotsuak izaten dira aurkari bati traidore deitzeko aba-gunea aurkitzen dutenean.

Baina Errusiaz kanpoko alderdi komunistentzat auzi larria zen tsar modernizatu baten eskuetan zegoen *caput mortuum* batengandik aginduak hartzea. Haien zurikeria nardagarriak bi auzi planteatzen

ditu, bata haren kausei buruzkoa eta beste bat etorkizuneko izaeraren helmenaz eta sozialismo iraultzailearen patuaz.

Lehen auzia baliteke erantzuteko dirudien baino zailtasun gutxiagokoa izatea. Egin behar dugun gauza bakarra da komunistaren katedran esertzea eta, haren izaera kontuan hartuta, haren egoerari espiritu praktikoz begiratzea. Komunista batek ez lioke jarriko objektiorik Stalinen eraentzari kontsiderazio humanitarioengatik. Hilketa goratu ere egin lezake; endekatu neurasteniko batzuek goratu egiten dute, eta beste batzuek, porrota eta erresuminaren komunistek, poza sentitzen dute biktima-mota halako baten sufrimenduengatik. Gainera, zergatik sentitu behar zuen laidotua eraentza sakon idolatratzea pertsona burgesei eragozten ez dien krudelkeriengatik? Zergatik gaitzetsi beharko zukeen boltxebismoa zio horrengatik Canterburyko deanak gaitzesten ez badu?¹⁶ Zergatik, orduan?

Berriz diogu komunistek ez zutela izan arrazoirik thermidorismoa zela medio objektioak jartzeko. Esaldi hori Politika Ekonomiko Berriaren aldekoek erabili zuten lehen aldiz; baina Trotskik Stalinen eraentza «atzerakoi»tzat estigmatizatzeak hartu zuenez gero, Robespierre 1794an eraitsi zuten gizakien ekintza zen zentzuan. Baina hori absurdoa da. Azken finean, Stalinekin kolektibizatu zuen nekazaritza, berak likidatu zituen *kulakak*, berak ezeztatu zuen Politika Ekonomiko Berria.

Azkenik, potentzia babesleak bere mugen barruan egiten duena ez da garrantzi oinarritzakoa beste herrialde bateko komunistarentzat, potentzia horrek berarekin garbi jokatzeko duen bitartean. Eta berarekin garbi jokatzeko ez badu ere, zer egin behar du? Kateak estutu eta zauriak eragiten zituen. Baina finkatu ere egiten zuen. Alderdi sozialistek ez zuketen Stalin onartuko. Eskuarki mentalitate osasuntsuko langileek deitorea batekin aldentzen ziren harengandik. Trotski bezain ordenaz kanpokotzat joko zuketen. Stalin ez zegoen katea gabe ezer egiteko egoeran¹⁷, eta, haren esklabotza onartzean, komunistek espero zezaketena –baliteke oraindik espero izatea– beraiei erara gauzak egiteko abaguneak sortzea... oraingo Mundu Gerraren ondoren agian...

Azken puntua nolabait bigarren auziari erantzuna ematearen bidetik doa. Noski, bada ahalbide bat errusiar despotismoak europar

zibilizazioaren hondakinen gainetik hedatzekoa –edo haietaz haratago ere bai– eta, kasu horretan, mundu guztiko alderdi komunistak errusiar garnizioetan berrintegratzekoa. Baina beste ahalbide asko ere badaude. Eta haietako bat eraentza errusiarra prozesuan porrokatzekoa da edo beste herrialdeen gain hedatzean, herrialde nazional banakoen antzekoagoak diren ezaugarriak hartzekoa. Gisa horretako kasu berezi bat izango litzateke azkenean elementu errusiarrek ez lukeela ezer aldatuko sozialismo iraultzailearen etorkizuneko izaera. Horretaz guztiaz kalkuluak egitea, zalantzarik gabe, arriskutsua da. Baina ez da gure zibilizazioa oraingo konflagraziotik kaltegabe irtengo dela espero izatea bezain zentzugabea, ezik, jakina, konflagrazio hori espero izatea arrazoizkoa den baino bizkorrago ibiltzen ez bada.

IV Kapitalismoa administratu?

1. Orain arte, bada, ez dugu ikusi arrazoi konbentzigarriarik zeinen bidez alderdi sozialistek 1918az geroztik alderdi sozialistek erantzukizun politikoa egindako esperimenduek ez zuketean arrakasta osoirik izan beharko. Berriz diogu: herrialde batzuetan –Suedian, esaterako–, sozialistek lehen eskuraturiko agintea sendotzen jarraitzea besterik ez zuten egin; beste batzuetan, agintea era naturalean iritsi zen haiengana, ekintza iraultzaile baten bidez konkistatu beharrik izan gabe; herrialde guztietan sozialistak beste edozein alderdi baino egoera hobean zeudela ematen zuen garaiko arazo handiei aurre egiteko. Lehen aditzera eman dudanez, bazirudien monopolizatu egiten zituztela arrakastarako baldintza esentzialak. Gainera, nahiz eta haietako gehienek ez izan aurreko esperientziarik agintean, nahiko esperientzia eskuratua zuten izaera baliagarrienekoa antolaketan, negoziaketan eta administrazioan. Izan ere, berehalaxe baieztatu behar da sekula ez zutela egin kategorikoki zentzugabea zen ezer. Azkenik, ez sozialisten ezkerretara alderdi berri baten sortze ezinbestekoa ez alderdi horrek Moskurekin zuen konexioa ziren hain larriak haientzat, aurkariak sinetsarazi nahi zutenek.

Baina, hori guztia gorabehera, sozialisten egoera prekariora zen toki guztietan. Egiatzko sinestunak oso ongi iritzi ziezaiokeen ezinezko. Zeren abantaila taktiko haiek guztiek gainditzeko ezina zitzairen oinarritzko zailtasun bat ezkututzen baitzuten. Gerrak eta gerrak sortu-

tako ausiabantzak eraman zituen agintera sozialistak; baina, jantzidura zaharraren zarrataduren azpitik, gizarte-organismoak eta, bereziki, prozesu ekonomikoak, lehengoak izaten jarraitzen zuten. Hau da, sozialistek esentzialki mundu kapitalista batean gobernatu behar zian zuten.

Marxek irudikatu zuen aginte politikoaren konkista sozializazioaren aurretiazko baldintza gisa, zeinari berehalaxe ezarri behar baitzitzaion eskua. Horrek inplikatzeko zuten, hala ere, Marxen argumetazio guztiak izatez inplikatzeko zenez, aipaturiko konkista horretarako abagunea gertatuko zela kapitalismoa bere bilakaeraren azkenean egotean edo, berriro geure esaldi propioa erabiliz, gauzak eta arimak helduta zeudenean. Pentsatzen zen porrokatzeak barne kausengatik organismo ekonomikoaren edo kapitalismoaren porrokatzea izan behar zuten. Mundu burgesaren porrokatze politikoak horren konkomitantzia hutsa izan behar zuten¹⁸. Baina orain porrokatze politikoa gertatu zen –edo haren antzeko zerbait– eta abagunea sortu zen, nahiz eta prozesu ekonomikoa ez egon inon heldutasunetik hurbil. «Gaineitura» mekanismo bultzatzailea baino bizkorragoa higitua zen. Egoerarik ez-marxiarrenetako bat zen.

Bere kabinetearen barruan aztertzen duenak espekulazioak egin ditzake gauzek har zezaketen joairaz, baldin eta alderdi sozialistek, jazoeren norabidea berrezagutuz, uko egin izan baliote agintearen Troiako zaldiari, oposizioan geratuz, eta burgesiari utzi izan baliote gerrak eta bakean utzitako naufragio-hondakinekin elkar ulertzen. Agian hobe izango zatekeen haienez, sozialismoarentzat eta munduarentzat; nork daki? Baina orduan beren nazioekin identifikatzen ikasia zuten gizakientzat eta erantzukizunaren ikuspuntua hartzen ez zegoen aukerarik. Deliberatuki aurre egin zioten oinarriz konponezina zen arazo bati.

Bazegoen sistema sozial eta ekonomiko bat funtzionatuko ez zuena, lerro kapitalisten gainean izan ezik. Sozialistek gida zezaketen, lanaren interesean arabera arautu, haren efizientziari kalte egiteko punturaino zukutu; baina ez ziren gauza espezifikoki sozialista zen ezer egiteko. Maneiatu behar izan balute, beren logikaren arabera egingo zuketena «Kapitalismoa administratu» beharko zuketena. Eta horixe egin zuten. Beren neurriak esaldi sozialistez estaltzen saiatu ziren, eta handitze-kristala ezarri zien, arrakasta halako batez, beren

politikaren eta alternatiba burgesak kasu bakoitzean ustez jarraituko zukeenaren arteko desberdintasun guztiei. Funtsean, hala ere, inguruabar beretan liberal edo kontserbadoreek ere egingo zuketena egin behar izan zuten. Baina, nahiz eta bide ahalgarri bakarra izan¹⁹, alderdi sozialistentzat bide hura jarraitzeko oso arriskutsua zen.

Egin zutena ez zen erabat etsipenak joa edo defendatzeko guztiz gaieza, fede sozialistaren ikuspuntutik. Mende honen bigarren hamarkadaren hasieran Europako sozialistek oso ongi itxaron zezaketen, zortearekin eta zuzendaritza arretatsuarekin, aginte politikoaren guneetan edo haietatik hurbil kokatu izana, edozein «erreakzio»-arrisku araotu ahal izateko eta proletalgoaren posizioa sendotzeko gizartea sozializatzea ahalgarri izango zen egunera arte inolako bortxazko hausturarik gabe; gizarte burgesaren eutanasia presidituko zuten eta aldi berean heriotza-prozesua behar bezala joatea eta biktimak atzeratzerik ez zuela izango segurtatuko zuten. Gizarte sozialistaren edo langilearen koadroan sartzen diren faktoreez bestelakoen presentziarengatik ez balitz, itxaropen hori burutu zitekeen.

Fedearen ikuspuntu horren defentsa gorago egindako baieztapenean oinarri zitekeen, hau da, egoera berria eta Marxen aurreikusigabea izatean. Biktima burgesa, sozialistengana babes bila bihurtuz –kasu hori ez zegoen haren eskeman aurreikusirik. Argudia zitekeen, inguruabar haietan, kapitalismoaren administrazioa bera aurrerapauso handi bat zela. Kontua ere ez zen kapitalismoa administratzea interes kapitalistan, baizik lan jatorra egitea eraberrikuntza sozialaren alorrean eta langileen interesen inguruan ibiliko zen estatu bat eraikitzea. Edozein kasutan egin zitekeen bakarra zen bide demokratikoa hautatu behar bazen, zeren egoeraren heldugabetasuna alternatiba sozialistarako preatzeko gehiengorik ez izateak baieztatzen baitzuen hain zuzen ere. Ez da harritzekoa alderdi sozialistek, inguruabar haietan agintea onartzea deliberatu zutenek, ahots goraz aldarrikatzea demokraziarekiko beren atxikimendua!

Hala, bada, langilearen agintearekiko gurari politikoa justifikagarria zen arrazoi doktrinazko garaia goengatik eta interes proletarioarengatik. Irakurleak ez du zailtasunik izango hautematen kritikari erradikalei zirrara nola eragin bide zien hain komunztadura kontsola-garriak. Baina azken jazoerek hainbeste jende bultzatu dutenez gero politika haren porrotaz hitz egitera eta garai hartako gidariak egin

beharko zutena esatera, azpimarratu egin nahi ditut bai haien ikuspuntuen oinarri arrazionala eta bai moldatu behar zuten sistemaren izaera bortxatua ere. Porrotik izan bazen, ergelkeria eta iruzurraz aparteko beste edonon bilatu behar dira haren kausak. Horretaz konbentzitzeko begiratu bat ematea aski dugu kasu ingelesa eta alemaniarrari.

2. Gerraren amaierarekin batera gertatu zen sentimendu nazionalisten orgia baretu bezain laster, egoera benetan iraultzailea garatu zen Ingalaterran, masen umore txarra baieztatuz greba politikoen bitartez, adibidez. Arduradun sozialistak eta laboristak hain batera gidatu zituzten jazoera hauek –eta nazioa modu egiazki iraultzailean bultzatua izango zen beldurrak–, non handik aurrera buruzagitza komuna onartu baitzuten, gutxienez maniobra parlamentarioa afektaturik zegoen tokiraino. Pisu konbinatuaren lehoiaren partea langile-interesari egokitu zitzaion eta, langile-interesaren barruan, sindikatu handi banaka batzuen burokraziari, eta horrenbestez ia berehalaxe intelektual atsekabetuen oposizio bat garatu zen. Intelektual horiek objektzioak jartzen zizkieten aliantzaren izaera laboristari eta hartan ez zirela gai ezer sozialistarik ikusteko aitortzen zuten. Laboristen oportunismo ideologikoak koloreren bat ematen dio ikuspuntu horri; baina, egoerako gertakariak kontsignak baino gehiago azpimarratuz, indar politiko langileen multzoa parekatu beharko dugu, hala ere, MacDonalden buruzagitza onartzen zuten heinean, Alemaniako Alderdi Sozialdemokratarekin.

Egoera iraultzaile hartatik onez aterata, alderdiak etengabe hobetu zuen bere posizioa harik eta MacDonald 1924an agintera iritsi zen arte. Hark eta haren gizakiek hain erakuspen laudagarria egin zuten, non intelektualak eta deskontentuek men egin baitzieten denboraldi batez. Politika atzerritar eta kolonialeko auzietan gobernu hura gai izan zen bere nota propioa jotzeko, bereziki Errusiari zegokionez. Barne-arazoetan hori zailago zen egiten, batez ere erradikalismo fiskalari eutsi zitzaiolako (eta hala egiten jarraitzen zitzaiola) inguruabar haietan ahalgarri zeneraino, parte, langile-botoaren baitan zeuden gobernu kontserbadoreen aldetik. Baina legerian gobernu laborista xehetasun erlatiboek haratago joan ez zen bitartean, nazioaren negozioak administratzeko kalifikaturik agertu zen. Snowdenen burutzapen bikaina ogasun-ministroaren karguan aski izango zatekeen nazio-

ari eta munduari erakusteko laborismoa gai zela gobernatzeko. Eta hori berez zerbitzu bat gertatu zen sozialismoaren kausarako²⁰.

Jakina, arrakasta hori nabarmen erraztu zuela, beste arrakastamota oro zailago edo ezinezko bihurtu zen bitartean, gobernu laborista gutxiengoan zegoelako eta ez bakarrik liberalen –zeinekin asko baitzeukan komunean, adibidez, bere iritzi librekanbistak– lankidetzaz fidatu beharra zeukala, baizik eta, neurri batean, kontserbadoreen tolerantzian ere. 1850 eta 1860ko hamarkadetan kontserbadoreek agintean egin zituzten egonaldi laburretako egoeraren oso antzekoan zeuden. Ez zatekeen izango hain erraza haientzat erantzukizun-jarrera bat hartzea gehiengoan izan balute. Baina, gorago esaten zenez, ez edukitzeak berak erakutsi beharko zukeenez, baita auzitegi marxista bati ere, artean iritsi gabe zegoela ekintza-norabide bortxazkoago baterako garaia, eta, edozein kasutan, eskakizun demokratikoei erantzungo zien plano batean zeudela.

Masak ez zuen prezatzen, hala ere, hori guztia. Oraindik gutxiago prezatzen zuten masek alderdi laboristari zor ziotela ez bakarrik alderdiak berak betetzen zuena baizik eta langile-botoarengatik lehiakide kontserbadoreak egiten zuenaren parte bat ere. Mira zeukaten berreraikuntza-proposamen ikusgarriena eta berehalako onura-promesena, eta ez zekiten zeinen bidegabeak ziren xaloki galdetzean: «Zergatik ez dute egiten sozialistek gure alde orain agintean daudelarik?». Intelektualak, aldendurik geratzea ez baitzuten atsegin, aldariegoera honek ematen zien abaguneaz baliatu ziren laboristek egiazko sozialisten gain zuten gailentasunari erasotzeko eta laido arruntak trade-unionen burokrata tiranikoei sentiberatasunik gabe zabarturiko ikaragarritzko hutsegite gisa aurkezteko. Haien eraginpean, Alderdi Laborista Independentea gero eta gehiago urduritu zen hurrengo oposizio-urteetan, batez ere Mac Donald sentigaitz agertu zenean haien argudioekiko programa erradikalago baten alde²¹. Hala, bada, jende askorentzat arrakastak porrotaren antz handia zuen, eta erantzukizunak koldarkeriaren antz handia zuen.

Hori ezinbestekoa zen, hala ere. Agintea «heldugabetasun»-baldintzatan onartzeak adierazten duen alderdi sozialisten politika batek bere baitan dituen zailtasunak eta arriskuak oraindik hobeki ilustratzen dira Mac Donalden bigarren ministerioaren historiaz²². Historialariek justizia egiten ikasi dute Sir Robert Peelen kalitate poli-

tikoari²³. Espero dut ikasiko dutela MacDonaldenari justizia egiten. Horrek mundu-depresioaren hasieran berean iristearen ezbehar aparta izan zuen, zeina, gainera, Nazioen Ligan haragituriko nazioarteko sistemaren porrokatzearen berehalako kausa izan baitzen.

Gutxienek pentsa zezaketen –izatez gertatu zenez– oinarritzko berreraikuntza baterako abagunea iritsia zela. Horrek nazioa bitan banatuko zukeen, eta ezin liteke inolako zalantzarik izan sortuko zukeen ondorioz. Hala ere, oinarritzko berreraikuntzarik ezean, mone-ta-hedapeneko politika bat zabalkiro gomendatzen zen oinarritzkoa izatera iristen ez zen eraberritze batekin konbinaturik –adibidez, nazionalizatzeko-neurri bakartuak eta segurtasun-legeria gehigarria– eta politika merkantilistako neurrietara jotzea nazioarteko erlazioen alorrean. Baina programa horren parte batek areagotu egingo zukeen, zalantzarik gabe, depresioa eta horren gainerakoak –libraren urreparekotasuna eta merkantilismoa uzteak– esan nahi zuten haustura hain errotikoa tradizio nazionalarekiko eta Alderdi Laboristaren beraren tradizioarekiko, non sozialistek nekez burutu ahal izango baitzuten eta gutxiago hura arrakasta bihurtu ahal izatea; era seguru eta eraginkorrean burutzeko kontsentimenduz, hau da, koalizio batez egin beharrekoa zen.

Koalizioa ahalgarri ez zen bitartean MacDonald eta haren giza-kiak sistemari aurkitu zuten bezala funtzionaraztearen egitekoari ekin zioten. Halako baldintzetan ekin ziezaioketen egiteko guztien artean zailena zen. Mundua guztia berehalaxe «zerbait» egin behar zela heia-goraka ari ziren bitartean; mota guztietako arduragabeek zelaia berentzat zeukaten bitartean; masak marmarrean ari ziren bitartean, negozio-gizonak etsipenak jota zeuden eta intelektualek hizkuntza burrun-bariz hitz egiten zuten, haiek irmotasunez defendatzen zuten beren sailaren arrabete bakoitza. Barruan, ordenari eutsi zioten ogasunean, librari eutsi zioten eta makina legegilearen azelerazioari eutsi zioten. Kanpoan, energia etsituz ahalegindu ziren –eta arrakasta ohargarria-ekin– Genevako sistemari funtzionarazten eta alderdi guztietan arriskuak eta tentsioak murrizten. Garaia heldu zenean, eta interes nazionalak alderdiaren arriskua estaltzen zuela zirudienean, oldartu eta gobernu nazionalari izatea ematen saiatu ziren.

Malenkonía-isla bat da, kasu asko eta garrantzitsuetan, politika bat hainbat ez-herritarragoa izatera beharturik egotea jendearekiko eta

kritika intelektualarekiko zenbat eta zentzuzkoagoa den. Hori kasu karakteristiko bat da. Kritikari erradikalariarentzat, zeinak ez baitu lotzen politika hori depresioaren biguntasun erlatiboarekin Ingalaterran eta ondorengo berreskuratzearen irmotasunarekin ez zegoen hartan ahultasuna, ezgaitasuna, tradizionalismo ilunkeriazalea, kausa sozialistaren abandonu traidorea ez bazen. Potika demokratikoaren historiako burutzapenik hoberenetako bat eta erantzukizunez erabakitako ekintza-adibide hoberenetako bat, segur aski, edo egoera ekonomiko eta sozial baten hautemate zuzena izan zenari, kritikariak «lotsaz» eta atsekabez begiratzen dio. Kasurik hoberenean MacDonald zaldia belauniko jarrazazi zuen jockey txartzat hartzen zuen. Baina gehien erakartzen zuen hipotesia zen MacDonalden gobernua bankujabe ingelesan xuxurlaketa deabruzkoetara (edo deabruzkoak baino txarragoetara) edo sostengatzaile amerikarren presiora makurtzen zela.

Zorigaitzez, desmasia hura garrantzi errealeko faktore bat zen eta kontuan hartu behar da prognosi-ahalegin orotan. Serioski afekta dezake bizi garen igarobide-aroan zibilizazioaren kausa zerbitzatzeko alderdi sozialistek duten gaitasuna. Baina elementu hori baztertzen badugu, baita eta nazioaren interesaren alde sakrifizio bat egiten duen alderdi orok epe laburrean hargatik sufritu beharko duen pellokeria, ez dugu neke handirik izango berrezagutzeko luzera eragin laborista oso ongi gerta litekeela indartua gelditzea MacDonald aginteaz bigarrenez jabetzearen ondorioz. Berriz ere Sir Robert Peelen bigarren ministroaren analogiak hori ilustratzen lagunduko du. Peelen gehiengo kontserbadorea garauen legeak derogatzearen ondorioz sortutako eztabaidan erdibitu egin zen. Hegal peelista, nahiz eta MacDonalden segitzaile pertsonalak baino askoz ugari eta garrantzitsuagoa izan, laster desintegratu zen. Alderdi kontserbadorea inausita geratu zen eta agintera igotzeko ez zen gai sentitu —nahiz eta hiru bider agertu gobernuan— 1873an Disraeliren garaipen handira arte. Baina haren ondoren, eta 1905ean Sir Henry Campbell-Bannermanen garaipenera arte, denbora horren bi herenez hartu zuen agintea. Hori baino garrantzitsuagoa, politikoki hitz eginez, aristokraziak eta *gentry* ingelesak eutsi egin zioten berenari denbora *guztian* eguneroko ogiaren estigma eza-batu izan ez balitz egiten zuketena baino askoz hobeki.

Izatez, Alderdi Laboristak laster berreskuratu eta sendotu zuen bere posizioa herrialdean erdibitzearen ondotik etorri ziren urteetan.

Segurtasunez esan daiteke, gauzen joaira arruntean bertan ere –hau da, gerrarekiko zerikusirik gabe–, sozialistak berandu baino lehen itzuliko ziratekeela agintera, aginte gehiagorekin eta arrakasta-aukera hobeekin, eta lehen hartu zutena baino lerro ahaltsuagoa hartuko zuketela. Baina segurtasun beraz esan daiteke, nola haien programari zegokienez hala hura burutzeko gaitasunari zegokionez, haien politika graduz bakarrik desberdinduko zatekeela MacDonalden politikarekiko, batez ere sozializatze-neurri banako batzuetan.

3. Alderdi Sozialdemokrata alemaniarren gerraosteko karrera desberdindu egiten da, noski, Alderdi Laborista ingelesarenarekiko aspektu askotan. Baina Alderdi Sozialdemokratan militatzen zuten sozialista alemaniarrek gobernua onartu eta komunismoa borrokatzeko prestatu ziren bezain laster, «kapitalismoa administratzeari» ekin zioten beraien kide ingelesek bezala. Baldin eta premisa horiek onartu eta kontuan hartzen badugu ez zeukatela (eta ez dago espero izaterik etorkizun aurreikusgarrian edukiko dutenik) gehiengo bat Parlamentu Federalean, edo Dieta Prusiarrean, edo biztanlerian, gainerako guztia logika gupidagabez jarraitzen zaio. 1925ean biztanleria osoa 62 milioi ingurukoa zen. Proletalgoa (langileak eta haien familiak, etxe-zerbitzariak ere barne sartzen ditut) ez zen 28 milioiko kopurura iristen eta klase horren botoaren parte bat beste alderdi batzuetara joan zen. Biztanleria «independentea» ez zen askoz txikiagoa –24 milioi ingurukoa– eta neurri handi batean barrenezina pertsuasio sozialistarekiko. Estratu garaiago bat baztertzen badugu ere –jar dezagun milioi bat– eta hauteskundeetan garrantzia duten taldeetara mugatzen bagara –nekezari, artisau, merkatari txikizkarietara–, ez zegoen han konkistatzeko askorik ez une hartan bakarrik, baizik etorkizun hurbilean ere. Bi talde horien artean zeuden iduneko zuridun enplegatuak, 10 milioi baino gutxiago ez zirenak, haien familiak barne. Alderdi Sozialdemokrata ohartzen zen, jakina, klase horrek zeukala posizio gakoa eta ahalegin handiak egiten zituen hura konkistatzeko. Baina, arrakasta ohargarri bat lortu arren, ahalegin horiek bakarrik balio izan zuten frogatzeko iduneko zuria hesi serioagoa dela klase sozialen teoria marxistaren araberak izango beharko lukeena baino²⁴.

Horrela, bada, nahiz eta komunistak sozialdemokraten aliatu izan balira haien etsai amorratuenen ordeztu, alderdia artean gutxiengoan egongo zatekeen. Egia da gehiengo ez-sozialista ez zitzaizela akti-

boki etsaikorra bere ekintza guztietan: ezker hegaleko liberalak (Populuaren Alderdi Demokratikoa), talentuz kopuruz baino indartsuagoak zirenak, beti prest egon ziren elkarlanerako (neurri bateraino). Halaber, egia da gehiengo hori banaturik zegoela batera jokatzeko inondik ere gai ez ziren talde askotan, zeinen kideak eta sostengatzaileak ez baitziren inola ere sozialdemokratak berak bezain diziplinatuak. Baina jende zentzudunak, abentura arriskutsutan sar ezin zitekeenak eta nahi ere ez zuenak, sentituko zuen, hala ere, haientzat hartzeko lerro bakarra besterik ez zegoela –demokraziaren lerroa– eta lerro horrek koalizio bat eskatzen zuela. Aliatu izateko alderdi kualifikatuena alderdi katolikoa zen (erdia). Ahaltsua zen. Hitlerren etorrera baino lehen bazirudien ezerk ezin zuela kolokarazi haren sostengatzaileen leialtasuna. Antolakuntza bikaina zuen. Elizaren interesak gorderik egonez gero, prest zegoen ia sozialistak berak bezain urrunera joateko izaera bitartegabeki praktikoko eraberrikuntza soziallean, eta, aspektu batzuetan, urrunerago ere bai. Dinastia desplazatueganako sentimendu bereziki gartsurik ez zeukalarik, jator bermatzen zuen Weimarko Konstituzioa. Azken finean, ongi hartu zituen kontzertuak beraien erreserbak bermatu behar zituzten enpleguak partekatzeke. Ulerkuntza hori gertatu zen behatzaile kanpotarrari erraztasun harrigarria iruditu zekiokeenarekin. Sozialistek adeitasun eta kontu handienaz tratatu zuten Eliza Katolikoa. Ez zioten zailtasunik jarri aitasantuarekin konkordato bat egiteari, zeinak eman baitzion kleroari Hohenzollern heretikoekin inoiz izan zuena baino gehiago. Politikari zegokienez, ia ez zen inolako desadostasunik izan.

Baina nahiz eta aliantza hori oinarritzkoa izan Weimarko Konstituzioari atxikirik zegoen ezein alderdi ez zegoen kargu politikoetatik bazterturik. Demokratak, liberal nazionalak, nazionalak (kontserbadoreak), denak onartuak ziren, bai eta goi-aginteko postuetarako ere. Printzipio unibertsal gisako koalizio batek konpromisoa esan nahi zuen printzipio unibertsal gisa. Izan ere erraztasunez egin ziren beharrezko amore emateak neurri politikoei zegokienez. Armada lasai utzi zuten, praktikoki haren hautespeneko zuzendaritzapean, eta bitartekoz behar bezala hornitu zen. Ekialdeko Prusiari diruz lagundu zitzaion, eta nekazaritzak, oro har, arreta artatsua jaso zuen. Horren ondorio batzuk, aldarrikapen sozialistekin erabat bat ez zetozenak, onargarriagoak bihurtu ziren kontua ordaintzen zuen proletal-

goarentzat, horri plangintza deituz; agian irakurleak sentituko du ez dagoela ezer berririk eguzkipean.

Masa industrialekiko eta programa propioarekiko bere jarrerari Alderdi Sozialdemokratik bere burua laborizatu zuen. Aurrena bahitura-ordainketa bat egin zuen lege-asmo oso moderatu baten onarpenaren bidez, zeinaren ezaugarri erradikalena izenburuan (1919) txertatzen zen sozializazio hitzean baitzetzan. Baina sozialistek laster utzi zuten alde batera hori guztia New Dealekin amerikarrei ezaguna bihurtu zitzaizen gisako lan-legegintzan aritzeko. Horrek ase egin zituen sindikatuak, zeinen burokraziak gero eta gehiago baimendu baitzion bere buruari alderdiaren politikaren prestakuntza-organismoaren sail jardulea eratzea.

Horrek zaila izan behar zuela alderdiaren eskoletan nagusi izaten jarraitzen zuen tradizio marxistako alderdi batentzat pentsa zitekeen. Baina ez zen hala izan. Defekzio komunistako kopuru halako bat salbuetsirik, intelektualei, zeinen alderdiaren barruko oposizioa sortzea espero baitzitekeen, ongi eutsi zitzaizen esku artean. Alderdi ingelesa ez bezala, alemaniarra Reicharen, estatuen eta udalen administrazio-aparatuan finkatu zen. Gainera, bere prentsan eta beste toki batzuetan enplegu propio ugari zeuzkan eskaintzeko. Patronatu hori aktiboki erabili zen. Obedientziak Administrazioan, karrera akademikoan, enpresa publiko ugaritan eta abarretan igotzea esan nahi zuen. Bitarteko horiek eraginkorrak ziren erradikalei balazta ezartzeko.

Administrazio publikoko makineriaren atal guztien gain sozialdemokratek eskuratu zuten domeinu irmoak ez zuen emaitzatatzat diziplina hertsia eman bakarrik, baizik eta lagundu ere egin zuen kideen kopurua, eta, horretaz haratago, alderdiak balia zezakeen botoa ere gehitzen. Jakina, beste bide batzuetatik ere gehitu zuen agintea. Adibidez, sozialistek Prusiako Estatu Askearen aginte nagusikoia segurtatu zuten. Horrek Poliziaren indarraren domeinua eman zien, eta oso kontu handia izan zuten Poliziako lehendakariartzarako (polizia-burutzarako) alderdiko kideak edo konfiantzako karrera zuten kideak hautatzeko. Horretara finkatu zuten beren alorra harik eta haien posizioa menderaezina zirudien arte arau arrunt guztien arabera. Eta, analisi politikoaren arau arrunt guztiekiko adostasunean ere, marxista ortodoxoa era kontsola zitekeen argudiatuz erosotasun betean bizi zitezkeela luebaki haietan harik eta gauzek berek, mendez mendeko

haien joairan, gutxiengoa gehiengo bihurtu eta orduan azken helmuga estaltzen zuten gortinei albora eragingo zien arte. Manifestu Komunistaren aipua...

Alderdiaren barne-funtzionamendua alde batera utzirik, posizio politikoak, bai eta egoera sozial orokorrak nagusiki egonkorra ziruditen. Areago, nahiz eta neurri legegile eta administratiboetako asko, oro har, kritika daitezkeen, koalizioaren politikak egonkortasunaren alde lan egin zuen, eta ez aurka. Egin zen askok gure egiazko errespetua merezi du. Gertaturiko ezerk ezin dezake justifika autoritatea eta prestigioa falta zaizkion eraentza orok sorrarazten duen egoezin naturala baino egoera larriagorik. Esfera finantzarioan datza horren salbuespen ahalgarri bakarra. Gobernu-sistema horren burutzapen kultura eta politikoen parte bat gastu publiko handi eta bizkor hazten ari zen bati asoziatuak zegoen. Gainera, gastu hori metatze-iturriak agortzen zituzten metodoez finantzaturik zegoen, nahiz eta haien artean salmenten gaineko zerga egon arrakasta handiarekin. Kapital atzerritarraren jarioak jarraitzen zuen bitartean dena ongi samar zihoan, nahiz eta aurrekontu- eta kaxa-zailtasunak agertzen hasi ziren hura eten baino urtebete lehenagotik. Jario hori eten zenean buruzagirik magnetizatzaileenaren posizioari azpia jango ziokeen egoera ongi ezagun hura sortu zen. Oro har, hala ere, alderdi sozialista kritikoak eta agintean ari izan ziren aldiko haren portaerarenak harro egoteko arrazoia izango dute batere ziztrina ez den ekarpen batez, baldin eta noizbait agintean instalatzen badira, hain ongi egiten badute.

V Gaurko Gerra eta Alderdi Sozialisten Etorkizuna

Zer neurritan gaurko gerrak afektatuko dituen dauden talde sozialisten zoriak, haren iraupenaren eta haren ondorioaren baitan daude, noski. Gure helbururako ez diot inolako zentzurik ikusten horretaz espekulatzeari. Hala ere, adibide gisa, bi kasu kontsideratuko ditugu kasu posibleen kopuru handi baten artean.

Orain berton ere (1942ko uztaillean) badirudi behatzaile askok Errusia gerratik agintea eta prestigioaren gehitze handi batekin irtetea espero dutela, baldin eta Stalin egiazko garaile gisa jaikitzen bada. Hori horrela balitz, ez dakar derrigor mundu-iraultza komunista bat

ekarri behar duenik ondoriotzat, ez eta Europa kontinentalaren «errusiartz» bat izango denik ere goi-estratuen deusezte batekin eta talde sozialista ez-komunistekiko (eta troskistekiko) kontu garbitze batekin. Zeren agente errusiarraren hedatzearen aurrean balizko erresistentzia angloamerikar bat legokeela alde batera utzita ere, ez da egia errusiar autokraziaren autointeresa norabide horretan etzango denik. Baina egia da kontsumitze horren aukerak –Leninen programaren burutzapen beteak– neurririk gabe gehituko lirateke. Mundu-iraultza hori oso bestelako izango balitz ere ideia marxiarrarekiko, zalantzarik gabe, kimera bat izateari utziko lioke ordezeko bat bezala onartu nahi dutenentzat. Eta ez Europarekiko erlazioan bakarrik.

Kasu horretan zigilaturik legoke sozialismo ortodoxoaren eta haren sostengu guztien patua. Eta gauza bera izango litzateke, europar kontinentean, potentzia faxistak garaile irtengo balira. Hala ere, aliantza angloamerikarraren erabateko garaipena berriro suposatzen badugu –hau da, errendatze baldintzagabea behartzen duen garaipena, baina ohore guztiekin, Ingalaterrak eta Estatu Batuek ezarrira–, orduan aise ikusten dugu mota sozialdemokrata alemaniarreko edo oraindik mota laboristagoko sozialismo ortodoxoak bizirik urauteko askoz aukera gehiago duela europar kontinentean edozein kasutan zenbait denboraz. Hori sinesteko arrazoi bat da jendea, itxita aurkitzen baditu bide nola boltxebistak hala faxistak, oso ongi itzul daitekeela errepublika sozialdemokrata geratzen zaizkion aukera argi-netako batera gisa. Baina bada arrazoi askoz garrantzitsuagoa: sozialismo laboristak garaileen faborea izango du. Kontsideratzen ari garena bezalako garaipen hain bete baten ondorioa munduko negozioen zuzendaritza angloamerikarra izango da, gure begien aurrean forma hartzen ari diren ideiak ikusita, Inperialismo Etiko dei litekeena. Gisa horretako mundu-ordenazioa, zeinean gainerako nazioen interesek eta anbizioek kontuan hartuko liratekeen Ingalaterrak eta Estatu Batuek ulertu eta onartuko lituzketen neurrian soilik, indar militarrez bakarrik ezar daitezke, eta indar militarra erabiltzeko presutasun iraunkorraren bidez mantentzen. Agian alferrikakoa da azaltzea zergatik, gure garaiko baldintza politiko eta ekonomikoetan, horrek bi herrialde horientzat antolakuntza bat esan nahiko lukeen, zeina hobekien sozialismo militaristatzat kalifikatzen baita. Baina argi dago mundua gidatu eta fiskalizatzeko egitekoa asko erraztuko litza-

tekeela, alde batetik, estatu txiki edo eraginkortasun gabeak Europan jaiotzetik edo berriro sortzetik, eta, bestetik, mota laborista edo sozialdemokratako gobernuak ezarritz. Batez ere Alemanian eta Italian alderdi sozialdemokraten hondakinak izango lirateke material politiko bakarra, zeinaz eraikiko bailirateke gobernuak, mundu-ordenazio hori onartuko luketenak makalaldi bat baino gehiagoko denbora-epean eta mundu-babesgoko erakundeekin lankidetzan arituko liratekeenak erreserba mentalik gabe. Nolanahi dela ere, hori da sozialismo liberalaren aukera.

Liburu honen ikuspuntutik, hala ere, (baina ez bestetatik) horrek guztiak bigarren mailako garrantzia du. Zeinahi delarik ere *talde* sozialista banakoen patua ezin liteke inolako zalantzarik izan oraingo konflagrazioak –ezinbestean toki guztietan eta gerraren emaitza kontuan hartu gabe– *ordena* sozialistarenzko beste pauso handi bat ekarriko duela. Prognosi hori ezartzeko aski da lehen mundu gerrak Europako egitura sozialaren gainean izandako ondorioen esperientziara jotzearekin. Oraingoan, hala ere, pausoa Estatu Batuetan ere eman-go da.

Baina esperientzia hori, nahiz eta oso gida baliotsua izan, gida desagokia da. Mende-laurden bat igaro da. Hori ez da denbora-epe gutxiesgarria, ez eta II. atalean azaldu den zentzuan sozialismoaren alde lanean ari diren indar sekularrekiko erlazioan ere. Gainerako guztia kontuan hartu gabe, gerra honen bukaeran, diogu, 1918koaz egoera ekonomiko bati, giro sozial bati eta aginte politikoaren banaketa funtsean desberdin bati aurre egin beharko diogu. Asko gertatu da, ordea, azken hogeita bost urteotan joera sekularren bidez bakarrik iragartzerik ez zegoena. Besteak beste depresio handia zegoen, zeinak egoera delikatu batekin tupust egitean, eraikin sozialak zimentarrietara ino astindu zituen, eta inon ez Estatu Batuetan baino gehiago. Oraindik eraginkorragoa izan ziren eraikin horiei azpiak jatean depresio hura tratatzeko erabili ziren neurriak. Eta hori neurri handi batean partez akzidentalak ziren taxuera politikoei egotzi behar zaie. Ondorioak agerikoak dira. Bereziki, burokrazia eskergak garatu dira, orain aski ahaltsuak direnak beren alorrari eusteko eta oinarritzko berreraikuntzako politiken tresnatzat erabiltzeko.

Ezein herrialdetan ez da murriztuko gerra-zerga negozioen eta klase merkantilaren gain 1919az geroztik murriztu zen proportzioan.

Eta hori aski izan daiteke berez kapitalismoaren motorrak era behin betikoan geldiarazteko eta horrela gobernuaren zuzendaritzarako beste argudio bat emateko. Inflazioak, nahiz eta ezinbestekoa denaz haratago ez joan, adibidez, Estatu Batuetan, gaurko sistema politikoan, gainerakoa egin dezake, nola zuzenean hala zeharka, akziodun desjabetuen eta aseguru-politiken erradikaltzearen bitartez. Gainera, inon ez dira gerra-eskuhartzeak likidatuko 1918aren ondorengo urte-etako esperientzia sinetsarazteko hedaduran. Beste erabilera batzuetarako baliaraziko dira. Estatu Batuetan dagoeneko urratsak egiten ari dira iritzi publikoa prestatzeko gerraosteko doiketetarako gobernu-zuzendaritzarako eta alternatiba burgesa urruntzeko. Azkenik, ez dago arrazoirik sinesteko gobernuak kapitalen merkatuan eta inbertsio-prozesuan irabazi duten harrapakina laxotuko dutenik. Jakina, horrek ez du sozialismoa laburbiltzen. Baina sozialismoa nagusi daiteke, baldintza horietan, alternatiba praktikagarri bakar gisa hilgune eta etengabeko fikzioarako.

Xehetasunak eta esaldiak desberdinak izango dira, noski, herrialde desberdinetan. Gauza bera gertatuko da taktika politiko eta emaitza ekonomikoekin ere. Bilakaera ingelesa aurreikusteko erraz samarra da. Laboristak Churchillren gobernuan sartu dira emergentziazko deiari erantzun gisa. Baina lehenago aditzera eman denez, aski aurreratuak zeuden ministeriorako eta aginterako bidean, emergentzia oro alde batera utzita ere. Beraz, oso naturalki bakarrik gerraosteko berreraikuntza gidatzeko eran egongo dira –eta hori izan daiteke metodorik eraginkorrena– edo nagusi izango liratekeen koalizio batean. Gerra-ekonomiak berehalako bere xedeetako batzuk burutuak izango ditu. Maila ohargarri bateraino dagoeneko lortua dutenari eustea aski izango dute. Helmuga sozialistarantz aurreratze handiago bat egitea espero daiteke erraz samarra izango dela baldintza batzuetan, zeinetan kapitalistei ez baitzaie asko geratzen zeren alde borroka egin. Eta gerta daiteke horiek bidea libre uztea eta sozializazioa era bareago, ordenatu eta neurri handi batean kontsentimenduz burutzea. Arrazoi askorengatik, baina batez ere alderdi sozialista ofizialaren ahuleziarengatik, prognosia ez da hain erraza Estatu Batuen kasuan. Baina azkeneko emaitzek, segur aski, ez dute desberdinak izan behar, nahiz eta ia segurua den kontsignak ez direla halakoak izango, ez eta kostuak ere, nola ongizatekoak hala kultura- balioenak.

Beste behin diogu: aurrean daitekeen bakarra sozialismoa da liburu honetan definituriko zentzuan. Ez dago beste ezer auresaterik. Berezi, arrazoi gutxi dago uste izateko sozialismo horrek sozialista ortodoxoek amets egiten duten zibilizazioaren etorrera esan nahiko duela. Askoz gertakorragoa da ezaugarri faxistak aurkeztea. Hori Marxen predikuari emandako erantzun bitxia litzateke. Baina historiak batzuetan badaezpadako gustua duten txantxak ahalbidetzen ditu.

XXVIII. KAPITULUA BIGARREN MUNDU GERRAREN ONDORIOAK

Mundus regitus parva sapientia

Orain (1946ko uztailan) zerbait gehiago gehi dakioke azken sailean esan denari gerrak gure egitura sozialean izan dituen ondorioez eta talde sozialista ortodoxoen (hau da, ez-komunisten) egoeraz eta ikuspegiez. 1942ko uztailan nabaria zen, zeinahi zelarik ere *talde* sozialista banakoen zoria, beste pauso handi bat emango zela *ordena* sozialistarentz eta oraingoan pausoa Estatu Batuetan ere emango zela. Halaber, argi zegoen zeuden talde sozialisten patua gerraren iraupenaren eta emaitzaren baitan egongo zela. Azkenik, iradokitzen zen aliantza anglo-amerikar-errusiarraren erabateko (etsaiaren errenditze baldintzagabea inplikaturiko zuen) garaipenaren kasuan, sozialismo ortodoxoaren emaitzak desberdinak izango zirela Stalin egiazko menderatzaile gisa jaikitzen bazen edota ohoreak Ingalaterrak eta Estatu Batuek irabazten bazituzten. Azken kasuan alemaniar sozialdemokratiaren motako sozialismo ortodoxoak edo mota ingeleseko laborismoak aukera on bat izango zutela beren posizioa europar kontinentean hobetzeko.

Stalin Ekialdeko Europaren nagusi bezala jaiki da. Ingalaterra eta Estatu Batuak borrokan ari dira eraginen bat izateko erdiko eta mendebaleko Europan. Alderdi sozialisten eta komunisten zoriek islatu egiten dituzte baldintza horiek. Baina bada beste elementu bat funtsean mundu guztiaren egoera soziala afekta dezakeena: Estatu Batuen garapen ekonomikoa, zeina segur aski ordena kapitalistaren

alde ager baitaiteke. Kapitulu honek, beraz, lehenik, sozialismo ortodoxoaren eta laborismoaren egoera tratatuko du eta, bereziki, Ingalaterrako egoera; bigarrenik, Estatu Batuen arrakasta industrial ohargarriaren efektu ahalgarriak; hirugarrenik, Errusiaren arrakasta politiko baten efektu ahalgarriak. Gure argumentazioa honela banatzen da, jakina, hiru sailetan, hau da:

- I. Ingalaterra eta sozialismo ortodoxoa
- II. Estatu Batuen aukera ekonomikoak
- III. Inperialismo eta komunismo errusiarrak

I Ingalaterra eta Sozialismo Ortodoxoa

Gertakari asko datoz erakustera, garaipenean Errusiak izandako partaidetza alde batera uzten badugu, Bigarren Mundu Gerraren ondorioak Europako egoera sozialaren gain Lehen Mundu Gerrakoenen antzekoak izango ziratekeela, soilik askoz indartsuagoak. Hau da, zegoen joeraren agurotze baten lekuko izango ginatekeen ekoizpenaren antolakuntza sozialista baterantz *liburu honetan definituriko zentzuan*.

Gertakari horietatik garrantzitsuena Alderdi Laborista ingelesaren garaipena da. Aurreko kapituluan seinlatu denez, garaipen hori espero izatekoa zen eta ez zen inor harritzekoa. Ez zen izan espero genuena baino osoagoa ere. Ingeles hautes-sistemarengatik, eserlekuen birbanaketa efektiboak koadro bapikatu bat eman diezaguke. Hamabi bat milioi boto laborista izan ziren hamar bat milioi boto kontserbadoreen aurka. Liberalismoaren egunak dagoeneko igaroak dira; baina kide liberalen oraindik bizirik dirauen dozenak boto gehiago ordezkutzen dituzte hirurogeita hamar kide laboristek zoriz hartuta baino. Beste hitz batzuetan: ordezkapen proportzionaleko sistema batean Alderdi Laboristak ez zukeen lortuko gehiengo parlamentario-rik kontserbadoreen eta liberal konbinatuen gain, nahiz eta koalizio laborista-liberal batek tarte erosoak izango bazuen ere. Hain zuzen ere ingeles hautes-sistemaren oinarri arrazionala gobernu sendoak sortzea eta hilguneak ekiditea da. Horixe gertatu da kasu horretan. Baina egoera nazionala, parlamentarioaz bestelako egoera gisa, ez da, hala ere,

axolagabea politikoki ahalgarria denaren eta ez denaren estimazio baterako. Kasuaren inferentzia agerikoa sendotu egin da Alderdi Laboristaz ezkerraldean aurkitzen diren taldeak beren posizio parlamentarioa hobetzeari nabari utzi ziotelako: Alderdi Laborista Independentek bere hiru eserlekuei zehazki eutsi zien eta Commonwealtheko alderdiek gehi alderdi komunistak lehen zeukaten lau eserlekuetatik bat galdu zuten. «Erradikalizazio» bat espero izateko zeuden arrazoi ugariak kontsideratuz, hori egiazki ohargarria da eta Ingalaterraren heldutasun politikoaren froga harrigarri bat.

Egoera hori bere burua baieztatzea beharturik dago. Izan ere dagoeneko baieztatu du, nola kabinetearen izaeran hala hartutako edo aurreirudituriko neurrietan. Irakurleari erregutzen zaio berriro irakur dezala liburu honetan «Politika sozialista sozialismoa aldarrikatu aurretik» (XIX. kapitulua, IV saila) errubrikapean idatzi dena. Lehenik, ohartuko du gobernu laboristak egiten duen edo proposatzen duen guztia bat datorrela han zirrimarraturiko espirituarekin eta programako printzipioekin, eta, bigarrenik, praktika efektiboa ez dela puntu horretara ia iristen. Ingalaterrako Bankuaren nazionalizazioa, bereziki, sinbolo nabarmenki adeirazgarria da eta, beraz, zedarriz historiko gisa mantentzeko. Baina haren garrantzi historikoa hutsaren hurrengotzat jo daiteke: Bankua Altxortegiaren departamentu bat izan da praktikoki 1914az geroztik eta baldintza moderatuetan ezein banku zentral ezin daiteke besterik izan. Eta ikatzari edo erabateko enpleguaren legeriari buruz hartutako neurriek ia ez dute polemikarik izan, Ingalaterran bederen. Gobernu laboristak horiek nola tratatzen dituen edo nola tratatzeko asmoa duen ikusirik kontsentimendu ia unibertsala nagusituko da. Oinarrizko printzipio-auziei buruzko torneoek lan serioa bultzatuko dute, baina ez auzi horiek edo haiei buruzko desberdintasunak hainbesteko garrantzikoak direlako, baizik eta gobernuak eta parlamentuek ezin dutelako haiek gabe bizi. Hori guztia izan behar duen bezalakoa da. Zalantzarik gabe, beste behin kapitalismoaren administrazio-kasu bat da; baina gerraren eta denbora igarotzearen kausarengatik, hori helburu argiago batekin egingo da eta lehen baino esku irmoagoarekin, eta enpresa pribatuaren behin betiko likidazioa argiroago begi-bistan edukiz. Hiru puntuk merezi dute, hala ere, arreta berezia.

Lehenik, ekintza politikoak egoera sozial eta ekonomikoko datuekin duen adostasun ia ideal hori da hain zuzen ere hain garran-

tzizkoa dena eta, jabetza pribatuan oinarrituriko gizartearen ikuspuntutik, hain arriskutsua. Zernahi diotela ere muturreko intelektualek —eta, jakina, gobernu laboristaren jarrera zeregin bat da haientzat—, Ingalaterra sozialistarako urratsa hainbat funtsezkoagoa izango da zeren hartan askoz aldrebeskeria gutxiago baitago. Hain arduratsu emandako pausoa ez da izango berriro atzera ibili beharrik. Desordenak ekidinez, arrakastarekin ekidin daitezke hondamendi soziala, politikoa eta ekonomikoa. Gobernuak bere lerroan irautea lortzen badu zehazki beteko du aginterik gabeko (MacDonaldena zen bezalako batena; ikusi gorago, XXVII. kapitulua, IV. saila) eta etorkizuneko gobernu laboristen atazen artean dagoen ataza, zeinen gehiengo parlamentarioak parekotasun bat izango baitu hautesleriaren gehiengo batekin. Hori da itxaropen bakarra sozialismo demokratikoarentzat. Itxaropen hori, europar kontinentean existitzen zenez, indarturik dauka, noski, neurri batean paradigma ingelesak.

Bigarrenik, aurreko kapituluan ikusi dugu lehen pentsalari sozialistek ez zutela inoiz aurreikusi, eta ezin zutela aurreikustea espero izan ere, egoera bat, zeinean aginte politikoa langileei ezarria izango baitziztaien, eta zeinean biktima burgesa babes-eske bihurtu baitziztaien. Halaber, beste gauza bat ere ohartu dugu aurreikusi ez zutena eta aurreikusi ezin zutena, hau da: egitura burgesa desjabetzea ahalgarri izango zen hedadura ordena kapitalistaren lege-markoa *formalki* deuseztu gabe eta zergak ezartzea eta soldata-politikazko neurriak bezalako iraultzailetasun gutxiko metodoen bidez. Gerra-tributazioa eta gerra-eskuhartzak ezin daitezke mantentzen, noski, betetasunean. Baina haietatik aldentzeak gelditzera eraman dezake lerro batean, zeinean programa sozialistaren puntu ezagunenetariko batzuk automatikoki betetzen baitira. Zergen bidez errentak berdintzea hain urrunera eraman da jadanik, non kalte egiten dion «espezialisten» efizientziari —esaldi errusiarra erabiltzeko—, mediku edo ingeniariena bezalakoari. Hori errealki aparatu zakar eta kostutsuaren bidez egiten da, eta berandu baino lehenago gerta daiteke jendearentzat errentak mugatzea hobe izango dela zeharkako zergek haietatik utziko luketenera berreskuratu beharko litzatekeena ere entregatu gabe. Edozien kasutan, hala ere, estutu beharreko laranja, eta harekin erretrorik erradikal asko, lehortu egin daiteke.

Hirugarrenik, demagun hurrengo hauteskundean laborismoak hobetu egiten duela bere gaurko posizioa eta hautesleriaren gehiengo

funtsezko baten laguntza irabazten duela. Zer egin behar du gobernuak? Haraxeago joan daiteke errentak berdintzearen norabidean; zerbitzu sozialak hobe ditzake, Beveridge Planaren gainean eta beste lerro batzuen gainean, edozein gobernu hobetuko lituzkeen baino haraxeago; ohargarriki arago joango litzateke industriaren sozializazioan. Baina horretatik ezer ez litzateke erraza izango. Dagoeneko ikusi dugu, gaurko Ingalaterrako baldintzetan, objektu ekonomiko huts gutxi dagoela egiteko sozializazio-neurri handi bati. Halaber, ez da gertakorra erresistentzia burgesa eragozpen serioa izatea ere: Ingalaterra bere industriaren lanaren baitan dago Errusia 1917an baino askoz gehiago; baina premiarik gabe antagonizatzen ez badira behintzat, haien lankidetzaren segurtasuna daiteke. Azkenik, ez diogu garrantzi handirik eman behar argudioari, zeinak hainbeste erakartzen baitu sozializazioaren aldeko sutsuenen artea, hau da: kabinete-sistema ez dela egokia sozializazioa burutzeko lanerako; metodo diktatorialak ikusiz gozatzen duten intelektualek zalantzak izan ditzakete, egiazki, haien eraginkortasunaz, baina sistema erabilgarri bakarra da sozializazioa demokratikoki burutzeko; industria sozializatuen administrazio efektiboak organo erdi-automatikoak eskatuko ditu, noski, zeinekin lankidetzan aritu beharko baitute kabineteek, adibidez, beren armaden Estatu Nagusi orokorarekin egiten dutenez. Baina arazo erreala lanekuarena da. Sozializazioak porrokatze ekonomikoa ekarri nahi ez badu, gobernu sozializatzaileak ezin du toleratu trade-unionen gaurko praktika. Alderdiri arduragabeenak aurre egin beharko lioke, kontsideraturiko kasuan, gizarte modernoaren oinarritzko arazoari, Errusiak bakarrik konpondu duenari, hau da, diziplina industriaren arazoari. Hedadura handi batean sozializatzeko asmoa duen gobernuak trade-unionak ere sozializatu egin beharko ditu. Eta gauzak diren bezala efektiboki izanik, sozializatzeko denetan zailena da hori. Arazoa ez da konponezina. Ingalaterran soluzio egoki baterako aukerak demokraziaren metodo politikoaren bidez beste inon baino handiagoak dira. Baina soluziobidea malkar eta luzea izan daiteke.

Errusiar elementuarentzat izan ezik, europar kontinenteko egoera politikoa antzekoa da. Hautespen-askatasuna dagoen tokian joera indartsu bat ohartzen dugu masen baitan alderdi sozialdemokratekiko edo alderdi katolikoekiko beren atxikimendua mantentze-

ra edo bihurtzera. Adibiderik nabarienak herrialde eskandinaviarretakoak dira. Baina Alemanian bertan ere aurki daiteke antzeko joera bat, eta segurtasunez baieztatu daiteke, askea izango balitz eta garailean eraginpean kokaturik ez balego, gaurko miseria guztitik Weimarko Errepublikaren oso antzeko zerbait sortuko litzatekeela. Nahiz eta horri buruzko froga baliogabeturik egon sozialdemokratei ingeles eta amerikar agintariekin erakutsitako faborearengatik, indarturik dago agintari errusiarrek antolatutako sozialdemokrata bat berreraikitzea baimendu izanagatik haien gunean. Baldintza politiko eta ekonomiko ezinezkoak, era arrazoigabea herri alemaniarren ezarriak deskreditatu egingo dituzte, jakina, gobernu laboristak eta, diren bezala, ezeztatu egingo dituzte berrezartzeko aukerak. Baina oraindik, esperimentu mental bat egiteko kasuko errusiar esperimentua jaramonik egin gabe utzi nahi badugu, eta, gainera, postulatu nahi badugu Estatu Batuek eta Ingalaterrak Alemaniarekiko erlazioan jotzen badute aldi berean gisakotasun komunak eta zentzu komunak diktaturiko eran, horiek izango dira hartu beharreko diagnosi eta prognosi orokorrak. Antzeko prognosi bat iradokitzen da beste herrialde batzuentzat, nahiz eta muga desberdinekin, eraientza laboristek ezartzen dituztenak bezalakoekin, –herrialde katolikoe-tan– oso garrantzitsuak ez diren talde komunistak barruan dituztela, haietatik ezkerretara, eta mende honetako bigarren hamarkadakoa baino politika aurreratuago bat, baina oraindik norabide berean, horrek inplikatzeko duen guztiarekin, ekonomikoki, politikoki eta kultura-alki. Austriaren adibidetxoak irakasgarriak dira. Sozialista Kristauak (elementu kontserbadoreak dituen alderdi katolikoa) ongi ateratu ziren, komunistak gaizki eta sozialdemokratek berririo irabazi zuten antzinako beren posizioa, bizirik ziraute antzinako gidari gehienak ongi luebakiturik alderdiko goi-agintaritzan. Programak ere ez dira asko aldatu printzipio orokorrekin dagokienez. Sozializazioaren pauso eman berria ez da zoriz emana. Gainerako herrialde txikiak kasuak, Errusiarekiko independenteak diren heinean, tipo beraren barruan sartzen dira, eta hala gertatzen da Italiakoarekin. Kasu frantsesa desberdindu egiten da tipo horretatik komunistek duten indararengatik (ikus geroago, III. sailean). Eta gurea ez den beste edozein sistema ulertzeko dugun gure ezintasunak eragozten digu konturatzeko kasu espainiarra dela erlatiboki denetan arazotsuena¹.

II Estatu Batuen Aukera Ekonomikoak

1. Zerga bidezko errentaren birbanaketa
2. Ahaltasun handia
3. Hori burutzeko baldintzak
4. Igarobide-arazoak
5. Estankatzearen tesia
6. Azken ondorioa

1. Kasu ingelesa eztabaidatzean, ohartu dugu baldintza modernoetan –XIX. mendeko sozialistek amets egin gabeko hedadura batean– ahalgarri dela estratum burgesetik, zergaren eta soldata-politikaren bidez, terminologia marxistan Plusbalioa² deitzen zaion masa handia ateratzea. Oharra Estatu Batuei aplikatzeko modukoa da. Eskuarki preztatzen ez den hedadura batean New Deala gai izan zen zergadun handien errenta zergapetzeko gerra baino lehen ere. Aski izango da adierazpen bat Errentaren (pertsonalaren) eta Gaintasaren zergaren gehikuntzaren efektuak erakusten dituen eta *horiek 1936 arte bakarrik*. 1929an, eskuratutako errenta totala 80.600 milioi dolarretan zenbateszen zenean eta 50.000 dolarrez gorako jasotzaileek (errenta ezargarria) 5.200 milioi dolar atxikitzen zituzten errenta eta gaintasaren gain ordaindu ostean; 1936an, ordainduriko errenta totala 64.200 milioi dolar zenbatesten zenean, atxikitutakoa ez zen 1.200 milioira iristen³.

100.000 dolarrez gainera errenta ezargarria *orduan ere* erabat hurrupatu geratzen zen estatu-tasak kontuan hartzen badira. Erradikalismo xaloaren ikuspuntutik neurri horiek eta ondorengo konfiskaziokoek zuten gauza txar bakarra da behar bezain urrunera ez iristea zen. Baina horrek ez du aldatzen oraingoz interesatzen zaigun gertakaria, hau da: gerra kontuan hartu gabe, errealtatean, aberastasun-transferentzia eskerga bat burutu dela, Leninek egindakoarekin kualitatiboki konparagarria den transferentzia. Errenta eskuragarrien gaurko banaketa perfektuki konpara daiteke gaur egun Errusian nagusi den banaketarekin, batez ere kontsideratzen bada geroko gertakaria, zeinaren arabera zergadun handiaren aurrekontuetan prestazio pertsonalek eta merkantziek duten garrantzi handiagoa, zeinek erlatiboki lan handiagoa baitaramate, zergadun handiaren dolarraren erosmena askoz gehiago jaitsi da Estatu Batuetan zergadun txikiagoaren dolarra

baino⁴. Gainera, lehenago Ingalaterrari buruz egindako ohar bat ere errepika dezakegu. Zergadun handien gaineko presioa ez dago, jakina, «50,000 dolarretik aurreko» engana mugaturik. Beheranzko graduan 5,000 dolarreko errentetarako hedatzen da. Eta ezin liteke inolako zalantzarik izan, batez ere arrakasta profesionalaren kategoria ertainetan aurkitzen diren medikuen kasuan, zeinak ematen baitu batzuetan emaitzatzat oso beharrezkoa den efizientzia baten galera.

Honaino gerrak eta haren ondorio naturala ziren langile-perturbazioek egitura sozialaren gain eragindako efektuak Ingalaterra-koaren antza handia izango luke. Estatu Batuetan alderdi laborista nazional ongi antolaturik ez izateak espekularaz diezaguke bilakaera baten ahaltsunaz sozialismo guildistaren lerroaren gainean sozialismo zentralista bateranzko bilakaeraren orde. Gainerakoan, gertakari horrek berez bakarrik liburu honetan landu den prognosiaren defentsa indartzen du, zeren presionatzen duten taldeak alderdiak bezain hain ahaltsuak baitira eta askoz erantzukizun gutxiagokoak, eta, beraz, porrokatze-ariete askoz eraginkorragoak.

2. Baina bada Estatu Batuen egoera sozialari buruzko beste gertakari bat munduko beste inon parekorik ez duena, eta kontzebigarria da afekta dezakeela enpresa pribatu-sistemaren aukerei buruzko gure diagnosia, gutxienez berrogeita hamar urteko epe laburrean edo, hau da: begien aurrean daukagun arrakasta industrial eskerga. Behatzaille batzuek badirudi pentsatzen dutela arrakasta horrek, gerra irabazi duenak eta, gainera, gabeziatik lanescu amerikarra babestu duenak gerraosteko egoera ere dominatuko duela sozialismoaren defentsa guztiak ezereztu ditzakeen hedadura batean izaera ekonomiko hutseko sozialismoa den heinean. Aurkez dezagun argudio hori era baikorrean.

Igarobide-arazoen multzoa oraingoz alde batera utzita eta 1950 lehen urte «normal»tzat finkaturik –praktika oso arrunta da pronostikatzaileen artean–, Produkto Nazional Gordina kalkulatu dugu hipotetikoki –ekoiztutako ondasun eta zerbitzu guztien balioa depreziazio eta akitzeagatiko dedukzioaren aurretik–, BLSaren 1928rako prezio-mailaren tasa bidez berrehun mila milioitan ebalatu. Hori ez da, jakina, urte horretan espero izateko ekoizpen-bolumen efektiboaren iragarpena. Ekoizpen potentziala izango denaren estimazio bat ere ez da, hemendik gutxira aipatuko diren baldintza batzuk betetzen

badira behintzat. Estimazio hori handia gertatzen da, baina ez da ezohikoa –zifra handiagoak aipatu dira– ez eta zentzugabeak ere. Sistemaren epe luzeko batez besteko burutzapenaren iraganeko esperientziari konformatzen zaio: baldin eta aplikatzen badiogu gure «urtean ehuneko 3,7ko hazkuntzaren tasa normala» (ikusi lehenago V. kapitulua) 1928ko ekoizpen nazional gordinaren zifrari, zeina laurogeita hamar mila milioitakoa izan baitzen, berrehun mila milioi baino zertxobait gutxiago lortuko dugu 1950erako. Ez zaio eman behar horri ez dagokion garrantzirik. Berriz esango dut, hala ere, objekzio batek estrapolazio horrek zentzurik ez duela-eta, mende honen hirugarren hamarkadan erritmo horretan ekoizpenak hazteari utzi ziolako, huts egingo luke ituan eta objekzioak hori ulertzeko duen ezgaitasuna frogatzea abesterik ez luke egingo. Hala ere, ekoizpen potentzialari dagokionez, gerra garaian sistemaren burutzapen efektiboak hornituzko adierazpenak konbentzigarriagoak dira, noski: gerra-estatistikak kontuan izan beharreko zerbait badira, ekoizpen nazional gordina, 1928ko prezioen mailara murrizturik, 1943an nabarmen handiagoa zen 1950ean berrehun bilioi dolarreko helmugara iristeko izan behar-ko zukeena baino.

Demagun orain ahalatasun hori egiazki burutu egiten dela⁵. Eta egin dezagun, berrezarpenerako eta «inbertsio» berrirako (etxeak barne), berrogei bilioien dedukzio zabala (ehuneko 20 Kuznets irakaslearen hamarkadetakako batez bestekoaren parekoa 1879-1929rako)⁶. Gainerako ehun eta hirurogei bilioien esanahia gure helbururako bi gertakaritan oinarritzen da. Lehenik, egundoko nahaste-borrasterik gertatu ezean, zifra horrek adierazten duen merkantzia eta zerbitzu eskuragarrien masa eskergak (oraindik bere baitan etxe berriak hartzen ez dituenak) gizarteko kide behartsuenetaraino iritsiko den beharrizan ekonomikoen asetze-maila bat agintzen du, adinekoak, langabetuak eta gaixoak barne, eta (berrogei orduko astearekin) sufrimendu edo beharritzantzat jo litekeen guztia ezabatuko lukeena. Liburu honetan azpimarratu da sozialismoaren defentsa ez dela inola ere erabat ekonomikoa, eta errenta errealearen gehikuntzak erabat porrot egin duela orain arte masak edo haien aliatu intelektualak kontentatzen. Baina, adibide honetan, promesa ez da ikusgarria soilik, baita berehalakoa ere: hori betetzeak ez du inplikatzeko gerrakoan beren potentzia erakutsi duten gaitasun eta baliabideak gerra-xedeeta-

rako ekoizpenetik itzultzea baino asko gehiago, herrialde aliatuei egindako kontsumogaien esportazioak barne, barne-kontsumoko xedeen ekoizpenera; 1950az geroztik argudioa *a fortiori* izango litza-teke aplikagarria. Bigarren –hori ere egundoko nahaste-borrastea bat gertatu ezean–, hori guztia burutu daiteke ekonomia kapitalista baten baldintza organikoak bortxatu gabe, arrakasta industrialerako sari handiak eta makina kapitalistari egoki funtzionarazteko beharrezkoak diren gainerako errenta-desberdintasun guztiak barnehartuz. *Estatu Batuetan bakarrik ez da beharrezko zelatatzea, gizarte-hobekuntzako programa modernoan atzean, oinarritzko dilema hori, zeinak beste alderdi guztietan geldiarazi egiten baitu gizaki arduratsu ororen borondatea, hau da, progresu ekonomikoaren eta masen errenta erre-alaren berehalako gehikuntzaren arteko dilema.*

Gainera, berrehun bilioiko ekoizpen nazional gordinarekin ez dago zailtasunik 40 bilioiko diru-sarrera bat biltzeko makina ekonomikoaren kalterik gabe. 30 bilioiko zenbatekoi bat aski da, 1928ko prezioekiko, 1939an gobernu federalek, estatuenean eta tokikoek efektiboki buruturiko funtzio guztiak finantzatzeko, horrezaz gainera nabarmen handituriko instituzio militar bat, horrezaz gainera ordudanik hartu diren zorraren zerbitzua eta beste betebeharrak iraunkor batzuk⁷. Horrek, gutxi gorabehera, 10 bilioi utziko ditu –1928ko prezioekiko, edo zenbateko handiago bat gailen daitekeen edozein prezio-maila handiagoarekiko erlazioan⁸– 1950ean, eta hori baino askoz gehiago beste hamarkada batean, zerbitzu sozial berrien finantzaziorako edo dagoeneko badaudenen hekuntzarako.

3. Baina hemen, hau da, ogasunaren eta administrazio publikoaren esferan, aurkezten zaigu erarik bizienean –«egundoko nahaste-borrasterik egon ezean»– gure erreserbaren esanahia. Izan ere esfera honetan baliabide nazionalen nahaste-borraste egiazki izugarria dena baitugu, zinez. Gaurko printzipioekin eta gaurko praktikaekin ez da egia 40 mila milioi bil daitezkeenik, 200 mila milioiko ekoizpen nazional gordineko maila batean, makina ekonomikoari kalterik egin gabe. Ez da egia 30 mila milioiek –edo zernahi delarik ere horiei dagokiena 1928koen bestelako prezio-mailetan– aipaturiko eskakizunak betetzen dituztela. Hori egia baldin bada eta administrazio publiko guztia arrazionalizatzen bada bakarrik bide bikoitz eta hirukoitzeko jarduerak ezabatzearen –errentaren gaineko zergetan

dauzkagun bezala, adibide bakar bat besterik ez ematearren–, zeinak gainezartzen baitira bai organismo federalen aldetik eta bai federalen, estatuaren eta tokiko organismoen aldetik –koordinazio efektiboaren eta erantzukizun banako ongi definituaren falta–, eta hori kasu federalean «ministerio» ongi bigiztatuen eta «autoritate»- edo «batzorde» erdi-independente-kopuru handi bat izatearengatik baita nagusiki, eta xahuketa-iturri eta efizientziarako eragozpen diren beste gauza askorengatik, baina batez ere, 100 milioi aski diren tokian bilioi bat gastatzen gozatzen duen zarrastelkeria-espirituarengatik. Gauzen gaurko egoerak ez ditu gaitzak besterik iragartzen ogasunaren eta industriaren kudeaketa publikorako, eta izatez berez arrazoi on eta behar bestekoa da «errealista ekonomiko» baizik ez diren askori kontrajartzeko.

Baina hori ere ez da dena. *Ekonomia* –bai inpopular bihurtu dela hitz hori!– zentzu batean baliteke herrialde aberats batean behartu batean bezain beharrezkoa ez izatea, hain zuzen ere zarrastelkeriak miseria mehatxatzen duelako bigarrenean eta ez lehenean. Baina, beste zentzu batean, ekonomia –hau da, benetako ekonomia eta ez burokraziaren eta Kongresuaren ekonomia faltsua, zeinak beti baitaude prest penikeak aurrezteko milaka milioi xahutzen dituzten bitartean– hain da beharrezkoa herrialde aberats batean, bere aberastasuna eraginkorki erabiltzeko, nola herrialde behartsu batean, biziraute hutsa segurtatzeko⁹. Eta hori aplikagarri zaio ez bakarrik administrazio publikoaren kostuari, baizik eta funtsen erabilpenari, zeinak mozkin desberdinen gai gisa ordaindu behar baitira. Adibide klasikoa, jakina, langabeziarako hornidura da norbanakoei egiten zaizkien ordainketan datzana. Langile, enplegatu eta langabetuen portaera hertsiki interbentzio publikoaren pean egon ezean, Errusian bezala, langabetuen sostengurako funts eskuragarrien erabilpen ekonomikoak ezinbestean esan nahi du mozkinak langabetuek irabaztea espero ditzaketen soldaten azpitik egon behar duela funtsean. Estatu batueta-ko lanaren mugimenduaren estatistikek iradokitzen dutenez, langabezia-marjina handi bat dago eskuarki herrialdean, erdi-borondatezkoa eta erdi-ezborondatezkoa, zeinaren zama gehitzera beharturik baitago mozkinen administrazio zabartu batengatik edo horien tasa altuengatik soldatekiko erlazioan, halako moldez, non suntsitu egingo baitu berrehun bilioiren helmuga lortzeko aukera.

Bada oraindik beste baldintza bat aukera hori justifikatzeko bete beharko litzatekeena: «politikariek eta burokraziak ez dute ekidin behar hori lortzea». Ez du izan behar ezer nabariagorik organismo ekonomikoak asebetarik ezin funtzionatu ahal izateak baino haren «ekintza-parametro» garrantzitsuenak –soldatak, prezioak, interesa– esfera politikora transferitzen direnean eta han joko politikoaren eskakizunen arabera tratatuak direnean, edo, batzuetan oraindik larriagoa dena, planifikatzaile batzuen ideien arabera. Hiru adibide aski izango dira hori ilustratzeko. Lehena: lanekuaren egoera efektiboak, irauten badu, berez aski da berrehun bilioiko ekoizpen nazional gordin baten helmugarako progresua eragozteko eta, neurri handiagotan oraindik, ekoizpen handiago baterakoa. Hortik sortzen diren soldata-motak arrazoi bat besterik ez dira horretarako: enpresaren plangintzaren deslektutzea eta langileen desantolakuntza, nahiz eta enplegaturik egon, era berean garrantzitsuak dira. Ekoizpenaren hedapena ekiditeaz gainera, bestela ahalgarri izango litzatekeena, baldintza horiek murriztu egiten dute enplegua beste kasu batean ahalgarri izango litzatekeen mailaz azpitik, sari anormal bat emanez ahalik eta laneku gutxien erabiltzen duen orori eta «lanekuaren ihes» gisako batera bultzatuz¹⁰.

Bigarren: zeinahi direlarik ere irakurleak egozten dizkion bertuteak, prezioen interbentzioa, orain arte praktikatu denez, beste eragozpen bat da ekoizpenaren hedapenerako. Nik entzun izan dut erarentza stalinistak bultzatu egiten duela burokraziaren kritika. Bistan dago hori ez dela horrela gure artean. Etiketa nagusikoiari atxikiko natzaio, ageriki onartuz gizaki gaitu askok zerbitzu bikainak eskaini dituztela OPAn; beste askok, hain gaituak ez direnek, ahal duten guttia egiten dutela horiek ere, eta nire buruan egon litekeen zalantza oro baztertuko dut oraingo unera arteko burutzapenez, batez ere haien porrotik nabariena haien helmenaz kanpoko inguruabarrei loturik daudelako. Baina onartu beharra dago, izatez, presenteari eta etorkizunari dagokienez behintzat, soldata-tasaren gehikuntzak pizgarritzearen politika, prezioen esku-hartzearekin konbinaturik, enpresa pribatuaren abandonua bortxatzen *ahalegintzen* ez bada behintzat, irrazionala eta ekoizpenaren hedatze bizkorren etsaia dela. Organismo arautzaileak «estalkiari eutsi» ahal izatetik sorturiko prezio erlatiboen sistemaren subertsioa zenbait prezioen gain –eragin politiko gutxiko

ekoizleen prezioak–, besteen gain baino era askoz efektiboagoan –eragin politiko handiko ekoizleen prezioen gain baino– murriztu egiten du sistemaren efizientzia-gradua; prezioak *per se* finkatzeak ez duela definitzen egindako kaltearen hedadura guztia; era berean garrantzitsua da kostu handiko ekoizleak «subentzionatzearen» eta kostu txiki-koak «estutzearen» praktikak efizientziarik ezari ematen dion saria¹¹.

Autonomia industrialarekiko burokraziaren etsaikortasun iraunkorra, iritzi publikoak indarrez bermatua –autoantolaketa, autoarauketa eta lankidetza–, hirugarren eragozpen bat da ordenatuki aurrera egiteko eta, intzidentalki, eraentza sozialistara igarotzeko arazo asko konponduko lituzkeen garapen baterantz aldatzeko. Burokraziaren bozeramaileek ukatu egiten dute hutsik egin gabe ikuspuntu horretarako inolako oinarririk dagoenik, zeren negozio-gizakien baterako ekintza «murrizketa kolusorio» bat inplikatzek badu bakarrik bihurtzen baita ilegal eta jazargai. Baina praktika nagusi-koien interpretazio legalista hori onartuko balitz ere –eta, nahiz eta onartuak izan litezkeen murrizketa kolusorio bat edo, oro har, praktika antisozial bat¹² denari buruzko teoria ofizialak–, oraindik egia izaten jarraituko luke: a) «murrizketa» kontzeptuak lankidetza industria-leko ahaleginen masa handia bere baitan daukala prezioen eta ekoizpenaren politikari dagokionez, lankidetza horrek funtzio oso beharrezkoa betetzen duen tokian bertan ere; b) kasu mugakideak eta murrizketa-elementua akordio bateko puntu nagusia izan gabe sartzen den kasuetan ez da segurua izatea arazo ekonomikoen izaera behar bezala ezagutzen ez duen pertsonalak inpartzialtasunez kontsideratzea, eta zeinetariko batzuk arautu behar duten sistemari edo, gutxienez bertako «enpresa handia»ren sektoreari bortxaz kontrajarzten baitzaizkio, eta c) faltengatiko jazarpenaren mehatxu beti presentea ez dela beti erraz bereiztekoa faltarik gabeko negozio-praktikatik ondorioak izan ditzakeela negozioak gidatzeko portaeran nahiz eta inork ez uste izan izango dituenik.

Azken puntuak langile-perturbazioen, OParen perturbazioen eta merezi duen arretarik inoiz hartzen ez duen «antitrust» perturbazioen aspektu bat ilustratzen du, hau da: enpresa eta kudeaketa espi-ituaren energiaren ondoriozko agortzea. Pausotik etengabea kanpora jaurtia den negozio-gizakiari ez bakarrik datu instituzional beti berriei aurre egin behar izateagatik, baizik eta pertsonalki batzorde honen

edo haren aurrean agertu behar izateagatik ere, ez zaio indarrrik gertzen bere arazo teknikoez eta komertzialez arduratzeko. Ekonomialarien jarrera mekanikoaren eta «bizitza erreal»etik haien urruntzearen nabarmenki adierazgarria da hamarren artetik bakar bat ez egotea organismo gizatiar baten «elementu gizatiar berezi» hori, azken finean, berrezagutzen ez duena, nahiz eta gizaki zentzuzko bakar batek ere ezin duen utzi, adibidez, 1945eko ekoizpen industriaren bolumen fisikoaren tasak adierazitako lagin erlatiboki pobrea elementu horrekin *haren* kausa nagusietako batekin bezala lotzea. Hori ere ez da dena. Enpresa ekonomiko baten zuzendaritzako arrakasta dauden baldintzetan areago dago langileen gidariekin, politikoekin eta funtzionario publikoekin tratatzeko gaitasunaren baitan negozioetako gaitasunaren baitan baino hitzaren zentzu propioan. Hortik dator *concern* handienetan izan ezik, zeinek eduki baititzaikete mota guztietako espezialistak, gidaritza-postuetan «sobornatzaileak» edo perturbazio-ebazleak areago izatea «ekoizpen-gizakiak» baino.

Irudi lekiok e irakurleari ez dagoela pentsatu ere egin beharrik horrek guztiak adierazitako lerroei buruz, politika hori porrokatzera beharturik dagoela sumin justuzko ekaitz batean edo sabotaiaren eta beste erresistentzia-forma batzuen harkaitzen gainean hondoan jotzera eta, horregatik, berrehun bilioiko helmuga bera ia-ia kimera bat dela. Baina hori ez da erabat horrela. Alde batetik, Estatu Batuen antolakuntza ekonomikoa aski sendoa da xahuketa eta arrazoigabeke-riaren bat jasateko, horren barruan sartuz, dakigunez sartzen dudala, desenplegu ekidingarriaren bat, askatasun banakoaren prezioa dena. Bestetik, politikariek eta publikoak azken aldian «zentzura itzultzearen» sintoma batzuk erakutsi dituzte. Eta ez dugu ahaztu behar giza izaeraren malgutasuna, liburu honetan hainbeste azpimarratu dena (ikus bedi XVIII. kapitulua, II. saila). New Dealaren esperientzia eta gerra-aldiak baliteke ondorioz gabeak izatea, zeren burgesia industrialak ez baitzuen espero izan inoiz baldintza haiek iraungo zutenik. Baina, segur aski, «heziketa»ren bat burutu da. Horrela, baliteke behar den gauza bakarra dagoen zergaren doiketa txiki samarrak izatea, efizientzia gorenerako ez bada, gutxienez haren behar besteko gradu baterako¹³. Beste norabide batean, lege-babesaren gehitze txiki samar batek –lege industrialaren kodetze egoki baten bidez agian eman behar denak–agian ken lezake tormentua edo hautazko laidoaren

mehatxua negozio-gizakiaren lanegunetik kanpora, bai eta organismo arautzaileen esperientzia gehitu ere, eta gainerakoa haren pertsonalaren gaitze hobe batek egin lezake¹⁴. Gainera, herrialdeak, asko ez dela, frogatu du borondate ona duela NRArena bezalako legeria bat onartzeko. Eta lan-egoerari dagokionez, agian lasaitasunen bat erator daiteke adierazitako norabideko politika batek ez daukala jende gehienak New Dealaren eraberrikuntza sozialaren burutzapen nagusi kontsideratuko dituen puntu bakar bati ere uko egin beharrik bakarrik, baizik eta geroko aurreratze baterako oinarri ekonomikoa ere hornituko lukeela. Bereziki ohartu behar da Urteko Soldata mehatxu bat besterik ez dela gure helmuga lortzeko gure aukerarako, baldin eta kalterik handiena eragiteko eran sartu, administratu eta finantzatzen bada. Bere horretan proposamen guztiz ahalgarria da¹⁵.

Hala ere, baikortasun handi samarra behar da beharrezko doiketa horiek egingo direla espero izateko edota herrialdeko politikaren baldintzek obra hain larri eta buru-ukatzailea, topikoek harrapakaritua, detalleko zailtasunez josia eta izugarri desatseginari ekiteko borondatea sor dadin. Populuaren masak atsegin luke ataza horretatik sortuko litzatekeen Amerika, baina gorrotatu egingo luke esku artean hartuko lukeen gizakia.

4. Oraindik ez ditugu aipatu Igarobide Arazoak. Izatez, ez dira muntadunak gure gairako, aspektu honetan izan ezik: igarobide-zailtasunek egoerak sorraz ditzakete eta neurriak bultzatu, zeinek segur aski ekidingo baitute ekoizpenaren hedatzea era ia iraunkorrean eta ia erabat baliogabetuko baitute gure «gertakortasunen kalkulua». Adibiderik nabariena bai eta larriena ere inflazio-arriskua da. 1920ko handizkako salmenta-prezioen indizea 2,3 aldizko 1914koa zen aldealde. Hori gertatu zen gerra-ahalegin baten ondorio gisa, zeina ez baitzen bakarrik izan arestikoa baino txikiago eta laburragoa, ondasun-eta zerbitzu-terminotan, baizik eta era arduratsuagoan finantzatua ere bai ondasun- eta zerbitzu-unitateko. Ez zen izan gaurko eskaera-gainekatzearen antzeko ezer. Eta zerga-pribilegioek nahiko zio eman zieten inbertsiogileei gerra-bonoen pakete handiei mugagabeki irau-narazteko. Gordailu Hitzartuen (bukaerako eta ageriko gordailuak, bankuarteko eta Estatu batuetako Gobernuaren gordailuez bestelakoak, biltze-prozesuko diru-sailak izan ezik) Totalaren kontuak eta Bankuetatik Kanpoko Diruarena diren bezala, aurtengo urteko apiri-

lean, 174 bilioitara iristen ziren (55,170 1929ko ekainean eta 60,900 1939ko ekainean), eta ez dago esan beharrik publikoaren eskuetan zeuden estatu-zorren tituluen erreserben parte bat esku-diru bihurtuko zirela *zorra ordaintzeaz bestelako helburuetarako*. Pertsona zentzudun orok gai izan beharko luke iritzi bat eratzeko horrek esan nahi duenaz inguruabar jakinetan, batez ere gobernuaren pizgarriarekiko erlazioan, edo gobernuaren kontsentimenduekiko, soldata monetazko altuagoen tasen eskaera zalapartako, baina unibertsal batena, ezen inflazioa nominaren bidez baitator¹⁶. Pertsona zentzuzko berak ez luke izan behar zailtasunik bere iritzia eratzeko inflazio-arriskurik ez dagoela predikatzen duten idazleekiko¹⁷, bai eta une batetik bestera egundoko inflazioaren arriskua ikusten duten idazleekiko ere. Gure argudiorako puntu muntadun bakarra seinalatzeko, eta hemen arazoa era asegarrian tratatzeko ezintasunaren aurrean, zilegi bekit neure iritzi pertsonala zehazte-aldera soilik adieraztea. Uste dut ahalgarria dela *—ahalgarri—*, 1950erako prezio-maila bat desiratzea 1928 zifraren gainetik ehuneko 50ean (zeinak haratago salto egiten baitu tartean); uste dut arrazionala dela erabiltzea, gradu horretaraino, prezio-mailaren higidurak moldatze-tresna gisa, eta uste dut gehitze horren izu-ikarak prezio orokorretan, bai eta haien beheratzearen izuikarak azken urteetan, oso bapikatuak daudela. Baina prezioen gehitze saihestezinari eustearren muga haren barruan neurri-sail bat beharrezkoa da, denak oso inpopularrak direnak, eta emaitza bat sorraraz dezaten esperientzia bat behar da eta nik ikusten ez dudana gaitasun bat, eta zeinetariko batzuek murriztu egingo baitute, neurri batean, ekoizpenaren hedatze-abiadura; inork ezin du eragotzi inflazioaren mehatxua ekoizpenean ere interferitu gabe. Alabaina, baina horren ordeztu beste O.P.A. bat ezartzea besterik ez bada egiten eta zerga bortitzak ezartzea hain zuzen ere errenta haien gainean, zeinetarik ez baitator inflazio-mehatxurik *—gure erradikalek sostengaturiko teoriaren arabera ere—*, eta, gainera, soldata-tasak ondorioak kontuan izan gabe bultzatzen badira, oso ongi gerta daiteke egoera bat, zeinean Washingtonek, etsita, neurri zakar eta ankerretara jo baitezake, hala nola, debaluaziora, gordailuak «izoztera», «zuzeneko interbentzioaren» arrogaziora, «lukurreroak» eta «monopolistak» edo beste turkobururen batzuk zigortzera, arreta handiarekin nekazariengandik aldendurik mantenduz. Eta horrek halako hedaduran nahas-mahas ditzake planak, non ez bakarrik berrehun bilioiren helmugaren auzotasun bitartegabera baizik eta

erdi-garaturiko sozialismo batenera. *Izan liteke*. Badira, noski, beste aukera batzuk.

5. Erreseinatzeko geratzen da ekonomialari askorentzat gerra-osteko *par excellence* arazoa dena: kontsumo egokia segurtatzearen arazoa. Honainokoa ikusi dugu, izatez, arrazoi asko kontsideraturiko helmuga –berrehun bilioi dolarreko produktu nazional gordin bat 1928an– 1950ean lor daitekeela zalantzan jartzeko. Baina horiek guztiak oinarriturik zeuden prozesu ekonomikoaz *kanpoko* eragozpenak bidean tarteka zitezkeelako ahaltasun edo gertakortasunean. Emaizta hori sortzeko prozesu ekonomiko beraren ahalmena, hala ere, zalantzan jarri dute ekonomialari askok, zeinetariko gehienak, denak ez bada ere, identifikaturik baitaude fedeko artikuluko politiko eta zientifiko batzuekin. Sapan jarri den esamolde batez izendatuko ditugu, hau da: estankazionistak¹⁸.

Teoria estankazionistaren mota muntaduna azken urteetako Lord Keynesek garatu zuen. Lantzen ari garen kasuaren aplikazioarekin irakurlea hobeki familiar daiteke azken urteotan egin diren gerra-osteko eskaeraren konputu bat edo gehiago aztertuz¹⁹. Horien egileak bat datoz gurekin 1950erako ekoizpen potentziala gureen magnitudeko ordena berekoak diren zifratan, beraz, hitz egiten jarrai dezakegu, sinpletasun-arrazoiengatik berrehun bilioiko produktu nazional gordina. Gu baino baikorragoak ere badira, eta horregatik ez dute azpimarratzen bilakaera kapitalistaren aldeko ingurumen-baldintzen premia²⁰, baizik eta gaurko praktika politiko, administratibo eta lanekoak iraungo duten supostu taktikoaren gainean arrazoitzen dute. Gainera, uko egingo diot langabeziako minimo ezinbestekoaren kalkuluen kontra, edo metodo estatistikoen baliozkotasunaren kontra izan dezakedan objektzio orori, eta onartu egingo ditut gainera hipotesi desberdinak, zeinen bitartez iristen baitira Errenta Nazional Garbiaren eta Errenta Baliagarriaren zifretara (errenta banakoen batura totalaren zergak ordaindu eta zergazkoak ez diren derrigorrezko ordainketak egin eta gero). Argitasun gehiagorako, demagun errenta baliagarri hori 150 bilioiko zifrara iristen dela eta sozietate anonimoen mozkin banatugabeak 6 bilioi ingurukoak direla²¹.

Gerraosteko eskaera, hau da, etxe partikularrek kontsumo-ondasunetan gastatuko dutela espero den batura totala (etxe berrietan izan ezik), eratortzen da, bada, gerraurreko aldiko datuekin, adibidez, 1923-

1940koekin kalkulatz, kontsumo-ondasun horien *per capita* gastuaren eta *per capita* errenta baliagarriaren artean batez besteko erlazioa, bata eta bestea bizi-kostuaren indizeaz murrizturik, eta erlazio hori 150 bilioiko errenta baliagarriari aplikatz²². Baldin eta prozedura horrek ematen badu, adibidez, 130 bilioiko batura, hondar bat geratzen zaigu 20 bilioiko zenbatekoarekin aurrezkirako, edo, sozietate anonimoen mozkin banatugabeak gehitzen badizkiogu, 26 bilioikoa. Argumentazioak jarraitzen du eskuarki batura horretarako irteera eskurgarrien gainbegiraketa eginez, ibertsiorako aukerei (etxe berrien eraikuntza, inbentarioei gehiketak, instalazioa eta ekipoa, atzerriko inbertsioa), eta azken ondorio gisa ateraz edo iradokiz horiek ezin dutela segur aski hurrupatu jendeak aurreztuko lukeen premiaren antzeko ezer errenta nazionalaren 1950eko enplegu totalaren mailan, estatuaren laguntzarik gabe gutxienez. Hortik estatu-gastuaren premia barruan edo «atzerriko inbertsioa» behartzeko estatuaren ekintzarena. Duela gutxitik hona, hala ere, beste gomendio batek izan du harrera. Nola, gaurko baldintzetan, gastu publikoa defizitarekin finantzatzea defendatzen duen oro erredikulua egiteko arrisku nabarian dagoen, Washingtingo ekonomialariek erabateko bira egin dute aurrekontu orekatuak gomendatzera, baina aurrekontu orekatu mailakatuak errenta jasoak ezabatzeko, zeinetatik baitator nagusiki aurrezkiaren mehatxua. Hori bat dator topikoarekin, zeinaren arabera (errenta jasoak berengantzen dituztenek egindako aurrezkiarengatik) «gizarte modernoetan langabeziaren kausa esentziala errenta-desberdintasuna baita.»

Hala, bada, arazo ekonomiko eta sozial askoren soluzioa bilatu dugun errenta nazionalaren maila altua denetan arazo larriena bihurtu da. Errenta jasoak aurrezki jasoak esan nahi duenez, eta, nola aurrezki horiek ez diren inbertsio-gastuak erabat konpentsatuak izango, ez zaio ahalgarri izango ekonomiari errenta- eta enplegu-maila altu bati eustea –politika fiskalak maila horretan eusten ez badio behintzat –baldin eta, izatez, maila altu hori inola ere lortzerik ez badago. Ohartu behar da, partez bederen, teoria horrek iritzi publikoaren laguntza eskatzen duela eta, bereziki, iritzi merkantilena. Ez dago ezer komunagorik dena perfektuki joango den irizpidea baino «beren errenta erabat erabiltzeaz» jendea konbentzitze hutsaz edo «kontsumo-gaien behar beste teko eskaera lortu» ahal izate hutsaz. Badu halako interes bat auziak: ea zergatik gizaki adimentsuek, zeini ez baitoakie ezer gastu estatala

edo errentaren berdintzea inplikatzan duen ezein programa politikotan, sentitzen diren, hala ere, zio horrek afektatuak. Landa-giroko den-dariaren mentalitatea, gerraren aurreko hogeituroko esperientziari baturik, horixe da eskain dezakedan azalpen bakarra auzitako teoriaren gertakari harriagarria iseka-zio sinple ez izatearena.

Teoria horren aurkari horiei huts egiten die erabili nahi duten argudioak, zeinaren arabera produktu nazional gordina, eta, ondorioz, errenta, txikiagoa izango baita, eta inbertsiorako aukerak berriro kalkulatzailak suposatzen dutena baino handiagoak izango dira, hain baikorrak direnak lehena kalkulatzeari dagokionez eta hain ezkorrak azkenak kalkulatu behar direnean. Egia handia egon liteke argudioetan honetan eta antzeko beste norabideetan. Bereziki nabarmen daiteke 1830ean inork ez zituela aurreikusi eta aurreikusi ere ezin zituela egin elektrizitatearen aroko kapital-eskakizunak. Baina argudio erabakigarria hori dena baino askoz sinpleagoa da. Teoria bermatzen da norbanakoek, lege psikologiko iraunkor baten arabera aurrezten dutelako postulatuen gainean²³, inbertsiorako aukeren existentzia edo absentziarekiko independenteki. Bistan dago hori ez dela kasu normala. Normalean jendeak errendimenduren bat ateratzeko asmoarekin aurrezten du, dirutan edo zerbitzutan, «inbertsio-ondasunen» batetik. Ez da aurrezki banakoen bolumena –eta, jakina, negozioen aurrezki guztiak ia, zeinek bestalde aurrezki totalaren parterik handiena eratzen baitute– begirako inbertsio espezifikoko asmo batekin egitea bakarrik. Inbertitzeko erabakia aurrekoa izaten da, eskuarki, eta inbertitzeko egintza aurrezteko erabakiaren aurrekoa izaten da sarri askotan. Inbertsio espezifikoko asmorik gabe gizaki batek aurrezten duen kasuetan ere erabaki batera iristeko atzerapen oro bitartean errendimenduaren galeraz zigorturik dago. Badirudi, lehenik, jendeak inbertsiorako aukerak ikusi ezean, eskuarki ez duela aurreztuko, eta inbertsiorako aukeraren ezabatze-egoera bat litekeena dela aurrezteko aukeraren ezabatze-egoera bat izatea ere, eta bigarrenik, jendeak «likidezaren hobespena» erakusten duela ohartzen dugun guztietan, hau da, aurrezteko gogoia parez pare inbertitzeko gogorik gabe –gordailatzeko gogoia–, hori arrazoi berezietaz azaldu behar da, eta ez *ad hoc* postulatutik ezein lege psikologikotara jotz.

Arrazoi horiek badira, hala ere, eta haien artean bada bat garrantzi ohargarrikoa depresio ziklikoen sakoneran, batez besteko

handi batean, bat hamar urtez behin. Gauzak beltz ikusten direnean eta jendeak galerak baizik espero ez dituenean begiesten duen edozein negoziotatik, orduan uko egingo diote, noski, bere aurrezki arruntak inbertitzeari (baita aurreko negozioak bukatu direlako beraiengana arrunki itzultzen diren zenbatekoak berrinbertitzeari ere) edota inbertsioa geroratu egingo dute prezioen ondorengo murrizketez baliatze-ko. Aldi berean, aurrezkiak ez dira bakarrik murriztu egingo, baizik eta gehitu egingo dira beren negozioetan edo langabezian errenten berehalako galerak espero dituzten guztientzat. Hori elementu garrantzitsua da depresioen mekanismoan eta defizita duen gastu publikoa, izatez, bitarteko nabarietako bat «gurpil zoroa» hausteko. Hala ere, ezin da hartan oinarritu «gainaurrezkia»ren teoria baten defentsarik, zeren depresio baten ondorioz bakarrik gertatzen baita, zeina ezin baitu, beraz, hark berak azaldu. Baina Keynesen lege psikologikoaren azalpen psikologiko bat ematen du. 1929-1932ko depresio handia eta hartatiko berreskuratze geldoa oraindik denon buruetan daude. Eta lege psikologikoa eta hartan oinarriturik dagoen altxortzearen teoria esperientzia horren orokortzeak baizik ez dira²⁴.

Depresioko altxortzea ez da, beraz, benetako salbuespen bat aurrezteko erabakiak inbertitzeko erabakien baitan dauden eta haiek auresuposatzen dituztelako gure baieztapen orokorrekiko, nahiz eta alderantzizkoa ez izan egia, zeren nabarmenki ahalgarri baita inbertsio bat finantzatzea banku-mailegu baten bidez, zeinaren kasuan ez baitu zentzurik inoren aurrezkiaz hitz egiteak ere²⁵. Badira benetako salbuespenak, itxurazkoek gainera. Baina ez batak eta ez besteak ez dira garrantzitsuak. Benetako salbuespenen adibideak dira altxor bat metatzeko asmoarekin egindako altxortzeak, zeinak, mundu guztiak dakienez, hedatuki egin baitira Indian, Txinan eta Egipton, eta, denbora batez, aztura batez aurrezteak, lortu eta gero, bizirik iraun dezake bere oinarri arrazionalaz haratago beste edozein aztura bezala²⁶. Itxurazko salbuespenen adibideak, depresioko altxortzearen gure kasuaren antzekoak oso zanpatzailea den inbertsio-sektore bat finantzatzeko asmoarekin egindako metatzeak dira; kasu hori ahalgarria da baina begi-bistan dago, ez duela garrantzirik, edo kontingentziak, zahartzaroa eta abarretarako hornidura egiteko asmoarekin egiten den «aurrezkia», eta egingo litzatekeena, nahiz eta segurtasun-sentimendu bat beste «errendimendu»rik lortzeko aukerarik ez izan²⁷.

Hala, bada, atsekabetuko gintuzketen nahigabe bakarrik estankazionistenak izango balira bakarrik, ez genuke izan behar inolako errezelorik berrehun bilioiko produktu nazional gordina lortzeko. Eta sobera frogatu bada berriro inberti daitezkeela hoge bilioi aurreztaile marjinalarentzako errendimendu-tasa asegarrian, zalantzarik ez dago jendea zoriontsuegia izango litzakeela soberakina kontsumitzeko. Ez dugu arduratu behar ez «beraien errentak erabat baliarazteko» neurriez ez eta aurrezki sozial eta indibidualentzako irteerez. Bereziki ez dugu beharrezkotzat jo behar kanpo-inbertsioa bortxatzea, zeinaren defentsa oraingo baldintzatan herrialdearen ahosabairako pasagarri bihurtzeko ahalegina besterik ez baita, izatez, gerra-kitapen bat ezartzea dena²⁸.

Bestalde, ados egon behar dugu estatu-gastuaren defendatzailekin puntu horretaraino; arriskua dagoen guztietan, bai ekonomia-
ren mekanismo ziklikoak bere baitan dituen kausengatik edo beste edozeinengatik, «beheranzko prozesu metatzaile» batean, hau da, Aren ekoizpen-murritzketek B murritzera bultzatzen duten egoera bat sorrarazteko mehatxua egiten duen guztietan, eta horrela hurrenez hurren ekonomia osoan barrena, zeinean prezioak jaitsi egiten baitira jaitsi direlako, zeinean langabeziak bere burua elikatzen baitu, defizit-
tatekiko estatu-gastuak geldiarazi egingo du «gurpil zoro» hori, eta, horrenbestez, gainerako kontsiderazio guztiei jaramonik ez egitea hautatzen badugu, erremedio eraginkor dei daiteke hori justuki²⁹. Egiatzko objekzioa ez da larrialdiko egoeretan estatu-gastu errenta-sortzailearen kontra, behin haiek sortu eta gero, baizik neurri politiko-
koen kontra, zeinek sortzen baitituzte larrialdiak, zeinetan ezartzen baitira gastu horiek.

6. Zoritzarrez, hala ere, efektiboki gertatu behar duena aurre-
sate-auzi bat izango balitz, gure emaitza ez litzateke irakurleak espe-
ro lezakeena bezain desberdina izango estankazionistenarekiko. Nahiz eta ez dagoen zertaz ikaratu jendeak aurrezkitzako duen joeratik asko dago ikaratzeko beste faktore batzuetatik. Lan-ezinegona, pre-
zioen erregulazioa, administrazio iraingarria eta ezarketa irrazionala oso behar bestekoak dira errentarako emaitzak sortzeko eta enplegu-
rako, zeinek teoria estankazionistaren egiaztapen zehatz baten itxura izango baitute eta egiazki egoerak sor ditzakete, zeinetan defizitareki-
ko gastu publikoa nagusituko baita. Gainaurrezki baten itxura izango

duenaren lekuko ere izan gaitezke, hau da, baldintza batzuen, zeinetan jendea uzkur agertuko baita inbertitzeko bere erabakiak burutzeko. Aukera bat eztabaidatu dugu. Aurkitu dugu prozesu ekonomikoan bertan ez dagoela kausarik hori burutzea eragozten duenik. Halaber, ikusi ere dugu prozesu ekonomikoaz kanpoko kausak badirela hori ekidin dezaketenak. Horretaz kanpo, nik ez dut emaitza efektiboa zein izango den jakiteko asmorik. Zeinahi delarik ere, faktore menderatzaile bat izango da Estatu Batuetako egoera sozialean ez ezik, baita mundukoan ere. Baina datorren mende-erdirado edo bakarrik. Liburu honetan egindako epe luzerako diagnosia ez da afektaturik geratuko.

III Inperialismo eta Komunismo Errusiarrek

Gure diagnosirako garrantzitsua den beste faktorea Errusiaren bere aliatuen gaineko garaipena da. Estatu Batuen arrakasta ekonomikoaren alderantzitara, garaipen hori ez da ahalasun hutsa, baizik, mementoz, gertatutako jazoera bat. Bortitzegia ez zen egoera batetik abiatuz –posizio bat, zeinean Errusiak, joko politikoaren arau arrunt guztiekiko adostasunean, onartu beharra izango zukeen aliatuek ezartzea egokitzat kontsidera zezaketen edozer eta atzealdeko eserleku bat hartzea nazioarteko ordena berrian–, tsarrekin inoiz izan ez zuen bezalako agente nagusiko posizio batera igo zen, nahiz eta Ingalaterrak edo Estatu Batuek nahi izan dutela edo borrokatu dutela suposa daitekeen guztia gorabehera. Eta –lorpen gorena!– haren gobernu-sistemak dituen metodo bereziek agintea bere konkista ofizialez haratago hedatzeko gaitu dute, eta, aldi berean, dena baino askoz txikiago agerrarazteko, halako moldez, non arriskuguneetako ustezko kontzesio haiek, ebaditzaileak eta adiskidetzailak asetzen dituztenak, ez baitute inoiz ezein sakrifizio erreal izaten beren baitan, nahiz eta ez ekarri irabazi efektiborik, batzuetan kasua izaten denez³⁰. Baldin eta irakurleak gogoratzen baditu 1939tik Estatu Batuen politika higitu zuten xedeak –demokrazia, beldurra eta miseriarekiko askatasuna, nazio txikiak eta abar– konturatu beharko du gertatu denak errenditze bat esan nahi duela, Errusiak bere aliatu nagusien gain garaipen militarra izan balu espero zitekeena baino ez askoz txikiagoa.

Emaitza horrek azalpen bat eskatzen du ezer baino lehen. Beldur naiz faktore inbertsonalak bakarrik berrezagutzen dituzten his-

toriaren analista haiek –gehi, agian, zori-elementu bat– ez direla oso ongi moldatuko egiteko horretan. Faktore inbertsonal edo objektiboak denak Errusiaren kontra zeuden. Haren armada eskerga bera ere ez zen biztanleria ugari baten eta ekonomia aberats baten emaitza hutsa, baizk gizaki baten obra, zeina aski bortitza baitzen biztanleria hura pobretasun eta mendekotasun baten mantentzeko eta aparatu industrial garatugabe eta akastun baten indar guztiak helburu militar bakarrrera zuzendurik. Baina hori ez zatekeen aski izango. Zoria eta genioa nola txirikordatzen diren inoiz ulertzen ez dutenek zori menturatsuak seinalatuko dituzte, noski, garaipen bikain hartan gailurra harrapatu zuen jazoera-sail luze hartan. Baina jazoera-sail horrek egoera etsigarri hainbat edo gehiago dauzka, zeinetan eraentza boltxebikeak galtzeko aukera guztiak izan baitzituen. Genio politikoa ahaltasun faboragarriak arakatzeko eta desfaboragarriak neutralizatzeko trebetasunean datza hain zuzen ere, hain era osoan, non gertakariaren ondoren, azaleko behatzaileak faboragarria besterik ez baitu ikusten. Lehen maisu-kolpetik abiatuta jazoerak jarraituz –Alemaniarekiko «ulerkuntza»–, maniobra maisuzkoa begiesten dugu. Egia da Stalinekin ez zuela inoiz topo egin trebetasun erkagarria zuen beste gizaki batekin. Baina horrek errebortxatu besterik ez du egiten historiaren filosofia baten defentsa, zeinak nahiko leku uzten baitu pertsonal gidariaren kaliterako eta honen kasu berezirako: buruzagi banakoaren kalitaterako. «Teoria inbertsonal»ari analista errealista batek egin diezaiokeen kontzesio bakarra hau da: autokrata batek ez du eragozpenik aurkitzen, kanpo-politikako auzietan, buruzagi demokratiko baten arretra barreiatzen duten kontsiderazio haien aldetik³¹.

Baina, bigarrenik, nahiz eta ulertu, garapenei xeheki jaramon eginez, nola sortu den egoera sinestezin hori, horrek lagundu egiten digu ulertzen munduak orain nola toleratzen duen, mundu guztiaren bistan dagoela. Arazoa Estatu Batuen jarrerara murrizten da. Zeren Europa kontinentaleko herrialdeak, unaturik, goseturik eta errusiar errepresalien arriskupean daudelarik, ez dute balio, noski, erresistentzia garrantzitsu baterako. Errusiatik errealki independentea den herrialde kontinental bakarra Espainia da, eta gertakari hori Errusiaren harekiko politikak jarri digu agerian gutako gehieneri. Frantziak, ia era berean independente izan litekeenak, denetan garnizio errusiar bortitzena dauka bere alderdi komunistaren erapean³². Ingalaterrari dago-

kionez, zantzu asko daude erakusten dutenak, haren irizpidea nagusitu balitz, 1941etik hasita, jazoeren joaira guztia erabat bestelakoa izango zatekeela eta politikoki balio duen Ingalaterra osoak gaurko egoerari atsekabez eta aprentsioz begiratzen diola. Baldin eta, hala eta guztiz ere, ez badu posizio irmoa hartzen, hori bakarrik da, hartuko balu, arrisku ikaragarri bat bereganatuz izango litzakeelako, Errusiarekin eskuz esku borroka egin beharraren arriskua. Zeren oso litekeena bada ere Estatu Batuak batu litzaizkiokeela, *ez da ziurra*. Zergatik?

Beste planeta bateko behatzailearentzat ezin liteke egon ezer agerikoagorik, Estatu Batuek, ohorea eta interesezko kontsiderazio guztiengatik, egoera bat ezin toleratu ahal izatea baino, zeinean giza-terriaren parte handi bat giza eskubide oinarritzkoak kontsideratzen ditugunez gabeturik baitago, zeinean gerrak azpiratu nahi izan zuena baino krudelkeria eta ordena-gabezia gehiago baitago, zeinean botere eta prestigio izugarriak kontzentraturik baitaude gobernu baten eskuetan, zeinak Estatu Batuetako herriaren gehiengo handi batentzat zer-bait esan nahi duten printzipioen ukapena haragitzen baitu. Segur aski ez zuen merezi herri horrentzat sakrifizioak nozitzea gatazka bat izateko, zeinean izugarrikeria kalkulaezinak noziazarazi baitzaizkie milioika emakume eta haur errugaberi, baldin eta emaitza nagusiak izan behar bazuen diktadore guztietatik ahaltsuena inguratzen duten armadetatik jaregitea. Segur aski hau kasu bat da, zeinean egiteko erdiburutua ezer eza baino okerragoa baita. Gainera, beste erdia ez zatekeen ahalgarri bakarrik izango, baizik erraz samarra, zeren, Japonia errendatu eta gero, Estatu Batuetako indar militarrek eta teknikoek, eman edo ukatzeko haren potentzia ekonomikoaz ez hitz egitearren, nagusitasun gaindiezina segurtatzen baitzioten.

Baina beste planeta bateko behatzaileak oinarri horren gainean argudiatuko balu ihardetsi beharko genioke ez duela soziologia politikoaren berri. Errusia stalinistan kanpo-politika tsarren garaiko zen kanpo-politika bera zegoen. Estatu Batuetan kanpo-politika barne-politika da. Bada, noski, tradizio bat Washingtonen irizpenari dariona. Baina esentzialki bakartzailea da. Ez dago tradizioz ez organorik beste edozein kanpo-politikaren joko osoa jokatzeko. Propagandak bortxaz kitzikaturik dagoenean herrialdeak onar dezake edo sar daiteke itsasoez haratagoko interferentziazko joaira aktibista. Baina laster nekatzen da hartaz eta nekaturik dago orain –nekaturik gerra moder-

noaren izuikareiz, sakrifizioez, zergez, zerbitzu militarraz, arauketa burokratikoiez, gerra-kontsignez, mundu-gobernu baten idealez— eta oso artaga ohiko bere bizimodura itzultzeko. Ahalegin tematiago batera bultzatzea —eraso-arrisku berehalakorik gabe— negozio-politiko txarra izango litzateke hori egin nahiko lukeen edozein alderdi edo presio-talderentzat. Baina badirudi ezein alderdik edo taldek ez duela horrelako desirarik. Alemania edo eraentza nazional-sozialistarenganako gorroto grinatsuz higitu direnak aseta daude. Alemania hitlerraren kasuan ebasionistatzat estigmatizatzeke erabiltzen zituzten argudio berez bultzatzen dute orain Alemaniarekin bakeatze deituko zuketzen Errusiarekiko politika. Eta, amerikar politikaren pauta eratzten duten interesen zerrenda aztertzen badugu, aurkitzen dugu denak bat datozela, nahiz eta arrazoi desberdinengatik, bakeatzea faboratzen. Nekazariak ez dute asko kezkatzen. Langile antolatuak egon daitezke edo ez era esanguratsuan errusiarren aldeko hegal batek eraginda eta egia izan daiteke edo ez sindikatuek edo haietako batzuek aktiboki butxatzea Errusiaren aurkako gerra oro. Ez daukagu auzi horretan barrendu beharrik —zeina eskuarki ukatze presakoez edo baieztatzen presakoez tratatzen baita—, zeren axola dion gauza bakarra egoe-rari dagokionez, mementoz politikariari aurkeztzen zaionez, inork zalantzan jartzen ez duelakoa da, hau da, 1940an gerraren aldeko ziren langileak, orain deliberatuki gerraren aurkakoak direla. Egin litekeen oharrik interesgarriena, hala ere, gauza bera sostenga daitekeela klase merkantil eta industrialaz eta haien jarrera, nahiz eta, jakina, ez izan errusiarren aldekoa sentimenduz edo asmoz, izatez errusiarren aldekoa dela. Intelektual erradikalek atseginez egozten diote burgesiari Errepublika Sobietarraren lepora jauzi egiteko asmoa. Errusiarekiko gerra bat, noski, enpresa handiek sozialismoari egindako gerratzat deskribatuko lukete. Ezin liteke ezer irrealagorik egon. Negozio-gizonen klasea, gainera nekaturik dago kontsignez, zergez eta gerra-arauketez. Errusiarekiko gerra bat negozioen interesen alde mementoz dagoen korrontearen aurka joango litzateke, eta horrek oraindik arauketa gehiago esan nahiko luke. Langileak oraindik egoe-ra indartsuago batean jarriko lituzke. Gainera, barne-negozioak perturbatu ez ezik, oso izaera emankorreko negozioen igurikapenak etengo lituzke. Errusia sobietarra bezero oso handi bihur liteke. Inoiz ez dio lastertasunez ordaintzeari utzi. Horrela funtzionatzen du mentalitate burgesak eta horrela funtzionatzen jarraituko du borroaren soka

ikusita ere. Baina ez da zaila irudimenetik ikuspen higuigarri hori aldentzen. Irentz bitza Errusiak bizpahiru herrialde gehiago. Zer gertatuko da? Horni bekio behar duen guztia eta bekozkoa jartzeari utziko dio. Hemendik hogeitaz urtera gu bezain demokrata eta bakezale izango dira eta guk bezala pentsatuko eta sentituko dute. Gainera, Stalin ordurako hilik egongo da.

Beste behin diot: liburu honen helburua ez da irakurleak ondorio praktiko determinatu batzuetara gidatzea. Gainera, zoriari eta faktore berri edo ustegabekoen hain mendekoak diren gaietan iragarpena profezia besterik ezin daiteke izan eta, horregatik, ezin dezake laguntza zientifikorik izan. Hori erabat ulertua izan daitekeelakoan, hala ere, gure argudioaren parte honen laburbilduma gisara, inferentzia arrazionala dirudien zerbaite hartuko dut, baina *pour fixer les idées* beste asmorik gabe. Beste era batera esateko: egitera goazena sozialismoaren auzi handiarekin orokorrean liburu honetan guztian egin duguna bera zehazki egitea da: joera behagarriak estrapolatzea.

Behatu ditugun gertakariak iradokitzen dute, Stalinekin bere bizitzako lehen hutsegitea egin ezean, ez dela gerrarik izango datozen urteetan eta Errusia bakean geratuko dela bere baliabideak garatzeko, bere ekonomia eraikitzeko eta munduak inoiz, absolutuki eta erlatiboki, ikusi izan duen gerra-makina handiena eraikitzeko. Egiten dudana erreserbak, nire iritziz, inferentzia horren balio praktikoa murriztu bai baina ezeztatzen ez duenak hau esan nahi du: Eraso-ekintza ikusgarri batek –agresio-ekintza hain ikusgarria, non aliatuek bere ere zailtasuna izango bailukete «defentsa» perfektuki justifikatu gisa azaltzeko– edozein unetan piztaraz dezake gerra, zalantzarik gabe. Baina ahalatasun horren aurka gertakariak finkatu behar dira: lehenik, eraentza stalinistaren kanpo-politikan ez dagoela ezer haren pazientzia arretatsua bezain harrigarri; bigarrenik, eraentza horrek pazientzia horren bidez irabazi behar duela dena; hirugarrenik, arrakasta inperialistaren gailurretik jardutean pazientziaduna izatea eta aurrepostuak errendatzea arrisku errealeko zantzuren bat dagoenean edo «tonu irmoagoz» aurre egiten duen guztietan azken aldia aurre egin behar izan dionak baino. Ikuspegia esentzialki aldatuko da, hala ere, hamar urteko berreraikuntza-aldiaren ondoren, adibidez. Gerra-makina prest egongo da erabilia izateko eta gero eta zailago egingo da ez erabiltzea. Gainera, Ingalaterrak boltxebismoa besarkatu ezean eta gainera bere

posizio tradizionalari uko egin ezean, uharte independente hori existitze hutsa hain jasanezina gerta daiteke autokrazia errusiarrarentzat autokrazia napoleonikoarentzat izan zen adina, eta alderantziz. Gertakari hori hautematea, jakina, Churchillen amonestazioen esentzia eta dagoeneko hasita dagoen armamentu-lasterketaren oinarri arrazionala da.

Baina, hori guztia prezatzeko, gauza bat izan beharra da gogotan. Bakean eta etorkizuneko gerra balizko batean, eta areago gerra ez diren tarteko egoera horietan, baina gerraren mehatxupean daudenetan, munduko talde eta alderdi komunista guztiak, jakina, garrantzi handienekoak dira kanpo-politika errusiarrerako³⁵. Ondorioz, ez dago ezer harrigarririk stalinismo ofiziala azken aldi honetan kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko borroka bat –berehalako mundu-iraultza– hurbiltzen ari dela iragartzearen praktika itzuli izatean, bakea ezinezkoa dela kapitalismoak tokiren batean bizirik dirauen bitartean eta abar. Denetan esentzialena da topiko horiek, nahiz eta baliagarriak edo beharrezkoak izan ikuspuntu errusiaretik, arazo erreala lausotu egiten dutela hautematea da, zeina inperialismo errusiarra baita³⁶ eta sozialismoarekin batere zerikusirik ez duena, bosgarren kolomei buruzko kontsiderazioez landa. Errusiak sortzen duen kezka ez da sozialista izatea, Errusia izatea baizik. Izatez eraentza stalinista esentzialki autokrazia militarista bat da, zeinek alderdi bakarraren eta zorrozki diziplinatuaren bidez agintzen duenez eta prentsa-askatasunik onartzen ez duenez, faxismoaren ezaugarri definitzaileenetako baten jabe baita³⁷ eta masak zentzu marxistan ustiatzen baititu. Uler dezakegu, eta gupi intelektual amerikarra horri sozialismo demokratiko deitzeko bezain murgildua dagoelako –ikuspegiz, gutxienez–, nahiz eta sinetsia izateko itxaropen horretan inplikaturik doan gure adimenari egindako irainak laidatzen gaituen. Baina duen delako eraentza horrek Europa eta Asia osoan zehar bere nagusigoa hedatzeko agerian dago joera bistakoa ez dagoela identifikatzerik sozialismoak hedapenerako daukan ezein joerarekin. Domeinu errusiarraren hedapenak sozialismoaren alde jokatu duela ere ez da segitzen hitzaren zentzurik ohikoenetan. Nahi izan ala ez, autokrazia errusiarraren (ikus bedi aurreko kapituluaren azken atala) interes erreal edo balizkoen baitan dago erabat. Hori argi daiteke stalinismoaren erlijio-politikaren kasu analogoaren bitartez: autokratari komeni zitzaion bitartean, erli-

jioa herriaren opioa zen; Eliza Ortodoxoa munduko alderdi batzuetan tresna baliagarriagoa gerta zitekeela Komunismoa edo Sindikatuen Mundu Federazioa (1945) baino hauteman zuen bezain laster, Errusia «Kristo maite zuen nazio» aldarrikatu zuen, eta, tsarren «Sinodo Santuko prokuradore nagusiaren» tokian, Patriarka berri batekin batera –zeina berehala agertu baitzen ekialdeko herrialdeen turista suhar– «Eliza Ortodoxoaren arazoen kontseiluko» lehendakari bat jaio zen. Egia da badagoela arrazoi indartsu bat industriaren nazionalizazioa espero izateko Errusiak kanpo-politikako kontsiderazio taktikoek traba egin gabe jarduteko askatasuna duen herrialde guztietan; industria nazionalizatu bat errazagoa da maneiatzeko eta esplotatzeko konkistatzaile batentzat eta ezin daiteke oposizio gune bihur. Baina ez dago beste arrazoirik. Eta ezinezkoa da esatea zio hori gailenduko den ala ez beste zio ahalgarrien gainetik³⁸. Are kontzebigarri ere bada errusiar potentziaren aurreratze handiago bat azkenerako eragozpen bat gerta daitekeela garapenatarako sozialismo hitza jende gehienak erabiltzen duenean pentsatzen eta sentitzen duen norabidean.

Arazo errusiarra arazo sozialistarekin nahastea –Errusiaren zerbitzuan egindako trikimailu bat izan ezik– munduaren egoera soziala oker epaitzea da. Arazo errusiarra bi eratara bakarrik dauka pisua munduaren egoera sozialaren gainean. Lehenik, bere egoeraren logikaren indarrez, talde komunisten presentzia eta hegal prokumunistena talde ez-komunistetan langile-politikak erradikalizatzen joko du. Hori ez da beti horrela; komunista frantsesek, adibidez, bi sozializazio-neurri garrantzitsuren aurka eman zuten botoa. Baina oro har, eta nahiz eta herrialde kapitalistak desantolatze asmoarekin bakarrik bada ere, egoeraren logika hori baieztatu egin daiteke. Bigarrenik, gerra baten kasuan, gaurko baldintzetan gerra orok dituen ondorio sozial eta politikoak izango ditugu; ustez sozialista den herrialde baten eta ustez kapitalista den herrialde baten arteko gerra izateak ez du alde handirik ekarriko.

Oharrak

Egilearen hitzaurrea

¹ Ahalik eta gutxienak izango dira Marxen idatzien aipamenak eta ez dut emango daturik haren bizitzaz. Horri alferrikako deritzot, zeren lehendabizikoen zerrenda bat eta azkenari buruzko ikuspegi orokor bat nahi duen edozein irakurlek behar duen guztia aurkituko baitu gure asmorako edozein hiztegitan, batez ere *Encyclopedia Britannica* edo *Encyclopedia of the Social Sciences*. Marx aztertzeke egokiena da *Das Kapitalen* lehen liburukitik hastea. Nahiz eta arestikoagoak diren lan mordoa egon, uste dut F. Mehringen biografia dela oraindik ere hoberena, irakurle ez espezializatuaren ikuspegitik bederen.

I

¹ Marxismoaren izaera erlijiosoak azaltzen du marxismo ortodoxoak bere aurkarietako izan duen jarrera berezia ere. Harentzat, fede bateko edozein sinistunentzat bezala, aurkaria ez dago errore batean soilik, bekatuan baizik. Disidentzia ez da intelektualki bakarrik kondentatzen, bai eta moralki ere. Ezin daiteke egon ho-

rretarako inolako aitzakiarik mezua agerrarazia izan den unetik.

² Horri bapikatze baten itxura har lekieke. Baina zilegi bekigu aipuak ematea: «Burgesia... lehena izan da erakusten gizakiaren jarduerak ekar dezakeena. Miresteakoak egin ditu Egiptoko piramideak, erromatar akueduktuak eta katedral gotikoak askoan gaintitzen dituenak. Burgesiak... nazio guztiak herrestan daramatza... zibilizaziora... Hiri eskergak sortu ditu... eta landa-bizitzaren idioziazatik biztanleriaren parte ohargarri bat erredimitu du... Burgesiak, ozta-ozta mende batekoa den haren dominazioan aurreko belaunaldi guztiek inoiz sortu ez dituzten bezalako indar ekoizle masiboago eta eskergagoak sortu ditu». Ohar bedi aipaturiko burutzapen guztiak burgesiarri bakarrik egozten zaizkiola, ekonomialaria burges askok zinez nahiko luketena baino gehiago dena. Horixe da nik ulertarazi nahi dudana guztia gorago-ko pasarteetan eta gaur eguneko marxismo herritartuaren ikuspegitik edota ez-marxista erradikal modernoek Veblenen estilokoen iritzietatik nabarmen aldentzen dena. Zilegi bekit esatea halaber horixe besterik ez dela inplizitu doana kapitalismoa-

ren burutzapenei buruz bigarren atalean esango dudan guztiaren barruan.

II

¹ Lehen aldiz eraso birrintzaile hartan argitaratua Proudhonen *Philosophie de la Misère*-ren aurka, izenburu honekin: *Das Elend der Philosophie*, 1847. Beste bertsio bat *Manifestu Komunistan* sartu zen, 1848an.

² Aurreko pasarte Max Weberren erlijioen soziologiari buruzko ikerketez ari da eta, bereziki, *Die protestantische Ethik und der Geist des Kapitalismus* haren azterketa sonatuaz, haren obra osoetan birsortua.

³ *Wissenssoziologie* hitz alemaniarra eta hemen aipatu beharreko izen hoberenak Max Scheler eta Karl Mannheim dira. Azken horren gaiari buruzko artikulua *Handwörterbuch der Soziologien* agertuak, sarreratzat balio dezake.

⁴ Zenbait katoliko erradikal aurkitu ditut, haien artean apaiz bat, denak katoliko debotoak iritzi horren aldekoak eta beren burua benetan, marxista aitortzen zuten guztian, fedeari buruzko gaietan izan ezik.

⁵ Engelsek hau argi eta garbi onartu zuten bere bizitzako azken aldian. Plekhanov oraindik haratago joan zen norabide horretatik.

⁶ Irakurlea ohartuko da klaseak direnaz eta haien existentzia eragiten duenaz izan litezkeen iritziek ez dutela determinatzen unibokoki klase horien interesak zer diren eta klase bakoitzak nola jokatu duen –haien gidariek, adibidez, edo masak– «hark» kontsideratzen edo sentitzen

duenean, epe labur edo luzean, bere interesa edo interesak direla. Talde-interesen arazoa arantzez eta tranpaz beterik dago, aztertzen diren taldeen izaeraz erabat independenteki.

⁷ Beste adibide bat inperialismoaren teoria sozialista da, aurrerago aurkeztuko dena. Halaber, merezi du aipaztea O. Baurren saiakera interesgarria Inperio austro-hungariarra populatzen zuten arraza desberdinen arteko antagonismoak interpretatzeko kapitalista eta langileen arteko klase-borrokazko terminoetan (*Die Nationalitätenfrage*, 1905), nahiz eta analistaren trebeziak instrumentua zeinen desegokia den erakusteko bakarririk balio duen.

⁸ Ikusi *Das Kapital*, I liburukia, XXIV. kap.:»Jatorrizko metaketaren sekretua».

⁹ Ez dut jarraituko azpimarratzen, nahiz eta aipatu behar dudana, teoria klasiko bera ez dela Marxek uste zuten bezain erratua. «Aurrezkia», zentzurik literalenean, «jatorrizko metatze»-metodo bat izan da, batez ere kapitalismoaren lehen etapetan, zeina ez baita garrantzirik gabea. Gainera, bazen horren antzekoa zen beste metodo bat, baina ez identikoa. XVII. eta XVIII. mendeetan bazen fabrika bat baino gehiago gizakiak bere eskuz eraiki zezakeen estalpe bat baizik ez zena eta funtzionatzeko ekiporik sinpleena baizik behar ez zuena. Kasu horietan behar zen gauza bakarra kapitalistaren esku-lana zen ikuspegian, eta gainera aurrezki-funts murriz bat, eta garuna, noski.

¹⁰ Idazle sozialista askok, Marxez landa, erakutsi dute konfiantza ez-kritiko hori indarraren elementuko

balio azaltzailean eta hori erabiltzea ahalbidetzen duten bitarteko fisikoen gain buruturiko domeinuan. Ferdinand Lassallek, adibidez, gobernuaren autoritateaz ez du beste azalpenik ia ematen kainoi eta baioneten indarra izan ezik. Niretzat miresmen-iturria da hainbeste jende itsua izatea halako soziologia baten kontsistentziaren ezaren aurrean eta, jakina, askoz egokiagoa izango litzateke esatea botereak kainoen gaineko (eta haiek erabili nahi dituzten gizakien gaineko) domeinura eramaten duela eta ez kainoen gaineko domeinuak boterea sortzen duela.

¹¹ Hauxe da Marxen teoriak K. Rodbertusenarekiko duen ahaidetasunetako bat.

¹² W. Sombart, *Theorie des modernen Kapitalismus* obraren lehen edizioan, kasu horiei garrantzi handiagoa ematen saiatu zen. Baina Lurraren errentaren metaketaren gainean erabat jatorrizko metaketa oinarritzeko haren ahaleginak agerian jarri zuen haren ikuspen-eza, azkenean Sombartek berak berrezagutu zue-
nez.

¹³ Honek egia izaten jarraitzen du, nahiz eta onartu lapurreta eman lekiokkeen hedadura handiengan folklore intelektualaren esfera gainditu gabe. Lapurreta, izan ere, kapital komertzialaren sorreran sartu da garai eta toki askotan. Feniziarren aberastasunak, bai eta ingelesenak ere, adibide ezagunak eskaintzen ditu. Baina kasu horretan bertan ere, Marxen azalpena desegokia da, zeren, azken finean, lapurreta zoriduna lapurtzen duenaren nagusitasun pertsonalean oinarritu behar baita.

Eta, hori onartzen denean, estratifikazio sozialaren teoria oso bestelako bat iradokitzen da.

III

¹ Wilhelm III.aren neskalaguna, garai hartan hain inpopularra zen erregearena eta aldi hartan burgesia ingelesaren idolo bihurtu zena.

² Hala here, zalantzan jar daiteke teorema hori zela Marx berari axola zitzaion bakarra. Aristotelesen lilura iruzurrezko beraren azpian zegoen, hau da, balioa, nahiz eta prezio erlatiboaren determinazioan zeregina duen faktore bat denarren, guztiarekin ere, prezio erlatiboek eta aldaketa-erlazioek bestelako zerbait dela eta haiekiko independente existitzen dela. Merkantzia baten balioa hartan ezarritako lan-kantitatea delako baieztapena nekez adieraz dezake besterik. Hori horrela bada, orduan alde bat dago Ricardoren eta Marxen artean, zeren Ricardorentzat balioak aldaketa-balio edo prezio erlatibo besterik ez baitira. Merezi du hori aipatzea, zeren balio kontzeptu hori onartuko bagenu Marxen teoriaren parte handi batek, sostengaezina iruditzen zaiguna eta zentzugabea ere bai, halako izateari utzi egingo lioke. Baina ezin dezakegu onar, noski. Egoera ez litzateke hobetuko, marxologo batzuen arabera, Marxen lanaren kantitatearen balioen irizpidea onartuko bagenu ere, «substantzia» independente bat izan ala ez instrumentu izateko balio dutela bakarrik, zeinekin destolestuko bailitzateke errenta sozial totalaren banaketa lan-errenta eta kapital-errenta gisa (prezio erlatibo espezifikoen teoriak orduan biga-

rren mailako garrantzia izango luke). Izan ere, laster ikusiko dugunez, Marxen balioaren teoriak huts egiten du egiteko horretan ere (suposatuz bereiz dezakegula egiteko hori prezio espezifikoen arazotik).

³ Bigarren supostuaren beharrezan bereziki suntsigarria da. Lanaren balioaren teoriak azal ditzake agian gaikuntzarengatik (lortutako trebezia) lanaren kalitate-desberdintasunak honelako eran: lan kalifikatuko ordu bakoitzari gaitze-prozesuan sartzen den lanaren kuota egoki bat gehitu beharko litzaioke, eta horrekin, printzipio orokoraren esferatik irten gabe, berdindu egin genezake langile gaitu batek egindako lan-ordua lan ez-kalifikatuko lan-ordu baten multiplo batekin. Baina metodo horrek huts egiten du adimen, borondate-indar, kemen fisiko edo zalutasunarengatik lanaren kalitatearen desberdintasun «natural»en kasuan. Orduan naturalki behereagoa den langileak eta naturalki garaiaagoa den denak egindako orduen balioaren desberdintasunetara jo behar da, hurrenez hurren, eta balio hori ezin da azaldu lan-kantitatearen printzipioz. Horixe izan zen, izatez, Ricardok egindakoa; berak dio betarik gabe kalitate desberdin horiek nolabait dagokien erlazioan jarriko direla merkatuko mekanismoaren jokoaren indarrez, eta horregatik, hitz batean, esan dezakegu A langile batek egindako lan-ordu bat N langileak egindako lan-orduen multiplo jakin baten baliokidea dela. Baina Ricardok ez dio inondik ere kontu egiten, horrela arrazonatzean, beste ebaluzio-printzipio batera jotzen

duela eta bertan behera uzten duela, izatez, lan-kantitatearen printzipioa, zeinek huts egiten baitu bere hasieragunetik beretik, bere esparru propioaren barruan, eta lanaz bestelako faktoreek esku-hartzeagatik porrot egiteko aukera izan baino ere lehenago.

⁴ Izatez, utilitate marjinalaren balioaren teoriatik ondorioztatzen da, oreka egoteko, faktore bakoitza hari irekitako erabilpen ekoizleen artean banatu behar dela, halako moldez, non edozein erabilpenetarako den azken unitateak gainerako erabilpenetarako azken unitateak sortzen duen balio bera sor dezan. Espezie eta kalitate bereko lana beste faktorerik existitzen ez bada, horrek argi eta garbi esan nahi du balio erlatiboek edo merkantzien prezio guztiek proportzionalak izan behar dutela haietan sarturik dauden lan-orduen kantitateekiko, konkurrentzia eta lanekuaren mugikortasuna perfektuak diren guztietan.

⁵ Hau da soluzioa, S. Baileyk absurdotzat jo zuena (*A Critical Discourse on the Nature, Measure and Causes of Value*, 1825), «lan-indarra eta lanaren arteko bereizpena salbuetsirik, Marxek berak oharrarazi zuenez (*Das Kapital*, I. liburukia, XIX. kap.)

⁶ Gainbalio-tipoa (ustiapen-gradua) gainbalioaren eta (alokairuen) kapital aldakorren arteko erlazio gisa definitzen da.

⁷ Geroago ikusiko dugu zurkaitz hori ordeztan nola saiatu zen Marx.

⁸ Bada, orde, artifiziozkoa ez den elementu bat eta zeina hautematea nahiz eta nahasia izan, Marxen lorpenen artean ezarri behar baita ez da

gertakari eztabidaezina, ia ekonomialari guztiek uste dutenez, bai eta gure egunotan ere, «ekoizturiko» ekoizpen-bitartekoek errendimendu garbia eman behar dutelakoa ekonomia erabat geldikorrean. Praktikan eskuarki errendimendu garbiak ematen dituztela badirudi, hori oso ongi gerta liteke ekonomia inoiz geldikorra ez delako. Kapitalaren errendimendu garbiaz Marxek ematen duen argudioa zeharbide gisa interpreta daiteke gertakari hori ezagutzeko.

⁹ Arazo horren soluzioa Marxek eskuizkribuetan sartu zuen, zeinekin Engels adiskideak *Das Kapitalaren* hirugarren liburukia, postumoa, bildu baitzuen. Horregatik daukagu geure aurrean azken finean Marxek berak esan nahiko zukeena Hori guztia gorabehera, kritikari gehienek errudun aitortu dute hirugarren liburukian lehen liburukiko teoriarekiko kontraesanean erori izanaz. Epai hori ez dago itxuraz justifikaturik. Marxen ikuspuntuan jartzen bagara, gisa honetako auzi batean gure eginbeharrara denez, ez da absurdoa kontzebiltzea gainbalioa unitate gisa kontsideraturiko ekoizpeneko prozesu sozialak sortutako «masa» bat bezala eta gero masaren banaketaren arazoan gero sartzea. Eta hori absurdoa ez bada, ahalgarria da sostengatzea merkantzien prezio erlatiboak, hirugarren liburukian deduziturik daudenez, lehen liburukiko lanaren kantitatearen teoriari egokitzen zaizkiola. Horregatik ez da zuzena baieztatzea, idazle batzuek egin dutenez, Lexisengandik Colerenganaino, Marxen balioaren teoria erabat dibortziaturik dagoela haren prezioen teoriatik eta

ez diola ezertan laguntzen hari. Baina Marxek gutxi irabaz lezake kontraesan-erru horretatik jaregina izatearekin, zeren akusazioaren gainerako guztia bortitz samarra baita. Marxen sisteman balioak eta prezioak elkarrekin nola erlazionatzen diren auziari oro har harturik egin lekiokkeen ekarpenik hoberena, eta zeinak hain zuzen ere liluratzekoa izan ez zen kontrobertsia bateko ekarpenik hoberenetako baten aipamena ere egiten baitu. L. von Bortkiewiczen lana da. «Wertrechnung und Preisrechnung im Marxischen System», argitaratua in *Archiv für Sozialwissenschaft und Sozialpolitik*, 1907.

¹⁰ Adibidez, toki batean (*Das Kapital*, I liburukia, 654 or., Everymanen ingelesezko edizioan), horri buruzko erretorika pintoreskoan gainditu egiten du bere burua, nire iritziz, historiaren interpretazio ekonomikoaren autore batentzat propioa denetik haratago joanez. Metaketa izan liteke edo ez «Moises eta profeta guztiak» klase kapitalistarentzat eta arrobaldi horiek irrigarriak irudi lekizkiguke ala ez; baina Marxengan mota horretako argudioek eta estilo horrek ezkutu ahuleziaren bat egon behar duela iradokitzen dute beti.

¹¹ Marxentzat aurrezkia edo metaketa eta «gainbalioa kapital» bihurtzea gauza bera da. Horrekin ez diot kontra egin nahi, nahiz eta aurrezte-ahalagin banakoez ez gehitu kapital erreala era beharrezko eta automatikoan. Marxen ikuspuntua, nik uste, askoz hurbilago dago egitik kontrakoa baino, nire garaikide asko aitaponteko baititu, eta ez dut uste hemen ezeztatzea merezi duenik.

12 Termino orokorretan, errenta txiki batetik, jakina, errenta handi batetik baino gutxiago aurreztuko da. Baina edozein errenta jakin batetik gehiago aurreztuko da, ez bada itxaroten horrek irautea edo urritu egingo dela itxaroten bada, oraingo mailan egonkorra izango dela, gutxienez, izango dela jakitean bada baino.

13 Marxek hau puntu bateraino onartzen du. Baina uste du, alokairuak igotzen badira eta horregatik metaketa interferitzen badute, azken horren tasa gutxitu egingo dela, «irabaz-estimulua kamusturik geratzen delako», halako moldez, non «ekoizpen kapitalistako prozesuaren mekanismoak desagerrarazi egiten baititu igaraitzaz sortzen dituen eragozpen berak» (*Das Kapital*, I liburukia, XXV. kap, 1. saila). Alabaina, mekanismo kapitalistaren orekatzeko joera hori ez dago, segur aski, zalantza gaineetik, eta haren baieztapen oro, gutxienez, arretaz kalifikatu beharko litzateke. Baina punturik interesgarriena da baieztapen hori denik eta antimarxiarrentzat kontsideratu behar dugula beste ekonomialari baten obran aurkitzearen kasuan gertatuko balitz, eta sostengagarritik daukanean, nabarmen ahultzten du Marxen argudioaren kontsistentzia. Puntu horretan, beste askotan bezala, Marxek agerian jartzen du maila harrigarri batean bere garaiko ekonomia burgesetik bere burua jaregiteko zeukan ezintasuna, zeina berak hautsi zuelakoan baitzegoen.

14 Hau ez da, noski, hobekuntza teknikoak finantzatzeko metodo bakkarra. Baina Marxek kontuan hartzen duen praktikoki metodo bakarra da.

Nola, izatez, metodo oso garrantzitsua den, hemen jarrai dezakegu puntu horretan, nahiz eta ondorio horiek berak beste metodo batzuek ere ekoizten dituzten, bereziki banquetatik dirua mailegaturik hartzeak, hau da, gordailugintzak, zeina errealki kontuan hartzekoa izango bailitzateke prozesu kapitalistaren koadro zehatza egin ahal izateko.

15 Marxen arabera, mozkinak beste arrazoi batengatik urri daitezke noski; adibidez, gainbalioaren tasa jaisteagatik. Hori gerta liteke alokairu-motatan gehikuntzak izan direlako edo murrizpenengatik (legalak, esaterako) lan-eguneko orduetan. Ahalgarrri da argudiatzea, Marxen teoriaren ikuspuntutik bertatik ere, horrek «kapitalistak» lanneskua hori aurretzen duten kapital-ondasunez ordeztara bultzatuko lituzkeela, eta horrela denbora batez inbertsioa gehitzera, merkantzia berrien eta aurrerakuntza teknikoen inpaktuarekiko independenteki. Hala ere, ezin gara auzi horietan sartu. Baina gorabehera bitxi bat ohar dezakegu. 1837an Massau W Seniorrek *Letters on the Factory Act* izeneko liburuxka bat argitaratu zuen, zeinean saiatzen baitzen frogatzen lanegunaren iraupenaren proposaturiko murrizpenak kotoiaren industrian mozkinen ezeztapena eragingo zuela. *Das Kapital*, I. liburukia, VII. kap, 3. sailean, Marxek bere burua gaingitzen du Seniorren aurkako bere dikterio uzuetan, zeina, izatez, dispartearen hurrengoa baita. Baina Marxen azkena izan beharko zukeen hori aldarrikatzen, zeren erabateko adostasunean baitago ustiapenaren haren teoria propioarekin.

¹⁶ Ikusi *Das Kapital*, I liburukia, XXV. kap, 2. saila.

¹⁷ Ondorio hori da, sarritan desjabetzaren teoria izendatzen dena, Marxengan kapitalistek elkar suntsitzen duteneko borrokaren oinarri argiro ekonomikoa.

¹⁸ Bada defentsako lehen lerro bat, marxistek, apologista gehienek bezala, hain baieztapen zorrotzak sorrazten duen kritikari kontrajarri ohi dutena. Hori datza sostengatzean Marxek ez ziola erabat utzi dominaren beste alderdia ikusteari eta sarritan «berrezegatu» zituela alokairu-igotzearen eta etabarren kasuak –izatez, inork ere egiteari utzi ezin zionez–, eta horrenbestez iradokitzen zuten Marx erabat aurreratu zitzaiola edozein kritikarik esan ziezaiokeenari. Idazle hain zehatz bat, analisi historikoaren geruza hain aberatsak bere argudiaketan tartekatzen dituenak, askoz egokiagoa da halako defentsa baterako elizako edozein guraso baino. Baina zertarako balio du hain gertakari tematua «berrezagutzeak» ondorioen gain eragina izatea uzten ez bazaio?

¹⁹ Ideia hau Marxek berak iradokia izan zen, nahiz eta neomarxistek garatua izan.

²⁰ Langabezia gisako hau bereizi egin behar da, noski, gainerakoetatik. Marxek bereziki aztertzen du jardue-
ra ekonomikoaren bariazio ziklikoei existentziari zor dien mota. Nola bi motak independenteak diren eta nola Marx, bere argudioan, sarritan bermatzen den bigaren motan lehenean baino gehiago, kritikari guztiek antza ongi egiaztatu ez dituzten interpreta-
zio-zailtasunak sortzen dira.

²¹ Honek begi-bistakoa izan behar du edozein kritikarientzat ez bakarrik *sedes materiae* azterketa baterako, in *Das Kapital*, I. liburukia, XV kap., 3., 4. eta 5. sailak eta bereziki 6.ean (non Marxek konpentsazioaren teoria, geroago aipatuko dena, lantzen baitu), baizik eta XXIV eta XXV. kapituluenetik ere, zeinetan errepikatu eta lantzen baitira puntu berak koadro, partez, desberdin batean.

²² Edo zuzen bihur daiteke esanahia galarazi gabe. Puntu zalantzakor banaka batzuk badaude Ricardoren argudiaketan, zeinak, segur aski, ekonomialariei iraunaraztea gustatuko litzaiekeen teknika deitoragarri batengatik baitira.

²³ Jakina, beharrezkoa da etengabe-ko sortzearen nozioa azpimarratzea. Erabat bidegabekoa izango litzateke Marxen hitzekiko, bai eta haien zentzuarekiko ere, imajinatzea, kritikari batzuek egin dutenez, hark baieztatu zuela makinismoa sartzeak betiko langabezia geratu ziren pertsonak jaurti zituela lanetik. Berak ez zuen ukatu langabetuak hurrupatzaren ahalasuna, eta huts egiten du kritikak sortzen den langabezia oro beti erabat hurrupatua izaten delakoa oinarritzat hartzen duena.

²⁴ Nahiz eta interpretazio hau modan jarri den, bi autore bakarrik aipatuko ditut, zeinetariko bat haren bertsio modifikatuaren erantzulea baita, aldiz, besteak haren iraupenaren fede ematen baitezake: Tugan-Baranowsky, *Teoretische Grundlagen des Marxismus*, 1905, zeinek kondenatu baitzuen Marxen krisiaren teoria, eta M. Dobb, *Political Economy and*

Capitalism, 1937, harekiko begikotasun handiagoa erakusten duena.

²⁵ Auzi honi buruzko Engelsen iritzia hobekien aurkezten den tokia, zentzu batean topiko bat dena, *Herrn Eugen Dührings Umwälzung der Wissenschaft*, 1878 liburu polemikoa da, zeinaren auzitako pasartearen aipaturiko literatura sozialistako pasarteetako bat izatera iritsi baita. Hartan Engelsek aurkezen oso grafiko bat egiten du krisiaren morfologiaren, zeina zalantzarik gabe on samarra baita hitzaldi herritarretarako; baina halaber uste du, azalpen bat bilatu behar zen tokian, «merkatuaren hedapena ezin daitekeela joan ekoizpenaren hedapenaren pauso berean». Halaber, zentzu onartzailean, aipatzen du Fourierren iritzia, *crises pléthoriques* esaldi autoazaltzaileak transmititua. ez dago ukatzerik, hala ere, Marxek idatzi zuela liburu horretako X. kapituluaren parte bat eta haren guztiaren erantzukizuna partekatzen duela.

Ohartzen naiz zirrimarra honetan dauden Engelsei buruzko iruzkin urriak izaera detraktatzailekoak direla. Hori deitoragarria da eta ez dira gizaki gailen horren meritua kaskartzeko ezein asmoz eginak. Hala ere, uste dut argi eta garbi onartu behar dela, intelektualki eta teoriarik gisa batez ere Marxen oso azpititik egon zela. Ziur egon ere ezin gaitezke beti egon haren pentsamendua beti ulertzen ote zuten. Haren interpretazioak, beraz, kontuz erabili behar dira.

²⁶ *Das Kapital*, II. liburukia, XX. kap., 4. saila. Ikusi, hala ere, *Theorien über den Mehrwert*, II. liburukia, III. kap.

²⁷ Profanoari hain begi-bistakoa iruditzen zaio aurkakoa, non erraz gertatuko litzaikekeen justifikatzea baieztapen hori, nahiz eta mundu tarte guztiaren jabe izan. Gure kontzepzioaren egiaz irakurlea konbentzi dadin Ricardoren makinismoari buruzko argudiaketa aztertzea da. Deskribatzen duen prozesuak edozein lan-gabezia-bolumen sorraraz lezake eta, hala eta guztiz ere, etengabe jarraitu sistemaren beraren porrokatzeaz aparteko beste porrokatzerik eragin gabe. Marx ados egongo zatekeen horrekin.

²⁸ Horretan ere ez dago bakarrik. Hala ere, zuzen da harengandik espero izatea, azkenerako aitortuko zukeela bere hipotesiaren ahulezia, eta komenigarri da ohartzea gai horri buruzko haren oharra III. liburukian daudela, eta ezin liteke segurtasunik izan bere behin betiko iritzia adierazten dutenik.

²⁹ *Das Kapital*, I. liburukia, XXV. kap., 3. saila. Pasarte honen ondotik urrats bat egiten du ziklo ekonomikoaren teoria modernoen aztertzaileari oso ezaguna zaion norabide batean:» Efektuak, bestalde, kausa bihurtzen dira, eta prozesu guztiko akzidente aldakorrek, zeinek beti beren baldintzak birsortzen baitituzte (letra eta nez ematea nirea da), periodizitate-forma hartzen dute.»

³⁰ Engels horretaz haratago joan zen. Marxen hirugarren liburukiari egin dako ohar batzuek agertzen dute halaber susmatzen zuela oszilazio-iraupe luzeago bat zegoela. Prosperitatearen ahulezia erlatiboa interpretatzera makurtzen bazen ere eta joan den mendeko zazpigarren eta

zortzigarren hamarkadetako depresioen intentsitate erlatiboa areago aldaketa estruktural gisa iraupen luzeagoko uhin baten depresioaldia-
ren efektu bat bezala baino (ekonomialari moderno askok bezalaxe gerraosteko bilakaerez eta bereziki azken hamarkadakoaz), horretan ikus daiteke moduren batean Kondratief-
fen obraren aurreratze bat iraupen luzeko mugimenduez.

³¹ Horretaz konbentzitzeko aski du irakurleak begirada bat ematea orrialdeko aipuari. Izatez, Marxek sarritan jolasten du ideia horrekin, uko egiten dio hartan murgiltzeari, eta hori esanguratsua da, zeren ez baitzuen orokortze-aukerarik pasatzen uzten.

³² *Das Finanzkapital*, 1910. Jakina, lehenago sarritan sortu izan ziren zalantzak, inguruabar sekundariozko sail bateana oinarrituak, zeinak sostengatzen baitziren frogatzeko Marxek garrantzi handiegia eman ziela berak egiaztatuak uste zituen joerei eta gizarte-bilakaera progresu askoz konplexuagoa eta Marxek uste baino askoz kontsistentzia gutxiagokoa. Aski bedi E. Bernstein (ikusi XXVI. kap.). Baina Hilferdingen analisiak ez du du inguruabar aringarriak aipatzen, baizik eta printzipioz borrokatzen du ondorio horren aurka, Marxen eremuan bertan kokatuz.

³³ Baieztapen hau sarritan nahastu egin izan da (baita autoreak berak ere) denbora igaro ahala fukuazio ekonomikoak gero eta ahualgo bihurtzera jotzen dutelakoarekin. Hori izan liteke horrela edo ez (1929-32k ez du ezeztatzen); baina sistema kapitalistaren egonkortasun handiago batek, hau da, gure garaiko prezioen eta

kantitateen sailen portaera nolabait tenperamentaltasun gutxiagoko batek ez du esan nahi derrigor egonkortasun handiago bat, ordena kapitalistaren gaitasun handiago baten zentzuan, erasoei aurre egiteko, eta hark ez du derrigor inplikatu ere egiten. Bi irizpideak elkarrekin erlazionaturik daude, baina ez dira gauza bera.

IV

¹ Elementu ez-profesionala indar bereziz ordezkaturik dago Marxen miresleen artean, zeinak *ekonomialari* marxista petoaren jarreraz haratago baitoaz eta eskudirua bailitzan onartzen jarraitzen baitute Marxek idatziriko guztia. Hori guztia oso adierazgarria da. Marxisten talde nazional guztietan hiru lego daude, gutxienez, ekonomialari gaitu bakoitzeko, eta ekonomialari hori bera ere ez da izaten marxista, orokorrean, atal honen sarreran definitu dugun zentzu murriztuan ez bada: gur egiten dio erlikiari, baina bizkarra ematen dio bere ikerketa egiten duenean.

² Marxista batzuek erantzungo luke ekonomialari ez-marxistek ez dutela egin, orokorrean, inolako ekarpenik egin gure aldiaren ulerkuntzarako, eta horregatik Marxen dizipuluak, guztiarekin ere, egoera hobean geratzen direla horri dagokionez. Alde batera utzirik ezer ez esatea edo zerbait erratua esatea hobe den auzia, hori ez dela egia izan behar dugu kontuan, zeren konbikzio ez-marxistako nola ekonomialariek hala soziologoek funtsezko ekarpenak egin baitutuzte, izatez, gure garaia ulertzeko, nahiz eta ia beti auzi banakoetan. Gutxiago berma daiteke uzi marxista

hori Marxen teoriak eskola austriarraren, edo Walrasen, edo Marshallenekiko erkaketa batean. Talde horietako kideak, kasurik gehienetan, era eksklusiboan eta kasu guztietan, teoria ekonomian batik bat interesaturik zeuden. Hortik dator haien ekarpena Marxen sintesiarekiko hedadurakidea ez izatea. Marxen aparatua teorikoarekin bakarrik egin liteke erkaketa bat, eta sail horretan erkaketa erabat abantailatsua izango litzateke haien alde.

³ Pentsa bedi zer huskeria erabiltzen ziren tribu-buruekiko trukean esklaboen ordeztu edo langile natiboa akuratzeko alokairu-ondasunen ordeztu. Labur-beharrez, ez dut landuko kapitalaren esportazioa, kontsideraturiko zentzuan, nola sortzen den oro har bi herrialdeen merkataritza guztizkoaren atal gisa, zeinak merkantzien beste transakzio batzuk ere bere baitan hartzen baititu, zeinek ez baitute inolako zerikusirik hemen gogotan dugun prozesu partikularrekin. Transakzio horiek erraztu egiten dute, noski, nabarmenki kapitalaren esportazio hori, baina ez dute haren esentzia afektatzen. Kontu egin gabe utzi beharko ditut, halaber, kapital esportazioaren beste mota batzuk. Eztabaidatzen den teoria ez da, eta izaterik ere ez da nahi, nazioarteko merkataritza- eta finantza-trafikoaren teoria orokor bat.

⁴ Gure gainean zintzilik dauden alferrikako tautologiaren arriskua ilustratzeko kasu banakoak ematea da onena. Hala, Frantziak Algeria, Tunisia eta Marokko konkistatu zituen, Italiak Abisinia konkistatu zuen bere aginte militarren bidez, nahiz eta horretarako presio egiten

zuten garrantzizko interes kapitalistarik ez egon. Izatez, interes horien existentzia aitzakia bat zen, justifikatzen oso zaila, eta interes horien ondorengo garapena prozesu geldo bat izan da, era aski ez-asegarrian gertatu zena, gobernuaren presiopean. Nola horri ez zaion marxista antz handirik hartuko erantzungo da ekin-tza burutu zela interes kapitalista potentzialen edo aurreratuen presiopean edo, azken analisian, horren barrenean interes kapitalistaren batek edo kapitalismoaren beharrian objektiboren batek egon *behar* duela. Eta orduan frogatzea indargarriaren bila joan gaitzeko, inoiz erabat falta izaten ez denarenera, zeren interes kapitalistak, gainerako guztiak bezala, zinez nolanahiko egoera batek afektaturik egongo baitira, zeinatik aterako baitute abantaila eta organismo kapitalistaren baldintza partikularrek beti aurkeztuko dituzten erlazioa daitezkeen zertzelada batzuk, absurdoan erori gabe, hedapen nazionaleko politika haiekin. Agerikoa denez, konbikzio aurrekontzenitu batek bakarrik, eta ez beste ezerk, gida gaitzake hori bezain eginbehar etsipenezkorako gure joairan; konbikzio hori gabe inoiz ez ginateke horretan abiatuko. Eta, izatez, ez dugu molestia hori hartu beharrik.; era berean esan genezake «gauzek horrela izan behar dutela» eta horrekin nahikotu. Hori da nik adituzera eman nahi nuen azalpen tautologiko esamoldeaz.

⁵ Halaber, ez da aski azpimarratzea herrialde guztiek beren koloniak zinez «ustiatu» dituztelako gertakaria. Zeren hori herrialde batek bere osotasunean beste herrialde baten

osotasunarekiko ustiapen bat baitzen (klase guztiek klase guztiekiko egina), eta ez du inolako zerikusirik marxiar erako ustiapenarekin.

⁶ Klasikoak ez ziren beti beren teoria ekonomikoetara mugatu. Alor horretatik irteten zirenean haien emaitzak ez dira izan adoregarriak hain zuzne ere. Hala, James Millen idazki ekonomiko hutsak, nahiz eta bereziki baliotsuak ez izan, ezin zitezkeen besterik gabe errefusa izugarri maila beherekoak zirelako. Haren aldrebeskeria –eta aldrebeskeria hutsala– gobernu eta antzeko gaiei buruzko haren artikuluetan dago.

⁷ Superstizio hori pertsona duin eta mentalitate sinpleko askok izaten dutena bezalakoxea da, zeinek azaltzen baitiote beren buruari historia modernoan hipotesi baten bitartez, zeinaren arabera ba omen da nonbait judu oso jakintsu eta asmo txarrezko komite bat, nazioarteko politika edo agian politika guztia bastidore artean gidatzen duena. Marxistak ez dira superstizio berezi horren biktima, baina haiena ez dago mailarik garaianean. Dibertigarria da ohartzea, teoria bati edo edo besteri aurre egin diodanean, beti zailtasun handi bat sentitu dudala asetzen ninduen modu batean erantzuteko. Hori ez zen egitate hutsezko baieztapenen errefusapena oinarritzea beti zaila izaten delako inguruabarrarengatik bakarrik. Zailtasun nagusia nazioarteko negozioei eta haietako pertsonaiei buruzko lehen eskuko informazioa izaten ez duten pertsonen absurdoa hautemateko organorik ez izatetik ere badator.

⁸ Ikusi halaber II. atala. Atarikoa.

⁹ Ikusi III. kap., 7. saila.

¹⁰ Ikusi III. atala, XIX. kap.

¹¹ Puntu hau jasotzea komeni da aurrerago berriz horretara itzultzeko. Behin eta berriz egingo dugu horren aipamena, eta, besteak beste, «denboraren betetasun» horren irizpideak eztabaidatuko ditugu.

¹² Karl Kautskyk, *Theorien über den Mehrwert*-en hitzaurrean, sozialismo marxiarrantzat 1905eko iraultza bera ere errebindikatzen zuen, nahiz eta agerikoa izan hartan ezer sozialistatik egon bazen intelektual banaka batzuen fraseologia izan zela.

¹³ Argudio hori askoz haratago eraman liteke. Bereziki ez dago ezer sozialistatik lanaren balioaren teoriarik, eta hori onartuko du, noski, teoriaren bilakaera historikoarekiko ezaupidea duen orok. Eta hori bera egia da (esamoldea bera salbuestirik, noski) ustiapen-teoriari buruz. Solik berrezagutu behar dugu gainbalioen existentzia, Marxek hala izendatuena –edo, gutxienez hala zen– beharrezko baldintza bat zela zibilizazio kontzeptuaz ulertzen dugun guztiaren sorrerarako (eta hori, izatez, zaila izango litzateke errefusatzen), eta hor dago guztia. Sozialista izateko ez da da beharrezko, noski, marxista izatea; hala ere, ez da aski marxista izatea ere sozialista izateko. Ondorio sozialista edo iraultzaileak edozein teoria zientifikori ezar dakizkioke, baina ezein teoria zientifikok ez ditu derrigor inplikatzeko. Bernard Shawk nonbait amorru soziologikoko egoera gisa deskribatzen duen egoeran ere ez gintuzke ezeinek mantenduko, haren

egileak bere bidetik alde egiten ez badu behintzat hori sorrazteko.

V

¹ Bada, hala ere, beste metodo bat ageriko, baina gogaikarri diren egiei aurre egiteko, hau da: haien hutsalke-riaz iseka egitearen metodoa. Iseka horrek ezeztapen batek adinako zer-bitzua egiten du, zeren batez besteko publikoa erabat ezgaia baita, oro har, iseka horrek sarritan ezeztapen baten ezintasuna estaltzen duela ulertzeko; hona hemen psikologia sozialeko fenomeno interesgarri bat.

² A. F. Burns: *Production Trends in the United States Since 1870*, 262 or.

³ Ezin gaitezke sar hemen arazo honetan. Zerbait esango dugu horretaz, hala ere, hurrengo kapituluari berriz aurkituko dugunean. Azterketa osoagorako ikus bedi *Business Cycles*, kap. IX. nire liburua.

⁴ Ikusi W. M. Persons: *Forecasting Business Cycles*, XI. kap.

⁵ Murrizketa hori, izatez, absurdoki handia da. Ikus bitez, halaber, F.C.Mills irakaslearen estimazioa, ehuneko 3,1ekoa 1901-1913 aldirako, eta ehuneko 3,8 1922-1928 aldirako (eraikuntz akanpo), *Economic Tendencies in the United States*, 1932.

⁶ «Kontsumoak» kontsumo-ondasun iraunkorrak automobilak, hozkailuak eta etxebizitzak eta antzekoak hartzen ditu bere baitan. Ez dugu egiten bereizketarik kontsumo-ondasun iraisekoen eta batzuetan «kontsumo-kapital» deitu izan denaren artean.

⁷ Hau da, buruko batez besteko errenta gehituko litzateke %1 3/8ko

interes konposatuko tasaren arabera. Halaberrez Ingalaterran, lehen mundu-gerraren aurreko mendean, biztanleria-buruko errenta erreala ia zehazki tasa horren arabera gehitu zen (ikusi Lord Stamp, *Wealth and Taxable Capacity*). Ez zaio eman behar garrantzi handirik bat etortze horri. Baina uste dut gure kalkulutxo ez dela aldrebeski zentzugabea. *National Industrial Conference Board Studies* 241. zenbakian, I taulan, 6 eta 7 orrialdeetan, aurkitzen dugu «*per capita* lortutako errenta nazionala», *Federal Reserve Bank of New York* eta *National Industrial Conference Board*en bizi-kostuaren tasen arabera zuzendua 1929an 1829ko zifraren laukoitza baino zertxobait gehiago zela, aurrekoen antzekoa gertatuz, nahiz eta oraindik zalantza larriagoak izan haren benetakotasunaz.

⁸ Ikusi Stamp, *op. cit.* Fenomeno bera beha daiteke nahikoa informazio estatistiko duten herrialde guztietan, baldin eta horri estatistika dugun aldietako sarturik dauden hedadura desberdineko zikloen efektu perturbatzailea kentzen badiogu. Wilfred Paretok asmatutako errentaren banaketaren (edo errenten desberdintasunaren) neurriari objektzioa egin lekiok. Baina gertakaria bera independentea da neurketa-prozedura horren akatsekiko.

⁹ Horiek «iraupen luzeko uhinak» dira, ziklo ekonomikoaren literaturan N.D. Kondratieff izenarekin asoziatutik daudenak.

¹⁰ Hau, jakina, nekazaritza-emaitez aplikagarria da, zeinen ekoizpen masibo merkea enpresa kapitalistaren

obra izan baita erabat eskala handian (burdinbideak, itsas garraioak, nekazaritza-makineria, ongariak eta abarrena).

¹¹ Serie hori grafikoki marraztua eta sarritan aztertua izan da. Ikusi, adibidez, A. C. Pigou, *Industrial Fluctuations*, edo nire *Business Cycles*. Badirudi herrialde bakoitzean langabeziaren gutxienezko murriztezin bat dagoela eta, horri gainezarririk, mugimendu zikliko bat, zeinaren osagai bortitzenak bederatzi-hamar urteko aldia baitu.

VI

¹ Proposamen hau, printzipio orokorren arabera, edozein serie tenporal historikori aplikagarria da, zeren eta sekuentzia historiko kontzeptuak berak egitura ekonomikoan eraldakuntza atzeraezinak jazotzea inplikatzten baitu, zeinek kantitate ekonomiko eman ororen legea afektatuko dutela espero izatekoa baita. Justifikazio teoriko bat eta, printzipioz, tratamendu estatistikoa bat, beraz, beharrezkoak dira estrapolazio apalementarako ere. Hala ere, azpimarra daiteke gure kausa, neurri batean, faboratu egiten duela, ekoizpen-serieen konbinazioak barneharturiko alor zabalaren barruan, elkarrekiko konpentsatzeak, halako maila bate-raino, sail banakoen berezitasunak.

² Ekonomialari *klasiko* esamoldea liburu honetan ekonomialari ingeles gailenak izendatzeko erabiliko da, zeinen obrak 1776 eta 1848 bitartean agertu baitziren. Adam Smith, Ricardo, Malthus, Senior eta John Stuart Mill dira izen nabariak. Garrantzitsua da hori gogoan hartzea,

zeren azken boladan modan jarri baita esamolde horren erabilpen askoz zabalagoa.

³ Irakurleak gogoan izango du nola azpimarratzen nuen autore baten teoria eta intuizioaren arteko desberdintasuna Marxen kasuan. Nolanahi ere beti da garrantzitsua gogoraraztea gauzak beren ikuspegi zuzenean ikusteko gaitasuna balitekeela elkar-turik agertzea, eta askotan ez da egoten ere, zuzen arrazonatzeko gaitasunari, eta alderantziz. Horra zergatik gizaki bat oso teoriarari ona izan daitekeen eta, hala ere, erabateko aldrebeskeriak nola esan ditzakeen egoera historiko zuzen bat bere osotasunean diagnostikatzeko egitekoari aurre egin behar dion bakoitzean.

⁴ Marshallen *Printzipioak* (lehen edizioa, 1890), eta Wicksellen *Hitzaldiak* (lehen edizio suediarra, 1901; itzulpen ingelesa, 1934) obrek eskubidea dute hemen ematen diedan lehentasunerako gogamen askoren baitan izan duten eraginarengatik haien prestakuntza-aldietan eta teoria espiritu erabat praktikoz landu dutelako. Oinarri zientifiko hutsaren gainean aurrentasuna Leon Walrasen obrari eman behar zaio. Amerikatik J.B.Clark, Irving Fisher eta F.W. Taussigen izenak aipatu behar dira.

⁵ Ondorengo arrazoiketa bat aurreraturaz (ikusi *infra* VIII. kap.§ 6), laburki argituko dut ohar honetan goragoko pasartea. Lukro-ekonomia-ren mekanismoaren analisiak ez darama bakarrik printzipioarekiko salbuespenak aurkitzera, zeinaren arabera konkurrentzia industrialak ekoizpena ahalik eta gehien jasotzera jotzen baitu, baizik eta printzipio

horren berorren froga aurkitzeak beharrezko egiten baititu hipotesiak, pellokeria bat baino askoz gehiago ez izatera murrizten dutenak. Haren balio praktikoa, hala ere, bereziki kalte-turik uzten dute honako bi kontsiderazio hauek:

1. Printzipioa, frogatua izan daitekeen neurrian, oreka egonkorreko egoera bati aplikagarri zaio. Errealitate kapitalista, ezer baino lehen eta azken finean, aldaketa-prozesu batean datza. Konkurrentzia-erantzeko enpresa baten prestazioa preatzeko ia ez du garrantzirik konkurrentziak ekoizpena ahalik eta gehienera jasotzera joko ote lukeen auziak prozesu ekonomikoaren oreka geldikor perfektuko egoera batean.

2. Printzipio hori, Wicksellek formulatzen duenez, proposomen askonahiago baten hondarra da, hau da: teorema bat, zeinaren arabera konkurrentziako industriak ahalik eta asetatsun handieneko egoera bat ezartzera jotzen baitu. Baina teorema hori, nahiz eta magnitude psikiko ez-behagarriez hitz egitean kontrajar lekiz-kioken objektio serioak alde batera utzi, aise ikusten da, hutsalkeriara murrizturik, zeinahi direlarik ere datuak eta gizarte baten ordenazio instituzionala bereziki, giza ekintza, jarduera arrazionala den heinean beti saiaturiko baita ahalik eta etekin handiena lortzen edozein egoera jakinetatik. Izatez, ekintza arrazionalaren definizio batera murrizten da eta, horregatik, gizarte sozialistari aplikagarri zaizkion antzeko teoremekin erka baitaiteke, adibidez. Baina gauza bera esan daiteke ahalik eta ekoizpen handienaren printzipioaz.

Ez bata eta ez besteak ez dute formulatzen konkurrentziako enpresa pribatuaren ezein bertute espezifiko. Besterik gabe, esan nahi du, bertute horiek konkurrentziaren *logikak* bere baitan dituenak.

⁶ Gaur eguneko kontzepzioak harri-garri gogorarazten duen era batean Adam Smithen nabarmendu zuen abar ekonomiko bakoitzaren eta interes publikoaren artean dagoen ezadostasuna bera ere, eta azken horren kontra zuzenduriko konspirazioez hitz egiten du, zeinak negozio-gizonen arteko edozein otoruntzatan sorzitezkeela uste baitzuen.

⁷ Augustin Cournot, 1938.

⁸ Hau da arrazoa, zeinaren bidez konkurrentzia ez-perfektuaren ondorengo teoria oso ongi Marshallengaino atzeraraz baitaiteke. Landu ez bazuen ere, fenomeno a tesi hori landu duten gehienek baino zehatzatsun handiagoz ikusi zuen. Batez ere, Marshallen ez zuen haren garrantzia bapikatu.

⁹ Ikusi bereziki E.S. Chamberlin: *Theory of Monopolistic Competition*, eta Joan Robinson: *The Economics of Imperfect Competition*.

VII

¹ Izatez, ohar eta teorema hauek ez dira erabat asegarriak. Konkurrentzia ez-perfektuaren teoriaren aurkezpen ohikoek ez diote egiten behar besteko jaramonik kasu ugari eta garrantzitsuei, zeinetan konkurrentzia ez-perfektuaren emaitzak, bai eta teoria egonkor baten mailan ere, konkurrentzia perfektuarenetara hurbiltzen baitira. Badira beste kasu batzuk zeine-

tan ez baitira hurbiltzen, baina konpentsazioa eskaintzen dute, nahiz eta ekoizpen-tasa batean ez sartu, ekarpena egiten baitiete, hala ere, elementuei, zeinak ekoizpen-tasak neurtzen ahalegintzen baitira azken finean, hau da: enpresa batek bere merkatua defendatzen duen kasuak, adibidez, bezeriarentzako kalitate eta zerbitzuaren ospea eginez. Hala ere, auzia sinpletzeko ez gara teoria horren eztabaidan sartuko, haren alor berean kokatuz.

² Iraultza horiek ez dira atergabeak zentzu hertsian; oldarraldi ez-jarraitutan gertatzen dira, baretasun erlatibozko denboraldiez elkarrekiko berezietan. Hala ere, prozesuak bere osoan atergabe dihardu beti iraultza bat edota iraultza baten emaitzak hurrupatze bat beti dagoelako zentzuan, bi gauzen artean ziklo ekonomikoak sortuz.

³ Ulertu behar da ikuspegiaren modifikazio horrek errendimendu ekonomikoaren gure preziazioa bakarrik afektatzen duela eta ez gure judizio moral. Haren autonomiari esker, onarpen edo gaitzespen moralak erabat independenteak dira emaitza sozialen (edo beste edozeinen) gure preziazioarekiko, sistema moral bat, utilitarismoa kasurako, hartzen ez badugu behintzat, zeinak esekiarazten baitu *ex definitione* emaitza horietatik onarpen edo gaitzespen moralak.

⁴ Muga-kasu izaera hau agerian jarritzen da teorema batean, zeina sarritan aipaturik ikusten baitugu konkurrentzia ez-perfektuaren teoriaren aurkezpenetan, hau da: konkurrentzia ez-perfektuzko egoeran lan egiten duten

enpresa industrial edo komertzialek irrazionalki txikiak izatera jotzen duteneko teorema. Nola aldi bereana sostengatzen den konkurrentzia ez-perfektua industria modernoaren ezaugarri nagusia dela, harriturik galdetu behar diogu geure buruari zein mundutan bizi diren teorialari horiek, ezik muga-kasuetan bakarrik, pentsatzen dutela, lehenago esaten zenez.

⁵ Ofentsiba berritzaile horren mehatxu hutsak ezin dezake ezarri bere eragin diziplinatzailea prezioen gain, txikizkako dendari txikiak higitzen diren baldintza pertsonal eta ingurumenezkoetan, zeren txikizkari apala lotuegi baitago gehiegizko kostu-egituraren pean, eta, mugakizun gaindiezinen barruan bere negozioa zuzentzeko gai bada ere, ezin da inoiz egokitu lehiakideen metodoetara, zeinek bitartekoak baitituzte hark erosten ditueneko prezioetan saltzeko.

VIII

¹ Teorialariek jotzen dute errore larrian eroria dagoela uste izatera ahaltasun hori onartzen duen oro eta ondoren frogatzera bankuen edo aurreztaile pribatuen maileguen bidezko finantzazioa edo, enpresa publikoen kasuan, errentaren gaineko zerga baten bidezko emaitzez finantzatzea askoz arrazionalagoa dela murrizpen-politika baten indarrez bildutako mozkinen gehiegiz buruturiko finantzazioa baino. Portaera ekonomikoko sistema batzuentzat arrazoi osoa du; beste kasu batzuetan erabateko oker daude. Nik uste dut errusiarraren izaera nola kapitalismoa hala komunismoa azken kategoria

horretakoak direla. Baina puntu nabarmena da kontsiderazio teorikoek, batez ere epe laburreko kontsiderazio teorikoek, ezin dutela arazoa ebatzi (hurrengo atalean aurkitu duguna), nahiz eta ebazten laguntzen duten.

² Batez ere erraza da frogatzea ez duela zentzurik eta kalte handiak egiten dizkiola «prezioen parekotasunak» mantentzera bideraturiko politikari.

³ Ekonomialari batzuek, hala ere, bitarteko horiek beroriek ere traba egiten diotela progresuari, zeinak nahiz eta ekidinezinak izan gizarte kapitalistan, ezabatu egingo bailirate gizarte sozialistan. Horretan bada egia den zerbait. Baina ez du afektatzen patenteen bidez emandako babesa, azken analisian, lukro-ekonomia bateko baldintzetan, bulkada-faktorea eta ez inhibizioko delako baieztapena.

⁴ Nik uste dut gehituriko mugakizuna baztertu egiten duela aurreko proposizioak sor lezakeen eskandalukausa bidezko oro. Mugakizun hori behar beste esplizitua ez den kasuan, errepikatutzat eduki dezazuela erregutzen dut aspektu moralak iraun egiten duela kasu honetan, denetan iraun behar duen bezala, argudiuo ekonomikoak batere afektatu gabe. Gainerakoan, gogoeta egin beza irakurleak, zalantzarik gabe egintza kriminalak izanik ere, epaile edo epaimahai zibilizatu orok kontuan hartuko duela ondorengo asmoa, zeina lortzeko egin baita krimena eta ondorio desberdinetara iritsiko dira egintza kriminalaren emaitzak sozialki desagarriztat dituzten ala ez.

Beste objektio bat egokiagoa litzateke. Enpresa batek horrelako bitarte-

koetara joz bakarrik aurrera egin badezake, ez al du frogatzen berez inguruabar horrek komunitateak ezin duela lortu hartatik inolako irabazi sozialik? Irizpide hori bermatzeko oso argudio sinplea ideia daiteke. Baina *caeteris paribus* erreserba zorrotz bati finkaturik dago, alegia, baldintza-multzo baterako bakarrik balio dutela, zeinek gutxi gorabehera suntsipen sortzailearen prozesua baztertzea esan nahi baitu, zeina errealtate kapitalista baztertzea adina baita. Horretaz gogoeta eginez onartuko da, bateraezintasun hori frogatzeko, patenteen kasuan goian eztabaidatzen diren praktiken analogia aski dela.

⁵ Puntu horren adibide argigarri on bat –izatez, gure argudio orokorreko puntu askorena– automobilaren eta zeta artifizialaren industrien gerraosteko historia da. Lehenak oso ongi argitzen ditu konkurrentzia «araztua» dei genezakeenaren izaera eta balioa. Oparoaldia 1916an amaitu zen. Hala ere, gero industrian enpresa-kopuru handi bat metatu zen, zeinetarik gehienak 1925erako ezabatuak izan baitziren. Hil-ala-biziko borroka uzur horretatik hiru concern sortu ziren, orain salmenta guztiaren ehuneko 80 baino gehiago hartzen dutenak. Lortutako posizioaren presiopean daude, salmenta- eta kolokazio-zerbitzuko antolakuntza ongi landu batean, ata abarrean; beren ekoizkimen kalitatea mantendu edo hobetzeko edozein hutssegitek edo konbinazio monopolistikoko edozein ahaleginek lehiakide berriak lituzke. Beren artean, hiru concernak elkarrekiko errespaketuzko deitu beharko litzatekeen erabatean portatzen dira konkurrentzia-

koan baino areago: eraso-bitarteko batzuk erabiltzeari uko egiten diote (bestalde, konkurrentzia perfektuan ere erabiliko ez liratekeenak); erritmo berean mantentzen dira, halako irabazi marjinal batzuk lortzen saiatuz. Horrek hamabost urte baino gehiagoko iraupena du dagoeneko, eta ez da agerikoa, baldin eta denboraldi horretan teorikoki perfektua den lehiakidetzaren baldintzak nagusi izan balira, orain publikoari auto hobeak edo merkeagoak eskainiko liratekeenik, ez eta langileei soldata altuagoak ordainduko litzaiekenik, ez eta enplegu ugariago eta egonkorragoa emanago litzaiekeenik. Zeta artifizialaren industriak bere aldi bikaina izan zuen oraingo mendearen bigarren hamarkadan. Aldez aurretik erabat beteriko alor batean merkantzia bat sarraraztea laguntzen duten zertzeladak aurkeztu ditu, bai eta baldintza horietan ezartzen diren neurriak ere automobilen industriak baino oraindik argitasun handiagoz. Desberdintasun batzuk ere badaude; baina, funtsean, kasua antzekoa da. Zeta artifizialaren ekoizpenaren hedapena, kantitatez eta kalitatez, denek ezaguna dute. Hala ere, hedapen hori une banako bakoitzean politika murriztaile baten buruzagitzapean egon da.

⁶ Zorigaitzez, baieztapen hori eragozpena da ahartu beharreko neurriei buruzko akordio orotarako, ia hain efektiboa, non izan baitaiteke praktika horien estatu-arauketa baten legimitasuna onartzeko ezezko erabakigarriena. Izatez, eztabaida oraindik garrantzago egin dezake. Politikariek, funtzionario publikoek eta ekonomialariek aurre egin diezaiokete nik adei-

tasunezko terminotan «errealista ekonomikoen» kontrakar menderaezina deituko nukeena. Horientzat askoz zailagoa da bere gaitasun propioz zalantzak uxatzea, zeinak gudan metatzerik ez baitago eragozterik, batez ere espiritu legalista batek nola funtzionatzen duen badakigunean.

⁷ Definizio hau aski da gure asmorako, baina ez litzateke beste kasu batzuetarako gogobetegarria izango. Ikus bedi artikulua hau: D.D. Humphrey in *Journal of Political Economy*, urria 1937, eta E.S. Mason in *Review of Economic Statistics*, maiatza 1938. Mason irakasleak erakutsi du, besteak beste, sineste orokortu baten kontrara, prezioen zurruntasuna ez doala gehituz, edo edozien kasutan, ez dela orain berrogei urte baino handiagoa, eta emaitza hori besterik gabe aski da berez zurruntsunari buruzko ohiko doktrinaren inferentzietako batzuk baliogabetzeko.

⁸ Orokorrean, prezioak ez dira hainbeste jaisten, non jaitsiko bailirateke konkurrentzia perfektuko baldintzetan. Baina hori *ceteris paribus* baka-rrik da egia, eta erreserba horrek garrantzi praktikoa guztia kentzen dio aurreko proposizioari. Dagoeneko erakarri dut arreta gai horretara eta geroago berriz itzuliko naiz hartara (§ 5).

⁹ Ongizatearen ikuspegitik gureaz bestelako definizio bat hartzea komeni da, eta prezioen bariazioak lanorduen kopuruaren terminotan neur-tzea, zeinak eskuarki beharrezkoak baitira dolarrak irabazteko, zeinekin fabrikaturiko kontsumo-ondasunen kantitateak erosteko, kalitate-aldake-

tak kontuan izanez. Dagoeneko horrela ari izan gara aurreko arrazoinaketa batean zehar. Kasu horretan agerian jartzen da epe luzera beheranzko malgutasun bat egiazki zirrargarria dena. Prezio-mailen bariazioek beste arazo bat planteatzen dute. Eragin monetarioak islatzen dituzten heinean ezabatu egin behar dira zurruntasunari buruzko ikerketa baten helburu gehienak lortzeko. Baina ez dira ezabatu behar goranzko errendimenduen efektu konbinatua ekoizpeneklo abar guztietan islatzen duten heinean.

¹⁰ Ohartu behar da, hala ere, epe labur horrek eskuarki «epe labur» esamoldeak inplikatzan duena baino gehiago iraun dezakeela, batzuetan hamar urte eta gehiago ere bai. Ez da ziklo bakarra dagoena, baizik eta iraupen desberdineko aldi bereko ziklo asko, eta garrantzitsuenetako batek, batez beste, bederatzi urte eta erdi irauten du. Prezioen doiketek behar dituzten eraldakuntza estrukturalak kasu garrantzitsuetan gutxi gorabehera iraupen hori duten aldie-tan gertatzen dira. Eraldakuntza ikusgarri horien garapen betea hau baino aldi askoz lkuzeagotan bakarrik agertzen da. Era justuan arrazoinatzeko aluminioa, zeta artifiziala edo automobilen prezioei buruz, berrogeita bost bat urteko aldi bat ikertzea beharrezkoa da.

¹¹ Hori egiteko metodo hoberena arreta handiz kasu bortxatu alegiazkoan inplikaturikoak hipotesi *guztiak* ez ezik, baizik eta kasu arruntenetakoak ere bai lantzean datza, zeinak seguruagoa baita praktikan gertatzea. Gainera, ez da ahaztu behar goranzko prezioei eustearengatik sorturiko

mozkinak balio lezakeela porrota ekiditeko edo, gutxienez, eragiketaketeko premia, zeinak biak askoz efektiboak izango bailirateke «espinal zoro» bat hasarazteko beherantz erabateko gastu guztikoa agian murrizteko baino. Ikus bitez bigarren argudioari egindako iruzkinak.

¹² Hori teoriariek adierazteko duten modua da esanez, depresioaldian, eskaeraren kurbak askozak zakarkiago desbidera litezkeela beherantz prezioei eusten dieten euskarri guztiak kenduz gero.

¹³ Intzidentalki, eztabaidatzen den moduko praktika murriztaileak, neurri prezagarriana existitzen direla suposatuz, ez lirateke efektu konpentsatzailerik gabeak gizarte-ongizatean. Izatez, progresuaren sabotajeaz hitz egiten duten kritikari berek progresu kapitalistaren erritmoak berekin daramatzan galera sozialak azpimarratzen dituzte aldi berean., batez ere erritmo horrek berekin dakarren langabezia eta bilakaera geldoago batek neurri batean bigunduko lukeena. Hala, bada, progresu teknikoak bizkorregia da ala geldoegia haien-tzat? Nahigarria litzateke adosago egotea.

¹⁴ Ohartu behar da, nahiz eta argudioa zuzenagoa izan, guztiarekin ere, askieza izango litzatekeela kapitalismoa, kontsideraturiko baldintzetan, «progresu teknikoarekin bateraezina» delako tesiaren bermetzat balio izateko. Frogatuko lukeen gauza bakarra da iraupen moderatuko atzerapen bat izatea, kasu batzuetan, oro har metodo berriak sartzeari dagokionez.

¹⁵ Jakina, beste elementu asko dago. Irakurleak ulertu beharko du, printzi-

piozko auzi banaka batzuk tratatzean, ezinezkoa dela ukitzen diren gai guztiak sakon eztabaidatzea.

¹⁶ Monopolio deitu horiek azken aldian aktualitateko lehen mailan egon dira nazio erasotzaileak lehen-gaiez gabetzeko proposamenarekiko. Eztabaida horren irakatsiek badute gure arazoarekin halako erlazio bat analogia-bidez. Hasiera batean itxaropen handiak sortu ziren arma horren ahaltsasunetan. Gero, hurbilagotik aztertzean, publikoak egiaztatu du material horien zerrendak murriztuz zihoazela oso gutxi direlako auzitako nazio horiek sortzeko edo ordeztzeko modukoak ez direnak. Eta, azkenik, bidea urratzen hasita dago, nahiz eta epe laburrean zapaltzaileen gain presioren bat eragiteko gai izan, epe luzerako bilakaera azkenerako zerrendetan zegoen guztia hutsera bihur dezakeelako susmoa.

¹⁷ Aitzakia gehiago zegoen espirituko kritikoaren gabezia horretarako Adam Smithen eta oro har klasikoen kasuan haien ondorengoengan dagoena baino, zeren horrela ere urrunegi joan baitziren. Hori gertatu zen partez monopolioaren teoria gogobetegarri bat ez utelako, eta horrek bultzatzen zituen ez bakarrik era lauso samar batean erabiltzera (Adam Smithen eta Seniorrek berak azaltzen zuten, adibidez, lurraren errenta monopolio-irabazi gisa), baizik eta monopolistaren ustiapen-boterea praktikoki mugagabetzat kontsideratzera, zeina faltua baita, noski, kasurik muturrenekoetan ere.

¹⁸ Adibide horrek argitzen du nola monopolio esamoldea ezkutuka erabilpen ez-legitimoetara nola lerratzen

den. Nekazaritzaren babesa eta nekazaritza-ekoizkinen monopolioa gauza erabat desberdinak dira. Peelek protekzionismoaren aurka borrokatzen zuen eta ez lurjabeen edo nekazarien *cartel* existentziagabearen aurka. Baina protekzionismoa borrokatzean txaloen bila ere bazebilen. Eta, begibistan dagoenez, ez zegoen horretarako bide errazagorik protekzionistei monopolista deitzea baino.

¹⁹ Irakurleak ohartu behar du, nahiz eta eztabaidaezina izan, oro har nagusitasun gisako hori ez dela gertakorra garun beherek onartzea, batez ere haien edukitzaileak erabat ezabatuz gero, eta publikoaren eta ekonomialaria arruntaren begikotasuna ahulen alde dagoela beti eta ez indartsuenen alde. Horrek izan lezake zerikusiren bat konbinazio kuasi-monopolisten kostu- edo kalitate-abantailak desestimatzeke joerarekin, zeina gaur egun hain nabarmendua baitago lehen haiek bapikatzea egon zen bezala konbinazio horien babesleen prospektuetan edo iragarki tipikoetan.

²⁰ Aluminium Company of America ez da monopolioa gorago definituriko zentzu teknikoan, beste arrazoi batzuegatik, bere eskaera-kurba propioa egin behar izan zuelako, zeina aski baita Cournot-Marshall eskemari portaera egoki oro kentzeko. Baina ekonomialari gehienek monopoliotzat jotzen dute eta guk ere horrela deituko dugu ohar honen efektuetarako, benetako kasuen urritasuna ikusirik. 1890tik 1929 arte saltzaile bakar horren oinarritzko produktuen prezioa jaitsi egin zen harik eta murrizturik geratu arte, gutxi gorabehera, ehuneko 12an, edo

bestela, prezioen mailaren bariazioaren arabera zuzenduz (Board of Laborren handizkako prezio-tasaren arabera), ehuneko 8,8 batean. Ekoizpena 30 tona metrikotatik 103.400ra gehitu zen. Patentearen babesa 1909an gelditu zen. «Monopolio» honen kritikarako kostu eta mozkinetatik ateratako argudioak onartu behar du egiaztat konkurrentziako enpresa mordo batek, gutxi gorabehera, arrakasta bera lortuko zukeela kostuak murriztera, ekoizpen-ekipoaren garapen ekonomikora, ekoizkinarantzat erabiltzen berriak hedatzera eta porrokatze hondamendizkoak ekiditera zuzenduriko ikerketan. Horrek guztiak suposatzen du, egitez, gisa horretako kritika bat, zeinak esan nahi baitu kapitalismo modernoaren propulsio-faktorea ez dela kontuan hartzen.

²¹ Ikusi, hala ere, *supra*, § 1.

²² Gai horretan sartzerik ez dugunez irakurlea R.F.Kahnen artikulura bidaliko dut: «Some Notes on Ideal Output» (*Economic Journal*, martxoa, 1935), auzi horren alderdi nagusiez arduratzen denera.

²³ Dinamika terminoa era zehaztugabe erabiltzen da eta esanahi bat baino gehiago ditu. Testuaren definizioa Ragnar Frischek formulatu zuen.

²⁴ Kontuan har bedi teoria dinamikoaren zertzelada definitzaileak ez duela inolako zerikusirik aplikatzen zaion errealitate ekonomikoaren izaerarekin. Analisisirako metodo orokor bat da prozesu partikular baten azterketa bat baino. Ekonomia geldikor bat aztertzeko erabil dezakegu, bila-kaerako ekonomia bat metodo estati-koen bidez azter daitekeen bezalaxe

(«estatika erkatua»). Hortik dator teoria dinamikoak ez eskaini behar izatea, izatez eskaini ez dionez, arreta berezirik suntsipen sortzailearen prozesuari, zeina guretat kapitalismoaren esentzia baita. Zalantzarik gabe, hobeki ekipaturik dago teoria estatikoa baino prozesu honen analisiak planteatzen dituen mekanismo-arazo ugariak tratatzeko. Baina ez da prozesu horren berorren analisi bat, eta egoera eta egitura jakinetatik sortutako perturbazio espezifikoak gainerako perturbazioak bezala tratatzen ditu. Konkurrentzia perfektuaren funtzionamendua prezatzea bilakaera kapitalistaren ikuspuntutik ez da, beraz, teoria dinamikoaren ikuspuntutik prezatzea bera.

IX

¹ Baieztapen hau urrun dago gogobetegarria izatek, baina badirudi aski dela gure helbururako. Munduaren alderdi kapitalista, oro har hartuta, garaturik zegoen noski, mugez haratago, zeinen barruan baitihardu kontrako joerak.

X

¹ Ikusi V. kap., 98 or.

² Ikusi nire obra *Business Cycles*, XV. kap.

³ Hau egia da biztanleriaren zifra absolutuaren gutxitze txiki batekiko ere, Britainia Handian gerta daitekeen berandu baino lehen (ikusi E. Charles *London and Cambridge Economic Service*, Memo. N° 40). Gutxitze absolutu ohargarri batek, gainera, beste arazo batzuk planteatu-ko litzuke. Arazo horiek alde batera

utzi behar ditugu, hala ere, zeren ez baita espero izatekoa hori ikertzen ari garen denbora-epean gertatzea. Oraindik beste arazo batzuk agertzen dira, nola ekonomikoak hala politikokoak eta sozio-psikologikoak, biztanleriaren zahartzearekin batera. Nahiz eta arazo horiek dagoeneko gorputza hartzen hasiak diren —»adinekoen alderdi bat» bezalako zerbaitek badago praktikan—, ezin gara horietako bakar batean ere sartu. Baina ohartu behar da, erretirorako adinak bera izaten jarraitzen duen bitartean, kontraprestazioz hartu gabe kontu egin behar zaien parte proportzionala ez litzakeela derrigor afektatua izango hamabost urtez azpiko pertsonen portzentaia gutxitu delako.

⁴ Ekonomialeari askorengan badirudi nagusi dela inpresioa, zeinaren arabera biztanleriaren gehitze bat *per se* inbertsiorako beste eskaera-iturri bat dela. Zeren, ez al dira ekipatu behar langile berri horiek guztiak erremintaz eta lehen gaien osagarri batez? Hala ere, beharizan hori ez da inondik ere begi-bistakoa. Biztanleriaren gehitzeak alokairuak jaitsarazten ez baditu, inbertsiorako aukeraren gaineko ondorio horrek ez du oinarririk, eta kasu horretan bertan ere inbertsioaren murrizte bat espero izan beharko litzateke enplegaturiko langile-buruko.

⁵ *National Income and Outlay*, 21 or.

⁶ Biztanleria-kopuruei buruzko iragarpenak beti praktikoki faltsuak izan dira XVII. mendetik aurrera. Horientzat, hala ere, bada aitzakiarik. Malthusen teoriarentzat berarentzat ere izan daiteke. Baina nik neuk ez

dut ikusten inolako aitzakiarik haren biziraupenerako. XIX. mendearen bigarren erdian garbi geratu beharko zukeen mundu guztiarentzat Malthusen teorian dagoen baliozko gauza bakarra haren mugakizunak direla, autoreak berak formulatuak. Mende honen lehen hamarkadak agerian jarri du, era behin betikoan, lege hori haur-izugarri bat zela. Baina Keynesen tamainako autoritate batek biziberritu egin nahi izan du gerraostean! Eta oraindik, 1925ean, M. Wright, «giza espeziea ugaltzeko bestetarako balio ez duten zibilizazioaren konkisten xahuketez» ari zen, biztanleriari buruzko bere liburuan. Ez ote da iritsiko ekonomia inoiz adinez nagusi izatera?

XI

¹ Ikerketa-mota hau oso atzetik dator. Baina uste dut horren etapa berri bat konputatu beharko litzatekeela Lucien Lévy-Bruhlen obretatik. Ikus bitez bereziki haren *Fonctions mentales dans les sociétés inférieures* (1909) eta *Le surnaturel et la nature dans la mentalité primitive* (1931). Bide luzea dago lehen obran sostengaturiko eta bigarrenean sostengaturiko jarreraen artean, zeinaren zehaztasunak berrezagut baitaitezke *Mentalité primitive* (1921) eta *L'ame primitive* (1927) obren artean. Guretzat Lévy-Bruhl autoritate bereziki erabilgarria da erabat gure tesia partekatzen duelako —izan ere haren obra hartatik abiatzen da—, gizakiaren pentsamenduaren eta egitura mentalaren funtzio «exekutiboak» determinaturik daudela, partez gutxienez, gizartearen egiturak, zeinaren barruan garatzen baitira. Ez du garrantzirik, Lévy-

Bruhlen kasuan, printzipio hori Marxengandik ez etortzeak, Comtegan-dik baizik.

2 Kritikari atsegin batek, aurreko paragrafoaz ari zela, ahakarra egiten dit esanez ezinezkoa dela nik hartan esaten dena sinestea, zeren kasu horretan fisikariaren «indarra» formula magikotzat hartu beharko nuke-elako. Alabaina, horixe da hain zuzen ere pentsatzen dudana, «indar» terminoari esanahi formal hutsa egotean bat etorri ezean, bigarren deribatua biderkatzen duen konstantea izendatzeko izen bat. Ikus bedi paragrafoko testua, hurrengoaren ondoren doana.

3 Esaldi kantiar hori hautatua izan da agerikoa den objekzio baten kontra atazean jartzeko.

4 Elementu honen garrantzia Sombartek azpimarratua dauka eta *more suo* superazpimarratua. Kontu biko kontabilitatea bide luze eta malkarren azken etapa izan da. Haren aurreko berehalako, noizean behin, inbentario bat egin eta mozkina edo galera kalkulatzeko ohitura zen; ikusi A. Saponi, in *Biblioteca Storica Toscana*, VII, 1932. Luca Pacioliaren kontabilitate-tratatua, 1494, haren datarako, zuhin garrantzitsua zen. Estatuaren historia eta soziologiarako gertakari funtsezkoa da ohartzea kontabilitate arrazionala ez zela sartu funts publikoen administrazioan XVIII. mendea arte eta orduan ere modu ez-perfektuan sartu zela, kontabilitate «kameralista»ren era hasimazkoan.

5 Makurtuegi gaude Erdi Aroko egitura soziala egonkor edo zurruntzat jotzera. Izatez, atergabeko *circulation des aristocraties* bat izan zen, Pareto-

ren esamoldea baliatzeko. 900 aldera estratu gorena osatzen zuten elementuak ia ezabatuak ziren 1500erako.

6 Medicis ez dira izatez salbuespen bat. Zeren aberastasunak Florentzia-ko errepublikarren domeinuaz jabetzen lagundu bazien ere. domeinu hori izan zen eta ez aberastasuna *per se* familia izan zuen zeregina azaltzen duena. Edozein kasutan mundu feudaleko estratu gorenaren parean berdinez berdin kokatzeraino igotzea lortu zuen merkatarik bakarrak izan ziren. Benetako salbuespenak bilakakera kapitalistak aldeko ingurune bat sortu zuen edo estratu feudala erabat hautsi zuen tokian bakarrik aurkitzen ditugu, adibidez, Venezian eta Herbeheretan.

7 Bitartegabea, zeren azken orrialdetako analisiak beste helburu batzuetarako balio behar baitigu. Izatez, oinarritzkoa da kapitalismo eta sozialismoaren gai handiaren eztabaيدا serio orotarako.

8 Marxek berak ere, zeinaren garaian mota honetako akusazioak ez baitziren gaur bezain absurdoak, haren defentsa errebortxatzea komenigarritzat jo zuen ordurako gaindituak edo argi eta garbi desagertzeko zorian zeuden baldintzei buruzko astuntasuneraino.

9 Ikus bedi inperialismoaren teoria marxiarrari buruzko gure eztabaيدا, I atala, IV. kap.

XII

1 Wilhelm Wundtek «xedeeen heterogonia» (*Heterogonie der Zwecke*) deitzen zion horri.

2 Galikanismoa politika horren isla politikoa besterik ez zen izan.

3 Arrazoiaketa-lerro hori IV. atalean hartuko da berriro.

4 Hala ere, gobernu batzuek ulertu dute; Alemania inperialaren gobernuak asko egin zuen arrazionalizazio espezie berezi hori borrokatzeko eta Estatu Batuetan orain joera bortitz bat dago zentzu berean.

XIII

1 Espero izatekoa da ez dela sortuko nahasterik «arrazionalizatu» aditzaz egiten dudan erabilpenarengatik bi zentzu desberdinetan. Instalazio industrial bat «arrazionalizatu» da bere ekoizpen-efizientzia gastu-unitateko gehitzen duenean. «Arrazionalizatu» egiten dugu geure egintza bat geure buruari eta besteei hura bermatzeko arrazoiak ematen dizkiegunean, gure balioen pautak asetzen dutenak, gure diru-sarreraren egiazko izaerarekiko independenteki.

2 Sistema sozial oro erreboltarekiko zaurigarria da eta sistema sozial orotan erreboltarako kitzikapena arrakasta dagoenean errendimendua duen negozioa da eta horregatik erakartzen ditu nola garunak hala giharrak. Hori gertatzen zen neurri handi batean garai feudalak. Baina beren nagusien aurka erreboltatzen ziren noble gerrariak pertsona edo posizio banakoak erasotzen zituzten, baina ez zuten sistema feudala bere hartan erasotzen. Eta gizarte feudalak oro har ez zituzten garatzen joerak –nahita edo nahigabe– bere sistema sozial propioaren kontrako erasoak bultzatzeko.

3 Nire atsekaberako aurkitu dut Oxford English Dictionaryk ez duela jasotzen nik intelektual hitzarentzat

nahi dudan zentzua. «Intelektualen oturuntza bat» esaldiaren adiera ematen du, eta horrek oso bestelako norabide adierazten du. Horrek zentzordatu egin nau, normala denez; baina ezin izan dut aurkitu beste esamolderik nire helbururako hori bezain ongi zetorkeenik.

4) Dukearen esaldia hemen dago: *The Croker Papers* (ed. L.J. Jennings, 1884)

5 Pietro Aretino, 1492-1556.

6 Ingalaterran, hala ere, panfletozko literaturaren hedadura eta garrantzia nabarmen hazi zen XVII. mendean.

7 Ez dut beldurrik uste izateko politikaren historialariren batek bapikatu aurkituko duela Wilkesen arrakastaren garrantzia. Baina badiot beldurra norbaitek objektatzeari frankotiratzaile deitu izana, eta babesle kolektiboari zor ziola guztia eta ezer ez babesle banakoari. Haren hasieratan ez dago zalantzarik korrotxo batek estimatzen zuela. Hala ere, patxada gehiagoz egindako azterketa batean onartu beharra dagoela uste dut hori ez zela garrantzi erabakigarrikoa, eta gero lortu zituen laguntza eta diru guztia eta ohoreak ondorio bat besterik ez zirela izan haren aurreko arrakasta eta publikoarekiko lortutako posizio independentearengatik.

8 Eskala handiko kazetaritza-concernaren sorrera eta gaur arteko karrerak azpimarratu nahi nituzkeen bi puntu azpimarratzen ditu: sistema sozialeko elementu konkretu bakoitzaren aspektu, erlazio eta efektu askotarikoak, zeinek eragozten baitute tesi lerrozuzenak eta zentzu bakaerrekoak formulatzea, eta epe labur eta

luzerako fenomenoak bereiztearen garrantzia, zeinei buruz egiazki proposizio desberdinak eta batzuetan kontrajarriak gertatzen baitira. Eskala handiko kazetaritza-*concerna* kasu gehienetan enpresa merkantil kapitalista besterik ez da. Horrek ez du esan nahi interes kapitalistak edo edonolako beste klase-interesak defendatzen ez dituenik. Horrela izan daiteke honako zioetako batengatik edo gehiagorengatik, zeinen garrantzi mugatua agerikoa baita: talde kapitalista batek haren interes edo doktrinak defendatzeko asmo zehatzarengatik diruz lagundurik dagoelako (zenbat eta handiagoa izan *concerna* eta haren salmentak garrantzi txikiagoa du elementu horrek); gustu burgeseko irakurleria bati bere kazetak saldu nahi dizkielako (zio hori, oso garrantzitsua 1914 arte, orain aldearantzizko norabidean ari den zerbait da); zeren iragartzailiek nahiago baitute afinitatea duten bitarteko bat erabiltzea (baina ia beti auzi horri buruz hartzen duten irizpidea negoziokin bakarrik zerikusia duena izaten da): zeren jabeek halako norabide jakin bati ekiten baitiote, salmentekiko duten interesaz aparte, (halako puntu bateraino horrela jokatzan dute eta, batez ere, jokatu egin dute; baina esperientziak irakasten du ez dutela irmo iraun baldin eta beren konbikzioek larrikiegi konprometitzen badiutuzte salmentetako diru-interesak). Beste hitz batzuetan: eskala handiko kazetaritza-*concerna* tresna guztiz ahaltsua da posizioa jaso eta gradu intelektualaren eragina gehitzeko, baina gaur ere ez dago erabat haren zuzendaritzapean. Enplegua eta irakurleria zabalagoa esan nahi du,

baina «kateak» ere esan nahi du. Horiek bereziki garrantzitsuak dira epe laburreko fenomenoetan; nahi duen bezala jokatzeko askatasun handiago baten alde borroka egitean kazetari banakoak bere porrota aurki dezake. Baina epe laburreko aspektu hori —eta iraganeko baldintzen oroitzen kolektiboa— intelektualaren gogamenean sartzen dena da eta jendaurrean aurkezten deneko esklabotza eta martirioaren koadroko koloreak determinatzen dituen. Izatez, konkista-koadro bat izan beharko luke. Konkistak eta garaipenak kasu honetan, beste hainbestetan bezala, porrotez osaturiko mosaiko bat dira.

⁹ Gaur egun garapen hori ia mundu guztiak preztzen du hezkuntzarako erraztasunak irisgarri egitearen ikuspuntu idealetik, tipo guztienak, haie-taz baliatzera makurturik aurkitzen diren guztiei. Ideal horri hainbesteko indarrez eusten zaio, non zalantzan jartzea ia unibertsalki gisakoa ez den zerbaitetik hurbiltzat jotzen baita, eta egoera hori ez da hobetzen disidente-en iruzkin petulanteengatik. Izatez, hezkuntzaren soziologiako eta hezkuntzaren idealen arazo guztiz konplexu-sail bat ukitzen ari gara hemen, zirrimarra honen barruan tratatu ezin ditugunak. Horra zergatik mugatu dudan goragoko saila bi topiko ukaezin eta neutro hartzera, zeinak aski baitira gure helbururako. Baina ez dituzte ebazten, noski, arazo nagusiak, alde batera utzi behar izan ditugunak, eta zeinaren absentsia nire aurkezpenaren osagabetasunaren lekuko baita.

¹⁰ Irakurlea ohartuko da teoria hauek guztiak irrealistak liratekeela nahiz

eta kapitalismoaren gertakariak edota pertsona maitatuaren bertuteak kritikari soziala edo maitalea direla uste den guztia izango balira benetan. Halaber, garrantzitsua da ohartzea kasurik gehienetan kritikariak maitaleak bezala egitiak direla noski; ez mekanismo psikosozilogikoak ez eta psikofisikoak ez dute jarduten, oro har, Egoaren atalaseaz haratago, sublimazioen maskarapean izan ezik.

¹¹ Hori guztia V. atalean ilustratu eta garatuko da patxada gehiagorekin.

¹² Hau, jakina, era berean aplikagarri zaio intelektualen beren jarrerari datozen klasearekiko erlazioan edota ekonomikoki edo kulturalki aparteniztzen direnekiko. Auzi hau berriro XXIII. kapituluaz aztertuko dugu berriro.

¹³ Adibideetarako ikusi XXVI. kapitulua.

XIV

¹ Askok ukatuko dute hori. Hori da ukatzen dutenek iragandako historiaz eta historia horrek sorrarazitako topikoei buruzko beren inpresioa lortzen dutelako, zina gertatzen ari zen bitartean artean agertu gabe baitzegoen sozietate anonimo handiak berekin ekarri zuen eraldakuntza instituzionala. Halaber, izan liteke sozietate anonimoen manipulazioak eman ohi zituen erraztasunetan pentsatzea ere anbizio kapitalisten asetzetako ilegalera. Baina aurreko bidea garbituko lidake niri; sozietate anonimoetan organo exekutiboek soldataz eta gratifikazioaz haratago ezein irabazi pertsonal ezin lortu ahal izatea, praktika ilegal edo erdi-legalen bitartez izan ezik, argi eta garbi erakusten du

kapital-sozietatearen ideia estrukturala haren kontrakoa dela.

² Guraso eta seme-alaben arteko erlazio modernoak, partzialki baldintzaturik daude, noski, familia-bizitzaren koadro irmo haren porrokatzearen aldetik.

³ Masan ekoizturiko salgaien gero eta baliagarritasun handiagoaren efektuak kontsumitzaileen aurrekontuen gain gero eta energikoago bihurtzen dira horien eta dagozkien eskariz egindako salgaien artean dagoen prezio-desberdintasunarengatik, zeinen desberdintasuna gehitu egiten baita alokairuak *pari passu* igotzen direlako azken horien desiragarritasun erlatiboa jaistearekin; prozesu kapitalistak demokratizatu egiten du kontsumoa.

⁴ «Nabigatzea beharrezkoa da; bizitzea ez da beharrezkoa.» Bremengo etxe antzinako bateko inskripzioa.

⁵ Esan izan da auzi ekonomikoetan «Estatuak har dezakeela epe luzeagoko ikuspuntua». Baina, alderdi-politikaz aparte auzi batzuk salbuetsirik, adibidez, baliabide naturalen kontserbazioa, estatuak ozta-ozta egingo du halakorik.

⁶ 1935eko udan idatzia.

⁷ Hara zergatik kapitulu honetan eta aurreko bietan aurkezturiko gertakariak eta argudioak ez duten baliogabetzen bilakaera kapitalistaren beste berrogeita hamar urteko emaitza ekonomiko posiblei buruzko nire arrazoiketa. Oso ongi gerta liteke mende honen hirugarren hamarkada kapitalismoaren azken herio-hatsa izatea, zeinaren gertakortasuna sendotu egiten baita, noski, neurri handi batean

gaurko gerraren ondorioz. Baina berriz diot hori balitekeela horrela ez izatea. Edozein kasutan ez dago arrazoi *ekonomiko hutsik*, zeinengatik kapitalismoak ezingo duen gainditu beste etapa bat, zeina baita frogatu nahi izan dudana gauza bakarra.

XV

¹ Prezioa, teoria modernoan, eraldakuntza-koefiziente soil gisa definitzen da. Kostua, berrezarpen-kostu zentzuan (*opportunity cost*), kategoria logiko orokorra da. Baina laster itzuliko gara horretara.

² Kontrakoa ere, jakina, egia da; sozialismoaren uzi ekonomikoak onar daitezke eta, hala ere, arrazoi kulturalengatik hura arbuiaitu.

³ Nahiz eta paradoxazkoa iruditu indibidualismoa eta sozialismoa ez dira derrigor kontrajarriak. Argudia daiteke antolakuntza-era sozialistak era «benetakoan» bermatuko duela nortasunaren burutzapen indibidualista. Tesi hori, izatez, lerro marxiarren barruan legoke.

XVI

¹ «Die Wirtschaftsrechnung im sozialistischen Gemeinwesen», in *Archiv für Sozialwissenschaft und Sozialpolitik*, apirila 1920. Ikusi halaber haren *Gemeinwirtschaft*, Jena, 1922.

² Dozena bat ekonomialarik baino gehiagok iradokia zuten soluzioa Baroneren aurretik. Haien artean autoritateak zeuden: F. von Wieser (*Der natürliche Wert*, 1889) eta Pareto (*Cours d'Economie politique*, II. lib., 1897). Biek hauteman zuten

portaera ekonomikoaren logika bera delakoa gizarte merkantilean eta gizarte sozialistan, zeinaren antzekotasunetik ondorioztatzen baita arazoren soluzioa. Baian Barone, Paretoren jarraitzailea, izan zen lantzen lehena. Ikus bedi haren artikulua «Il Ministro della Produzione nello Stato Collettivista», in *Giornale degli Economisti*, 1908.

Ez da ahalgarri ez eta beharrezko ere justizia egitea azken lanak sortutako uzta joariari. Bakarrik aipatuko ditut, bereziki garrantzitsutzat norabide batean edo bestean, honako hauek: Fred M. Taylor: «The Guidance of Production in a Socialist State», in *American Economic Review*, martxoa, 1929; K. Tisch: *Wirtschaftsrechnung und Verteilung im sozialistischen Gemeinwesen*, 1932; H. Zassenhaus: «Theorie der Planwirtschaft», in *Zeitschrift für Nationalökonomie*, 1934; bereziki Oskar Lange: «On the Economic Theory of Socialism», in *Review of Economic Studies*, 1936-7, liburu gisa Langek eta Taylorrek argitaratuan, izenburu beraren pean, 1938an, eta A. P. Lerner, zeinen artikulua ondorengo ohar batean aipatuko baititut.

³ Baldin eta teorialari modernoek objektzioak jarriko balizkiote esaldia- ren itzuli horri zilegi bekik haiei erregutzea kontsidera dezatela zenbat itzulunguru zeharo alferrikako erabiltzea suposatuko lukeen esamolde zuzenago batek ordainetan inolako abantailarik eman gabe argudio honen helburuetarako.

⁴ Honek ez du esan nahi prozedura honek baldintzak beteko ez lituzkeenik arrazionalitatearen beste defini-

zio baten ikuspuntutik. Hemen ez da egiten inolako baieztapenik sistema eztabaidatua beste sistema batzuekin erkatzetik eratorririk.

5 Printzipio hautespenaren logika orokorretik eratortzen dena, ez zen unibertsalki onartua izan A. P. Lernerrek azpimarratu zuen arte eta ohar eta artikulu sail batean defendatu zuen arte batez ere *Review of Economic Studies* en argitaratuetan (bai eta *Economic Journal* en ere, iraila, 1937), zeina ekarpen garrantzitsua baita ekonomia sozialistaren teoriarako eta zeinaren gainera irakurlearen arreta erakartzeko baliatzen bainaiz abaguneaz. Halaber, zuzena da esatea, hautespenaren logika horren proposizio gisa, gorago adierazitako baldintza nagusitu egin beharko litzatekeela prezioen berdintze-arauaren gainetik unitateko kostu totalarekin harekin gatazkan sartzen den edozein tokitan. Baina bien arteko erlazioa ilundu egin da halako modu batean gauza desberdinen nahaste batez eta argitze bat behar du.

Kostu marjinal kontzeptuak ekoizpena kantitate txiki batean gehitu nahi bada euskarritu behar den kostu totalaren gehikuntza adierazten duena, zehaztugabe geratzen da denbora-epe jakin batekin erlazioan jartzen ez dugun heinean. Adibidez, auzia bada ea bidaiari gehigarritzko bat garraiatu behar den ala ez tren batean, edozien modutara ere ibilbidea egin behar duena, kontsideratzeko kostu marjinala zeroren parekoa izan liteke eta, edozein kasutan, oso txikia da. Hori adieraz daiteke esanez, epe oso labur baten ikuspuntutik –ordubete edo egun bat edo astebete ere bai–, kostu-

elementu oro, lubrikanteak eta ikatza barne, «gastu orokorretan» sartzen dela, eta gastu orokor horiek ez direla kostu marjinalen sartzen. Baina zenbat eta luzeagoa izan kontsideraturiko aldia kostu-elementu gehiago sartzen dira kostu marjinalen; lehenik eskuarki kostu «primario» nozioan sartzen den guztia, eta gero, gero eta proportzio handiagoan, negozio-gizonek gastu orokor deitzen dutena, harik eta, oso denbora-epe luze baterako edo oraindik existitzen ez den unitate industrial baten plangintzaren ikuspegitik, ezer geratzen ez den arte (edo ia ezer ez) gatu orokor kategorian, eta gastu-elementu oro, depreziazioa barne, kontuan izan behar da kostu marjinalaren kalkuluan, baldin eta printzipio hori modifikatzen ez bada faktore batzuen kasuan, hala nola burdinbide baten trazatuan, faktore horiek unitate oso handitan bakarrik eskuratu edo erabil daitezkeen gertakari teknikoarengatik («banaezintasuna»). Kostu marjinalak, beraz, beti bereizi behar dira kostu primario (marjinal)etatik.

Alabaina, guk sarritan lotzen dugu eztabaidatzen den printzipioa kudeaketa sozialistek –kapitalistek bezalaxe– beti iragana ahaztu beharko luke telako printzipioarekin arrazionalki jardutekotan, hau da, beren erabakietan ez dutela kontuan izan behar ez dutela kontuan izan behar dauden inbertsioen liburutetan islaturiko balioak. Baina hori epe laburrerako portaera-arau bat besterik egoera jakin batean. Ez du esan nahi kudeaketa horiek *ex ante* jaramonik egin behar ez dietenik kostu finkotan edo gastu orokorretan kristaldu behar

duten elementuei. Horiek alde batera uztea irrazionalki jokatzea izango litzateke lan-orduei eta gastu orokorretan hurrupaturiko ekoizpeneko indar naturalen unitateei dagokienez, enplegu alternatibo bat elementu horientzat baldin badago behintzat. Baina kontuan hartzean esan nahiko luke, oro har, prezioak ekoizpen-unitateko kostu totalarekin berdintzea gauzak planen arabera garatzen diren heinean, eta salbuespenak eragozpen teknikoarengatik batez ere izaten direnez gero, zeina kontrajartzen baitzaio banaezintasunak ordezkatzeko duen arrazionalitateari edo gauzen joaira efektiboak planekiko duen desbideratzeei, plan horien logika ez dago erabat gaizki adierazia, hitz batean, iraganari jaramonik ez egitearren printzipioaz. Nahiz eta epe laburreko egoera batean arrazionalena izan, logika horrek ez du ezartzen, hala ere, defizita duen industria baten funtzionamendua. Erreserba hori kontuan izatea garrantzitsua da bi arrazoiarengatik.

Lehenik, hori ukatua izan delako. Iradoki ere egin izan da ongizatea (luzera) gehitu egingo litzatekeela prezioak beti *epe laburreko* kostu marjinalekin berdinduko balira, depreziazioa baztertuz, eta gastu orokorrak (adibidez zubi baten kostua) zerga-bidez finantzatu beharko liratekeela. Gure arauak, testuan ezartzen denez, ez du horrelakorik esan nahi eta halako portaera ez litzateke arrazionala izango.

Bigarren, 1936ko martxoko dekretu batean, erdiko errusiar agintaritzak, industria-sail batentzat orduan indarrean zegoen dirulaguntza-sistema

ezabatzean, agintzen zuen prezioak halako moldez arautu behar zirela, non unitateko kostu total batez beste-akoaren pareko izan behar baitzuten, horri metakuntzarengatik gainkarga bat gehituz. Arau horren lehen parte-ari dagokionez esan daiteke, nahiz eta ertsiki zuzena ez izan, gutxiago aldentzen dela zuzentasunetik printzipio horren formulazio okerrekin pentsarazten dutena baino; bigarren parteari dagokionez, esan beharra dago horri egindako objektzioa asko ahultzen dela garapen ekonomiko bizkor baten baldintzak edo eskakizunak kontuan izan bezain laster –irakurleak gogoan izango du kausa kapitalistaren aldeko II. atalean aurkezturiko argudioa–, eta erabat kontzebigarria da sobietar gobernua arrazoia izatea *nola* diru-laguntzen bere politikan sartzean, zeina galera-dun inbertsioak finantzatzera iristen baitzen, *hala* 1936an praktika hori zati batean ezabatzean ere.

⁶ Badira salbuespenak arau horreki-ko garrantzitsuak direnak, baina ez dute gure argudiaketaren norabidea afektatzen.

⁷ Ohartu behar da arazoa inbertsio *berriei* bakarrik sortzen dela. Ekonomia geldikorrak bat abian mantentzeko beharrezkoak diren ohiko inbertsioak kostuko gainerako elementu guztiak bezalaxe estal litezke eta estali beharko lirateke. Batez ere ez lukete interesik sortuko. Abagune honetaz balia nintke oharrarazteko sozialistek interesaren fenomenoarekiko duten jarrera ez dela erabakarra. St. Simonek ia gauza ukaezintzat onartzen zuen. Marxek baztertu egiten zuen gizarte sozialistatik. Sozia-

lista moderno batzuek berriro onartzen dute. Errusiar praktikak onartu egiten du.

⁸ Ikusi VIII. kap.

⁹ Hala ere, maximo frogagarria da, eta horrenbestez sozialismo-mota horren arrazionaltasun ekonomikoa berresten du, konkurrentzia-maximoko konkurrentziako ekonomiaren arrazionaltasuna berresten duen bezalaxe. Baina ez kasu batean eta ez bestean ez du esan nahi asko horrek.

¹⁰ Hara zergatik erakusten zuen Marxek hain interes ohargarria Crusoeren ekonomiarekiko.

¹¹ Hori da atze-egite lerroa, autore gehienek hartzen dutena, zeinek konbikzio sozialistarik izan gabe, hala ere, onartu egiten baitutuzte sozialismoaren kredenzial logikoak. Irizpide horri eusten dioten autoritate nagusien artean Robbins eta Von Hayek irakasleak aipa daitezke.

¹² Autore batzuek badirudi uste dutela, oreka lortzeko prozesua *bat bera* izango litzatekeela konkurrentzia perfektuko egoera batean. Hala ere, hori ez da horrela. Urratsez urrats egindako doiketa bat erreakzio gisa prezioen bariazioen aurrean bakarrik aise huts egin lezake helburu osoa. Hara zergatik mintzo den testua saio metodikoez.

XVII

¹ Badira adibideak bapikatzeak sorrarazten dituztenak gehiegizko orokortze baten bidez, nahiz eta ikerketa batean ez porrokatu, sarritan gertatu ohi denez. Gainera, galera horietako batzuk gizartearen antolatuntza partikularraz aparte gertatzen

dira; mota horretako galera oro ordena kapitalistan ez da halaber ordena kapitalistaren kausazko galera bat.

² Arau honek begi-bistakoa izan beharko luke berez, baina sarritan hausten da. Adibidez, gaur eguneko Errusia sobietarreko burutzapen ekonomikoa, sarritan, lehen Mundu Gerraren hasierako erregimen tsaristakoarekin erkatzen da. Baina mende-laurden bat igaro izanak esanahi guztia kendu dio erkaketa horri. Esanguratsua izan litekeen erkaketa bakarra da burutzapen sobietarra ezarritako balioekiko erkaketa bakarrik izango litzateke, joera sekular baten estrapolazioz, adibidez, 1890-1914ko aldiko datu zenbakizkoetatik.

³ Errenta errealean korrante kapitalista eta sozialistek, neurri bateraino, merkantzia desberdinetan egon behar dutenez eta beren baitan dauzkaten bientzako komunak diren merkantziak proportzio neurri bateraino desberdinetan –nahiz eta hipotesi gehigarriak ez izatean errenta eskuragarrien banaketaren bariazioaz, ezinezkoa den desberdintasun horien garrantzia estimatzea–, erkaketa horrek auzi teoriko delikatuak planteatzen ditu. Baldin eta gizarte kapitalistan ardo gehiago eta ogi gutxiago ekoizten bada gizarte sozialistan sortuko litzatekeena baino, bi korranteetako zein izango da ahaltsuena? Galdera horri erantzuteko edozein ahaleginetan eskala handikiro zabalduan aurkitzen dira errenta-korranteak erkatzeak berekin daramatzan zailtasunak koadro sozial berean urte batetik bestera (ekoizpen totaleko tasa bat erakitzeke, adibidez). Gure helbururako, hala ere, honako definizioak nahikoa

asetzen ditu eskakizun teorikoak: korronteetako bat esango da bestea baino indartsuagoa dela –eta kasu horretan bakarrik– baldin eta besteak baino moneta-errenta handiagoa ematen badu, bi prezio-sistemetako edozein erabiliz biak ebaluatzeko. Baldin eta korronte batek zifra jasoa goa ematen badu biak prezio-sistema kapitalistaren arabera ebaluatutik daudenean, adibidez, eta aldi berean zifra behereagoa ematen badu biak prezio-sistema sozialistaren arabera ebaluatutik daudenean, orduan esango dugu bi korronteak berdinak direla, bi prezio-sistemekin kotak berdinak efektiboki emango balituzte bezalaxe, eta horrek esan nahi du besterik gabe desberdintasuna, oro har, ez dela izango oso garrantzitsua kasu horretan uste dugula. Arazo estatistikoa ez da ebazten, noski, definizio horrekin, zeren ezin baititugu eduki bi korronteak gure aurrean aldi berean.

Epe luzera hitzak txertatu izanaren arrazioa testuko paragrafoan agerikoa izan beharko luke VIII. kapitulu-ko analisitik.

⁴ Batzuetan, izatez, tentaturik gaude jaramonik egin gabe uzteko plan sozialistaren akats aitortuak gizarte sozialista bateko kide egiteak emango lukeen pribilegioaren konpentsazioa kontuan hartuta. Argudio horrek, sentimendu egiazki sozialista adierazten duen bezala adierazita, ez dago, inola ere, irudi lezakeen bezain arrazoiz kanpo. Izatez, alferrikako egiten ditu gainerako argudio guztiak.

⁵ Horrela alde batera utzi dugun argudioa enuntzia liteke esanez, gai-

nerako guztia berdina izaki, maximo sozialista handiagoa dela konkurrentziako maximoa baino. Hala ere, bi maximoen izaera formal hutsa kontuan izanez gero ez du zentzurik horiek erkatzeak, aurreko kontsiderazioetatik begi-bistakoa izan behar duenez.

⁶ Estatu Batuak dira proba horretarako herrialderik egokiena. Europako herrialderik gehienetan konplikatu egingo lizateke arazoa, XIX. mendeari dagokionez behintzat edo 1914 arte ere bai, jatorri kapitalistako errenta jasoen existentziarengatik, baina bilakaera kapitalistak metatuak izan direnengatik.

⁷ Ikusi H.G. Moulton, M. Levin eta C.A. Warburton *America's Capacity to Consume* (1934), 206 or. Zifra hauek, zalantzarik gabe, oso laburbilduak dira. Lanetik eta inbertsioetatik datozen errentak hartzen dituzte, bai eta jabetzak saltzetik eta jabeek bizi-tzeko dituzten etxeen alokairu kalkulatuetatik datozen emaitzak ere.

⁸ Ikusiko da agintaritzat sozialistak aurrezki horiek, segur aski, bestelako helburuetarako erabili izanak ez duela argudioa afektatzen.

⁹ Ohartu behar da, hala ere, inbertsioen errendimentuzkoa soilik den errenta bat ez dela lortzen duen nagitasun ekonomikoaren zantzia, zeren inbertsioetan haren lana txertaturik egon bailiteke. Hori ilustratzeko eskuliburu-etako adibide klasikoak argudio garatuago batek bezain ongi balio lezake; demagun gizaki batek lur-zati bat maniatzen duela bere esku-etako lanaz; gero jasoko duen errendimendua «gizakiak egindako hobekuntza baten errendimendua»

da, edo, edo ekonomialariek deitzen dutenez, kuasi-errenta bat. Hobe-kuntza iraunkorra bada, kuasi-errenta hori jadanik ez da bereiziko lurretik beretik eta, beraz, errenta irabazi gabe baten haragiztapenaren itxura izango du, aldiz, errealtatean, soldata-era bat besterik ez da, baldin eta soldata ahalegin pertsonal ekoiztaile-ari ematen zaion errendimendu gisa definitzen badugu. Orokortuz, esan dezakegu ahalegin bat jasan daitekeela errendimenduak segurtatzeko, zeinek har baitezakete, nahiz eta derri-gorrean ez izan, soldata-era bat.

¹⁰ Ikusi VIII. kap.

¹¹ Zergan klub-kuotekin edo adibidez, mediku baten zerbitzuak lortzearekin berdintzen dituen teoriak bakarririk frogatzen du zeinen urrundurik dagoen gizarte-zientzien parte hori metodo zientifikoak aplikatzetik.

¹² Badira salbuespenak, baina ez dute garrantzi praktikorik.

XVIII

¹ Ideia, eskema, edo eredu edo oinarrizko plan batek bere baitan ideal bat darama, baina zentzu logikoan bakarririk; ideia horrek adierazten du esentzialak ez diren elementuen absentsia, hau da, proiektu adulteratugabea da, esan genezakeenez. Noski eztabaidagarria izaten jarraitzen du haren barruan zehazki sartu behar dena izaten zerk jarraitu behar duen eta ondorioz zer kontsideratu behar den desbideratze gisa. Nahiz eta horrek teknika analitikoko auzi bat izan beharko lukeen sar daitezke horretan, hala ere, maitasuna eta gorrotoa: sozialistek joera izango dute kapitalismoaren

oinarrizko planean haiek depredatoriotzat dauzkaten zertzelada ahalgarri guztiak; antisozialistek gauza bera egingo dute oinarrizko plan sozialistarekin, eta bi alderdiak berena «zuritzen» saiatuko dira ahalgarri diren hutsegite guztiak sartuz desbideratze ez-esentzialen eta, ondorioz, ekidigarrien artean. Nahiz eta ados egon bata eta bestea kasu jakinen batean fenomeno batzuk desbideratze gisa katalogatzeko, oraindik iritzi desberdina izan dezakete beren sistema propioa eta aukariena desbideratzeen pean dagoen graduari buruz. Adibidez, ekonomialari burgesek «interferentzia politiko»ari egozteko joera izango dute kapitalismoan atsegin ez duten guztia, aldiz sozialistek sostengatuko dute neurri politiko horiek prozesu kapitalistaren eta makina kapitalistak funtzionatzeko duen moduak sortutako egoeren ondorio ekidinezinak direla. Nahiz eta zailtasun horiek guztiak aitortzen ditudan ez dut uste nire aurkezpena afektatzen dutenik, zeina izan baita kontzebitua, irakurle profesionalak ohartuko duenez, horiek ekiditeko asmoarekin.

² Neo-marxisten artean inozokeria horien errudun nagusia Max Adler izan da (zeina ez baita nahastu behar beste bi Adler vienatarrekin, sozialismo austriarraren historian toki nabaria hartzen dutenekin: Viktor Adler, alderdiaren antolatzaile eta gidari handiarekin, eta haren semea zen Fritz Adler, Stürgkt kondearen, lehen ministroaren asasinatzailearekin).

³ Ikus bedi VI. kapitulua. Era zehatzago batean klase burgeseko norbanako tipikoa garaia goa da adimen-

eta nahimen-gaitasunean gizarte industrialeko gainerako klaseetako norbanako tipikoaren aldean. Hori ez da inoiz estatistikoki frogatu eta nekez froga daiteke ere, baina hautespen sozialeko prozesu horren analisi batetik ondorioztatzen da gizarte kapitalistan. Prozesuaren izaerak determinatzen du halaber zer zentzutan ulertu behar den «garaitasun» esamoldea. Beste ingurune sozial batzuen antzeko azterketa baten bidez froga daiteke gauza bera gertatzen dela informazio historikoa duguneko klase gidari guztietan. Hau da, kasu guztietan froga daiteke, lehenik, giza molekulak igo eta jaitsi egiten direla era berean beren klaseko muga-lerroak gaindituz. Goragoko klaseetara igotze hori eta beheragoko klaseetara jaiste hori, oro har, belau-naldi bat baino gehiago behar izaten du. Molekula horiek familiak areago dira, beraz, norbanakoak baino. Eta horrek azaltzen du zergatik norbanakoen gainera beren arreta bideratzen duten behatzaileek hain sarri uzten dioten klase-gaitasun eta -posizioaren artean erlazioa aurkitzeari eta makurtu egiten diren oposizioan jartzeraino bi gauzak. Izan ere, norbanakoak hain desberdinki hornituak agertzen dira, non prestazio pertsonal ezohikoen kasuak salbu, erlazio hori –zeinak baitu zerikusia batez besteko termino batekin eta salbuespen askotarako lekua uzten baitu– askoz argitasun gutxiagorekin agertzen da baldin eta katearen multzoa aztertzeari uzten badiogu, zeinaren norbanakoa maila bat baita. Adierazpen horiek ez dute frogatzen, noski, nire argudioa, baikik eta bakarrik iradokitzen dute nola iritsiko nintzatekeen ni frogatzera

hori egitea ahalgarri izango balitz liburu honen markoaren barruan. Hala ere, irakurlea bidal dezaket nire «Theorie der sozialen Klassen im ethnisch homogenen Milieu», in *Archiv für Sozialwissenschaft*, 1927.

⁴ I. atalean aditzera ematen zenez Marxek berak aitortu zuen hori *Manifestu Komunistako locus classicus* batean.

⁵ Honetaz ikus bitez Alemaniar Sozializazioko Batzordearen deliberazioei buruzko iruzkinak, XXIII. kap., 396 or.

⁶ Errusian arrazoi gehigarri bat dago horrelako fede-aitorpenetarako. Mamua gidari guztien biktima behartu bihurtu zen, baina Trotskik bereziki zekien nola erabili. Publiko nazional eta atzerriarraren irreflexioarekin oso ongi espekulatuz, miresteko gaitzat ez zeukan oro Errusian «burokrazia»ren bizkar jartzen zuen.

⁷ Ikus bedi aurrerago XXIV. kap.

⁸ Manten dadin itxarotea arrazoizkoa dela froga daitekeen kasuan, sistema sozialista mota batzuetan bederen, horren garrantzia nekez bapika daiteke. Ez da diziplinak kalitatea hobetzen duelakoa bakarrik eta, behar izanez gero, lan-bolumena gehitzen duelakoa; horretaz aparte, diziplina baliabide-ekonomiako faktore esentziala da. Makina ekonomikoaren errodamenduak lubrikatzen ditu eta prestazio-unitateko hondakinak eta ahalegin totala nabarmen murrizten ditu. Plangintzaren efizientzia, bai eta administrazio arrunta bereziki, jasoak izan daitezke gaur eguneko baldintzetan egingarria denarekiko oso maila garaieraino.

⁹ Ikusi XI. kap., 175-176 or.

¹⁰ Tolerantzia bat, zeina baliokide izango baita estimulu-praktika bate-na nola den grebalari-piketeak era-tzea erreferentziagune baliagarri izan daiteke lerro zuzenean ez doan prozesu batean. Legegintza eta, askoz areago oraindik, Estatu Batuen praktika administratiboa bereziki interesgarriak dira, zeren hemen aurkitzen diren arazoak argi-tasun paregabeaz aurkeztu baitira soluzioak, hainbeste denboraz atze-raturik egon ondoren, oso epe labur-rean metatu baitira. Erabat ez jaki-teak estatuak izan ditzakeela kon-tuan, lanaren arazoen aurrean bere jarrera hartzean, beste interes sozial batzuk langile-klasearen epe labur-reko interesez aparte, sindikatu amerikarrek klase-borrokaren takti-ka era hotz baina esanguratsuan har-tzea bezain karakteristikoa da. Horretako asko azal daiteke taxuera politiko berezi baten eta beste edo-zein eraz proletalgoa antolakuntza eraginkor batean sartzeko ezintasun tipikoki amerikarraren bitartez. Baina langile-egoera amerikarraren balio ilustratiboa ez da esentzialki zirkunstantzia horiengatik ahultzen.

¹¹ Honaino diziplinaren horrelako porrokatzeak iraultza-kasu historiko ia guztietan gertatu dira. Adibidez, Parisen 1848ko iraultzan entseaturi-ko esperimentu kuasi-sozialisten porrotaren kausa bitartegabea izan ziren.

XIX

¹ Ikusi W.L. Crum: «Concentration of Corporate Control», in *Journal of Business*, VIII. lib., 275 or.

² Sozializazio inprobisatu edo basak –esamolde horrek estatus ofiziala lortu du– dautza ustiapen bakoitzeko zuzendariak ordeztzeko eta kudeaketa beren eskuetan hartzeko langileen ahaleginetan. Sozialista arduradun ororen lokamutsa dira.

³ Idazkuntzak ez ditu argiro berma-tzen, hala ere. Baldin eta irakurleak Manifestu Komunistan bilatzen badu «graduka» zentzogarri bat aurkituko du pasarte muntadunenaren erdian txertaturik.

⁴ Hau ez da neure hobespen pertso-nalak adierazteko tokia. Hala ere, goragoko baieztapena neure kon-tzientzia profesionalarengatik egiten dudala uler dadin nahi dut eta horrek ez du esan nahi proposizio horrekin suharturik nagoenik, zeinari, ingelesa banintz, kontra egingo bainioke, aitzitik, neure indar guztiez.

XX

¹ Botere indibiduala eta kolektiboa termino ekonomiko hutsetan defini-tzerik ez dagoelakoa –Marxen klase sozialen teoriak definitzen ditue-nez–oraindik arrazoi oinarritzkoagoa da, hala ere, zeinarenatik argudio hau ez baitu onargarria gertatzen.

² XXV. kapituluari Marxentzat demokraziaren arazoa nola aurkezten zen auzira itzuliko naiz.

³ Nik ez dakit errusieraz. Goragoko pasarteak Moskun argitaratzen zen egunkari alemaniarretik itzuliak dira eta errusiar testuarekiko haren itzul-pena dela-eta objekzio ahagarriak izan litezke, nahiz eta egunkari hori ez egon, noski, agintari sobietarrek erabat onarturikoa ez zen zerbait argitaratzeko egoeran.

⁴ Egoera horiek xehekiago eztabai-datuko dira V. atalean.

⁵ Politika nazionalean alderdi sozialistek zituzten jarreretara mugatuko gara. Horiek eta sindikatuek langile ez sozialistei edo ez-sindikatuei ematen zieten tratua konbentzigarritasun gutxiagokoa da, noski.

⁶ Gidari gailenetako baten aitorpen hau sotiltasunez adieraziak esan nahi zuen erabateko kontzientzia zutela boltxebismoa potentzia kapitalistekiko bere elikadurarako guztiz dependentea zen eta tropa frantses eta italiarrak ia atean zituen herrialde batean eszenaratze-arriskuarena; baina Errusiaren presioa Hungariaren bitartez handiegia izatera iritsi izan balitz, ez zuketean alderdia erdibiturko, baizik eta talde osoa alor boltxebikera gidatzen ahaleginduko ziratekeen.

⁷ Adibide batek azalduko du baieztapen horren alde aipa daitekeen proba mota. Suetoniok, Neronen biografian (*De vita Caesarum*, liber VI), lehenik Neronek agintaldiko egintzak kontatzen ditu, zeinak Suetoniok berak parte gaitzesezintzat zeuzkanak eta partez laudagarriak ere bai (*partim nulla reprehensione, partim etiam non mediocri laude digna*), eta gero haren makurkeriak (*probra ac scelera*). Alabaina, Neronek kristauekiko egindako jazarpena ez zuen bigarren epigrafepean sartzen, lehenaren azpian baizik, meritugarriak areago ziren neurri administratiboen zerrenda baten erdian (*afflicti supplicii Christiani, genua hominum superstitionis novae ac maleficae*). Ez dago arrazoirik Suetoniok herriaren iritzia (eta ondorioz, nahia) besterik ez zuela adierazten uste izateko.

Ez dago oso lekuz kanpo, izan ere, Neronek kristauak jazartzean izan zuen eragingarria herriaren ederra irabaztea izan zuen susmoa.

⁸ Aitasantuen jarrera babeslea *Etsi Judaeis* (1120) bulan egiazta daiteke, zeina Kalisto II.aren ondorengoei behin eta berriz berretsi izanak nola politika horren hala erresistentziaren jarraipena frogatzen baitu. Printzeen jarrera babeslea errazago ulertuko da baldin eta sinalatzen bada juduen kanporaketak edo hilketak oso beharrezkoak zituzten diru-sarrerak galtzea zekartela.

⁹ Bereziki ez da egia demokraziak beti autokraziak baino hobeki kontzientzia-askatasuna gordetzen duela-koa. Juduen ikuspuntutik Pilatos, noski, autokraziaren ordezkaria zen. Guztiarekin ere, askatasuna defendatzen saiatu zen. Eta demokrazia baten menpean jarri zuen bere burua.

¹⁰ Ikusi XXIII. kap.

¹¹ Ikusi, adibidez, Voltairek emandako definizioa bere *Lettres sur la Nation Anglaise* (ed. Lauson de Lettres philosophiques, I. lib. 103 or.): «...le peuple, la plus nombreuse, la plus vertueuse même et, par conséquent, la plus respectable partie des hommes, composée de ceux qui étudient les lois et les sciences, des negocians, des artisans; en un mot, de tout qui n'était point tyran...» Gaur egun «populu» esatea «masa» esatea bezala da baina Voltaireren kontzeptua gehiago hurbiltzen da Estatu Batuetako Konstituzioa idatzia izan zen populuaaren identifikaziora.

¹² Horrela, Estatu Batuek baztertu egiten dituzte ekialdetarrak eta

Alemaniak juduak baztertzen ditu hiritargotik; Estatu Batuen hegoaldean beltzak ere, sarritan, botoaz gabe-
turik daude.

¹³ Boltxebikeentzat ez-boltxebike oro kategoria beraren barruan dago. Hortik dator alderdi boltxebikearen gobernuia ez izatea guretzat arrazoaia behar bestekoa *per se* Errepublika Sobietarra ez-demokratikotzat kalifikatzeko. Eskubidea dugu horrela deitzeko bakarrik alderdi boltxebikea bera era ez-demokratikoan gidaturik badago, horrela dagoela agerikoa denez.

¹⁴ Kopuruaren urritasuna eta biztanleriaren tokiko kontzentrazioa esentzialak dira. Zibilizazioaren primitibismoa eta egitura sozialaren sinpletasuna garrantzi txikiagokoak dira, baina nabarmen errazten dute demokraziaren funtzionamendua.

¹⁵ Sir Robert Filmerren *Patriarcha* (1680an argitaratua) eskubide jainkotiarren teoriaren azken aurkezpen garrantzitsutzat jo daiteke filosofia politiko ingelesean.

¹⁶ Kontratu horiek *fictiones juris et de jure* ziren. Baina ez ziren analogia gabeak gizaki aske bat nahita eta kontratuz jaun feudal baten menpean jarztearekiko egintza errealekiko, zeina era hedakorrean praktikatu baitzen XI. eta XII. mendeak bitartean. Gizaki askeak jaun feudalarren jurisdikzioa eta betebeharrak ekonomiko halako batzuk onartzen zuen. Erabat giza askearen bere estatusari uko egiten zion. Horren ordez jaunaren babesa eta beste abantaila batzuk hartzen zituen.

¹⁷ Antzeko era batean ez du zentzu juridikorik akusazio publikoa egiteak

«populua halako eta halakoren kontra»ko kasu bat bezala. Pertsona juridiko akusatzailerak estatua da.

¹⁸ Eragin hori bereziki argia da Ingalaterran eta batez ere John Lockeren kasuan. Filosofo politiko gisa, idatzi besterik ez zuen egiten, argudiaketa orokor baten mantupean, Jakobo II.aren aurka eta Whig bere adiskideen alde, zeinek hartu baitzuten iraultza «loriatsu»aren erantzukizuna beren baitan. Horrek azaltzen du arrazoiaketa-lerro baten arrakasta, zeina konnotazio hori gabe gutxietsia geratuko baitzatekeen. Gobernuaren xedea herriaren ongia da eta ongi hori jabetza pribatua babestean datza, zeina baita gizakiak «gizartearen sartzearen» arrazoaia. Xede horretarako biltzen dira eta egiten baitute autoritate komunari men egitearen Jatorrizko Kontratu bat. Kontratu hori hautsi, jabetza eta askatasuna arriskuan jarri eta erresistentzia justifikatzen da, argi eta garbi esateko, Whig aristokratek eta Londresko merkataria-
riak gobernuarekin bat ez datozenen.

¹⁹ Orientazio orokor baterako, ikusi bereziki Kent: *The Philosophical Radical*; Graham Walas: *The Life of Francis Place*; Leslie Stephen: *The English Utilitarians*.

XXI

¹ Kabinete-ministro baten funtzioen teoria ofizialak sostengatzen du, izan ere, haren departamentuan herriaren nahia bete dadin zaintzeko hautatua dela.

² «Zorionik handiena»ren esanahiak berak zalan-za larri bat izan

dezake. Baina nahiz eta zalantza hori ezabagarria izan eta pertsona talde baten beharrian ekonomikoen asetzearen batura totalari esanahi definitu bat esleitu ahal izan, maximo hori oraindik erlatibo izango litzateke bitarteko demokratikoen konpromiso baten objektu bihurtzeko edo aldatzeko agian ezinezkoak diren egoera eta balioespeneak.

³ Horrek azaltzen du nola demokraziaren teoria klasikoaren hala herri-sineste demokratikoen izaera bortizki berdinzalea. Aurrerago adieraziko da nola lor dezakeen berdintasuna postulatatu etiko baten estatusak. Baina, zeinahi delarik ere esamolde horri ematen zaion zentzua, ezin zaio ezein kasutan aplikatu gizakiei diren bezala. Ezintasun horren onarpenean sarritan birformulatu da postulatua bera «aukera-berdintasun» zentzua emanez. Baina «aukera» hitzak bere baitan dituen zailtasunak berak alde batera utzirik, birformulazio horrek berorrek ez digu asko balio, zeren portaera politikoa arrazionaltasun-berdintasun efektiboa (eta ez potentziala) baita behar dena baldin eta gizaki baten boto bakoitzak pisu bera izan behar badu kontrobertsiak erabakitzean.

Bide batez ohartu behar da fraseologia demokratikoak gisa guztietako desberdintasunen eta «injustizia», porrot eginaren konplexu psikikoan eta erabiltzen duen politikariaren artsenalean hain elementu garrantzitsua denaren arteko asoziazioa elikatzeko balio izan duela Fenomeno horren sintoma bitxienetako bat ostrazismoaren instituzio atenastarrean agertu da edo hartaz batzuetan egi-

ten zen erabilpenean. Ostrazismoa zetzan boto herritarrez norbanako bat proskribatzean, baina ez derrigor arrazoi bereziren batengatik; batzuetan «bakarrak baino gehiago» balio zuen inpresioa ematen zuen hiritar gailen molestagarri bat ezabatzeke metodotzat erabiltzen zen.

⁴ Esamolde hau jatorrizko zentzuan erabiltzen da hemen eta ez gaur egun abiada bizkorrean hartzen ari den eta ondorengo definizioak iradokitzen duen zentzuan: Propaganda da atsegin ez dugun iturriari darion agerpen oro. Uste dut izenburua datorrela kardinale-batzordearen izenburutik, zeinak bere esku baitauzka fede katolikoaren hedapenari buruzko auziak, hau da, congregatio de propaganda fide. Beraz, ez du bere baitan inolako zentzu depredatzailearik eta, bereziki, ez du gertakarien distortsiorik inplikatzen. Propaganda, adibidez, era zientifikoan egin daiteke. Gertakariak eta argudioak aurkeztea besterik ez du esan nahi gizakien egintza eta iritzietan eragiteko asmoarekin norabide jakin batean.

⁵ Gorputz legegileek, nahiz eta koldaturik egon, utzi egin zioten, izan ere, Napoleoni laguntzeari politika horretan. Eta haren paladin leialenetako batzuek aurka egin zioten.

⁶ Napoleonen jardueratik, izan ere, beste adibide batzuk aipa daitezke. Autokrata bat izan zen, bere interes dinastikoak eta bere kanpo-politika afektaturik gertatzen ez ziren guztietan, herriak nahi zuela edo behar zuela berak uste zuena egiten ahalegintzen zen. Hori esan nahi zuen Eugène de Beauharnais eman zion aholkuak Ipar Italiako administrazioari buruz.

⁷ Hauxe da inoiz izan den erradikal ingeles atseginenetako baten liburu egiati eta xarmagarri baten izenburua: Graham Wallasena. Gaiari buruz harrezkero idatzi den guztia gorabehera, eta batez ere kasuaren azterketa xehetu guztiak gorabehera, zeinek orain askoz argiago ikustea ahalbidetzen baitute, liburu hori oraindik ere psikologia politikorako sarrera hobeentzat gomenda daiteke. Guztiarekin ere, jatortasun miresgarriaz eraman ondoren teoria klasikoaren kritikarik gabeko onarpenaren aurka, autoreak ez du hartatik ageriko den ondorioa ateratzen. Hori hainbat ohargarriagoa da zenbat eta Wallasek arrazoiz azpimarratzen baitu jarrera mental zientifiko baten premia eta Lord Bryce gaitzesteari ez dio uzten bere burua aitortu zuelako, amerikar commonwealthari buruzko bere liburuan, «amorratuki» deliberaturik oskarbi pixkaren bat ikustera gertakari desadregarrien hodei artean «. Kontxo, Graham Wallasek badirodi jaregiten duela, zer esango genuke meteorologo batez baldin eta hasieratik beretik zeru oskarbi pixka bat ikusi duela behin eta berriz esango balu?

⁸ *Massenpsychologie* hitz alemaniarak ohar bat iradokitzen du: jendetzen psikologia ez da masen psikologiarekin nahastu behar. Lehenak ez du derrigor konnotazio klasistatik eta berez ez du inolako zerikusirik langile-klasearen pentsatzeko eta sentitze-ko moduen azterketarekin, adibidez.

⁹ Goragoko pasartearen irrazionalitateak gurari jakin batekiko arrazionalki jarduteko ezgaitasuna esan nahi du. Ez da ari gurariak berak duen arrazionaltasunaz, behatzailearen iri-

tziaraz. Garrantzizkoa da hori kontuan izatea, zeren kontsumitzaileek bapikatu egiten baitute batzuetan, bi gauzak nahastuz. Horrela, lantegi bateko neska baten jantzia irakasle bati irrazionaltasun-zantzua irudi lekiok, zeinarentzat artifizio publizitarioak beste azalpenik ez baitago. Izatez, agian nahi duen gauza bakarra izango da hori. Hori horrela bada, horretarako egiten duen gastua arrazionaltasun ideal batekoa izan daiteke gorago adierazitako zentzuan.

¹⁰ Maila hori aldakorra da, noski, ez bakarrik aro eta tokiekiko, baizik eta aro jakin baten barruan eta toki jakin baten barruan, sektore industrial eta klase desberdinen arabera. Ez dago arrazionalitatearen pautarik unibertsal baten antzeko ezer.

¹¹ Pentsamenduaren arrazionalitatea eta ekintzaren arrazionalitatea bi gauza desberdin dira. Pentsamenduaren arrazionalitateak ez du bermatzen beti ekintzaren arrazionalitatea. Eta azkenik existi daiteke inolako deliberazio kontzienterik gabe eta ekintzak berak justifikatzen dituzten arrazoiak zuzen formulatzeko gaitasun ororekiko independenteki. Behatzaileak, inkesta eta galdetegiaren metodoak erabiltzen dituen behatzaileak bereziki sarritan galtzen du begietatik bereizkuntza hori eta horregatik ideia bapikatua eskuratzen du irrazionalitateak portaeran duen garrantziaz. Hori hain sarri aurkitzen ditugun bapikatzeen beste kausetako bat da.

¹² Ohartu behar da, nahi izate definitu eta benetakoez hitz egitean ez dut esan nahi azken datu izatera jasotzen dituenik gizarte-analisen mota guztietarako. Gizarte-prozesuaren eta

gizarte-ingurunearen emaitza dira, noski. Esan nahi dudan gauza bakarra da datutzat balio dezaketela ekonomialariak irudimenean dauzkan xede berezietarako analisi motarako, «datu»tzat kontsideraturiko prezioak gustu edo premietatik eratorrarazten dituenean une jakin batean eta zeinak aldioro aztertuak izatearen beharrik ez baitute. Antzeko era batean hitz egin dezakegu gure xedetarako nahi-izate benetakoa eta definituez, zeinak, une oro, horiek fabrikatzeko ahaleginez aparte gertatzen baitira, nahiz eta onartzen dugun nahi-izate benetakoa horiek berak iraganeko ingurumen-eraginaren emaitza direla, eragin propagandazkoak barne direla. Nahi izate benetakoa eta fabrikatuen arteko bereizkuntza hori (ikus! beheago) bereizkuntza zaila da eta ez dago kasu guztiei eta xede guztietarako aplikatzerik. Gure helbururako, hala ere, aski da seinaltzea begi-bistakoa denez zentzu komunean oinarriturik dagoela.

¹³ Benthamen aldekoek hain osoa den hau jaramonik egin gabe pasatu izanaren arrazoia da masaren usteltzearen ahaltasunak ez kontsideratu izana kapitalismo modernoan. Beren teoria politikoan teoria ekonomikoan egin zuten akats bera egitean ez du aurkitu inolako eragozpenik postulatatzeko «jendeak» zirela beren interes banakoen epailerik hoberenak eta horiek bat etorri behar zutela derrigor herri osoaren interesekin, hura osoki harturik. Jakina, hori errazago gertatzen zen haientzat, efektiboki filosofatzen zutelako, berariaz ez bazen ere interes burgeseko terminotan, zeinek gehiago baitzuten irabazteko estatu

gartxu batengandik zuzeneko edozein sobornotatik baino.

¹⁴ William Jamesen «errealitatearen zentzu ziztagarria». Puntu horren garrantzia bereziki azpimarratu du Graham Wallasek.

¹⁵ Puntu hau argitzen lagunduko digu galdetzeak zergatik agertzen garen adimen eta pentsamendu-argitasun hain garai batekin bridge-mahai batean, adibidez, ez politikoen arteko eztabaida politiko batean agertzen garenaren aldean. Bridge-mahaian ataza definitua daukagu; diziplina-tzen gaituzten arauak dauzkagu; arrakasta eta porrota argi eta garbi definiturik daude eta portaera arduragabea eragozten digu egin dezagun hutsegitte bakoitza berehala agertzeak ez ezik, bai eta berehalaxe egotziko digutelakoak ere. Baldintza horiek, hiritar arruntaren portaera politikoan betetzeari uztean, erakusten dute zergatik politikan falta zaion erretasun eta bere profesioan gara dezakeen zentzu oro.

¹⁶ Ikusi XII. kap.

¹⁷ Suminezko leherketa horien garrantzia ez dago zalantzan jartzerik. Baina horien benetakotasuna jar daiteke zalantzan. Azterketak erakutsiko du adibide askotan talderen baten egintzaz kitzikaturik daudela eta ez direla berez herritik sortzen. Kasu horretan ondoren tratatuko ditugun fenomeno mota baten barruan sartzen dira. Nik neuk uste dut badirela benetakoa adibideak. Baina ezin naiteke ziur egon azterketa xeheago batek ez ote lukeen azalduko ahalegin psikoteknikoren bat haien barrenean.

¹⁸ Informazioa hautatuak, nahiz eta berez zehatza izan, egia esanez gezurretan aritzeko ahaleginari erantzuten dio.

¹⁹ Baliteke muga horiek argiroago agertzea kontrobertsiak erreferendum bidez sarriago erabakiko balira. Uste izatekoa da politikariek badakitelat zergatik diren ia hutsik egin gabe instituzio horrekiko etsaiak.

²⁰ Ohar bedi fede sozialistarekin duen antza, zeina baita fede kristauren ordezkot bat batzuentzat eta haren osagarri bat besteentzat.

²¹ Objekta liteke, Berdintasun hitzari esanahi orokor bat esleitzea zaila bada ere, esanahi hori testuingurutik erator daitekeela kasurik gehienetan, denetan ez bada ere. Adibidez, ondoriozta daiteke Gettysburgeko alokuzioa zuzendu zeneko inguruabarrak, zeinak «gizaki guztiak aske eta berdintan sortuak izan direlako baieztapenarekin», besterik gabe ulertarazi nahi baitzuen estatut juridikoaren berdintasuna esklabotzaren berrespean inplikaturik dagoen desberdintasun motaren aurrez aurre. Esanahi hori aski definitua izango litzateke. Baina galdetzen badugu zergatik baieztapen horrek behartu behar gaituen moralki eta politikoki eta uko egiten badiogu erantzuteari «gizaki oro izareaz beste gizaki batekiko erabat berdina delako», orduan fede kristauak ematen duen santzio jainkotiarra bakarrik jo dezakegu. Soluzio hori segur aski «sortuak» hitzean inplikaturik dago.

²² Irudi lezake salbuespen bat egin beharko litzatekeela eraentza nabarmen autokratikoaren barruan sortzen diren oposizioekin. Baina horietako

gehienak ere historikoki era demokratikoan sortu dira eta herriaren onarpenean oinarritu dute beren dominazioa. Zesar ez zuten plebeioek hil. Baina hil zuten oligarka aristokratek ere esaldi demokratikoak erabiltzen zituzten.

XXII

¹ «Exekutibo» hitz ez-egiatia, izatez, norabide faltsua seinalatzen du. Baina desorientatzeari uzten dio konpainia bateko «organo exekutibo»ez hitz egitean erabiltzen dugun zentzuan erabiltzen badugu, zeinek akziodunen borondatea «exekutatzea» baino askoz gehiago ere egiten baitute.

² Ikusi, hala ere, aurreragoko laugarren puntua.

³ II. atalean konkurrentziaren inperfekzioak planteatzen dituen arazoen adibideak ikusi genituen.

⁴ Baztertu beharko ez liratekeen metodoak baztertu ere egiten ditu, adibidez, buruzagitza politikoa lortzea herriaren onarpen tazituz edo *quasi per inspirationem* hautespen batez. Hori botaziozko hautespenaz bestelakoa da baina teknizismoan soilik. Baina lehena ez da erabat garrantzīgabea politika modernoan bertan ere; alderdiburu batek *bere alderdiaren barruan* ezarritako nagusioa ez da oinarritzen sarritan haren buruzagitzaren onarpen tazituan baino. Termino erlatibotan hitz eginenez, hala ere, horiek jaramonik egin gabe uzteko moduko xehetasunak dira, nire iritzian, honen moduko zirrimarra batean.

⁵ Nola komunitatearen alor ekonomikoan hala printzipio juridiko eta

moraletan badira inplizitu murrizpen batzuk.

⁶ Aske hemen erabiltzen da mundu guztiak ehun-lantegi bat ezartzeko askatasuna duen zentzuan.

⁷ Ordezkaritza proportzionalaren kontrako argudiaketa oso ongi aurkeztu du F.A. Hermens irakasleak in «The Trojan Horse of Democracy», *Social Research*, azaroa 1938.

⁸ Hau sinpletasun-arrazoiengatik bakarrik egiten dugu. Fenomenoa ezin hobeki egokitzen zaio gure eskemari.

⁹ Hori gutxi gorabehera bakarrik da egia. Hautesleen botoak, jakina, agintera eramaten du talde bat, zeinak kasu normal guztietan gidari banako bat berrezagutzen baitu; baina, oro har, badira bigarren eta hirugarren mailako gidariak eragin politiko pertsonala dutenak eta zeinei gidariak kargu egokiak ematea beste erremediorik ez baitu. Hemendik gutxira arituko gara gertakari horretaz.

Beste puntu bat ere kontuan hartzekoa da. Nahiz eta arrazoia izan espero izateko aginte goreneko posizioa igotzen den gizaki bat, oro har, energia pertsonal ohargarritz hornitua izango dela, nornahi dela ere —aurreago itzuliko gara horretara—, ez da segitzen horretatik beti hori izango denik kasua. Beraz, leader edo «gidari» esamoldeak ez du inplikatzeko horrela izendaturiko norbanakoek buruzagitza-nolakotasunez derrigor horniturik daudenik edo beti arteztarau pertsonalak ezartzen dituztenik. Izaten dira egoera politiko aldekoak buruzagitza-nolakotasunik (eta beste-lakorik) ez duten gizakiak eta posizio

banako bortitzak ezartzeko desfaboragarriak direnak igo daitezke. Beraz, alderdi bat edo alderdi-konbinazio bat batzuetan azefaloak izan daitezke. Baina mundu guztiak berrezagutzen du hori egoera patologiko bat dela eta porrot-kausa tipikoetako bat

¹⁰ Nire iritzian hautes-kolegioa jaramonik egin gabe utz dezakegu. Estatu Batuetako Presidenteari Lehen Ministro deitzean, haren posizioak beste demokrazia batzuetako lehen ministroekin duen oinarritzko antza azpimarratu nahi dut. Baina ez ditut kontuan hartu gabe utzi nahi bataren eta besteen artean dauden desberdintasunak, nahiz eta haietako batzuk formalak areago diren errealak baino. Horietan garrantzi txikienekoa da Presidenteak frantses presidentek dituzten zeremoniako betekizunak burutzea, adibidez. Askoz garrantzitsuagoa da Kongresua ezin duela deuseztu; baina Lehen Ministro frantsesak ere ezingo luke hori egin. Bestalde, haren posizioa Lehen Ministro ingelesarena baino indartsuagoa da, haren buruzagitza Kongresuan gehiengo izatearekiko independentea delakoaren indarrez, legez behintzat, zeren egitez porrota izaten baitu gehinegorik ez badu. Kabineteo kideak (ia) nahierara izendatu eta kargugabetu ere egin ditzake. Horiei nekez dei dakieke ministro hitzaren zentzu ingelesean, eta, izatez, «idazkari» besterik ez dira hitzaren adiera arruntean. Esan genezake, beraz, zentzu batean Presidenteak ez dela Lehen Ministroa bakarrik, baizik ministro bakarra, Kabinete ingeleseko ministro baten funtzioen eta Kongresuko indar administratiboen

buruzagien funtzioen artean analogia bat aurkitzen ez badugu.

Ez dago zailtasunik Estatu Batuetako edo metodo demokratikoa erabiltzen duen beste edozein herrialdetako horiek eta beste berezitasun asko interpretatu eta azaltzeko. Baina lekua aurrezteko batez ere eredu ingelesa izango dugu kontuan eta gainerako kasu guztiak «desbideratze» gutxi-asko garrantzitsutzat kontsideratuko ditugu, gobernu demokratikoaren logika, honaino, betetasun handiagoz praktika ingelesean lortu delako teoriar oinarrituz, nahiz eta forma legezkoetan ez horrela izan.

¹¹ Gogoan izango da parlamentua estatuaren organo gisa definitu dudala. Logika formalezko arrazoiengatik definitu badut ere, definizio hori bereziki ongi egokitzen zaio metodo demokratikoaren nire kontzepzioari. Agindu parlamentarioa, beraz, magistratura bat da.

¹² Austrian hartu zen, adibidez, 1918ko porrokatzearen ondoren.

¹³ Deitoratzea, batzuek egiten duteenez, kargu baterako gaitasunak zeinen gutxi balio duen sistema horietan deskripzio batek kontuan izan behar duen puntutik aldentzea da; esentziala zaio gobernu demokratikoari balio politikoak nagusiki balioa dutenak izatea, eta aitzitik karguetarako egokitasunak intzidentalki bakarrik balio du. Ikusi aurrerago XXIII. kap.

¹⁴ Baldin eta, Frantzian gertatzen denez (III. Errepublikan), lehen ministroak ez badu aginterik, *coteries* parlamentarioek hainbesteko independentzia hartzen dute, non ahuldu edo desegin egiten baita parekotasun hori

parlamentuak gizaki bat hartzearen eta hautesleriak gizaki bera onartzearen artean. Egoera horretan politika parlamentarioaren kirola nahaste izatera iristen da. Gure ikuspuntutik hori eraikuntza-akats bat da makina konstituzionalaren plana delineatzean. Raymond Poincaré ere iritzi berekoa zen.

Egoera horiek, jakina, Ingalaterran ere izaten dira. Zeren Lehen Ministroaren deusezte-agintea —termino hertsietan Komunen Ganbera disolbatzeko monarkari «aholkua» emateko ahalmena— ondorioz gabea da, edota haren alderdiko zirkulu gidaria aurrean jarriko zaion kasuan edota hauteskondeek haren Parlamentuaren gaineko domeinua indartzeko aukerarik ez baldin badago. Hau da, Lehen Ministroa indartsuagoa izan daiteke (baita segur aski ahaulagoa ere) Parlamentuan herrialdean baino. Gauzen egoera horrek halako erregulartasun batez garatzeko joera du gobernu bat agintean egon ondoren zenbait urtez. Baina sistema ingelesean, arautiko desbideratze horrek ezin du luzaroan iraun.

¹⁵ Ez dut esan nahi horrenbestez gerra errusiar-turkiarrak planteaturiko auzien soluzio tenporala eta Zipreko uhartearen lorpen, erabat alferrikakoa, berez arte politikoaren halako maisu-lanak zirenik. Baina bai esan nahi dut, barne-politikaaren ikuspuntutik, emaitza horiek izan zirela batez besteko hiritarraren banitatea normalean lausengatuko lukeen eta gobernuaren ikuspegiak abertzaletasun «jingo» (erasokorreko) giro batean nabarmen hobetuko lukeen arrakasta arazeriatu gisakoa izan zirela hain

zuzen ere. Izan ere, iritzi orokorra zen Disraelik hautespena irabaziko zukeela Berlinetik itzuli eta berehalaxe parlamentua disolbatu izan balu.

¹⁶ Gauzak egiteko era ingelesaren ezaugarria da Lehen Ministroaren karguaren existentziaren berrezagutze ofiziala 1907 arte atzeratzea, eta data horretan gorteko lehenatasun-ordenan agertzea eman zitzaion. Baina kargua gobernu demokratikoa bezain antzinakoa da. Hala ere, gobernu demokratikoa Akta berezi baten bidez inoiz sarrarazia izan ez zenez gero, baizik eta astiro garatu baitzen prozesu sozial zabal baten parte gisa, ez da erraza adieraztea ezta gutxi gorabehera haren data ere edota haren jaiotze-garaia ere. Denbora-epe luze bat dago ernamuineko kasuak aurkeztzen dituenak. Tentagarria da ikustea instituzioaren hasiera Gillen III.aren erreinutik hasita, zeinaren posizioak haren aurreko autoktonoena baino askoz ahulagoa zenak egiantzekotasun-itxura ematen baitio hipotesi horri. Hala ere, horre egin beharreko objektzioa ez da Ingalaterra ez zela orduan «demokrazia» bat –irakurleak gogoratu du ez dugula definitzen demokrazia frankizien hedapenez–, baizik eta, alde batetik, Danbyren ernamuineko kasua Charles II.aren azpian gertatu zela, eta, bestetik, Gillen III.a ez zela inoiz ordenazio horrekin adiskidetu eta bere eskuetan halako botere batzuk iraunaraztea lortu zuela. Ez ditugu nahastu behar lehen ministroak kontseilari hutsekin, nahiz eta aginpide handia izan beren subiranoen gain eta nahiz eta oso irmoki luebakiturik egon botere publikoaren

organismo sortzailearen erdigunean, adibidez, Richelieu, Mazarino edo Straforden kasuan gertatzen zenez; Godolphin eta Harley, Ane erreginaren azpian, trantsizio-kasuak izan ziren argi eta garbi. Bere garaian Lehen Ministrotzat unibertsalki eta historialari politikoen aldetik berrezagutua izan zen lehen gizakia Sir Robert Walpole izan zen. Baina bai berari eta bai Newcastleko Dukeari (edo haren anaia Henry Pelhami edo biei aldi berean), eta Lord Shelburneganaino buruzagitzan ibili ziren gizaki guztiei (Pitt, zaharra, barne, zeina Kanpo Arazoetako Idazkari gisa oso hurbil egon baitzen *in substance* gure eskakizunak betetzetik) ezaugarrietako bat edo beste falta izan zitzaion. Lehen ale erabat garrantzia Pitt gaztea izan zen.

Interesgarria da ohartzea Sir Robert Walpoleren kasuan haren garaiak berak berrezagutu zuena (eta geroago Lord Carteret, Granvilleko Kondearen kasuan) ez zela izan organo esentzial bat zegoela gobernu demokratikoarentzat ehun atrofiatuetan zehar bidea urratzen ari zena. Aitzitik, iritzi publikoak ez zuen ikusten harengan tumore gaizbera baten antolakuntza besterik, zeinaren hazkuntza mehatxua baitzen ongizate nazionalerako eta demokraziarako; «ministro bakarra» edo «lehen ministroa» Walpoleri etsaiek jaurtikiriko laidozko esamolde bat zen. Gertakari hori adierazgarria da. Ez du bakarrik adierazten instituzio berriek eskuarki topo egiten duteneko erresistentzia. Halaber, adierazten du instituzio hori ez zela bateragarri kontsideratzen demokraziaren teoria klasikoarekin,

zeinak ez baitzuen, izan ere, lekurik buruzagitza politikorako, gure zentzuan, eta, ondorioz, ez zuen lekurik Lehen Ministro baten posizioaren errealitateentzat ere.

¹⁷ Gladstonek berak irmoki bermatu zuen teoria hori. 1874an, hauteskundeetan porrota izan zuenean, artean Parlamentuan aurkeztea defendatzen zuen, zeren, haren ustez, Parlamentuari baitzegokion hautes-gorputzak emandako kargugabetze-ebazpena berrestea. Baina horrek ez du ezer esan nahi, noski. Era berean, errespetu mugagabea zion koroari. Haren biografoek bata bestearen atzetik gidari demokrata handiaren jarrera gortesau hori mirestu egin dute. Baina Viktoria erreginak segur aski biografo haiek baino bereizmen handiagoa erakutsi zuen, 1879tik hasita Galdstoneri erakutsi zion aihertasun handiarengatik eta zeina biografoek Disraeliren eragin makurrari egozten baitzioten. Benetan beharrezkoa da seinalatzea errespetzuko profesio horiek bi gauza desberdin adieraz ditzaketela? Bere emaztea kortesia arazeritasuz tratatzen duen gizona, oro har, sexuen arteko kamaradatza berdintasun-terminotan onartzen duena. Izatez, jarrera gortesaua kamaradatza saihesteko metodo bat da.

¹⁸ Lehen Ministro karguaren bilakera baino oraindik lausoagoa da kabinetearena, jarraitasun historikoarengatik, zeinak disimilatzen baititu instituzioaren izarean gertaturiko aldaketak. Orain arte, kabinete ingelesa Privy Councilen sail exekutiboa eratzen du. zeina baitzen, noski, gobernu-tresna bat argirto predemokratiko-

ak ziren garaietan. Baina gainalde horren azpitik organo zeharo desberdin bat garatu da. Organo horren existentzia hauteman bezain laster haren jaiotze-data seinalatzearen ataza aurkituko dugu neurri batean Lehen Ministroaren kasuan baino errazagoa dena. Nahiz eta Charles II.aren garaian ernamunekeo kabineteak egon («Intriga»ko Ministerioa izan zen bat eta Tenplearen esperimentuarekiko loturan eratu zen Lauen Komitea izan zen beste bat) «junto» Whiga Gillen III.aren azpian hautagai ona da lehen posturako. Ane erreginaren erreinutik aurrera garrantzi gutxiko auziak bakarrik daude, zeinetan desakordio bat egon baitaiteke haien existentziaz edo funtzionamenduaz.

¹⁹ Batzuetan politikariak lainarte fra-seologikoetatik irteten dira. Fribolitatezko zioarengatik inolako objekzio-rik ezartzerik ez dagoen adibide bat ematearren, Sir Robert Peel-en tamainako politikari baten esaldia aipatuko dugu, zeinek ezaugarritu baitzuen bere ofizioaren izaera esan zuenean, Whig gobernuaren gainetik garaipen parlamentarioaren ondoren azken horrek Jamaikari buruz izan zuen politikari buruzko eztabaidan: «Jamaika zaldi on bat zen abiatzeko». Irakurleak gogoeta egin beharko luke horretaz.

²⁰ Hori aplikagarri zaio, noski, Vichyren aurreko jarduera parlamentarioari eta faxismoaren aurreko jarduera italiarrari, jarduera ingelesari bezalaxe. Hala ere, izan liteke zantzarik izan Estatu Batuen kasuan, non Administrazioaren porrotak auzi garrantzitsu batean ez baitakar Pre-

sidentearen kargugabetzea. Baina hori bakar-bakarrik da Konstituzioak, zeina teoria politiko desberdin batean inspiraturik baitago, ez baitu ahalbidetzen jarduera parlamentarioa bere logikaren arabera gara dadin. Baina, izatez, logika horrek erabat berresten du bere burua. Garrantzizko gauzeta-ko porrotek, nahiz eta Presidentea lekutik kentzeko gai ez badira ere, hainbestearino ahulduko dute haren prestigioa buruzagitza-posiziotik kentzeko. Une batean horrek egoera anormal bat sortzen du. Baina hurrengo hauteskunde presidentziala irabazi edota galdu gatazka orduan ebatzen da halako era batean, non ez baita oinarriz desberdintzen antzeko auzi bat Lehen Ministro ingeles batek auzia tratatzen duenarekiko Parlamentua disolbatzen duenean.

²¹ Horri buruz teknika ingelesaren beste adibide oso esanguratsu bat aipa daiteke. Legeasmo garrantzitsu batek ez du aurrera egiten, oro har, edo ez zuen aurrera egiten hura bermatzen zuen gehiengoa, bigarren irakurketan, kopuru oso txiki batera murriztuz gero. Praktika honek, lehenik, gehiengo-printzipioari mugakizun garrantzitsu bat onartzea esan nahi du, demokrazia ongi gidatuetan efektiboki aplikatzen denez; ez litza-teke zuzena esatea demokrazia batean gutxiengoa beti amore ematera beharturik dagoenik. Baina bada bigarren puntu bat. Nahiz eta gutxiengoa beti ez egon beharturik gehiengoaren azpian jartzera eztabai-datzen den kontrobertsia berezian ia beti beharturik dago haren mendean bere burua jartzera –badira horrekiko salbuespenak– kabineteak agintean

egon behar duen ala ez auzian. Horrelako boto bat, bigarren irakur-keta batean, gobernuko neurri garrantzitsu bati buruz esan daiteke konfiantzazko boto baten konbina-zioa dela lege-asmo bat baztertzeko boto batekin. Baldin eta legeasmoa-ren edukia izango balitz garrantzizko gauza bakarra ia ez luke zentzurik izango haren alde botoa emateak bal-din eta lege bihurtu behar ez badu. Baina parlamentua nagusiki interes-turik badago kabinetea bere lekuan mantentzen orduan taktika horiek bitartegabe ulergarri bihurtzen dira.

²² Taktika hori ilustratzeko dauden adibideen artetik irakasgarrienetako bat Joseph Chamberlainek joan den mendeko zortzigarren hamarkadan hartutako portaera-lerroa da irlandar auziari zegokionez. Azkenean Glad-stone jokoz kanpo utzi zuen, baina harekiko ofizialki atxiki gisa hasi zuen kanpaina. Eta kasu hori salbues-peneko da gizaki horren indar eta distirarengatik. Kapitain politiko orok dakienez, erdipurdikoak haien leialtasunarengatik bakarrik eduki daitezke kontuan. Hara zergatik kapi-tain handienetako batzuek, Disraelik adibidez, inguratzen zuten beren burua bigarren lerrokoko gizakiz.

²³ Inoiz heldu ez zaion auzi bat da lehen motako arazoan adibide tipi-koa. Arrazoi tipikoak, zeinaren bidez gobernuak eta oposizioaren kabinete potentzialak hitzar dezakete tazituki arazo bat bakean uztea, nahiz eta haren helmenaren kontzientzia izan, hura tratatzeko zailtasun teknikoak eta tokiko zailtasunak sortuko dituen beldurra dira.

XXIII

¹ Horren adibideak ugari dira, noski. Politikari horien mota bereziki irakasgarria juristak dira, Chambre eta Sénat frantsesetan eserlekua dutenak. Gidari politiko gailenetako batzuk abokatu bikainak ere izan dira: pentsa bedi, esaterako, Waldek-Rousseaugan eta Poincarégan. Baina, oro har, (eta kontuan hartu gabe uzten baditugu kasuak, zeinetan abokatu-bufeteek berenez mirakuluzki aurrera joaten baitira, abokatu asoziatuetako bat gidari politikoa denean eta sarritan ministro-karguetara deitua denean), auzitegieta arrakasta eta politikako arrakasta ez dira batera ibiltzen.

² Ohar bedi zeinen ongi lotzen zaion argudio hori intelektualen posizio eta portaeraren gure analisiarekin XIII. kapituluan, II. sailean.

³ Irizpide hori fribolo edo zinikotzat gaitzetsi izan da batzuetan. Nik uste dut, aitzitik, fribolo edo zinikoa dela jendaurrean kontsignak sinesten diren itxurakeriak egitea, zeinentzat pribatuan ez baitugu irribarre zoritxar-iragarle bat besterik. Baina halaber bidezkoa da seinalatzea iritzi hori ez dela dirudien bezain detraktatzaila politikariarentzat. Ez ditu idealak baztertzen ez eta betebeharrak zentzu bat ere. Negozio-gizakiarekiko analogiak lagunduko du beste behin hori argitzen. Beste toki batean esan dudanez bizitza ekonomikoaren errealitatea zertxobait ezagutzen duenak une batez ere ez du sostengatuko betebeharraren zentzua eta zerbitzu- eta efizientzia-idealek ez dutela inolako paperik jokatzen negozio-gizakiaren taxueran eta portaeran. Guztiarekin ere, ekonomialari bera bere eskubide-

an dago portaera horren bere azalpena oinarritzen badu lukroaren eragin-garrian bermatzen den eskema batean.

⁴ Adibide tipiko bat jartzeko: 1914-1918ko Mundu Gerraren jatorrien aztertzaile batek ere ezin dio uko egin harritzeari gobernu ingelesak izan zuen pasibitatearen aurrean artxidukea asasinatu zutenetik hasi eta glera-deklarazioetara arte. Ez du esan nahi ahaleginik egiten ez zenik konflagrazioa saihesteko. Baina nabarmenki ez-eraginkorrak izan ziren eta oso motz geratu ziren izan zitekeenarekiko. Jakina, ahalgarria da hori azaltzea Asquith gobernuak benetan gerra saihestu nahi ez zuelako teorian oinarrituta. Baina teoria hori asegaitza gertatuko balitz, gertatu beharko litzagukeela uste dudanez, orduan beste bat hartu beharra daukagu: guztiz ahalgarria da eserleku urdineko zaldunak hain murgildurik egotea beren joko politikoan, non ez zituzten egoera nazioartekoaren arriskuak hauteman harik eta beranduegi izan zen arte.

⁵ «Arrakasta»z ez dut ulertzen prozesu demokratikoa atergabe birsortzen den kasua baizik, metodo ez-demokratikoetara jotzea behartuko duten egoerak etengabe sortu gabe eta zeinak helduko baitie arazo arruntei politikoki balio duten interes guztiek epe luzera onargarritzat joko den era batena. Ez dut esan nahi behatzaille orok haren emaitzak bere ikuspuntutik onartu behar dituenik.

⁶ Burokraziaren gaiari buruz XVIII. kapituluan egindako iruzkin batzuen aipamenak sinetsaraziko dio irakurleari ezen, hiru ikuspuntuetatik, buro-

kraziak eskainitako soluzioa ez dagoela idealtzat hartzerik ezein zentzutan. Bestalde, irakurleek ez dute ez dagokien eraginik jaso behar esamolde horrek herri-hizkuntzan dituen asoziazioengatik. Edozein kasutan soluzio hori da errealista bakarra.

⁷ Antzinako Erroman, zeinarekiko erlazioan abusuz erabiltzen baitugu diktadura hitza, autokrazia bat garatu zen, zeinak erakutsi baitzuen, zenbait mendetako epean, dikatura modernoen zertzelada batzuekiko zeharo antzik gabeak ez ziren zertzelada batzuk, nahiz eta analogia ez den urrunegi eraman behar. Baina autokrazia hark ez zuen diktadorearen magistratura errepublikarraren erabilpenik egin, Caius Julius Caesarren kasua salbu. Silaren diktadura aldi bateko magistratura besterik ez zen izan, helburu jakin baterako sortua (eraberritze konstituzionalerako). Eta gainerakoan ez dago beste kasu batzuk aipatzerik erabat «erregularrak» ez direnak.

⁸ Esan behar dena da demokrazia printzipioaren desbideratze batzuk daudela, interes kapitalista antolatuen existentziari lotuak. Baina, horrela zuzendurik, baieztapena egia da, nola teoria klasikoaren ikuspuntutik hala demokraziaren gure teoriaren ikuspuntutik. Lehen ikuspuntutik emaitzak esan nahi du interes pribatuek dituzten ekintza-bitartekoak sarritan herriaren nahia frustratzeko erabiltzen direla. Bigarren ikuspuntutik emaitzak esan nahi du sarritan baliabide pribatuak erabiltzen direla buruzagitzak konkurrentziaren mekanismoaren funtzionamendua interferitzeko.

⁹ Demokrazia industrial edo demokrazia ekonomikoa hainbeste kuasi-utopiatan ageri den esaldia da, non oso esanahi lausoa gorde duen. Oinarrian, nik uste bi gauza esan nahio dituela: lehenik, sindikatuen domeinua industria-harremanakiko, lantegiaren kudeaketaren sistema monarkikoaren demokratizazioa zuzendaritza-batzordeetan langile-ordezkaritzaren bitartez edota langileei hobekuntza teknikoak sartzeko eragina segurtatzeko asmatuakiko beste formula batzuen bidez, oro har enpresaren politikan eta, jakina, lantegiko diziplinan bereziki, onartze eta kanporatze-metodoak barnean hartuz. Mozkinetan parte-hartzea planen azpisail bateko panazea da. Segurtasunez esan daiteke demokrazia ekonomiko horren parte handi bat hegazkurtu egingo litzatekeela eraentza sozialista batean. Hori ere ez da ematen duen bezain larria. Zeren demokrazia honek salbatu nahi dituela dirudien interes asko desagertuak egongo bailirateke orduan.

V ATALA

¹ Puntu horietako bat dagoeneko beste leku batean tratatu da. Ikusi XX. kapitulua.

XXIV

¹ Horixe bera esan daiteke Charles Fourierren (1772-1837) antzeko planaz, zeina, hala ere, mundu guztiak ez baitu sozialista deituko, zeren lankidetasunaren produktu sozialaren 5/12 bakarrik jaso behar baitzuen, gainerakoa kapitalera eta zuzendaritzara

zihoalarik. Nahiz eta berez ahalegin merituzkoa izan errealtateak kontuan izatea, dibertigarria da ohartzea lanekuari estatu ideal horretan gizarte kapitalistan doakiona baino okerrago joango litzaiokeela, izatez. Gerraurreko Ingalaterran, esaterako (ikusi A. Bowley: *The Division of the Product of the Industry*, 1921, 37. or.) 160 libraz azpiko soldata eta alokairuek hurrupatzen zuten, lantegi eta meatzetan, produkzio garbiaren balioaren ehuneko 62, edo bestela ehuneko 68, 160z gorako alokairuak. Jakina, Fourierren idealak ez ziren nagusiki ekonomikoak; baina halakoak ziren heinean oso ongi ilustratzen dute gertakari kapitalistei buruzko ezjakintasuneko elementu hain handia, zeinak sartzen baitira kredo eraberritzaileetan.

² Horra zergatik sozialista gaituaren sinestun landugabearen kreditik berak zentzugabe edo bisionariorzat daukana kentzeko ahaleginak ez diren erabat arrakastatsuak izango. Sozialismoaren apelazio herritarra ez da hartan arrazionaletik egon daitekeenarengatik, baizik eta ekonomialari burges eta sozialistak gaitzesten bat datozen heresia mistikoengatik hain zuzen ere. Haietatik aldentzen ahalegintzean sozialistak ez dira esker txarreko agertzen hartara darमतзан uhinarekin, baizik eta beren indarrak beste zerbitzu batean sar daitezkeen arriskua ere hartzen dute.

³ Esaldi honen esanahi zehatzerako irakurleak I. eta II. ataletako gure eztabaidetara itzuli beharko du. Hemen bi gauza adierazten ditu: lehen, indar sozial errealak, horien desiragarritasuna edo ez-desiragarri-

tasuna alde batera utzirik, sozialismoaren alde lan egiten dutela, zeinak lortuko baitu gero eta gehiago proposizio praktiko baten izaera; bigarren, hori horrela izanik, leku efektiboa dagoela alderdi-jardueratarako lerro sozialistatan. Azken puntu hori XXV. kapituluaren eztabaidatuko da.

⁴ Ikusi XXVI. kapituluak. Marxistek, jakina, erantzungo dute fenomeno horiek benetakotik eratorritako hutsak direla, proletalgoaren aurrezko martxaren efektu soilak. Hori egia da baldin eta adierazten badu azkena egoerako faktoreetako bat dela lehenak sortu duena eta sortzen duena. Baina, zentzu horretan harturik, proposizio hori ez da objektibo bat. Zuzendaritza bakarreko edo kausa efektu soileko harreman bat dagoela proletalgoa eta estatu-sozialismoaren artean, orduan objektibo bat da, baina herratua. II. atalean deskribaturiko prozesu psikosozilogikoak sortuko du, behetiko inolako presiorik gabe, estatu-sozialismo bat eta fabianoa *presio hori sortzen ere lagunduko duena*. Laster ikusiko dugunez zuzena da galdetzea non legokeen sozialismoa garen bidaiderik gabe. Egia da sozialismoa (sindikalista motako langile-mugimenduz bestelako gauza gisa) ez legoke inon jatorri burgeseko gidari intelektuala gabe.

XXV

¹ Ikusi XX. eta XXIII. kapituluak.

² 1848an hartutako jarrera emotiboa erabat ezinezko bihurtu zuen harentzat erbestera zuen erantzun ez-demokratikoa ulertzea eta hari jus-

tizia egitea. Analisi grinagabe batek ezingo ziokeen utzi haren burutzapen eta ahaltasunak agertzeari. Baina analisi hori kasu honetan haren helmenetik kanpo zegoen.

³ Nik ezagutzen dudak hizkuntzarik ez dago ofizialki hitz hori izen gisa onartzen duenik. Hala ere, hori egitea solezismo oso egokia da.

⁴ Gogoratu behar da marxiarrek jendaila proletarioaz (*Lumpenproletariat*) hitz egiteko joera dutela.

⁵ Internazionalaren Kontseiluko presidente gisa ere jardun zuen. Horrek asko esan nahi zuen, Federazioaren eta «Trade-Unions»en sustatzailerik gailenenetakoa izan baitzen, *London Trade Councilen* antolatzailea eta Langile Urbanoen Emantzipazioarako Liga Erreformistaren kide zuzendaria.

⁶ Ikusi, adibidez, Benedetto Croce: *Materialismo Storico ed Economia Marxista*.

XXVI

¹ Lassalleren egitarauaren puntu nagusia estatuak diruz lagunduriko ekoizle-kooperatibatan langileak antolatzea zen, zeinek lehian aritu behar baitzuten industria pribatuarekin eta azkenean hura ezabatu. Horrek hain nabarmenki du kutsu utopista, non ez baita zaila Marxek horri zion aiherra.

² Orduan 397 eserlekuetatik 110 lortu zituen Reichstagen, eta, talde burgesek alderdi homogeen handiak antolatzeko zuten ezgaitasunarengatik, horrek kopuruak berez adierazten duena baino gehiago esan nahi zuen.

³ Alor kontserbadorean langileen aldeko jarrera bat sortzea bereziki

harrigarria da. Ilustrazio bidez aipa daiteke, alde batetik, Lord Ashleyk zuzenduriko taldea, eta bestetik, Ingalaterra Gaztearen taldea (Disraeliren Demokrazia gaztea).

⁴ Oraingo aroan zaila da hautemaaten zenbat harritu bide zuen neurri horrek artean estatua eta jabetza pribatuaren instituzioan zentratzen zen lege-sistema bat sinesten zuen jendea. Zeren konspirazioaren lege errepresiboaren aplikazioa biguntzean talde grebalarien patruilaketa babetsuarekiko –horrek ia esan nahi zuen indar-mehatzua inplikatzeko duen Trade-Unionsen ekintza bat legezkotzea–, eta Trade-Unionsen *for tort*s kalteengatik erantzukizun-funtsak salbuestea– eta horrek praktikoki Trade-Unionsen ezin zutela bidegabekeriari egin legislatzea zen–, neurri horrek izatez Trade-Unionsengan uzten zuen estatuaren autoritatearen parte bat eta pribilegiozko egoera bat ematen zion, zeinak ezin baitu gutxitu exentzia formalki ugazaben elkarrekin hedatzea. Guztia ere, lege-asmoa 1903an izendaturiko Errege Batzorde baten txostenaren emaitza izan zen Alderdi Kontserbadorea agintean zegoela. Eta buruzagi kontserbadorea (Balfour), hiru garren irakurketako hitzaldi batean, inolako ezadostasunik gabe onartu zuen. 1906ko egoera politikoak lagundu egiten du, noski, jarrera hori azaltzen. Baina horrek ez du nire ikuspuntua baliogabetzen.

⁵ Unionismo berriak adierazten du antolakuntza erregular eta egonkorren hedapena, zeinak bederatzigarren hamarkadaren erdi arte funtsean mugaturik baitzeuden ofizio kalifikatueta

eta banitate profesionaleko eta errespetagarritasun burgeseko jarrerak garatu baitzituzten (zortzigarren hamarkadako gidari batzuek, Crowfordek adibidez, sarritan azpimarrazten zuten jende errespetagarria eta masa proletarioaren Trade-Unionsak) berak baino beheragoko estratu gutxi-asko gaitugabeetan. Horiek askozaz beren aginteaz segurtasun gutxiagorekin sentitzen ziren enplegua lortzeko eta, beraz, propaganda sozialistarako askoz irisgarriagoak ziren eta greba bakarrak arma segurtasungabeak zirelako argudiorako eta ekintza politikoren bidez osatu behar zirelako. Horrela lotura garrantzitsu bat dago unionismoaren beheranzko hedatze haren eta Trade-Unionsek izan zuten jarrera aldaketaren artean, alde batetik, jarduera politikoarekiko, eta bestetik, sozialismoarekiko. Orduan hasi ziren 1888-89ko greba portuario handia gertatu eta handik urte batzuetara Trade-Unionsen kongresuak ebazpen sozialistak onartzen.

⁶ Taldea, 3.000tik 4.000ra kide besterik izan ez zuena, izatez, kopuru horrek adierazten duena baino murriztagoa zen. Zeren gune operatzailea ez baitzen haren ehuneko 10 edo 20 baizik iristen. Gune hori burgesa zen jatorriz eta tradizioz bai eta beste aspektu batean ere: kide gehienak ekonomikoki independenteak ziren, gutxienez, profesio sinple batetik bizi ziren zentzuan.

⁷ 1905ean fabriketako enplegua milioi eta erdi bat langilekoa zen, gutxi gorabehera.

⁸ Analisi honek, jakina, interes handiko auziak planteatzen ditu beharta-

sun historiko deitu ohi dugunaren izaerari buruz, alde batetik, eta buruzagitza indibidualak prozesu historikoan betetzen duen paperaz, bestetik. Uste dut zaila izango litzatekeela sostengatzea Errusia beharrian ezinbestekoz joan zela gerrarra. Serbiar lehian arriskuan zeuden interesak ez ziren hil-edo-biziko garrantzikoak, besterik ez esatearren. 1914ko barneegoera ez zen eraso militarreko politika batera behartzen zuena azken eragingarri gisara. Lehenek estimulatzen egiten zuten, zalantzarik gabe, nazionalistak; bigarrenak erreakzionario muturrekoetako batzuk (ez guztiak), eta biek, xede interesatuko norbanako eta talde batzuk. Zuhurtzia eta imotasun kantitate txiki batek azken tsarraztean, zalantzarik gabe, saihesten zezakeen gerra. Zailagoa izango zatekeen, baina ezin liteke esan ezinezkoa zenik, hondamendia aurrerago ekiditea, egoera argitu zenean eta, Gorliceko batailaren ondoren, arrakasta militarreko itxaropen oro desagertua zenean. Monarkia erori eta gero ere ez da egia inondik ere Kerenskyren gobernuak ezingo zukeenik salbatu egoera bere baliabideak arretaz aurreztuz eta aliatuen inportunazioari uko eginez azken eraso etsipenezko hura agindu ordez. Baina gizarte tsaristak errebolta burgesaren aurretik eta gizarte burgesak haren ondoren, hurbiltzen ari zitzairen zoria paralisi-egoera ezinbesteko bezain azaltzeko zail batean begiesten zuen. Alabaina, ezgaitasun kolektibo bat landan izatea eta bestean energia ez dago, jakina, zoriari esleitzerik. Baina kasu horretan eraentza zaharraren ezgaitasunak esan nahi zuen soilik erabateko desantolakun-

tzako egoera batek eskatzen zuen mailan ez zegoela, baina zalantzarik gabe saihets zitekeela.

Irakurleak ez du esperoko, segur aski, errusiar sozialismoaren eta haren baldintzen nire analisia bat etortzerik Trotskirenarekin (Errusiar Iraultza-ren Historia).

Garrantzizkoagoa den gauza bakarra da bi analisiak *toto coelo* ez desberdintzea, eta, bereziki, Trotskik kontsideratzen zuen une iraultzaileak «bestelako tsar» batekin topo egin izan balu zer gertatuko ote zatekeen auziarekin. Egia da Trotskik baztertu egiten duela ordena haren kontsiderazioetatik eratoritzen den inferentzia nabaria. Baina aitortzen du doktrina marxistak ez gaituela behartzen nortasunaren elementua zabartzera, nahiz eta badirudien ez duela onartzen haren garrantzi osoa iraultza errusiarraren diagnosirako.

⁹ Izatez, kontaktua ezarri zen elementu kriminalekin, nahiz eta Leninek berak ez egin, tokiko haren ordezkoez egin zuten hori. Horrek «ex» taldeen jarduera ekarri zuen (ex-propiazio praktikotik, hau da, desbalijatzeko egiten erabilitako talka-taldeak) nola Errusia bertan hala Polonian. Hori gangsterismo hutsa zen, nahiz eta mendebaldeko intelektualek haren «teoria» apologetiko bat irentsi.

¹⁰ Gure helbururako ez da beharrezko historia ongi ezagun baten xehetasunak iruzkintzen jarraitzea. Aski izango dira honako oharrak: Leninen ez zuen lortu Alderdi Sozialista Errusiarra mendean hartzea, zeinaren gidariak, aitzitik, aldentzen ari baitziren hartatik denbora igaro ahala;

haren egoeraren zailtasuna, zeina sortzen baitzen bere printzipioak hankaz gora bota gabe fronte batu baten antzeko zerbait mantentzeko haren nahitik, ongi ilustraturik geratzen da Plekhanoven ezbaiez. Baina Leninek arrakasta izan zuen bere talde abaturik edukitzean, obedienciapean jartzen eta haren ekintza-norabidea 1905eko errebolta eta haren sekuelek planteaturiko arazoei doitzen, elementu leninista baten presentzia Duman sartuz. Aldi berean kontaktua mantentzea lortu zuen Bigarren Internazionalarekin eta haren barruan irauten (ikus beharago), haren hiru kongresutan parte hartuz eta alderdi erusiarra haren bureau ordezkatuz. Hori ia ezinezkoa izango zatekeen baldin eta haren iritzi eta jarduerak gainerako nazioetako ordezkari zirrara eragitea ahalbidetu balute sozialista errusiar gehienei zirrara eragiten zien bezala. Zen bezalakoa izaki organismo hura, eta mendebaldeko iritzi sozialistak oro har ortodoxiaren hegalek ezkertiarreko figura gailentzat zeukan besterik gabe, eta bera eta beraren mutur-joera zurrana eramaten zituen, aspektu batzuetan administratuz eta beste batzuetan oso serio hartu gabe. Hala, bada, bere politika-esferan paper bikoitza burutu zuen, zeinari ez baitzitzaion analogia eraentza tsaristaren paper bikoitzarekiko, zeinaren jarrera nazioartekoa (haren arbitrajearen eta nazioarteko segurtasunaren defentsan agertzen zenez) nabarmen desberdintzen baitzen barnealdeko haren jarrerarekiko.

Ez burutzapen horiek ez eta pentsamendu sozialistari egindako haren ekarpenak –haietako gehienak nabar-

menki erdipurdizkoak (bidenabar esanik, Trotskirenak ere halakoxeak izan ziren) –ez zioketen posturik segurtatuko lerro sozialistetan. Haren handitasuna Mundu Gerran Errusia porrokatu eta gero etorri zen eta inguruabarren konbinazio bakar baten emaitza izan zen, zeinek egin baitzituzten egoki armak, alde bate-tik, nola haiek maneiatzeko zeukan trebezia apartekoa bestetik. Horri dagokionez, nahiz eta beste batzuetan ez izan, Laski irakaslearen arinkeria *Encyclopaedia of the Social Sciences* obran (Ulyanov artikuluan) erabat ulergarria da, izan ere garai hartan intelektualek ahuspez jarri beharra baitzeukaten, noski, beren garaiko idoloen aurrean.

¹¹ «Muga» egoteak nabarmen murrizten zuen, noski, fikzio-ahaltasunak. Elementu horren garrantzia, nahiz eta handia izan, litekeena da, hala ere, gainprezaturia izan izana. Bilakaera industrialaren erritmo horrek muga industrial berriak sortzen zituen atergabe, eta gertakari hori askoz garrantzitsuagoa zen ekipajea egin eta Mendebaldera alde egiteko aukera baino.

¹² Ordenazio horren zentzu komuna eta baldintza amerikarrekiko haren moldakortasun berezia hain nabariak dira, nola den arantze bat zela Trade-Unionsen haragian, bai eta geroago-koko mota bateko intelektual erradikalenean ere. Gure egunotako kontsignak (berriki santzio ofiziala hartu dutenak) estigmatizatu egin dituzte horrela enpresa-elkartzeak ugazaben ahalegin deabruzko baten emaitza gisa langileen interesen ordezkaritza efektibora bideratutako ahaleginak

porroteratzeko. Nahiz eta iritzi hori erabat ulergarria izan ikuspuntu bate-tik, zeinaren arabera proletalgoaren antolakuntza militanteak axioma moral baten izaera baitauka –eta gure bistaren aurrean garatzen den estatu korporatiboaren ikuspuntutik–, bizi-atu egiten du haren interpretazio historikoa. Ugazabek antolakuntza mota horretarako erraztasunak eman izanak, sarritan ekimena hartu izanak eta haren gain eragina izaten ahale-gintzeak harekin batera hazteko, horrek ez du baztertzen ez ezeztatzen enpresa-elkartzeek eta haien aurrela-riek funtzio oso beharrezkoa bete izana eta, kasu normaletan, haien gizakien interesei ezin hobeki zerbitzatu izana.

¹³ Warren Sanford Stone, Brotherhood of Locomotive Engineerseko-aren figurak adibide bikaina ematen du (nahiz eta berantiarra izan) azke-nik aipaturiko aspektuarena, bai eta besteena ere. Samuel Gompersen garaiko beste adibide batzuk hain errazki etorriko dira irakurlearen iru-dimenera, non ez dagoen haiek aipa-tu beharrik. Baina aurreko hori ez da interpretatu behar Trade-Unionsak, haien sarrera-eskubide garaiekin eta aspiranteen zerrenda luzeekin, zeinak hain harrigarriro estrainioak baitira, Estatu Batuetako langile-elkarte mota bakarra balitz edo izan balitz bezala. Aitzitik, etorkinek Europako baritate guztiak inportatu zituzten eta, haiekiko independenteki, Europan aurkitzen direnen antzeko for-mak garatu ziren baldintzak aldekoak izan ziren tokietan, hau da, batez ere industriaren toki eta abar antzinako samarretan eta sendotu samartuetan.

¹⁴ Hainbat gehiago Lenin bera alde-
du zenean haien maneretatik omenal-
dia egiteko, harentzat erabat ezohikoa
zena, De Leonen obra eta pentsamen-
duari.

¹⁵ Kontuan izan behar da europar
gobernu gehienak laster batean beste
jarrera bat hartzen ari ziren garai
batean egiten zela hori. Hala ere,
horrek ez du esan nahi besterik gabe
«atzerapen» bat zegoenik Atlantikoaz
honaindi. Egia da interes merkantila-
ren prestigio sozial eta politikoa
askoz handiagoa zela Estatu Batuetan
beste inon baino eta amerikar demo-
kraziak, ondorioz, langile-arazoen
ikuspuntu askoz estuagoa hartu
zuela, adibidez, Prusiako Junker
gobernuak baino. Baina onar daiteke
hori, baita pauta moral edo humanita-
rioaren arabera epaitu ere, eta partez
aldi berean onartu ere bai, adminis-
trazio publikoaren garapen urriaren-
gatik, partez elementuen existentzia-
rengatik, zeinekin beste metodo bigu-
nago batek ez bailuke funtzionatu, eta
partez nazioak duen determinazioa-
rengatik aurrerantz presio egiteko
garapen ekonomikoaren bidetik, ara-
zoak bestelako itxura baten azpian
aurkezten dira, eta halaxe aurkeztu
zitzakeen betaurreko burgesik batere
gabeko gobernu-erakunde bati ere.

¹⁶ Sindikalismo italiar eta espainia-
rrak ere ia egokitasun bera izan leza-
kete. Bakarrik, alfabetatugabeen pro-
portzioaren arabera, elementu anar-
kista hain ugaria da herrialde horie-
tan, non lausotu egiten baitu nire
ustez sindikalismoaren benetako
ezaugarriak direnak. Elementu
horrek badu bere lekua. Baina ez da
gehiegi nabarmendu behar.

¹⁷ Egia da toki nabarmenera igota
zegoela «ezkertiar»ren artean greba-
larien gidariak babestuz, eta
Waldeck-Rousseauren kabinetean
sartu zenean «Ezker sozialista» dei-
tzen zuten hirurogei kideetako figura
nagusia zen. Hala ere, era berean
erradikal burges batek egin ez zez-
keen ezer ez zuen egin. Herri
Lanetako ministro gisa (1909) eta
Gerrako ministro gisa gerora izan
zuen jarrerak ez zuen adierazi, haren
etsaiek uste duten bezain haustura
handia. *Bloc nationale*kin ondoren
egindako aliantza eta *cartel des gau-
ches*ekiko haren gatazka presidente-
karguan zegoela 1920az geroztik bes-
telako auziak izan ziren, nahiz eta
justifikazioa onargarriak onartzen
dituzten.

¹⁸ Sozialista italiarrek uko egin zio-
ten, zinez, Giolittik hiru aldiz kabine-
tearekin batzeko egindako gonbitari
(1903, 1906 eta 1911).

¹⁹ Egiazki eragin nahi diot irakurlea-
ri ahal dudan guztian antolakuntza
bakar haren historia laburra birpasa-
tzera. Alemania inperiala izatez zena-
ren hain adierazgarria, nahiz eta ez
den itzuli, segur aski, inoiz eta ez den
itzuliko ere. Haren egilea hamarkada-
tan Vereinen idazkari izan zen eta
haren historia hainbat zirraragarria-
goa da handinahia ez den heinean.
(Franz Boese: *Geschichte des Vereins
für Sozialpolitik*, Berlin, 1939.)

²⁰ Argi eta garbi utzi nahi dut gorago
esaten dudanarekin ez dudala politika
hori, erabat edo era nagusian,
Wilhelm II.ari egozteko asmorik.
Hori ez zen agintaria esanguragabe-
koa izan. Gainera, eskubide osoa
zuen Bülow Printzeak hartaz egin

zuen iruzkinerako monarka batez parlamentuan inoiz egin den defentsarik ez-ohikoenean: «Nahi duzuen esan, ez da filisteo bat». Bere lanbideko teknika irakats ziezaiokeen gizaki bakarraz haserretu zen; Bismarckekiko haren portaeraren kritikariek ez zuketan ahaztu beharko liskarra batez ere sozialisten jazarpenarengatik izan zela, zeinak enperadoreak eseki egin nahi baitzituen, eta legeria sozialeko egitarau handi bat ezartzeagatik. Diskurtsoa alde batera uzten bada eta haren asmoak berre-raikitzen soilik ahaileginduz gero, enperadorearen egintzak urtez urte, derrigor iritsi behar da bere garaiko auzi handiei buruzko iritzietan sarritan asmatu egiten zuelako ondoriora.

21 Zalantzarik gabe, ez ziren zailtasun administratiboak falta, eta sozialistek, jakina, ahal zuten guztia egiten zuten kosta ahala kosta zailtasun horiek kentzeko. Baina horrek ez zuen irismen handia izaterik lortu, izatez, 1890etik hasi eta Lehen Mundu Gerratea arteko jarduera sozialistaren historiak ezin honeki frogatzen duenez. Gainera, gisa horretako laidoek alderdi «jazar-tu»arentzako zerbitzu-izaera bat dute izatez.

22 Ohar dezagun bide batez fenomeno interesgarri (ia amerikar) bat: badugu hemen alderdi politiko bat bere baitan iritziaren ia ñabardura guztiak dituen izan daitezkeen auzi ekonomiko eta sozialei buruz, konterbadurismo zakarrenetik hasi eta sozialismo erradikaleraino, hala eta guztiz ere antolakuntza politiko guztiz ahaltsua zen. Mota, jatorri eta desira desberdinenetako gizakiak,

demokrata muturrekoak eta autoritario muturrekoak, lankidetzan ari izan ziren, marxisten inbidia sorraraz zezakeen patxadarekin, Eliza Katolikoarekiko mendekotasunaren indar hutsez.

23 Ryazanovek frogatu du liburu honen argitaratzaileak askatasunak hartu zituela Engelsen testuarekiko. Baina aurreko argudioa ez da erasunik geratzen, haren lapitzaren ezabaketan estimazio goren posibleaz ere. (Ikusi Ryazanov: *Karl Marx und Friedrich Engels*, Kunitzen ingelesezko itzulpena, 1927.)

24 Haren bi liburu garrantzitsuenak gure helbururako hauek dira: *Die Voraussetzungen des Sozialismus und die Aufgaben der Sozialdemokratie* (1899) eta *Zur Geschichte und Theorie des Sozialismus* (1901)

25 Garai hartatik hasita, Kautsky *Neue Zeiten* sortzaile eta argitaratzaileak eta teoria marxistari buruzko zenbait trataturen egileak, termino elizakotan bakarrik defini daitezkeen jarerra bat izan zuen, errebisionismoaren aurkako doktrina «iraultzailea» defendatuz, geroago heretikoko boltxebikeen aurka ortodoxia defendatu zuenez. Gizakien artean pedagogoen zen, eta Bernstein baino askoz erakargarriagoa. Oro har, hala ere, alderdiko bi sektoreek beren buruei zorionak eman beharrean zeuden beren txapeldunen maila moral eta intelektualarengatik.

26 Austriaz hemen mendebaleko erdia eta monarkia austro-hungariarra esan nahi dut, zeinak 1866tik parlamentu eta gobernu propioak izan baitzituen (zeinak, hala ere, ez baitzeukan Atzerri Arazo eta Gerrako

departamenturik), zeinak maila berean koordinaturik baitzeuden ekialdeko erdiaren, hau da, Hungariako, mintzaira ofizialaz baliatzeko, San Estebanen Koroa Sakratuko herrialdeetako parlamentua eta gobernuarekin. Hungariar alderdi sozial-demokratikak bere eredia austriarretik hartu zuen, baina inoiz ez zuen haren garrantzi kuantitatiborik lortu.

²⁷ Trotski, artean Bronsteinen izenpean, tarteka haien artean aurkeztu zen eta badirudi haien eragina jasan zuela.

²⁸ Sozialistek gobernuari laguntzeko behin eta berriz erabili zuten estratagema bat hau izan zen. Filibustero nazionalistek parlamentua gelditzen zutenean eta auzi guztiak pausaldian sartzen zirenean, haiek aurrekontuaren «premiatzotasuna» proposatuko zuten. Premiartzotasun-mozioak, era egokian onartua izan ondoren, ia esan nahi zuen hala premiartzoko aitorturiko neurria praktikara eramaten zela gehiengo baldin bazuen (beti lorgarria zena aurrekontuaren kasuan) filibusteroek betetzea ezinezko egingen zuten prozedura parlamentarioko arau formalez aparte.

²⁹ Horretarako zegoen zailtasun nagusia, nire iritziz, alderdi alemaniarrek auzi horretan hartua zeukan erresistentzia bortitzean zegoen. Austriar sozialisten beraien eskrupuluak bigarren mailakoak ziren. Austriar burokraziaren edo enperadore zaharraren aiherra bera, hala korik baldin bazegoen, hirugarren mailakoa baizik ez zen hura burutzea ekidin zuten faktoreen artean.

XXVII

¹ Alderdi laborista ingelesa, izan ere, bakarra izan zen jarrera serioa bat hartzen bakearen alde 1914an, nahiz eta gero gerra-koalizioarekin bat egin zuen.

² Hona hemen zergatik garaileek egindako ahalegina kontrobertsia morala erabakitzeko ezarritako bake-itun bateko klausula baten bidez bidegabeba ez ezik, ergela ere izan zen.

³ Horrela egiteari uzteagatik kausa nazionala ahulduko zelakoa ere ez da egia. Lord Morleyren onarpenak ez zion kalte seriorik egin Ingalaterrari.

⁴ Gutako askok bestelako era batena pentsatuko dugu gaur egun. Baina horrek erakusten du besterik gabe demokrazia liberaralaren antzinako lokarrietatik egin dugun bidea. Batasun nazionala agindu moral mailara jasotzeak faxismoaren printzipio nagusietako bat onartzea esan nahi du.

⁵ Hori egotzi behar zaio, neurri batean, erreforma ez-sozialisten arrakastari.

⁶ Merez du ohartzea independenteak ez zirela erreklutatzen inondik ere marxista baldintzagabeen artean bakarrik. Kautsky eta Hase sektore horretakoak ziren, baina batu zitzaizkien asko ez ziren sektore horretakoak. Bernstein, esaterako, batu zitzairen, eta gauza bera egin zuten beste zenbait errebisionista, zeinen eragingarria ezinezkoa baita fede marxistarekiko errespetua izatea. Baina ez dago ezer harritzekorik horretan. Marxismo ortodoxoa ez zen, noski, gehien goak hartutako norabide gaitzesteko

sozialista batek izan zezakeen arrazoi bakarra. Errebisionista horiek Ramsay MacDonaldeen sinestea partekatzea besterik ez zuten egiten.

⁷ 1910etik 1918rako gehikuntza ezin hobeki azaltzen da emakumeari botoa emateaz eta hautes-kalifikazioaren sinpletzeaz.

⁸ Horren aurretik, izan ere, bi batzar izan ziren Suitzan –Zimmerwalden (1915) eta Kienthalen (1916)–, zeinnek, jatorrizko asmoaz bestetara, nik uste, kolore desberdin bat hartu baitzuten asistentzia alderdi ofizialen adierazgarria izan ez zelako. Horri buruz berriz ere arituko naiz laburki aurrerago.

⁹ Formulazio horietako batzuek kreditatu egingo zuketena XVIII. mendeko diplomatiko bat. Tupust egiten zen bloke handia klase-borroka zen. Talde kontinentalak ezingo ziren bizi hura gabe, ingelesak ezingo ziren bizi harekin. Hala, bada, Hamburgeko Batzarrean fusioa burutu zenean, *Klassenkampf* eta *lutte de classes* gorde egin ziren alemanezko eta frantsesezko testuetan, baina ingelesezko testuan itzulinguru ezagunezin batez ordeztu ziren.

¹⁰ Ingalaterran eta Alemanian izan ziren etendurak gerra zela-eta bestelako auzi bat izan ziren, noski eta denboraldi bateko garrantzia baizik ez zuten izan. Alemaniar Spartacus liga bera ere, Karl Liebknecht eta Rosa Luxemburgek 1916an sortuak, nahiz eta independenteek onartzen zutenaz askoz haratago joan zen gerrarrekiko beren oposizioan, denbora behar izan zuen jarrera argiro etsaikorra garatzen eta orduan ere, ofizialki gutxienez, Erfurteko egita-

rau zaharraren letra azpimarratzeaz haratago ez zen joan. Nik dakidala, ez Liebknechtek ez eta Luxemburg andreak ez zuten alderdiarekiko harremana eten. Azkena izan zen praktika boltxebikearen kritika gupidagabeenetako bat.

¹¹ Kasualitate horregatik boltxebikea segur aski Estatu Nagusi Orokor Alemaniarrarekiko zordun gertatu zen, zeinaren aginduz garraiatu baitzuten Lenin Errusiara. Hori joko balitz haren partaidetza pertsonalaren bapikatze bat bezala 1917ko jazoeretan, badaude beste faktore akzidental nahikoa egoeran historiako zati hori zeinen apetatsua izan zen erakusten digutenak.

¹² Leninen garaietan agintaritza administratiboa Bureau Politikoak egikaritzen zuen, Leninen beraren zuzendaritzapean; Kontseilu Militarra, Trotskiren domeinupean eta Checak. orduan Dzerjinskyren zuzendaritzapean. Hiru erakundeak ezezagunak ziren Estatu Sobietarren Konstituzioarentzat, zeinak ematen baitzion agintaritza hori «Herriaren Komisarioen Sobietari». Agian teorikoki alderdiaren organo deitu behar zitzairen. Baina alderdia Estatu zen.

¹³ Ohartu behar da komunistak antimilitarismotik eta antiinterbentzionismotik demokraziatik aldendu ziren bezainbateko erraztasunaz alden du zirela.

¹⁴ Hungariaren kasuan (Bela Kunen gobernu) oso irakasgarria da. Goi-klaseen paralisasiak eta nekazarien eza-xolak ahalbidetu zuten intelektual-talde bat aginteaz jabetzea erresistentzia garrantzitsuarekin topo egin

gabe. Jendaila estrainioa zen –horietako batzuek zeinu patologiko ukaezinak ageri zituzten (gauza bera gertatu zen Bavariaren kasuan)–ez honen eta ez beste edozein ataza serioren mailan inondik ere ez zegoe-na. Baina konfiantza mugagabea zuten beren buruan eta beren kredoan eta ez zioten edozein metodo erabiltzeari uko egiten, nahiz eta terroristak izan. Eta hori erabat aski izan zen. Obra antzesten utzi zitzairen eta denbora mugabea jarraituko zuketan baldin eta aliatuek baimena eman ez bazioten (edo agindu) errumaniar armadari kanpora zitzan.

¹⁵ Zalantzazkoa da, beraz, zuzena dela esatea potentzia mendebalдарrek ergelki eta eraginkortasunik gabe jokatu zutela era ziztrinean laguntzean Errusian entsatu ziren kontrairaultza desberdinak, batez ere Denikin eta Wrangelen abenturak. Nire ustean, bai egoeraren prezatze zuhur batez, edo zortez, desira zezaketena lortu zuten hain zuzen, hau da, potentzia sobietarra neutralizatzea kinka larri batean eta horrela boltxebismoaren aurrerabidea geldiaraztea. Hori baino gutxiagok arriskuan jarriko zituzkeen haien sistema sozial propioak; hori baino gehiagok ahalegin luzatu, kostutsu eta, agian, emaitzarik gabeak ekarriko zituzkeen berekin, zeinek aise porrotera baitzitzaketen haien asmoak.

¹⁶ Elizgizon honek bere liburuan adierazitako sentimenduak ezin dira defendatu «esperimentu errusiarra»ren printzipioak gauza bat direla eta haiek egikaritzeko modua beste bat. Zeren Stalinen erregimenak zeukan benetan ikaragarria ez da milioi-

ka biktimarekin egin zuena, baizik eta *bizirik iraun nahi bazuen hori egin behar izatea*. Beste hitz batzuetan: printzipio haiek eta praktika hura bereiztezinak dira.

¹⁷ Hau aplikagarria da, jakina, estatu Batuetako talde komunistari edo talde komunistei. Baldintza politiko amerikarrak ez dira alderdi komunista ofizial baten garapenaren aldekoak, zeren konderriko altxortegi bana-ka batzuk bakarrik izateak ez baitu askorik balio erreklutatzearen ikuspuntutik. Baina elementu komunista-ren garrantzia ez da neurtu behar alderdi ofizialeko kideen kopuruaz. Komunista zuzen edo bidaide diren intelektual haiek ez dute errealki ziorik hartan afiliatzeko. Zio guztiak dituzte hartaz kanpo irauteko, zeren askoz hobeki zerbitza baitezakete intsignia erakutsi gabe: posizioak konkistatzen dituzte komite iritzi-eratzaitelan edo erakunde administrati-boetan, eta abarretan, askatasunean geratzen direlarik ukatzeko, egia osoz, komunista direla alderdikoak diren zentzuan. Talde ikustezin horiek ez dira gai egintza kontzertatu baterako, Moskuko zuzendaritzaren eraginez izan ezik.

¹⁸ Horrek azaltzen du, partez, nola harrera ona duten Estatu Batuetan kapitalismoa barne-kausengatik porrokatzen ari dela frogatzera jotzen duten teoriek. (Ikusi X. kap.)

¹⁹ Ez dut eztabaidatzeko asmorik, beste ahaltsun bat bezala, oinarritzko berreraikitze-ahalegin bat errusiar lerroaren gainean. Zeren nabariegitzat jotzen baitut horrelako ahalegin oro berehalaxe amaituko zatekeela kaos eta kontrairaultza gisa.

²⁰ Gainera, alderdiaren teknikaren ikuspuntutik, zaildu egin zuen kontserbadoreen egoera erradikalismo setati batek zailduko zukeena baino askoz gehiago.

²¹ Egitarau hori batez ere bankua eta zenbait industria gakoren sozializatzet-terminotan kontzebiturik dago eta, beraz, ez zegoen benetan sozialismo ortodoxoaren lerroan. Baina inguruabar haietan jatortzat aldarrikatzen da, eta aldi berean MacDonaldena «erreformista»tzat baztertu zen, termino hori, haren erabilpen klasikoaren arabera, era berean aplikagarria baitzaio Alderdi Laborista Independentearen egitarauari.

²² Irakurleek senti dezakete 1926ko greba orokorrari buruzko iruzkin baten falta. Nahiz eta bi alderdi lehia-kideek interesa izan haren garrantzi sintomatikoa ahalik eta gutxienera murrizteko, eta nahiz eta haren teoria ofizialek interes horren arabera taxutuak izan, errore taktiko-sail bat baino askoz gehiago izan zen, zeinak gertatu baitziren egoera batean, zein-ean Trade-Unionsen batzarrak «harropuztu» beharra baitzeukan eta gobernu kontserbadoreak harropuzkeria aipatu beharra baitzeukan. Aski dugu galdetzea zeintzuk izango ziratekeen arrakasta baten ondorioak, gobernua eta demokraziaren autoritatearekiko, greba lehen mailako jazoe-ra historiko bat izan zela konturatzeko. Arma hori eraginkorra gertatu izan balitz, Trade-Unionsak Ingalaterraren erabateko jabe bihurtuko ziratekeen eta ezein botere politiko, judizial ez ekonomikok ezingo baitzukeen iraun haien alboan, haren tolerantzia izan gabe. Eta egoera

horretan ezingo zuketean ordu arte zirena izaten iraun. Nahiz eta nazkarekin, gidariak ezartzen zitzairen agintea absolutua erabili beharko zuketean.

Gure helbururako aski da bi puntu nabarmentzea. Lehenik, gorago deskribaturiko egoera, batez ere masaren artean hedatu zen ondoeza eta elementu arduragabe askok sustatu zutena, zerikusi handia izan zuen grebaren motibazioarekin. Bigarrenik, grebak ez zion alderdiaren botereari kalterik egin, kalte egin ziezaiokeenez. Aitzitik, porrotak masen erradikalizatzeko sortu zuela dirudi, eta horrek azaltzen du, partez, alderdiak 1929an izan zuen garaipena.

²³ Analogia hedatzen da egoera politiko eta ekonomikoaren zertzelada batzuetatik, zeinen aurrez aurre baitzeuden bi gizonak (nahiz eta Peeleek gobernuan 1836-1839ko krisiaren *ondoren* sartua izanaren abantaila izan) detalle politikoko auzietaraino. Bi kasuetan alderdiaren etete bat gertatu zen, ausarki abenturatua eta azkenean ausarki onartua; bi kasuetan gidariak «traidore»tzat hartu zituzten.

²⁴ Gertakari horri aurre egitean sozialistak poztu egiten dira, oro har, enplegatu ez-sozialistak artean egiazko toki politikoa aurkitu ez duten ardi errebelatuak baizik ez direlako argudioarekin, baina ziur daude azkeneko aurkituko dutela, edo alderdiarekin bat egiten ez zaiela uzten ugazabek egiten dien presio gupidagabearen erruz. Lehen argudioak ez du inor konbentzitzen talde marxistatik kanpo; dagoeneko ikusita daukagu klase sozialen teoria dela kate marxistaren mailarik hauskorrenetako

bat. Nahiz eta gure mendeko bigarren hamarkadako ugazaba alemaniarrek behiala egia askoren jabe izan bazi-
tezkeen ere, garrantzi kuantitatiborik gabeko salbuespenak salbu, ez zeu-
den beren enpleguaren botoan era-
gina izateko egoeran.

XXVIII

¹ Francoren eraentzak besterik gabe birsortu egiten du sistema instituzio-
nal bat, erraz ulertzen diren premien-
gatik, hemeretzigarren mendeko
Espainian ongi errotu dena. Francok
egin du eta egiten du bere aurretik
Narvaez, O'Donnell, Espartero eta
Serranok egin zutena. Espainia doha-
kabean boterearen politika nazioarte-
koaren jokoko futbol-pilota gaur
egun bihurtu izana, zeinean ez bai-
tauka ezer irabazteko, gauzen egoera
oso simple bat iluntzen duen propa-
ganda baten kausa da.

² Irakurleak ohartuko du, noski,
proposizio horrek ez duela ezer
baiezatzuten politika horren efektuez
errenta nazionalaren bolumenaren
—eta tasa-gehitzearen— gain. Bereziki
ez du baztertzen lanekuak errenta
erreal gutxiago jasotzeko ahalasuna
izatea (kantitate totalean eta epe luze-
ra), errentak erabat berdinduko balira
jasoko lukeenaren aldean plusbalio
marxistaren totalak estatu «kapitalis-
ta» hazaraziko balu.

³ Ikus bedi I. de Veghen artikulua
nabarmenki irakasgarria: *Saving,
investment and consumption in
American Economic Review* (Papers
and Proceedings of the 53 Annual
Meeting, otsaila, 1941, 237 or. eta
hh.). Han azaltzen denez, kopuru era-
dukiak kalkulatu zireneko datuek

bazterrean uzten dituzte estatuaren
balore-errentak, zergez erabat gabe-
turik, eta kapitalaren irabaziak sar-
tzen dituzte. Gainera, kopuru horiek
ez dira zorrozki erkagarriak, jakina,
jasotako errenta totalarekin (konputu
komertzialak), zeinak kontsidera bai-
taitezke, hala ere, zifra erkagarrien
tasa gisa. Azkenekoak (*Statistic of
Income*koak) ez hartu izanaren arra-
zoia agerikoa da; baina erkaketa-urte-
en aukerak azalpena behar du: 1929
izan zen 50,000 dolarretik gorako
errentak, zerga eta errentarekiko
gaintasa ordaindu eta gero, maximo
absolutura iritsi ziren urtea; 1936
hautatu da 1937-1938ko atzerakadak
erasan ez zuen urtea izan zelako,
lehenik, eta 1939tik baieztatu ziren
gera-eraginez erabat gabeturik egon
zena, bigarrenik.

⁴ Herrialde desberdinen arteko
erkaketa, jakina, zaila da, eta segur
aski ez da inoiz konbentzigarria.
Baina 1940ko apirilaren 4ko Erru-
siako legea, errentaren zergari buruz-
koak adierazten du urtean 1,812 eru-
bloz azpiko errentak haren mendean
zeudela. Halaber adierazten du
300,000 errubloz gorako errentak ere
bazeudela, zeinek orduan ehuneko
50eko tasaren arabera ordaintzen bai-
tzuten zerga. Utz ditzagun orain era-
bat alde batera errenta baxuenen gai-
neko zergak eta demagun 1,812-
2,400 errublo taldeko tasaren errenta
2,000 errublokoa dela; demagun, gai-
nera, talde altueneko errenta likido
eradukia ez dela 150,000 errublo
baino handiagoa (nahiz eta zerga
ordaindu aurreko 300,000 errubloak
muga behereago bat izan). Orduan
aurkitzen dugu tasa altuagoa 75 aldiz

handiagoa zela baxuagoa baino. Nahiz eta suposatu amerikar balioki-dea 1940rako (ez erosmenean, noski, baizik eta posizio baliokidean errenta-eskalan) tasa baxukoa 1.000 dolar bezain baxua dela, ez dugu aurkituko, begi-bistakoa denez, oinarri handirik Estatu Batuetako errenta likido *eradukien* banaketan (baita gerraren finantzazioaren eskakizunek espezi-fikoki motibaturiko murrizpenak alde batera utzita ere) sostengatzeko, errusiar paradigmaren argitan, desberdintasun ikaragarriei buruzko ohiko esaldiak, «botere-kontzentrazioarena», errentaren kontzentrazioaz neur daitekeen graduan, eta antzeko beste batzuk. Bienstock, Schwarz eta Yugoven liburu sonatuak Errusiako Zuzendaritza Industrialaz aurkezturiko frogak irizpide hori bermatzera jotzen du. Beste xehetasun askok bide bera erakusten dute; adibidez, artean etxean zerbitzariak sostenga zitzaketen lanbide-kategoriek Estatu Batuetan, baina orain sostengatu ezin dituztenak, Errusian pribilegio horretaz gozatu ahal izatea (zeinak balio baitu etxeko tresna elektriko tona batek adina). Horrek guztiak oraindik utzi egiten abantailak kon-tuan izatea errentaren kalkuluetan islatzen ez direnak. Zuzendari industrialaren boterea eta gizarte-posizioa –zeina baita arrazoi nagusietako bat errenta bat altutzat balioesteko–, batez ere alderdi boltxebikeko tokiko unitateko gidaria bada, industrial amerikar baten oso gainetik dago.

Fenomeno interesgarria ideien atzeratzen hau! Estatu Batuetako jende asmo oneko askok aitortzen du orain izuikara eta sumina duela berogeita

hamar urte zeuden desberdintasun sozialen aurrean, baina ez da hortik igarotzen.

Gauzak aldatu egiten dira, baina topikoek iraun egiten dute.

⁵ Suposatzen da ahaltsun hau burutzeak berrogei orduko astea inplikatzeko duela, eta gainera ordu estrak metatze-aldietan. Baina ez da enplegu erabatekoa suposatzen. Erabateko enpleguaren definizioak eta definizio jakin bat asetzen duten enplegu-kantitatearen definizioak nabarmen aldatzen dira eta kontrobertsia estatistikoa ez ezik, kontrobertsia teoriko delikatu samarrak ere inplikatzeko dituzte. Aski dut baieztatzea Estatu Batuetako lan-merkatuko baldintzetan, eta suposatuz lan-indar totala hirurogeita bat milioikoa alde alde dela 1950ean (bizpahiru milioi indar armatuetan daudela kontatuz), ez dut ikusten estatistikoki emakume eta gizonezko langabetuen kopurua urte horretan bost edo sei milioikoa baino txikiagoa izan daitekeenik, zifra horrek bere baitan hartzen duen larrik, langabezia zinez nahigabeaz gainera (hau da, nahigabeko langabezia halakoa izango litzatekeena definizioaren *baten* arabera), esleipen handi bat langabezia erdi-nahitakorako eta langabezia estatistiko soilerako. Zifra horrek ez du hartzen langabezia «ezkutukoa». Uste dut bateragarria izan behar duela aurtengo urterako berrehun mila milioiren helmugarekin. Ez du zerikusi handirik sistema kapitalistaren bizio espezifikoe-kin, baina handia gizarte kapitalistak laneskuari ematen dion askatasunarekin. Sir William Beveridgeren erabateko enpleguari buruzko liburuan

bertain ere aipamen pudikoki estaliak daude erautzeaz eta koakzioaz. Gehitu beharra dago, hala ere, 1950 susmatzen dudala prosperitate zikliko urte gisa. Hala ez bada ulertu behar da gure tesia haren ondorengo lehen urte prosperoari dagokiola. Urte txar eta onen batez bestekoan langabezia (estatistikoa)k handia izan behar du bospasei milioikoa, agian zazpi-zortzikoa. Hori ez da ikarutzen duen ezer, zeren, azalduko denez, zuzkidura egokia egin baitaiteke langabetuentzat. Baina ekonomia kapitalistaren fluktuazio ziklikoak langabezia «normala»ren gaineko edozein gehiegikeriaren kausa dira oinarrian.

⁶ Ehuneko 10etik 12rako balio gabetze-esleipen bat ez da neurritz kanpo altua hain ekoizpen-maila altuan funtzionatzen duen sistema baterako. Ehuneko zortzitik hamarrerako bat inbertsio «berri»rako, noski, zabala da eta, pronostikatzailer gehienentzat, gehiegi. Ikus bedi *infra*, 5. azpisaila.

⁷ Gure helbururako ez da beharrezkoa ondasun eta zerbitzuetakoko gastu publikoak eta «transferentziak» bereiztea Baina suposatzen da, *grosso modo*, hogeita hamar mila milioiak hogeita bost mila milioitan zatituko lirateke lehenarentzat eta bost mila milioitan bigarrenarentzat. Ohartu behar da horrek ez duela kontuan hartzen (1950rako) pentsioak ez eta beterranoen beste mozkin batzuk ere, bereizirik tratatu behar den arazoa izaki.

⁸ Oro har, errenta ez dago suposatzerik prezioen mailaren arabera aldatzen denik. Hala ere, gure helbururako, gutxi gorabeherako ideia bat lortzean baizik ez dezakegu onar hipotesi sinplifikatzaile hori.

⁹ Horren zeharo alderantzizkoa sostengatzen duen teoria *infra* eztabaidatuko da, 5. azpisailan.

¹⁰ Ohartuko da ekoizpenaren gehikuntza eta enpleguaren gehikuntza ez direla sinonimo gisa tratatzen. Izatez, ahalgarria da, muga batzuen barruan, enplegua gutxitzea ekoizpena gutxitu gabe edo hori gehitzea enplegua gehitu gabe. Ohiko literaturan sarritan proportzionalki ekoizpena eta enplegua bariaraztearen arrazoia Keynesen sistemaren oinarritzko zertzeladetako batean aurkitu behar da. Sistema hori kausa-kateak oso epe laburrean tratatzera mugatzen da ekipo industrialaren kantitatea eta kalitateak iraunkor dirauen supostuaren bidez, eta horregatik ekoizpen-faktoreen konbinazioa ezin da nabarmen aldatu. Hori horrela izango balitz (eta epe oso labur batean horrela da, alde-alde), batera aldatuko lirateke, noski, nahiz eta, oro har, ez proportzionalki.

Halaber ohartuko da gure argudioak inplikatzeko duela alokairu monetarioaren tasen bariazioek kontrako zeinuko bariazioak sorraraz ditzaketela enpleguan. Uste dut, zinez, Amerikako alokairu monetarioko tasen maila garaia beti izan dela, baina mende honen hirugarren hamarkadan bereziki, amerikar langabeziaren kausa garrantzitsua, eta etorkizunean antzeko ondorioak espero izatekoak direla alokairu altuen politikak jarraitzen badu. Baieztape hori kontraesanean dago keynesiar ortodoxiaren teoria, bai eta beste ekonomialari batzuenarekin ere, eta ez dago hemen sostengatzerik. Zorionekoa da, beraz, gure oraingo helbururako, eta 1950ari

dagokionez eta ez ondorengo beste ezein garapeni, proposizio ahulago batek Lord Keynes zenduaren onarpena izango zukeena egin behar duela: datozen lau urteetan Estatu Batuetan segur aski nagusituko diren baldintzetan, eta prezioetako gehikuntza gehigarri konpentsatzen ez badira behintzat, alokairu-tasa garaie- nek kontrako eran erasango dituzte nola ekoizpena hala enplegua eta azkena lehena baino gehiago.

¹¹ Ez dut jakiteko asmorik zer atarako den Prezioen Interbentzioko lehen Legeari (Price Control Act) presidente-betoa eta hilabete geroago interbentzioa laster batean altxatzea xedatuz lege bat onartzetik sortutako nahas-mahasetik. Guztiarekin ere, nola prestaturik nagoen argudiatzeko OPA, efektiboki funtzionatzen duenez, bake-ekonomia efiziente baterako bidea tratatzera zuzendurik dagoela, eta nahas-mahas horren ondorio posibleek ziurra den prezioen interbentzioa kontserbatzeko premiaren proba positiboa bat adierazten dutela, bi gauza kontsideratzeko eskatu behar diot irakurleari. Aurrena, prezioen interbentzioa derogatzearen aldeko argudio bat ez dela hura iraungitzen uztearen aldeko argudioa, prestakuntzarik edo igarobidezko ordezkien gabe, inork espero ez duenean eta inor hartarako prestaturik dagoenik ez dirudienean. Bigarrenik, baldin eta, haren porrotarekiko erantzun gisa, Administrazioak huts egiten baditu mendekuz hautaturiko jopuntuak bere inpopulartasunarengatik arrazoi defendagarriren batengatik baino areago, jarrai daitezke ondorioak prezioen interben-

tzioaren iraungitzetik *per se* erabat desloturik daudenak. Inflazioaren arazoari dagokionez, ikusi beherago 4. azpisaila.

¹² Izatez, hala ere, teoria hauek ezin daitezke onar. Berez, praktika-sail bat hartzen dute beren baitan, lege-sistema orok proskribatu behar dituela mundu guztia bat etorriko den. Baina lege horiez haratago bada praktika-sail bat, zeinekiko legearen espirituak aurreiritzi arruntek diktaturiko jarra bat hartzea besterik egiten ez duen. Adibideen iturri garrantzitsu bat diskriminazioa da. Ekonomialaria gaituenek berek ere zailtasun nabariak izango dituzte kasu jakin baten efektu *guztiak* analizatzeko epe luzean. Justizia ez bada administratzen topiko orokor legezko edo herritarren gainean eta froga-»eragingarri»z, antidiskriminazio-jarreraren barruan dagoen zentzu osasungarriko elementua erabat desager daiteke. Eta prosekuzio hautapenezko metodo asmo-onekoak zeina baimentzeko ahalegina egiten baita parte interesatu guztiei onura egiten dien diskriminazio formalki ilegaleko kasuetarako –ekonomian orientazio elemental bat izan duen edonork ezagutzen ditu, edo ezagutu behar ditu, kasu horiek– hautazkotasan sumingarrietako bat gehitzeko bakarrik balio lezake. Gauzen egoera hori erremediatzeko metodoak bide nabarrezko ohar batean bakarrik adieraz ditzakegu.

¹³ Adibidez –honek adibide bat izateko asmoa besterik ez du metodo ahalgarrien multzo batean– funtsean aski izan daitezke honako neurriak: a) Ezarpen bikoitza ezabatzea dibidentutan ordaintzen diren sozietate

anonimoen industriako errendimen-
duen partearena; britainiar praktika-
rako, horrek ozta-ozta justifikatuko
luke «sumin justuzko ekaitz» bat;
gure praktika alemaniarra da eta
haren aldeko argumentazio formal
hutsa Adolf Wagner (1835-1917)
ekonomialari alemaniarri zor zaio.
b) Errenta ezagarritik inbertitua den
errenta indibidualaren parte hura
kentzeko baimena. Ni neu, bat nator
parte aurreztua kendu egin behar
(batez ere inflazio-arriskua ikusten
denean) delako Irving Fisher irakas-
learen iritziarekin. Sentikortasun key-
nesiarrak alde batera uzteko, parte
inbertitura mugatzen naiz. Zailtasun
teknikoak ez dira larriak, edo, gutxie-
nez, ez dira gaundiezinak. c) Metodo
desberdinak hartzea, zeinak erabil
baitaitezke denboragatiko galeren
erabateko kenketa baimentzeko. d)
Nazionalizazioa, sistematizazioa eta
salmenta edo transferentzien gaineko
zergen garapena. Horrek Errusiaren
miresleak erakarri beharko lituzke
amorru bizian jarri beharrean. Izatez,
errusiarren moduko tasei, hau da,
hogeita hamaika zentimo libra bat
kalitate hobereneko galirina Moskun
eta 1940rako, edo, errublo-kopuruak
dolar-kantitateetara bihurtzea bada-
ezpadako gauza den, pataten txikiz-
kako salmentaren ehuneko hirurogei-
ta hiru, gatzaren ehuneko laurogei;
ikusi P. Haensel. «Ogasun Sobie-
tarrak», in *Openbare Financiën*, 1 zk.,
1946), eta errusiarra bezalako biztan-
leria hain etsigarriki behartsu batean
salmenten gaineko zerga zigor bene-
tan ikaragarria izan daiteke; baina
tasa moderatutan, eta Estatu Batuen
moduko herrialde aberatsean, herri-
ogasuneko tresna bikaina eta erabat

kaltegabea da, bereziki baliagarria
errenta baxuko taldeei bakarrik
mesede egingo dien helburuak finan-
tatzeko. Haren bidez bospasei milioi
bil daitezke inork zama sentitu gabe.
Baina estatuen gobernuak eta tokiko
gobernuak konpentsatu beharko lira-
tekeen zergaren nazionalizazioak
bere baitan duen errenta-galerarenga-
tik –ez da, noski, zorrozki zuzena
«sarrera»z hitz egitea–, eta nola, gai-
nera, beharrezko izango lirakekeen
kontsumoaren gain dauden zergen
doiketa halako batzuk, Ogasun
Federalarentzako irabazia bizpahiru
milioi dolar baino gehiagotan ezin
daiteke kalkulatu, halako moldez, non
salmenten gaineko zergak, gehi kont-
sumo espezifikoen gaineko zergak,
guztira bederatzi edo hamar mila
milioi eman lezakete alde-alde. e)
Nazionalizazioa eta behearazko be-
rrikusketa drastikoa, alargun eta hau-
rren alde, estatuen zergetatik, horren
arrazoia delarik dagoen legeriak eza-
batu egiten dituela, konfiskazioaren
bidez zifra oso moderatuen oinarria-
ren gainean, sistema kapitalistaren
elementu esentzietako bat. Arrazoi
estraekonomikoengatik konfiskazio
hori onesten duenak arrazoi guztia
du, ikuspuntu horretatik, eraberritze
konstituzional bat proposatzean hel-
buru horretarako; konfiskazio hori
onesten duena Lord Keynes zenaren
*General Theory of Employment,
Interest and Money*ko 373 orrialdean
–edo horren eratorri batean– dagoen
argumentazio ekonomikoan oinarritu-
z erabat oker dago.

Ez zaigu interesatzen *politikoki* afek-
taturiko interesak zerk aseko lituzke-
en auzia. Izan ere, gainera, zerga-

erreformarako proposamen gehienak, negozio-gizonen antolakuntzetatik honaino etorri direnak, nabarmenki apalak dira, eta hori garrantzitsua ez bada beste kontzeptu batengatik gure argumenturako, badirudi erakutsi egiten duela nola izan den «hezia» klase merkantila.

¹⁴ Hemen ari naiz tratatzen ari garenaz gainera beste auzi askorentzat ere garrantzitsua den puntu bat aipatzen. Burokrazia on bat hazte geldoko ekoizkin bat da eta ez dago nahierara sortzerik. Estatu Batuetako organismo burokratikoek erakusten dituzte bizkor hazte baten gaitzak halako gradu batean, non politika tenporal bat ezartzen baitu bide onean sartzeko ez bakarrik interes publikoko auzi gisa, baizik eta organismoen beren interes propio gisa. Beste gauza batzuen artean, Washingtoneko burokraziak oraindik ez du bere lekua aurkitu. Behin eta berriz gertatzen da hartako kide banakoak programa propioen atzetik ibiltzen direla, eraberritzaile sentitzen direla eta Kongresuko kide, senadore eta beste organismo batzuetako kideekin negoziatzen dutela beren buruzagien gainetik. Ideia batek supituki indar bultzatzaile bat har dezake, zeinaren jatorria inork ez baitaki. Bideak kaosa eta porroterako aukerak ditu.

¹⁵ Puntu hau argitzeko zilegi bekigu historia berriaren pasarte bat gogora ekartzea. New Dealersek hartu zuten, oraingo mendearen hirugarren hamarkadaren hasieran, Erreforma versus Berreskuratzea topikoaz barre egiteko praktika. Isekak frogatzen du erabat jabeturik zeudela hartan dagoen egia-elementuaz. Baina ulertu

behar da «erreforma» egiteko erabilitako modu eskas eta arduragabeaz ari dela, ez haren xede aitortueta bakar batez ere. Orain antzeko egoera batean gaude eta ezbeharra da pertsona batzuentzat gehien atsegin zaien erreformaren ezaugarria kapitalismoaren prozesu ekonomikoaren kaltetzea dela. Kaltetze hori gabeko erreformak ez luke erakarmenik haientzat. Garaipen kapitalista segurtatzen duen politika batekin parez pare doan erreforma gustatuko litzaieke gutxien.

¹⁶ Irakurlea ohartuko da baieztapen partikular hau keynesianismo ona dela eta, beraz, Washingtongo ekonomialarien onarpena lortu behar duela.

¹⁷ Horien artean sartu beharra daukagu gerraosteko eskariaren pronostikatzailleak, zeinek iragarri baitzuten, gobernuaren gerra-ekariaren parte handi bat eten eta berehalaxe, zurratze zela hondoratze bat eta langabezi zabal bat gertatuko zirela defizitekiko gastuak eskatuko zituztenak. Iragarpen horiez (epe laburrean) ikus bedi E. Schiffen artikulua *Review of Economic Statistics* en hurrengo alean. Epe luzeari buruzko iragarpenak gero eztabaidatuko dira, 5. azpisailean.

¹⁸ Tesi estankazionistari buruzko aspektu orokor batzuei buruz, ikus bedi gorago. X. kapitulua.

¹⁹ Horietako garrantzitsuenak A.G. Hartek aztertu ditu kritikoki bere «Model Building and Fiscal Policy» artikuluan, in *American Economic Review*, 1945 iraila. Ez da beharrezko, beraz, beste erreferentziarik.

²⁰ Aitortzen dut zenbaitetan galdetu diodala neure buruari horrek enpresa pribatuarentzat adierazten duen lausengu eskergaz.

²¹ Zifra horiek hurbildu egiten dira gerraosteko eskariaren kalkulatzailerako batenera. Ez dira nireak. Halaber, ez dira bateragarriak zifra esperimentalekin, zeinen gainean arrazoi-tu baitugu II. sailean. Prozedurarako, aurreko aldiei ezarri zitzaenez –zeinean hipotesiak ordeztu egiten baitira, noski, gertakariez–, ikus bedi, adibidez, *Federal Reserve Bulletin*, apirila, 1946, 436 or. Ohartu behar da, hala ere: lehenik, zifra horiek dolar arruntak direla, eta bigarrenik, «norbanakoen aurrezki garbien» kantitate eskergak ez duela ezer frogatzen garai «normaletako» aurrezki-por-tzentaiez, eta 1937, 1938, 1939 eta 1940rako zifrak berak ez direla hartu behar kritikarik gabe eta batez ere Merkataritza Departamentuak hartu-tako aurrezki definizioaren erreferen-tziarik gabe.

²² Izatez, prozedura nolabait ere hori baino konplikatuagoa da. Erabili-tako erregresioko ekuazioek inkli-na-zio-faktore bat dute beren baitan, zeina baitatza eskari diferituaren eta bitarteko likidoen metaketaren efek-tuak kontuan izatean. Baina puntu gailenean kontzentratzeko utzi egin-go diogu horretan guztian sartzeari.

²³ Lege psikologiko honek esaten du komunitatearen gastua C kontsumo-an (hortik halaber aurreztu nahi den kantitatea, S), errenta nazionalaren baitan daudela, Y , halako moldez, non Y gehitzen bada $-Y, C$ gehitzen da $C < Y$, edo bestela $-\frac{C}{Y} < 1$. Hau da Keynesen benetako hipotesia Kontsumoaren Funtzioaz ezagutzen denaz. Baina Keynesek berak erabili zuen batzuetan, eta haren jarraitzaile-ek sarritan erabiltzen dute, errenta

gehitzen den heinean, aurrezki-*por-tzentaia* gehitzen delako supostu bor-txatuagoa. Guri benetako hipotesia bakarrik inporta zaigu. Ohartu behar da, hala ere, hitzen erabilera okerra dela lege psikologiko deitzea. Ekonomian lege psikologikoak beze-ro badaezpadaoak dira kasurik hoberenean. Baina auzitako proposi-zioak ez du lege tituluaz duindua izateko adinako eskubiderik, adibidez, ogi-zatal baten gure nahia intentsita-tean urritu egiten delako proposizio-ak bezala, ogi-zatal gehiago eta gehiago janez goazen heinean.

²⁴ Aurreko argudioaren egokitzape-nek, gerra-garaiko zenbait faktore-re-kin batera, espero izatekoa da gerra garaiko bitarteko likidoen metaketak azalduko dituztela, giza izaerak bere baitan duen altxortzeagatiko jangura aseeginera jo gabe.

²⁵ Gure proposizioa ez da, hala ere, Lord Keynesen (1936) *General Theory*ren argitalpenetik burutu den eztabaida ezagutzen ez duten irakur-leei iruditzen zaiena bezain sinplea. Areago dirudi «teoria klasiko»aren antzinako teorema bat errepikatzen duela (Turgot, A.Smith, J.S. Mill), baina ezin daitekeela sostenga klasi-koak asetzen zituen arrazoiketaren bidez. Argudio luze eta aspergarria beharko litzateke erabat zurkaizteko, eta argudio hori lantzea oso desado-regarria da, zeren emaitza berri eta interesgarri banaka batzuk bakarrik ematen baititu eta, horretaz landa, deusezteza besterik ez baitu egiten hirugarren hamarkadan hainbeste nekerekin eraiki dena. Lekurik ezak ez digu uzten, hala ere, hartan sar-tzen. Baina puntu bat aipatu beharra

dago ulertze oker bat eragozteko, zeina objektagarria bezain naturala izango bailitzateke. Nahiz eta gure argudioak erakusten duen tesi estankazionista ezin daitekeela aurrezkia-ren elementua oinarritu *zentzu horretan*, horrek ez du esan nahi aurrezte-arazorik ez dagoenik *beste zentzu batzuetan*. Badaude. Horietako gehienak zentratzen dira kasuan, zeinean banakako aurrezkiak, balore-lorpenaren bidez, enpresek beren instalazio eta ekipoaren instalazioaren joairan egindako banku-zorrak ordaintzen erabiltzen baitira.

²⁶ Aurrezki-azturen iraupenak, zeinak baitaude sakon errotuak bizitza burgesaren sisteman, haren barietate puritanoan batik bat, ezin lezake garrantzirik ez duen itxurarik izan. Baina inbertsiorako aukerak desagertzeara, aztura horiek irrazional bihurtuko lituzkeena, izango litzateke, kanpo-faktorarik ez, prozesu geldoa, zeinean egokitzapenak bere lana egin ahal izango bailuke eta horretarako astia izango bailuke. Washingtongo ekonomialariek, zeinek nahi baitute baieztatu, hala ere, irrazional egin diren aurrezte-azturen iraumena egoera ekonomikoaren faktore bat dela, ezinbesteko alternatiba bati aurre egiten diote: onartu beharko lukete, edo, hirugarren hamarkadako egoera altxortzearen depresio-egoera bat zela –eta horrek tesi estankazionista sekularra bertan behera uztea esan nahi du– edo bestela inbertsioaren erakarmena presa handi samarrarekin murriztu zela kanpo-faktore batengatik, zeinak ezin baitzen izan berek bermatzen zituzten neurri politikoak baizik. Azken ikuspuntua har-

tzen badute ez dut ezer objektatzeko-rik.

²⁷ Horren garrantzia-gabezia batez ere bi gertakaritatik ondorioztatzen da: lehenik, metatze horiek agortu egiten direla arrunki (nahiz eta, errenta nazional aldakor eta biztanleriaren gehitze eta urritzeen adinkako banaketa bat, ez dira zehazki bat etorriko, oro har) eta bigarrenik, errendimendu monetazkoek motibaturik aurrezkiren bat dagoen bitartean, horrela motibaturik ez dagoen elementu bat «eskaintza» totalen existitzeak ez du frogatzen superaurrezki-rako ezein joera. Kasu honek ez dauka berretsia izan beharrik. Baina efektiboki errebertxatua izan daiteke ohartuz, oraingo baldintzetan, aseguruak nabarmen murrizten dituela xede kontingenteak lortzeko beharrezko kantitateak; lehen, adibidez, zartzaroko adinerako eta alargun eta haurren beharrianetarako zuzkidura esan nahi zuen eskuarki «fortuna» bat metatzea (nahiz eta hori ez geratu, noski, inbertitu gabe); orain zuzkidura «kontsumo-abstentzio»-en bitartez egiten da aseguruako primaren kantitateraino. Azken hogeita bost urteetan aseguruak izan duten gehitzeak, beraz, adierazten du, idatzi estankazionistetan adierazi nahi denaz zeharo aurkakoa.

²⁸ Urrun dago nire asmotik esatea edo inplikatzeara, arrazoi moral edo politikoengatik, herri amerikarrak ez dagoela sakrifizio handiak proposatzerik. Baina defentsa hori arrazoi moral eta politikoengantik egin beharko litzateke argiro eta ez sakrifizio horien errealtateak ukatzearen oinarriaren gainean, printzipio eko-

nomiko badaezpadakoetan oinarriturik. Aurrezkien gehiegiairen parte bat baliagarriki ordainketa lortzeko esperantzarik ez dagoen kanaletan zehar egin daitekeelako iradokizuna, eta are gutxiago irabaziena, litekeenik eta makurrenetakoa da, zeren politika horri kontra egitea egitekotzat daukan klaseak prestutasunez onartuko baitu, eta horren azpitik gobernu-sistema batek gutxi edo batere ez ditu bermatzen negoziogile banakoen arriskuak. Eta garrantzi txikia ematen dio, batere ematen badio, galera nazionalari batez ere erdi-ikusi badu galera hori, segurtatzen duen enpleguarengatik, errealki irabazi nazional bat dela.

²⁹ Hona hemen zergatik Murrayren proiektua, jatorrizko eran (ez baka-rrik lege bihurtu duteneko eran), bazterrezina zen kontsiderazio ekonomiko hutsak afektatzen zituen heinean. Gastu estatal errenta-sortzailearen erabateko gaitzespena inguruabar guztietan ulergarria da eta justifikagarria izan daiteke pertsonentzat, zeinek sinesten baitute, instrumentu horren erabilpena ontzat eman denez gero, atea alderen alde irekiko dela era guztietako erantzukizun legegile eta administratiboentzat. Baina ez dago arrazoi ekonomiko hutsekin sostengatzetik

³⁰ Adibidez, independentzia-simulakro bat ematea bere erabateko mendekotasunean dauden herrialdeei, Poloniari kasurako, zeinak entitate independentetzat kontsideratzen jarraitzen baitugu, gehitu egiten ditu nazioarteko organismoetan Errusiaren eskura dauden botoak, baita errusiar gobernuak lor ditzakeen

diru-laguntza eta maileguak ere; Errusia den baino ahulagoa litzateke Polonia osoa ageriki anexionatu izan balu.

³¹ Irakurle batzuk ohartuko dira historiako soziologoek, baita historialarien artean zegoen antzinako kontrobertsia bat. Beharrezko jotzen dut, beraz, ezarrita uztea ez naizela ari heroairenganako kultura predikatzen edo topikoan erortzen zeinaren arabera «historia gizakiek (norbanakoe) egiten baitute». Gure testuko argumentuan inplikaturik doan metodologia horretara baizik ez da iristen. Jazoeren joaira historiko bat azaltzean, datu-aparatu handi batez baliatzen gara. Datu horien artean daude herrialdeen klima, emankortasuna, hedadura eta abar, baina baita horien biztanlerien kalitateak, epe laburreko inbarianteena. Eta biztanleria baten kalitatea pertsonal politikoaren kalitatea determinatzen duen gauza bakarra ez denez gero, eta hori, bestalde, buruzagitzaren kalitatea determinatzen duena ez denez gero, bi nolokotasun horiek bereizian katalogatu behar dira. Bestela esateko: egoera jakin batean lema gidatzen duen giza-kiaren garuna eta nerbioak herrialdeko meatzeko burdinaren edukia eta molibdenoa eta banadioaren absentsia edo presentzia bezain objektiboak dira.

³² Gertakari hau guztiz interesgarria da. Segur aski, baziren amerikar batzuk uste zutenak frantses herriak bere askapena alaitasun eta esker onezko agerkaritan aldarrikatuko zuela eta berehalaxe Frantzia demokratikoa eraikitzeari ekingo ziotela. Izatez, Léon Blumek eufemistikoki

convalescence fatiguée gisa edo metodo demokratikoaren funtzionamenduarekiko arbuio unibertsal gisa deskribatzen zuenarekin topo egiten dugu. Hiru alderdi daude indar zenbakizko alde-alde berdinekoak eta era berean oinarri demokratikoen gain gobernu efektibo bat sortzeko gai ez direnak: MRP (*mouvement républicain populaire*, alderdi katolikoa eta degaullista), sozialista erregularrak eta komunistak. Guretzat hiru puntu bakarrik dira garrantzitsuak: lehena, talde «liberal»en ia erabateko absentsia; bigarrena, Estatu Batuetako politikariek bihotzez lankidetzan ari ahal izateko moduko talde bakar bat ere ez izatea; hirugarrena eta garrantzitsuenak, komunisten indarra. Begi-bistakoa denez, indar hori ez dago azaltzerik frantses kopuru hain handi bat printzipio komunistetara konbertitu delako. Horietako asko ezin dira izan inondik ere komunista zentzu doktrinazkoan. Horrelakoak ez direnak *ad hoc* komunistak dira, hau da, egoera nazionalaren beren kontzepzioaren indarrez komunista direnak. Baina horrek esan nahi du errusiarren aldekoak direla besterik gabe. Errusiari begiratzen diote «gure egunotako gertakari handiari» bezala, benetan pisua duen potentziari bezala (berreraikuntzako dolarrez aparte), eta potentzia horri *il faut s'accrocher* eta horrekin batu behar du Frantziak birjaio nahi badu, Ingalaterraren eta Estatu Batuen aurka, etorkizuneko borroka orotan, zeinak, hain zuze horrexegatik mundu-mailako iraultza baten gisako zerbait bihurtu behar baitu. Arazo sorta liluragarria aurkitzen da puntu horretan! Baina horietan sartzeko ezintasunarengatik nire

atsekabea neurri bateraino leundu egiten du nire argudiaketa segitzeari nire irakurleek uko egingo lioketelako konbentzimenduak.

³³ Azken paragrafoak denak aipuak dira. Hain adierazgarriak dira eta hain besteko balioa dute, hain zuzen ere ez direlako interview-galderei egindako erantzunak, zeinak halakotzat aitortzen baititu pertsona elkarrizketatuak. Berezko aldarrikapenak dira, hizketan ari denak bere prozesu mentala agertzen ari delakoaren kontzientziarekin eginak edo, era zehatzago batean, bere jarrera alogiko eta subkontzientearena *bere buruarentzat* arrazoitzen ahalegintzen ari zena. Hirugarrena salbuetsirik, bere xalotasunarengatik bakarra dena, baieztapen horiek, edo oso antzeko beste batzuk, behin baino gehiagotan entzun izan dira. Ia kasu guztietan hizketan ari denaren jarreraren irrazionaltasuna (1939-1941eko jarreretik haren bateraezintasuna barne dela) seinalatu egin izan zaio. Ezein kasutan ez da izan erantzun logikoki aurkezgarririk ezta erreakziorik ere, salbu: a) haserre onbera gisako bat erakustea, edo, b) etsipen-keinu bat, kritika onartzen zuela zirudiena baina erreserbaren batekin «zer da ona?» modukoren batekin.

Lehen sail honetan egin den ohar baten aurrean, gehitu beharra daukat, hala ere, badagoela zerbait, izatez, errealitatetikoa laugarren ihesian. Egia bada, nik neuk sostengatu dudanez, Errusiako buruzagiarena bezalako kualitateak biztanleria batean oso bakan izaten direla, badirudi, izatez, naturaren egintzek arazo asko konponduko lituzketela egokiro. Baka-

rrik, argudioan badagoela zerbait onartzen bada, halaber baieztatu beharko litzateke gehiegi bapika daitekeela. Aspektu batzuetan gaitasun goreneko etsai bat errazagoa da tratatzeko gaitasun gutxiagoko bat baino, eta hori ez da paradoxa bat. Gainera, nahiz eta lehen mailako genio bat behar izan eraikuntzarako, adibidez, Standard Oil *concerna*, ez da behar geniorik hura gidatzeko eraiki eta gero. Mende errusiarrak, hasi eta gero, ia berez jarrai dezake bere joaira.

³⁴ Ohartu behar da, argudioaren indarra argitzeko, hiru gertakari horietako bat bera ere ez zela existitzen alemaniar kasuan 1939an aurkitzen zen egoeran. Irakurle batzuek ukatu egingo dute gertakari hori hiru garren gertakariari dagokionez, Municheko ondoren gailendu zen egoerari zegokionez bederen. Baina hori da alemaniar anbizioekiko gure jarrera zeharo bestelako delako bakarrik errusiar anbizioekiko dugunaren aldean. Puntu erabakigarria da, ikuspegi politiko batetik ikusita, Alemaniak ez zuela berreskuratu orduan erabat bere lurralde nazionala, aldiz eraientza stalindarrak bakarrik amore eman behar duela, ematen badu, lurralde atzeritarrekiko posizioetan, zeina askoz errazagoa baita egiten. Gainera, testuan aipaturiko tonu irmoagoa gehiegikeria handiagoak ekiditeko bakarrik erabili da.

³⁵ Ondoren etorriko den argudioaren asmorako ez da beharrezko, zorionez, bosgarren koloma komunista Estatu Batuetan daukan indar efektiboaren auzian sartu beharrik. Edozein kasutan estatistika batzue-

tatik edo langile-taldeen bozeramailen deklarazio ofizialetatik atera daitekeena baino askoz indartsuagoa da, ez arbuiaigarria noski. Puntu horri eta jarrera errusiar aldekoen ondorio posible bati buruzko eztabaida bat, gerra-ahalegin posible baten ondorioez, nire iritziz, ia fruiturik gabea gertatu da ez bakarrik gainestimazioen edo azpiestimazio interesatuen nagusitasunarengatik, baizik eta partaideen porrotarengatik arazoa argiro defintzeko. Batzuen jarrera errusiarren aldekoa izan daiteke, noski, ikusi dugunez, sentimenduz edo asmoz halakoa izan gabe. Eta komunista izan daiteke efektiboki errusiarren aldekoa izan gabe. Bariante horiek guztiak –horietako batzuk ez dira garrantzitsuak gizaki baten portaerarako gerra efektiboki deklaratu balitz– arretaz bereizi behar dira.

³⁶ Teoria politiko popularreko artsenal fraseologiko guztiko gaizkien erabilitako bat delarik esaldia, beharrezko da hemen eman nahi zaion esanahia definitzea. Gure asmo mugaturako, hala ere, ez da beharrezko fenomenoaz aztertzea, duela hogeita hamar bat urte argitaraturiko monografia batean egiten saiatu nintzenez, ezta definizio egokia hartzea ere azterketa landu baterako ere. Horren ordeaz aski izango da honako definizioa, nahiz eta erabat askieztat daukadan (hala ere, bateragarria da esamoldeaz liburu honetako IV. eta XI. kapituluetan egindugun erabilerarekin): politika inperialista da politika bat estatuaren nagusitasuna naziokideez bestelako taldeen gain hedatu nahi duena haien borondatea-

ren aurka. Hona hemen zer egin zuen Errusiak, gerra aurretik, Kanpo Mongolia eta Finlandiaren kasuan eta, gerrakoan eta haren ondoren, kasu guztietan. Auzia da politika horrek ez duela kanpotiko ezein muga ezagutzen. Esaldi motibatzaileak muntagabeak dira.

³⁷ Hau beste esaldi bat da bere erabilerak akasduarekin esanahi definitu oro galdu duena. Estatu Batuetako mintzaira arruntean duen erabilerak, izan ere, definizio hau iradokitzen du: faxista da politika, talde edo herrialde oro esaldia ahoz edo idatziz erabiltzen duena atsegin ez duena. Gure testuan, hala ere, esan nahi du, liburu honetan aurkezturiko teoria politikoaren arabera (XXII. kapitulu), buruzagitza monopolistako metodo politikoa konkurrentziakoari kontrajarria. Ohartuko da horrek ez duela esan nahi, aspekturen batean edo beste batean, stalinismoa «gauza

bera dela» hitlerismoa edo faxismo italiarrarekin alderatuta.

³⁸ Irakurleak ohartu beharko ditu izatezko baieztapen guztiak, goiko argudioan eginak edo inplikatuak, egiaztagarriak direla, behar izanez gero, iturri ofizial errusiarretan. Izatez, gure argudiorako interesatzen den gauza bakarra da, batez ere eraentza errusiarraren izaeraren gure diagnosirako, izatezko edozein baieztapenetara jo gabe sostenga daitekeela, zeina eztaidatua izan bailiteke. Nahita uko egin diot ezer aipatzeari, nahiz eta eraentzaren izaeraren argiztapenetarako oso baliozkotzat iritzi, zeinak izatezko auzia planteatzen bailitzake, esaterako herrialde konkistatu edo menderatuetakoa asasinatzeak, preso-kateak Georgian, kontzentrazio-esparruak. Gure argudioa ez litzateke inondik ere afektatua gertuko izugarrikeria dei litekeen zerbait falta izateagatik.

Aurkibidea

HITZAURREA..... 7

BIBLIOGRAFIA 15

I ATALA 17

II ATALA..... 75

III ATALA..... 193

IV ATALA..... 271

V ATALA 347

